

Compilación de
documentos generados
por el Gobierno Vasco
en la Legislatura
2017-2020 en materia de
**derechos humanos
y convivencia**

1. Proyecto general

2. Clarificación del pasado

3. Víctimas

4. Memoria

5. Política penitenciaria

6. Educación

7. Diversidad religiosa

8. Asilo y migración vulnerable

9. Contribución internacional

10. Anexo. Desarme y disolución de ETA

julio de 2020

Secretaría General de Derechos Humanos, Convivencia y Cooperación



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Giza Eskubide, Bizikidetzeta
eta Lanikidetzaren Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General de Derechos Humanos,
Convivencia y Cooperación

Sumario

Presentación general de esta compilación.	4
Presentación de este libro.	6
Documento 1. Informe sobre la extorsión y la violencia de ETA contra el mundo empresarial.	9
Documento 2. Proyecto de investigación de la tortura y malos tratos en el País Vasco entre 1960 y 2014.	51
Documento 3. Informe sobre la injusticia padecida por concejales y concejales que sufrieron violencia de persecución (1990-2011).	65
Documento 4. Informe sobre el caso Pertur: estado actualizado de la cuestión.	111
Documento 5. Informe sobre la desaparición de tres jóvenes coruñeses el 24 de marzo de 1973.	157
Documento 6. Informe sobre la desaparición de José Miguel Etxeberria Álvarez <i>Naparra</i> , el 11 de junio de 1980.	205
Documento 7. Informe sobre los sucesos en la bahía de Pasaia (Gipuzkoa). 22 de marzo de 1984.	253

Presentación general de esta compilación

El 20 de octubre de 2011, en el último año de la IX Legislatura vasca (2008-2012) ETA anunció el “cese definitivo de su actividad armada”. Un año más tarde se celebraron las elecciones autonómicas que dieron paso al primer gobierno presidido por Iñigo Urkullu Rentería (X Legislatura: 2012-2016). Por primera vez después de décadas, la política y la sociedad vasca iniciaban una Legislatura sin la amenaza de la violencia y el terrorismo.

En aquel momento, una de las primeras decisiones adoptadas por el Lehendakari fue la creación de una nueva Secretaría General para la Paz y la Convivencia, adscrita a la Presidencia del Gobierno Vasco y bajo su dependencia directa. Su objetivo fundamental era contribuir a favorecer un final ordenado de la violencia y promover el Encuentro Social.

El 25 de septiembre de 2016 tuvieron lugar nuevamente las elecciones autonómicas vascas. El 20 de octubre de aquel año, el Parlamento Vasco dio inicio a la XI Legislatura (2016-2020). El 23 de noviembre de 2016, Iñigo Urkullu Rentería fue investido Lehendakari por segundo mandato.

En relación con la Secretaría General para la Paz y la Convivencia de la anterior Legislatura, el Lehendakari mantuvo esta estructura pero con algunas modificaciones en cuanto a su denominación y funciones. Así, pasó a denominarse Secretaría General de Derechos Humanos, Convivencia y Cooperación. Incorporó este tercer ámbito, el de *cooperación*, debido a que la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo quedó integrada en su seno. También quedó adscrita a esta Secretaría la coordinación de la respuesta a la crisis humanitaria de las personas refugiadas.

De este modo, en la XI Legislatura la Secretaría ha contado en su estructura interna con la Dirección de Víctimas y Derechos Humanos, la Dirección del Instituto de la Memoria, la Convivencia y los Derechos Humanos, Gogora, y la Dirección de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo.

A lo largo de la XI legislatura como en la anterior, la Secretaría ha contado con un plan estratégico de Legislatura: el Plan de Convivencia y Derechos Humanos 2017-2020. Gogora y la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo han articulado su actividad mediante sendos programas de actuación con rango de plan departamental.

El Plan de Convivencia y Derechos Humanos 2017-2020 fue presentado el 4 de abril de 2017 y aprobado definitivamente el 10 de octubre de ese mismo año. De sus previsiones han emanado 16 iniciativas y un gran número de programas y actuaciones derivados de las mismas.

Esta colección de libros recopila en diez volúmenes los principales documentos generados a lo largo de esta Legislatura en el marco del desarrollo del Plan de Convivencia y Derechos Humanos 2017-2020. Su estructura, atendiendo a sus títulos, es la siguiente: (1) Proyecto general, (2) Clarificación del pasado, (3) Víctimas, (4) Memoria, (5) Política Penitenciaria, (6) Educación, (7) Diversidad religiosa y (8) Asilo y migración vulnerable, (9) Contribución internacional, y (10) Anexo: Desarme y disolución de ETA.

Este segundo libro contiene los documentos relativos a proyectos e iniciativas vinculados al ámbito de la clarificación del pasado.

La agenda de los derechos humanos tras la Covid-19

Entre la Legislatura que terminó en 2016 y la que ha terminado en 2020, hubo otra modificación significativa relacionada con la denominación de esta área del Gobierno Vasco; pero con un importante fondo conceptual. La Secretaría paso de ser de “paz” y “convivencia” a ser de “derechos humanos” y “convivencia”. Detrás de este cambio se encontraba un diagnóstico de situación formulado a final de 2016:

“La paz, asociada al final de un tiempo marcado por el terrorismo y la violencia, había pasado a ser socialmente percibida como una agenda que estaba quedando atrás. Se trataba de una agenda pendiente, relacionada con el pasado. La convivencia vinculada a los derechos humanos representaba una formulación que, sin olvidar los retos pendientes, buscaba una mejor adaptación a los desafíos de un mundo cambiante y rodeado de incertidumbres. Se trataba de una agenda emergente de los derechos humanos y la convivencia vinculada al presente y al futuro”.

Aquel diagnóstico fue certero. El tiempo de la XI Legislatura vasca, en este ámbito, pasará a la historia por dos hechos fundamentales:

- Por una parte, el desarme de ETA el 8 de abril de 2017, y su disolución definitiva el 3 de mayo de 2018. Todo ello como secuela y signo anacrónicos de un pasado que, además de injusto, era inasumible e insostenible en la sociedad vasca y europea de nuestro tiempo.
- Por otra parte, la consolidación en la sociedad vasca de una nueva agenda de preocupaciones e inquietudes sociales relacionadas con los derechos humanos, la igualdad, la justicia, el medio ambiente, las migraciones, las personas refugiadas, la libertad...

En 2020, sigue quedando una agenda de tareas pendientes vinculadas al final de ETA, principalmente en tres ámbitos: las políticas públicas en materia de víctimas, la reflexión crítica y compartida en relación con la memoria y con ETA, y una política penitenciaria de consenso y convivencia.

No obstante, la agenda vasca de los derechos humanos es cada día más la agenda global de los derechos humanos. Esta reflexión sobre la transición desde una agenda local vinculada al pasado, hasta su plena confluencia actual con la agenda global de los derechos humanos marca el inicio de la XII Legislatura (2020-2024).

Como se ha reseñado, aquel diagnóstico de finales de 2016 subrayaba la necesidad de “adaptación a los desafíos de un mundo cambiante y rodeado de incertidumbres”. Nada de lo conocido hasta ese momento, podía simbolizar mejor el cambio y lo incierto como la pandemia de la Covid-19, que se hizo presente en todo el planeta a principios de 2020. La Legislatura XI también pasará a la historia porque su periodo final estuvo monopolizado por sus efectos.

Aquella vivencia local y planetaria no ha hecho sino reforzar y corroborar el enraizamiento en Euskadi de la agenda global de derechos humanos. Si aquella apelación a una nueva mirada a la realidad del mundo era una reflexión conceptual, tras la pandemia se trata de un imperativo de realidad. Estamos ante un cambio de paradigma del que todavía desconocemos su alcance y consecuencias.

Algunas de las nuevas preguntas están ya formuladas. No, sin embargo, todas las respuestas. En el ámbito de actuación de esta Secretaría hay dos preguntas importantes: primera, ¿cómo se expresarán las nuevas formas de vulneración y vulnerabilidad de los derechos humanos?; y segunda, ¿cómo deberán plantearse las políticas públicas de defensa y promoción de los derechos humanos en la nueva realidad perfilada tras la pandemia?

Algunos debates sobre las consecuencias de la Covid-19 anticipan una profunda pugna sobre el valor jerárquicamente superior de los derechos humanos. Poderosas corrientes de opinión e influencia global propugnan el desdén de su valor o, en todo caso, su supeditación a otros valores nucleados en torno al eje ideológico de un individualismo materialista.

Se trata de una visión ideológica que minusvalora el sentido de lo comunitario y la búsqueda del bien común como un “*buenismo*” estéril, e incluso contraproducente, y que prioriza valores como el localismo, el “sálvese quien pueda”, la seguridad, el proteccionismo, o el liderazgo del mercado frente a la política, entre otros.

La defensa de los derechos humanos y, en consecuencia, el deber de solidaridad representan la gran tarea de las próximas décadas. Lo que nos estamos jugando es si el centro de gravedad del mundo tiende hacia el eje de la solidaridad o, por el contrario, profundiza en el eje del individualismo, tanto en su proyección en la conciencia de la ciudadanía como en su plasmación en los diferentes ámbitos de la política local, nacional o internacional.

Tras la Covid-19, con más motivo aún, va a ser necesario seguir profundizando en una agenda local y global de la solidaridad, la igualdad, la inclusión y los derechos humanos. Los Objetivos de Desarrollo Sostenible de la Agenda 2030, con los que el Gobierno Vasco está comprometido en el conjunto de su acción, constituyen un punto de partida en este nuevo ciclo. Este es el panorama de incógnitas y referencias con el que termina la XI Legislatura vasca y se inicia la XII.

Presentación de este libro

“Cuando una sociedad ha sufrido una vivencia traumática y sostenida de terrorismo, violencia y división, una reconstrucción sana de la convivencia y el afrontamiento del futuro necesitan abordarse desde dos presupuestos: el reconocimiento y reparación de las víctimas, por un lado; y el ejercicio de una memoria crítica del pasado, por otro.

Estos dos pilares, complementarios entre sí, se asientan en la clarificación rigurosa de todas las vulneraciones de derechos humanos padecidas. La verdad de los hechos objetivos es el cimiento que permite el reconocimiento de todas las víctimas así como el ejercicio de una memoria no arbitraria ni sesgada, sino basada en hechos contrastados con rigor.

La clarificación de lo ocurrido es el punto del partida para confrontarnos social, política e institucionalmente con nuestro pasado y poder elaborarlo de un modo constructivo. Sin embargo, no es tarea sencilla porque las visiones parciales, que adecúan la lectura de lo sucedido al interés partidario o ideológico, resultan más cómodas. Una clarificación integral de las vulneraciones de derechos humanos se topa habitualmente con resistencias y oposiciones de signo diferente. A pesar de ello, abordar esa clarificación resulta fundamental desde un punto vista ético, pedagógico y de convivencia.”

Estos tres párrafos están literalmente tomados del segundo libro de la compilación realizada al final de la anterior Legislatura. La vigencia de su contenido se mantiene intacta para explicar la filosofía que ha sustentado la actuación del Gobierno Vasco en materia de clarificación del pasado a lo largo de esta Legislatura.

La gestión del Plan de Convivencia y Derechos Humanos 2017-2020 en este ámbito se ha centrado en la recuperación de fragmentos de verdad. Esta filosofía ha permitido que en estos cuatro años se hayan abordado diferentes estudios orientados a este objetivo. Cada uno de ellos representa una pieza que contribuye a recomponer el puzle de lo ocurrido en materia de vulneraciones de derechos humanos.

En esta reconstrucción, el **Documento 1** recoge el primer trabajo de clarificación del pasado presentado en esta Legislatura. Se trata del “Informe sobre la extorsión y la violencia de ETA contra el mundo empresarial”. Esta investigación, realizada por el Centro de Ética Aplicada de la Universidad de Deusto, recuerda que uno de los colectivos más afectado por el terrorismo, y a la vez más invisibilizado, fue el integrado por empresarios, ejecutivos y profesionales liberales, que fueron objeto de extorsión, amenazas, persecución, secuestros y atentados.

El **Documento 2** presenta la Investigación sobre la tortura en Euskadi. En marzo de 2014, el Gobierno Vasco encargó al Instituto Vasco de Criminología, bajo la dirección del forense Paco Etxeberria, la elaboración de una profunda investigación sobre la realidad de la tortura en Euskadi entre 1960 y 2013. El objetivo del estudio es desvelar la incidencia real de este fenómeno a lo largo de estos 50 años y establecer las conclusiones en materia de reconocimiento, reparación y prevención a que hubiera lugar. El Informe final fue presentado el 18 de diciembre de 2017. En este libro, por su extensión, se presenta el resumen ejecutivo de dicha investigación.

El **Documento 3** presenta el “Informe sobre la injusticia padecida por concejales y concejales que sufrieron violencia de persecución (1990-2011)” realizado por el Instituto de Derechos Humanos Pedro Arrupe de la Universidad de Deusto. Aunque de un modo tardío e imperfecto, las familias de víctimas asesinadas o las víctimas heridas han tenido un marco legal e institucionalizado de reconocimiento y reparación. Sin embargo, las personas que han padecido la amenaza de ETA han vivido en un contexto de invisibilización de su realidad. Este estudio constituye una pieza más que contribuye a desvelar y reconocer el padecimiento y la injusticia sufrida por los miles de personas, en este caso, concejales, que durante años sufrieron, día a día, la amenaza de perder su vida violenta e injustamente.

En este segundo libro se incorporan tres documentos que forman parte de la colección “Derechos humanos. Informes monográficos y estudios de caso”, y que se refieren a los casos de las cinco personas que todavía permanecen desaparecidas: Eduardo Moreno Bergaretxe, José Humberto Fouz Escobero, Jorge Juan García Carneiro, Fernando Quiroga Veiga y José Miguel Etxeberria Álvarez. La presentación de estos informes fue concebida también como un acto de reconocimiento institucional expreso a las familias de estas cinco

personas. Reconocimiento por el daño injusto padecido y por el sufrimiento agravado que, a lo largo del tiempo, supone enfrentar la desaparición forzosa de una persona allegada.

De este modo, el **Documento 4**, presenta el “Informe sobre el caso Pertur: estado actualizado de la cuestión”. El **Documento 5** reproduce el “Informe sobre la desaparición de tres jóvenes coruñeses el 24 de marzo de 1973”. El **Documento 6** recoge el “Informe sobre la desaparición de José Miguel Etxeberria Álvarez *Naparra* el 11 de junio de 1980”. Estos informes han sido realizados por la Cátedra de Derechos humanos y Poderes públicos de la UPV por encargo de la Secretaría General de Derechos Humanos, Convivencia y Cooperación dentro del marco del Convenio de colaboración entre ambas instituciones.

Dentro de esta misma colección sobre informes monográficos, relacionados con la investigación de estudios de caso, el **Documento 7** presenta el “Informe sobre los sucesos en la bahía de Pasaia (Gipuzkoa). 22 de marzo de 1984”. José María Izura Sanz, Pedro María Isart Badiola, Rafael Delas Aizkorbe y Dionisio Aizpuru Arbelaitz, integrantes de los denominados Comandos Autónomos Anticapitalistas, sufrieron un ametrallamiento policial que acabó con sus vidas. Un velo de ocultamiento acompañó las investigaciones de aquellos hechos.

En este mismo ámbito de la clarificación del pasado reciente, la Secretaría General de Derechos Humanos, Convivencia y Cooperación y Gogora han apoyado o subvencionado otros estudios así como la elaboración de documentales como: *Lagun y la resistencia civil a ETA*, *Vitoria 3 de marzo y Ez, eskerrik asko! Gladysen leihoa*,

Dentro de la XI Legislatura, la Secretaría General de Derechos Humanos, Convivencia y Cooperación también encargó al Instituto de Derechos Humanos Pedro Arrupe de la Universidad de Deusto, la elaboración de un “Informe sobre la injusticia padecida por el colectivo de Fuerzas de Seguridad del Estado y sus familias a consecuencia de la amenaza de ETA (1960-2011)”. Su finalización, edición y presentación está prevista para finales de 2020. No es posible, por ello, incorporar este informe a esta compilación. En todo caso, y una vez sea presentado, estará disponible en la página web de la Secretaría.

El trabajo de impulso de informes de clarificación del pasado desarrollado en esta Legislatura se complementa con el desarrollado en la anterior. En el periodo 2013-2016 se elaboraron otros cuatro documentos de investigación centrados en la clarificación de parte de nuestro pasado. En definitiva y a modo de balance, entre 2013 y 2020 hemos avanzado en materia de clarificación de las violaciones de derechos humanos sufridas, tanto desde el punto de vista del desvelamiento de hechos y realidades de injusticia como de su valoración crítica y cualitativa.

Hemos empezado la presentación de este libro remitiéndonos a varios párrafos que aparecían en el libro sobre clarificación del pasado de la compilación de la anterior Legislatura. Por su valor y actualidad, terminamos empleando también algunos de los párrafos que culminaban este segundo libro en su edición de hace cuatro años.

“Clarificar el pasado significa desvelar lo ocurrido y también crear condiciones y garantías de no repetición. Sin esta condición el pasado no se clarifica ni supera porque su amenaza alcanza al presente y se proyecta al futuro. (...) Queda trabajo por hacer; pero la base establecida en este periodo ha creado condiciones adecuadas para que la continuidad de este proceso atienda a dos premisas fundamentales.

·Primera, la clarificación del pasado no puede ser parcial o sesgada por intereses partidarios o políticos, sino global, y debe venir únicamente determinada por un compromiso integral con los derechos humanos y la convivencia.

·Segunda, la clarificación de violaciones de derechos humanos de distinto signo no puede utilizarse para difuminar, diluir, equilibrar o justificar unas violencias con otras, sino para abordar, desde un compromiso ético y no demagógico con los derechos humanos, una valoración expresa y específica de cada una de ellas.”



A large, stylized grey number '1' is positioned in the center-right of the page. Below the number is a solid grey circle.

dokumentua



ETAk enpresa-munduaren aurka
eragindako estortsioari eta indarkeriari
buruzko txostena

ETAk enpresa-munduaren aurka eragindako estortsioari eta indarkeriari buruzko txostena

Ebaluazio-taldea:
Izaskun Sáez de la Fuente Aldama (koord.)
F. Javier Arellano Yanguas Galo Bilbao Alberdi
Xabier Etxeberria Mauleon Jesús Prieto Mendaza

Deustuko Unibertsitateko
Etika Aplikatuko Zentroa

2017ko martxoa

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren
enkarguz egina

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz
y la Convivencia

Aurkibidea

- 1. Sarrera.**
 - 1.1. Ikuspegia eta helburuak.
 - 1.2. Metodologia.
- 2. Estortzioaren agerpenari eta bilakaerari buruzko datu esanguratsuak.**
- 3. Biktimen ikuspegia.**
 - 3.1. Estortzioaren biktimen tipologia: prebentzioko laguntzailetik hildako enpresaburura.
 - 3.2. Biktimen dilema moralak zuhurtziazko etikaren aurrean.
 - 3.3. Estortzioaren ondorioak.
- 4. Kaltegile estortsiogileak: moralgabetasunaren muina.**
- 5. Bitartekariak, prozesuaren itzaleko pertsonaia aktiboak.**
 - 5.1. Biktimaren aldeko bitartekaritza.
 - 5.2. Kaltegilearen aldeko bitartekaritza.
 - 5.3. Gizartearen aldeko bitartekaritza.
 - 5.4. Norberaren onerako bitartekaritza.
- 6. Erantzukizunaren zirkuluak: gizartetik estatura.**
 - 6.1. Gizartea.
 - 6.2. Alderdi politikoak.
 - 6.3. Enpresaburuen elkarteak.
 - 6.4. Estatua.
- 7. Administrazio publikoentzako gomendioak.**
 - 7.1. Abiapuntua eta helburua: biktima izatea aintzatestea.
 - 7.2. Funtsezko kontu bat: nola itzultzen dira biktima horien eskubideak?
 - 7.3. Alderdi juridiko oso korapilatsua: estortzioa jasaten duenaren jarduna inguratzen duten delituak.
- 8. Bibliografia.**

1. Sarrera

2016ko martxoan, ETak enpresa-munduaren aurka eragindako estortsioari eta indarkeriari buruzko txosten bat eskatu zion Deustuko Unibertsitateko Etika Aplikatuko Zentroari (EAZ) Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritzak. Txosten hori EAZk azken lau urteetan gidatu duen diziplinarteko azterlanetik ateratako ondorio nagusietako batzuetan oinarritzen da, eta politika publikoetarako zenbait gomendio biltzen ditu.

Txostena sarrera honekin hasten da. Helburuak eta erabilitako metodologia argitzen dira hemen, biktimak bizikidetzaren demokratikoa berronertzeko ardatz hartzen dituen ikuspegi etikotik. Bigarren kapituluak ETAren estortsioaren agerpenari eta bilakaerari buruzko inkognita batzuk argitzen edo zehazten dituzten datuak ematen dira. Hirugarren kapituluak, zabal eta trinkoenean, biktimak dira arreta gunea: estortsioa pairatu zuten pertsona guztiak biktima direla azpimarratu ondoren, haren aurretik eta ondoren izan zituzten portaerak gorabehera, tipologia bat aletzen du, pairatutako biktimizazioaren intentsitatea irizpide hartuta, estortsioa jasaten dutenek aurre egin behar dieten dilema moralak zuzentzeko etikaren pean birkokatzen ditu eta xantaia-prozesuek eragindako ondorio nagusietako batzuk aztertzen ditu. Laugarren kapituluak kaltegileak aztertzen ditu: praxi beldurtzailea zuzentzeko azterna oro deuseztatu ondoren, haien sendatze moraleranzko bidea erakusten du, haiek eta kide izandako erakunde terroristak eragin zituzten biktimen eskutik beti. Bosgarrenak bitartekaria aztertzen du. Pertsonaia garrantzitsua da estortsio-prozesuen kudeaketan eta oharkabean igaro izan da bere izaeragatik beragatik: haren balorazio etikoak estuki lotuta dago honako galdera honi: noren alde egin zuen bere lana (biktimaren, kaltegilearen, gizartearen edo bere buruaren alde)? Seigarrenak gizartearen eta haren erakunde nagusietako batzuen jokabidea aztertzen du; izan ere, haren demokraziaren kalitate etiko eta politikoaren adierazle nagusietako bat da. Txostena amaitzeko, gomendio batzuk egiten zaizkie erakunde publikoei, biktima izaera aintzatestearen inguruan ardaztuta. Horretarako, zenbait kontu eztabaidatu eta haientzako erantzuna bilatu behar da; besteak beste, biktima horiek egitarako, justiziarako eta konponketarako dauzkaten eskubideak asetzeari eta estortsioa jasan duenaren jardunak ingura ditzaketen delituei aurre egitea.

1.1. Ikuspegia eta helburuak

1.1.1. Estortzioa, hutsune ezkutua erakunde terroristari buruzko ikerketan

ETAren terrorismoak sufrimenduz, herioz eta suntsiketaz bete ditu gure kaleak. Indarkeriak eragin erabakigarria izan du eguneroko bizimoduan eta, haren ondorioz, herritarren sektore gero eta zabalagoek bizi behar izan dute urteetan eta are hamarkadetan eskolta baten gerizpean. Euskal gizarte osoa izan da indarkeriaren biktima. Baina adierazpen horrek ez du aitzaki izan behar erakunde terroristak, gizartearen zati esanguratsu baten txaloen eta adostasunaren pean eta beste zati baten axolagabekeria isilaren pean, pertsona jakinei eragin dien sufrimenduaren tamaina lausotzeko edo arinkiaz tratatzeko. Talderik kaltetu eta ikusezinenetako bat enpresaburuek, exekutiboek eta lanbide liberaletako profesionalek osatzen dute; mehatxuak, jazarpena, bahiketak eta atentatuak jasan dituzte¹. Talde horrek indarkeria mota berezi bat jasan du, estortzio ekonomikoa, estortzioa egiten zionaren jarduera hilgarriaren derrigorrezko finantzazaille bihurtzeko asmoz. ETAk sarrerak beste iturri batzuetatik ere lortu bazituen ere, bere funtsetako asko enpresei eragindako larderiako presioaren bidez lortu ditu.

ETAren aurkako indarkeria aztertu gabe dago, talde horren ekintza terroristei eta haren aktibisten bizitzari, erakunde armatuaren eta haren ingurune politikoaren bilakaera politikoari, eta haren jardueren biktimei buruz mota askotako hainbat azterlan egin badira ere. Gai horri buruzko eztabaidarik ez dagoela ikusteak agerian jartzen ditu erakunde publikoetan, gizarte erakundeetan eta zenbait estamentutan, hala nola unibertsitatean, izan ditugun gabezia larriak; eta berrikusi egin behar ditugu. Hutsune hori konpontzeko, Deustuko Unibertsitateko Etika Aplikatuako Zentroak (EAZ) —azterlana hasieran bultzatu zuen Bakeaz erakunde desagertuaren lekukoa hartuta—, ikerketa proiektu baten garapena gidatu zuen lau urtez (2012-2016). Haren helburua euskal enpresaburuek pairatutako indarkeria diziplinarteko ikuspegitik aztertzea eta dokumentatzea izan da, bereziki haren bi alderdiri helduz: estortsioari eta bahiketari. Txosten honetan haren emaitza nagusietako batzuk aurkezten dira. Emaitza horiek barne mintegiak eginez egiaztatu eta aberastu dira, landutako arloetako adituen lankidetzan izanik².

1.1.2. Lekukoaren zentraltasuna oroimenaren eta bizikidetzaren berroneratze etikoaren zerbitzura

Shlomo Ben Ami israeldar politikari, diplomatiko eta historialariak oroimenari datxekion gatazka eta haren konponezina azpimarratzen ditu; izan ere, justiziaren eta bakearen artean hautatu behar da, haren iritziz. Bakean bizitzeko bidea orria pasatzea da, politika biziei baitagokie eta ez hildakoei. Baina bakea indarkeriarik eta hertsadurarik eza baino gehiago da. Reyes Matek (2009) —eta txosten hau bat dator jarrera horrekin— oroimenaren eta politikaren arteko gatazka gainditu daiteke baldin eta, Walter Benjaminek argudiatzen zuenez, bizien justiziaren eta hildakoei justizia egitearen arteko lotura ezartzen bada, gabezia orainera ekarriz.

Horretarako, hil ez diren —gehienak aztertutako gaien— edo, nahi bada, «ahantzuraren heriotza» pairatzen duten biktimak ere izan behar dira gogoan. Oroimenerako, iraganaren, orainaren eta etorkizunaren arteko lotura aztertu behar da ikuspegi soziologiko eta etikotik; hots, iraganak etorkizunarentzat duen esanahi politikoa eta etorkizuna eraikitzeko duen erabilgarritasuna aztertu behar dira (Halbwachs, 2004).

Gaur egun, oroimenari buruz dauden eztabaidetako asko Auschwitzen ondoren sortu dira; gaizki erradikalarren laborategia izan zen hura eta, bertan, bi lege mota geratu ziren agerian, indarkeriazko ñabardurak dauzkaten hainbat gatazkatan mimetikoki errepikatu ohi direnak. Ikusiko dugunez, bi lege mota horiek behin eta berriro agertuko dira txosten honen aztergaietan. Lehenengoa, krimen bereko heriotza bikoitzaren legea: heriotza fisikoa eta heriotza hermeneutikoa (*gaizkiaren legea*). Hilketen aurretik, bitartean eta ondoren, ikusezin bihurtzeko diskurtsoa oso produktiboa da xede kriminaletarako eta haiek hutsaltzeko. Bigarren legea «oroimenerako betebeharra» da, biziraun duten biktimen oihuari estuki lotutako justizia agindu kategoriko bat (*ongiaren legea*). «Inoiz gehiago ez» basakeria ez errepikatuzko printzipioa betetzeko ezinbestekoa

¹ *Vidas rotas* obraren arabera, ETAk hildako pertsonetatik 33 negozio-gizonak ziren, 55 langile kualifikatuak eta 50 autonomoak (Alonso, Domínguez eta García, 2010: 1228). Eta, López Romoren (2015) datuen arabera, bandak 1968 eta 2001 artean informazioa bildu duen pertsonen % 11,7 kategoria horietakoak ziren.

² Zati batean, behintzat, zorretan dago txosten hau pertsona hauen ekarpenekin: Florencio Domínguez, F. Javier Merino, Gaizka Fernández Soldevilla, Kepa Aulestia, Pablo Díaz Morlán, Teo Santos eta José María Ruiz Soroa.

da egindako kaltea eta haren bidegabekeria salatzea eta biktimen oroimenari bizirik eustea. Herritarren bizikidetzaren eta belaunaldi berrien sozializazioaren berroneratze etikoaren funtsezko oinarria izan behar da printzipio hura, emozioen kudeaketa egokiaren bidez (Camps, 2012; Nussbaum, 2014) eta, bertuteen ikuspegi etikotik, sufrimenduaren eta indarkeriaren aurreko errukia eta sumina bultzatu eta gorrotoaren eta bazterkeriaren bideak eten behar ditu.

Biktimen oihuaren bertsio hermeneutikoak ahanztura berez betetako iragarpena bihurtzeko tentazioa ez izaten lagundu behar digu; baina ez hori bakarrik, kaltegile izen zirenen oroimenaren manipulazioa edo, haien errealitatearen ikuspegia partekatuz eta haien indarkeriazko jardunbideei babesa emanaz, zuzenean edo zeharka haien laguntza ere ekiditea ahalbidetu behar digu. Oroimenaren manipulazioak akats etiko sakinak erakusten ditu, biktimak eta kaltegileak erantzukizun kolektiboko estalki nahasgarri baten pean nahasteen. Zenbait estrategiak, hala nola negazionismoak, errebisionismoak, desitxuratzeak edo parekatzeak (Alonso, 2012: 14) hedarazten dituzten diskurtsoen funtsa denok akatsak egin ditugula onartu beharra da —«denok gara errudunak», eta haren korrelatua «inor ez da erantzulea» da. Diskurtso horrek nolabaiteko distantziakidetasuna darabil zeinak, kontziente edo inkontzienteki, krimenak egin dituztenak errugabetzea eta haien zigorgabetasuna erraztu eta biktimak birbiktimizatzea ekar baititzake. Horregatik, politika publikoek herritarrek adi egon ahal izatea eta diskurtso nihilista, errugabetzaile eta etorkor oro, mende erdiz erabilikoa indarkeria testuinguruan jartzen duena, deslegitimatzen sakontzea erraztu behar dute.

Jakin badakigu estortsioaren biktimek hainbat jarrera, batzuetan kontrakoak, dauzkatela pairatutako biktimizazio-prozesuekin egin behar denari buruz. Batzuk gerta daitekeenaren beldur dira oraindik, edo zalantza egiten dute zauri zaharrak berriz irekitzea egokia den. Beste batzuek, ordea, egia, justizia eta konponketa-rako duten eskubidea bermatzeko eta sozial eta politikoki ez errepikatzearen printzipioa, «inoiz ez gehiago» delakoa, bultzatzeko baldintzak sortzen laguntzearen alde egiten dute; edo are logika biak, ahaztu beharre-rena eta gogoratu beharre-rena, kontrakoak eman badezakete ere, batzuetan lekukotasun bereberean gain-jartzen dira. Txosten honetan heldu zaion gogoeta prozesuak biktimak moralki osatzeko eta ez erruduneste-ko aukerak ekarri nahi dizkio etorkizunari.

Oroimenean elkartasuna erakusten duten komunitate horiek eraikitzeko biktimek zentraltasuna izan dezaten, garrantzi berezia eman behar zaio *lekukoaren lekukotasunari*, biziraun duten biktimen edo hildako, bahitutako edo estortsioa jasandako pertsonengandik afektiboki hurbilak izateagatik biktima direnen lekukotasunari. Indarkeriaren biktima batek bere esperientzia kontatzen duenean, orainetik eta bere subjektibotasunetik gogoratzen du (*gertakarien atzera begirako ikuspegia*). Hori ez da aitzaki gisa erabili behar biktimizazio-prozesuaren eta hari datxekion sufrimenduaren garrantzia edo haren bidez erakusten den egia morala gutxietsi edo erlatibizatzen. Oroimena kritikoki berronartzeko, lekukotasun horiek (edo haien birsortze artistikoa edo literarioa) akademikoki osatu eta argitu behar dira, filosofiak eta gizarte zientziek ematen dituzten bestelako iturriak eta hurbiltzeko tresnak erabilita (Etxebarria, 2013: 179-183).

1.2. Metodologia

Txosten hau eragin duen proiektuak bi iturri mota erabili ditu, bata dokumentala eta bestea lekukotasunen bilketan oinarritua. Gaia jorratzen duten dokumentuak aztertu ziren, argitaratu direnak eta zenbait artxibategi eta hemerroteketan daudenak: monografia espezializatuak, aldizkarietako eta prentsako artikulak edo iritzi-azterketak. Azterketa horri esker gai batzuetarako iturririk, hausnarketarik eta saiakerarik ez dagoela hauteman ahal izan da. Izan ere, gertakari horren bereizgarrietako bat ikusezin izatea da eta ikerketa sakinak baino ezingo dute hori zuzendu. Baina, gainera, hasieratik, gure ikuspegia eta lekukoei ematen dien garrantzia direla-eta, gure lan-eremuaren giltzarria deritzogu indarkeriaren biktimen euren, haien senideen eta, kaltetuak izan gabe, euren espezializazio akademikoagatik edo lanbideagatik —hala nola analistak, agintari politikoak, abokatuak, enpresa-erakundeen arduradunak, sindikalistak, intelektualak eta abar— ikerketaren zenbait alderdi argitu zitzaizketen pertsonen ikuspegiari. Ikuspegi hori biltzeko bi tresna osagarri erabili ziren: hirurogeita sei elkarrizketa sakon, zeinetan informatzaileek euren esperientziak kontatu baitzituzten, eta ehun eta berrogei *on line* galdetegi. Informatzaileetako askok ordaindu ez zutela adierazi zuten. Gizartean zilegi eta onargarritzat (eta ez lotsagarritzat edo laido soziala eta are jazarpen judiziala jasateko modukotzat) hartzen diren portaera-ereduekin bat datozen jarrerak eta jokabideak erakuts zitzaizketen pertsonak euren lekukotasuna errazago emateko prest egon ziren. Logikoa da.

Elkarrizketak egiteak eta transkribatzeak denbora hartu zuten; izan ere, hasieran bereziki, zeuden baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak urriak ziren eta, batez ere, zailtasunak zeuden informatzaileek landa-la-

nean parte hartzeko. Egindako hiru kontaktutatik bat baino ez zen aurrera atera. Zenbait arrazoi egon ziren horretarako eta haien artean ezin dugu alboratu biktimen aldartea, beldurretik eta eszeptizismotik sumin eta amorruraino doazen sentimenduen eraginpean. *On line* galdetegiari dagokionez, gai bereziki korapilatsua izan zen, bai haren diseinu teknikoari, bai informatikoki gauzatzeari dagokienez.

Proiektu mota eta erabilitako metodologia direla-eta, bereziki zorrotzak izan behar izan genuen ikertzaileen erantzukizun etikoari dagokionez. EAZk eta jardun zuten ikertzaileek baimen informatuaren, konfidentialtasunaren eta anonimotasunaren printzipioetan oinarritutako konpromisoa hartu genuen landa-lanean parte hartu zuten informatzaileekin.

- Azterlanaren helburuak, eskatutako parte-hartzearen mota eta irismena, eta ikerketaren emaitzen erabilera argitu zitzaizkien lehenbizi elkarrizketatu behar ziren pertsoneri. Halaber, emango ziguten informazioa erabiltzeko baimena eskatu zitzaien.
- Bestalde, ikerketa-taldeak baino ez zekien partaideen identitatea eta, gainera, haiek identifikatzeko bidea eman zezaketen datuak ez zabaltzeko konpromisoa hartu zuen kide bakoitzak, dokumentu bat sinatuta. Anonimotasuna bermatzeko, sakoneko elkarrizketen grabaketak eta hitzez hitzeko transkripzioak kode alfanumeriko batekin erregistratu eta artxibatu ziren, ekipo informatiko bateko fitxategi enkriptatu batean; azterlana amaitutakoan, eta informatzaileek kontrakoa adierazi ezean, grabaketak eta transkripzioak Deustuko Unibertsitateko EAZn geratuko dira gordailuan. *On line* inkestari dagokionez, erabili zen teknologia anonimotasuna bermatzen du, aplikazioan bertan azaltzen zenez.

Komenigarria da argitzea zer espero daitekeen eta zer ez *on line* elkarrizketa eta galdetegietatik. Kasu bietan, Etika Aplikatuako Zentroak bultzatu zuen parte-hartzea baina, bere izaeragatik beragatik, ezin genuen kontrolatu azkenean galdetegi birtualak betetzea nortzuek erabakiko zuten. Elkarrizketei dagokienez, berriz esan behar dugu haiekin nahitako lagin bat diseinatu genuela eta, beraz, ez daukala batere asmorik adierazgarritasun estatistikoa izateko eta, azpimarratu denez, gai hain labaina izateak erabat baldintzatu zuela informatzaileengana iritsi ahal izatea. Gai batzuetan diskurtsoak duen saturazioa, ordea, nahiko adierazle fidagarria da kontaktutako bizipen asko partekatutako direla ondorioztatzeko.

Analisiaren ikuspegia zehaztean adierazi dugunez, beren bizipenak kontatzen dituztenean, biktimen euren ikuspegitik egiten dute eta iragana orainetik gogoratzen dute. Haien ekarpenak funtsezkoak dira pairatutako biktimizazio-esperientzien subjektuarentako berreraikitzerako: nola sortu eta gertatu zen estortzio-prozesua, nola bizi izan zuten eurek eta haien familiek, zer dilemari egin behar izan zioten aurre, zer erabaki hartu zuten eta nola eta zergatik egin zuten, gizartearen eta erakundearen sostengurik sentiutu zuten, eta abar. Baina, berriz esango dugu: aktore sozial, ekonomiko eta politiko jakin batzuen portaera objektibatzen edo bizi izandako dilemen gako etikoetatik interpretatzeko beste iturri mota bat erabili behar da. Beste erkaketa hausnartua ahalbidetzen dute haiek, ahozko iturri horien hermeneutikari heltzeko erabilitako diziplinen berezitasun epistemologiko eta metodologikoekin bat datorrena.

Azken batean, zorrotzasun akademikoan eta zintzotasun intelektual partzial eta ez neutralean oinarritutako azterlan baten emaitza da txosten hau. Partziala, hemen eskaintzen den estortzio-prozesurako eta haren zokoetarako hurbilketa zenbait diziplinatik, eta ez beste batzuetatik, egindakoa delako, gertakariaren opakutasunak eta iturriak eskuratzeko zailtasunek baldintzatuta. Kokatua eta ez neutrala, alteritatearen etiketatik (Levinas, 2011) biktimen ikuspegia hartzen dugulako erreferente epistemologiko eta arautzaile. Beren biktimizazio-prozesuen kontaktaren bidez, funtsezko faktorea dira haiek gertatutakoaren egia morala argitzeko eta nahastutako gainerako aktoreen portaera ebaluatzeko.

2. Estortsioaren agerpenari eta bilakae-rari buruzko datu esanguratsuak

Sarreran adierazi dugunez, ezinezkoa da ETAREN jarduera terrorista haren ekonomia kriminaletik bereiztea, eta azken hura lapurreten, bahiketen eta estortsioaren bidez egin zuen presiotik. Ondorio esanguratsuak atera badaitezke ere, batez ere poliziak goi-karguen edo erakundearen ekonomiaren arduradunen atxilo-keta dela-eta bahitutako dokumentuen bidez, lortutako emaitzak nolabaiteko zuhurtziaz hartu behar dira, zalantzarako tartea utzirik.

Etakideek urteak behar izan zituzten euren borroka bereziari ekiteko behar zuten dirua lortzeko. Erakundea armazko lapurreten bidez autofinantzatzeko gai izan arte, diru-iturria haren kideen harpidetzak eta haren aldekoen dohaintzak izan ziren. 1964 baino lehenago, zuzenean ere biltzen zuten dirua ETAK, bere ordezkarien bisitaren bidez. Sistemaren funtzionamendua nahiko erraza da: erakundearen ordezkariak negozioen jabeen edo zuzendarien aurrean agertzen ziren, hasiera batean ideologia abertzalea zutenen aurrean baino ez, eta, euren jardueren eta beharizan larrien berri eman ondoren, laguntza finantzarioa eskatzen zieten. Ustez, dohaintza horiek borondatezkoak ziren, baina horri buruz nolabaiteko anbigutasuna dago jardun horren hastapenetatik eurretatik. Hirurogeiko hamarkadaren erdialdeaz geroztik, laguntzeari uko egiten zieten aurkako mehatxuak esplizituak izan ziren, baina hurrengo hamarkadaren hasierara arte, frankismoaren azken orduetan, ez zuten *Los Cabras* zeritzenez³ sortu zerga iraultzailea izen okerreaz ezagutzen dena. ETApM-k lehenago eta Komando Autonomo Antikapitalistek eta ETAm-k gero, berehala kopia eta doitu zuten sistema, azken talde horri irabazi handikoa gertatu zaiona. Lehenengo ahaleginak gorabehera, ETAK Ángel Berazadi eta Javier Ybarra bahitu eta hil arte baino ez zen estortsioa emaitzak ematen hasi, enpresaburuek ez zirelako talde terroristaren nahiei amore eman euren buruen gainean hiltzeko mehatxu sinesgarria egon arte⁴.

Kalkulatzen denez, 10.000 pertsonak baino gehiagok jasan dute xantaia (Domínguez, Fernández Soldevilla eta Merino, 2015: 42). Florencio Domínguezek darabiltzan datuen arabera⁵, 2008 arte estortsioa jasan zuten enpresaburuen kopurua bederatzi milatik gorakoa da, 1993az geroztik ETAK gutunetan sartu zituen kode alfanumerikoak aztertuta segurtasun-indarrek finkatu ahal izan zutenaz. Xantaia 2010 arte luzatu zenez, kalkuluen arabera, 1993tik ordura arte, xantaia jasan zutenen kopurua hamar mila ingurukoa izan liteke; haren iritziz, prozesuaren hastapenetatik berrogeita hamarreko hasierara arte eragindako pertsonen kalkulua «izugarri zaila da».

Gai honi aurre egitean edonork bere buruari egiten dion beste galdera bat da ea biktimek ordaindu zuten eta, askotan, haren judizio morala erabakia bata ala bestea izatearen araberakoa izango da. Ezinezkoa da ia ziurtasunez jakitea. *Relatos de plomo. Historia del terrorismo en Navarra* azterlanean (2014) esaten denez, Bizkaian, Nafarroan eta Araban estortsioa pairatu zutenen % 5-6k baino ez zuten ordainduko, eta Gipuzkoan, aldiz, kopurua % 13raino ere iritsi liteke (Marrodán *et al.*, 2014: 34). Bestalde, Domínguezek

3 Xabier Zumalde buru zuen fronte militarra, erakunde armatutik bereizi zena ETAREN Talde Autonomoak izenekoak osatzeko, hirurogeiko hamarkadaren erdialdean tesirik ezkerzaleenak nagusitu ondoren. *Los Cabras* zeritzenez hogeitaz eskutitz inguru bidali zizkieten «Oñati, Bergara eta Arrasate inguruko enpresaburuei; izan ere, han geneukan indarrik handiena eta, noski, han ginen ezagunen». «Kopuru txiki» bat eskatzen zitzaion, 2.000 pezeta (2014ko 133 euro) kontratatuta zeukaten langile bakoitzeko; kopuru horrek «urterokoa izan behar zuen espainiar Estatuari ordaintzen zioten zerga konpentsatzeko». Proiektuko ikerketa-taldeak eskutitz horietako bat kontsultatu ahal izan zuen; Zumaldek pentsatutako metodoa ETAREN zenbait adarrek geroago hobetuko zutenaren zuzeneko aurrekaria zela berrets daiteke dokumentu horren bidez. Bigarren eskutitza zen, oroigarri bat, Oñatiko eraikitzaile batek jasoa. «Bere kotizazioa» ordaindu behar zuela gogorarazten zitzaion han. Uko eginez gero, «benetako errepresaliak hartu beharko ditugu. Garestia da borroka, bizia jartzen dute batzuek, beste batzuek ahal dutena jarri behar dute. Badakizu zuk hori» («Estortsio-gutuna», 1975/02/05). «Euskal Erresistentzia»-k sinatzen zuten testua, *Los Cabras* zeritzenez erabiltzen zuten izena. Ahalegin horrek ez zuen emaitza ekonomikorik izan ia. 1977an, hauteskunde demokratikoen eta Amnistiaren Legearen ondoren, Xabier Zumaldek *Los Cabras* taldeaz geratzen zena desegin eta Espainiara itzuli zen.

4 Gaizka Fernández Soldevillak 2015eko martxoaren 15an, *Oroimena, etika eta justizia: ETAK enpresaburuen, zuzendarien eta profesional liberalen aurka erabilitako estortsioa eta indarkeria* izeneko ikerketa proiektuaren esparruan (2012-2016) egindako «ETAK enpresaburuen aurka eragindako indarkeria, ikuspegi historiko bat» mintegian emandako datuak.

5 *Oroimena, etika eta justizia: ETAK enpresaburuen, zuzendarien eta profesional liberalen aurka erabilitako estortsioa eta indarkeria* izeneko ikerketa proiektuaren esparruan (2012-2016) «Terrorismoaren finantzazioa demokrazian» izenaren pean emandako hitzaldia.

azpimarratzen duenez, estortsioa jasan zuten gehienek ez zioten xantaiari amore eman baina, era berean, amore eman zutenak behar beste izan ziren ia mende erdiz jarduera armatuaren finantzaketa bermatzeko; horiek amore eman ez balute, taldeak ezingo zuen ez biziraun ez jardun. Lehen hamarkadetan, estortsioa askoz pertsonalizatu eta zuzenagoa izan zen, eta azkenetan, aldiz, informatizatu eta masifikatu egin zen, Merkataritza Erregistrotik, burtsako kotizazioetatik eta are erroldatik eta zentsutik ateratako datuak erabiliz.

Ikerketa-kazetari eta Oroimenaren Zentroko egungo zuzendari denak darabiltzan daturik esanguratsuenen artean komeni da, gutxienez, hauek gogoan hartzea:

- a) hirurogeita hamar eta laurogeiko hamarkadetan XXI. mendearen hasieran baino askoz baliabide gehiago izan zituen eta, hala, 1986an ETAREN aurrekontua 4,5 eta 6 milioi euro artekoa bazen, 2004an kopurua ez zen 2 milioira ere iristen, eta lotura estua sumatzen da erakunde terroristaren ahultasun operatibo gero eta handiagoaren eta dirua biltzeko ahalmen gero eta txikiagoaren artean;
- b) bahiketarik erreskatatzeagatik sartutako kopuruak 101-104 milioi eurokoak izan ziren eta iraun zuen urteen erdietan finantzatu ahal izan zen haiei esker;
- c) estortsioaren «goren» aldia laurogeiko hamarkada izan zen, estortsio-aparatu guztia Frantzia zegoenean —haren aktibistentzako santutegiarena egiten zuen orduan— eta xantaiaren negoziazioak eta kobrantza egunaren argitan eta zigorgabetasun osoz egiten ziren, polizia esku hartzearen bati ere beldurrik gabe;
- d) ETAREN ingurune politikoak xantaia-prozesuetan parte hartu eta dirua biltzeko eta kudeatzeko zenbait rol hartu ez ezik, finantza-fluxua egon zen haren eta erakunde terroristaren artean eta alderantziz;
- e) estortsioaren biktimen erresistentziarik handiena Araban eta batez ere Nafarroan gertatzea lurralde bietan giroa mundu abertzalearen hain aldekoa ez izatearen eta, batez ere, Nafarroako kasuan ikusten denez, enpresa-zuzendariak xantaiari aurre egin ahal izateko biktimei laguntzak eta baliabideak jartzeko hartu zuten erabaki irmoaren ondorio da.

ETAk enpresaburu, zuzendari eta profesionalen aurka erabilitako indarkeriak ondorio ekonomiko garrantzitsuak ere izan ditu. Egindako elkarrizketek agerian utzi dutenez, deslokalizazioa eragin, inbertsioak moteldu eta talentuari eustea eta enpresa-bokazioak sustatzea oztopatu zituen. Arduradun politiko askok ere ematen dute ondorio horien lekukotza. Halakoak gertatu izanak eztabaida ezina dirudien bitartean, haien irismena eta maila makroekonomikoan izandako eragin erantsia ebaluatzea askoz zailagoa da. Bi motatako zailtasunak daude. Lehenik, ezinezkoa da enpresaburuaren aurkako zuzeneko indarkeriaren eragin ekonomikoak ETAREN jardunak orokorrean izandako ondorioetatik bereiztea. Bigarrenik, ETAREN jardunaren ondorioa ebaluatzea ere oso zaila da, haren jarduera ekonomian eragin oso handia izan duten beste eragile askorekin bat datorrelako denboran: krisi industrialak, EBri atxikitzea, deszentralizazio eta autogobernu prozesua, ekonomia kanpora zabaltzea, eta abar. Ahalegin batzuk egin dira inpaktu horren ebaluaziora hurbiltzeko. Abadie eta Gardeazabalen lana (2003) da analisi kuantitatibo mota horren erreferentzia. Haien metodologia sofistikatuak Euskadik BPG 1980 eta 2000 urteen artean izandako bilakaera erkatzen du «eraikitako» eskualde batenarekin, zehazki, ETAREN jarduera esanguratsuen aurre-aurreko unean Euskal Autonomia Erkidegoaren antzeko ezaugarriak zeuzkaten espainiar eskualdeen sintesiarenarekin. Funtsean, ETAREN jarduera ez delako Euskal Autonomia Erkidegoaren bilakaera ekonomikoaren konparazioan kontrafaktualarena egiten duen eskualde sintetikoarenetik bereizten duen ezaugarri bakarra. Izan ere, azken urteetan kuantifikatzeko egin diren ahaleginek zenbait emaitza eman dituzte eta agerian utzi dute erabilitako aldagaien oso mendeak direla. Horrek, bestalde, zalantza asko sortzen ditu emaitzen sendotasunari buruz. Beraz, dirudienek, maila makroekonomikoko ikerketa ez da etorkizun handiko bidea ETAREN jardueraren inpaktua aztertzeko.

Enpresa mailako analisia emaitza interesgarriak eman ditzakeen beste ikuspegi bat da. Erregistroetan eta merkataritza-ganberetan datuen sail historikorik bagego, nolabaiteko kuantifikazio mailako ikerketa bat egin liteke. ETAk jardun zuen urte guztietarako halako daturik egotea oso zaila dela aurreratuta, ordea, badirudi enpresa esanguratsu batzuen kasuko analisia biderik egokiena izan daitekeela. Hurbilketa hori ez litzateke kuantitatiboa, baina estortsioak enpresen erabakiei nola eragin dien ulertzen lagunduko luke, ekonomiaren ibilbiderako izan duen garrantzia ondorioztatuz hala. Ezin izan da analisi hori egin EAZren ikerketaren esparruan egindako elkarrizketak erabiliz. Sarreran adierazi denez, gure elkarrizketek biktimizazio-prozesua eta biktimen ikuspegia ulertzea bilatzen zuten, baina ez daukate datu sistematikorik enpresen ibilbidean izandako ondorioei buruz. Lan hori egiteke geratzen da, estortsioaren biktimei ez ezik, gizarte osoari ere justizia egiteko.

3. Biktimen ikuspegia

Bidegabeki kaltetzen duen indarkeria baten inpaktuaren ondorioz bihurtzen da pertsona bat biktima (*pasibotasuna-pasioa*); eragileak bihurtzen ditu biktima, bere buruarentzat haiek bitarteko hutsa bihurtuz (*manipulazioa*). Horretarako, haien gogoia menderatzea bilatzen du. Horregatik, estortsioa pairatu duten pertsona guztiak euren duintasunaren bortxaketaren biktima errugabeak dira, zein ere diren xantaia pairatu aurretik eta ondoren izandako portaerak, eta biktima izanik, dagozkien eskubideak eduki eta gure elkartasunaren hartzaile aktiboak izan behar dute. Funtsezko kontua da hori; ez litzateke zalantzan jarri behar eta errepi-katzen jarraitu beharko da gizartean maiz ez delako horrela ikusi. Orokorrean herritarrak ere biktimatzen har balitezke ere, gizarte osoak eta haren kide guztiak pairatzen baitituzte terrorismoaren ondorioak —are gehiago, bortxazko ekintzen benetako azken helburua dirudite, haien gaineko ondorioak eta zuzeneko biktima nozitzen dituztenak desberdinak badira ere—, arriskua dago ideologizazio argia gertatzeko halakotzat *esklusiboki* jotzen baditugu: biktimaren profil argia disolbatzea, pairatzaile jakinak eta haien beharrianak ahaztea, erantzukizun kolektiboa kentzea, subjektuaren abstrakzioa (herria, gizartea, Estatu), indarkeria-*ren* onuradunen eta kaltetuen arteko alde argia lausotzea —eta are aldatzea—, eta abar.

Miresgarriak dira estortsioa jasan duten pertsona batzuen jokabideak, zeinengan argi eta garbi sumatzen baita heroismo morala —esaterako, ez ordaintzea eta egoera publikoki salatzea—, hala nola José Legasarena (1978an hil zuten, bere estortsio-prozesua desegiteko operazio polizial eta judizialean parte hartu eta bi urtera) eta Juan Alcotarena (1980an estortsioa jasaten zuela salatu eta eskutitz ireki baten bidez ez ordaintzeko erabakia azaldu zuen prentsan). Beste batzuk, aldiz, kritikoki ebaluatu behar dira, baina printzipio hau erlatibizatu edo deuseztatu gabe: biktima bat norbaitek bere ekintza immoral eta bidegabean bidez biktima bihurtzen duen bakoitzean agertzen da.

3.1. Estortsioaren biktimen tipologia: prebentzioko laguntzailetik hildako enpresaburura

Estortsioan, kalteko pasibotasunaren eta erantzuneko jardueraren arteko tentsioa zenbait modutan agertzen da eta *estortsioa jasan duen biktimaren tipologia bat* sortzen du. Jasandako hertsapena zenbat eta gogorragoa izan, tarte txikiagoa dauka biktimak kalitate etikoko erantzun askea emateko.

Estortsiogilearen biktimizatzeko ekimenetik, printzipioz mailarik baxuenean, estortsioa jasaten duenari «laguntzaile prebentiboa» esan dakioke. Lehenago edo geroago, ETak «ekarpen ekonomikoa» eskatuko diola auresuposatzen du eta, mehatxu oraindik lauso horren presioaren pean, berak eskaintzen du lehenago bere burua eta bere familia kalte handiagoetatik babesteko eta nozitutako kaltea minimizatzeko. Aurretikoa balitz bezala bizitzen du estortsioa, baina aurretiko bakararra horretarako aukera da. Horrek ez du esan nahi, ordea, kontua txikia denik; hala pentsatzen duenak daukan egoera -sozial eta pertsonal- zehatzaren araberakoa izango da, hein handi batean. Arrazoizkoa izan daiteke hura gertatzen den testuinguruak *ex ante* eragindako beldurra; izan ere, irudimenean espero den kaltearen aurrerapena gertatzen da, eta aurrerapen horren oinarria objektiboa da. Edonola ere, estortsiogilearen ekimena lausoa da hemen —eta berriaz nahi du hori berak—, eta estortsioa jasaten duenarena, aldiz, formalki oso hertsatuta egon gabe, esplizitua da.

Bigarrenik, ETak eskutitz tamalez ospetsuaren bidez estortsioa esplizituki egiten diona dago. Hura jasotzen ez den bitartean eta, agian, biziraupen sen hutsez, ez da espero postontzian hura aurkitzea, baina errusiar erruleta bezala bizitzen da egoera: «zeunden egoera horretan bazenekien, tira, beste edonori bezala toka zekizukeela» (E05)⁶. Haren etorrerak lehengoaren eta ondorengoaren arteko marra bat egiten du, «guztiz seinalatuta sentitzen zinelako» eta bizitza bera betiko aldatzen delako, «minbizia zeneukala esan balizute» bezala zen (E03, E15, E18). Sentipenak nahasten dira: zalantza eta norberaren segurtasunaren haustura sinesgaiztasun, babesgabetasun eta ezintasunarekin. Galdera bera da beti: «Zergatik egiten didate estortsioa niri?» (E19), eta hala, pertsona mehatxatuak, inkontzienteki, indarkeriaren logika makurra dauka barneratuta; izan ere, egunerokotasunean normaltzeko bere helburuak zuzitzeko argudioak proposatzen ahalegintzen da bera. Enpresaburu abertzaleen artean galdera horrek ñabardura bereizgarriak har ditzake; izan ere, badirudi «eskutitza»-ren bidez, erakunde terroristak zalantzan jartzen duela «euskal kausa»-rekin daukan konpromisoa; arrazoibide horrek duintasunaren bortxaketari dagokionez estortsioak dakarrena minimiza dezake berez, zein ere den biktima, eta alde makurra egiten du xantaia «logikoki» jasaten dutenen

⁶ Parentesi arteko erreferentzia elkarrizketatuak identifikatzeko sistemari dagokio.

eta estortsioa jasateko arrazoirik ez dutenen artean. Estortsiogilearen ekimena esplizitua, sendoa da orain. Haren atzean mehatxu baten indar osoa dauka, ETAk, egitateen bidez, guztiz «benetakoa» dela frogatzeko ardura izan baitu. Eskatu gabeko eskutitz gorrotagarria jasotzea bestearen indarkeria pasiboki hartzearen hasiera baino ez da, eta hark eta estortsioa jasaten duenaren ekimenak (ekimenik ezak) elkarri eragingo diote. Halako hertsapen batek, zuzeneko denak, bere norainokoan ere inguruabarrek zehazten dutenak, eragin argia dauka askatasunean, eta ekimenerako aukerak oztopatzen ditu. Hala ere, hor diraute haiek baina, erresistentziaren bidea hartzen badu, norberaren eta familiaren arrisku larriaren aukerarekin.

Estortsioaren mailak gora egiten du erabat *bahiketa* bihurtzen denean, izan ordaindu ez delako, izan horrela hasten delako, baldintza oso latzetan eginda eta bizia galtzeko mehatxuari lotuta. Hemen biktimia bihurtzen duen pasibotasuneko unea oso gogorra da, pertsona osoa biltzen du, kaiolatutako gorpuztasunean kokatuta, ihesaldi bakarria bahitzailearekin kontaktua duen isolamenduan. Bahituaren barruko gogoia bere atze-mailarekiko loturarik gabe irauten saia daiteke, baina ekintzarako benetako gaitasuna mugatuta dago; eta lehenengo ere, denboraren poderioz, larriki zaurituta geratuko da pixkanaka. Ekimenik badago, dakartzen erantzukizunarekin eta arriskuarekin, familiaren esku geratzen da: aringarria baino gehiago, beste sufrimendu bat bahituarentzat, berak orokorrean saihestu nahi duena harengan ikusten duelako, bere gordintasun eta publizitate osoarekin.

Kaltegilearen ekimen suntsitzailearen eta haren biktimaren pasibotasunaren goren maila lehenengoak bestearen «exekuzio»tzat hartzen duena da, enpresaburu edo zuzendari baten *hilketa*. Biak, pasibotasuna eta indarkeria, paroxismora iristen dira. Baina balirudike horrexegatik hain zuzen ere estortsioaren eremutik atera garela. Egiatan, ordea, horretan ere, haren adierazpen gorenera iritsi gara. Ezin zaio estortsioa egin bizi ez denari, haren familiari egin dakioke estortsioa, baina benetan eta esplizituki bilatzen dena ETAk estortsiogaitzat jotzen dituenen artean «izua eragitea» da. Bahiketak berak horixe hauspotzen zuen, baina hilketa haren biderik boteretsuena da. Horrela, hilda, hil zuen erakundeak erantsitako manipulazioa nozituko du hildakoak: izua menderatzeko arma gisa hedatzeko erreferentzia izango da, enpresa-jarduera osoa blaitzen duen klima bat sortuko du. Orduan, biktimizazioaren aurreko erantzuna gizarte erakundeen —enpresaburuaren erakundeak barne, baina ez haiek bakarrik— eta erakunde publikoen eskuetan geratzen da erabat.

3.2. Biktimen dilema moralak zuhurtziazko etikaren aurrean

Jarduera ekonomikoaren eremuan ETAk zabalduko ikarak bereizgarri jakin bat dauka beste batzuen aldean, esaterako, kazetariei edo irakasleei egindakoen aldean. Haiengandik, zenbait ekintza, hezkuntzaren eta iritzi publikoaren eremuan ETArri aurka egiten diotenak, inhibitzea nahi du. Enpresaburu, zuzendari eta profesionalen aurkako mehatxuaren bidez, berriz, ekintza bat eragitea nahi da, ordaintzea, ezaugarri oso berezia izanik: egiten duena eskatzen duenaren bortxazko ekimenarekin nahasten du, hots, estortsioaren ekintzarekin berarekin, kaltegileak, aldi berean, estortsioa jasaten duena biktimia izatea eta bere gaizkiaren partaidekide bihurtzea bilatzen du. Alegia, beldurtze hori, objektiboki, dinamika erruduneslea da eta aurka egiteko erantzunak inhibitzea bilatzen du. Bere buruarentzako eta bere familiarentzako kaltea ekiditeko, kaltearen ugaltzearen kide objektibo, biktimizazioaren erantzule bihurtzera bultzatzen du, jasotako diruarekin armak erosten zirelako beste pertsona batzuk izutu eta haren borondatea bortxatzeko eta are haien aurkako atentatuak egin eta bizia kentzeko. Horregatik, pertsonak xantaiari amore eman bazion, zaila egin zaio bere burua biktimatzat hartzea eta, batez ere, bere egoera ezagutaraztea.

Landa-lanean elkarrizketatutako pertsona asko konturatzen ziren ordaintzeak zekarren bidesari moralaz —«Esan egiten zuen, berak ezin zuela ordaindu [...] 10 milioirekin hilko zituen guardia zibilen kopurua esaten zuen» (E59)—,⁷ eta kasu batzuetan euren hutsaltasunaz ere bai, bazekitelako irteera oso zaila izango zen sorgin-gurpil moduko batean sartzen zirela,⁸ informatzaile bakan batzuek azpimarratu egiten dute ez

7 «Familia arrazoiengatik oso hurbila den pertsona baten... lekukotasuna daukat. Eta ideia oso argi bat zeukan; hau esaten zuen: "Horiei eman diezaiekedan ogerleko bakoitza norbait hil dezakeen bala bat erosteko ogerleko bat da". [...] estortsioa, are mehatxuak erabilita, jasan zuen jendea ezagutu dut, eta adore ikaragarria erakutsi zutenak euren etxera joan ziren unean» (E53).

8 «[...] ordaintzen baduzu, ez zara ahazten, bigarrena etorriko da eta hirugarrena etorriko da» (E26). «Gurpilean sartzen bazara ez zara inoiz irtengo ...» (E28). «Zera esaten nion beti, "Begira, ordaintzen baduzu, hurrengo eskutitza bidaltzeko hurrengo zigilua erosteko aukera emango diozu jende horri. Alegia, lehenik, zuk ez duzu zure arazoa konponduko aseezina delako hori. Askotan gertatu delako ordainduko duzu orain eta urtebete barru zera esango dizute: —'Aizul!'; —'Arraioa! eman egin nizuen!'; —'Bai, baina hura...'"» (E52).

zutela ordaindu ez zeudelako prest euren ondarearen zati bat inori emateko⁹. Ezin da alde batera utzi, ordea, indarkeriak testuinguru bereziki zail eta traumatikoan jartzen duela biktima, baldintzatu egiten duela, bakardadean eta erakundeek alde batera utzita eta bere inguruneak ezikusiarrena eginda —edo estigmatizatuta—, eta sufrimendu karga gehigarria erantsi du horrek. Zentzu horretan errefusatu behar dira, azkarregiak izateagatik, xantaiari amore eman dioten estortsioaren biktimen aurreko alde aurretiko kondena morala ezartzen duten judizio zorrotzak. Halaber, hasieratik errefusatu behar da iradokizun «sozial» sinplista eta bidegabe hau: merkatu kapitalista batean ziharduten enpresaburuak edo profesionalak izateagatik, erantzukizunen bat eduki zezaketen euren biktimizazioagatik.

Hobetsi dugun zuhurtziazko etika printzipio moralak inguruabarrekin —hemen, giltzarriak, arrisku objektiboa eta beldur subjektiboa— eta ondorioekin uztartzen saiatzen da, testuinguru hutsekoa izan gabe testuingurua kontuan hartzen duen erabaki batera hurbiltzeko. Zuhurtziazko ikuspegi horri lotuta, baina aldi berean espezifikotasunekin, kontuan hartu behar da derrigortutako betebeharraren eta supererogatorioaren arteko aldea, hortik ekintza moralerako ondorioztatzen diren joerekin, oso egokiak baitira estortsioaren kasuan.

3.2.1. Xantaiaren “pribatizazioaren” joko pozoitsuak baldintzatutako inguruabarrak

ETAk estortsioa egindako guztientzat, hauek izan dira funtsezko inguruabarrak: jasandako mehatxua, ekintzako errealitate objektibo gisa; bertan kokatutako arriskua, zehazten zaila den balizko errealitate objektibo gisa; beldurra, mehatxuaren eta arriskuaren aurreko erantzuneko errealitate subjektibo gisa. Jasandako mehatxuak, dagoen errealitate gisa, biktimizazioaren esperientzia agerrarazten du, eta izutzaile gisa erakusten du kaltegiea. Gertatzen denean hainbat sentipen agertzen dira —beldurraz gain beste batzuk daude, indartsuak eta askotarikoak, hala nola sumina, edo adoregabetea, zentzu bikoitzean, gogorik eza, eta ordura arte sendoak ziren printzipio moralak zalantzan jartzea—, pertsonaren arabera hainbat modu eta intentsitatean ager daitezkeenak, erabakitze egoerak ere izanik. Mehatxuak, bestalde, zenbait intentsitate maila dauzka eta hain larria den estortsioaren opakutasunaren eta arrakastaren eragile erabakigarrietako bati estuki lotuta dago intentsitate hori, haren *pribatizazioari*; horretan lagundu zuten, modu oso desberdinetan eta, noski, oso bestelako arrazoiengatik, ETAk eta xantaia jasan zuten pertsonak. Estortsioa jasan duten enpresaburu gehienek pribatutan gorde zuten arazoa —«hitz egiten ez zen gaitz kolektibo bat zen» (E18)—, bai gertukoak ez kezkatzeko bai hartu behar zuten erabakian baldintzatuak ez izateko edo euren edo familiaren gaineko mehatxua handiagoa izatea saihesteko —ETAren laguntzaile sarearen gertutasuna ezagututa—, edo euren gizarte eta auzoko ingurune zirkuluen erantzunaren beldur zirelako, eta batzuetan baita sare politiko, polizial eta judizialaren erantzunaren beldur ere, gobernuaren siglen unean uneko kolorea gorabehera isurtzeak egoten zirelako maiz¹⁰. Hasierako garaietan batez ere «ETAren estortsioaren pean egotea tabu zen» (Marrodán, zuz., 2015: 61). Nolabaiteko «erruduntasun sentipena» izaten zuten euren inguruan sortutako sufrimenduagatik eta euren familia arriskuan jartzeagatik (Almenara, 2015: 149-150). Batzuek eskutitzak bota edo are erre egin zituen, inork ez ikusteko; beste batzuek, ordea, tiradera batean gorde dituzte. Kasu batzuetan, enpresa handien segurtasuneko protokoloek eurek eskatzen zuten inori egoeraren berri ez emateko, ezta familiari ere, erakunde terroristak eskutitzak jaso zirela jakin ez zezan, eta horrek estres handiagoa sor zezakeen. Batzuetan, egoera korapilatu egiten zen, estortsioa jasaten zuen pertsonaren senide batzuk edo are seme-alabaren bat ideologiko eta politikoki bat zetorrelako mundu abertzalearekin. Beste kasu batzuetan, familia bereko zenbait belaunaldik edo kidek pairatu zituzten estortsio-prozesuak —bahiketak eta atentatuak barne—, eta familia-nukleo zabalaren eguneroko bizitzaren parte ziren (E08). Bakan batzuek estortsioa jasateagatik harrotu edo ETAren kausa porrotetik egitear zegoen enpresa bat edukitzeari lotuago eta sindikatuen presio larriaren pean zegoen desertzioa zurrizko erabili arren (E28)¹¹, askok enpresa-erakundeei edo poliziarri ere ez zieten jakinarazi.

9 «[...] begira iezadazu begietara, pentsa ezazu zeuk, morroi horiei 60.000 euro ordaintzea [...] Kristoren dirutza ordaintzen dut nik zergetan, zuk uste duzu horrez gain hori ordainduko diedala nik morroi horiei? Ez [...]» (E02).

10 «[...] haren familia deitu zidan: “Aizu, aita ez da agertu”; “Aizu, atzo pilotatik irten zen”; “Ez esan!”. Hau eta bestea. Eta orduan, Gobernuaren ordezkariarekin hitz egitea otu zitzaidan. Tira, familia, ezer berretsita egon aurretik, kazetariaren deiak jasotzen hasi zen» (E03).

11 «[...] Kriatiagatik eta sindikatuen eskakizunengatik korapilatzen hasi zenean, zuri ez zitzaizun ETA agertu. Nik, behintzat, ez daukat zuri agertu izanaren albisterik. Isildu egiten naiz, nik haiei ez diet honetaz ezer esango, interesdunei, aizu. Baina nik badakit hark ez zuela ETAgatik alde egin; enpresa gobernatzea oso deserosoa gertatzen zitzaielako alde egin zuen, ordura arte *manu militari* gobernatzen zuelako eta han ez zelako inor mugitzen, ezta? [...]» (E49).

Gizarteak estortsioa bazegoela jakitea nahi zuen erakunde terroristak, amore ematearen aldeko klima sortzeko, baina ez haren eragin zuzenaren pean zeudenek, eta estrategia horrek,aldi berean, euren egoera ez salatzen bultzatzen zituen biktimak. Taldeak ordaintzeko erresistentziak sumatzen zituen unean, ordea, ikusarazteko prozesu bat hasten zen eta horrek larderiaren sentipena areagotzen zuen, mehatxuaren errealitatea jendaurrean agerian utzirik. Ez da gauza bera bahiketa batean datorrena eta eskutitz bat jasotzean datorrena. Eta ez da gauza bera eskutitz oso pertsonalizatua, berariazko jarraipen baten ondorio dena hartzea, eta enpresaburu, zuzendari edo profesionalen zerrenda orokor bat erabilita bidalketa masibo batean kokatzen dela jakiten den beste bat jasotzea. Eta ez da gauza bera eskutitza niri iristea eta ondoren nire semeari iristea. Ezta eskutitz bakar bat iristea edo mezuak denboran sistematikoki errepikatzea eta haien edukia gero eta mehatxagarriagoa izatea: haietan, kausaren aldeko ekarpen bat eskatuz ez egitearen ondorioak azpimarratzera pasatzen zen, hots, helburu militar bihurtzea (E12)¹². Era berean, enpresaburu eta profesionalen aurkako atentatuek eta bahiketek amore eman ezean besteei gerta zekiekeenaz ohartarazten zuten eta, segurtasun-indarrek jakin zuten, enpresaburuak ordaintzea errazago onartzea lortzen zuten. Azken batean, mehatxua bera zenbat eta gogorrago izan, hertsapen handiagoa egongo da askatasunarentzat, ulergarriagoa izango da estortsioa jasan duenaren erantzuna maila etikorik onenera ez iristea. Inguruabarrak eta segurtasun-indar publikoek babesteko berme irmorik ematen ez zutela kontuan hartuta, estortsiogileek xantaia pribatizatzea «humanoki ulergarria» da, baina ikuspuntu objektibo batetik estortsiogileen lana erraztu zuen.

Hertsatutako askatasunaren mugak eta aukerak markatzeko erabakigarriena beldur subjektiboa da. Subjektiboa izateak ez du galarazten, beldur gisa, guztiz benetakoa izatea; aitzitik, subjektuaren erabakian zuzenean eragiten duena da arrazoi horrexegatik. Berez, zuhurtziak, dakarren errealitatearen analisiarekin, gure beldurra ohiko mailara birbideratzen ditu, laguntza positiboa ematen digu erabaki zuzena hartzeko, errealitatera doitzeko. Baina laborri bihurtzen denean, gure erabakitzeko prozesua, askatasun argiaren erabilera blokeatzen du, eta erantzukizuna ahuldu egiten da, batzuetan indargabetuta geratu arte. Txosten honek oinarri hartu duen ikerketan elkarrizketatutako enpresaburuak, oro har, «arrazoizko» beldurra sentitu duela ematen du, askatasuna inhibitzen ez duena, baldintzatzen badu ere, baina beldur patologikoak daudela iradokitzen du, batzuetan familiako kide batzuegan —eta horrek, noski, haren erabakiari eragiten dio— batzuetan enpresaburu ezagunen batengan¹³, eta batek berariaz adierazi du «famiaren segurtasuna beldur gaindiezina» dela. Beldurtzaile/izutzaileak, hain zuzen ere, beldurra ahalik eta gehien pizten saiatzen da, erabat makurtzeko erantzunak lortzeko. Gure elkarrizketatu batzuen artean, beldurra bultzatuta ordaintzea erabakitzen zuenak ez zion bere buruari galdetu ere egiten dirua zertarako erabiliko zen edo, bestela, galdera kanpotik eragiten zen: «Ez nuen horretaz pentsatzen eta begira [...] psikologo batek min handia egin zidan galdera egin zidan. Eta gainera, logikoa deritzot, neurri batean, galdera hori egiteari, baina hau esan zidan: —“Aizu, ez zenuen inoiz pentsatu diru horrek jendea hiltzeko balio zuela?”. Baina horrelaxe, aizu. Eta zera esan nion: —“Hara, hori esatea besterik ez nuen behar” [...] Alegia, ez zitzaidan burutik pasa ere egin diru hori zertan erabiliko zen, bagenekielako zertan erabiliko zen [...]» (E56); ordaindu eta zenbait urtetara, eta beharbada erruduntasun sentipen horren aurreko defentsa-mekanismo gisa, «ezabatu duela ematen du» (E60).

3.2.2. Etikoki eska daitekeenetik jokabide heroikora

Estortsioan arazoa, berez, ez datza estortsioa jasaten duen pertsonak dauzkan xedeen moraltasunean. Arazoa, beraz, edo batez ere, bitartekoetan eta haiek xedeekin duten loturan datza. Bitartekoa —hemen giza ekintza bat dena— ez da bitarteko huts gisa ikusi behar, ontasuna bilatzen den xedean bakarrik kokatuta; aldi berean berez moraliki denegatik ikusi behar da, berez ona izateko ahalegina eginez. Estortsioa jasaten duenak hau galdetu behar lioke bere buruari, erabakian azkarregi eta oker jokatzeko saihestuz: ordaintzen ez badut estortsiogileak familiari eragin diezaiokkeen kaltea era arazoizkoan saihestu daiteke? Elkarrizketatuek diotenez, badirudi egoera batzuetan hala dela, eta beste batzuetan, aldiz, arriskua larriagoa da. Azken horietan baino ez litzateke ordaintzeko aukera pentsatu behar. Oso garrantzitsua da hori, argi eta garbi onak diren bitartekoekin lortutako xedearen kalitatea hobea delako beti. Bestalde, defenda daiteke norberaren familia babestu beharra era oso oinarrizko eta pertsonal batean senti dezakegun betebeharra dela, eta sozialki positiboa dela eta ez dagoela

12 «[...] tonuan gora egiten duten lau eskutitz dira, aizu. Hau bidali dizugu, bigarren aukera bat daukazu, azkenean herriaren etsai jo eta nire familia-ondasun guztiak-eta mehatxupear daudela ohartarazi arte» (E07).

13 Esaterako, euren inguruko guztiek jaso dutenean eskutitza jaso ez duten enpresaburuak, balizko arrisku zehaztugabe baten aurrean estutasun eta larridura, edo zainduta sentitzeko obsesio bihurtzen duten «anomaltasuna», eta abar. Izua gizartean nola hedatzen den erakusten du horrek ere.

beharrezko justizia eta elkartasun orokorraren aurka. Estortsioa jasaten duenaren kasuan haren familiak jasandako kaltearen aurrean duen erantzukizuna trinko eta lehentasunezkoagoa balitz bezala. Eta indarkeria terroristaren aurreko gizalegezko betebeharra, benetan, guztiona balitz bezala —maiz, zoritxarrez, alde batera uzten dena—, baita harena ere, baina erantzukizun partekatuko betebeharra, zeinean agintari publikoei dagokiena oso garrantzitsua bailitzateke. Hori dela-eta, mehatxatuak bere familiari zor dion leialtasuna lehenetsiko luke biak gatazkan daudela sentitzen duenean, eta gizarteari eta segurtasun-indarrei dei egingo lieke zeinek berea eta bere gaitasunen barruan bere gain aktiboki hartzera. Joera hori bahiketaren aurrean areagotzen da; ordaintzeko erabakia estortsio zuzena jasaten duenaren familiari pasatzen zaio, eta harengan bere biziagatik egon zitekeen kezka ardatza izateari utzi eta ordaindu ezean seguruenik hilko den beste baten —aitaren, senarraren— bizia bihurtzen da ardatz. Batzuetan ez gara konturatzen gogoeta horiek moralki labainak direla, baina ulergarriagoa da estortsioa jasan duen pertsonaren eta haren familiaren bizipenaren bat etortzea zeinek, mugako egoera batean, ez baitute moraltasunetik urrundu nahi eta aldi berean barru-barruan sentitzen duenari leial izan nahi baitute. Hain zuzen ere, zer egin baloratzeko unean, informatzaile batzuek gutunaren bidez izandako estortsioaren esperientzia eta pertsona maite baten bahiketaren bizipenaren artean bereizten dute: «Ordaintzea, arraioa, zera deritzot...; noski, ez dut kritikatu hori egin duena, ezta? Bahitzen bazaituzte, bai. Nik uste bahitzen bazaituzte dena egingo nukeela ordaintzearen; bahituta, dena egingo nuke. Bost axola legeak zer dioen, diru hori Gernika berriz bonbardatzeko erabiliko duten..., berdin da zertarako. Ordaindu egingo diet nik. Ez dit axola [...] Baina besterik gabe eskutitz bat bidali didatelako..., ez. Nik, ez... Ez» (E18).

A priori uste dugu ordaintzen ez duenaren aukera morala ordaintzen duenarena baino hobea dela, baina gero gerta daiteke batek estrategikoki ez ordaintzea ETaren aurrean ondo babestuta sentiarazten duten segurtasuneko mekanismoak dauzkalako, esaterako, bere enpresak eskainitakoak, eta beste batek ordaintzea babesgabetasunean mehatxu izugarri handia bizi duelako. Estortsioa ez da homogeenoki banatu probintzien artean eta ez die berdin eragin enpresa handiari eta ETE-ei. Elkarrizketatu asko, bai enpresaburuak, bai ordezkari politikoak, bat datoz azpimarratzeko ez zela gauza bera korporazio handi batean lan egitea, zeinak, azken hamarkadetan batez ere, polizia kidegoekin konektatutako euren segurtasun-zerbitzuak baitzeuzkan, edo negozio txiki baten jabea izatea gizarte kontrolak eta ingurune erradikalaren presioak bereziki itotako herrietan, non ugari baitziren mikroestortsio mafiosoko jarduerak —herriko ETako presoei «laguntzeko» kartazalen joan-etorri hain ezagunarekin—, «dentsitate txikiko» oker deitutako terrorismoan koka daitezkeenak: «Estortsioa maila pentsaezinetara iristen zen, alegia, li-txarreriak saltzen dituen dendariarenganaino [...] baina botoa nori ematen dion eta noiz arnasten duen ere badakite [...]» (E31). Hala, presioko teknikak euren benetako oinarri mehatxagarria mozorrotzen zuten, haietatik irabazi txikiagoak lortzen ziren eta subjektu mehatxatuaren profila lausoa zen, ez zelako enpresaburu handi ez ertain bat, ezta profesional ospetsua, ezta lanbide talde bateko kide bat ere, ezpada langile autonomoak, merkataritza txikiak eta herritarrak orokorrean. Egoera horretan¹⁴, larderiak eta beldur-eragindako paralsiak larriki zauritzen zuten askatasuna, erantzukizun etikoaren printzipioa eratzten duen ardatz gisa; erantzukizun hori, norbanakoarena ez ezik, ez-egiteagatik eta ezintasunagatik agian, gizartearena eta haren erakundeena ere bazen. Erantzukizun etikoko subjektuen, erabakitze prozesua egiten den egoeraren, hartutako aukeraren balorazio etikoaren eta balizko birbiktimizazio sindromeen arteko lotura estua dagoela jakinik.

[...] gero, kontua da zuk nola bizi duzun, ezta?, eta nola barneratzen duzun arriskua, ezta? Baina tira, daukazu segurtasun-inguruneak ez dauka zerikusirik, esaterako, Hernani inguruan dagoen enpresaburu txikiak daukan segurtasun-ingurunearekin. Ez dauka batere zerikusirik. Alegia, askoz babestuago zaude zu, ezta? Eta, noski, ikusi egiten dugu... Nire lagun batzuk ez zeuden enpresa handietan eta haien egoera... askoz korapilatsuagoa zen, guztiz korapilatsuagoa. Hori hala da [...]. Printzipio etikoaren aplikazioa, arraioa, ez naiz ausartzen inor epaitzera. (E16)¹⁵

¹⁴ «Jardunbide horretan ez da mehatxurik egiten, adetasunez eta indarkeriarik gabe egiten da, baina... nor dauka kartazala hutsik itzultzeko adorea? Egiten duenak badaki errepresaliak egon daitezkeela. Orain arte inork ezin izan du desagerrarazi gordeko estortsio modu mozorrotu eta mafioso hori, ez delako kopuru jakin bat eskatzen, “borondatea” baizik. Nahi duenak, eman egiten du, eta nahi ez duenak, kartazala hutsik itzultzen du. Orain arte inork ez du hutsik eman» (Giza Duintasunaren Aldeko Elkarte, 2005: 38).

¹⁵ «[...] nire mugak dauzkate eta tira, izugarri ulerkorra izan naiz beti, baina eskutitz jaso aurretik ere izan naiz, han herrian, bada, denda batekin, txertatuta zegoen enpresaburu txikiarekin zeinak bazekien, tira, zerga iraultzailearekin ez ezik, politikoki nabarmentzen bazen eta “Aizu, hura halako alderditakoa da” baziotsoten, ez zuela zapata gehiagorik salduko. Eta herriatik alde egin behar zuen, agian, ezta?» (E05).

A priori, esan daiteke alde egiteak bere kostuak dauzkala baina edonoren eskura dagoela. Elkarrizketek erakusten dutenez, jazarpen erradikala egunero pairatu ondoren, pertsona batzuek alde egin behar izan zuten Euskal Autonomia Erkidegotik, aldi baterako edo betiko —«hanka egiten zuten edo hilkutxan ateratzen ziren» (E47)¹⁶— eta haientzat, baliabide ekonomiko ugari —beti ez bazen ere— eduki arren, erruduntasuneko sentipena, harremanak haustea eta deserrotzea prozesu oso biziak izan ziren.

Zera esango nieke, «Baina zuek, lotsagabe alaeak...» [...]. «Zertara dator orain on plantak egitea, aizue. Zuek izan baitzarete frustrazio horien, Orihuelan edo Ferrolen bizi den jende horren transmisio-uhala, eta euskaldunak dira, bertokoak. Eta ezin dute botorik eman, eta haien seme-alabak hangoak dira, ez esan hemengoak direla, edo azal iezaiezu zergatik bizi diren han eta ez Euskal Herrian, ezta? Eta haien gurasoak ez dira ez hemengoak, ez hangoak». Eta orain..., hor geratzen da hori. Estortsioagatik ihes egin zuen jende hori (E65).

Beste batzuek ezin izan zuten erbestea jasan, baina itzultzea ere ez zen erraza izan larderia eta presio giroa ez zelako eten:

Eta gero, tira, bazekien hil egingo zutela, argi eta garbi. Orduan, kanpoan bizitzera joateko saio bat egin zuen. Eta gaixotu egin zen kanpoan biziz, eta zera esan zuen orduan: «Euskalduna naiz, euskaldun sentitzen naiz eta nire herrian bizi nahi dut. Ez du ordaindu nahi eta, era berean, ez dut nahi nagoen herritik bota nazaten» [...]. Urte haietan haren bizitza kaotikoa, irregularra... izan zen, zeren egun batean bere etxetik goizeko zazpitan irten zen, beste batean hamabietan; egun batean alde batetik, beste batean bestetik; beste egun batean teilatu batetik ateratzen zen bulegotik, beste egun batean... (E59).

Barruko (Euskal Autonomia Erkidegoko beste udalerrri baterantz) edo kanpoko erbesteak ez zuen zertan behin betikoa izan, asteburukoa edo jaieguneko zubikoa izan zitekeen edo, esaterako, oharkabean pasatzeko betiko oporretan herrira ez joatea, mundu erradikalarekin liskarrak saihestea eta «bakean utz zitzatela» (E09).

Erabakia gidatzen duen aburua testuinguruan jartzea ez da ulertu behar edozein jokabide mota zurrizko «atzeko ate» gisa —«kasu guztietan zen moralki onargarria ordaintzea»—; aitzitik, testuingururik gabeko eskakizun abstraktu eta zorrotzak ekiditen ditu —«ez zegoen inoiz onartuta amore ematea». Eta, azken batean, aukera ematen du ikusteko berez negatiboak diren jokabide batzuk agenteari moralki onar dakizkiokeela testuinguru zehatzetan eta asmo egokiak izanda. Ezin zaio inori jokabide heroikoa etikoki inolaz ere eskatu, moralki estimagarria bada ere. Tesi hau defenda daiteke ganoraz: estortsioa jasaten duen pertsonari sortzen zaion dilema moralak egintza supererogatorioei aurre egiteko posibilitatera hurbiltzen du (Heller, 1990: 4040), zehazki hasiera batean betebeharrak orokor batera jotzen duten halako egintzei —biolentoaren ekintzari laguntzarik ez ematea, terroristei ez ordaintzea—, zeinak inguruabarrak direla-eta heroiko bihurtu baitaitezke dakartzaten arrisku handiengatik. Enpresaburu batzuek bakeari egin dioten ekarpenik handiena herriarekiko euren konpromisoa zer puntutaraino izan den adierazten dute enpresa eta politikako ordezkari batzuek euren lekukotasunetan, xantaia ez ordaintzea eta Euskal Autonomia Erkidegoan aberastasuna sortzen jarraitzea erabaki zutenean (E49): «[...] fardel guztia euren gain hartzea izan da sosik ordaindu gabe, aizu. Seigarren eta zazpigarren eskutitza jasotzea izan da; beraz, ez datorkidala orain inor plus baten ordainagiriak ekartzera» (E03). Ez ordaintzeko erabakia jendaurrean ezagutarazi zuten bakarrek hausnarketa eta erabaki moral baten ondorioz eskaini zuten, eta horretan pisu handia izan zuen dimentsio zibikoak. ETari ez ordaintzea ikur bihurtu zutenek -batez ere enpresaburuaren erakundearen ordezkariak izan baziren- gehiago sufritu zuten horregatik ez ordaintzearen egitate materialagatik baino: «Eta sentitzen dut arrisku handiagoa izan nuela horregatik eskutitzagatik beragatik baino» (E03). Elkarrizketatu batek esango duenez, pairatzen duzun estortsioaren aurka publikoki hitz egiten duzunean, «ehizaki» bihurtzen zarela sentitzen duzu, enblematikotzat jo diren kasu batzuetan erakutsi zenez.

ETAren estortsioa, bere dimentsiorik gordinenean, funtsean iraganeko esperientzia den heinean —behin betiko eta guztiz gaudituta irautea espero dezagun—, lerro hauek irakurtzen duen biktimari, eta bizi zuenari etikoki aurre egiteko egokitzat hartzen dituen heinean, hemen esandakoak sufritu eta egin zuena gogorarazi

¹⁶ Edo edozein unetan agian alde egin beharko zutela sentituz bizi behintzat. «Horrengatik daukagu etxeko bat Huelvan, beste gauza batzuen artean garai hartan erosi genuena, alde batetik oso merke zegoelako eta, bestetik, uneren batean hemendik alde egin behar bazen. Ez naiz inoiz oso seguru egon alde egin beharko ez genuenik... Ez naiz inoiz oso seguru egon maletak egin beharko ez genituenik. Maletak egiteko prest egon dira beti, ezta? Eta orduan han zaudenean, bada bai, askoz erosoago zaude» (E57).

diezaioke batez ere. Kasu batzuetan lasaitasuna eman diezaioke, beste batzuetan nolabaiteko erruduntasuna mugiaraz diezaioke. Labaina da azken kasu hori, zauria bere punturik sentikorrenetako batetik «berrirekitezko lan zail»era hurbiltzen duelako, beste elkarrizketatu batzuek diotenez, agian egokitzeko gaitasuna menderatzen ari denean. Arrisku horren aurrean, komeni da gogoan hartzea, hasteko, mehatxatuak eta haien familiak egoera oso estresagarrian egon zirela erabakitzeke, maiz zalantzan derrigortuta erabakiarazten zieten egoera oso zehatzetan aurre egin ziotela dilema bati, denboraren poderioz agian okertu egin zirela egiaztatu zutela, baina horrekin ez zela erruduntasunik egon zintzotasuna egon bazen. Edonola ere, horietako ezerk ez du galarazten, euren iragana berraztertzean, haietako batzuk konturatzea, garrantzi handiagoa edo txikiagoa zeukan zerbaitetan, moralki huts egin zutela. Hala balitz, etikak berak eskatzen digu mekanismo psikologiko suntsizailleetan kokatu beharrean, gure iraganeko erru morala kontzientzian argitasunez eta erantzukizunez pertsonalki onartzeko, bai haren moduetan bai haren irismenean —horrexek konpontzen du— eta hura berroneratze pertsonal eta zibikorako aukera bihurtzeko, txarto itxita zegoelako berriz zabaldu den zauria ondo orbaindu dadin. Gogoan hartuta beti estortsioa jasan dutenei ezerk ez dizkiela biktima gisa dagozkien eskubideak balio gabetzen, eurek publikoki oso gutxi eskatu eta gizarteak oso gutxi aitortu arren.

3.3. Estortsioaren ondorioak

Ez dira inoiz behar beste azpimarratuko estortsioak bere biktimengan nahiz gizarte osoan izandako ondorio larriak. Biktima batzuek eta haien seniderik hurbilenean aldi baterako nahasmendu psikologikoak eta are kronikoak jasan zituzten eta, orokorragoan, gizarte-uzkurduraranzko joerak, batez ere beldurra edo mehatxuaren sinesgarritasuna zirela-eta estortsioa jasan zuenak edo haren enpresak autobabeseko neurriak urriegitatzat jo eta eskolta izatea hautatu zuten kasuetan.

Batzuetan, eskutitzak edo beste mehatxu mota batzuk jaso zituzten biktimek eta senideek¹⁷ eguneroko bizi-modura egokitzeko zailtasun handiak izan zituzten eta haien bikote-harremanak ere kaltetuta geratu ziren, estigmaren ondorioak biderkatuz, batez ere gizartearen ulertu ezineko giroan.

Asko sufritu du nire emazteak [...] gizarte fobia izan du. Ez zen iritsi pertsekuzio-mania bat izatera, baina begiratzen ziotela eta zaintzen zutela sentitzen zuen. [...] une batean ezin zen jatetxe batera joan [...] izerditan hasi eta sentitzen zuen antsietateagatik ezin zuelako jan ere egin [...]. Segurtasun eta [...] autoestimua asko galdu du horren erruz. [...] zure etxera datoz gero [lagunak] eta etxe zoragarrian bizi zarela ikusten dute eta kontatzen diezu ez zaudela ondo eta ez dizute sinesten [...]. Bere lagunek errieta ere egiten zioten nire emazteari (E09).

Azken lekukotasun horrek eta antzekoek erakusten dutenez, oraindik oso androzentrikoa den enpresa-munduan, eta salbuespenak salbuespen, emakumeak euren senarren estortsioa ezagutzen ez zuten subjektuak edo, bestela, pazientziaz eta sufrimenduz bizi ziren subjektuak izan ziren. Estigma eta haren ondorio fisiko, psikologiko eta sozialak atentatu edo bahiketa baten biktima izan ondoren areagotu ziren:

Eta ataka horrek, ezta?, dena galdutzat emateak, makurtuta sentitzeak, babesgabe sentitzeak, gutxietsia, apaldua sentitzeak, ezta?, bizi osorako baldintzatu zuen [...]. Bahiketaren ondoren zenbait ondorio gertatu ziren eta haietako bat une horiei lotu dut beti [...] Beste batzuk, ordea, bigarren mailakoak dira, ez daude bahiketari hain zuzenean lotuta baina tira, zerikusi handiagoa dute [...] horrek zure taldean, zure lagun edo ezagunen gizarte sarean hiri hain txiki batean daukan eraginarekin [...], ezta? Harrezkero bizi osoan bera bahitutakoa izatea, ezta?, zera... izan zena, hura bizi zuena, nahi eta nahi ez, kalean topatzen zutenean, bada, tira, jendeak [...] buruan zeukan hori, eta gorroto zion horri nire aitak. Zerbait... esan behar izatea, azalpenen bat eman (E27).

Ohikoak ez diren autobabes- eta segurtasun-neurriak ikusiezin bihurtu ziren azkenean, oharkabean pasatu ziren gizartearentzat, eta mehatxatuarentzat berantzat ohikeria bihurtu ziren, batez ere denboran luzatzen zirenean. Estortsioa jasan zuten pertsonen seme-alaba batzuek euren gurasoen bizkartzainen itzalpean eman zuten euren haurtzaro eta gaztaro osoa.

17 «[...] nire emaztea etxean zegoen nire seme-alabekin, orduan oso txikiak ziren, eta gauez norbait sartu zen, burdin hesiaren gainetik salto egin [...] eta etxeko atean [...] bele bat edo antzeko zerbait utzi zuen [...] burua eta hegoak moztuta zeuzkana [...]. Pot eginda geratu zen [nire emaztea] hor. [...] eta harrezkero, tira, osasun arazoak izan zituen eta oraindik ez ditu gainditu. [...] bizi osorako geratuko zaio hori [...]» (E04).

Bai, bizi osoa [...]. Bizi osoa eskoltarekin. 2002. urtera arte eskolta izan dut beti [...]. Bizi osoan kontaktua jartzerakoan, nire autoaren azpian begiratu dut urteko egun guztietan, alegia [...]. Hegazkin-txartel faltsuekin egin behar izan ditut bidaiak [...] nik, egia esan, lehenengo minututik onartuta neukanez..., onartuta geneukanez, bada, ez dut horrenbeste sufritu [...]. Nire lagunak..., tira, mehatxatutako lagun asko izan ditut, eta tira, izan ere [...] gogoratzan dut nire etxean egin nuen afari bat eta westernetan bezala, etxean sartzean jendeak errebolberrak uzten zituen esekitokian (E12)¹⁸.

Halako neurriek guztiz baldintzatzen zuten haien bizitza, haien askatasuna mugatzen zuten¹⁹ eta estortsioa jasaten zuen pertsona etengabeko alerta egoeran edukitzen zuten; 2011ko udaberrian xantaia behin betiko amaitu ondoren ere gertatu zen hori. Merkataritza edo ostalaritzako lokal baten barruan biktima izateari lotutako ondorio psikologikoaren kasua da: «Jatetxe batean ez naiz esertzen ateari bizkarra emanda [...]. Baina senez egiten dut [...]» (E12)²⁰. Batzuen lana —eskolta izatea— beste batzuen —enpresaburuen— estigmaren eta biktimizazioaren eguneroko oroigarria bihurtzen zen²¹.

Pertsonalizatua izan beharrean mehatxua orokorra bazen —enpresa handi bateko zuzendarien aurka—, onargariagoa zen ETAk bere ekintza kriminalaren helburu hartzeko probabilitatea oso handia ez zela pentsatzea; horregatik, beharbada, eragin txikiagoa zeukan haien eguneroko bizitzetan eta gizarte harremanetan.

Gizartea biktima gisa aztertzen bada, eragina modu askotan bizi izan duela ondoriozta daiteke. Zeharkako biktima gisa, estortsio zuzena jasaten zutenekin zeuzkan harremanengatik. Neurri handi batean bere jardura kriminala egiten jarraitzeko behar zuen finantzazioa xantaiari esker lortzen zuen erakunde terrorista baten etorkizuneko eta balizko biktima gisa. Gizartean bertan eta ekonomiaren eremuan estortsioak izan zitezkeen ondorio negatiboek kaltetuta. Ondorioak, besteak beste, kapitala eremu ez-emankorretara eta zergetarako opakuak zirenetara desbideratzen eta etekin eta zergen murrizketatik inbertsio eta negozioarako aukerak galtzeraino joan zitezkeen, edo enpresaburuek adorea galtzea, enpresarako talentua erakartzeko erakarpenik eza, belaunaldi ekintzaile berriek ez egotea, eta baliabide publikoak segurtasun-neurri berezietarako erabiltzea. Hain zuzen ere, ikuspuntu sozioekonomikotik, estortsioak epe ertain eta luzean izandako ondorio larrienetako bat, agian, enpresa-bokazioen galera izan da —gure informatzaile batzuen arabera—, beste eragile batzuekin batera, industriako edo enpresako tradizioa zuten familien belaunaldi aldaketa urriegiaren ondorioz: «ez dut nahi nire semeak hau bizitzea». ETAREN estortsioak, ordea, kondena moral erradikala mereziko zukeen Euskal Autonomia Erkideari etekinak ekartzeko moduan egin balitz ere. Aringarri gabeko kondena baten zioak biktimak baitira, eta ez kalkulu estrategikoko kontuak. ETAREN jardueraren kostu ekonomikoei buruzko azterlan orotan oso gogoan hartu behar den zerbait da hori, bestalde. Halaber, funtsezkoa da xantaiaren azpikulturak herritarren balio demokratikoetan eragindako kalte sakonak kontuan hartzea.

18 «Horixe zen kontu nagusia, nola azaldu seme-alabei, nola daramazun. Zeren nik, gainera, erabaki nuen ez niola nire bizitzari amore emango eta orduan ikastetxera eramaten nituen seme-alabak beti nire emazteak kanpoan lan egiten zuelako eta neu molda nintekeelako ordutegira eta, beraz, zera esan nuen, haiek eramaten jarraituko dut. Auto ofizialean eramatea zirko hutsa zen, baina zuhurtiaz eginik zeren, ikastetxeko atean geratu beharrean, nire autoan nindoanean egiten nuen bezala, etxadi bat harago geratzen nintzen. Orduan zera esaten duzu, zer egin, ez ditut autoan sartuko? Ez. Eta eragin egiten dizute halako gauzek, zera esango nuen..., zentzu horretan bizitza ahalik eta gutxien aldatzeko ahalegina egiten duzu» (E47).

19 «[...] lanera joateko orduan erabat aldatu behar zenituen ibilbideak. Egun baten hemendik joan behar duzu, beste batean handi, bestean ez dakit zer... tira. Hala zen...» (E26).

20 «Noski, harrezkero hainbat urtez, garajeaz sartzekoan, norbait..., pertsona ezagun bat ikusten banuen, buelta etxadiari, ezker-eskuin begiratzea beti; duela gutxi, duela oso-oso gutxi arte, jatetxe batean, taberna batean, bada, sarrerako ateari bizkarra inoiz ez ematea; ezertarako balio ez duten kontuak, ezta?, baina hala da beti. Semaforo batean inoiz ez itopuntu batean, irteera baten bila beti ezker edo eskuin. Baina hemen ez ezik, Sevillan ere bizi izan dut, beste toki batzuetan, eta zera diozu. Baina zelako tontakeria, psikosi bat baita. Bai, bai, baina oraindik konturatzen naiz lehenengoan nagoela, eta urte asko joan dira» (E57).

21 «[...] oraindik gogoratzen naiz, behin, urtarrilaren batean, bila etorri zitzaizkidala, betiko moduan, hona gora, eta igo zenari urte berri on opa eta esan nion: —Nola hasi zara urtea?; eta zera esan zidan: —Oso ondo, lanarekin. Arraioa, birrinduta utzi ninduen, haren lana zera zelako...» (E03).

4. Kaltegile estortsioegileak: moralgabetasunaren muina

Berez, ikuspuntu etikotik, beldurtze oro ez da immoralala. Giza eskubideei guztiz egokitutako prozesu judizialak eta zigorrak jasotzen dituen zigor kode batek ikaratu, beldurra sortzen du hura hautsi nahi duenarengan, eta ez du zilegitasuna galtzen horregatik. Baina adibide paradigmatico horrek erakusten du beldurra sortzeak —inoiz ez izua— etorri behar duen pertsonarengandik eta tokitik —demokratikoki bidezkoak diren botere publikoetatik— badator eta pertsona ororen duintasuna errespetatzen duten prozedurak eta zigorrak erabiltzen baditu baino ez diola bere buruari etikoki eusten. Eta horixe ukatzen da erabat ETak egin duen estortsioan.

Bestalde, estortsioegile-beldurtzailea bahituaren «kartzelari» bihurtzen denean, haren indarkeriak beste ñabardura batzuk hartzen ditu. Hasteko, biktima kaiolatuta, bahiketa luzeetan denboraren eta espazioaren zentzua galtzera, fisiko eta psikologikoki higatzera, gizarte errealitatek ia erabat bereizita haren erreferentziak lausotzera, isolamenduaren bakardade latzean eta isiltasunean bizitzera, bere eta bere familiarean etorkizunari buruzko larritasun estugarria bizitzera, identitate-krisi bati aurre egitera behartuta bizitzearen eguneroko erantzulea da²². Indarkeria handia da. Eta «kartzelari» horietako batzuen epaiketan ikusitakoaren arabera, ordea, badirudi egoera horren egunerokotasuna, zeinak torturaren tantaz tantakoak bezala kartzelaratutakoarentzat hura jasanezin bihurtzen baitu, errutina bat egiten duenaren deskarguarekin bizi dutela —Arendt-ek aipatzen duen gaizkiaren hutsalakeria. Batzuetan «harreman» arinak ekar ditzake berriaz biktimarekin —zeinarentzat «solaskide» bakarrak baitira— eta, haien adeitasun formalean eta batez ere adeitasun formal horretan, harreman horiek sakonean zauritzen dute azkenean, objektiboki bere burua berresteko borondatea ahuldu ohi diotelako. «Kartzelari» hori balizko berreroa ere ote da, agindu militarra jasota, biktima obedientzia itsuz hilko duena²³? Errealitatean, halako egoeretan bahituak esperientzia bakarra bizi du, bere nortasunaren eta zenbait inguruabarren arabera, baina hertsapen berezi horri aurre egin behar diote denek euren bahitzaileari dagokionez.

Estortsioegileak, pixkanaka hartzen den laztasun gizagabeagatik ez ezik, euren buruari ematen dizkioten zurrubideen ondorioz ere, gaizkian kokatu eta interpretazio moral guztiak blokeatzen dituzte. ETak estorsiorako ofizialki aipatzen dituen xedeetatik —euskal aberriaren subiranotasuna sustatzea, langileen eta gizarte mugimenduen alde egitea, batez ere ekologismoaren alde²⁴— gauza hauek esan daitezke: a) batzuetan zehazten dituzten modua dela-eta, sarritan indarkeriaren erabileraren eraginarean pean, aipatzen dituzten eskubide horiek ukatzen dituzte; b) batzuetan, euren edukian edo irismenean eztabaidan dauden eskubideak aipatzen dituzte, interpretazioari buruzko gatazka eragiten duten eskubideak, zeinaren aurrean etakideek euren dogmatikoki ezarri nahi baitute, herritar gisa haiek kudeatzeko eztabaida eta erabaki demokratikora batu beharrean; horrek, bestalde, ordezkagarritasunaren usurpazio bat, etikoki iruzurrezkoa, da —langileak, euskal herritarrek ordezkatu/ordeztu nahi izatea—, eta moralgabetasunez kutsatzen ditu horrek eskatzen den eskubidearen gauzapena eta, berriz ere, haren kontzeptua bera²⁵.

22 Errealitate horretara kasu baten bidez hurbiltzeko, ikus José María Aldayari buruz Pérezek eta Señarisek idatzitakoa (2012).

23 Gogoan hartu estorsio ekonomikoak eragindako bahiketa hilketan amaitutako kasuak, hala nola Ángel Berazadi edo Javier de Ybarrarenak.

24 Estorsiorako beste xede batzuk ere badaude, hala nola espainiar eta euskal gobernuak estortsioegileak nahi dituen neurriak hartzeko presio politikoa egitea, elkarrizketetan islatzen denez. Horrek azaltzen du enpresaburuen erakundearen ordezkari batzuek duten pertzepzioa. Haren arabera, eskutitzen bidalketak eta enpresa-instalazioen aurkako sabotajeak, kale-borroka bezala, tregoa eta negoziazio prozesuak zabaltzeko uneetan areagotu ziren. Berriz ere, estortsioegileak gogorki manipulatu dituzten estorsioa jasaten dutenak, presio politikoa euren egitera behartzen baititu, bizi duten egoera jasanezinaren aurrean. «Pertsona horien teoria da Gobernura jotzen dugula esateko: "Aizu [...] emaezue hori ea hau amaitzen den". Ez, guk urrats hori, nik profesionalki, behintzat, ez dugu inoiz eman» (E03).

25 Kausa ekologistetan indarkeriaz esku hartzeak, horretan ziharduten gizarte mugimenduen ordezkagarritasuna usurpatu ez ezik, haien manipulazio argia ekarri zuen, herioa eta suntsipena ereinez bilatzen zituzten euren eldarnio abertzaleen zerbitzura. Abiadura Handiko Trenarekin eta Leizaranen edo Lemoizen bizi izandako egoeren arteko funtsezko aldeetako bat, ordea, honetan datza: lehenengo kasuan, enpresaburuak ez ezik, indar politikoak eta euskal gizartearen gehiengoak eta, batez ere, erakunde ekologistak eurak -aurreko kasuetan pelak, anbiguoak eta are konplize isilik- ETaren eta haren ingurunearen aurka agertu ziren.

Espainiar Estatuaren —eta burgesiaren— zapalkuntzaren intentsitatea eta izaera direla-eta, bidezko defentsan bezala, indarkeria erabili behar dela argudiatzea, eta erabilitako indarkeria era horretan interpretatzea, errealitatea larriki desitxuratzea da, zuhurtasunezko hausnarketaren araurik oinarrikoenak erabat hausten ditu. Hori guztia laburbiltzeko, esan daiteke ETAREN estortsioko indarkerian pertsonak kausen mende jartzen direla sistematikoki eta aurretiaz, lehenengoan manipulazio garbia gertatzen dela, haien duintasuna urratzen duena. Moralgabetasun sistematiko bat dagoela, beraz.

Etika, gaizki diharduen subjektuaren aurrean, ez dago bakarrik haren ekintza epaitu eta haren erruduntasuna «kanpotik» definitzeko. «Barrutik» bizitzen hasten bada, subjektu horri bere berroneratze moralak aurkitzeko bide bat eskaintzeko ere badago. Estortsiogileei ere aplikatzen zaie hori. Eragindako gaizkiaren ardura erantzukizunez hartzea dakarkie lehenbizi bide horrek. Haien kasuan, haien biktima zehatzei dagokionez ez ezik —oinarrikoena eta pertsonalizatuena—, ETAREN biktima guztiei dagokionez ere bai, erakunde terroristak horrekin identifikatu izanagatik; eta, asmo politikoa duen indarkeria izanik, gizarte osoari dagokionez ere bai, bizikidetzari eta bizitza demokratikoari eragindako nahasmendu larriagatik. Barne eraldaketa sakoneko prozesua eskatzen die horrek, eragindako gaizkiagatik damutzearen eta publikoki eragindako kalte bidegabea —hura ere publikoa izan delako— aitortzearen ondorioz. Aitorpen koherentea, hots, berak konpon dezakeena konpontzeko prest egonda.

Prozesu traumatikoa da, noski, bere buruaren pertzepzioan aztoramen erradikala dakarrelako: estortsiogilearen ustez oso ona eta are heroikoa zena, erabateko gaitzespenaren mende geratzen da. Eta gaitzespen hori besteena ez ezik, horren aurrean babesten zuen koraza baitzeraman, bere buruarena ere bada eta, bide horretatik, besteen, batez ere bere biktimen gaitzespen hori baliozkotzat joko du. Ordura arte bizi izandako identitatea lur jota geratzen da. Baina haren errautsen gainean baino ezin du hura berrituta eraiki, identitate moralki finkatu gisa, zeinean berroneratuta sentituko baita azkenean. Bide horretatik bihurtuko baita *errudun ohi*. Gertatutakoa ez da ahaztuko, gaizkiaren oroimena biktimari eta gizarteari zor dienaren parte baita. Baina moralki berreratutako oroimena da, sendagarria bera.

Estortsiogileak prozesu hori egiteko pizgarri erabakigarria bere biktimarengan aurkitzen du, hain zuzen ere. Lehenago beste zalantza batzuk badatoz ere, biktima biktima gisa ikusten hasten denean hasten da dena berarentzat, hots, bere duintasunean bidegabeki zauritutako pertsona gisa, eta bere biktima gisa. Haren izate hutsetik jasotzen duen interpelazio horren bidez eraiki dezake berroneratzeko bide osoa. Moralki beti asimetrikoak diren prozesu horietan, biziraun duen biktimak bere kaltegiaren dinamika horretan parte hartu nahi izateak osatu egiten du prozesua; baina kaltetu zuen pertsonak bera arbuiatzeko bidezko jarrerak ere onartu behar ditu berak. ETAKO kideekin erabili den «Nanclares bidea» delakoak eta, batez ere, haren barruko «berroneratzeko topaketek»²⁶, hemen proposatzen dena egiten dute, euren mugekin, noski²⁷. Minoritarioa bada ere, ezinezko bidea ez dela frogatzen dute. Bestalde, dirudienez, «diru-biltzaile» hutsak izan direnak itzalpean geratu dira, funtsean, ez dira justiziaren aurrean agertu eta beharbada ez dute uste bereziki gaizki jokatu dutenik. Haiek ere, denek, berroneratze pertsonal eta zibikoko prozesu honetara etikoki deituta sentitu behar lukete, euren errua zintzotasunez eta koherentziaz onartuz. Horretarako, euren biktimak *egian* ikusteko gai izango ote dira?

26 Ikus Pascual (2013). Urte bereko bigarren argitaraldian hemen esandakoa zabaltzen duen Xabier Etxeberriaren kolaborazio bat dago, «Los encuentros restaurativos como diálogo moral». Biktima kaltegiarekin elkartzeko prozesuaren asimetriak dakarrenaz jabetzeko, balizko adiskidetzeari buruan izanda, Galo Bilbaoren azterlana (2008) kontsulta daiteke.

27 Bide horri irimotasunez heldu dioten presoan artean batzuek enpresaburuen eta zuzendarien estortsiorearen, bahiketaren eta hilketaren indarkeriarik handieneko alderdian parte hartu dute.

5. Bitartekariak, prozesuaren itzaleko pertsonaia aktiboak

Orokorrean, sozialki eta nagusiki, bitartekariari buruzko iritzi ona dago; izan ere, engaiamenduz eta estortsioa jasaten duenaren sufrimendua arindu asmoz esku hartzen duela sentitzen da, min eta bidegabekeria handia sortzen duen egoera gatazkatsu baten testuinguruan. Hala da hori bere zereginean egoera arruntetan dauden pertsonentzat onartezinak diren ekintza mota batzuk egin behar dituela onartzen bada ere. Hala, ekintza horiek, onartu ez ezik, positibotzat jo eta balioesten dira estortsioaren testuinguruan bitartekaritzaren izenean egiten direnean. Itxura batean, behintzat, ikuspegi etikotik birritan paradoxikoa den egoera bat daukagu:

- a) Alde batetik, badirudi pertsona hori itzalpean, mota orotako argietatik kanpo —baita analisi etikoaren argietatik kanpo ere— uztea egokia dela, bere eginkizuna bete ahal izateko; baina, egiatan, ondo egiten badu, protagonismo eta garrantzi izugarria daukala onartu behar dugu, gutxienez.
- b) Bestetik, badirudi bitartekariarengan eta haren zereginaren testuinguruan baldintza berezi, salbuespeneko batzuk gertatzen direla, beste edozein testuingurutan hutsaltzat edo are anker eta biziozko-tzat joko litzatekeena bertute bihurtzen dutenak.

Halaber, ez da garrantzirik gabeko kontua, bitartekariaren esanahi etikoari heltzean, hark esku hartzen duen gatazka nola ulertzen den argitzea. Ez da gauza bera lan-gatazka bat edo bortxazko gatazka bat. Eta ez da gauza bera gerra-gatazka bat edo ekimen terrorista bat. Estortsioaren kasuan, biktimaren eta kaltegilearen artean erabateko asimetria dago, ez dago haiek parekatzerik edo nahasterik, laidoak edo bidegabekeria ez dira bi noranzkotakoak, noranzko bakarrekoak baizik. Bestalde, ikuspuntu etikotik, funtsezkoa da zehaztea noren edo zeren alde egin zen bitartekaritza. Ez du inoiz judizio moral bera mereziko biktimaren alde jardun nahi izan duenak, larderia eta hertsapeneko egoera batean, edo kaltegilearen alde jardun zuenak, haren imaginarioan eta estrategian bat etorrita, bere onura hutserako jardun zuen komisiolariak edo, gizarte adiskidetzeko balizko etorkizunaren alde egin nahian, agian indarkeriari zilegitasuna kentzeko nolabaiteko distantziakidetasun kaltegarria erabili zuenak. Alde hori eremu soziopolitiko eta judizialera eramateko, bereziki zorrotza izan behar da kasu bakoitzean aztertzen ari den figura motari buruzko iruzurrik ez onartzeko. Ikus ditzagun orain bitartekaritza mota horiek guztiak banaka.

5.1. Biktimaren aldeko bitartekaritza

Jarrera horretarako motorra estortsioaren bidegabekeriak eta estortsioa sufritzen duenarengana sentitzen duen errukiak eragindako sumina izan daiteke. Bitartekaritza zenbait modutan egin daiteke: estortsioa jasaten duena aparatu estortsiogilearen loturarekiko elkarrizketan laguntzeko zereginetik —zehazki, ikerketa honetan elkarrizketatutako baten batek berak estortsioa sufritu aurretik egin duela adierazi du— ordainketaren baldintza zehatzak negoziatzeko estortsioa jasaten duenaren ordezkari bihurtzeraino. Tartean, beste batzuk daude, hala nola jarduteko prozedurak edo erakunde terroristatik gertuko kontaktuak ematea edo haren aurrean biktimaren alde aritzea bere ordezkatuak ordaintzea saihesteko.

Estortsioan biktimaren aldeko bitartekaritza etikoki balioesteko estortsioaren beraren kasuan aurkeztutako bide paraleloak edo antzekoak erabil daitezke. Sumina, errukia, elkartasuna edo altruismoa goraiatu behar badira ere, ez da ahaztu behar estortsioaren helburua legez kontrako jarduera bidegabeei eusteko funtsak biltzea dela, halakoak baitira erakunde terroristen jarduera guztiak. Hori hala berretsita, balirudike biktimaren aldeko bitartekaritza estortsiogileei euren asmo kriminaletan amore emanaraztea lortuz gero baino ez litzatekeela onargarria eta beste edozein emaitzak —ordainketa osoa edo txikiagoa ahalbidetzea; baldintza ezin okerragoetan edo modu ez hain kaltegarrian, eta abar—, gogoz kontra bada ere, terrorearen bidegabekeriari laguntzearen orbana leukakeela ezinbestean. Komenigarria da berriz esatea zuhurtasunezko etika batetik azaldu eta defenda daitekeela bitartekaritzaren moralitasuna eta gizatasuna onargarriak direla, biktimaren alde jarduteko asmoz, estortsioa jasaten duen pertsona biziki jasanezina den egoera batetik askatu besterik nahi ez denean —hura lortzea ez da erantzukizun eskusiboa ezta irizpide absolutua. Izan ere, halakoxea da egiazko mehatxua eta norberak eta familiak kalte larria pairatzeko arriskua, gizarteak abandonatutako eta askatasunak larriki hertsatutako testuinguruetan. Erantzun batzuk argiro moralagoak izan arren, heroikotasunaren eremu supererogatorioan kokatzen direnak, ordeak.

5.2. Kaltegilearen aldeko bitartekaritza

Elkarrizketatu nahikotxok kontaktzen dituzten egoeretan, bitartekaria ez du biktimak jarri, estortsiogileek estortzioa jasaten duenari ezarri baizik —kasu batean, gutxienez, sufrimendua maila altuago batera eramanda, bahituaren zuzeneko senidea baitzen hura. Elkarrizketatu batzuek xehetasunez eman dute ordaintzeko bideen *modus operandi*aren berri, *Otxia* ETArri lotutako 70 eta 80ko hamarkadetako bitartekari baten bitartez (E59).

Beste batzuetan, adiskidetasunetik, bitartekariarengana jotzen da, hain zuzen ere, erakunde estortsiogilearekiko lotura edo, gutxienez, hurbiltasun ideologikoa ezagutzen zaiolako, gestio horietako batzuetan emaitza positiboa izanik. Mota horretako bitartekariak mezu lasaigarria eman ohi dio biktimari: ondo joango da dena jarraibideak betetzen baditu, erakunde estortsiogilea zentzuzkoa da bere nahietan, estortzioa jasaten duen subjektuarengan biltzen diren egoera bereziak aintzat hartu ohi ditu eta haietara egokitzen ditu bere eskakizunak, kontaktua eta gestioa errazak dira eta jasotako tratua zuzena. Horrek denak, itxura batean, ezaugarri on eta baliotsuekin apaintzen du haren irudia erakunde estortsiogileak jasanarazten dion presioak estututa dagoenarentzat. Azken batean, presio egiteko eta legez kontrako baliabideak lortzeko mekanismoa zuzen ibiltzea ahalbidetzen duen bikoizketaren edo zereginen banaketaren alde «adeitsua» da. Hala ere, kasu horretan, bitartekaria erraz —eta ez oker— identifika daiteke estortsiogilearekin. Gauzak txarto ateratzen badira, mehatxatuak zenbait urrats ematera uko egin edo bere erabakia aldatzen badu, ondorioz estortzioa kualitatiboki areagotzen bada, bitartekariak ez du ondorio negatiborik izango. Hau ere esan ahal dio: «zeuk nahi izan duzu».

Estortsiogilearekiko identifikazioa egiaztatuta, haren alde lan egiten duen bitartekariari buruz egin behar den balioespen morala kaltegileari emandako berbera da. Beharrezko, borondatezko laguntzailea da, ados dago haren helburuekin eta jarduerekin eta, ondorioz, haren jarduerak arbuio moralik handiena baino ez du merezi.

5.3. Gizartearen aldeko bitartekaritza

Hirugarrenetik, bitartekari mota berezi bat ere badagoela pentsa dezakegu. Herritar gisa duen erantzukizunetik eta protagonista nagusiekin —biktimarekin eta kaltegilearekin— lotura berezirik izan gabe, bitartekari horrek badaki bortxazko gatazka motaren bat dagoela eta esku hartu behar duela sentitzen du, bitartekari-tza zerbitzua gizartearen orokorrean sortutako sufrimendua ahalik eta gehien murrizteko eta, ahal bada, sufrimendua gertatzen den indarkeriazko gatazka hori amaitzen laguntzeko helburuarekin.

Kasu horretan, ohikoa da bitartekaria akats larri batean, ikuspuntu etikotik, behintzat, erortzea: distantziakidetasunean. Distantziakidetasunak berdintzea aldeztu du abiapuntutik, errotik, egiatan desorekatua eta asimetrikoa den gatazka batean. Haren adar gisa, besteak beste, hauek aipa daitezke: alde batetik, indarkeriazko ekintza ororen kondena orokorra, «nondik ere datorren», ondorioz zuzenbideko estatuaren bidezko eta legezko jarduera eta erakunde terrorista baten legez kontrako jarduera bidegabea parekatzen dituen eta, bestetik, negoziazio-eredu baten alde egitea —«garaiturik eta garailerik gabe»—, indarkeriazko gatazka edo haren adierazpen zehatzak —hala nola estortzioa edo bahiketa ekonomikoa— konpontzeko arrazoizko bide gisa. Distantziakidetasun horrekin batera tesi hau ere ager daiteke: sufrimendu guztiak hartu behar dira gogoan, moralki funtsezkoa denez, sufrimendu ez-bidegabeak —adibidez, giza eskubideak errespetatuz, estortsiogileari espetxe-zigorra ezartzea— eta bidegabeak —estortsiogileak bere bahitua «herriaren kartzelara» «zigortzea»— bereizi gabe.

Hain zuzen ere, bitartekariak bere burua behatzaile inpartzialtzat hartzeak, gatazka terroristaren interpretazio simetrikoki hori diseinatuta, (itxurazko) neutraltasuna ematen dio automatikoki edo (ustezko) jarrera moral hobea edo are harekiko errugabetasun (faltsu) bat, bitartekaritza-lana egitea ahalbidetzen eta horretarako izena ematen diona. Banako pertsona eta gizarte subjektu nahikotxo —haien artean ez dira falta erakunde bakezaleak eta bakerako hezkuntzako eta gatazkek konpontzeko nazioarteko adituak— aurrez aurreko bidegabekeriaren eta indarkeriaren arteko jarrera distantziakidea izatearen kontzientzia hori hartu ohi dute. Moralki akatsgabeak eta gizartearen pairatzen den indarkeriazko gatazka konpontzeko giltzaren jabe bakarrak bihurtu ohi ditu horrek.

Arazoa, ordea, hau da: hura boterearen asimetria ez ezik, asimetria morala ere badagoen indarkeriazko gatazketan hots, alderdi batek indarkeria pairatu duen —errugabea den— eta besteak hura eragiten duen —erruduna den— gatazketan aplikatu nahi izatea. Hain zuzen ere, paradigmatikoki ia, estortzioan dagoen «gatazka» da. Halako kasuetan, estortzioa jasaten duen pertsonaren arazoari aurre egin ez ezik, indarkeria

amaitzeko ekarpena egin nahi duen bitartekaritza egokitzen jotzen bada, etikoki neutralak ez diren pertsonak egin behar dute. Pertsona horien abiapuntua jokoan dauden jokabideei buruzko balio-judizio bat, giza eskubideetan oinarritua, izan behar da, eta judizio hori izan behar dute gogoan errazteko lanean; baina, bestalde, hala ere, alderdi bien *konfiantza* izan behar dute, eta irizpide horrek ordeztu behar du neutraltasunarena. Hori, noski, indarkeria eragin duena bere indarkeria alde batera uzteko benetako asmoa, txikia bada ere, izaten hasten denean baino ez da gertatzen. Oinarri hori duen bitartekariak bermatuko dituen irtenbide bakarrek indarkeria amaitzea eta eragindako kalte bidegabekoa koherentziaz aitortzea ekarriko dituzte —etorkizunari begiratzen zaio, iraganeko biktimei justizia eginez haien ezkutatzearen konplizeak ez izateko. Mugimendu bakezalearen barruan ere planteamendu batzuek oso gogoan hartzen dute hori guztia, baina ez dira, hain zuzen ere, bitartekari distantziakidearen erreferentzia.

5.4. Norberaren onerako bitartekaritza

Azkenik, ezin dugu alde batera utzi bitartekari «profesionalak» ere badaudela, egoera pertsonal bereziak —prestakuntzak, gaitasunak, kontaktuak, esperientzia...— esku-hartze bat egiteko baliatzen dutenak, azken helburua euren onura izanik. Sarritan, beste batzuek pairatzen duten gaizkiari etekin pertsonal lotsagabea ateratzeko asmo hori gaitasun eta jardunbide profesional egokiz mozorrotzen da. Beste lan eremu batzuetan ere ohikoa den pertsonaia daukagu, besterik gabe, bere jardueraren barneko ongia —hain zuzen ere, sozialki baliotsua izateagatik, hura zuzitzen duena— kanpoko edo haren alboko beste ondasun batzuekin (hala nola diruarekin, ospearekin edo boterearekin) nahastu eta ordeztzen duena. Barneko ongiak erabiltzailearen ongia du xede, profesionalaren jardueraren bitartez lortuta; kanpoko ongiak profesionalaren beraren interesari begiratzen dio eta barnekoaren mende badago baino ez da bidezkoa (MacIntyre, 1987). Horixe da bitartekari mota horrek egiten ez duena: irabaziak bermatzen ez badira estortsioa jasaten duena alde batera uzten du, hark larriki behar badu ere; haren jokabidea ordaintzerik ez daukan istripu baten biktimea abandonatzen duen medikuarena bezalakoa da. Hori hala denean, hain zuzen ere, ustelkeria profesionalaren, bitartekaritzaren zentzuaren perbertsioaren aurrean gaude, besterik gabe.

6. Erantzukizunaren zirkuluak: gizartetik estatura

Herritarrek indarkeria terroristaren aurrean duten betebeharra Iris Marion Young-ek (2011) proposatutako gizarte loturaren ereduaren arabera interpreta daiteke. Inguruabar jakin batzuek baldintzatutako testuinguru batean biktimak bere erantzukizuna ahazterik ez badauka ere, estortsio terroristako prozesuen erreproduzio estrukturalaren aurrean, erakunde publikoen, enpresaburuaren erakundearen, segurtasun-indarren eta gizartearen beraren erantzukizunak pisu espezifikoak eta bereizgarria hartzen du kasu bakoitzean; hortik aktore horien ebaluazio etikoari eman behar zaion garrantzia. Gizarte osoak eta terrorismoaren biktimak ordezkatzeko dituen eta zerbitzua ematen dien Estatuak haiek tratatzeko duten modua sistema politikoaren kalitate demokratiko eta etikoaren neurriak esanguratsuenetakoa delako. Hori dela-eta, ezin diegu erreparatu estortsioa jasaten dutenekin gizarteak dauzkan jarrerari eta portaerari hura pairatzen duten unean bakarrik; aitzitik, gero ere erreparatu behar diegu, sufritutako bidegabekeriagatik biktimiek jasotzen duten ordainean (Ikus 7. kapitulua, Administrazio publikoentzako gomendioak).

Esan daiteke indarkeria politikoa agertu zenetik egun arte herritarren artean, oro har, biktimen aldeko bilakaera motel baina positiboa egon dela pixkanaka, baina egitate hori ez da hain argi sumatzen estortsioari buruz. Testuinguru horretan bereziki nabarmendu behar da terrorismoaren biktimen «bisibilizazioa» —zeina euskal eta espainiar gizartean joan den mendeko azken hamarkadaren erdialdeaz geroztik gertatzen baita; horren ondorioz, besteak beste, protagonismoa hartu dute biktimiek, gizarteak horren kontzientzia hartu du eta lege garapen zabal eta esanguratsua gertatu da haien eskubideak estaltzeko—, dirudenez, ez dela oraindik iritsi estortsioaren biktimen berariazko eremura. Hori dela-eta, ezkutuan jarraitzen dute, ezezagun, nahita baztertuta ez badaude.

6.1. Gizartea

6.1.1. Aurreiritziak eta estigmatizazioa, estortsioaren zuribidearen haztegia

Hainbat hamarkadatan, estortsioaren dinamikak suitzar erloju baten doitasunarekin funtzionatu du ia, hura aurretik zuritzen zuten estigmatizazio prozesu bizieta finkatuta. Prozesu horien ardatzetako bat enpresaburuak sozialki gutxien dituen estereotipoa izan da. Haren arabera, euren biktimizazioaren erantzuleak dira haiek -gutxiespen orokorra Trantsizio urteetan, zenbait enpresatan hitzarmen kolektiboaren negoziazioa kutsatzen laguntzen zuena-. Beste bat indarkeria «gatazka politiko»aren testuinguruan etengabe jartzea izan da; logika terrorista faltsuaren arabera, enpresaburuak egoera horri eusten laguntzen zuten. Diskurtoaren bi ardatz horiek imaginario hermetiko bat elikatu dute, interpelazio ororen aurrean babestuta, biktimak bitarteko huts gisa erabiltzen zituzten eta kaltegileen ekintzen erantzukizunak, are ankerrenenak, beste batzuegana desbideratzen zituzten: «Kostuaren zati bat da enpresaburu oro, definizioz, esplotatzailatzat jotzen dela eta hala errazagoa da hari “zerga” bat ordaintzeko eskatu ahal izatea» (E17)²⁸. Balizko biktima jazartzen zuten, iraindu egiten zuten, «espainol zikina», «enpresaburu esplotatzailea» edo, besterik gabe, «faxista» esanik, haren atarian haren izena edo diana bat marrazten zen²⁹, elkarretaratzeak egiten ziren haren laneko bulegoaren edo haren etxearen aurrean. Hala, zenbait kasutan bahitzen edo hiltzen zuten arte. Hil ondoren ere, haren hilobia profanatzeko, telefonoz deitzen zieten senideei iseka egiteko edo oihu egiten zieten kalean bertan, haiei barre egiteko. Oihuen adibideak: «... putakume hori!» (E57) edo «Argi ibili, zure aitak bezala amaituko duzu!» horren adibide ikaragarriak dira.

Enpresaburu asko bakarrik sentitzen ziren, «satorra barruan» edukitzeko sentipena sinesgarri bihurtzen zuten lan-gatazka eta greba etengabeek markatuta (Reinares, 2001: 69); orduko gizarte giroan

28 «[...] nik uste ekosistema bat dagoela hor, alegia, batez ere erantzule izugarri batekin, hots, ETaren estortsio eta indarkeria terroristarekin, sortutako ekosistema bat, enpresaburuak ez ezik, zuzendaria eta are denda bat zeukan dendari txikia deabru bihurtu duena» (E04).

29 «[...] Gogoratzen naiz, lan egin ondoren tailerretik etxera iristea, nire idazkun bat aurkitzea, eta han, tira, traidorea, gauza horiek guztiak eta hau eta bestea, kendu nahi izatea eta, aurreko espaloian, kasualitatez, norbait pasatzea eta esatea, espaloi batetik bestera «Aizu, ikusi egin zaitut» [...]. Hori da larderia. Arraioa» (E66).

nagusi zen enpresaburuen kultura demokratikorik eza, sindikatuak klandestinitatetik irteteko borrokatzen ziren eta bi alderen arteko gatazkaren teoriarik edo ETAREN garaitezintasunaren eta betiereko berdinketaren tesian sinesten zen, indarkeria naturalizatzen laguntzen zuten atentatu etengabeen ondorioz; bazirudien komandoak desegin baino azkarrago berreratzen zirela. «Alde bateko eta besteko hildakoak» aipatzen ziren egunero, eta adierazpen horrek gertagarritasunaren egitura aurkitzen zuen ingurune erradikalaren biktimismoan, zeina 80ko hamarkadan zenbait gertakari elikatu baitzuten, hala nola GALen ekintzek, zentzugabekeria etiko eta akats politiko larri bat. Euskal enpresaburuak eta profesionalak heriotzaren edo hankan emandako tiroaren Damoklesen ezpataren pean zeuden -hankan emandako tiroa polimilien bereizgarria zen-, eta horrek «eragin taumaturgikoa zeukan bahitutako eta tirokatutako enpresaburuarengan eta kutsagarria zen bahituak izan zitezkeen artean» (Calleja, 1999: 37).

[...] urte horiek oso latzak izan ziren, zeren bat etorri baitziren... ETAREN unerik gorenetakoa batekin eta, bestetik, itsasadarraren birmoldatzearekin. Orduan, bi gai oso latz nahastu ziren, oso zorrotzak... Ikuspuntu fisikotik, itsasadarreko langileen oldea sufritzen genuen eta, ikuspuntu ikusezin baina oso ikusgai batetik, ETA zen guztia, ETAREN atze guztia, mezuen, mandatuen, esanen eta eskutitzen bidez, ezta? [...] tira, guk, kontseilu osoak, ETAREN zenbait eskutitz jaso genituen. Eskutitz ospetsua, «Euskal herritarren etsai izendatu zaitugu» esanez hasten zena [...] horixe zen sufrimendu moralik handiena. Noski, eskutitz horien guztien zentzua zuzenekoa zen, hots, ekonomikoa, dirua eskatzekoa, edo orduan zeukaten Egin egunkariaren bidez errepikatzen ziren zenbait ekintza eskatzekoa. [...] ezin zen hitz egin, ez zenekien norekin hitz egiten zenuen [...] Egin-en ordezkaria ere etortzen zen bankuaren prentsaurrekoetara. Gauza benetan nabarmena zen, gero zure datu pertsonalak emango zituztela jakinda, jazar zintzaten. Erakundearen kontrakoa zen, noski, baina zure kontrakoa zen zuzenean. Jazarrita sentitzen zinen jazarrita zeundelako. Orduan bizitza lan oso bizia bihurtzen zen baina, niretzat, gerra baten sentipena zen, zeinean bakar batek baitzeuzkan armak eta bestea..., ez dakit, bere burua defendatzen saiatu behar zen, ihes eginez, esaterako [...] (E22).

Garai hartan ingurune erradikala zen nagusi euskal esparru publikoan, herritar guztien eguneroko bizitza baldintzatzen zuen eta indarkeriaren ideologia elikatzen zuen. Gizartea kontrolatzeko zeukan gaitasuna, are begiratu huts batean, agerian geratzen zen oso biziki landatar gune txikietan, non haien sareek esparru publiko eta pribaturik garrantzitsuenak monopolizatzen baitzituzten (Santos, 2009: 25-26). ETAREN aldeko pankartak eta presoek argazkiak ugaritzen ziren, mobilizaziorako eta haien gazte abangoardiaren borroka egunetarako dei etengabeak, manifestazio etengabeak eta oso jendetsuak, hiletak «eroriengatik», zeinak sakralizatu egiten baitzituzten, heroi eta martiri gisa³⁰, eta omenaldiak. Hori dena, gizartearen pasibotasun erosoaren aurrean, hark ez baitzuen bere burua «politika nahasteetan» sartuta ikusi nahi (Martínez, 2013: 79-81); gizartea hilketarekin batera bizi zen, eguneroko errealitate gisa, ekintzagatik edo ez-egiteagatik legitimatuta, ia oharkabean igarota (E57)³¹.

Erakunde terroristak eta haren informatzaile, salatzaile eta laguntzaile sareak ere, hizkuntza gaiztotuz, zer hitz erabili eta hitz horiek zer esanahi izan behar zuten erabaki zuten, estortsioa sozialki legitimatzeko: horregatik errepikatzen zuten ETAK ez zuela bahitzen, etsaiak «herriaren kartzelan» giltzapetzen zituela, ez zuela hiltzen, «kondena bat exekutatu» baino ez zuela egiten, eta ez zuela estortsiorik egiten, *zerga iraultzailea* eskatu besterik ez, Euskal Herria askatzen laguntzeko; hala, ekintza horiek guztiak bidezko «borroka armatua»-ren ondorio tamalgarri baina beharrezkoak ziren. Gure elkarrizketatu batzuek hizkuntzaren erabilera zital hori salatzen zuten, halako gizarte humusak estortsioa askapenaren aldeko borrokan behar zen tresna gisa aurkezten zuela, bere onerako. Hizkuntzaren erabilera horretan moralgabetasun bat dago

30 «Gazteen artean klasean, tira... heroiak ziren. Heroiak ziren. Zera ziren..., hara, jendea, ezta? Gainera, harrotu egiten ziren, bada ez dakit, kontrol batean gelditu zituztelako edo polizia-etxean egondako, torturatutako ezagun bat zeukatelako, merituak ziren horiek denak ia, ezta?, bada jendea... apuntatu egiten zen. Hala zen» (E27).

31 Jatorri abertzaleko informatzaile batzuek lehen garaietan ETA nolabait jasaten zutela aitortzen dute, gezurrezko pentsaera batetik, hots, ez zetozela bat bitartekoetan, baina bai xede batzuetan: «Odola egoten hasi, eta kontua aldatzen hasten da, baina aitortu behar dizut nire pertzepzioa... beste sektore bateko batena baino askoz toleranteagoa dela [...] garai hartan abertzaleetako askok... ez genuen terrorea ondo ikusten baina bai nolabaiteko sinpatiaz. Onartu egin behar da... mugimendu bat..., aizu, kasurik egiten ez badizute... Tira, Francisco de Vitoriak ezarri zuen doktrina hura, kasurik egiten ez dizutenean, hipotetikoki, armen bidea legezko eta bidezko bidea dela. Baita etikoki ere» (E28). «Baina ni, noski, Carrero Blancorena ospatu zutenetakoa naiz, baina ez bakarrik Carrero Blancorena... Ez dizut besterik esan behar. Carrero Blanco, denak, ezta? Baina ez hori bakarrik; polizia ziren, ez dakit zer ziren, beste batzuen kontua baitz bezala zen, ezta? Bertold Brechtena zen, ezta? [...]. Irmoagoak izan behar genuen» (E18).

berez, hein batean errealtatea desitxura dezakeelako —zerga ez da zerga eta ez da iraultza zuzen baten, ez langileen aldekoa; kartzela kartzela da, baina ez herriarena; batzar iraultzailea edozer da auzitegi inpartziala izan ezik; eta exekuzioa hilketa da—, eta hein batean agerian uzten duelako, argi eta garbi, mekanismo zapaltzailea dela, judiziorako erreferentzia giza eskubideak hartzen badira.

Une horretan, hizkuntza nola perbertitu dugun ikusteak ematen zizun min handiena —eta oraindik ematen dit—, xantaia edo estortsioa zenean, «zerga iraultzailea» esan diogunean, dialektikoki. Eta egun batean, hauxe esan zuen Aldundiko presidentek: «Baina, normalizat hartuko zenukete nik BEZaren xantaia edo PFEZren xantaia ordaintzera natorrela esango banu». [...] Xantaia eta estortsioa da hau. Gauza bakoitzari bere izenez. Eta hala izan dira kontuak, berezkoak balira bezala ikusarazi dizkigute berezkoak ez zirenean. Eta irabazi egin gaituzte kasu askotan, baita hizkuntzaren perbertsioan eta dialektikan ere. Gizartea higatu du horrek pixkanaka eta egintzat jo dugu. «Zerga iraultzailea» ordaintzen ari da. Baita zera ere! (Iza, 2010: 58)³².

6.1.2. Askotariko inguruneak, hainbat erantzun axolagabekeria nagusi den habitatean

Euskal gizartearen zati handi bati terrorismoaren biktimek orokorrean eta estortsioaren biktimek bereziki ez zioten axola eta haiengandik urrun agertu dira publikoki, indarkeriaren aurreko nekea handitu ahala, axolagabekeria publikoa arbuio pribatuarekin bateratu arren, ondorio praktikorik gabe. Axolagabekeria hori sakonki aztertu da, euskal kasuari buruz berariaz izan gabe orokorrean izan bada ere, baina gure artean pairatu dugun terrorismoaren nahitaezko hondo-irudiarekin (Arteta, 2010). Ez da beharrezkoa hemen garatzea dagoeneko azaldu eta arrazoitu dena —esaterako, bidegabekeria onartzea ahalbidetzen duten eragile nagusiak beldurra, ezjakintasuna, talde-presioa, bihozgabetasun morala edo kaltearen pertzepzioko ezaugarri batzuk direla—, baina hausnarketa horiek aplikatu, zehaztu eta espezifika daitezke estortsioaren gaian, gure erara eta inspirazio urrun gisa hartuta baino ez bada ere. Neurri batean, estortsioaren aurreko axolagabekeria haren errealtatea ez ezagutzeak azalduko luke. Ezjakintasun horretan laguntzen dute, kontrako zioengatik, protagonistek eurek —eragileak eta pairatzaileak— eta haren azken emaitza dagokion bakardadea da, bigarrenak sentitutakoa eta benetakoa. Edonola ere, estortsioaren irismen orokorrari dagokionez, ezjakintasun hori erraz gaindi daiteke. Haren irismen zehatzagoari dagokionez, behar beste aztertu eta gizartean zabaldu ez dela onartu behar da; hain zuzen ere, txosten hau ekarri duen ikerketaren asmoa hutsune horri aurre egitea da, lehen urratsak emanik. Estortsioarekiko axolagabekeria gehiengoaren jarrera dela berresten da era gordinean ikusten denean, seguruenik, biktima gehienak arazoak axola ez zientetakoak zirela mehatxuak zuzenean jo zituen arte. Egitate hori zintzotasunez egiaztatzen duenean, maiz, biktima berriak bere herrikideen jarrera ulertzen eta are zurtzen du, elkarrekikotasun hutseko eskema etiko batetik. Bestalde, gizartean ondorio kaltegarri horiek oso gutxi sumatzen direlako, ez da ezagutzen estortsioak zein kaltegarria den eta, era berean, sortzen dituen ondorio gaiztoak hautemateko dagokion balorazio-analisia egiteko asmoa kentzen du horrek.

Ez da arraroa izan ustezko axolagabekeria distantziakidea, argiago agertzen zena jarrera hori zutenek, euren nahiaren kontra, bi «alderdi»etako batekin identifikatuak izateko arriskua zeukatenean; hala gerta zekiekeen, esaterako, enpresa bateko langileei euren izenean dihardutela dioten kaltegileei edo estortsioa jasaten duen ugazabari dagokienez.

Bestalde, bere buruari ezker abertzalea esaten dionaren eta haren gazte abangoardiaren inguruneak, kopuruari eta gizartean zuen pisuari dagokienez aintzat hartu behar zenak, kaltegileak txalokatu eta estortsioa legitimatu zuen. Are gehiago, estortsioak eta jardunbide mafiosoek gure herrietan eta auzoetan berez ikusten den errealtate gisa funtzionatzen lagundu zuen. Sektore horrek, biktimizazioaren konplize aktiboa izanik, erantzukizun berezia dauka eta aurre egin behar dio identitate zibikoa berreraikitzen eta bizikidetzat etikoki berroneratzen laguntzeko. Atzera begirako analisi batean, informatzaile batzuen ustez, laneko arrazoiengatik edo arrazoi pertsonalengatik gertu zeuzkaten ingurune erradikaleko pertsona batzuek —«zein hurbil geneuzkan» (E66)—, agian, informazioa eman zioten erakunde terroristari estortsioa jasan zezaketen helburuak bihurtzeko (E04).

[...] gauza batek ematen zien beldurrik handiena, batez ere: ez zekiten noraino iristen zen sarea, garrorak. [...] batzuetan jendeak sentitzen zuen, harekin lan egiten zuen aurrezki kutxatik edo bankutik bertatik izan, edo are sozietate gastronomikoko edo koadrilako inguruneetatik izan, eskutitza jaso-

32 Lekuokotasun honen enpresaburu protagonista den Sabin Izaren hitzak dira; 1999 eta 2004 bitartean Arabako Enpresaburuen Sindikatuaren (SEA) presidentea izan zen.

tzeko begira-puntuan edo zerrendan jarri zutenak, edo haiei, erakundeari, dirua zeukaten pertsonak zirela [...] edo are egoera nahiko ahulean zeudela eta estutu zitzaizketela jakinarazi zietenak bere inguruneke pertsonak zirela (E36).

Aldian behin, gehiengo isiletatik mehatxatutako pertsonarekin zeukaten hurbiltasun fisikoagatik euren burua balizko biktima gisa ikustean haserre erantzun zuten sektoreak agertu ziren. Hala gertatu zen, esaterako, auzokoen komunitateekin: izututa, «Nire atzeko patioan ez» edo «Gizajoa, baina ez dakidala niri tokatu» politika aplikatu zuten maiz, edo kexu, haserre edo kontra agertu ziren segurtasun-neurri batzuegatik, arriskutsuak izan zitezkeelako, estigmak kutsatzea saihesteko.

Eta orduan eskoltak —eskolta jarri genuenean— arrapalan uzten zuen autoa. Orduan komunitatearen gutun bat iritsi zitzaidan, hau zioena: «Komunitateak erabaki du, mesedez, komunitateko langileek autoak kalean utzi behar dituztela» Eta zera esan nien nik: «Aizue, nire eskolta da, ezta?». Eta batzuetan, askotan, irteteko uhinen inhibitzaile bat darama, ezta?, badaezpada irteeran bere autoan inhibitzailea uzten du jarrita, ezta? Tira, horretan jendea ez zen batere solidarioa. Holako gauzak. [...] apur bat Not In My Back Yard delako hori [da], NIMBY, ezta? Gasolindegia bezalako da, ezta? Nahiago dut gasolindegia han egotea, ezta?, ez hemen (E02).

Informatzaile batzuek azpimarratzen dutenez, euren auzokoek edo gizarte eta politikako sektore jakin batzuek, biktima izan beharrean, pribilegiatuak zirela ere uste zuten, esaterako, korporazio handi bantentzat lan egitearen ondorioz nolabaiteko babesa jasotzean euren egoeraz harrotzen zirenak. «Ez dut inoiz ahaztuko batzuek [...] ekitaldiren batera auto blindatuan iristen nintzen bakoitzean, hau esaten zidate[la]: “Ostia, Aznar ematen duzu”, erdeinuz. Halako gauzak latzak dira» (E09). ETaren eta haren ingurunearen indarkeriak biktimaren eta kaltegiaren arteko kategoria etikoak iraultzea noraino erraztu zuen erakusten dute halako lekukotasunek; izan ere, gizartearen zati batek, inkontzienteki, bere egin zituen aurreiritziak, hala nola zenbait lanbide gutxiesteko joera, enpresaburua, esaterako, edo horretan zihardutenei kasurik ez egiteko edo are haiek gaitzesteko joera, sufrimendua erlatibizatu eta biktimenganako jarrera enpatikoak garatzea nahiz indarkeriari sozialki zilegitasuna kentzea oztopatzen zuten gutxiespeneko estereotipoak hartuz. Perbertsio etikorik handiena gizarteak, indarkeriaren logika bere eginez, jazarriak direnek egoeraren errua daukatela eta egoera horretatik etekinak ateratzen dituztela barneratzean datzalako (Iza, 2010: 58).

Elkarrizketatutako pertsona gehienek euren ingurune hurbilenaren babesa sentitu zutela azpimarratzen badute ere, beste batzuek aipatzen dute lagun eta ezagun batzuk gaia saihesten saiatzen zirela, gertatuko ez balitz edo haiekin zerikusirik ez baleuka bezala. Portaera horren azpian, kontziente nahiz inkontzienteki, nolabaiteko segurtasun-tarte edo «osasun-korridore» bat bilatzen zuten, ezer gertatuko ez balitz bezala bitzen jarraitzeko eta gertakari horrek eurak ez kutsatzeko.

[...] hondartzan ikusten nau [...] ez dit ezer esaten gai horretaz. Eta beste lagun batekin topo egin nuen, kazetaritzaren mundukoa bera gainera. [...] Eta azkenean, konturatu nintzen euskal gizarteak ez duela gaia bere egin, hau tokatu zaienentzat izan dela (E09).

Hesi ikusezinak ezartzen ziren, gaindiezinak ia, estortsioa pairatzen zutenen eta ez zutenen artean, pixkanaka enpresaren sektorean arazoa orokortu bazen ere, atxikipen ideologikoak gorabehera, «gora datorren marea bat» bezala (E09), euskal abertzaleak eta ez abertzaleak ukitzen zituena, arrazoi nagusia ekonomikoa zelako, politikoa baino gehiago; hain zuzen ere, estortsioa jasaten zuten pertsonak arinduta sentitzen ziren, esaterako, enpresa-erakundeetatik eskutitzen bidalketa handi bat egon zela eta haiena beste bat askoren artean baino ez zela esaten zietenean (E03 eta E26). Garairik latzenetan, mehatxatuairenganako hurbiltasuna erakusteko modua arazoa gainetik kentzeko ordaintzea aholkatzea³³ edo ingurune erradikaleko kideekiko balizko liskar orotatik aldentzea zen, pinta-da iraingarriekin, telefono-dei laidogarriekin edo eskutitz mehatxagarriekin etengabe xaxatu arren (Cuesta, 2000: 131-133).

Urterik latzenetan beldurrak enpresa-mundua ez ezik euskal gizartearen zati handi bat ere estutu bazuen ere, azken hamarkadetan larderiaren kurba pixkanaka hautsi eta egoera astiro aldatu zen. Era minoritarioan indarkeria arbuizatzeko eta biktimei elkartasuna adierazteko jarrera bat sortu zen pixkanaka. Biktimak eta mehatxatutako pertsonak subjektu pasibo edo pairatzaile huts gisa ez ezik subjektu aktibo ikusarazi zituzten erakundeak agertzean, polizia eta justizia eraginkorrago bihurtzean eta, neurri txikiagoan, gizarte gehienak

33 «[...] pertsona batzuek zera esaten zizuten: “Aizu, ordaindu”. Nola ordainduko dut! [...] baten batek esan zidan enpresaburu bat [...] beste aldera joan zela [parraldea], orduan esaten zenez, eta oso ondo tratatu.

ETAren aurrean sentitzen zuen «neke isila» agertzean gertatu zen. Miguel Ángel Blancoren bahiketaren eta hilketaren ondoren agertu zen hori (Aranzadi, 2001: 659). 90eko hamarkadan, Bakearen aldeko Koordinakundeak eta «begizta urdina»k gidatu zituzten bahiketen aurkako mobilizazio mota guztiak, bahiketa gehienak enpresa-munduari lotutako pertsonen aurkakoak izanik. Haiek iraun bitartean, langileek ere salatu zituzten; horregatik izan zituen erantzun oldarkorrek mundu erradikalak, kaleen kontrola egun batetik bestera galtzen ari zela sentitzen baitzuen. Bestalde, Bakearen aldeko Koordinakundeak «jazarpeneko indarkeria» esapidea sortu zuen 2000ko hamarkadaren hastapenetan eta kontzientziazio kanpaina asko antolatu zituen haren inguruan, enpresaburu mehatxatu gisa 15.000 pertsona identifikatuz. Biktimek pairatzen zuten estigmatizazio prozesu gogorra higitzen lagundu zuen horrek, baina ez zuen lortu hura haustea; izan ere, euskal herritar askok artean sinesten zuten indarkeria saihestezina zela eta ez zen asko bereizi bere sorgotasunetik. Bestalde, enpresaburuek eta profesional liberalek terrorismoaren atzaparkada 60ko hamarkadako bigarren erditik edo 70eko hamarkadako hastapenetatik pairatzen bazuten, zenbait hamarkada igaro behar izan ziren gizarte erakunde batek jazarri gisa identifikatzeko, nolabait eta zailtasunekin, «estigmaren egonezina»ren alde eginda (E15).

Nire ustez, Euskadin horrekin lehenagoko eta ondorengo bat dago, bai, bai. Zeren, noski, herri baten mailan bizi izan dugu guk, non hil egiten baitzintuzten [...] eta han hiletara herriko inor joaten ez baitzen; ez batzuetakoak ez besteetakoak, ikus ez zitaten. Eta bat-batean Koordinakundea hasten dela, 10 lagun daudela: ostia, aizu, hauek?... Jendea, ados egonda, aurreko espaloitik pasatzen zen, eta erakuslehorantz begira... Pentsa, asteazkenetan biltzen dira, bada asteazkenetan ez naiz handik pasako. Azkenean 10 egon beharrean 300 lagun zeuden arte [...]. Ildo horretako, mota horretako gizarte mugimenduek egitura publikoek baino ekarpen askoz handiagoa egin dute. Ez dut inolako zalantzarik. Eta hor hasieran aurpegia eman zuen jendea, bua, guztiz mehatxatuta denak, aizu, guztiz irainduta: denda zeukatenei ez zitzaion joaten denda horretan erostera, taberna bat zeukatenei jendea ez zitzaion joaten... Erabateko boikotak, aizu, baina erabatekoak (E57).

Estortzioaren arbuioaren esparruan, pertsona eta gizarte talde jakin batzuen jarrerak biktimaren jokatibidearen arabera aldatu ziren, arazoibide zorrotzeko eskema bat aplikatuz. Xantaiari aurre egin bazion, harekiko elkartasuna agertu zuten, baina amore eman bazuen, ñabardurarik gabe arbuia zuten, inguruabarrak kontuan hartu gabe, are «Stockolm-eko sindromea» izatea edo imaginario aber-tzalearekin bat zetorrelako ordaintzea leporatuta³⁴. Biktimek segurtasun-neurri ikusgarriago batzuk hartzeari uko egin eta bizimodu arrunta egiten saiatzen baziren, batzuk seguru zeuden xantaiari amore eman ziolako egiten zutela: «Begira zein lasai doan kaletik, ordaindu egin duelako, seguru» (Marrodán, zuz., 2015: 50).

6.2. Alderdi politikoak

Euskal eta espainiar eremuko alderdi politikoek, denek, ez dute maila eman estortsiolari dagokionez. Gainerako gizarteak bezala, haren isla eta eratzaila izanik, eremu politikoak mehatxatutako eta estortsioa jasandako enpresaburu, zuzendari eta profesionalakiko sentiberatasun urria erakutsi dute: elkarriketatu askok leporatzen diete alderdiei ez zirela lagundu, baita arduragabeak izan zirela eta eraginkortasun urria izan zutela ere³⁵; antza, euren kargu publikoek (zinegotziek, diputatuek, senatariek) eta militanteek jazarpena pairatu eta euren lerroetan mehatxu terrorista aurkitzen dutenean baino ez dute erantzun.

Beldurra, alde batetik, orokorra zen eta gizartearen sektore zabalek, bestetik, ETArri laguntza esplizitua edo inplizitua ematen zioten giroan, euskal alderdi politikoak 1977an agertu ziren estortzioaren aurka esplizituki eta irmotasunez. Trantsizio politiko betean, prozesu autonomikoaren garapenari buruzko eztabaidak nagusi zirenean, EAJ zenbaitetan saiatu zen indarkeria eta larderia giroa frankismoaren aztarnetan kokatzen, autogobernua finkatu eta adiskidetzea errazteko barkatzeko neurriak —beste amnistia

³⁴ Elkarrizketa batzuetan adierazitako gertakari jakin batzuen arabera —zaila da haiek egiaztatzea—, estortsioa edo bahiketa jasaten zuena ulerkorra zen —ez zituen salatzen eta babestu egiten zituen, baita ihes egiten lagundu ere— bere aurkako indarkeriazko ekintzetan parte hartu zuten pertsonekin. Jarrera horiek, noski, kideetasun politikoengatik azaldu daitezke, baina baita, besterik gabe, geroko kalte handiagoei zien beldurragatik.

³⁵ Informatzaile batzuek azpimarratzen dutenez, ez zuten alderdien babesik sentitu, indar politiko bakoitzaren ideologia gorabehera (E08). Beste batzuen arabera, erantzuna gehiago izan zen politikariaren karisma pertsonalaren eta sentikortasun mailaren arabera ko siglen arabera baino, batez ere abertzaletasun neurriaren munduan (E09).

bat barne— hartu ahala gainditu ahalko zirelakoan. Adierazpen irmoak egiten ziren eta kasu batzuetan enpresaburuei banako erantzukizunak hartzeko eskatzen zitzairen, baina hala ere eremu pribatuan permissibitate nahiko handia eman zen. Are gehiago, instantzia politiko batzuek alde egitea edo, eskatutako kopurua beherantz negoziatuz, ordaintzea aholkatzen zuten: «Zenbait unetan; 70 eta 80ko hamarkadetan, alegia, estamentu politiko jakin batera joaten zinen, ulertuko zintuelakoan, eta ordaintzeko aholkuarekin ateratzen zen» (E03)³⁶. Bestalde, hasieratik, eskutitz guztiek garrantzi politiko dudagabeko lotura bera zeukaten. Xantaia ordaintzeko, mehatxatutako enpresaburuak bere buruari ezker abertzalea zeritzonaren ingurunearen bitartez kontaktatu behar zuen erakunde terrorista; lehenengo eskutitzetan enpresaburuak nora jo behar zuen eta bilatu behar zuen pertsonaren ezizena ere adierazten ziren. Hala berretsi dute zenbait elkarrizketak: «ezker abertzalearen bitartekoak bidaltzen zituztenean, hots, ez zuten batere arazorik esateko “baina bitartekoak izan daitezela...” [...]» (E60).

Sistematikoki, ordaindu zuten enpresaburuak, zuzendariak eta profesionalak auzipetzearen aurka agertu ziren alderdi gehienak, «segurtasunik gabeko testuinguru» batek behartuta egiten zutela ulertzen zutelako. Euren lekukotasuna eman eta estortsioa jasan zuten pertsonekin elkarrizketatu ziren politikariek kontaktu horietan izan zuten jarrerak xantaiari amore ematearen ondorio kaltegarriei buruz ohartaraztea eta amore ematen zutenak ez epaitzeko erabakia bateratzen zituen, babesgabeta-suneko egoera kontuan hartuta, haien ustez ezin zelako jokabide heroikorik eskatu (E52)³⁷. «Eta zera esaten nien beti, “Tira, zure erabaki oso pertsonala da eta ez zaitut epaituko zer ere egiten duzun, zeuk baloratu behar duzulako sumatzen duzun arriskua; bestetik, jakin behar duzu baietz esatearen ondorioak direla indar eta babes ekonomikoa ematen eta denak iraun dezan laguntzen ari zarela”; baina ezin zaio inori heroia izateko eskatu eta... nik ez nuke egingo. Batzuetan, agian, erraza da esatea jasan ez duzunean. Horregatik begirune handia izan dut nik beti alderdi horretan [...]: “Zeuk erabakitzen duzue. Ea zer egiten duzuen”» (E36)³⁸.

Aldian behin agertu ziren eztabaida nagusietako batzuek eremu politikoan egoeraz egiten zen benetako balorazioa zein zen erakutsi zuten, hala nola estortsioa edo erreskatea ordaindu zuten enpresaburuaren auzipetzeari buruzkoak edo bitartekariaren inguruan sortutakoak. Bi kasuetan, indar politikoen ordezkari gehienak eremu zalantzarik gabean mugitu ziren: a) Estatuak erreskateak edo *zerga iraultzailea* oker deitutakoa ordaintzea ekidin behar zuela onartzen zuten; b) baita agintariak mehatxatutako pertsonen segurtasuna bermatzeko gai ez zirela ere; eta c) ideologikoki ETArekin engaiatutako bitartekariak, edo euren eginkizunak eman ziezazkiekeen etekinetan interes ekonomikoa zutenak, eta biktima edo haren familiarengandik gertu sentitzeagatik, hots, gizaldekoko kontuengatik egiten zen bitartekaritzaren bereiztearen garrantzia. Azken urteetan, alderdiek, euren joera ideologikoa gorabehera, enpresaburuak indarkeria eta xantaia terroristaren biktimatza jo behar zirela errepikatzen jarraitu zuten, eta ETaren eskakizun ekonomikoak betetzen zituztenean beldurragatik egiten zutela, eta ez zegoela arrazoirik haiek auzipetzeko. Alderdi popularreko buruzagi batzuek, ordea, azpimarratuko zuten heroikotasun etikoko karga estortsioari aurre egin ziotenei baino ezin litzaiekeela egotzi.

Bere buruari ezker abertzalea deritzonak larderia eta mehatxuzko ekintzetan izandako parte-hartze aktiboa zalantzarik gabea izan zen, batez ere jazarpenerako indarkeria nagusitu zen etapan. Xantaia-prozesuetan bitartekari egindako lanaz gain, eta lan horren frogak politikoak eta judizialak geratu ziren, lidergoaren areagotu eta auzoetan eta herrietan mikroestortsioaren atze oihalarri estuki lotutako zeregin gehiago egin zituzten.

36 Arabako Enpresaburuaren Sindikatuan (SEA) urte asko eman eta bost urtez Confedebaskeko idazkari nagusia izan ondoren, hizketaldi batean (Fernando Buesa Fundazioa, 2015), Zubiak deitoratu egiten zuten enpresaburuak klase politikoaren aldetik pairatu zuten bihozgabetasun praktikoa, urte haietan batez ere: «Politikarien erantzuna zera zen: bada ordaindu».

37 Ez zegoen zalantzarik xantaiak printzipio etikoei zekarkien higadurari buruz. Baina gutxi zeuden prest ez ordaintzeko aholkuek eragindako arriskuak euren gain hartzeko, nahi ez zen ondorioa estortsioaren logika zitalaren kide bihurtzea izan arren. Jarrera hori ustezko zilegitasunez mozorrotzen zen, gobernuko mailarik gorenetatik memento jakin batzuetan erabiltzen zelako. «[...] argi neukan nire kontzientzia ezin nuela erantzukizun hori hartu, hots, hau eta bestea egiteko esateagatik, biharamunean haren hiletara joan behar izatea [...]». Noski, irtenbideak bilatu, jakina. Deabruarekin ere hitz eginda, baina... Azkenean, egoerak ahalik eta... ahalik eta kalterik txikiena egiteko baina... Orain eztabaida horiek denak eta beste guztia ikusten ditudanean, eta Alakranaren bahiketa famatua gertatu zenean, eta bestea, eta bestea, nik ez dut galdetzen... Seguru nago ordaindu egin dutela. Zer erremedio! Zer erremedio ordaintzea baino, noski. Beste kontu bat da Estatu batek ez duela inoiz aitortuko, ezin du aitortu» (E49).

38 Beste batzuk erabakia hartuta etortzen ziren eta erakunde terroristako bitartekariekin kontaktuak egiten laguntzeko baino ez zuten eskatzen: «Orduan askotan etortzen zitzaizkidan alderdira aholku eske; eta aholku eske baino gehiago, askotan, zera eskatzen: “Aizu, ordaindu egin nahi dut. Ez, ez dizut aholkurik eskatzen, non egin galdetzen dizut. Donibane Lohitzunen edo Miarritzen, non, zer tokitan eta zer tabernatan, edo zer puntutan egin dezakedan kontaktua arazo hau konpon diezadakeen pertsonarekin”» (E49).

Baina haren perbertsio morala guztiz bistan geratu zen 90eko hamarkadaren erdialdeko bahiketa luzeen aurrean izandako erantzun bakoitzean. Bahiketa horien guztien arrazoa —José Antonio Ortega Lararena eta Miguel Ángel Blancorena izan ezik— ekonomikoa izan zen. Arbuio orokorretik aldentzeko ohiko ildotik jarraitu ez ezik -zenbait lelo erabiliz, hala nola «Julio [Iglesias Zamora], ordaindu zor duzuna» edo «Aldaya, ordaindu eta isildu»-, indarkeriazko eta beldurtzeko portaerak izan zituzten kaleetan bahiketen aurka agertzen zirenekin eta, estigmatizazio kanpaina latzen bidez, balizko helburuak adierazi zizkieten ETari. Diskurtso eta praxi totalitarioa eskutik zihoazen: Euskal Herriaren askapenaren defentsa, bahitutako pertsonen askapenaren defentsaren aurka jarrita, giza duintasunari lotutako printzipio etikorik oinarritzkoen perbertsioaren adibide zen. Erantzukizun kolektiboko estalki eufemistikoaren pean sufrimenduak parekatzeko eta haien totalitarismoaren biktimak ikusezin bihurtzeko saioek birbiktimizatzeko arriskua dakarte, Walter Benjaminek aipatzen zuen heriotza hermeneutikoaren arriskua; izan ere, egunez egun, kaltegileek eta haien konplizeek gertakari oso larriei, hala nola kontaktu direnei, eta haietan zuten parte-hartzeari garrantzia kentzeko esfortzua egin dute (Mate, 2009).

6.3. Enpresaburuen elkarteak

Txosten honi lekukotasunak eman dizkieten elkarrizketetan sumatzen denez, enpresaburuen eta profesionalen elkarteek ez dute erantzun egokirik eman edo berandu egin dute, ez dira batere proaktiboak izan estortsioaren arazoan, eta bakarrik utzi dituzte euren kide mehatxatuak. Honela islatzen da hori: gizarte inguruneak estortsioaren egoerarekiko ulertezintasuna enpresen sarean bertan ere gertatzen zen; enpresaburuen artean hoztasuna orokorra izan zen eta laguntza espliziturik eza argia izan zen³⁹; eta enpresaburuen arteko lan eta elkarrizketa topaketetan eta saioetan ez zitzaion estortsioaren arazoari berariaz heldu. Azken batean, mehatxatutako enpresaburuek ez zuten laguntza eraginkorrik sentitu; elkartasuna, korporatiboa izan baino gehiago, antzeko egoeran zeudenen zirkuituetara mugatu zen gehienetan (segurtasun-neurriak sartzea, eskolta armatuak laguntzea).

Ez dator batere bat —positiboki, kasu honetan— enpresen irudi horrekin, ordea, elkarrizketetan finantza-eta zerbitzu-enpresa handiei buruz ematen dena; izan ere laguntza erradikala eta eraginkorra eman zieten mehatxatuta zeuzkaten zuzendari. Jarrera hori hainbat modutan gauzatu zen: segurtasun-neurri orokorrak ezartzea eta beste neurri personal batzuk eskaintzea, lantokietarako joan-etorriak erraztea, eta abar. Jokabide hori azaltzen duten zenbait arrazoi daude, hala nola erakundeak mehatxuen erantzukizuna hartzea, berez pertsonalak izan beharrean korporatiboak zirela ulertuta; estortsio-mekanismoa masibo bihurtzea —eskutitzak bidaltzeko kodeak erabiliz, informazio-iturriak identifikatuz, eta abar—, paradoxikoki, horrek protokolo baten arabera erantzun eraginkorragoa ematea ahalbidetzen baitzuen edo, haien negozioen tamainagatik, mehatxuari aurre egiteko baliabide materialak eta giza baliabideak —euren segurtasun-zerbitzuak— edukitzea.

Ikuspuntu instituzionaletik, euskal enpresaburuak, euren erakundeak buru, orokorrean abertzaletasun neurritsuaren ideien aldekoak izanik, esplizituki agertu ziren estortsioaren aurka eta erakunde autonomikoek egiten zuten lana babesten zutela adierazi zuten aldian behin, une batzuetan nekea ere adierazi arren, gizarte laguntzarik ezagatik eta babesgabetasuneko giroa bizitzeagatik. Hori dela-eta, esan gabe ulerker agertu ziren bahitu eta mehatxatutako enpresaburuen drama pertsonaletarako «irtenbideak» bilatzeari buruz. Polemika politikoetatik kanpo geratzen saiatu dira —salbuespen errespetagarri, baliotsu eta adoretu batzuk egon badira ere. Inhibizio horrek, agian, ETaren estortsio-sarearen kriminalitate antolatuaen aurka defendatzeko estrategiak definitzeko behar ziren analisiak eta erabakiak saihestu edo moteldu zituen. Bestalde, eta haien posibilitateak mugatuak zirela jakinik diogu, ez zuen baliatu bere ahalmen korporatiboa era planifikatu eta zorrotzean sare kriminala ulertzeko eta geldiarazteko azterlanak, txostenak, lekukotasunak, adierazpenak edo irizpideak emateko, mehatxatutako enpresak eta enpresaburuak babesteko behar zen giroa sortzeko, edo erakunde publikoen eta gizartearen beraren sentsibilizazio handiagoa bultzatzeko.

Estortsioak iraun eta areagotu arren, euskal enpresaburuen erakundeek tregoen balorazio ona egin zuten eta horrek, une batzuetan, liskar dialektiko latzean jarri zituen CEOEekin. Euskal abertzale ez ziren enpresaburuek, erakunde tradizionalak ordezkatzeko ez zituztela sentitzen zuten eta haiek estortsioaren eta indarkeriaren gaiari heltzeko moduarekin ados ez zeudenez, euren erakundeak sortu zituzten 2000ko

39 Zehaztu egiten da, esaterako, hainbat urtez, euskal patronaleko kideek Nafarroako enpresaburuen erakundera jo zutela laguntza bila (laguntza, aholkularitza...), haietan mehatxu eta estortsioeko egoerak hartzeko biderik ez zegoelako.

bigarren hamarkadaren bigarren erdian. Azken urteetan, ETArek ahultasun operatiboa ezagututa eta iritzi publikoa hura desagertzearen aldekoa izanik, enpresaburuak estortsioaren aurkako salaketa biziak eta orokorrak egin zituzten. Aipamen berezia merezi du Nafarroako Enpresaburuaren Konfederazioaren portae-rak, polizia-kidegoekin hitz eginda estortsioaren aurka izan zuten ekintza proaktiboagatik, baina baita hain ezagunak edo adierazgarriak ez diren beste elkarte batzuenak ere, hala nola Goierriko Herriaren Ekintza Fundazioarenak, zeinek jarrera irmoak hartu baitzituzten egoera oso zailetan.

6.4. Estatuak

Estatuak herri-subiranotasunaren ordezkaria da, herritarren eskubideen bermatzailea, pertsonen bizitzarako oinarrizko eta funtsezko zerbitzuak ematen dituena. Indarkeriazko egoeretan, mehatxua edo jarduera zehatza ahal den neurrian saihestea, hura sortzen duen terrorismoa desagerraraztea, biktimek dauzkaten eskubideak betetzea ahalbidetzea eta indarkeriaren ondoren gizartearen berronertzeko prozesu osoa ondo garatzen eta azkenean arrakasta izaten politikoki eta judizialki lagunduko duten neurriak ezartzea eta gauzatzea bilatzen duten neurriak (politikoak, judizialak, polizia-ak...) modulatzeko aukera dauka. Horretarako zilegitasun berezia dauka zeinak, esaterako, indarkeriaren erabileraren monopolioa eta zeregin hori betetzeko tresna hertsatzaile egokiak —polizia-ak eta judizialak— zabaltzeko aukera baitakartza. Egia da elkarrizketetatik jarduera polizia-ak batzuk ondorioztatzen direla, errazenetatik, hala nola komunikazioen kontrola, segurtasuneko babesgailurik konplexuenetarako, eta lortutako erantzuna, aholkularitza eta babesa denboraren poderioz hobetu direla pixkanaka, baina egia da, era berean, haien kudeaketa —haien profesio-naltasunak hainbat kritika jasotzen ditu— eta emaitzak ez direla behar bezain onak izan ETAk jardun zuen denbora osoan. Estatuaren Segurtasun Indar eta Kidegoek informazio bolumen handia zeukaten ETArek egiturei buruz, finantza-aparatua barne, baina «berunezko urte»etan haien lehentasuna aktibistak atxilotzea eta komandoak desagetea zen. Lehenengo hamarkadetan batez ere, elkarrizketatutako batzuek euren egoera salatu behar zuten zalantza egiten zutenean, beldurragatik ez ezik, ekintza hori nolabait antzua zela sentitzen zutelako ere ez zuten egiten. Sokoako zuloan informazio ekonomikoa aurkitu (1986), Bidarten goi-kargu terroristak harrapatu (1992), 90eko hamarkadan estortsio-sareak desageten arrakastak izan eta, batez ere, nazioarteko komunitateak mehatxu jihadistaren ondorioz erakunde terroristak ekonomikoki itotzeari arretra gero eta handiagoa jarri ondoren baino ez zen hori aldaketak izaten hasi.

Ez da posible izan milaka pertsonak ETArek —baita FRAPen eta GRAPoren— mehatxu eta xantaia ekonomikoa pairatzea saihestea. Estatuak bere betebeharrak eraginkortasunez bete ezin duen defendatzaile gisa agertzen da, gabezia hori esplizituki ere onartuta. Joan den mendeko laurogeiko hamarkadari buruzko lekukotasunek egitate hori jasotzen dute eta, hala, enpresaburu batzuek euren atsekabea eta dezepzio handia adierazten dituzte Estatuaren ordezkariak —hala nola gobernadore zibilek eta polizia-aren probintzia-komisarioek— Euskal Herritik alde egitea gomendatzen zutenean, jasaten zuten mehatxuaren aurkako erantzunik eraginkorra zelakoan —eta, batzuetan, xantaiari amore ematera gonbidatu ere.

Egindako salaketak oso gutxi dira, eta eraginkortasun urrikoak. Alde batetik, mehatxuak eragiten zuten beldurrak atzera eragiten zuten. Bestetik, haren eraginkortasunarekiko mesfidantzak ere ez zuten hura hauspotzen. Baina kontua da polizia-indarretara eurretara —autonomikoak nahiz estatu-koak izan— jotzen zenean ez egiteko aholkatu ohi zirela haiek. Haren kasua salaketarekiko bide paraleloetatik izapidetzen eta kudeatzen zen. Badirudi Estatuak berak gainerako gizartearen antzera erantzuten duela, delitua ezkututzen lagunduz —nahi gabe seguruenik baina era aktiboan, edonola ere. Egoera horren aurrean, estortsioa publikoki salatzea gomendatzen zuten, hain zuzen ere, enpresa-zuzendariren batek, zenbait zio zirela-eta, antza, isilarazita, gertatuko ez balitz bezala utzi nahi zen arazo bat ikusarazi eta agerrarazteko estrategia argi gisa.

Auziperatu edo epaitu ziren kasu bakanetan, salbuesgarri gisa, premiazko egoera edo beldur gaindiezina alegatu zituzten biktimek, eta absolbitu egin zituzten. Estatuak, ordainketa zigor-kodean tipifikatutako banda armatuari laguntzeko delitua izan arren, kontzienteki jardun zuten hura jazartzea eta espetxe-zigorrik ekarriko zituzten kondena-epaiak lortzea estortsioa jasaten zuten biktimek berez pairatzen zutenari erantsitako bidegabekeria izan zitezkeela jakinik. Jurisprudentziaren interpretazio hori ezin da bereizi prebenitzeko eta biktimek babesteko lanetan zeuden gabezia larrietatik.

Berez, Estatuaren oinarrizko betebeharrak estortsioa ahalik eta gehien galaraztea eta hura gertatzen denean mehatxutuen babestea da, biktimek egotea saihesteko. Hura amaiarazterik ez daukan heinean,

derrigorrezkoa dauka halako egoeretan estortsioa jasaten dutenekin ulerkorra izatea, egoera horiek, zuhurtasunez, estortsioa ordaintzea ez-errudun bihurtzen baitute. Azken hori, oinarri hartuta arrazoi zibikoengatik bere bizia arriskatzeko jarrera heroikoa hartzen duena goraipa dezakeela, baina ez liokeela halakorik eskatu behar, eskakizun horrek biktima izanarazten baitu norbait beste biktima batzuk egotea saihesteko (manipulazio zorrotza), xantaiari amore ematen badio kaltegiletzat hartua izateko aukeraren aurrean utzirik. Irizpide orokor horrek dagozkion politika judizialak, fiskalak eta polizialak ekarri behar lituzke. Poliziaren lehentasunezko zereginak estortsioa galaraztea bilatzen dutenek izan behar lukete. Horiek ondo beteta, normala da herritarren diru-ekarpenak, banda terrorista bati, hala nola ETArri, iristen zaizkionak, zaintzea. Norberaren borondatez laguntzearen arrazoizko susmoa dagoenean ere logikoa da orduan kasua eremu judizialera pasatzea, baina hura argia ez bada kondenarik ez egoteko aukera izanik⁴⁰. Arazo hau ere gerta liteke: epaiketa batek frogatzen badu xantaiari borondatea derrigortzen duen hertsapen bategatik amore eman zaiola, nola pentsatu behar litzateke argi eta garbi biktima denaren konponketarako eskubidea, alde ekonomikoa barne? Neurri fiskalei dagokienez, egia da ezin zaiola Estatuari eskatu hertsapena dagoenean haiek bete gabe uztea baliozkotzat jotzea, baina arrazoizkoa dirudi, ordea, ulerkortasun juridikoa egoteak, eta ez ezjakintasun ofizial hutsa, hertsapen horren pro-
portzioan.

40 Zenbait elkarrizketatuk euren esperientzien edo judizialki ikertutako pertsonengandik zuzenean ezagututako esperientzien berri eman dute. Pertsona horiei deklarazioa hartu zitzaien Auzitegi Nazionalean, gero auzipetu ez bazituzten ere.

7. Administrazio publikoentzako gomendioak

7.1. Abiapuntua eta helburua: biktima izatea aintzatestea

Gure artean talde terroristen estortsio ekonomikoa jasaten duten pertsonen errealitateari buruzko esku-haritze ororen abiapuntua, premiaz eta berehala, terrorismoaren biktima direla aintzatestea da.

Estatuan horri buruz dagoen legedia, funtsean, hau da:

- 29/2011 Legea, irailaren 22koa, terrorismoaren biktimak aintzatetsi eta haiei osoko babesa ematekoa.
- 671/2013 Errege Dekretua, uztailaren 6koa, 29/2011 Legearen Erregelamendua onartzen duena.

Eta EAEn indarrean dagoena hau dela esan daiteke:

- 4/2008 Legea, ekainaren 19koa, Terrorismoaren biktimei aitortpena eta erreparazioa egitekoa.
- 12/2016 Legea, uztailaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean arrazoi politikoengatiko indarkeriaren ondorioz giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta ordaina emateari buruzkoa.
- Dekretuak: 55/20110; 290/2010; 107/2012; 426/2013 eta 157/2014.

Gomendioa

Bi gorputz juridikoak (eta dagozkien administrazio-prozedurak) sakonki berrikusi, zuzendu eta doitu behar dira, gure artean bost hamarkadaz talde terroristen estortsio ekonomikoa pairatu duten pertsonak eskubide osoz terrorismoaren biktima aitortuak izatea ahalbidetu ahal izateko. Eta abiapuntua horixe izanik, ondoren —orriotan berehala egingo denez— haien egia, justizia eta ordainerako eskubideak emateko moduari buruzko arazoa mahai gainean jartzea ahalbidetzen baitu, aldi berean egiaztatzen da era berean ezarri behar diren neurri guztien azken helburua dela, biktimei ordaintzeko aktibatuko diren mekanismoek haiek aintzatesteko prozesuak berrelikatze balioko baitute.

7.2. Funtsezko kontu bat: Nola itzultzen dira biktima horien eskubideak?

Topikoa da ia biktimek egia, justizia eta konponketa merezi dutela esatea baina, zer esan nahi du horrek zehazki eta nola aplikatu kasu honetan? Horretarako estrategia baliogarria izan daiteke biktimen eskubideak jorratzen dituzten nazioarteko formulazioetara jotzea eta gure errealitate zehatzera nola aplikatu aurkitzea.

Puntu honetan, ordea, arreta berezia eskatu nahi dugu txosten honek aztertzen dituen biktimengan biltzen diren inguruabar berezietarako (pribatizazioa, estigmatizazioa, eta abar); izan ere, era esanguratsuan baldintzatzen dute eskubide horiek gauzatzeko aukera, kasu askotan kaltetutako pertsonak nahi ez izatea gerta daitekeelako. Hori dela-eta, hartzen diren erabakietan biktimen iritzia kontuan hartu behar da eta eskubideak kudeaketa personalizatuaren bidez eskuratu behar dira. Bi kontuak azpimarratuko ditugu bereziki egia judizialaz eta ordain ekonomikoaz hitz egitean.

7.2.1. Egia

Egiarako eskubidea, gertatutakoa ahalik eta ziurtasunik eta zehaztasunik handienaz jakiteko eskubidea, estortsioaren kasuan, ez dago behar bezain babestuta, ez esateko erabat bete gabe dagoela. Luzaroan, txosten honetan ikusi dugu eta gaur egun ere egiazta dezakegu, xantaia ekonomikoa isildu egin dute, zenbait arrazoiengatik, hari lotutako subjektu ia guztiek (biktimek eurek, kaltegielek, bitartekariak, Estatuak eta gizarte

osoak). Hasierako isiltasun hori dela-eta —ez da salatzen, ez da aitortzen, ez da ezagutarazten, ez da horretaz ezer jakin nahi— oso zaila da legezko prozedurei (egia juridikoa), azterlan akademikoari (egia historikoa) edo bizipenen kontakizunei (lekukotasunaren egia) ekitea. Gertatutako lehen kasuetatik ia bost hamarkada igaro ondoren, lan hori hasteke dago ia. Ez dakigu nor izan diren biktima, ez nor kaltegile, ez nor laguntzaile, ezta bidegabekiaren neurri ekonomikoa zein izan den. Txosten hau ekarri duen ikerketa hurbilketa partziala baino ez da, ahalegin bat, euskal gizarteak aurrean daukan prozesu luze horretan. Jakin badakigu zer arazo dagoen egia hori ñabardurarik gabe eskatzearen azpian. Biktimek, behintzat, dakartzan ondorio moral, judizial eta ekonomikoengatik, nahi ez duten atzeraeragina eskatzen du berez. Berriz ere, zenbait arazo sortzen dira, hala nola biktimak derrigorrez kontuan hartzea, nola edo hala, erreklamazioa zehazteko, eta, ordaindu dutenentzat, egiaren arazoa justizia bizitzeko ala birbiktimizatzeko aukera den seriooki pentsatzea.

Gomendioak

- Gure artean bizi izandako estortzio ekonomikoaren errealitateaz publikoki hitz egitea ahalbidetuko duten jarduera zehatzak sustatzea, seguruenerik iraganaren memoria kritiko eta demokratikoa partekatzeke sustatzen ari diren proiektuetan txertatuta.
- Estortzio ekonomikoaren eremuan gertatutakoa ikertzeko, argitzeko, jakinarazteko eta aintzatesteko proiektuak bultzatzea, dauzkan dimentsio guztietan sakonduz:
 - Historikoa: bai makro bai mikroestortzioarena.
 - Juridikoa: legediaren eta jurisprudentziaren analisi sakona.
 - Etikoa: kasuen analisi etikoa.
 - Soziologikoa: delitu hori egitea erraztu edo oztopatu duten gizarte aldagaien eta haren aurrean laguntzeko eta isiltzeko jarreraren analisia.
 - Politikoa: alderdien analisia praxi politikoaren eremuari arreta berezia jartzeko, haien adierazpen publikoetatik harago joanda.
 - Ekonomikoa: enpresa esanguratsu batzuen kasu-analisia estortzioak produkzio-arlo jakinetan enpresen eta sindikatuen erabakietan izandako eraginean kualitatiboki sakontzeko.
 - Nazioarteko eremuko beste kasuekin zorrozki erkatzeko ikuspegia hartzea.

7.2.2. Justizia

Justiziarako eskubidea ez da gehiago bete, are gutxiago baizik. Estortzio ekonomikoaren biktimek ez dute hura eraginkortasunez eskuratu. Elkarrizketatuen lekukotasunetik jaso denez, maiz eta zenbait arrazoiengatik, polizia kidegoek eurek gomendatu dute gertakariak ez salatzea eta ofiziozko jarduera judizialak oso urriak izan dira. Hala, kontraesan hau daukagu: estortzioa, izatez, ETaren aurkako borrokan epaiketa eta kondena gutxien pilatzen dituen delitua da, alde handi batez, gehien egin dena izan arren. «Justizia berdintasunez eta eraginkortasunez eskuratzeak» esan nahi duenaren alderdi zehatzetara hurbiltzen bagara, ikusiko dugunez, ez da informazio egokirik eman pairatutako delituaren kontra dauden baliabideei buruz, ez da neurririk hartu biktimei eragozpenak minimizatzeko, ez zaie laguntza egokirik eman eta, azkenik, ez dira erabili biktimek euren eskubidea erabili ahal izateko bitartekoak.

Gomendioak

- Estortzioaren biktimentzako berariazko laguntza-zerbitzua justizia eskura dezaten.
- Argitu gabe dauden estortzio kasuak, hots, gehienak, argitzen laguntzeko berariazko ikerketak egitea.

7.2.3. Konponketa

Hirugarrenik, sufritutako kaltea konpontzeko eskubidea dago. Eskubide hori zenbait modu osagarritan zabaltzeko eta babes daiteke.

- Itzultzea, ahal den neurrian, biktima estortzioa jasan aurreko egoerara itzularaztea eskatzen duena. Ordaintzeari uko egiteagatik hildako pertsonen ezinezko berpizteaz hitz egin gabe, bahituak

izan zein ez, emandako dirua ere ez da itzuli —arazo eztabaidagarria baina, gutxienez, hari buruz hausnartu behar litzateke— eta mehatxuari ihesi utzi zen bizilekura itzultzearen inguruan ere zailtasun eta eztabaida asko daude, hari lotutako herritar-eskubideak, hala nola botoa, berreskuratzeari buruz hitz egin gabe. Berez, hiltzeko balio izan zuen dirua eman zuenari itzultzeak talka egiten du, gizartearen sentikortasunarekin ez ezik, biktima guztiak bildu behar dituen justiziaren zentzuarekin ere. Bestalde, zorrozki aztertu behar litzateke ordaindu zuenak pairatu zuen hertsapen maila (premiatzko egoera, beldur gaindiezina), eta harentzat penagarria litzateke hori. Hauek izan litezke arrazoizko ordainak: a) erakunde publikoak eta gizarteak egin zuenagatik benetan errugabetzea; eta b) ondoren aipatzen diren gainerako konponketa neurriak bereizkeriarik gabe eskaintzea.

- Kalte-ordaina, kasu bakoitzaren larritasunaren eta inguruabarren proportzioan, kalte fisikoen edo mentalen, aukera profesionalen galeren edo kalte moralen ebaluazio ekonomikoak dakarren zailtasunaz gain, kalte materialetan, lortu gabeko irabazietan eta laguntzak (juridikoak, medikoak, psikologikoak eta sozialak) eragindako gastuetan ere ez da ia aplikatu.
- Arreta medikoa eta psikologikoa biltzen dituen errehabilitazioa, eta zerbitzu juridikoak eta sozialak ere ez dira aplikatu estortsio kasu askotan.
- Beste alderdi batzuk ere sartzen dira ordainean. Aipatu diren gertakarien egia eta ondorio judizialak ez ezik, beste bide batzuk ere badaude, hala nola delitua egiten jarraitzea galarazteko neurri eraginkorrak —bete egiten da hori orain, ETAk bere jarduera eten zuenetik—, biktimen duintasuna berrezartzeko adierazpen ofizialak, eta haiek aintzatetsi eta omentzeko ekitaldiak —terrorismoaren biktimei buruz egiten dira orokorrean, eta haien artean ez dira estortsioaren biktimak berriaz gogoratzen—, kaltegileek barkamena publikoki eskatzea, gertakariak aitortzea eta erantzukizunak euren gain hartzea —gehienek eta kolektiboki hori egiteari uko egiten diote—, giza eskubideei buruzko hezkuntza-programetan estortsioa sartzeari —sintomatikoa da geletan euren lekukotasuna ematen dutenen artean delitu horren biktimarik ez egotea.
- Azkenik, kasu honetan ez errepikatzen bermeak ez dira bereziki esanguratsuak, estortsioa egiten zuten taldeak desagertu baitira.

Gomendioak

- Estortsioaren biktimetzako laguntza eta konponketarako programak hastea edo programak, kasu honetan bezala, egungo legedian babesik ez duten biktimetzat osatzea.
- Geletako lekukotasunetan estortsioaren biktimak sartzeari.
- Estortsioaren biktimak aintzatezteko (eta, kasuan kasu, omentzeko) ekitaldi publikoak egitea.

Erraz ikusten denez, emaitza etsigarria da. Oso esanguratsua da Espainiako legedia, terrorismoaren biktimei dagokionez, hain garatuta eta osoa izanik, ETAk egindako estortsioari dagokionez hain pobrea izatea. Esan daiteke horrela oinarritzko lege-printzipio bat urratzen dela, bereizkeriarik eza, alegia.

7.3. Alderdi juridiko oso korapilatsua: estortsioa jasaten duenaren jarduna inguratzen duten delituak

Estortsioa jasan ondoren, xantaia terroristari amore ematen duen pertsonaren jokabideak bi delitu ekar ditzake:

- Terrorismoari laguntzekoa (1995eko Zigor Kodearen 576. artikulua), haren finantzatzailerik gisa.
- Agintariei delitu bat salatzen betebeharra ez betetzeko (1995eko Zigor Kodearen 450.2 artikulua).

Ikus dezagun labur.

a) Talde armatuari laguntzeko delitua

Egungo egoeran (1995eko Zigor Kodearen 576. artikulua), estortsioa jasan eta xantari amore eman ziona talde armatuaren laguntzailerik gisa- eta, kasurik onenean, haren kondena murriztuta gera daiteke frogatzen diren aringarrien arabera. Horrek dirauen bitartean, oso zaila da estortsio ekonomikoaren biktimen egoera pertsonala, soziala eta legezkoa hobetzea.

Estortsioa jasan duenarengan biltzen diren inguruabar bereziak legez aintzatetsi behar dira pertsona hori guztiz errugabetu ahal izateko. Bi modutan egin daiteke hori:

Delituaren definizioan klausula bat sartuz, halako delitua subjektuak finantzaketa talde terroristari laguntzeko asmoz egiten duenean baino gertatzen ez dela adieraziz (hori ez da gertatzen estortsioa jasan eta xantaiari amore eman dion pertsonaren kasuan).

Egungo definizioan «premiatzko egoeran» edo «beldur gaindiezina»ren ondorioen pean parte hartu duela nabarmentzen duenean estortsioa jasan duen pertsonaren erantzukizuna salbuesteko klausula bat sartuz, egoera horietan, xantaiari amore emateari uko egitearen izaera heroikoa eta supererogatorioa (eta, ondorioz, judizialki eskatzerik ez dagoena) azpimarratuz.

Bi kasuetan, zenbait mekanismoren bidez bada ere, estortsioa jasaten duen pertsona zigorretik salbuetsita geratuko litzateke. Ohartarazi behar da bi egoeretan biktimari ez litzaiokeela kenduko zigor-prozesu oso desatseginetan parte hartzeko aukera, emaitza errugabetzea balitz ere.

b) Salatzeko betebeharra ez betetzeko delitua

Bigarren delitu hau aplikatzeko zailtasun handiak daude; izan ere, salaketarik ezaren eta delitua egitearen arteko kausa-erlazioa dagoen kasuei baino ez dagokiela dirudi eta, beraz, hura egitea prebentzioz ekidingo luketen inguruabarretan baino ez litzateke aplikagarria, eta ez, kasu honetan bezala, hura egin den kasuetan.

Edonola ere, juridikoki korapilatsua den arazo bat daukagu berriz ere eta, seguruenik, berarentzat izugarri desatseginak liratekeen egoeretan sartuko luke biktima..

Gomendioa

- Aipatu diren Kode Zibilaren artikulua sakonki berrikusi behar dira, estortsioaren biktima bere erantzukizun penaletik salbuetsi eta dagokion prozedura juridikoan nahastuta gerta daitekeen inguruabar desatseginak ahalik eta gehien arintzeko.

Etorkizuneko egoerarako proposatzen da hau, noski, legediak ez baitu atzeraeraginezko izaerarik. Ondorioz, iraun egingo luke azterlan honetan gertatutako kasuetarako egia judizialaren puntuan aipatu arazoak, iraganari dagozkiolako.

8. Bibliografía

Monografiak

- ALMENARA, Vicente (2015): *Tras el infierno. Hay vida después de un atentado de ETA*, Madril, Última Línea.
- ALONSO, Martín (koord.) (2012): *El lugar de la memoria. La huella del mal como pedagogía democrática*, Bilbo, Bakeaz.
- ARANZADI, Juan (2001): *El escudo de Arquíloco. Sobre mesías, mártires y terroristas. Sangre vasca*, Madril, Antonio Machado Libros, I. lib.
- ARDANZA, José Antonio (2011): *Pasión por Euskadi: el compromiso del lendakari que gobernó para todos los vascos*, Bartzelona, Destino.
- ARENDETT, Hannah (1981): *Los orígenes del totalitarismo*, Madril, Alianza Editorial. ARISTOTELE (1988): *Ética nicomáquea*, Madril, Gredos.
- ARTETA, Aurelio (2010): *Mal consentido. La complicidad del espectador indiferente*, Madril, Alianza. (2012): *Tantos tontos tópicos*. Bartzelona, Ariel.
- GIZA DUINTASUNAREN ALDEKO ELKARTEA (2005): *La mayor conculcación de los derechos humanos de la historia vasca tras la guerra civil*, Bilbo, ADDH.
- AUBENQUE, Pierre (1999): *La prudencia en Aristóteles*, Bartzelona, Crítica.
- AULESTIA, Kepa (1993): *Días de viento sur. La violencia en Euskadi*, Bartzelona, Antártica/Empuréis. (2005): *Historia general del terrorismo*, Madril, Aguilar.
- BILBAO, Galo (2007): *Víctimas del terrorismo y reconciliación en el País Vasco*, Bilbo, Bakeaz. (2008): *Por una reconciliación asimétrica*, Bilbo, Bakeaz. (2013): «Con mapas propios por los territorios del sufrimiento», BILBAO, Galo, F. Javier MERINO eta Izaskun SÁEZ DE LA FUENTE: *Gesto por la Paz. Una historia de coraje cívico y coherencia ética*, Bilbo, Bakeaz, 113.-156. or.
- BILBAO, Galo, Xabier ETXEBERRIA, Izaskun SÁEZ DE LA FUENTE eta Francisco Javier VITORIA, (2004): *Conflictos, violencia y diálogo. El caso vasco*, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea.
- CALDERÍN, Juanfer F. (2014), *Agujeros del sistema. Más de 300 asesinatos de ETA sin resolver*, Gasteiz, Ikusager.
- CALLEJA, José María (1999): *La diáspora vasca. Historia de los condenados a irse de Euskadi por culpa del terrorismo de ETA*, Madril, Aguilar. (2006): *Algo habrá hecho. Odio, miedo y muerte en Euskadi*. Madril, Espasa Calpe/Fundación Víctimas el Terrorismo.
- CAMPS, Victoria (2012): *El gobierno de las emociones*. Bartzelona, Herder.
- CUESTA, Cristina (2000): *Contra el olvido. Testimonios de víctimas del terrorismo*, Madril, Temas de Hoy.
- ELIAS, Norbert eta John L. SCOTSON (1994): *The Established and the Outsiders. A Sociological Enquiry into Community Problems*, London, Sage.
- ETXEBERRIA, Xabier (zuz.) (2001): *Enfoques de la desobediencia civil*, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea (2012): *Virtudes para convivir*, Madril, PPC. (2013): *La educación para la paz reconfigurada: la perspectiva de las víctimas*, Madril, Los Libros de la Catarata.
- FUNES, María Jesús (1998): *La salida del silencio. Movilizaciones por la paz en Euskadi, 1986-1998*. Madril, Akal.
- GESTO POR LA PAZ - BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA (GERNIKA-LUMO)-BAKEAREN ARBOLA (2014): *Rompiendo el silencio. 25 urte bakegintzan (1988-2013)*, Gernika, Gesto por la Paz - Bakearen aldeko Koordinakunde (Gernika-Lumo)-Bakearen Arbola.

- GOFFMAN, Erving (2003): *Estigma. La identidad deteriorada*, Buenos Aires, Amorrortu. GÓMEZ MORAL, Ana Rosa (2013): *Un gesto que hizo sonar el silencio*, Bilbo, Gesto por la Paz-Bakearen aldeko Koordinakundea. GUERRA GARRIDO, Raúl (1990): *La carta*, Bartzelona, Plaza Janés. (2007): *Lectura insólita de El Capital*, Madril, Alianza.
- HALBWACHS, Maurice (2004): *Los marcos sociales de la memoria*. Madril, Anthropos. HELLER, Ágnes (1990): *Más allá de la justicia*, Bartzelona, Crítica.
- IGLESIAS, María Antonia (2009): *Memoria de Euskadi*, Madril, Aguilar.
- LEVINAS, Emmanuel (2011): *De otro modo que ser o más allá de la esencia*, Salamanca, Ediciones Sígueme.
- MACINTYRE, Alasdair (1987): *Tras la virtud*, Bartzelona, Crítica.
- MARRODÁN, Javier (zuz.), Gonzalo ARALUCE, Rubén ELIZARI, Rocío GARCÍA DE LEÁNIZ, María JIMÉNEZ eta Roncesvalles LABIANO (2015): *Relatos de plomo. Historia del terrorismo en Navarra. La sociedad contra ETA*, Iruña, Nafarroako Gobernua, III. lib.
- MARTÍNEZ, Iñaki (2013): *Arrestí*, Donostia, Hiria.
- MATE, Reyes (2009a): *Medianoche en la historia. Comentarios a las tesis de Walter Benjamín "sobre el concepto de historia"*, Madril, Trotta. (2009b): *La herencia del olvido: ensayos en torno a la razón compasiva*, Madril, Errata Naturae.
- MOLINA, Fernando eta José Antonio PÉREZ (ed.) (2015): *El peso de la identidad. Mitos y ritos de la historia vasca*, Madril, Marcial Pons.
- NUSSBAUM, Martha (2014): *Emociones políticas: ¿por qué el amor es importante para la justicia?*, Bartzelona, Paidós.
- PASCUAL, Esther (koord.) (2013): *Los ojos de otro. Encuentros restaurativos entre víctimas y ex miembros de ETA*, Santander, Sal Terrae (2. argit.).
- PÉREZ, Kepa (2008): *Secuestrados. Símbolos de libertad*, Bilbo, Giza Duintasunaren Aldeko Elkartea, [[http://www.addh.org.es/SECUESTRADOS %20.pdf](http://www.addh.org.es/SECUESTRADOS%20.pdf)]
- PÉREZ, Kepa eta Lidia SEÑARÍS (2012): *Habla la dignidad, hablan las víctimas*, Bilbao, Giza Duintasunaren Aldeko Elkartea.
- REINARES, Fernando (2001): *Patriotas de la muerte. Quiénes han militado en ETA y por qué*, Madril, Taurus.
- RICOEUR, Paul (1985): *Temps et récit III: Le temps raconté*, Paris, Seuil (1999): *La lectura del tiempo pasado. Memoria y olvido*, Madril, Arrecife UAM. (2003): *La memoria, la historia y el olvido*, Madril, Trotta.
- RHONHEIMER, Martin (2000): *La perspectiva moral. Fundamentos de la ética filosófica*, Madril, Rialp.
- SÁEZ DE LA FUENTE, Izaskun (2002): *El Movimiento de Liberación Nacional Vasco, una religión de sustitución*, Bilbo, Desclée de Brouwer. (2011): *La opinión pública vasca ante la violencia de ETA. Una mirada retrospectiva*, Bilbo, Bakeaz (Escuela de Paz, 23). (2013): «El drama de la violencia de persecución en el País Vasco», Galo BILBAO, F. Javier MERINO e Izaskun SÁEZ DE LA FUENTE (2013): *Gesto por la Paz: una historia de coraje cívico y coherencia ética*, Bilbo, Bakeaz.
- SANTOS, Doroteo (2009): *El miedo social en el País Vasco en relación con el terrorismo de ETA*, Bilbo, Bakeaz (Escuela de Paz, 16).
- YBARRA, Javier de (2003): *Nosotros los Ybarra*, Bartzelona, Tusquets. YBARRA, Gabriela (2015): *El comensal*, Madril, Caballo de Troya.
- YOUNG, Iris Marion (2011): *Responsabilidad por la justicia*, Madril, Morata.

Aldizkarien artikulak

- ABADIE, Alberto, eta GARDEAZABAL, Javier (2003). «The economic costs of conflict: A case study of the Basque Country», *The American Economic Review*, 93. zk., 113-132
- CALVO ÁLVAREZ, Felipe (2007): «La naturaleza práctica de los actos supererogatorios», *Civilizar*, 7. zk., 225.-238. or.
- CASQUETE, Jesús (2003): «Norbert Elias: ensayo teórico acerca de las relaciones entre establecidos y forasteros», *Revista Española de Investigaciones Sociológicas (REIS)*, 104. zk., 213.-218. or.
- CENTENO, Juan Carlos (2002): «Ensayo sobre la identidad estigmatizada desde la teoría de Irving Goffman», *Global Media Journal en Español (GMJE)*, 4. zk., 2002ko urtarrila-ekaina.
- DÍAZ ÁLVAREZ, Jesús M.^a (2005): «El héroe realista como modelo moral. Algunas consideraciones sobre la ética de Ortega y Gasset», *Circunstancia*, III. urtea, 6. zk.
- FERNÁNDEZ SOLDEVILLA, Gaizka (2015): «Mitos que matan. La narrativa del “conflicto vasco”», *Ayer- Revista de Historia contemporánea*, 98. zk., 213.-240. or.
- IZA, Sabin (2010): «Testimonio», *Bake Hitzak*, 78. zk., 58.-60. or.
- LEONISIO, Rafael (2013): «Las víctimas del terrorismo en el discurso de los partidos políticos vascos: una aproximación cuantitativa (1980-2011)», *Revista de Estudios Políticos*, 161. zk., 13.-40. or.
- LINK, Bruce G. eta PHELAN, Jo C. (2001): «Conceptualizing Stigma», *Annual Review of Sociology*, 27. zk., 363.-385. or.
- MARTÍN PEÑA, Javier (2013): «Amenazados de ETA en Euskadi: una aproximación al estudio científico de su victimación», *Eguzkilore-Cuaderno del Instituto Vasco de Criminología*, 27. zk., 95.-117. or.

Prentsa-artikuluak

La Vanguardia, *El País* eta *ABC* egunkarien hemerotekaren berrikusketa zabala 1970etik 2011ra bitartean.





2

● dokumentua

Euskadin 1960 eta 2013
bitartean gertatutako
tortura eta tratu txarrak
ikertzeko proiektua

Euskadin gertatutako tortura eta tratu txarrak ikertzeko proiektua (1960-2014)

Ikerketaren zuzendaritza:

Francisco Etxeberria
Medikuntzan doktorea. Lege eta Auzitegi Medikuntzan mediku
espezialista. Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle titularra

Carlos Martín Beristain
Medikuntzan doktorea. Osasunaren Psikologian mediku espezialista

Laura Pego
Zuzenbidean Doktorea. Kriminologian masterra. Kriminologiaren
Euskal Institutuko ikertzailea

KRIMINOLOGIAREN EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CRIMINOLOGÍA

2017ko abendua

Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren
enkarguz egina

A) Proiektua: Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren ekimena

Ikerketa-proiektu hau 2014ean eskatu zion Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak UPV/EHU-ko Instituto Vasco de Criminología - Kriminologiaren Euskal Institutuari eta Eusko Jaurlaritzaren **2013-2016 aldirako Bake eta Bizikidetzaren Plana. Gizartea helburu** txostenaren 6. ekimenaren parte da.

Proposamenaren esaten den bezala *“Tortura giza eskubideen urraketan artean gaitzesgarriena da. Fenomeno hori gerta daiteke, zeren atxilotuekiko tratua gertatzen diren tokiak eta atxilotze-aldia kontrolpetik at gera baitaitezke. Opakutasunak zigorgabetasun-egoerak sortzen ditu eta zigorgabetasunak, aldi berean, horrelako praktiketarako egoera ezin hobekak. Tortura gertatzen den susmo zentzuduna izate hutsak zailantza hori argitzera bultzatu beharko luke giza eskubideekin eta demokraziaren balioekin konprometitu dagoen pertsona edo erakunde oro, baita fenomeno hori ez gertatzeko hartu beharreko neurriak hartzerare ere. Tortura gertatzeko aukera dagoela detektatzeak eta horri erantzuteak ez ditu sistema demokratikoa eta polizia-kidegoak ahultzen; aitzitik, haien legitimitatea eta sistema demokratikoarekiko konpromisoa areagotzen du». Geroago, hau dio: «Administrazioaren betebeharrak etiko, politiko eta legezkoa da herritarrei segurtasunez bermatzea atxilotuei ematen zaien tratuan giza eskubideak errespetatzen direla eta, nolatan ere, fenomeno hori ez gertatzeko eta, gertatuz gero, detektatu eta zuzentzeko beharrezkoak diren neurriak hartzen direla».*

Denbora luzez jasotako informazio ugari eta azken urteotan izaera ofiziala duten zenbait txosten hartu dira abiapuntu bezala, besteak beste:

- “Indarkeria politikoaren ondorioz izandako giza eskubideen urraketan biktimak” (2008), Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendariarena.
- “2000tik 2008ra bitarte Euskadin inkomunikatutako atxilotuei eragindako torturei buruzko dokumentazioa: Ikuspegi zientifikotik heltzea” (2009), Jon Mirena Landa, Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendariarena.
- “Euskal kasuan gertaturiko giza eskubideen urraketari buruzko oinarritzako txostena (1960-2013)” Manuela Carmena, Jon Mirena Landa, Ramón Múgica eta Juan M^a Uriartek egina (2013) Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren enkarguz egina.
- “Balorazio Batzordearen txostena, Euskal Autonomia Erkidegoan 1960tik 1978ra bitartean motibazio politikoko testuinguruan gertatutako giza eskubideen urraketari eta bestelako sufrimendu bidegabei buruzkoa” Eusko Jaurlaritzaren Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak aboian jarritakoa eta bere emaitzak “Ahanzturatik ateratzen” (2017) liburuan kaleratuak.

B) Helburuak: errolda prestatzea eta sinesgarritasuna baloratzea

Tortura eta tratua txarrak aztertzeaz arduratzen diren nazioarteko erakunde adituak Europako Kontseiluko CPT Torturaren Prebentziorako Batzordea, Nazio Batuen Torturaren aurkako Batzordea eta bere Errelatore Berezia, eta baita Amnesty International edo Human Right Watch bezalako Gobernu Kanpoko Erakundeak, besteak beste, beren txostenetan behin eta berriz adierazi dute, euren artean bat eginez, beren kezka Espainian torturaren gertakaria ezin delako gainditutzat hartu edo bere izatea ezin delako murriztu huts-hutsan kasuistikara, soilik bigarren mailakoa edo esporadikoa dena.

Ikerketa honen helburu nagusiak honakoak dira:

- Torturaren gertakariaren errealitate onjektibora hurbilduko gaituen azterketa zientifiko bat egitea gure testuinguruan aurrekariak bilduz eta 1960 eta 2014 urteen arteko errolda bat eginez.
- Azterketa honen ondorioak kontuan hartuz, beharrezkoak eta onargarriak izango diren errekonozimendurako, erreparaziorako eta prebentziorako neurriak proposatzea.

Horretarako, laburbilduta ondorengo gaiak jorratzen dituen aurkibide bat jarraituz garatu da ikerketa:

- Definizioak eta eremu kontzeptuala.
- Adituen frogak medikua tratua txarrei eta torturari dagokionez: kokatze forentsea.

- Metodologia: garatutako ekintzak.
- Kasuen estatistika-azterketak: emaitzak.
- Kasu adierazgarrien azterketa koalitatiboa biktimen esperientzia humanoa, pairatutako ondorioak, jasotako erantzun sozialak eta instituzionalak eta biktimen bizitzetan izan duen eragina ezagutzeko.
- Ondorioak eta gomendioak.


Sinesgarritasunari dagokionez, eta NNBBen gomedioak jarraituz, tortura alegazioen 202 kasuen azterketa egituratua egin da Estanbuleko Protokoloaren bidez.

C) Ikerketa taldearen antolaera eta metodologia


UPV/EHUko Instituto Vasco de Criminología - Kriminologiaren Euskal Institutuaren baitan talde disciplinatu anitzeko taldea eratu zen Zuzenbidea, Psikologia, Kriminologia, Auzitegi Medikuntza eta Informatika arloetan tituludun 55 profesionalen osatutako taldea. Horrekin batera, talde honetako nazioarteko hiru behatzaileekin harreman zuzena izan du Elisabeth Lira Doktorea (psikologoa, Comisión Valech batzordeko kidea, Txile); Helena Solà Doktorea (jurista, Torturaren Aurkako Munduko Erakundea, Suitza); eta Nuno Viera Doktorea (auzitegi-medikua, Legezko Medikuntzaren Europako Kontseiluaren presidentea).

D) Erroldaren emaitzak: estatistika-datuak

- 1960tik gaur arte tortura eta tratu txarrei buruzko etengabeko kezka egon da, inkomunikazio-erregimeneko kasuetan, batez ere. Milaka herritarrek salatu dute publikoki eta/edo judizialki tratu txarrak eta/edo torturak pairatu dituztela poliziako funtzionario publikoen eskutik, garai historiko ezberdinetan zehar eta tratu txar horiek askotariko larritasun-mailatakoak dira.
- Egin dugun azterlanean polizia-kidegoetako funtzionario publikoek eragindako tratu txarrak eta/edo tortura pairatu dutela modu publikoan eta/edo judizialean salatu duten 4.113 pertsona bilzen dituen errolda osatu dugu (% 17 emakumeak eta % 83 gizonak). Pertsona horietako % 17k behin baino gehiagotan pairatu dituzte; beraz, 3.415 pertsonak salatu dute, guztira, tortura pairatu izana. Zifra horiek kaltetuen kopuruaren benetako dimentsioa baino txikiagoak dira; izan ere, diktadura garaian eta trantsizioaren lehen urteetan, 1978ra arte, 1.081 soilik erregistratu ditugu (erregistratutako guztien % 26,4), baina garai hartan tortura oso ohikoa zen, eta dimentsio askoz ere handiagoa izan zuen. Bestalde, kontuan izan behar da badaudela beste pertsona batzuen erregistroak ere, baina ezinezkoa izan zen haiekin harremanetan jartzea, salaketa berresteko garaian ez zuten konfiantzarik izan, edo gertatutakoa ahazten eta atzean uzten ere ahalegindu ziren zenbait kasutan, eta beste kasu batzuetan, berriz, ez zegoen ezta erregistrorik ere. Salaketa horien bilakaera historikoak adierazten du behera egin dutela pixkanaka 2004tik aurrera, eta 2015ean eta 2016an ez dugu erregistratutako kasurik. Grafikoak kasu guztien multzoa adierazten du, bai jasotako salaketak, bai salatzailerik azterlan honetarako berriaz berretsitako salaketak, bai Istanbulgo Protokoloari buruzko kasuak.



Azterlan honetan kontuan hartutako kasuen banaketaren adierazpen grafikoa: salatutako kasuen kopurua, kaltetuek berretsitako kasuen kopurua, Istanbulgo Protokoloko kasuen kopurua



Polizia-kidegoak eskuratutako dokumentazioari buruzko informazioa: maiztasunak. Salatutako kasu guztien kopuruaren adierazpena, berretsitako kasuak, baimen informatua duten kasuak, Istanbulgo Protokoloa eskatutako kasuak, eta burututakoak

- Sortutako informazioa hiru esparru interesgarriren arabera hartu da kontuan, egitateak egiaz-tatzeko konbentzimendu-elementu nahikoak bermatze aldera; hau da, lekuko-froga, agiri-froga eta aditu-froga. Guztira, 26.113 dokumentutik gora aztertu dira. Dokumentazio hori tratu txar eta tortura kasuei buruzko artxibo handiena da. Berez, giza eskubideen urraketak, etorkizuneko era-kunde-mekanismoen lana eta Euskadiko memoria kolektiboa ikertzeko dokumentazio izugarri garrantzitsua da.
- Ildo horretan, tortura eta tratu txarren biktimen zuzeneko 500 testigantza jaso zituen proiektuak, eta azterlan honek lehendik jasotako testigantzen dokumentazioarekin batera, 1.027 grabaziotik

gora bildu dira audioan eta bideoan azterlan honen bidez. Horrez gainera, azterketa bat egin zen, peritu-froga gisa, Nazio Batuen Istanbulgo Protokoloan (2000) oinarrituta, eta 202 pertsonari aplikatu zaie. Pertsona horien % 76 da 1978aren ondorengo garaikoa, zenbait aldi kontuan hartuta; % 20 diktadura garaikoa eta trantsizioaren lehen urteetakoa, eta % 4 bi garai horietan atxilotutako pertsonak dira.


- Azterlan honen zati diren azterketa kualitatibo zein legalean jasota daude probintzia-auzitegiek eta Auzitegi Gorenak emandako epaiak, 1979-1992 bitartean gertatutako kasuetan kondenatuak ezarri dituztenak. Kasu horietan frogatu zen Poliziak zein Guardia Zibilak tortura ikaragarriak eragin zizkietela atxilotuei, atxiloteta-zentroetan bertan. Guztira, 20 epai irmo eman ditu Auzitegi Gorenak: 9 kondenatu-epai ezarri dizkio Polizia Nazionalari eta 11 Guardia Zibilari. Guztira, 49 funtzionario (emakume bat eta 48 gizon) kondenatu ditu, inkomunikazio-erregimenean zeuden 31 pertsonaren aurka (4 emakume eta 27 gizon) egin zutenagatik. Auzitegi horiek ez diote kondenarik ezarri Ertzaintzari.

Egita-teak	Biktimak	Probintzia Auzitegia	Auzitegi Gorena	Polizia-kidegoa	Kondenatuen kopurua
1979	Xabier Onaindia	Bilbo 83 / 03 / 29	85 / 06 / 19	PN	2
1980	Josu Torre	Bilbo 87 / 07 / 20	90 / 04 / 23	GZ	3
1980	Juan José Cazalis	Donostia 84 / 05 / 26	87 / 03 / 27	GZ	1
1980	Juan José Larrinaga Roberto Zabala Ernesto Alberdi Fernando Irakulis Juan Luis Irakulis Agustín Gisasola Juan A. Urrutia	Bilbo 01 / 07 / 24	03 / 11 / 19	GZ	2
1981	Joxe Arregi	Madril 85 / 09 / 13	89 / 09 / 25	PN	2
1981	Tomás Linaza	Bilbo 90 / 11 / 16 98 / 07 / 28	93 / 12 / 16 98 / 12 / 11	GZ	2
1981	Mikel Ruiz	Bilbo 95 / 04 / 18	97 / 07 / 17	PN	2
1982	Juana Goikoetxea	Donostia 87 / 07 / 15	(Autoa 91 / 04 / 04) 92 / 01 / 30	GZ	5
1982	Ana Ereño	Bilbo 97 / 11 / 28	99 / 01 / 25	PN	5
1982	Juan Carlos Garmendia	Donostia 93 / 09 / 28 94 / 11 / 02	94 / 06 / 20 95 / 11 / 20	GZ	3
1982	Enrique Erregerena	Madril 97 / 01 / 21	98 / 07 / 03	PN	4

1983	Jokin Olano	Donostia 92 / 09 / 22	94 / 02 / 01	GZ	5
1983	Jose Mari Olarra Lucio Olarra V́ctor Olarra Ignacio Olaetxea	Donostia 86 / 11 / 21	90 / 02 / 24	GZ	1
1983	Iker Eguskizaga	Bilbo 95 / 04 / 05	97 / 03 / 18	PN	2
1983	Javier Fernández	Bilbo 97 / 02 / 18	98 / 06 / 02	PN	2
1984	Kepa Otero Jose Ramón Quintana	Bilbo 97 / 02 / 17	99 / 05 / 31	PN	1
1984	M ^a Dolores Barrenetxea Jasone Sánchez	Bilbo 94 / 10 / 26	96 / 12 / 19	GZ	2
1984	Ildefonso Salazar	Donostia 88 / 03 / 28		GZ	1
1986	Bixente Malaxetxeberria	Gasteiz 88 / 12 / 15	90 / 11 / 17	PN	1
1992	Kepa Urra	Bilbo 97 / 11 / 07	98 / 09 / 30	GZ	3

Auzitegi Gorenaren kondena-ebazpenak

- Azken hamarkadetan, nazioarteko hainbat erakunde (Giza Eskubideen Europako Auzitegia, Torturaren Aurkako Batzordea, Giza Eskubideen Batzordea) Espainia kondenatu dute tortura ikertzeko eta prebenitzeko betebeharrak ez betetzeagatik. Horrenbestez, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak lau kasutan eman ditu Euskal Autonomia Erkidegoko pertsonentzako ebazpenak (2002ko, 2003ko eta 2011ko gertaerak, Guardia Zibilak egindako atxiloketekin lotuak), eta Nafarroako Foru Erkidegoko hiru kasutan (2009ko eta 2011ko gertaerak, Guardia Zibilak egindako atxiloketekin eta Polizia Nazionalak egindako atxiloketa batekin lotuak). Gertaera horiek guztiak inkomunikazio-erregimeneko atxiloketetan izan ziren, ETaren kolaboratzaile edo kide izateaz akusatutako pertsonen aurka. Nazio Batuen Torturaren Aurkako Batzordeak hiru kondena-irizpen eman ditu praktika horiek behar bezala ez ikertzeagatik eta ez zigortzeagatik (1992ko eta 2002ko gertaerak, bi kasutan Guardia Zibilak egindako atxiloketekin lotuak, eta kasu batean Ertzaintzak egindako atxiloketarekin lotua). Azkenik, Giza Eskubideen Batzordeak Espainia kondenatu du Guardia Zibilak egindako atxiloketa batekin lotutako kasuan. Kasu horietan, nazioarteko erakundeek Espainiako estatua kondenatu zuten salaketak ez ikertzeagatik, auzitegiko medikuen txosten eta frogen erabilera eskasa egiteagatik, egin behar ziren probak ez egiteagatik, edo torturaren ondorio psikologikoak ez ebaluatzeagatik.
- Nazioarteko erakunde horiek adierazi zuten ezin izan zutela torturaren praktika ebaluatu, hain zuzen ere, ez zelako nazioarteko estandarren araberako ikerketa eraginkorrik egin. Arrazoi horiek daude, halaber, erakunde horietara aurkeztu ez diren hainbat kasutan, eta haien ikerketetan aipatu erakundeek adierazitako arazo berberak daude. Nazioarteko ebazpen horiek eta barnean Konstituzio Auzitegiak eman dituenak berresten dute ez dela ikerketa judizial egokia egin praktika horiek aztertzeko. Horrez gainera, Torturaren Aurkako Batzordeak eta Giza Eskubideen Batzordeak adierazi zuten gertaerak ikertzeko betebeharra zuela estatuak, baina orain arte estatuak ez du inolako erantzunik eman horren haritik.



Auzitegi Gorenaren kondena-epaiak torturagatik: 20 epai 1979tik 1992ra bitartean. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren kondena-epaiak tortura ez ikertzeagatik: 7 epai 2002tik 2011ra bitartean

- Europako Kontseiluko Torturaren Prebentziorako Europako Batzordeak (CPT) adierazi bezala, Nazio Batuen Torturaren Aurkako Batzordeak eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiak jasotakoaren arabera, eta Amnesty Internationalek adierazitakoaren ildotik, atxilotuen inkomunikazioak oinarritutako eskubideak mugatzea dakar eta benetako babesa ez da bermatzen, horrek tratu txarrak eta tortura sustatu ditu, eta gertaera horiek ikertzeko aukerak nabarmen mugatu.
- Agintariak horrelako praktikak daudenik ukatu dute sistematikoki. Faktore horrek eta ikerketarik ez egiteak ere adierazten dute praktika horiek desagerrarazteko borondatea falta dela, eta agenteak balizko salaketa faltsuetatik babesteko asmorik ez dagoela.
- Bestalde, tratu txar eta tortura moduen bilakaera egiaztatu du azterlanak, honako elementu hauei erreparatuta: salaketak jarri dituzten pertsonen kontaketa, berariazko kasuen azterketa eta Istanbulgo Protokoloan oinarritutako azterlana egiteko bildutako testigantzak, baita ikertzaile taldeak bildutako testigantzak ere. Aurkikuntza horiek, askotariko iturri eta ikerlan motatan ageri direnak, bat datoz: tratu txarren eta tortura-praktiken aldaketa adierazten dute. Aldaketa hori egiaztatu da; izan ere, tortura modu batzuk ez dira ageri jada biktimen lekukotzetan, esate baterako, bainuontzia, elektrizitatea ematea, eta hematoma handiak sortzen zituzten jipoiak, garai batean kontaktzen zituztenak eta hainbat txosten forentsetan berresten zirenak, 90eko hamarkada hasi arte. Salaketetan egiaztatzen den bilakaerak, Torturaren Aurkako Batzordera eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiara eramandako kasuak barnean hartuta, azaleko azterketa forentsetan nekezago detektatzen diren metodoen erabilera dakar, hala nola asfisia eragiten duten metodoak (poltsa), gorputz-jarrera behartuak edo ariketa oso nekagarriak, mehatxuak eta laidoak, biluzterea behartzea eta sexu-irainak.
- 30 kasu entzutetsu aukeratu ziren ikerketarako, biktimen bizi izandako tortura eta tratu txarren gertaera desberdinak, giza eskubideen urraketen ondorioak eta ez ikertzearen adierazten dituztenak. Kasu horiek sakon aztertu ziren, eta dokumentazio ugaria dute, kasu bakoitzean tortura erabili izana eta ikerketa eragingarririk ez zela egin egiaztatzen duena. Arazoa minimizatzen duten

erantzunen aurrean, ikerlan honek ukatu ezin den historia azaltzen du. Zehatz-mehatz deskribatuta ageri dira 1979tik 1992ra bitarteko 20 kasutan ikerketa judizialak izan dituen emaitzak, deskribapen oparoa baliatuta: oinazea eragiteko muturreko moduak, segurtasun-indarretako hainbat agenteren parte-hartzea kasu horietan (Guardia Zibila eta Polizia), torturak egiteko erabilitako berariazko tokiak, praktika errepikakorrek zenbait kuartel eta polizia-etxetan, eta ekintzetan parte hartutako talde txiki bati ezarritako kondenak (hilabete gutxiko askatasuna kentzea eta desgaitasuna, gehienetan bete ez zirenak).

E) Kokatze juridikoa eta kokatze forentsea

Azterlan hau giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen esparruan egin da. Orobat, giza eskubideen nazioarteko zuzenbide hori garatzeko egindako nazioarteko tratatuak kontuan hartu dira, estatuek tortura eta tratatu txarren ikerketan, prebentzioan, justizian eta erreparazioan dituzten betebeharrak adierazten dituzten aldetik.

Tratu ankerren modu areagotua da tortura. Azterlan hau egitean, tortura eta tratatu txarrak terminoak erabili ditugu; izan ere, sufrimendu larriaren intentsitatea ez da zehatz-mehatz haren helburuen araberakoa. Argitu diren kasu entzutetsuak deskribatzen dituen azterketa kualitatiboan egin dugun deskribapena lagungarria izan daiteke zenbait kontu ulertzeko: kaltearen sakontasuna, erabili ditugun teknika motak, baita kasu moten arteko aldeak ere, legearen, medikuntzaren eta psikologiaren ikuspegiak aintzat hartuta. Urraketa horiek baloratzeko, kasu bakoitzaren barneko eta kanpoko inguruabarrak kontuan hartu behar dira: adina, sexua, osasun-egoera, sufrimenduaren intentsitatea eta iraupena.

- Tortura prebenitzeko neurri zuzentzaileak hartzea eskatu dute etengabe denbora horretan giza eskubideen aldeko erakundeek eta erakunde publikoek, baita Nazio Batuen eta Europako Kontseiluaren giza eskubideen aldeko gobernuarteko erakunde edo mekanismoek ere, baina Administrazioak ez du esku-hartze nahikoa bultzatu, eta atxilotuen eskubideak ez dira eraginkortasunez bermatzen, puntu horri dagokionez. Arartekoaren bulegoaren ebazpenak eta monitorizazio-jarduera garrantzi handikoak izan dira denbora horretan, prebentzioan aurrera egiteko. Egiaztatutako gabeziak adierazi dituzte txostenetan, baita zuzentzeko hartu behar diren neurriak ere, eta Ertzaintzak aintzat hartzen ditu. Gomendio horien artean, azkenaldian eman direnak erabateko bidegrabaketa sistema bat, audioa ere grabatzen duena, ezartzearekin lotutako gorabehera teknikoei buruzkoak dira, edota grabazioak gordetzeko epeak luzatzekoak, Arartekoak 2011n emandako gomendioan eta geroagoko beste batzuetan eskatu bezala.
- Bestalde, 1997an, nazioarteko erakundeek, bereziki Nazio Batuek eta Europako Kontseiluak, emandako gomendioak betetzeko, eta Espainiako auzitegi-medikuen jarduna nazioartean onetsitako teknika eta prozeduretara egokitze aldera, Justizia Ministerioak protokolo bat ezarri zuen, atxilotuei auzitegiko mediku-azterketa egiteko, informazio medikoa argiagoa eta zehatzagoa izan dadin, auzitegietan funtsezko frogaren elementu gisa baliatzeko. Tamalez, hori guztia ez da bete, salbuespen batzuetan izan ezik, eta horrek eragotzi du atxilotuek alegatutako kasuak ikertzeko funtsezkoa den aditu-froga egitea. Torturaren Aurkako Batzordeak eta torturaren aurkako errelatoreak egindako txostenek, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaiek eta Europako Kontseiluko Tortura Prebenitzeko Batzordeak 2001az geroztik adierazi dute protokolo horiek ez direla betetzen.
- Bestalde, 2003an, inkomunikazio-erregimenean atxilotutako pertsonen laguntzeko protokolo bat ezarri zuen Eusko Jaurlaritzak. Protokolo horrek Justizia Administrazioaren, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren eta Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuaren inplikazio zuzena dakar, eta hizpide dugun gaiari dagokionez, atxilotuak kudeatzeko kontrol-tresna egokia da. Protokolo horrekin batera, beste neurri batzuk ere hartu dira, hala nola inkomunikazio-erregimenean atxilotutako pertsonen familientzako arreta-zerbitzua, eta atxilotuekin erabiltzeko bidegrabaketa sistema. Tamalez, hori guztia Ertzaintzako agenteek egindako atxilotetetan soilik betetzen da. Protokolo hori hedatu behar da beste segurtasun-indar batzuek atxilotutako pertsona guztietara; hartara, berme batzuk sortuko lirakeke, gaur egun polizia-kidego horietan ematen ez direnak. 2003az geroztik, Auzitegi Nazionaleko zenbait magistratuk beste neurri partzial eta gutxi erabili batzuk aplikatu dituzte. Dena dela, horrek ez du eragotzi tortura eta tratatu txarren salaketan iraunkortasuna, ez eta nazioarteko erakundeetatik eskatutako inkomunikazioa desagertzea ere.
- Gertaeren kontaketa auzitegi-medikuen aurrean egin zen askotan, baina hainbat txostenetan ez zen jaso biktimen kontaketa, edo atxilotuak adierazitakoa jaso besterik ez zuten egin, sakondu

gabe, edo alegazioak ebidentzia batzuekin kontrastatu gabe, edo ez zuten ebaluatu lekukotza eta aurkikuntzak zenbateraino zetozen bat.

- Auzitegi-medikuen lana garrantzi handikoa izan zen hainbat kasutan, tortura eta tratu txarrak frogatzeko, baita tortura edo tratu txarren egilea zehaztea ezinezkoa izan zen kasuetan ere, edota kondena penala ezartzera iritsi ez zirenetan. Auzitegi-medikuen eginkizuna funtsezkoa da, eta 80ko hamarkadako kasu entzutetsu batzuetan torturaren ikerketa eta prebentzioarekin konprometitutako auzitegi-mediku eta epaileek esku hartu zuten, ebidentziak hartzeko, baita polizia-instalazioetan bertan ere.

F) Sinesgarritasun-emaizak: Istanbulgo Protokoloa

- Elkarrizketatutako pertsonen % 80 gizonak ziren, eta % 20 emakumeak. 30 urtetik beherako gazteen atxilotetak % 76,8 dira. Atxiloteta egindako segurtasun-kidegoa kontuan hartuta, kasuen % 38 Guardia Zibilaren atxilotetak izan ziren, % 30,7 Poliziarenak, % 9,9 Ertzaintzarenak eta % 21 beste polizia-kidegoenak. Tortura edo tratu txarrak salatutako pertsonen % 43 libre utzi zituzten: % 35,6 kargurik gabe, eta % 6,4 behin-behineko askatasunean. Inkomunikatuta egondako egunak 4,9 izan ziren, batez beste. Atxiloteten kopuru handiena 80ko hamarkadan izan zen (laginaren % 35), eta 2000. urtetik aurrera (laginaren % 31). Kasu horien banaketak salaketan lagin orokorrak (4.113 kasu) duen joeraren ildoari jarraitzen dio.
- Tortura eta tratu txarren ondorio psikologikoei erreparatuta, peritatutako pertsonen % 60tik gora erresilienteak dira, gertaera horiek pairatu arren. Oro har, ez dute betetzen osasun mentalaren arazoren bat diagnostikatzeko irizpiderik, eta ez dute psikopatologia adierazgarririk. Horrek ez du esan nahi tortura pairatu ez dutenik. Hala eta guztiz ere, % 21,8k kalte horien sintomak dituzte. Sintomak arinak izan daitezke, baita trauma osteko estresaren nahasmendu osoak ere. Dena dela, % 15,54 daude diagnostikatuta. OMEk egindako Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenean (GNS-10) Katastrofe-esperientzia baten ondorengo nortasun-aldaketa iraunkorra ageri da. Gure laginean, peritatutako pertsonen % 6,5ek du sintomatologia hori.
- Datu horiek bat datoz lagin txikiagoekin egindako beste ikerlan batzuekin, inkomunikazio-erregimenean atxilotutako 45 pertsonari Istanbulgo Protokoloan oinarritutako ebaluazioek emandako emaitzen arabera.
- Gure txostenari berriro helduta, Istanbulgo Protokoloan oinarritutako ikerlanaren berriazko helburu bat zen ahalik eta modu objektiboenean ebaluatzea garai bakoitzean tortura eta tratu txarrak pairatu izana salatu zuten pertsonen kontaketa eta sintomatologiaren eta aurkikuntzen arteko loturaren maila, Istanbulgo Protokoloan bertan definitutako irizpideei jarraituz. Tortura edo tratu txarrak alegatutako kasuen analisiak, psikologo eta mediku bikote batek eginak, kanpoko ebaluazioarekin eta peritatzeak ikuskatuta, honako emaitza hauek izan zituen: trinkotasun maximoa kasuen % 5,9an, trinkotasun handiko lotura % 41,1ean, kontaketa eta aurkikuntzen arteko adostasun trinkoa kasuen % 48,5ean, eta trinkotasunik gabea kasuen % 4,5ean. Azken ebaluazioan trinkotasunik gabe ageri diren kasuak berrikusi egin ziren: indarra erabilitako gertaeren kontaketa ziren, baina zalan-tzak zeuden tortura, tratu txar edo indarra gehiegi erabilitako kasutzat hartzeko.

G) Jarduera instituzionalak eta euskal erakundeek aurrera eramandakoak: proposamenak bitimen zentraltasunetik

1984tik hainbat gomendio egin ditu Amnesty Internationalek, eta gerora 90eko hamarkadaren erdialdetik baita Torturaren Prebentziorako Europako Batzordeak (CPT) ere, eta torturarekin zerikusia duten gaietarako Nazio Batuen Erakundearen kontalari bereziak (egin izan dituzten bisita eta txostenetan behin eta berriro adieraziak, gainera), baina urte hauetan guztietan Espainiako agintariak ez diete zinezko erantzunik eman gomendio horiei, Zigor Kodean torturaren debekuari buruzkoak diren artikulak partzialki hedatzea salbu. Hain zuzen, tortura-salaketetan edota tratu txarren salaketetan ikerketaren osteko zigorgabetasuna arazo larria izan da, eta oraindik da, Espainiako estatuan, erakunde horiek adierazi izan duten bezala, atxiloteta inkomunikatuagatik beren kezka azalduz.

- Azterlan honetan bildutako datu eta konklusioek adierazten dutenez, garrantzi handiko biktima talde batek errekonozimendu publikoa eta erakundeen errekonozimendua behar du eta errebindikatzen du, eta Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetzaren Idazkaritza Nagusiak abian jarritako ikerketan arreta eman diezaioten nahi du, oso urrats positiboa dela iritzita. Ikerketa egitean, kontsultatutako pertsona eta erakunde guztien ulermena eta lankidetzaren egiaztasunak ditugu. Adierazi dute azterlan hau egokia dela, eta lortu nahi diren azken helburuak ere egokiak direla. Alegia, gertaerak aitortzea, erreparazio-neurriak ezarri ahal izateko, hori baita gainditzeko eta amaitzeko modu bakarra.
- Istanbulgo Protokoloan oinarritutako ikerlanaren arabera, aztertutako kasuen % 5 eta 15 artean ondorio psikologiko garrantzitsuak ageri dira. Horregatik, pertsona horientzako asistentzia-neurri espezifikoa eta espezializatuak ezartzeko gomendioa ematen dugu, betiere berriro biktimizatzea eragotziz.
- Azterlanak hainbat eta hainbat kasu dokumentatu azaldu ditu, hein handi batean biktimekin kontrastatuta egiaztasun ostean. Orobat, ia biktima guztiek ez dute arreta, errekonozimendua eta erreparazioa sustatzeko neurririk izan. Auzitegi Gorenaren epaiak dauden kasuetan, erreparazioa izan zen zenbaterako ekonomiko bat, ageriko lesio fisikoak sendatzeko behar izan zituzten egunen arabera mugatua. Inpaktu psikologiaren inolako ebaluaziorik ez da kontuan hartu, ezta kasu horietan ere. Azterlanaren emaitzek adierazten dute arazoaren inpaktua ez dela aitortu, eta ez zaiola arretarik eman. Erakundeen erantzunaren ardatzak politikazio-jarduerak eta errekonozimendua arbuizatzea. Hala ere, Ertzaintzaren kasuan, une jakin batean berriazko prebentzio-protokoloak abian jarri zituzten, Nazio Batuen sistemako mekanismo eta erakunde nazioarteko gomendioei jarraituz. Azterlan honetan ateratako ondorioek eta nazioarteko erakundeek kasuei dagozkien erantzuleen aitortzearen garrantzia nabarmentzen dute.
- Ikerketa honen ostean badaude baldintzak biktima hauei errekonozimendua eskaintze aldera urrats berriak emateko. 107/2012 Dekretuaren bitartez 1960tik 1978ra bitarteko ordena-indarren biktimak aitortu ziren bezala, partzialki izan bazen ere, azterlan honen emaitzek azaltzen dituzte kasu horietan errekonozimendua, arreta eta erreparazioa bideratzeko abian jar daitezkeen baldintza eta metodologiak. Neurri horiek legez behar den aitortzearekin egituratu behar dira, nazioarteko estandarren arabera, eta gizarte-ehunaren berreraikuntza, memoria kolektiboa eta errekonozimendua sustatzeko ekarpen eraginkorrak izango dira.
- Atal honetan ezin da ahaztu 12/2016 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimiei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa.

Estatuaren Abokatutzak errekurso bat jarri zuen 107/2012 Dekretuaren aurka Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, kasuen ebaluazioan zehar egindako aldaketek Memoria Historikoaren Legea eta Gizarte Segurantzaren oinarritzko legedia urratzen zituztelakoan. Horrenbestez, zenbait aldaketa egin ziren egoera konpontzeko eta lana amaitzeko. Orain, Gobernu zentralak Konstituzio Auzitegian errekurritu du 2016ko legea. Biktimentzako errekonozimendua eta erreparazioaren bidean beste urrats bat emateko legea den aldetik, egoki izango litzateke lege horren garapena eta aplikazioa eragotziko lukeen edozein ekintza bertan bera uztea.

12/2016 Legeak ezarritako jurisdikzio, denbora-esparru, pertsona onuradun, ekintzarako printzipio eta prozedurek ere **nazioarteko erakundeek erreparazio-gaietan** erabakitako araudi eta ebazpen guztiak betetzen dituzte.

107/2012 Dekretuaren *Balorazio-Batzordeak* esperientzia kontuan hartuta, bere gomendioak 1978az gero-ko urteetara ere heda daitezke, eta komeni da hala egitea gainera:

1. *Giza-eskubideen urraketak pairatu dituzten biktimen erreparaziorako eta errekonozimendurako araudia ahal den bizkorren osatu beharra dago. Motibazio politikoan sustraitutako bortizkeria-tes-tuinguru batean –eta gaur egun arte– gertatutako urraketek buruz ari gara. Zentzu honetan, Balorazio Batzordeak kezka handiz konprobatu du zenbait kasutan giza eskubideak oso neurri larrian urratu arren ezin izan dela ziurtatu kaltegarriak Segurtasun Indarretako kideak zirenik, nahiz eta sus-moa ildo horretatik joan. Halako kasuetan ez dago 107/2012 Dekretua aplikatzerik. Suposizio mota horren baldintzak balioztatzeak, aldi berean, terrorismotik eratorritako biktimatzen ezin onartu izana ekarri du. Azken emaitza, beraz, lege araudi eza baizik ez da eta hala izanda ez dago biktima hauen beharrezko errekonozimendu eta erreparazio publikoa babesteko duen estalkirik. Batzordeak es-perientzia baliagarria eskuratu du datuak aztertu dituen eta, esperientzia horretan oinarrituta, eskaera bat luzatzen die erakunde eskudunei: araudia jorratzeko unean baldintza horiek guztiak kontuan izan daitezela.*

2. Batzordekideek biktima gehienentzat sentimenduari heldu nahi diote. Sentimendua asetzearren biktimen, bada, errekonozimendurako ekitaldi publiko bat egitea gomendatzen dute. Horrez gain, biktima horiek hemendik aurrera ospatu beharreko memoria-ekitaldi guztietara gonbidatzea gomendatzen dute.

Jada aipatu ditugun beste ekimen batzuek gain, Eusko Jaurlaritzak torturari eta tratu anker eta umiliagarri buruzko behatoki bat sortzeko aukera kontuan hartu behar litzateke hemen. Bestalde, babesa eman behar litzateke, halaber, giza eskubideak errespetatzearen eta sustatzearen alde gizarte zibilak antolatzen dituen ekimenei eta, konpromiso horrekin bat, torturaren aurkako borrokan eta torturaren biktimei laguntzearen ikertzen eta lanean diharduten elkarte eta abarrei; eta aztertzea ere bada, beharbada, torturaren biktimei Nazio Batuen Funtsari ekarpena egiteko konpromisoa hartzea.

Hori guztia posible litzateke torturaren eta tratu anker eta umiliagarrien prebentziorako euskal legea garatu ondoren, zeina, nazioarteko tresnen argitan, gizarte-heziketa eta -kontzientziatzearen lan etengabetik abiatu beharko litzatekeen, betiere giza eskubideen pedagogia egoki baten eta bake-kultura benetako baten esparruan.

Azkenik, esan nahi genuke atxilotu askok pairatutako torturaren eta tratu txarren inpaktua jaso dela ikerlan honetan, bai eta tortura eta tratu txar horiei buruzko xehetasunak ere. Kontakizun ugari dira, ongi dokumentatuak, eta erakundeek eta gizarteak entzun egin beharko lituzke. Zeren eta, giza eskubideen kultura eraiki behar bada, ezinbestekoa baita biktimek pairatutako sufrimenduarekiko eta bidegabekeriarekiko sentsibilitatea, baita biktima horiekiko ere, Euskal Herrian indarkeriaren eta terrorismoaren ondorioak pairatu dituzten beste hainbatekin batera. Torturaren eta tratu txarren inpaktua agerira ekartzea lehen urrats bat da: gure iragan hurbilaren parte izan den ispiluan zati hori ere ikustea, ez dezan baldintzatu gure gizarte honen geroa.





3

• dokumentua

Jazarpen indarkeria pairatutako
zinegotziek jasan zuten
bidegabekeriari buruzko txostena
(1991-2011)

Jazarpen indarkeria pairatutako zinegotziek jasan zuten bidegabekeriari buruzko txostena (1991-2011)

José Ramón Intxaurbe Vitorica
Eloísa González Hidalgo
Gorka Urrutia Asua

 **Deusto**
Instituto de Derechos Humanos
Pedro Arrupe
Giza Eskubideen Institutua

Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua
Deustuko Unibertsitatea

2019ko uztaila

Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren
enkarguz egina

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Giza Eskubide, Bizikidetzeta
eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General de Derechos Humanos,
Convivencia y Cooperación

Lan honen bibliografia erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan
aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia: 2.a, 2019ko iraila
Ale-kopurua: 150 ale
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Lehendakaritza Saila
Internet: www.euskadi.net
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia - San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Zuzendariak: José Ramón Intxaurbe Vitorica, Eloísa González Hidalgo eta Gorka Urrutia Asua
Honen enkarguz eginda: Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia
Itzulpena: Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala
Diseinua eta Maketazioa: Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia
Inprimaketa: Eusko Jaurlaritzako Inprimaketa eta Erreprografia Zerbitzua
ISBN:
Lege Gordailua:

Aurkibidea

1. Sarrera.

Txostenaren helburua, edukia eta denbora-esparrua.

1.1. Txostenaren edukia eta agindutako lanaren justifikazioa.

1.2. Txostenaren edukiak eta egitura.

1.3. Metodologia.

2. Testuinguru sozial eta politikoa. Azterlanaren esparru kronologikoaren aipamen laburra.

3. Datuen aurkezpena.

3.1. Datu kuantitatiboen azterketa.

3.2. Datu kualitatiboen azterketa.

3.2.1. Udalerriarekiko eta bizilagunekiko konpromisoa. Militantzia politikoko modu bitxi bat.

3.2.2. Distantzia laburreko adierazpen politikoaren zailtasuna terrorismoaren mehatxupean.

3.2.3. Emergentsia demokratiko baten kronologia.

3.2.4. Jazarpenaren hedatze-uhina: zinegotzien isolamendu sozialetik haien familia- eta lan-inguruneari erasatera.

3.2.5. Erreparaziorako memoria eraikitzea eta gizartearentzako irakaspenak.

4. Ondorioak eta gomendioak.

4.1. Antzeman diren giza eskubideen urraketen kalifikazioa.

4.2. Amaierako balorazioak.

5. Bibliografia.

1. Sarrera. Txostenaren helburua, edukia eta denbora-esparrua

1.1. Txostenaren edukia eta agindutako lanaren justifikazioa

2018. urtearen hasieran, Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuari enkargatu zion txosten bat egin zezan, zein azaldu eta aztertuko baitzuen Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako zinegotziak izan eta ETA banda terroristaren mehatxuak pairatu zituztenek jasan zuten bidegabekeria. Lan honen erreferentziako esparrua 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana da, 2017ko urrian onetsia; haren jardura-ardatzetako bat (1.a) iraganari eta indarkeriaren amaiera antolatuari dagokiona da. Ardatz horren 2. eta 3. ekimenek planteatzen dute iraganari eta haren argitzeari buruzko hausnarketa kritikoa egitea. Esparru horretan kokatuta dago pertsonen kolektibo jakin bati buruzko azterlana egitea: beren eskubide politikoez baliatzean mehatxuak eta derrigortzeak pairatu zituztenen kolektiboa.

Irismen orokorreko txosten bat egin dugu, zeinaren helburua baita aztertzea zein izan zen ETAREN beldurrazte bat egoteak beren udal ordezkariaren arloko erantzukizuna baldintzatuta ikusi zuten pertsonen errealitatea. Hurrengo orrialdeetan saiatuko gara honako galdera honi erantzuten: denboran zehar mantendutako derrigortze horrek zein puntutaraino izan zuen eragina herritarrek ordezkatzeko lanean, zein puntutaraino eragin zuen haien familia-harremanetan, harreman sozialetan edo lan harremanetan, bai eta zinegotzi haien eta beraien familiartekoen osasunean ere.

Aurreko txosten batean¹ ikertu genuen jada eskolta-operatibo baten bitartez bere egoerari konponbidea jartzen ahalegindutako pertsona mehatxatuaren figurari buruz. Inguruabar hori elementu objektibo moduan erabili zen, mehatxatutako pertsonen kolektiboa kuantifikatu ahal izateko. Orduko hartan, azterlanaren xede ziren taldeetako bat alderdi politikoen ordezkariena izan zen. Ikerketa honek puntu ugari ditu amankomunean orduko harekin, metodologia eta tresna analitikoak ere partekatzeraino.

Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak egindako enkarguak azterlana zentratu behar zeneko denbora-esparrua mugatu zuen: 1991tik 2011ra. Urte horiek bat datoz, 1978ko Konstituzioa onetsi zenetik izan diren laugarren, bosgarren, seigarren, zazpigarren eta zortzigarren udal legegintzaldiekin. Jakina da 90eko hamarkadaren lehenengo urteetatik aurrera ETAREN estrategia zela jazarpena hainbat sektoretara zabaltzea, eta geroago sufrimenduaren sozializazioaren ideia adierazi zuela. Udal ordezkarien multzoa izan zen estrategia terroristak hori ezartzearen ondorioz gehien kolpatutako kolektiboetako bat. 2011ko urriaren 10ean, ETAK jardura behin betiko geldiaraziko zuela iragarri zuen.

1.2. Txostenaren edukiak eta egitura

Ikerketa honen helburuak enkarguan bertan datoz zehazturik; honela hain zuzen ere:

- ETAREN indarkeriaren esparruan mehatxuak eta zuzeneko jazarpena jasan zuten zinegotzietan eragindako sufrimendu bidegabearen deskribapen kuantitatibo eta kualitatiboa eskaintzea.
- Bi gai hauetan ondorio batzuetara iristea: mehatxuaren bidez urratutako giza eskubideen argiketari eta halako biktimen erreparazioa.

Helburu horiek betetzeko, ikerketa-taldeak edukien egitura hau garatu:

- a) Txostenek hartzen duten denbora-esparruaren testuinguru historikoaren azalpena laburra. 90eko hamarkada, 1992an izandako ekitaldiei eginiko mehatxutik Oldartzen txostenera eta sufrimenduaren sozializazioaren ideiararte. Gure denbora-esparrua bukatzen da ETAK bere jardura terroristak amaitutzat jotzeko zuen asmoa iragarri zuenean.

¹ Intxaurbe Vitorica, José Ramón, Urrutia Asua, Gorka eta Ruiz Vieytes, Eduardo J.; *ETAK mehatxatutako pertsonen jasan duten bidegabekeriari buruzko txostena (1990-2011)* 2016ko martxoaren 31koa.

b) Eskura dauden datuen analisisia:

-Alderdi kuantitatiboa. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak bildutako datuak ematen ditugu, baina datu horiek beste erakunde publiko batzuek bildutakoekin osatu beharko lirateke, amaierako zenbateko batera iristeko. Dena den, adierazle batzuk eskaintzen dizkigute Euskadiko zinegotzien kolektiboan beldurrarazte terroristaren errealitateak ukitutako pertsonen kopuruari buruz.

-Alderdi kualitatiboa. Kasu aipagarri batzuen protagonistek kontatutako bizipen-istorioen bitartez, denboran iraun zuen derrigortzearen inpaktua aztertzen da, bai eta pertsonen eta ondasunen aurkako erasoek haiek dituztenen bizitzan izandako inpaktua ere. Galdetuko dugu nola erasan zitzairen Euskadiko hainbat udalerritan zinegotzi-erantzukizuna bete zutenen askatasunari eta segurtasunari, eta zein eragin izan zituen horrek haien familia-ingurunean eta laneko zein gizarte arloko ingurunean.

c) Antzeman diren giza eskubideen urraketen kalifikazioa. Aurreko ataletan aztertu diren datu kuantitatibo eta kualitatiboen interpretaziotik abiatuta, gertaeren interpretazio juridikoa egitea proposatzen da, gertaera haiek giza eskubideen urraketa izan baitziren, eta, gainera, mehatxatutako pertsonak ez baitzuten inolako baliabide juridikorik eduki eskura beren eskubideen defentsa edo erreparaziorako.

d) Amaierako balorazioak. Ikertzaileen lantaldeak ondorio horiek txostenean aztertutako datuen argitan aletuko ditu, egiak, justiziak eta erreparazioak osatzen duten hirukotea abiapuntu hartuta.

e) Erabilitako bibliografia.

1.3. Metodologia

Enkarguaren helburuetan ezartzen den bezala, txostenak bilatzen du mehatxuak eta zuzeneko jazarpena pairatu zituzten udal ordezkarien egoerara hurbiltzea. Azterlanaren xede den kolektiboa definitzeko, kontuan hartu beharra dago ezen, batzuetan, beldurraraztea ez zela zuzenean etortzen ETAre komandoetatik, baizik eta kolektibo horretako pertsonen inguruneko beste eragile batzuek, zeinek beldur iraunkorren estrategia bera aplikatzen baitzuten. Denboran zehar mantendutako indarkeria bat, zeinak bilatzen baitzuten biktimengan mehatxu jarraitu eta zehaztugabea egitea, "jazarpen indarkeria"² deitu izan dena. Horixe da azterlan honetan erabili dugun terminoa.

Hainbat egilek agertu izan duten bezala eta txosten honetako testigantzetan islatzen den moduan, ETAk jazarpen indarkeria erabili zuen estrategia terrorista gisa, bere ideien aurkako kolektibo sozialaren kontra xaxate-, mehatxate eta beldurrarazte-teknikak erabiliz. "*Bere helburu ziren guztiak erailtzeko ezintasunaren aurrean, ETAk indarkeria-mota hori jarri zuen abian; haren funtsa zen helburua heriotzarekin mehatxatzea, lehentasunezko helburutzat hartuz eta haren bizitza larritasun etengabe bat bilakatuz, nahiz eta materialki ezin zituen mehatxu guztiak bete*"³. Bereziki gure azterlanak hartzen duen aldian, ETA pasa zen indarkeria gobernuarekiko elkarrizketa bat gertatzea nahitaez ekarriko zuen ezegonkortze politikorako tresna baten gisara erabiltzetik haren aurkako kidego sozialaren aurkako jazarpen-mekanismo gisa ere erabiltzera. Kale Borrokako ekintzak ere beldurra hedatzeko jazarpen-estrategia horren barru-barruan daude, eta haren beldurtze-eraginak komando terroristek beraien eragiten zituztenen antzekoak eta osagarriak izan ziren.

Ikerketa honen helburuak lantzeko, hurbiltze kuantitatibo eta kualitatibo bat egin dugu mehatxatutako kolektibo horren errealitatera. Aztertu ditugun datu kuantitatiboen jatorria *IETAk mehatxatutako pertsonak jasan duten bidegabekeriari buruzko txostena (1990-2011)* izenekoan dago; hartan, izan ere, datuak eskaintzen ziren azterlanak hartzen duen aldian eskolta-operatiboez babesturik egon ziren hautetsien kolektiboari buruz. Halaber, berrikuspen hemerografiko eta bibliografiko bat egin zen ETAk 1991tik 2011ra egindako ekintzei buruz, bai eta ikerketak hartzen duen aldiko udal legegintzaldietako hauteskunde-emaitzen analisi bat ere. Hartara, indar politiko bakoitzaren udal ordezkarien kopuruari buruzko panoramika bat eskaintzen da, mehatxua eta beldurraraztea intentsitate handiagoz pairatu zuten zinegotzien dimentsio numerikoari antzemateko.

Azterlanaren mamia osagai kualitatiboa izan da, kolektibo hori osatu duten pertsonen berezitasun eta bizipenetatik abiatuta. Banakako elkarrizketa sasi-egituratuak egin dira, eta hain bidez aukera izan dugu

2 Gesto por la Paz. *Violencia de persecución*. *Bake Hitzak*, 40. zk., 2000ko iraila, 13-19 or.

3 Pérez, Kepa. *La violencia de persecución en Euskadi*, Bilbo: ADDH eta Eusko Jaurlaritza, 2005, 8. or.

elkarrizketa zuzentzeko biktimen diskurtsoa mugatu gabe; izan ere, beren bizipenen berezitasunak aletu ahal izan zituzten. Guztira, 14 pertsona elkarrizketatu ziren; horien artean 5 emakume daude. Elkarrizketatu beharreko pertsonen hautaketa egiteko, harremanetan jarri ginen ETak mehatxatu pertsonen buruzko aurreko txostenean parte hartu eta egungo enkarguan ezarritako irizpideak betetzen zituzten pertsonekin. “Elur-bolaren” teknika erabiliz, kontaktu berriak eman zizkiguten elkarrizketak egin eta errealtate horretan sakontzeko. Testigantzak hainbat alderdi politikotan udal ordezkarietako karguak bete izan zituzten pertsonenak dira, baina gehien-gehienak Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerrakoak (PSE-EE) eta Alderdi Popularrekoak (PP) izan dira, bi alderdi horiek izan baitira jazarpen eta beldurrazte terrorista intentsitate handienaz jaso dutenak. Egindako analisian Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen-esparruak zedarrizten du; hartara, bada, txosten honetan jasotako informazio eta egindako analisiaren gehiena lurralde-esparru honetako zinegotziek bizitako egoerari dagokio.

Elkarrizketak gida batean oinarrituta egin ziren, giza eskubideen afekzioarekin lotutako elementuak aintzat hartuz, eta bai eginkizun publikoan, bai eguneroko bizitzan pairatutako indarkeriari, jazarpenari eta pairatutako zuzengabekeriari buruzko bizipenak jaso dira. Elkarrizketek galdetegiaren egiturari jarraitu zioten, honako lau atal nagusi hauetatik abiatuta:

- a) Beren zinegotzi lana zein testuinguru politiko eta sozialetan egin zuten, beren eskubideak nola urratu zizkieten eta nolako mehatxuak pairatu zituzten.
- b) Indarkeriak banakako alderdietan, familia-alderdietan eta alderdi sozialetan izan zituen ondorioak, bai eta bizitza politikoan izandakoak ere.
- c) Egoerari nola egin zioten aurre. Hau da, zer egin zuten egoera hori eramateko.
- d) Elkarrizketatutako pertsona bakoitzarentzat egiarako, justiziarako eta erreparaziorako eskubideak zer esan nahi duen eta zein neurri ezarri behar diren egoera hori berriz ez gertatzeko.

Elkarrizketen hitzez hitzeko transkripzioak aukera eman zuen elkarrizketatutako pertsonen helarazi nahi zuten mezuari eusteko, beren esperientziari buruzko testigantza bitartez, eta horietako bakoitzaren osotasunari buruzko analisian errazteko.

Ikerketa-taldeak agerian utzi nahi du biktimen eskuzabaltasuna, beren bizitzaren istorioek ikerketa honetan jasota utzi nahi izateagatik, batzuetan oroitzapen barru-barruko eta larridura handikoetan sakondu baitute. Bizipen horiek euskal herritarrekin partekatu nahi izan dituzte, guztiok errespetu demokratikoaren kulturaren eta giza eskubideen defentsan sakondu dezagun, bestearen sufrimenduarekiko enpatiaren balioetik abiatuta, eta horrek argi eta garbi azaltzen du haien konpromiso soziala eta erreferente etikoak direla. Biktimen hitzei esker ezagutu dugu eskolta etengabe eduki beharrak beraien familia eta bizitzetan izan zuen eragina. Elkarrizketetan agerian geratzen dira pertsona mehatxatuek jasandako sufrimenduaren alderdi batzuk, fenomeno honen inguruko hausnarketa publikoan aintzat hartu beharko lirakeenak, hain zuzen ere, esate baterako, denbora luzean hertsapena jasatearen kostu emozionala, larritasun horrek pertsonen osasunean izan dituen eraginak, edo lanaldi osoan eskolta bat eduki beharzagatik pertsona horiek laneratzeko edo lan-merkatuan jarraitzeko izan dituzten zailtasunak. Jazarpen kronikoak batzuetan familia-egonkortasunari ere eragiten zion, eta sarritan adiskidetasun- eta auzo-harremanak ere aldarazi zituen. Bildutako lekukotzek adierazi dutenez, arlo bat (pertsonala, familiakoa eta lanekoa) ere ez zen mehatxu terroristaren errealtate latzetik kanpo geratu.

Aurkezten ari garen txostenaren azken urrats gisa, lortutako informazioa giza eskubideek ezartzen duten parametro etiko-juridikoaren arabera ebaluatuko da. Indarreko lege-testuetan (Konstituzioa eta erreferentziako nazioarteko hitzarmenak barne) jaso eta ETaren hertsapen eta jazarpenaren bidez urratu ziren printzipio eta eskubideak aztertuko dira.

2. Testuinguru sozial eta politikoa. Azterlanaren esparru kronologikoaren aipamen laburra

Txosten honek 1991tik 2011ra bitarteko urteak hartzen ditu, eta horrekin 1978an Konstituzioa onetsi zenetik eta Gernikako Autonomia Estatutua onetsi zenetik izan diren laugarren legegintzalditik zortzigarren legegintzaldira bitartekoak jaso ditugu. Azterlan honen ezaugarriak dituen lan bat egiteko beharrezkoa da esparru kronologikoa zehaztea, ikertzen ditugun gertakariak sarritan ez baitute hasierako data jakinik. Nola nahi ere, 90eko hamarkadan hasten den denbora-tarteari buruzko datu gehiago daude eskura, aurreko urteetakoak baino. Izan ere, aurrerago azalduko den bezala, gizarte-eremu desberdinetara hedatu zen ETAREN atentatuen estrategia (sufirimenduaren sozializazioa izenez ezaguna) eta kale borrokaren aldeko apustua direla eta, terrorismoaren mehatxuaren aurkako babes-mekanismoak areagotu eta gehiago hedatu behar izan ziren.

Aipatutako urteetan gertaera garrantzitsuak izan ziren. Aldian aldiko dinamikak kontuan hartzea oso erabilgarria da datuek erakusten dituzten joerak azaltzeko. Helburu horrekin, analisiaren denbora-tartea lau etapatan banatu da, bakoitzaren ezaugarri berezien arabera.

1991-1995. Aurreko hamarkadan Aljerren izan ziren Espainiako Gobernuaren eta ETAREN arteko elkarriketek porrot egin zutela eta, 90eko hamarkadaren hasieran erakunde terroristak areagotu egin zuen estatuaren aurkako erasoak. Bazirudien terrorismoaren jardueraren helburua 1992ko nazioarteko ekitaldi garrantzitsuak zapuztea zela. (Adibidez, 1991. urtea bereziki gogorra izan zen: 46 hildako eta 149 indarkeria-ekintza, 1990ean baino % 19,25 gehiago). 1992ko martxoaren 29an, Bidarten, ETAK kolpe gogorra jaso zuen bere aurkako operazioan goi-karguak atxilotu zituztenean. Etapa horretan, ETAK Leitzarango Autobia (Nafarroa-Gipuzkoa) eraikitze proiektuaren aurkako jarrera erakusten jarraitu zuen. Indarkeriazko ekintzak izan ziren, baita heriotza-atentatuak ere obra publiko horrekin lotutako pertsonen aurka. 1991ko maiatzaren 26an, udal hauteskundeak izan ziren, eta 1994ko urriaren 23an, berriz, hauteskunde autonomikoak. ETAREN ahultasuna bat dator HBn gertatzen ari ziren barne eztabaidekin; Ajuria Eneako Itunak eragin zuen isolamendua gainditzen lagunduko zuen estrategia bat argitu nahi zuten eztabaida horietan. Garrantzi handiko zenbait agirik aldi horren amaiera ezarri zuten. 1995ean Herri Batasunak (HB) Oldartzen txostena onetsi zuen eta bertan honako hau adierazten zen: “*esku hartzeko ildoak egokitu beharra daukagu*”. Jotzen da garai hartan hasi zirela jazarpen indarkeriaren estrategiak oro har gauzatzen, “sufirimenduaren sozializazioa” izenez ezagutu zen estrategia baten barruan. Orientabide horren lehenengo hildakoetako bat Gregorio Ordóñez izan zen, Alderdi Popularreko Donostiako zinegotzia, zeina 1995eko urtarrilaren 23an erail baitzuten.

1995-1999. 1995eko maiatzaren 28an, udal hauteskundeak izan ziren, % 64,2ko parte-hartzearekin. Ardanza lehendakariak Eusko Legebiltzarrean aitortu zuen kale borrokak gainditu eginga zuela prebentziarako eta defentsarako mekanismoen bidez erantzun bat emateko ahalmena (1995. urtean, 365 egunetatik 136 egunetan izan ziren kale borrokako ekintzak⁴). Udal legegintzaldi horretan, heriotza-atentatuak izan ziren zenbait zinegotziren aurka (ikus 4. taula), eta kolektibo hori argiro seinalaturik geratu zen, ETAREN eta haren ingurukoek ekintzak gehien estigmatizatu eta baztertu zituenetako baten gisara. Miguel Ángel Blancoren bahiketa eta hilketaren ondoren, Gobernuan zegoen Alderdi Popularreko zinegotziren aurkako atentatuak burutu ziren Euskadiko herrietan. Hautetsi horietako batzuek uko egin zioten eskolta izateari, eguneroko bizimoduarekin bateraezina zela uste baitzuten. ETAREN ekintza terroristak beste kolektibo batzuk ere seinalatu zituen; tartean, enpresaburuak. Julio Iglesias Zamora eta José María Aldaia enpresariaren bahiketak nabarmendu behar dira. ADEGLIK parte-hartze aktiboa izan zuen horren salaketan, eta, horregatik, mehatxu argiak jaso zituen. Ukitutako beste kolektibo bat espetxeetako funtzionarioena izan zen. Izan ere, kolektibo horretako profesionalak heriotza-atentatuak pairatu zituzten. Bestetik, ETAK José Antonio Ortega Lararen bahiketa luzea egin zuen, 532 egun iraun zuena (1996ko urtarrilaren 17tik 1997ko uztailaren 1era). 1998ko irailaren 14an, ETAK alde bakarreko, erabateko eta mugarik gabeko su-etena iragarri zuen.

1999-2003. 1999ko ekainaren 13ko udal hauteskundeak ETAREN erailketarik gabe demokrazian gertatutako lehenengoak izan ziren. Su-etena 438 egun iraun zuen (1999ko abenduaren 3ra arte), eta su-etena inda-

4 Azurmendi, José Félix; *ETA de principio a fin. Crónica documentada de un relato*. Donostia: Txartalo, 2014, 246. or.

rrean egon zen bitartean elkarrizketak egon ziren Espainiako Gobernuko ordezkarien eta ETAREN artean. Su-etena amaitu zenean, PSEko eta PPko buruzagi eta hautetsien aurkako atentatu gehiago egon ziren. Bestalde, hildakoak egon ziren ETAK mehatxatutako jarduera-arloetako pertsona adierazgarrien aurkako atentatuetan (prentsan, José Luis López de Lacalle, Santiago Oleaga; enpresaburuak: José Luis Korta; Botere Judizialean, José María Lidón; Ertzaintzan, Ana Isabel Arostegui eta Javier Mijangos). 2000ko abenduaren 8an, Askatasunaren aldeko eta Terrorismoaren aurkako Ituna izenpetu zen, eta horren ondoren, Alderdi Politikoen 6/2002 Lege Organikoa onartu zen. 2003ko martxoan, Auzitegi Gorenak EH-HB-Batasuna formazioak legez kanpo utzi zituen.

2003-2007. Udal hauteskundeak 2003ko maiatzaren 25erako deitu ziren. Autodeterminaziorako Bilguneak (AuB) aurkeztutako 249 hautagai-zerrendetatik 241 baliogabetu zituen Auzitegi Gorenak. Hauteskundeetan parte-hartze handia izan zen, % 69,90ekoa; lau urte lehenago, berriz, 64,81ekoa izana zen parte-hartzea. Boto baliogabeen kopuru handi bat izan zen: 126.751 boto, hain zuzen, botoa ematera joandako hautesleen % 10,03; 1999an, berriz, 10.018 boto baliogabe izanak ziren, erregistratutako boto guztien % 0,85 baizik ez. Aurreko etapan bezala, udal batzuetan zailtasunak izan ziren hauteskunde-zerrendak osatzeko. Hauteskunde-ondoren ondoren, mehatxuak eta gorabeherak izan ziren zenbait udaletan, eta jabetza-hartzeak ere oztopatu ziren, bai eta udal gobernuen osaketa bera ere. 2003ko maiatzean, Estatu Batuek Batasuna jaso zuten erakunde terroristen artean, eta ekainean, gauza bera egin zuen Europar Batasunak. ETAREN aurkako beste erasoaldi gogor bat Mikel Antza eta Soledad Iparragirrenen atxiloteta izan zen. Diputatuen Kongresuak Gobernuaren eta ETAREN arteko elkarrizketak baldintza batzuekin proposatzeko mozio bat onartu zuen. 2005eko ekainean, ETAK hautetsi publikoetarako su-etena iragarri zuen. Euskadin 956 pertsonak zeukaten mota bateko edo besteko eskolta. 2006. urtean Segurtasun Sailak 62 milioi euroko aurrekontu-partida zuen gai horretarako⁵. Espainiako Gobernuko ordezkarien eta ETAREN arteko kontaktu gehiago egon ziren. 2006ko martxoaren 22an ETAK su-eten mugagabea iragarri zuen, eta abenduaren 30ean Barajas aireportuko T4 terminalean burutu zuen atentatu mortalak amaiera eman zion su-etenari.

2007-2011. 2007ko maiatzaren 27ko udal hauteskundeetan, Euskadin, erroldatuen % 60,47k hartu zuen parte, eta boto baliogabeak % 8,31 izan ziren. 2007ko ekainaren 6an ETAK su-eten mugagabearen amaiera iragarri zuen. Pertsona ugarik eskolta eduki behar zutela ikusi eta berriro abiarazi zen eskolta sistema. ETA AHTAREN proiektuaren aurka azaldu zen eta atentatuak burutu zituen proiektuarekin zerikusia zuten pertsona ezagunen eta enpresa kontratisten aurka. 2010eko martxoaren 29an Brian Currin-en “Bruselako Adierazpena”-ren aurkezpen publikoa egin zen. 2011ko urtarrilaren 10ean ETAK su-eten iraunkorra, orokorra eta egiaztagarria iragarri zuen, eta urte horretako urriaren 20an indarkeria terroristaren amaiera iragarri zuen.

3. Datuen aurkezpena

3.1. Datu kuantitatiboen azterketa

Ondoren erakusten ditugun bi taula eta irudietan, 1991-2011 aldian kargudun publikoak zirelako edo alderdi politikoetako kargu organikoak betetzen zituztelako eskolta eramaten zutenen kopurua jaso dugu *ETAK mehatxatutako pertsonen jasan duten bidegabekeriari buruzko txostena (1990-2011)* txostenetik atera ditugu datu horiek. Hartan, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren kargura babestu ziren pertsonen buruz emandako datu kuantitatiboak aztertu ziren. Taula hauetan Estatuko beste segurtasun-indar eta -kidego batzuek edo operatibo pribatuek babestutako datuak falta bada ere, aipagarriak iruditzen zaizkigu, aldi bakoitzean dauden joerak islatzen dituztelako.

Zinegotzi-erantzukizunak bete zituzten pertsonen buruzko datuak kargu publikoak betetzen zituzten pertsonen multzotik xehakaturik ez bazeuden ere, eskolta zeramaten pertsona gehienak, datu horien arabera, zinegotziak ziren. 1. grafikoan ikus daiteke nola eskolta-operatibo batek babestutako pertsonetatik gehienek urtebetetik 13 urtera bitarteko aldi batez eskolta eramane behar izan zuten. Pertsona horietatik gehienek, 2. grafikoan ikus daitekeen bezala, 1999an hasi behar izan zuten operatibo horiekin; horixe da inflexio-puntua, zinegotzien kolektiboaren aurkako jazarpeneko, beldurrarazteko eta are erailtzeko ere estrategia gogortu

5 Honako honetan ageri den datua: Pérez, Kepa; *La violencia de persecución en Euskadi*, Bilbo: ADDH eta Eusko Jaurlaritza, 2005, 13. or.

zen unea, zeina, aldi berean, bat baitator 1998ko su-etenaren amaierarekin, geroztik azterlan honetarako bildutako datu kualitatiboen artean azalduko ditugun testigantzetan ikusiko den bezala.

1. taula


Zenbat kargudun publiko/alderdi politikoetako kide mehatxatu eta eskoltadun, eta eskolta zenbat urtez eraman behar izan duten.

Urte kopurua		0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22
Alderdi politikoa/ kargudun publikoak	GIZONAK	1	109	77	76	36	71	22	22	16	53	21	46	33	19	2	0	1	1	1	0	1	2	2
	EMAKUMEAK	0	45	31	35	22	62	5	9	10	21	6	28	18	5	0	0	0	0	0	0	0	0	0

Iturria: Geuk egina, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak emandako datuekin.

1. grafikoa

Zenbat kargudun publiko/alderdi politikoetako kide mehatxatu eta eskoltadun, eta eskolta zenbat urtez eraman behar izan duten.



Iturria: Geuk egina, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak emandako datuekin.

2. taula


Zenbat kargudun publiko/alderdi politikoetako kide mehatxatu eta eskoltadun, urteka.

Eskolta zeukaten pertsonen kopurua (urteka eta arloka)	1990	1991	1992	1993	1994	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011				
Alderdi politikoa/kargudun publikoak	18	39	22	20	19	25	15	14	14	113	229	303	327	413	383	366	318	447	432	509	509	511	432	509	509	511

Iturria: Geuk egina, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak emandako datuekin.

2. grafikoa

Zenbat kargudun publiko/alderdi politikoetako kide mehatxatu eta eskoltadun, urteka.



Iturria: Geuk egina, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak emandako datuekin.

Hurrengo taulan, ikus daiteke nolako bilakaera egon den udal ordezkarien kopuruan azterlanak hartu duen denbora-sekuentzian zehar, bai eta aldi horretan zehar hauteskundeetara aurkeztu ziren Euskal Autonomia Erkidegoko alderdi politikoaren eta koalizioaren artean nola dauden banatuta. Hainbat udalerritan zinegotzi-e-ginkizunak bete zituzten pertsonen ikuspegi orokor bat ematen digute zenbateko horiek.

3. taula

EAEko udal hauteskundearen emaitzak (1991-2011)

Alderdi politikoa	1991 % 59,2	1995 % 64,2	1999 % 65	2003 % 70,3	2007 % 60,3	2011 % 63,61
ARALAR				30	33	34
BILDU						954
HB/EH	558	498	679		337	
EA	315	311	141	103	216	4
EB/ARALAR					93	
EB-IU	6	69	26	77	11	11
EE	104					
PNV	979	996	616	629	1029	872
PNV/EA			378	870		
PP	68	166	223	232	185	164
PSE-EE	288	240	243	296	332	235
UA	39	37	9			
BESTEAK / INDEPENDENTEAK	182	239	225	329	351	347
GUZTIRA	2.539	2.556	2.540	2.566	2.587	2.621

Iturria: Eusko Legebiltzarra. <http://www.historiaelectoral.com/aeuzkadi.html>

Hurrengo taulan, aldi honetan jasotako aldian ETAk eraildako zinegotzien (edo zinegotzi ohien) izenak jaso ditugu.

4. taula

ETAk zinegotzien aurka egindako heriotza-atentatuen kronologia⁶ (1991-2011)

Izena	Atentatuaren data	Tokia	Atentatu-mota	Oharrak
Gregorio Ordóñez Fenollar	1995.01.23	Donostia	Taberna batean jaten zegoela tirokatu zuten.	Donostiako Udaleko alkateordea. Zinegotzia 1983tik. Alderdi Popularra.
Miguel Ángel Blanco Garrido	1997.07.12	Lasarte-Oria	Bahitu eta bi egunen buruan erail zuten.	Ermuko Udaleko zinegotzia 1995etik. Alderdi Popularra.
José Luis Caso Cortines	1997.12.11	Irun	Taberna batean zegoela tirokatu zuten.	Errenteriako Udaleko zinegotzia 1995etik. Alderdi Popularra.
José Ignacio Iruetagoiena Larrañaga	1998.01.09	Zarautz	Bonba-autoa.	Zarauzko Udaleko zinegotzia 1995etik. Alderdi Popularra.
Alberto Jiménez Becerril	1998.01.30	Sevilla	Bere emazte Ascensión García Ortizekin batera erail zuten kaletik zebilela.	Sevillako Udaleko bigarren alkateordea. Alderdi Popularra.
Tomás Caballero Pastor	1998.05.06	Iruña	Kaletik zebilela tirokatu zuten.	Iruñeko Udaleko zinegotzia 1995etik. Iruñeko alkate ohia 1976-77 urteetan. Unión del Pueblo Navarro.
Manuel Zamarreño Villoria	1998.06.25	Errenteria	Motor batean ezkutatutako lehergaia.	Errenteriako Udaleko zinegotzia. Karguan eraildako José Luis Caso Cortines ordeztzen zuen. Alderdi Popularra.
Jesús María Pedrosa Urquiza	2000.06.04	Durango	Kaletik zebilela tirokatu zuten.	Durangoko Udaleko zinegotzia 1987tik. Alderdi Popularra.
José María Martín Carpena	2000.07.15	Malaga	Garaje batean tirokatu zuten bere autoan sartzera zihoala.	Malagako Udaleko zinegotzia 1997tik. Alderdi Popularra.
Manuel Indiano Azaustre	2000.08.29	Zumarraga	Bere dendan tirokatu zuten.	Zumarragako Udaleko zinegotzia 1999tik. Alderdi Popularra.

6 Ondoren, taula batean, ETAk 1991-2011 aldian, azterlan honek hartzen duen aldi horretan, eraildako zinegotzien eta zinegotzi ohien izenak ematen ditugu. Ez dira jaso Fernando Múgica Herzog, Fernando Buesa Blanco eta Juan María Jauregui Apalateguiaren izenak, zeren eta ez baitziren zinegotziak erail zituzten unean, eta, gainera, ondoren beste kargu batzuk bete baitzituzten, publikoki gehiago nabarmentzea ekarri zietenak. Hala eta guztiz ere, komenigarria da esatea Fernando Múgica Herzog gizarte zerbitzuetako zinegotzia izan zela Donostiako Udaleko udal batzorde kudeatzailean 1977an. Bere aldetik, Fernando Buesa Blanco Gasteizko Udaleko zinegotzia izan zen 1983tik 1987ra. Juan María Jauregui Apalategui Tolosako Udaleko zinegotzia izan zen 1991tik 1994ra. Guztiak ere PSE-EEren siglekin.

José Luis Ruiz Casado	2000.09.21	Sant Adriá de Besós	Lanera joateko etxetik ateratzen ari zela tirokatu zuten.	Sant Adriá de Besoseko Udaleko zinegotzia 1995etik. Alderdi Popularra.
Francisco Cano Consuegra	2000.12.14	Tarrasa	Bere autoan itsatsitako lapa-lehergailua.	Viladecaballseko Udaleko zinegotzia 1995etik. Alderdi Popularra.
Froilán Elespe Inciarte	2001.03.20	Lasarte-Oria	Taberna batean zegoela tirokatu zuten.	Lasarte Udaleko alkateordea. Zinegotzia 1987tik. Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra
José Javier Múgica Astibia	2001.07.14	Leitza	Bere furgonetan itsatsitako lapa-lehergailua.	Leitzako Udaleko zinegotzia 1999tik. Unión del Pueblo Navarro.
Juan Priede Pérez	2002.03.21	Orio	Taberna batean zegoela tirokatu zuten.	Orioko Udaleko zinegotzia 1999tik. Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra
Isaías Carrasco	2008.03.07	Arrasate	Lanera joateko etxetik ateratzen ari zela tirokatu zuten	Arrasateko Udaleko zinegotzi ohia 2003tik 2007ra. Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra

Iturria: Geuk prestatua, berrikuspen hemerografikoan oinarrituta.

Gure azterlanak hartzen duen aldia 1991tik 2011ra bitartekoa bada ere, komenigarria litzateke aipatzea ezen hori baino lehen ETAk zinegotzi eta zinegotzi ohien aurka atentatu zuela Euskadin. Hurrengo taulan biltzen ditugu erail zituzten unean zinegotzi kargua betetzen zuten edo aurreko urteetan kargu hori beteaz zuten pertsonen datuak.

5. taula

ETAk, 1991 baino lehen, zinegotzien aurka egindako heriotza-atentatuen kronologia.

Izena	Atentatuaren data	Tokia	Atentatu-mota	Oharrak
Calos Arguimberri Elorriaga	1975.07.07	Deba	Bidaiarien autobusa gidatzen ari zela tirokatua.	Debako zinegotzia izandakoa.
Antonio Echeverría Albisu	1975.11.24	Oiartzun	Bere etxeko atea irekitzerakoan tirokatua.	Oiartzungo alkatea 1974tik.
Víctor Legorburu Ibarreche	1976.02.09	Galdakao	Bere etxeko garajera zihoala tirokatua.	Galdakao alkatea 1966tik.
Julio Martínez Ezquerro	1977.12.16	Irun	Bere etxeko garajera zihoala tirokatua.	Irungo Udaleko zinegotzia.

Esteban Beldarrain Madariaga	1978.03.16	Galdakao	Bilbo-Behobia autobideko ordainleku batean kobratzaile postuan lan egiten zuenean tirokatua.	Arteako Udaleko alkateorde ohia.
Jesús Ulyar Liciaga	1979.01.27	Etxarri-Aranatz	Bere etxera sartzen ari zela tirokatua.	Etxarri Aranazko alkate ohia
José Antonio Vivó Undabarrena	1979.02.06	Olaberria	Bere etxean tirokatua.	Olaberriko alkatea. Guipúzcoa Unida
José María Uriarte Alza	1979.10.05	Lemoa	Kaletik zebilela metrailatua.	Bediako alkate ohia
Ignacio Arocena Arbelaiz	1980.02.15	Oiartzun	Bere taxia gidatzen ari zela tirokatua.	Oiartzungo zinegotzia izandakoa.
Ramón Baglieto Martínez	1980.05.12	Azkarate gaina	Bere taxia gidatzen ari zela metrailatua.	Azkoitiako zinegotzia izandakoa. Unión de Centro Democrático.
Jaime Arrese Arizmendiarieta	1980.10.23	Elgoibar	Taberna batean zegoela tirokatua.	1974tik 1977ra Elgoibarko alkatea izandakoa. Unión de Centro Democrático.
José Tomás Larrañaga Arana	1984.12.31	Azkoitia	Taberna batean zegoela tirokatua.	Azkoitiako zinegotzia izandakoa. Unión de Centro Democrático.

Iturria: Geuk prestatua, berrikuspen hemerografikoan oinarrituta.

3.2. Datu kualitatiboen azterketa

Sarreran aipatu den bezala, txosten honek metodologia kualitatiboan du bere ikerketa-tresna nagusia. Ondoren, 14 pertsonari egindako elkarrizketak aztertuko ditugu. Horietatik gehienak zinegotzi kargua bete zuten Euskadiko udalerrietan 1991tik 2015era. Halaber, ikerketa honetara kargudun publiko horien familien ikuspuntua ekarri nahi izan da, agerian uzteko jazarpenak nolako eragina izan zuen mehatxatutako kargudun publikoekin bizi ziren pertsonengan. Horiei guztiei sasi-egituratutako galderen galdetegi bat planteatu zaie, zeinean elkarrizketarako gai bat finkatu ondoren, askatasuna ematen baitzitzaien hari buruz luze hitz egiteko, nahi zuten zabaltasunarekin. Elkarrizketak planteatzeko modu horrek aukera eman digu elkarrizketatutako pertsonen bizitzaren istorioetan azterka jarduteko, horren ondotik analizatze aldera bai mugarri biografiko nagusiak, bai beren bizipenari buruz gurekin partekatu dituzten arrazoibide eta pertzepzioak. Horrekin guztiarekin, esperientzien mosaiko bat sortzen dugu, haien testigantzak gai-epigrafe desberdinetan aletzeko aukera ematen diguna. Ikuspegi horren bidez, bizipenen subjektibotasuna esploratu nahi da, bai eta nolakoa izan den esperimendatu duten jazarpena ere, analisisian datu kuantitatibo hutsek erakusten ez duten sakontasunarekin.

Testigantzek, halaber, irakurtzen dugunoi atea irekitzen digute enpatiaren balioa esperimendatzeko, besteen sufrimendua abiapuntu hartuta, eta askotan kanpoko begiraleentzat oharkabea pasa daitezkeen xehetasun biografiko eta barru-barruko esperientziak ezagutzeko. Agerikoa da elkarrizketatutako pertsonak bereziki eskuzabalak izan zirela haientzat hain garrantzitsuak ziren pentsamendu eta gertakariak partekatzean, bai eta irakurleei jasandako jazarpenaren sakontasuna eta horrek jazarriari zein haren hurbileneko inguruneari eragin zien sufrimendua erakustean ere. Ezinbestekoa iruditzen zaigu azterlan honetan lagundu duten pertsonak egin duten ahalegin desinteresatua aitortu eta eskertzea, beren sentimendu barru-barrukoak zabalkunde sozialaren zerbitzuan jarri baitute, herritarrek haien bizi-testigantzarekin ikas dezaten.

Elkarrizketatutako batzuek eskatu dute beren identitatea ezagutzera ez emateko. Konfidentzialtasuneko konpromiso hori betetzeko eta elkarrizketatutako pertsonen intimitatea babesteko, haien izenak kendu di-

tugu eta elkarrizketa bakoitza kode soil batez identifikatu dugu. Elkarrizketa bakoitzetik hautatutako zatiak hitzez hitz emango baditugu ere, batzuetan testigantza bat zeozer aldatu behar izan da, aipatutako konfidentzialtasuna gordetze aldera.

Jarraian erakusten den taulan zerrendatu eta identifikatzen dira ikerketa honetan beren testigantza emanez lagundu zuten pertsonak.

6. taula

Elkarrizketatutako pertsonen profilak⁷.

Elkarrizketa	Sexua	Elkarrizketatutako pertsonaren profila	Identifikatzailea
1. elkarrizketa	Gizona	Zinegotzia	E1
2. elkarrizketa	Emakumea	Zinegotzia	E2
3. elkarrizketa	Gizona	Zinegotzia	E3
4. elkarrizketa	Emakumea	Zinegotziaren bikotekidea	E4
5. elkarrizketa	Gizona	Zinegotzia	E5
6. elkarrizketa	Emakumea	Zinegotzia	E6
7. elkarrizketa	Gizona	Zinegotzia	E7
8. elkarrizketa	Emakumea	Zinegotziaren bikotekidea	E8
9. elkarrizketa	Emakumea	Zinegotzia	E9
10. elkarrizketa	Gizona	Zinegotzia	E10
11. elkarrizketa	Gizona	Zinegotzia	E11
12. elkarrizketa	Gizona	Zinegotzia	E12
13. elkarrizketa	Gizona	Zinegotzia	E13
14. elkarrizketa	Gizona	Zinegotzia	E14

Ondoren, elkarrizketatutako pertsonak adierazitako mehatxu, jazarpen eta bizipen aipagarrienak aletuko ditugu. Testigantza horiek modu antolatuan aurkeztu eta aztertzeke, jasotako informazioa gaien arabera zatitu ditugu.

3.2.1. Udalerriarekiko eta bizilagunekiko konpromisoa. Militantzia politikoko modu bitxi bat

Udaletan herritarren ordezkari politikoa izatea, maiz, zerbitzu publikoko bokazio bat da, bizilagunekiko eta bizilekuarekiko hurbiltasuneko gakoan formulatua, zeina, funtsean, Administrazio Publikoaren edo alderdi

⁷ Elkarrizketatutako pertsonetatik, 6 Alderdi Popularra ordezkatu zuten pertsonak eta beren senideak dira; 5 Euskadiko Alderdi Sozialistakoak eta beren senideak, eta 3 Eusko Alkartasuna eta Eusko Alderdi Jeltzalea (hauteskundeetara zein bere aldetik edo koalizioan aurkeztu ziren) alderdietako ordezkariak dira.

politikoetako ordezkariak organikoaren beraren beste esparru batzuetan hezuramaitzen baita. Hau da, udal hauteskundeetara aurkeztea erabakitzen duena, normalean, kontziente da bere ahalegin onenak bere herriaren eta segur aski aspalditik ezagutzen dituen bertako bizilagunen ongizatearen alde egingo dituela. Udal administrazioa herritarrengandik hurbilen dagoen kudeaketa-maila da, eta Administrazioaren eta administratuaren arteko harremana etengabea da. Hurbiltasun hori eta bizilagunak baldintzatzen dituzten defizitei konponbidea emateko bokazioa dira gure informatzaileen artean bildu ditugun testigantzetan agertzen direnak.

“Udal batean zinegotzia herriko bizilagunarengandik hurbilen dagoen pertsona da, eta zinegotzia izatea lana da. Ez da diputatua izatea, ez eta Legebiltzarrean egotea ere; herri batean, ez duzu une bakar bat ere libre, bizitzaren inongo unetan ere; alabarekin egonda ere, bizilagun bat hurbilduko zaizu kalean arazo bat duelako, argiztapenarekin arazo bat duelako, edo farola batekin, edo ez dakit zerekin, eta hori onartu egin behar duzu. Urteak aurrera, nekagarri egiten den lan bat da, are gehiago hau guztia gehitzen badiozu...” (E14)

“Niri politika interesatu egiten zait, eta asko gainera, zeren eta nire ustez politika baita, batez ere demokrazia baten barruan, ahalbidetzen duena, aukera ematen duena gizartearen egituratzeko, modu abstraktu samar batean esanda (...) Udal batean izan nuen lehenengo esperientzia 78an izan zen. Udal frankistak desegin zirenean, udal askotan batzorde kudeatzaile batzuk sortu ziren. Deitu zidaten eta urtebetez kudeatzaile kargua onartzeko justifikazio bat aurkitu nuen; eta zera zen: aurreko udalbatza frankistak dirulaguntza garrantzitsu bat lortua zen, gogoan dudanez milioi bat pezeta baino gehiagokoa, 78an, herrian kiroldegi bat egiteko. Eta dirulaguntza horrekin jarraitutasunik ez bazegoen...; orduan, kudeatzaile kargua onartu nuen kudeaketa horretaz arduratzeko, Madriletik zetorren dirulaguntza hori gal ez zedin. Kiroletako Ordezkaritza Nazionalarena zen, edo horrelako zerbaitekin. Dirulaguntza horri eusteko, udal kudeatzailearen kargu hura onartu nuen.” (E7)

“Oso gazte sartu nintzen udalean. 18 urte nituenetik boluntario-lanak egiten nituen. Nire herrian batorlatzen ziren eta aitortzen zuten mugimendu sozialetatik nentorren. Gazte konprometituen artean bizi nintzen, halakoak baitziren nire inguruko gazteak. Une batera iritsita, ezagutu egiten zaituzte. Zinegotzi sartu nintzenean, gazteena nintzen. Gaztetasunarekin, konpromisoarekin amorratu egiten dira. Batzuei beste edozein sartu izan balitz baino gutxiago gustatu zitzaizkien ni sartzea.” (E11)

Eztabaida publikorako eta kudeaketa publikorako bokazioarekin berarekin batera, elkarrizketatutako pertsona batzuen bizipenean presente egon dira beste ordezkari politiko batzuek pairatutako jazarpen-egoerak piztutako kontzientzia, edo haien erailketak sortutako astinaldia, Gregorio Ordóñez zinegotziaren kasuan gertatu zen bezala, ondorengo testigantzetan agertzen den bezala.

“Gregorio Ordóñez hil zutenean hasi nintzen ni; gertaera horrek zirrara handia eragin zidan. Orduan, alderdian ni baino gehiago sartuta zegoen lagun batek esan zidan: ‘Zergatik ez zara aurkezten zinegotzia izateko?’ Eta nik esan nion: ‘Zinegotzia izateari buruz ezer ez dakit nik’. ‘Prestakuntza handia duzula ematen du, kultura duzu...’ esan zidan. ‘Oso ongi egingo duzu, ez da politikaren goi-maila bat, udalen maila da, onena, zeren eta herriarengandik hurbilen dagoena baita’. Nik han ia-ia ez dut politikarik egin, ondo moldatzen nintzen guztiekin eta ahalik eta gehien lagundu dut, nire hiria maite izan dudalako beti.” (E9)

“Laurogeiko eta laurogeita hamarreko urteetako testuinguru politiko-soziala ederki ezagutzen dira, zeren eta gizartearen ETA talde terroristaren mehatxu etengabearen pean baitzegoen. ETAREN ekintza baten ondoren hartu nuen nik konpromisoa, 1995eko urtarrilaren 23an, arratsaldeko hirurak eta laurdenetan, lankide batek esan zidanean egun hartan bertan, zenbait minutu lehenago, Donostian, Gregorio Ordóñez eraila zutela.” (E7)

“Ni berandu afiliatu nintzen nire alderdi politikoan, 24 edo 25 urterekin. Afiliatzeko motibaziorik handiena, lehenagotik etxetik zetorkidan oinarri ideologiko bat banuen ere (...), izan zen nire inguruan pertsona batzuek bizi zuten errealitatea ezagutzea. Nire adiskideetako batek Alderdi Popularrean goi-kargu bat zuen, eta horrek balio izan zidan terrorismoaren errealitatea lehen pertsonan ezagutzeko. Eskolta jarri zioten, eta lanaren eta harremanen arloa asko mugatzen zion horrek, ezin zen atera... Bueno, askatasun falta horrek –ez berak kontatu zidalako, baizik eta neuk lehen pertsonan ikusten nuelako– eta, horrekin batera, diodan bezala, etxetik nekarren kultur oinarriak eta modu inkontzientean neukan halako bokazio batek eraman ninduten afiliatu behararen kontzientzia izatera. Zergatik egin nuen galdezten badidazu, ba ez nuke jakingo erantzuten. Egin beharra nuela besterik ez dakit.” (E3)

Udal bokazio politikoak berekin dakarrenari buruzko testigantza bereziki adierazgarria, zeren eta lanordu asko eman behar baitira bizilekuarekiko konpromisoagatik, zinegotzi baten senide batek eman zigun. Zinegotzi hark, urtetan zehar etenik gabe jazarpen- eta beldurrarazte-gertakariak pairatu ondoren, erail egin zuten. Familiako kideen eguneroko ekintzak baldintzatu zituzten mehatxuak aipagai zituenean, honako hau aipatu zigun.

“Orduan, familia-bizitza nahiko tristea da inguruabar horiengatik. Eta horregatik eskatu nion uzteko, gure alabengatik. Gertatzen dena da hari, urte batzuk lehenago, baliaezintasuna emana ziotela osasun arrazoiak tarteko. Eta zeukan lan bakarra udalekoa zen. Eta nik pentsatzen nuen: hau kentzen badiot, zer egingo du gizon honek? Udala bere bigarren etxea zen. Eta, gainera, asko laguntzen zion jendeari. Bere izaeragatik, oso xaloa baitzen, herriko pertsona bat zen, eta herriaren alde lan egiten zutenetakoa. Eta horrexegatik nengoen ni horrela, ez nintzen berriz eskatzera ausartzen. Behin honako hau esan zidan: ‘Ez dakit zerura ala infernura joango naizen, baina herri honetatik joango naiz.’” (E8)

3.2.2. Distantzia laburreko adierazpen politikoaren zailtasuna terrorismoaren mehatxupean

Azterlan honek hartzen dituen urteetan konbultsio politiko handi bat gailendu da, zeinak euskal gizartearen eta administrazio publikoaren beraren esparru ia guztiak hartu baititu. Bere hurbileko dimentsioa –toki bakoitzean egoten diren kezketan zentratuta dagoena– gorabehera, bizilagunen gaien kudeaketaz kanpoko gertakariak eta dinamikek sakon baldintzatu zuten udal politika. Izan ere, aurreko atalean nabarmentzen genuen hurbiltasunaren faktorea dela eta, udal ordezkarien egoera gehiago egon zen mehatxuaren eta beldurraraztearen eraginaren pean, erabakiak hartzeko beste esparru politiko batzuetan baino.

“Familiaren ingurunean beti sortu du kezka. Nire aita jada hilik zegoen, baina amak urte asko zituen, eta anai-arrebek ere uzteko esaten zidaten behin eta berriz. Baina zu jada horretan tinko zaudenean, zure konbentzimenduetan, eta areago, alderdikideak lurperatu dituzunean, uste dut oraindik ere gehiago eusten diozula egin beharrekoari. Izan ere, nik jada esan nuen indarkeria amaitzen ez zen arte ez nuela Udaletik mugitzeko asmorik.” (E14)

Elkarrizketatutako pertsonen testigantzen artean batzuk nabarmendu ditzakegu, zeinetan eremu publikoan pairatutako jazarpen-egoerak erakusten baitira. Hainbat eratako mehatxuak egoten ziren, ageriko tokietan jarriak, eta hartzaileak beldurtzeko helburu eztabaidaiezina zuten, askotan zinegotzien izen-deiturak berariaz aipatzen baitziren mehatxuan.

“Hiru urtez edo hil baino lehenago hasi ziren kaletik mehatxatzen, eta geroago, bere etxera etortzen hasi ziren. Kaletik zihoala ‘kartzelari’ deitzen zioten, harrika aritzen zitzaizkion Gesto por la Paz en ordu laurdeneko agerraldietan (...). Taldearekin han zegoela, harriak bota izan dizkiote. Hori esan dit berarekin egoten zen jendeak. Geroago jakin dut berari bakarka, irakurri dudak artikulua baten arabera, beldurraren beldurrez edo ... (nahiz eta berak uste zuen ez zutela hilko, baina azkenean egoerak gairatzen zaitu) eta negar egin duela beste batzuekin, eta nik hori ez dut inoiz jakin, etxean inoiz ez duelako horrelakorik egin. Nire alabak tiraderara haren gauzen bila joan zirenean, inoiz kontatu ez zizkigun mehatxuak zeuden.” (E8)

“Askok gogoratzen naiz kanpaina egin nuen lehenengo egunaz. Taldean egiten genuen kanpaina. Oso kanpaina xumea zen, zeren eta panfletoekin joaten baikinen, eta taldean egiten genuen, sekula ez bakarka, ageriko arrazoiengatik. Eta niri gertatu zitzaidan, herrian kanpaina egiten hasi nintzen egunean..., badakizu herrietan, kanpaina egiteko garaian, panel batzuk jartzen direla, eta haietan alderdi bakoitzaren izena ageri dela, bere kartelak itsasteko erreserbatuta duen gunearekin. Bada, Alderdi Popularrarentzat erreserbatutako gunera iritsi nintzenean, han diana bat aurkitu nuen margotua, handia, ongi margotua, dianatar bat, bertan kasualitatez ez zegoena, guri nabarmen zuzenduta zegoena. Horixe da beldurra sozializatzea: ‘Hau da jakin dezazun zertara zatozen’. Beharrik jende gehiagorekin nengoen... Hauteskunde-kartel bat hartu, dianaren gainean jarri, eta gainetik itsatsi nuen, estaltzeko.” (E3)

“Eta gero paperak ateratzen hasi ziren. Harrigarri egiten zitzaidan nire burua karteletan ikustea, eta ez nuen egiazki baloratzen zer gertatzen ari zitzaidan. Nire izenaren ondoan ‘espainola eta eskuindarra’ eta antzekoak ageri ziren. ‘Espainol’ izenondoak behin betiko marka jartzen zizun. Gero eta argitalpen gehiago hasi ziren ateratzen, era askotakoak, auzoetan agertzen zirenak. Eta orduan, mehatxatuaren figura, jazarriaren figura ez zen figura publikoa izaten. Mehatxatuetan mehatxatue-

na José María Calleja zen. Callejarena denek zekiten, baina gainerako mehatxatuena inork ere ez zekien. Gainera, mehatxatuta nengoela jakin nuenean, edo mehatxatuta zaudela jakinarazten dizutenean... itotzen ari den norbaitek bizirik ateratzeko laguntza eskatzen du, oihu egiten du; hiltzen ari denak laguntza eskatzen du, baina mehatxatuak ezin zuen laguntzarik eskatu ozenki.” (E5)

“Unibertsitatera ikastera etorri zen iloba bat badut, eta nire etxean hartu nuen apopilo. Eta egun batean hauxe esan zidan: ‘Gero batzuk Unibertsitatetik atera ginen, eta gure kalera iritsi ginenean, ikaskideek galdetu zidaten: Eta non bizi zara zu? Zein ataritan gelditzen zara?’. Bada, nire etxearen parean manifestazio bat zegoen, eta kartel batzuk bazeuden, nire izena, ‘hiltzailea’ hitza ondoan jarrita. Eta esan behar izan zien: Bueno, hau da nire etxea, eta hori nire izeba.” (E6)

“Nik ez nuen mehatxurik jaso, ez bereziki bortxazkoak; baina, esate baterako, behin bururatu zitzaidan kartel bat kentzea, paskin bat, zaborretarako edukiontzi batean itsatsita zegoena, kanpoko aldetik. Bazegoen zerbait han jarria, esloganen bat, esate baterako ‘Ongi etorri, halako’, zeinak beste halako bat eraila baitzuen. Bada ausartu egin nintzen; halaxe iritzi baitzioten, pareta hartatik paskin bat kentzera ‘ausartu’ nintzela. Eta orduan, gazte bat hurbildu zitzaidan mehatxuka, ‘halakorik egitea bururatu ere ez’ esan zidan. Besterik gabe ETA goraipatzen zuen zerbait zelako. Eta nik hura kendu nuenez, gazte hark mehatxatu ninduen. Gero beste mehatxu batzuk... bada bai. Esprai batez nire etxeko atarian idatzi zuten: ‘Halako hiltzaile bat da’; etxetik ateratzerakoan nire atzetik etorri eta ‘faxista’ eta ‘hiltzailea’ eta antzekoak esatea, bai. Halakoak dezente gertatu zitzaizkidan.” (E7)

Herriko jaiak eremu publikoan gertatzen den adierazpen berezi bat dira, zeren eta haietan giro ez-formala eta jende-pilaketa batera gertatzen baitira, eta jende-pilaketetan izaten den desinhibizioa; eta horrek errazten du jende-samaldak ematen duen anonimotasunetik, zigorrik gabe geratzen diren erasoak gertatzea. Jaso ditugun elkarrizketetan, agerian geratu da eraso horiek biktimengan duten eragina.

“Herriko jaietan, 95etik, egon ere ez; doi-doi bandera altxatzen zenean egoten nintzen. Bandera altxatzen zenean denetatik botatzen zen: nik trenbideko azkoinak ikusi nituen udaletxean sartzen, eta alkatea suhiltzaileen kasko eta aurpegi-mozorro eta guzti ateratzen zen. Hasieran, arrautza ustelduak botatzen zizkiguten, pinturaz beteak; gero, azkenean, egosi eta izozten zituzten. Nire alderdikide bati lauzpabost puntu eman behar izan zizkioten, eta XIX. mendeko kristalezko armiarma-lanpara bat birrindu zuten.” (E11)

“Bandera altxatzea, ustez, jaietara hasiera formala ematea da... bandera altxatzerakoan, nik bandera kulturako zinegotziarekin batera jarri nuen, eta arrautzak bota eta bota hartu gintuzten, eta bandera jaisterakoan objektu mingarrien hainbat kilo jaso genituen: patata izoztuak, harriak, errodamendu-bolak... gure kontra botatukoak. Bueno, guztiak gure kontra. Guk, jakina, gertatutakoa ikusita, kaskoak jarri genituen. Eta horrela egoten ginen, zeren eta gure kontrako halako tiro-ariketa bat bezala izaten baitzen.” (E13)

Jasotako testigantzetan agerian gelditu den bezala, osoko bilkura bera ere, udalen eztabaidarako gune instituzionala, ez zen talde biolentoen derrigortze-ekintzatik libre geratu, erabakiak hartzeko prozesu askea baldintzatu nahi izaten baitzuten. Gaur egun ere, guk elkarrizketatu ditugun batzuei harrigarri zaie nolako zigorgabetasunarekin gertatzen ziren beldurrarazte-ekintza horiek.

“Gure bizitza gogortzen hasi zen udaletxean sartu ginen unean. Udaletxeko eskailerak igotzen hasi ginen unean bertan, gogortzen hasi zen jada (...) Osoko bilkura batean, hiltzaile deitu ninduten; beste osoko bilkura batzuetan ere hiltzaile deitu gaituzte, eta zigorra merezi dugula esan. Ba, zinegotziek eta jendeak oro har. (Mehatxuak) pixkanaka handitzen joan ziren: hasieran salataria zinen, une hartan gehien saltzen zena baitzen hori; gero jada kartzelari eta hiltzailea izatera pasatzen zara, beste egitura eta beste maila batzuetara. Baina hasteko eta behin herriak errazen bereganatzen duena salatariarena da, eta gero jada kartzelariarena edo hiltzailearena, eta norbaitek zuri danba egitea merezi duzu (...) Kolperik ez dugu jaso, nik ez behinik behin; baina mehatxuak bai, telefonoz, heriotzarenak.” (E1)

“Eta osoko bilkurena izugarria zen; osoko bilkura bat zegoen bakoitzean, haien jendea etortzen zen, Ezker Abertzalekoa, gu beldurraraztera, mehatxatzerara, irain egitera eta isilaraztera. Hau da, halako beldur bat eragiten zuten gizartean, non zure adierazpen librea baldintzatzen baitzuten, zinegotziarena ez ezik, herri osoarena ere. Inor ez zegoen Ezker Abertzaleari ezer esaten zionik, ez kultur taldeek, ez talde sozialek, ez erlijiosok, ez politikok. Jakina, gure jarduera politikoa bera baldintzatzen zuen horrek, adierazpen askea, eta ez zen ezer gertatzen.” (E10)

“Udalean, udalbatzan, esango nuke ezen, eztabaidetako giroa, eztabaidak egiteko giroa normala zela, nahiko normala, udalerraren administrazioa ukitzen zuten gaiak aztertzen zirenean, baina giro hori ernegatu egiten zen giro politiko nazionalaren irakurketa bat egiten zuten gaiak buruz hitz egin eta eztabaidatzen genuenean, eta nazionala diodanean, Euskadikoa esan nahi dut. Eta ez naiz ari soilik ETako presoen gaiari buruz, ez; beste gai batzuekin ere geratzen zen: estatutua, edo alderdi bakoitzaren apustu estrategikoak eta abar. Orduan giroa ernegatu egiten zen. Baina hortik harago, bada, giroa ernegatzeaz gainera, normalean gehiengoa zuen alderdiak bere jarraitzaile sutsuenei deitzen zieten udalbatzaren eztabaida horietara joateko, eta ero batzuen moduan hasten ziren oihuka osoko bilkuretan, eta denetatik deitzen zizuten, mehatxatzen zintuzten eta abar. Hau da, presio -giroa zegoen, presio handiko giroa.” (E13)

3.2.3. Jazarpena eta beldurraraztea, beren etapa desberdinetan

Udal ordezkarien kolektibo horri mehatxu egiteko eta bera beldurrarazteko dinamikak hobeki ulertzeko, erabaki dugu bildutako informazioa aurkeztea azterlanaren esparru kronologikoan aipatu diren etapa desberdinen arabera antolaturik. Horrela, gure elkarrizketatuek helarazi dizkiguten bizipenak eta iritziak zehaztasun handiagoz jarri ahalko ditugu beren testuinguruan, eta esanahia eman ahalko diegu eta ulertu ahalko ditugu.

3.2.3.1. 1991-1994. Hauteskunde-zerrendak osatzea: lantegi zaila, baita Oldartzen ponentzia baino lehenago ere

1991ko maiatzetik 1995eko maiatzera bitarteko udal legegintzaldi honi buruz jasotako testigantzek testuinguru zaila erakusten digute ETaren hurbilekoak ziren erakundeek kontrol sozial irmoa zuten udalerrietan. Udal jakin batzuetan hauteskunde-zerrendak osatzeko zailtasuna patologia antidemokratiko baten moduan agertzen da, zeina, elkarrizketatuek egozten baitiote hauteskunde-zerrenda batekoa izateagatik nabarmentzeko beldurrari. Hori dela eta, hautagai-zerrendak udalerritik kanpoko pertsonekin osatu behar izaten ziren.

“Egoera horretan ordezekoak egotea zaila izateaz gainera, zeren eta imajina ezazu zer den norbaiti eskaintzea Alderdi Sozialista bezalako edo Alderdi Popularra alderdi bateko zinegotzia izatea... Bada, beste edozein tokitan, segur aski, harro sentitzeko moduko gauza bat izango zen, zeren eta egia da zinegotzia izatea zure herria ordezkatzeko dela eta, gainera, egia esan, badakigu politikan betidanik ukondokadak egon direla... baina garai hartan inork ere ez zuen ezer jakin nahia.” (E14)

“Hauteskundeak zeuden bakoitzean, edo osoko bilkura bat edo hilketa batengatik elkarretaratze bat, edo ekitaldi politiko bat, mehatxuak eta erasoak handitu egiten ziren. ENAMek eragiten zuen indarkeriak jende asko eta asko beldurrarazten zuen. Zaila zen udaletarako zerrendak osatzea, eta are gehiago PP eta PSOE alderdientzat. Horrek halako normaltasun falta bat eragiten zuen, zeinak berekin ekartzen baitzuen herriko inor ez egotea bi alderdi horietako zerrendetan. Gure herrian ez zegoen ez PSOEko, ez PPko ez eta Ezker Batuko zinegotzirik; bueno, gero bat izan zen. Oso zaila zen Gipuzkoako herrietan zerrendak egitea, zeren eta edozein alderditako zinegotzia izateak ENAMen jazarpena pairatzeko arrisku handia ekartzen baitzuen. Orduan, nik gogoan dut hauteskundeak zeuden bakoitzean, beti postontzietan nire kontrako edo gainerako zinegotzien kontrako mezuak agertzen zirela, baina nire kasuan, zerrendaburua nintzenez, are gehiago. Orduan, argi dago, nire amak edo nire aitak postontzia ireki eta beren semearen izen-deiturak aurkitzea kristorenak esaten, bada ez zen batere atsegina.” (E10)

Zailtasun horien arrazoia udalerrri jakin batzuetan pairatzen zen presio soziala zen, eta zailtasun horiek, geroko gertakariak ikusita, ongi azaltzen dute bestela pentsatzen zutenekiko beldurrarazte-jarreraren kronifikatzea.

“Nire lehenengo lau urteak ia ikastekoak izan ziren. Nire herriko giroan Ezker Abertzaleak hegemonia sozial argia zeukan, eta udalbatzan gehiengo osoa ez bazuten ere, udalbatzako gehiengo minoritarioa ziren, baina, gero, giro sozialean nagusi ziren. Gu, nire herriko alderdiko gazteak behinik behin, orduan kezkatuta geunden jada ETaren gaiarengatik, eta ETak euskal herriaren kausa zela eta egiten zuen erabilpenarekin. Guk, 80ko hamarkadan, panfletoak banatzen genituen, eta haietan esaten genuen ETA euskal herriaren kausaren etsaia zela, eta batzuek hartzen zituzten, beste batzuek, berriz, aurpegira botatzen zizkiguten, eta beste batzuek beste zerbaitekin, baina hor egoten ginen gure testigantza ematen. Nolanahi ere, giroa oso itogarria zen, halako moduz non, hauteskunde kanpainetan, alderdiko jendeak, kartelak itsastera ateratzen ze-

nean, normalean arazoak izaten zituen, musu aurrean erauzten zituzten kartelak, mehatxatzen zituzten... mehatxu egiten zuten horietako batzuk gero ETAKo komandoetako kideak izan ziren, urtetan espetxean egon direnak, eta abar. Hau da, esan nahi dizudana da ez zirela nolana hiko mehatxuak, ez zirela mozkor batzuk, ezta gutxiagorik ere. Horixe gertatzen zen.” (E13)

“Nire jabetza-hartzea gertatu zen Busoten Lasa eta Zabalaren gorpuen aurkikuntzarekin batera. Ustez, GALek erail zituen. Hori dela eta, etsaitasun beteko osoko bilkura bat izan zen hura, nire lehenengoa. Ni, jakina, alderdiko zinegotzi bakarra nintzen herrian; besterik ez zegoen. Kanpoan jende pila bat zuri irain egiten, eta ni oraindik ere karguaren jabetza hartu gabe, ezta? Eta, ba, osoko bilkura ikurrinez bete, eta halako jendea, eta oihuak eta bultza egiteak, eta ba, gehiagorik ez zen gertatu ba mirariz, zeren eta une oso gogorra izan baitzen.” (E14)

1990eko hamarkadaren erdialdean beldurraztearen estrategian eta ordezkari politikoen balizko garbiketari ibilbide propioa iragartzen zuten dokumentu batzuk ezagutu ziren. 1995ean HBk Oldartzen txostena onetsi zuen eta bertan honako hau adierazten zen: “esku hartzeko ildo egokitu beharra daukagu”. Sufrimenduaren sozializazioaren kontzeptua ez zen aipatzen, baina, garai hartan, gutxi gorabehera, jazarpen indarkeriaren estrategiak oro har gauzatzen hasi ziren. Zuzen 79 barne-argitalpenetik ondorioztatzen da ETAK PP eta PSOEko politikarien aurkako atentatuak egiteko erabakia hartua zuela. KASen Karramarro txostenak kale borroka Ezker Abertzaleak “lortutako kapital handiena izan zela” definitu zuen. Beldurraztearen strategiaren orientabide berri hori ez zen oharkabean pasa gure elkarrizketatuentzat, beren testigantzetan hura indar handiz nabarmenduta gogoratu baitute.

“91tik 95era presioa ez zen izan 95etik aurrera bezain gogorra. Bizilagunen mailan, beldurrazte hori hasieran motelagoa zen; gero, areagotzen joan zen.” (E11)

“Gure herria txikia da, pentsa ezazu, denok ezagutzen dugu elkar. Orduan horrela hasi zen legegintzaldia (1995-1999), eta ez dakizu zer gertatzen den, eta kasualitatez legegintzaldi hartan Ezker Abertzaleak Oldartzen proposamen ospetsua onetsi zuen, zeinarekin sufrimendua sozializatu nahi baitzuen, gizarte osoak gatazkaz eta haren helburuez kontzientzia har zezan, eta ederki arduratu ziren hura garatzen. Orduan, mehatxuak eta presioak pairatu genituen alde guztietatik; izugarria izan zen.” (E10)

“Gogoan dut lehenengo legegintzaldia erosoagoa izan zela, deserosotasunaren barruan ere, bigarrena baino. Bada, lehenengo legegintzaldiaren ondoren, kalea mugitzen hasi zen. Hau da, hemen gogoeta bat badago. ETAre buruzagitza 92an atxilotzearekin batera, esan dezagun hondoratze moral bat geratu zela ezker abertzalean, ETAre munduan, hondoratze moral bat eta gogoeta bat, barne-astinaldi bat (...) Eta 94. urtearen bueltan, ETatik eta haren abangoardia politikorako erakundetik, KASetik (Koordinadora Abertzale Sozialista) Oldartzen ponentzia atera zen. Sakonean Julio Iglesiasen bahiketa dago, begizta urdinaren kanpaina, eta atzera-egite bat dago hegemonia sozialaren gogortasunean, baita haiek indartsuak diren tokietan ere. Begizta urdinaren kanpaina porrot baten gisara hartu zuten; agian ez porrot bat, baina bai atzera-egite bat. Haiek planteatzen dutena honako honen moduko gogoeta bat da: ‘Astinaldi bat eman behar diogu herrialde honi, barrutik’. 92a baino lehen, ETAK honako hau zioen: ‘Espainiako Gobernua dirdiratsu atera nahi duenez urte honetatik, bere burua behartuta ikusi beharko du esertzera, negoziatzeko esertzera’. Egiazki gertatzen dena da Espainiako Gobernua ez dakidala nik nondik nora dagoen behartuta negoziatzera, eta Bidartera joan eta ETAKo buruzagien mahai osoa atxilotu zuen; orduan, hura kolpe oso gogor bat izan zen. Gero begizta urdina etorri zen: ‘Aizu, barne-gogoeta bat egin beharra daukagu’. Orduan barne-gogoeta horretan gertatutakoa nik Maquiavelorekin konparatzen dut; hark zioen: ‘Printzea herriak maite behar du, eta herriak maite ez badu, beldurra izan behar dio’. Orduan haiek diote: ‘Hemen kaña ematen hasi beharra dago’.” (E13)

“ETAre zuzeneko indarkeria, atentatuen bitartez heriotza eraginez, mehatxuen bidez eta iraultza-zergaren bidez, pertsona askorengan izan du eragina, eta asko sufritu zuten; baina beste indarkeria mota bat izan zen, oso garrantzitsua, Euskadin, oldarkorrena zen horretatik harago, bizitza kentzen ahal zizun hartatik, zurea edo familiarena, eta hori egon daitekeen gauzarik larriena da. Bestelako indarkeria bat egon zen, Ezker Abertzaleak ETArekin eta konglomeratu bat (ENAM) osatzen zuen ingurune horrekin baliatu zuena, askoren bizitza baldintzatu zuen ideia bat eta giro bat. Nire kasuan, zinegotzi abertzalea bainintzen, askotan leporatzen ziguten Ezker Abertzalearekin bat etortzen ginela, hedabide batzuetatik. Behin baino gehiagotan leporatu

ziguten ia ENAMen atal bat izatea, abertzaleak ginelako; ezta hurrik ere, zeren eta gu guztiz kontrakoa baikin, zinegotziok euste-horma bat osatzen genuen egunerokoan batzuek “intensitate apaleko” deitzen zuten indarkeria horren aurka. Hau da, ni bezala zinegotzi asko gure herrietan bizi ginen eta aurre egiten genien Ezker Abertzaleak bere tesiak inposatzek egiten zituen ahaleginei, eta izugarri sufritzen genuen.” (E10)

“Izan ere begizta urdinaren kanpaina eta gero, bazirudien euskal gatazka gu guztion aurkakoa zela, bazirudien euskal gatazkan geu ginela gaiztoak. ETAk dio: ‘ez, ez, hemen gatazka euskaldunen, eta gu ordezkatzeko ditugu euskaldunak, eta Estatu Espainiarraren artekoa da, eta horixe islatsu behar dugu kalean’. Orduan, kaleko isla da: bakezale hauek gutaz hitz egiten duten bakoitzean, indarkeriazaleak demokraten aurka, gu ‘Euskal Herria askatu’ dioen pankartaren buruan jarriko gara, gogorazteko Estatu delak euskaldunon askatzea edo emantzipazioa eragozten duena, eta Estatu gure parean daudenengan dago ordezkaturik, ‘Askatasuna Aldaiarentzat’, esate baterako, diotenengan. ‘Aldaiarentzat askatasuna eskatzen dutenak –gure atentaturen batengatik, bakarren bat erail dugulako, protestak ari direnak, horietatik dira gatazkaren txanponaren ifrentzua, zeren eta Estatu ordezkatzeko baitute, eta ez demokratak, Estatu ordezkatzeko dute. Horri sufrimenduaren sozializazioa deitu zitzaien, eta hainbat gauza ekarri zituen. Horietako bat, jakina, ETA tokiko politikariak hiltzen hastea izan zen, politikariak hiltzen eta politikarien aurka atentatuak egiten hastea, haiei Estatuaren zapalkuntza horren erantzukizuna egotziz; eta, bestetik, presioa egiten hastea, pressing egiten hastea, pressinga joko-zelai osoan barna, futboleko terminoak erabiliz, eta hori azken ordezkari politikoaren eguneroko bizitzara iristen da, kaleko bizitzara, etxeetako bizitzara. Azken zinegotzia pressing horren subjektua da, jazarri egiten baitute, mehatxu egiten baitiote, hedabideetan agerrarazten baitute, kalean jazartzen baitute, escracheak egin eta haren burua eskatzen baitute etxeko atarian; izan ere, bere izena entzuten du, eta danba egitea eta abar, edo ‘ETA, hil ezazu’. Esaten da horrela irudikatzen dela gatazka. Presioa egiten zaiena eta mehatxatzen direnak Estatu ordezkariak direla, sinbolikoki bada ere Estatu ordezkatzeko dutenak. Horrela ENAMek egin duen zerbaiten aurka daudela adierazten duten guztiak presionatzen dira, ENAM deitzen baitio bere buruari Ezker Abertzaleak: euskal nazio askapenerako mugimendua.” (E13)

3.2.3.2. 1994-1999. Sufrimenduaren sozializazioak eragindako inflexio-puntua

Gure elkarrizketatuek Donostiako zinegotzi Gregorio Ordóñezek hilketa, 1995eko urtarrilean gertatutakoa, eta urte bereko maiatzeko udal hauteskundeetako kanpaina aipatzen dituzte egoeraren aldaketa sumatu zen garaiko mugari gisara.

“Aurreko beste garai batzuetan hilketak izanak ziren, era guztietako hilketak, baina ni sartu nintzen garaian zentzu horretan lasaitasun nahikoa zegoen, eta bazirudien ez zutela ezer egingo. Baina bigarren legegintzaldirako aurkeztu nintzenean... lehenengoaren amaieran Gregorio Ordóñez hil zuten, eta hor hasi zen guztia. Gogoratzen naiz hauteskunde-kanpainan geundela bete-betean, eta egun batean etxera iritsi, amari aldakan ebakuntza egin berritan, eta batz jantzita aurkitu nuen etxe aurreko kafe-dastategian, eta orduan nire lehengusina etorri eta esan nion: ‘Zer gertatzen da?’. ‘Ba, etxetik atera gaituztela bomba-mehatxu bat dagoelako’. Bomba-mehatxu bat zegoen, ni mehatxatzen hasiak ziren.” (E6)

“Herrian bizilagun batzuk elkartzeko ginen ETArekin hilketa bat zegoen bakoitzean. Atentatu isilik salatzeko elkartzeko ginen. Guri harriak ere egin digute; hau da, elkarretaratuta egon eta harriak jaurtiki zizkiguten, hil berriaren odola oraindik bero zegoela, eta harriak jaurtikitzera ausartu ziren. Izugarria da harrien hots lehorra entzutea pertsonak, autoak, erakusleihoak jotzen dituztenean.” (E10)

Beste elkarrizketatu batzuek gogoratzen dute 1995. urtean hasi zirela beren etxebizitzetako aurkako erasoak eta mehatxuak, horrek berekin ekarri zuen beldurrarekin eta ohitura-aldaketarekin.

“Bi eraso jasan nituen urtebeteko aldearekin. Lehenengo 1995ean izan zen. Gazez izan ziren beti. Ohean zaude, lotan, eta bat-batean kolpe handi bat entzun eta sua ikusten duzu balkoian. Orduan jaiki eta batzuei eta besteiei abisua eman. Eta hortik aurrera su-itxalgailua logelan edukitzen hasi ginen. Gogorra da biok bakarrik lo egin beharrean, su-itxalgailuarekin ere lo egin behar izatea. Eraso egin ziguten bigarrenean, su-itxalgailua etxean zen jada.” (E1)

“1995eko ekainean, udalak eratu ziren. Astebete geroago, eraso bat jasan nuen eta ospitalean bukatu nuen (...) Gauzak aldatzen hasi ziren. Handik bi egunera lagun batekin joan nintzen Salamancako herri batera, asteburua pasatu eta atsedena hartzeko. Itzuli nintzenean, zerbait

arraroa sumatu nuen. Bizilagun batek kontatu zidan ezen bi egun horietan, asteburua baitzen, atariko atea desmuntatu eta berrmatuta utzi zituztela, eta gero, atezain automatikoa desmuntatu eta gailleta-kutxa bat jarri zutela, ongi prezintatua, gurasoen postontziaren gainean. Zalaparta horrekin guztiarekin, Ertzaintzari deitu zioten, artezilariei. Hori nik ez nuen bizitu, nire gurasoek eta anaiak bizitu zuten. Eta gero okerrean izan zen betidanik ezagutzen nauen bizilagun batek, egin zutenagatik protesta egin beharrean, errua gurea zela esan zidala, alde egin behar genuela.” (E11)

Zinegotzien aurkako presioa handitzen joan zen etxebizitzaren aurkako erasoekin ez ezik ondasunen aurkakoekin ere, modu jarraituan eta egunero-egunero, hitzezko erasoekin atentatuak gaitzesteko elkarretarazteetan, edo etxebizitzaren aurreko manifestazioen bitartez.

“1997an kaletik mehatxatzen hasi ziren, eta geroago, etxera etortzen hasi ziren. Kaletik zihorean, ‘kartzelaria’ deitzen zioten, harriak jaurtikitzen zizkioten bakearen alde ari zenean edo ordu laurdeneko isiltasuna egiten ari zenean. Ezker Abertzalekoak parez pare jarri zaizkio, eta bueno, asko iraindu dute, denetatik deitu diote. Bizi garen etxearen parean dagoen institutuko mutilek, jolas-orduan, egunero ez baina bai egun gehien-gehienetan, presoen beren pankartekin etortzen ziren etxe azpira. Eta, manifestazioa zegoenean, nire etxe azpian amaitzen zen. Eta paskinak ekartzen zituzten irakurtzeko, eta harriak bota izan dituzte gure leihoen aurka; eskaillerako hormak dianekin paperezatu dituzte, eta etxebizitzan sartzeko hormak ere margotu dituzte, eta pareko zuhaitzetan behin baino gehiagotan pankarta handiak utzi dituzte, piztutako kandelekin. Gabonetan paketeak bidali dizkigute, botila hutsekin, esanez horixe dela presoek daukatena; gogor zigortu gaituzte. Inozenteen egunean, nik egunkarietako argazki batzuk dauzkatzat: zortzi-hamar panpina izugarri ageri dira, eta azpian “No es inocente” gaztelaniaz idatzita, nire etxearen azpian. Eta ez hor bakarrik, herrian ere bai, alde zaharretan dianak zeuden bere izenarekin; panpinek ere haren izena zeukaten, eta poteoa egiten den kaletan, betidanik, kalearen pareta batetik bestera, pankarta handiak egoten ziren, bere izena dianetan jarria zutenak, baita zoruan ere. Orain asko aldatu da hura guztia.” (E8)

1997an eta 1998an zinegotzien aurka izandako atentatuak kolektibo horren aurkako presioaren areagotze bat izan ziren, halako intentsitatez, non haiek babesteko eskolta-operatibo bat jartzea gomendatzen hasi baitzen. Zinegotzi-karguaren izaerak berak ere, askotan, berekin ekarri zuen pertsona askok babes-neurri hori onartu nahi ez izatea. Hala eta guztiz ere, ETArek erasoaldiaren gordintasuna, zeren eta 11 hilabetetan 6 zinegotzi erail baitzituen (Miguel Ángel Blanco, José Luis Caso, José Ignacio Iruretagoyena, Alberto Jiménez-Becerril bere emazte Ascensión Garcíaekin batera, Tomás Caballero eta Manuel Zamarreño, Errenteriako Udalean Casoren ordezkoa izan zena), eta krimen horiek gizartearen eragin zuten zurrarak berekin ekarri zuen eskolta ezartzea baita babestutako pertsonen irizpidearen aurka ere.

“Iruditzen zait eskolta eramatea onartu nuen azkeneko bietatik bat izan nintzela, nire alderdiak ezarri zidalako, eta ez dakit 97an ala 98an eskolta eramaten hasi nintzen, ez naiz ongi gogoratzin. 2011ra arte eramanez nuen eskolta.” (E7)

“Baina egoera hori kafkiarra da. Ez da normala inongo kargu politiko garrantzitsurik ez daukagu pertsonok... Herri bateko zinegotzia izatea gauza polita baita, jendearengandik hurbil egon zaitezke, politikaririk politena da; hitz egiten dizute, taxilari bat etortzen zaizu eta bere arazoak kontatzen dizkizu, taxilarien aurkako betoak eta abar... eta horretaz arduratzen den zinegotziarekin hitz egin behar duzu... eta laguntzen saiatu, zeren eta mehatxatuta baitago haien soka berekoa ez izateagatik. Tamalgarria da ‘demokratiko’ deitzen dugun herrialde batean ezin edukitzea nahi duzun aukera politikoa, zeina librea baita demokrazian.” (E9)

“Ea nire gurasoek sufritu zuen? Bai, esan diezazuket nahiko sufritu dutela. Nire ama izututa ez, baina beldurrez hil zen. Etxetik irtetearen beldur zen. Eta nire aitak arnasa hartu zuela uste dut, bueno, biek hartu zuten arnasa eskolta jarri zidatenean. Eskolta jarri aurretik nik hiru eraso jasan nituen.” (E11)

Eskolta bat eramateko eta babes-neurriak hartzeko ezinbesteko behararen ebidentzia ezartzen joan zen, batetik atentatuaren aipatutako segida izugarriarengatik, eta bestetik segurtasun-indar eta -kidegoek ETArek komandoei atzemandako dokumentazioan agerian geratzen zelako atentatuak prestatzeko segimenduak exhaustiboak zirela.

“Uda batean, etxe bat alokatu genuen hondartzatik hurbil. Hainbat egunez ohean egon behar izan nuen diskoko hernia batengatik. Nire arrebak asko begiratzen zuen leihotik, eta egun batean esan zidan: ‘Garajea, atean, ETAk bi daude’ eta nik esan nion: ‘Baina zer tontakeria da hori?’. Aizu, egia zen; gero, jada hiruhileko hartatik bueltan, deitu zidaten esanez Gobernuko ordezkariordetzan komando bat harrapatua zutela eta han zeudela nire segimendu guztiak, ibilbideak, etxea, baita ile-apaindegiak ere, zeren eta ni bitara joaten bainintzen, ohiturez aldatu ahal izateko eta beti berara ez joateko. Han zegoen guztia.” (E6)

1998ko irailaren 16an, ETAk, komunikatu batean, iragarri zuen handik bi egunera alde bakarreko su-eten mugagabe bat hasiko zuela. Iragarpen hori baino lehen, Lizarrako Adierazpena eman zen ezagutzera, Euskal Herriko hainbat alderdi politikok eta erakunde sozial eta sindikalek sinatutakoa. Su-etenaren egoera horrek 14 hilabetez iraun zuen, harik eta ETAk 1999ko azaroaren 28an iragarri zuen arte egun batzuk geroago, abenduaren 3an, su-etena amaituko zela.

3.2.3.3. 1999-2003. Su-etenaren amaieratik eskoltak orokortzera

1999ko udal hauteskundeetarako kanpaina arestian aipatutako su-etenaren garaian egin zen. ETAk berriz ere ez hiltzeko itxaropenak oraindik ere bizirik zeuden euskal gizartearen zati batean.

“Ni 99an sartu nintzen Udalean, udal hauteskundeetan, eta, gainera, gobernuko zinegotzi liberatu moduan sartu nintzen; hau da, nire aurreko lana utzi eta modu eskusiboan jardungo nuen Udalean. Oso gustura nago, gustuko nituen elementuekin lanean, nire ezagutza-alorretik eta nire aurreko lanetik hurbil. Gogoan dut lagun zinegotzi batek, beteranoa zenak –bi heriotza-mehatxu jasandakoa zen– beste lankide bati eta niri –heldu berriak ginen eta independente moduan sartu ginen– honako hau esan zigula: ‘Ikusiko duzue zeinen polita izango den legegintzaldi hau, zeinen lasaia, eta ongi moldatuko gara, eta gainera nire iragarpena da ezer ez dela gertatuko’. Ez dakit gizon hark zer izango zuen buruan, zeren eta lehenengo mehatxatua bera izan baitzen, eta ETA haren aurka atentatua egiten ahalegindu zen lehenengoa Udalean.” (E2)

1999an bizitako su-etenaren ondoren, udal ordezkariak beren ohiturak eta babes-neurriak berriz egokitu behar izan zituzten mehatxu terrorista zela eta. Ez zen lantegi erraza izan, ez segurtasun-neurrien liturgiara itzultzea, ez eta zinegotzi askok eskolta-operatiboak eramateko izaten zuten erresistentzia naturala gainditzea ere, herrian oharkabean pasatzeari utziko baitzioten. Beste behin, odoluste terrorista gizatasunik gabeak eta eraso pertsonalen bidez gauzatuko zen beldurrazteak pisu handiagoa izan zuten beste edozein errezelok baino, eta eskoltak orokortu egin ziren.

“Barne Arazoetako Ministerioaren lehenengo deia 1999an izan zen, etxea erre zidatenean. Une hartan, Jaime Mayor Oreja zen Barne ministroa, eta deia jaso nuenean ez nekien, egia esan, adarra jotzen ari ote zitzaizkidan ala egia ote zen (...) Esan zidan lehenengo gauza izan zen elkartasuna erakutsi nahi zidala, etxean eraso egin zidatelako, etxea erre zidatelako, fatxada osoaren aurka eraso egin zutelako, leihoak hautsi zizkidatelako, etxe barruan hainbat molotov koktel bota zizkidatelako, eta elkartasuna erakutsi ondoren, esan zidan serio planteatu behar nuela eskolta eramane beharra, zeren eta ETArekin helburua nintzela zioten berretsitako datuak baitzeuzkaten. Nik, hasieran, ezezkoa eman nuen, zeren eta ez baitzidan batere graziaz egiten eskolta eramatearenak. Besteak beste, zuk ez duzulako onartzen eskolta eramateko beharra duzunik. Ea, zer egin dut nik eskolta eramane behar izateko? Nire ideia politikoak aldeztu? Horretaz aparte, herri batean integratuta zaudenean eta herri batean zaudenean, nahiz eta giroa aurkakoa izan, jende asko daukazu babesten eta estimatzen zaituena, eta ez duzu sinesten sekula puntu horretara iritsiko zarenik. Baina gero, jakina, denborarekin pentsatzen joaten zara, Miguel Ángel Blancorri gertatutakoaren ondoren, eta, jakina, Udalean nire aurrekoa izan zena erail zutenean, orduan baiezkota eman behar izan nion eskolta eramateari.” (E14)

“2000ko abuztuan hil zuten Manuel Indiano, PPK Zumarragan zeukan zinegotzi bat. Ni elkarretaratzean egon nintzen, eta Rodolfori (Ares) esan nion: “Rodolfo, gurea oso itsusi dago”. Orduan hasiak ziren eskoltak jartzen. Gu taberna batera joan eta han pistolaren keinua egiten zizuten barran... Hala esan nion Rodolfori, eta erabaki zen guri eskolta jartzea.” (E4)

“Nire kasuan, 2001. urtearen hasieran izan zen, eta lehenago hilketa batzuk izanak ziren, eta zinegotzi batzuk erailak zituzten; orduan erabaki zen eskolta eramane behar genuela. Aurrez, erabaki hura hartu arte, hilabete batzuk pasa ziren non han-hemenka zinegotziak hitzen zituzten.

Lau hilabete geroago, ez dakit non... bolada izugarri bat izan zen, laurogeita hamarreko hamarkadan eta 2000n. Gure artean ez genuen nahi, zeren eta bagenekien gure bizimoduaren haustura erabatekoa izango zela, baina haustura horren gainetik zure bizia dago, zeren hiltzen bazaituzte, ba betiko hautsi zaituzte! Orduan kontziente ginen, eta alderdiaren jarrera bat izan zen gure egoera zaintzea, gure bizitza zaintzea, ezta? Guri ezer ere ez gertatzeko.” (E2)

Su-etenaren amaieraren ondorengo doikuntza-aldi horretan, pertsona batzuk tematu ziren eskolta ez eramaten, su-etenak iraun zuen bitartean egon zen mugimendu-askatasuna ez galtzeagatik. Basakeria terroristak une hori, eskoltarik ez edukitzearena, aprobetxatu zuen gure elkarrizketatu baten senarra hiltzeko.

“Behin bat eskolta bat eduki zuen, baina eduki zituen garaian bi edukitzen zituen modu etengabe. Gainera, ez dakit pribatuak ziren, zeren eta tematuta baitzeuden eraman behar zituela; hau da, alderdia tematu zelako onartu zituen. Hasieran, uste dut eskolta pribatuak izan zituela, baina gero ertzainak eduki zituen. Bi urte horietan bizkartzainak eduki zituen, baina su-etenean ez zituen nahi izan, zeren eta, esaten zuenez, su-etena bitartean ez zen jenderik izango bera hilko zuenik; baina gero, jakina!, gertatu zen su-etena amaitu zela, hala izaten baita, eta 2000n, amaitu zenean, ez zituen bizkartzainak hartu nahi izan; intimitate asko kentzen ziotela esan zuen. Eta nik uste dut haien helburua bazen, nolnahi ere hilko zutela, baina horrela oso erraza izan zuten.” (E8)

Hala eta guztiz ere, eskolta-operatiboak babestutako pertsona baten aurka atentatu nahi zuten terroristentzako disuasio-zeregin bat edukitzera iritsi baziren ere, zinegotzien ondasun eta ondarearen aurkako derrigortze- eta eraso-ekintzek bere horretan jarraitu zuten, eta horrek zalantza eta pairamen handia eragin zuen, gure elkarrizketatuek azaltzen duten bezala.

“100 manifestazio baino gehiago eduki genituen etxe aurrean, astero-astero, eta ikusi egiten genituen. Jakina, 200 pertsona inguruko samalda bat da.” (E1)

“Semearekin joan ohi nintzen futboleko jokatzeko. 14 urte inguru izango zituen. Bueno, futbol-zelaiko pankarten literatura zabaltzen hasi zen eta edukiz aldatzen; ez zen kontsigna huts bat izaten: ‘alde hemendik’ edo ‘presoak kalera o etxera’, ‘hemengo ez zaretanak...’; gauza arraroak esaten zituzten. Nik esaten nuen ‘Hori niri dedikatua da’. ‘Ez ba, gizona!’. ‘Pankarta horiek hor daude ni etortzen naizelako’. ‘Ezetz ba, gizona!’. Aparkalekuan telefono-kabina bat zegoen, eta nik neska bat ikusten nuen noizean behin bizikletan etorri eta kabinan sartzen zela, eta dei bat egiten zuela. Eta futbol-partida zegoen arratsalde batean, hara! Mutila jokatzeko ari zen, partida ikusten geunden, eta hara non agertu ziren escrachekoak, pankartekin, eta nire atzealdean jarri ziren; eta bost edo hamar minutuz egon ziren. Futbol-zelai osoa izozturik, inork ez zekien zer esan. Eta beno, joan egin ziren. Eta joaterakoan, nirekin zegoenetako batek pankartarekin zegoenetako bat agurtu zuen. Eta zera esan zidan: ‘Horrek onkologikoan egiten du lan’. Futbol-zelai batean bakardadea, ezta?’ (E5)

“Gau batean eskoltek etxean utzi gintuzten 12ak aldera. Etxean gu utzi eta bi minutura beraiek deitu ziguten telefonoz. ‘Esan senarrari kalea pintadaz beteta dagoela bere izenarekin’. Ertzaintzari deitu zioten. Nik hari esan nion. Sukaldeko iskin batean jarri zen, aulki batean, eta zigarro batekin (ez du erretzen), hantxe geratu zen, blokeatuta. Pentsatu nuen argazki batzuk ateratzera joan, aurreko beste mehatxu batzuekin gertatutakoa berriz ez errepikatzeko, denbora gutxira kentzen baitzituzten (pankarten kasuan) eta ez baikin iristen ikustera edo haien konstantzia izatera. Ezetz esan zidan. Geneukan argazki-makina hartu eta argazkiak atera nituen. Nire senarraren izena ageri zen eta Ertzaintzarena, eta gero ‘HILDA ZAUDETE’. Baina, benetan, ia-ia bi kilometrotan. Gure etxera sartzeko iskinetik hondartzaraino. Kilometro eta erdiko pintada. Erraz esaten da. Eta hori gaueko 12etan. Ez al zituen inork ikusi? Egia da ordu horietan handik ez dabilela jende askorik; inor ez omen zen handik pasa.” (E4)

Batzuetan, mehatxuekin batera aurrez pentsatutako erasoak egoten ziren, zinegotzien etxebizitzaren aurka; horietako batzuek izugarriko dramatismoa zuten egoerak ekarri zizkiguten, etxebizitzaren aurkako erasoak ez ezik, haren barruan une horretan egon zitezkeen pertsonen osotasun fisikoaren edo bizitzaren aurkakoak ere bazirelako.

“Lau kiloko lehegailu bat jarri zidaten. Etxea suntsitu zidaten. Madrilen nengoan, baina nire alabetatik bi etxean zeuden. Nire semeetako batek desagertu zen logelan (logela hartan horrelako zatitxoak geratu ziren) lo egiten zuen arren, zorionez oportetara joana zen. Hura garrantzitsua

izan zen, denbora luzean egon zirelako pisua konpontzen, apiriletik, lehegailua jarri zutenetik, abendura arte. Alokaturako pisu batera joan behar izan nuen. Eusko Jaurlaritzak ordaindu zidan alokairua. Beste herri batera joan behar izan nuen, inork ez zidalako pisu bat alokatu nahi. Aha- leginak egin nituen, baina ezin. Pisu bat alokatu zidaten, eta Eusko Jaurlaritzako Herrizaingoko sailburuak aurrez ohartarazi zidan nik ez nuela ezer ordaindu beharko, pisu hura konpontzea, saltzea eta hau erostea lortu nuen arte, zeren eta nik ez bainuen dirurik pisu hau erosteko. Nire bizitza guztian izandakoa utzi behar izan nuen nik, zeren eta esan baitzidaten ezin zidatela segurtasunik eman, beheko solairu bat baitzen. Gau eta egun etxe aurrean dotazio bat jarri behar izango zuten, zeren eta erasotzen oso erraza baitzen. Eta hona etorri nintzen bizitzera.” (E9)

“Gogoan dut gure ezkontzaren urteurrena zela. Afaltzera atera ginen, eta gazteek ohikoak diren ikasturte-amaierako afariak zeuzkaten. Gu ez ginen berandu etxeratu. Ordu bata inguru zen hura guztia gertatu zenean. Ni ohera joan nintzen eta senarra han behean geratu zen. Ohera iritsi zen unean, eztanda bat izan zen, eta gela osoa argiztatu zen. Gogoan dut heldu zidala eta jaisteko esan zidala, zeren eta irtenbiderik ez baikeuen etxeko ganbaratik. Eskailerak jaitsi eta kalera atera ginen. Sutzar bat besterik ikusi ez genuenez, ez genekien sua non zegoen. Suak kanpoan hartu zuen, kalean. Guk butano-bonbonak dauzkagu sukaldeko paretako hutsune batean, eta ordezkoren bat edukitzen dugu hurbil. Orduko hartan koktelak bonbonetara bota zituzten. Baina Ertzaintzak esan zigun oso zaila dela koktel batzuegatik eztanda egitea. Baina bota asmo guztiarekin bota zituzten. Ertzaintza probak jasotzen zegoen eta orduan jada seme-alabak iritsi ziren. Orduko hartan kalea besterik ez zen erre: bugainbilea, loreontziak, pareta... ez lehenengoan bezala, orduan fatxada erre baitzen, baina edonola ere, alukeria bat izan zen kentzea, jartzea, garbitzea... baina bonbonetara bota zituzten koktelak, gaiztakeria osoz.” (E4)

“Argi genuen garai hartan auto azpian begiratu behar zenuela zer edo zer ba ote zeneukan ikusteko. Autoa ez da sekula 5 minutuz egon kalean, zeren eta garaje itxian egon behar baitzuen. Autoa ezin zen herriaren erdian utzi, ezinezkoa zen, ez zen zuhurra. Hasieran harriak jaurtikitzen zituzten, gero izotzak eta, jakina, harriak arrastoren bat utz dezake, baina izotza desegin egiten da eta ez du arrastorik uzten. Gero etxean era guztietako pintadak eduki nituen, era guztietakoak. Etxea guztiz pintatuta zegoen: salataria, kartzelaria, hiltzailea nintzela zioten pintadek.” (E1)

Elkarrizketatutako pertsonen kontakizunen hasieran aipatu dugu nola indar politiko jakin batzuek (nagusiki PSE-EE eta PP) zailtasunak izaten zituzten hauteskunde-zerrendak osatzeko herri bakoitzeko bizilagunekin, politikoki nabarmentzeko zegoen beldurrarengatik. Berriz ere azpimarratuko dugu ideia hori, nahiz eta oraingoan fenomenoaren arrazoia beldurraraztearen, derrigorztearen eta hilketaren irautea den, zeren eta zinegotzien kolektiboan grinatu baitzen “sufirimenduaren sozializazioa” delakoaren garaian.

“2003ko udal hauteskundeak hurbil zeuden, eta kargudun publikoa izateko eskaini nuen nire burua (...) Deitu zidaten jakinarazteko zein herritan nahi zuten ni aurkeztea. Herriko bizilaguna izan eta bere ohiturak aldatu nahi izan ez zituen zinegotzi bat ordeztuko nuen (guk ezin genituen egin ohiko ibilbideak, txikiteoak kasu, baina hark egiten jarraitzen zituen), egun batean lehegailu bat jarri baitzioten autoaren azpian. Eskolta izan zen zer edo zer arraroa nabaritu eta abisua eman zuena. Horregatik erabaki zuen jende gaztea jartzea, beste herri batzuetako jendea. Zeren eta izuaren sozializazioa hain da gogorra... ea nor sartzen den hor. Jakina, orduan tira egingo duzu tira egin beharreko tokitik... baserria erre dizute, alderdikide bat hil dizute, bestea gutxiagatik atera da salbu... bizimodu izugarri konplikatuak baita.” (E3)

“Indarkeriak horixe eragiten zuen, jenderik ez egotea zerrendak egin ahal izateko, zeren eta orduan, segur aski, ni egoera normalean egongo nintzen... eta sartu nintzenean legegintzaldi batean edo gehienez ere bitan egon nahi nuen, eta beste bitan egon behar izan nuen, ez gogoagatik, erantzukizunagatik baizik. Zeren eta Ezker Abertzaleak hainbesteko presioa egiten zuen non inork ez baitzuen aurkeztu nahi, eta horregatik gelditu behar izan nuen nik. Onena da legegintzaldi batean egotea edo gehienez ere bitan, eta kito; ez da normala lau legegintzalditan egotea, ni egon nintzen bezala.” (E10)

3.2.3.4. 2003-2007. Lapurrak! Alderdi Politikoen Legearen ondorengo udal legegintzaldia

Alderdi Politikoei buruzko ekainaren 27ko 6/2002 Lege Organikoaren 10. artikulua oinarri juridikoa eman zuen beren jarduerarekin printzipio demokratikoak urratzen dituzten edo askatasunen arau-

bidea narriatu edo suntsitzea edo sistema demokratikoa deuseztatzea bilatzen duten indar politiko edo koalizioak legez kanpo utzi ahal izateko. Horren ondorioz, 2003ko martxoaren 18an, Auzitegi Gorenak bere erabakia eman zuen ezagutzera. Haren bidez, legez kanpo utzi zituen EH-EB-Batasuna formazio politikoak, eta haiek desegin behar zirela ezarri zuen, eta alderdi politikoaren erregistrotik kendu zituen. Aurrerago, Auzitegi Gorenak Autodeterminaziorako Bilguneak (AuB) Euskadiko foru aldundietarako, Nafarroako Parlamenturako eta udaletarako hauteskundeetara aurkeztutako 249 hautagaitzetatik 241 baliogabetu zituen. 2003ko maiatzaren 25ean egin ziren hauteskunde horiek. Horrek hauteskunde-kanpaina hura eta ondorengo legegintzaldia markatu zituen.

“Orduan, HB aurkeztu ez zenez, hauteskundeetara aurkezterik izan ez zuten, alderdi guztiok ordezkari gehiago lortu genituen, zeren eta, eman dezagun, tarta handiagoa baitzen eta mahaiki-deak, berriz, gutxiago. Orduan, PSOEk beste zinegotzi bat lortu zuen Udalean, PPK ere bai, Ezker Batuak bat lortu zuen, eta EAJk ere bat lortu zuen. Orduan, HBkoek kontuak egin eta esan zuten: ‘Zuk nire zinegotzi bat daukazu, zuk beste bat, eta zu zinegotzi lapurra zara, zinegotzi lapurra’. Eta nire kideetako batzuk ‘zinegotzi lapurrak’ ziren, eta hori osoko bilkuretara eramaten zuten. Gure udala eratzeko osoko bilkura oso gogorra izan zen.” (E12)

Elkarrizketatuek gogoratzen duten bezala, udala eratzeko osoko bilkuraren izapideak egin bitartean ere beldurrarazte-ekintzak egon ziren, bereziki ustez ilegalizazioaren “ondorioz” akta eskuratua zuten zinegotzien aurka.

“Ni ezin izan nintzen karguaz jabetu. Osoko bilkurara iritsi nintzenean, ikusi nuen Ertzaintzak eraikina hartua zuela (makila, eskopeta... zeramatzaten). Osoko bilkuren aretora arazorik gabe igo nintzen (abantaila nuen ez nindutelako ezagutzen, ez zekiten nor nintzen), baina eskoltarik gabe joan nintzen, eskoltak ezin direlako osoko bilkuren aretora sartu. Kanpoan geratu zen eskolta, eta ni han bakarrik. Udalbatzakoak atera eta nor bere eserlekuan eseri ginenean, osoko bilkura hastera gindoazen eta sekulako algara izan zen, irainekin... Jendea haserre bizian zegoen: faxistak, lapurrak... izugarria. Ez zait sekula ahaztuko, zeren eta une jakin batean alkateak, osoko bilkurarekin jarraitzerik ez genuela ikusita, esan baitzuen: ‘honaino iritsi gara’. Zeren eta bi udaltzain baizik ez baikeneukan. Aurpegia apurtu nahi badizute, apurtu egingo dizute. Alkateak osoko bilkura eten eta esan zuen: ‘goazen nire bulegora osoko bilkura bukatzera’. Ez zait sekula ere ahaztuko. Han oihuka ari zirenak biribilean jarri ziren, eta handik pasatu ginen guztiok. Ezin dut asmatu zer deitu ziguten, tu egin ziguten... ni ibiltzen hasi nintzen, eta aurrera begiratu eta pentsatu nuen ‘zangotraba egiten badidate eta erortzen banaiz lurrean ostikoka hartu eta sekulakoa izango litzateke’. Alkatearen bulegoan bukatu genuen, osoko bilkura hala moduz itxi ondoren.” (E3)

“Gure Udala 13 zinegotzik osatuta zegoen. Haiek (HB) ilegalizatu egin zituzten, eta ezin izan ziren aurkeztu; halere, aurkeztu ziren, hau da, boto deuseza sustatu zuten, eta orduan haien kontuen arabera 6 zinegotzi ateratzen zituzten. Hau da, alkatetza galdu zuten, baina 6 eserleku eskatzen zituzten. Nik egun bat daukat gogoan, herriko jai nagusietan. Udaletik elizara zihoan segizioa egon zen, eta elizatik irteten ari ginela –Udalera itzultzeko– izugarria izan zen, irainak, bultzadak; eta halako batean guri gauzak botatzen hasi ziren. Hau da, aulkiak eta harrapatzen zuten guztia. Gogoan dut balde bat bete ur bota zutela, 5 kilo inguruko pisua izan zezakeena, eta zinegotzi bati ia buruan eman ziola, ondoan erori zitzaion. Udalaren eratzeta bera tamalgarria izan zen. Osoko Bilkuraren eraketan 50 pertsona zeuden guri babesa ematen, baina 200 irain egiten; hau da, jendez betetako osoko bilkura bat, kabitu ezinik. Izugarria izan zen han gertatutakoa. Udala eratu genuen hala eta guztiz ere. Ertzaintzak lagundu gintuen Udaletik ateratzen, zeren eta Ezker Abertzalearen jarraitzaileek kanpoan gure zain baitzeuden gu oraindik ere gehiago beldurrarazteko. Ez zieten hedabideei sartzen uzten, zeren eta han gertatuko zenaren lekukorik ez baitzuten nahi. Legegintzaldi hartan, zinegotzien aurkako mehatxuak izugarriak izan ziren. Paskinak eta pankartak eduki zituzten; herriko jaietan haien izen guztiak edozein tokitan eta edozein modutan, dianetan, honela eta hala. Haietatik hiruri autoa markatu zieten, baita eraso-saiakera batean arropa tarratatu ere, eta irain homofoboak bota, eta lintxatzen ahalegindu ziren, eta zinegotzietan objektuak bota...” (E10)

Agian, legegintzaldiaren hasiera nahasiagatik izan zen, zinegotziak guardian jarri baitziren, eta horrekin batera pairatutako jazarpen eta beldurrarazteagatik. Kontua da elkarrizketatuetatik batzuek ohartarazi zigutela garai hura guardian eman zutela eta bizi zuten arriskuaren oso kontziente zirela. Horrenbestez, babes-neurriak, formalak zein norbera ezartzen joandako autobabeseoak, zalantzarik gabeko konstante bat izan ziren garai hartan.

“Pertsona guztiz kontrolagaitza izatera behartu ninduten, zeren eta babesteko modu bakarra hauxe baita: desordutan atera, etxera noala esan eta beste toki batera joatea. Eman dezagun, kontrolagaitz samarra izatea, errutinarik ez izateko. Eskolta eramanda ere, nire denbora programatzen berritik ikasi behar dut; kontua da errutinarik ez egitea, baizik eta gauzak programatzea: jakin behar dut nora noan, zer egiten dudana, non jaten dudana, zer ordutan ateratzen naizen, zer ordutan sartzen... Hori lehenagotik jakin behar dut eta haiei esan. Itxura ere aldatu behar dut, ilea luze utzi nuen; garai hartako argazki bat badaukat, eta hura ikusi eta esaten dut: ‘hori al naiz ni?’ Kokospekoa uzten nuen, bizarra uzten nuen, bat-batean kendu egiten nuen, itxuraz aldatzen joaten nintzen.” (E11)

“Udalak eratu zirenean, eskolta bat eramaten nuen, eta 2003. urtearen amaierarako, eskolta bikoitza eta autoa jarri zidaten. Eskolta bikoitzak, alde batetik, segurtasun gehixeago ematen zidan, baina bestetik espetxe bat bezalakoa zen.” (E3)

ETAko komando terroristek informazio-iturriak zeuzkaten, bildutako datuekin beren atentatuak planifikatu ahal zituzten. Hurrengo testigantzek irudikatzen dute nola elkarrizketatutako pertsonak jabetuak ziren oharkabean pasatzeko hartuak zituzten arreta-neurriek azkenean ez zutela balio izan detektatuak izatea eragozteko. Mehatxu egiteko pintadek gogorarazten zieten nor ziren bazekitela eta kontrolpean zeuzkatela.

“Hirugarren solairuko etxebizitza batera aldatu ondoren, ni baino lehen ateratzen zen lagunak esan zidan diana bat margotua genuela etxeko atean. Hirugarren solairuraino igoak ziren diana bat pintatzeko. Eta, jakina, hasieran, ni ezaguna izan nintekeen, baina, jakina, hain fitxatuta egoteko... Nire eskoltak iritsi eta han zegoen plana ikusi zutenean, pintada ikusi eta gainerako guztia, bada mugitzen hasi ziren, eta egun gutxi batzuen buruan deitu zidaten esanez etxer aldatzea komeni zitzaidala.” (E14)

“Egun batez jaiki eta diana bat jarrita neukan autoan. Gau batean, eskoltetako batek, larrialdi bat tarteko, zerbitzu-autoa ni beste alderdikide batekin alokatuta bizi nintzen tokitik hurbil utzi zuen aparkatuta. Irizpide orokorra da autoa ez dela aparkatu behar bizitokitik hurbil, ez dela zuzena, baina egun hartan hala izan zen. Eskolta-autoa biharamunean giltza batez marraztutako diana bat zuela agertu zen.” (E3)

“Etxebizitzaz aldatu nintzen, beste herri batera joan nintzen 2006an, eta bat-batean inork ez ninduen ezagutzen, eta niretzat liberazio bat izan zen. Hori baino lehen, batzuetan nire emaztea autotik oso jenio biziz jaitsi eta nire izena zeraman pankartaren bat kentzen zuen, auzora sartzea eragozten baitzigun. Aldi batez ez ginen pankartak kentzen ibili behar izan, zeren eta Bilbon tranpa-bonba bat jarria baitzuten, eta hartan, uste dut, ertzain bat hil zen. Hau da, garai batean pankartak kentzen genituen, eta une bat iritsi zen non ez genekien kendu behar ote genituen. Pixka bat begiratu beharra zegoen; jada kontua ez zen hartu eta badaezpada kentzea.” (E10)

2006ko martxoaren 22an, ETAk su-eten iraunkor bat iragarri zuen. 48 ordu geroago sartuko zen indarrean. Barajaseko T4 terminaleko aparkalekuko heriotza-atentatuak su-eten hori haustea ekarri zuen de facto, nahiz eta ETAREN jarduera terrorista ekainaren 6ko 00:00etatik aurrera berriz hasteari buruzko komunikatu ofiziala 2007ko ekainaren 5ean izan zen. Gure elkarrizketatu batek bere testigantzan gogoratzen zuen horrek berari eta udalbatzako beste kide batzuei sortu zien sentipena, biharamunetik guztiak terroristen helburua izatearena, ondorio guztietarako.

“Gogoan dut su-etenaren urtean eduki genuen askatasuneko sentipen emozionala. Oroitzen naiz nola egoten ginen Udaleko beste zinegotzia eta biok, eta beste gauza bat zen: ‘Kalera aterako gara!’. Eta gero, alderantziz, su-etena hautsi zenean. Oroitzen naiz nolako inpaktua izan zuen horrek alderdikide harengan eta biongan; eman dezagun gaur ekainaren 5a dela, eta esaten du: ‘Ekainaren 6an hautsiko da su-etena’ eta seian atentatu bat egon daiteke. ETA edozein gauza izan daiteke, baina gezurrik esan, sekula ez du gezurrik esaten, oso egiazalea da, eta gainera, ohartarazten du: hiltzailea da eta ahal den anker eta bihotz-gogorrena, baina oso egiazalea da. Eta, su-eten haren azken eguna zen, pentsa! Han, nire alderdikidearekin pote bat hartzen, askatasuneko azken eguna eta gero gurutze-bide hartara bueltatzea: ‘Niri tokatuko ote zait oraingoan?’.” (E2)

3.2.4. Jazarpenaren hedatze-uhina: zinegotzien isolamendu sozialetik haien familia- eta lan-inguruneari erasatera

Autobabeseko neurriek eta eskolta operatiboak berak izugarriko eragina izan zuten elkarrizketatutako pertsonen egunerokoan. Jasotako mehatxuak agerikoak eta nabarmenak ziren, eta eraildako zinegotzien albis-

te hondatzaileek ez zieten gure elkarrizketatuei zalantzarik uzten beren eguneroko bizitzan autobabeseke jarraibideen arabera jardun behar izateari buruz edo beren segurtasuna eskolta operatibo baten esku uzteari buruz. Jarraibide horien betetze zorrotzaren menpe zegoen, askotan, bizitza salbatzea, baina,aldi berean, ohitura guztiekin eta aurretik zeukaten mugimendu-askatasunarekin erabat haustea zekarren. Nagusiki, anonimatoa galtzea, eskoltak ikusgarri bihurtzen zituelako, eguna aurrez planifikatu beharra, ibilbideak eta mugimenduak aldatuz, jokabide-patroirik ez sortzeko, maiz haietatik ibili baina atentatu bat izateko aukera gehien zegoen tokiak poliki ikuskatzea, edo ibilgailuaren azpiak goizero arretaz berrikusi behar izatea hura gidatzen hasi baino lehen.

“Eskolta batekin bizitzea askatasunik gabe bizitzea da funtsean. Gaeuz nire eskoltari xehetasun guztiekin esaten nion zein izango zen biharamuneko plana.” (E3)

“Eskolta goizez, arratsaldean eta gaeuz izaten zen, 24 orduz. Ezin nintzen etxetik atera. Niri Guardia Zibila esleitu zidaten. Ordutik, eskolta-urte guztietan Guardia Zibila eduki dut, eta ezin nintzen etxetik atera eskoltarik gabe. Alegia, haiek nire etxera igo, haiek ni atean hartu eta nirekin jaitsi, eta hortik aurrera autoa ere ezin nuen eraman, ez gidatu, ez ezer ere. Auto normal batekin egiten genuen guztia, baina Guardia Zibilaren auto ofiziala zen, kamuflatua, uhin-ekortzaile batekin, pasatzean inongo artefakturik ezin aktibatzeko, eskuko sirenarekin; hau da, dena prestatua larrialdi kasu baterako, edozein gauza gertatzeko. Eta hori denbora guztian izan zen. Garai “normaletan” nik bi guardia zibilen eskolta bat neukan, nirekin etengabe zetozenak, gehi kontrazaintza deitzen zutena, zeina beste auto bat baitzen, beste bi guardia zibilekin; eta auto hori aurretik joaten zen egunean zehar joan beharreko tokietara. Toki batera iristen ginenerako, bertan zeuden jada (...). Nahitaezko baldintza bat zen, zeren eta argi baitzegoen zinegotzien aurka zihoazela, eta ordurako berdin zen edozein mailatako edozein zinegotzi, zeren eta zinegotzi bat horixe baita, herriko pertsona bat, sinesten duenaren alde lanean ari dena; baina orduan ikusi zen ez zihoazela bakarrik ministroen edo segurtasun-indarren aurka, guztion aurka baizik.” (E14)

Baldintza horrekin, isolamendu soziala (batzuetan zeure buruari ezarria, eskolta operatiboak besteengan eragiten zituen deserosotasunak kudeatzeko) eskoltatutako pertsonen lehenengo unetik ezarritako ebidentzia bat da. Ondoren, zenbait testigantza ematen ditugu, zeinetan ikusten baita nola elkarrizketatutako pertsonen inguruneek modu desberdinean erreakzionatu zuten. Batzuetan, mehatxatutako pertsonari babesa emanez eta beste batzuetan, berriz, hartatik urrunduz, haren mehatxua ez partekatzeko. Askotan, erantzuna, ikusiko dugun bezala, jarduera edo giro batzuei uko egitea izan zen, aurrez aurrekoa saihesteko; baina azkenean horrek harreman sozialak hausten eta gizabanakoak estigmatizatzen lagundu besterik ez zuen egiten.

“Nire harreman sozialak asko hondatu ziren, zeren eta esan dudan bezala, bizitza osoan izandako adiskideak, bada, gero zenbaitetan ni saihesten saiatzen baitziren; niri gerta zekidakeenaren ezpalek bat ez tokatzearen, ezta? Baina ni gehien baldintzatu nauena izan da, hain zuzen ere, askatasun faltaren aurka borrokatzea; horixe izan da gehien baldintzatu nauena.” (E7)

“Ni alde zaharretik ateratzen nintzen. Ohiturak aldatu behar izan nituen, beste giro batzuetan mugitzen hasi nintzen. Egia esatera, adiskideak izateko zortea daukat, oso adiskideak, etxera bila etortzen zitzaizkidanak ni hartzera, eta ni bertan egoteaz arduratzen zirenak, nitaz oroitzen zirenak. Askotan esaten dut, kontua ez da zuk atera nahi ez izatea, baizik eta askotan, jendea inguruan izatea deserosoa zela, eta azkenean urrundu egiten zara. Gero, eskoltekin, oso gauza bitxia izatera iritsi zen. Eskoltarekin zailagoa da, zeren eta ateratzean pentsatzen duzu: ‘Non geratuko gara?’. ‘Halako tokian jende asko dago’. Azkenean horrekin jokatu behar duzu. Zu eskoltengatik kezkatzen zara eta eskoltak zugatik. Nik zortea izan dut, zeren eta adiskideek-eta ulertu baitute.” (E11)

“Gaeuz jada ezin zinen atera. Ni 23 urterekin hasi nintzen zinegotzi; orduan, gaeuz ateratzearena jada galdu nuen, zeren eta nora joango zara, nola aterako zara, zein ordutan, zein tabernatarara... Zeure buruari baldintzak jartzen joaten zara, manifestazioak gaur bai bihar ere bai izaten baitziren, eta zuk hori guztia saihestu behar baitzenuen, zeren eta manifestazio batetik pasatu eta kristorenak entzun behar baitzenituen, izugarria zen.” (E10)

“Zure bizitza ez aldatzea nahi duzu. Badakizu zerbait alda daitekeela. Itxurak egiten saiatzen zara, ezer gertatu ez balitz bezala. Etxean ere bai. Ni amarekin bizi nintzen, biok bakarrik, eta lehenengo zen bera babestea, inork ez molestatzeko, inork ezer ez egitea, ez probokatzeko... zure bizitza da, eta pertsona horren bizitza ere bai, hori denok dugu seme-alabekin, gurasoekin, amarekin,

neba-arrebekin, bikotekidearekin edo dena delakoarekin (...). Eta arazoak hasten dira; adibidez, lagunartean –'zu bai, baina bera ez' (eskoltagatik)–. 'Jainko maitea! Baina nola joango naiz edozein lekutara, esaten badidate berarekin ezin dudala!'. Ba, azkenean edozer asmatu eta ez zara joaten. Hau esaten duzu: 'Aizu, ez daukat gogorik' edo 'Amarekin geratuko naiz'. Dena gezurra. Amari beste gezur bat esaten diozu. Beti zaude gezurretan, batzuei eta besteei. Ez duzu nahi zure bizitzan hausturak egotea. Nahi duzu dena lehen bezala izatea, baina konturatzen zara ez dela horrela. Babesteko, gezurretan aritzen zara. Amari 'Ez zoaz kalera?' 'Ez, ez daukat gogorik'. Nola joango naiz ez badute nahi honekin (eskoltarekin) joatea?' (E2)

"Eskoltak edukitzearena ongi eraman dut, dena aldarte onez hartzen baitut. Baina eskolta eduki beharrak daukan ondorioz txarrena da zure askatasuna mugatuta dagoela. Pertsona batzuk ez zaizkit hurbildu beldur zirelako. Gogorrena izan zen parrokiaren katekista izateari utzi behar izan nio. Adinekoentzako katekesi bat geneukan, eta urteak ziren katekesia ematen nuela; eta askariak egiten genituen, auzo hartako pertsonentzako bilerak. Eskoltak beti elizaren azken lerroan gelditzen ziren, ni ondoko areto batean egoten nintzen bitartean. Egun batean katekesiaren arduraduna etorri zitzaidan eta hau esan zidan: 'Begira, kontua da adineko pertsona hauek beldurra eduki dezaketela...' 'Ba al dakite, ba, haiek zer diren? Zuk ez badiezu esaten zein diren atzean eserita dauden bi horiek, haiek ez dute jakingo. Ez dute zertan jakin arma daramatela, ez delako ikusten'. Eta joateari utzi nion. Horixe izan zen gauzarik gogorrena, zeren eta nik han, zer egiten nuen? Adineko emakume batzuekin egon, ni baino are zaharragoak, bilerak egiten, proiektzioak... haiek entretenitzeko, beste ezertarako baino gehiago. Ezin izan nuen egin." (E9)

"Eta aisiaren garaia amaitu zen. Lankideekin harremanen bat izaten jarraitzen genuen; eta ateratzen ginen, etxera etortzen ziren afaltzera... Baina erabat aldatu ginen. Zera egiten genuen, kanpora joan: Asturiasa eta abar. Gugatik ez ezik, eskoltengatik ere. Gai hori beti gaizki eraman nuen. Sekula ez nintzen etsi. Ezin hitz egite hori, isilka hitz egitea, ihes eginez bezala egotea, intimitaterik gabe... errietak autoan egiten nituen, ia broman; baina, gero, haien autoarekin, ezta hori ere." (E4)

"Reiki egiten hasi nintzen. Oso gustura nengoen Reiki egiten, txangoak egiten genituen. Egun batean txango bat egin genuen eta oso-oso ondo. Eskoltek bateraino eraman ninduten. Txangoa egin genuen eta gero argazkia egin genuen arduradunarekin, txangoaren antolatzailearekin, eta hau esan zidan: 'Aizu, begira, hizketan egon gara eta beste pertsona batzuek ere esan didate: hurrengoan zu bai, baina haiek ez'. 'Ezin dudala, ba!!' (...) Ez zait normala iruditzen (horrela gertatu zitzaidan) herrikoan lan egiten duenak (ahizpa bat eduki du espetxean) ni bere tabernatik botatzea. Baina askoz ere desberdinagoa eta ezohikoagoa da bakearekin eta askatasunarekin eredu eman nahi duen pertsona batek, eta bere kideek, gero praktikan ez onartzea egoera kritikoan dagoen norbait. Eta hori guztia herrian bertan. Berehala utzi nion joateari." (E2)

Lan-arlokoa ezinbesteko eremu soziala da, zeinean batera biltzen baitira bai oinarrizko sozializazioaren berezko elementuak, bai norberarentzako eta familiarentzako ezinbesteko mantenua ere. Dimentsio horri buruzko testigantzetan azterka egiten dugunean, ikus dezakegu izugarriko zailtasunak daudela eskolta operatiboa eta jardun profesional jakin batzuk bateragarri egiteko. Halaber, agerian gelditzen da enplegu-emaile batzuentzat zeinen deseroso izango zen plantillan eskolta zeraman langile bat edukitzea.

"Lana aurkitu nuen TAOren kontrolatzaile gisa. Abenduan utzi behar izan nuen, finkoa nintzela esan eta hamabost egunera. Udan hasi nintzen baja bat estaltzeko, eta pertsona horri desgaitasuna eman ziotenez, ni haren ordeztuko nintzen. Abenduaren 10ean edo 15ean esan zidaten desgaitasuna lortzeko zorian zegoela, eta urtarrilerako ni finko gisa hasiko nintzela. Hori gertatu eta bost egunera alderditik deitu zidaten (bilera bat izan nuen alderdiko eta Guardia Zibileko kideekin) ETArekin zerrenda batean nengoela esateko. Lehenago ere agertu nintzen lauzpabost zerrendatan, eta haietan nire izena, abizenak, helbidea eta telefonoa agertu ziren, besterik ez. Baina zerrenda horretan segimendua oso sakona zen. Beraz, ez zaituzte behartzen, aholkatu egiten dizute... Guztiz bateraezinak dira lana eta segurtasuna. Honela esan zidaten: 'Kontua da muturra daukazula beti auto baten aurrean sartuta'. Eta horregatik, lana utzi behar izan nuen. Lan finkoa edukitzeko aukera galdu nuen." (E11)

"Nire semeak okerrago pasatu zuen. Bonba eta gero arreta psikologikoa jaso behar izan zuen... Eta toki batean edo bestean lan egiten jardun zuen, baina eskoltak-eta ikusten zituztenean kaleratu egiten zuten. Toki batean oso gustura zegoen, eta nagusiari esan zion: 'niregatik, jarraitu egingo nuke'; ez ziren oso lan onak, baina bueno... (E9)

“Unibertsitatearen arazoa da zure ordutegia publikoa dela, jakina dela non eta zer ordutan egongo zaren eskola ematen. Errutinak egunero aldatu behar izan nituen. Sekula ere ez nintzen ordu berean ateratzen. Etxean edukitzen ninduten, eta igual ordu erdi lehenago ateratzen ninduten, eta itzuliguruka edukitzen ninduten auskalo nondik lanera iristeraino; beste batzuetan berandu joanarazten ninduten. Hau da, errutinak sekula ere ez ziren berak izan.” (E6)

“Lan egiteari utzi zion, ez zen bere lantokira itzuli, esan ziotelako ez zirela gai bere segurtasuna bermatzeko. Etxera bidali zuten. Bonba-mehatxu bat egon zen nire senarraren lantokian. Lanean ari ziren han. Nire senarraz gain, ondoko herri bateko zinegotzi baten senarra zegoen. Haiengatik, tokia hustu zuten. Garai hartan portuan obrak egiten ari ziren eta edonor sar zitekeen txalupa batean. (...) Aurrerago jakin zen ETako komando bateko kide batek bazekiela atearen kodea zein zen (...). Ezin duzu segurtasuna mantendu, ezinezkoa da. Etxera bidali zuten txostenak egitera.” (E4)

“Lan egiten nuen lantegiak bi sarrera zituen. Horietako bat oso segurua zen, errepidetik sartzen baitzen. Enpresak sekula ez zidan giltza eman handik sartu ahal izateko, eskatu nuen arren. Beste sarrera zailagoa zen; pasabide oso estu bat zen, ibai batekin muga egiten zuena, eta horixe zen normalean erabiltzen zena. Arazoa da hor oso salduta zaudela, atentatu batetik babesteari dagokionez. Egun batean, motxila bat agertu zen han, sarrerako iskinean. Ertzaintzako artezilariek etorri behar izan zuten. Zorionez, ez zen ezer ere gertatu.” (E3)

Eskolta operatiboaren lana programatu ahal izateko eguneroko jarduera guztiak pautatu behar izateak berekin dakar inprobisaziorako gaitasun txikia izatea. Aurreikusi gabeko behar bat edo bat-bateko gertakari bat sortzen zenean, ezin zitzaien beti abisua eman eskoltei. Behin zerbitzua amaituta, eskolatutako pertsonak beren etxebizitzetan geratzen ziren, eta ez zen aurreikusten biharamunera arte ateratzea. Testigantza batzuek zailtasun horiei buruz hitz egin digute.

“Gogorra da eskolta batekin bizitzea. Beldurra duen pertsona batek eskertzen du eskolta izatea. Nik diziplinarik gabekoaren fama izan dut beti, baina sekula ere ez nuen ihes egin. Sekula ere ez nintzen atera eskoltarik gabe. Pasadizo bat etorri zait gogora: egun batean, emaztea eta biok eztabaidatu genuen ea etxeko administratzailea segurua zen ala ez, eta haserretzen joan ginen, eta kontuak okerrera egin zuen... ate-danbateko bat jo nuen eta etxetik atera nintzen; euria ari zuen eta aterkia eraman nuen. Ez nion inori abisatu. Gaua zen, 10:00ak edo 11:00k, eta, jakina, eskoltarik ez; baina etxera itzultzea umiliagarria zen. Ate-danbateko hura jo eta denbora bat eman behar nion nire buruari. Duintasunez itzuli, ezta? A zer nolako paseoa izan zen hura, beldurre!” (E5)

“Ez dakizu zein zaila den bikote-harreman bat izatea inguruan lau pertsona daukazunean. Nik, bikotea edukitzeko, Errioxatik beherago joan behar izaten nuen. Nafarroara joaten nintzen eta Nafarroan eskolta neukan. Kantabriara joaten nintzen eta denbora luzean eskolta neukan Kantabrian. Nora joango nintzen? Ez da erraza. Berez zaila da, esaten den moduan, baina pentsa ezazu zein zaila den esaten baduzu: ‘nirekin zaude eta beste bi hauekin ere bai’. Edo beste hiru hauekin, batzuetan hiru eskolta eduki nituelako.” (E11)

Nolanahi ere, jasotako mehatxuak direla-eta elkarrizketatuek izan duten antsietate-iturri nagusia halakoek familiartekoengan zuten eraginetik etorri da. Kasu horietan, babestutako pertsonak beti izan dute argi edozein babes-neurriren lehenengo helburuak izan behar zuela etxekoak babespean egotea. Tamalez, testigantza gehienetan argi gelditzen da, halaber, ahaleginak eginda ere, familiartekoek pairatu egin zituztela, ezinbestez, zinegotzien aurkako derrigortzeen eta indarkeriaren ondorioak.

“Nik pasatu dudak okerrera izan da ikustea nire bizitzak gainerakoengan eragina zuela (...) Zinegotzi hasi nintzenean, gurasoekin bizi nintzen. Etxetik ateratzen nintzenean, hantxe zeuden eskoltak, etxeko atariaren parean, nire zain. Konturatu nintzen hori gehiegizko presioa zela familiako gainerakoentzat. Neuk pentsatu nuen: ‘banoa’. Alderdiaren edo segurtasun-indarren berriazko gomendio bat izan ez bazen ere, pentsatu nuen egin nezakeen onena zela zinegotzia zen beste alderdikide batekin bizitzera joatea. Horrela familiari presioa kentzen niola sentitu nuen.” (E3)

“Esku-argi izugarri handi bat eman zidaten autoaren behealdean begiratzeko nire alabekin irteten nintzen bakoitzean. Eta hori kontuan hartuta inoiz ez zela gurekin etortzen. Mehatxatuta eta eskoltekin zaudenean hori gertatzen da, ez zarela familiarekin irteten. Nire senarra bakarrik irteten zen beti. Gu ez ginen inoiz berarekin joaten, eta are gutxiago autoan. Orduan, familia-bizitza nahiko tristea da inguruabar horiengatik.” (E8)

“Oraindik badut gauzatxo bat autoko eskularru-kaxan: gidariaren ezkerreko atean ispilu bat daukat. Halakoak erabili behar izaten genituen ikusteko auto azpian ez zegoela ‘mandatu’ bat, lata-bonba bat. Zarauzko zinegotzia zen alderdikide bati egin zioten bezala.” (E7)

Familiaren inguruan segurtasun-hesi bat sortzeko lan horretan, ikusten dugu elkarriketatutako pertsona batzuek beren senideei informazio gehiegirik ez emateko estrategia bereganatu zutela, hartara bizi zuten errealitatetik isolatuta edukitzeko; halere, beste batzuetan ikusten dugu gertatzen ari zenari buruzko xehe-tasunak ematearen alde egin zutela, familietako gazteenek erakarmentik ez sentitzeko kalean edo beren ingurune sozialean irakur zitzaketen mezuengatik.

“Nik anai-arreba txikiak neuzkan, eta eskolan oso erraza zen kaleko mugimendu guztiek haiengan eragina izatea. Halakoak hartuta zeuzkaten, eta orduan kezkatuta etortzen ziren presoan disper-tzioagatik edo torturagatik, baina sekula ere ez ziren etortzen hildakoei edo mehatxatuei buruz hitz egiten. Orduan nire gurasoek eta nik asko hitz egin behar izan genuen etxean kalean nire anai-arrebei inork leziorik ez emateko, bestela beraiekin eramango zituztelako. Zeren eta errazena baitzen ezker abertzalearen establishmentari aurka ez egitea, eta zailena, berriz, ariketa kritiko bat edo go-goeta moral bat egitea eta ezetz esatea.” (E10)

“Ni saiatzen naiz erdiaren erdia ez kontatzen. Nire emazteak bizitza osoan ez dit esan gaitzes-pen-hitz bat ere hau guztia dela eta, ez dit ezer esan pentsaraz nazakeena hau utzi behar nuela (...) Nik sekula ere ez nuen familia bilatu haiengan bermatzeko. Banekien nire erabakia zela, modu auto-nomoan eta askatasunez hartua. Gainean eraman behar nuen zama bat zen. Uste nuen ez neukala egoera bat eramaten zaila, zeren eta oraindik ere ez bainuen seme-alaba handirik. Gero ikusi dut haurrentzat zama bat dela, handitzen joaten direnean eta eskolara joaten direnean, eskola presio sozial handiko toki bat bihurtzen baita haienentzat (...) Uste dut alaba nagusiak gehiago bizitu duela hori. Escracheak egitera etortzen zitzaizkigunean –igual bi urtez astero-astero eta batzuetan astean behin baino gehiagotan egindako escracheei buruz ari naiz–, gu saiatzen ginen alaba kaletik urrunen zegoen logelara eramaten, edo telebista bolumen bizian jartzen genuen, oihuak eta mehatxuak ez entzuteko. Sei urte izango zituen orduan, eta halako batean esan zidan: ‘badakit zergatik ekartzen nauzuen hona’. Bera, nagusia, aldi batez beldur pixka batekin bizi izan zen, baina gero oneratu zen. Mutilak, berriz, gutxiago transmititzen zuen, oso berritsua bada ere, baina gutxiago transmititzen zituen gauza horiek. Aurrerago, jakin genuen presio eta mehatxu handiak pairatu zituela eskolan. Gaur egun oso ongi dauden hiru neska-mutil dira.” (E13)

Normalean, segurtasun-indarrek mehatxatuei gomendatzen zieten bere aisia Euskaditik kanpo eman zeza-tela, komandoek beren atentatuak egiteko eskura zeuzkaten informazio-sareetatik ateratze aldera. Elkarriketa batek, halere, ikusarazten du terroristen mehatxu eta jarraipena Euskaditik harago ere joan zela, hala-ko puntu bateraino non biktima beste autonomia erkidego bateko bizilekuan ere lokalizatuta baitzeukaten.

“Ni Logroñora joaten nintzen familia kontuengatik, zeren eta une hartan biziki gomendatzen zizuten ahal den denbora gehienez hemendik ateratzeko, lokalizatuta ez egoteko. Orduan, ahal izanez gero, asteburuak, zubi-egunak, oporrak eta beste guztia kanpoan pasatzen nituen. Ni askotxo joa-ten nintzen hara, ahaide batzuek han etxe bat libre baitzuten, eta askotxo joaten nintzen hara. Egun batez, ustekabeen gainera, itzuli ohi nintzen orduan itzuli beharrean, eskoltara deitu eta esan nien lehenago itzuliko nintzela, eta joan egin nintzen. Jada hemen bueltan nengoela, telefonoa joka hasi zen; lehenbizi, nire anaia bat izan zen, eta esan zidan sekula iskanbila zegoela Logroñoeko etxean, ikertzen ari zirela, polizia nazionala, guardia zibila: ‘Uste dute zure bila zihoazela Logroñon’. Eta be-rehala Intxaurrundoko guardia zibilaren eskoltaren arduradunak hots egin zidan, teniente batek, eta esan zidan bertako bulegora joateko. Esan zidan egia zela ETAren komando bat egona zela egun hartan nire zain, goizean alde egin nuenean, egun osoan nire zain; hau da, ustekabeko alde egitea izan zela. Une hartatik aurrera, eskolta jarri zidaten baita Logroñon ere.” (E14)

Pertsona horrek berak, bere etxean erasoak pairatu zituen eta bere burua etxek aldatzera behartuta ikusi zuena eta, are gehiago, ikusi berri dugun bezala, eskolaturik egon behar izan zuena Euskaditik kanpoko bere bizitokian, elkarriketa batean aitortu zuen presio horrek guztiak aztarnak utzi zituela familiako biziki-detzan, bereziki bikotekidearen eta seme-alaben kasuan.

“Gaixo terminala zen ETAko preso bat hil zen. Udaleko osoko bilkura batean guztiok botoa emana genuen pertsona hori espetxetik ateratzearen alde, zeren eta, egiazki, bizitzeko hilabete gutxi batzuk gelditzen baitzitzaizkion, ez baitzen oso humanoa espetxean hil zedin. Etxea erre zidaten hain zuzen

ere haren hileta-elizkizunaren eta hil-kaperaren garaian. Nik hori nolabait ere susmatuta nuenez, gogoratzen naiz familiari esan niola asteburu hura nire aita-amaginarreben etxean pasatuko genuela, zeren uste bainuen asteburu hartan zeozer gertatuko zela. Oso argi zegoen gutakoren bati tokatuko zitzaiola, beti berdinei, edo Alderdi Sozialistako kideren bati, edo Alderdi Popularrako kideren bati, horixe izaten baitzen ohikoena. Garai haietan hala gertatzeko txartel guztiak edukitzen zenituen. Orduan, ni gau hartan ez nengoen etxean, baina Ertzaintzak abisatu zidan nire etxea eraso zutela, eta ea joan ote nintekeen, eta, jakina, joan behar izan nuen ikusteko eta pixka bat baloratzeko. Ederki gogoratzen naiz etxea beheko solairu bat zela, eta gogoratzen naiz alabak lo egiten zuen gelako leihoa eta kontraleihoak harrika hautsiak zituztela, eta bi molotov koktel barruraino sartu zirela, baina ez zutela eztanda egin, eta alaba lo egiten zuen ohearen gainean zeudela. Bada, hori guztia, bistan denez, eragin argia dauka zure familiarengan (...) Alabak gaizki pasatu du honekin guztiarekin, baina hark ere bilakaera bat izan du haurra zen garaiko ikusmoldeetik hona. Handitu denean, aitaren lana beste modu batez ikusten joan da. Orain, uste dut esan diezazukedala bera alderdian dagoela nirekin; pentsaezina zen hori nerabea zen garaian.” (E14)

Egunero-egunero pairatutako presio eta jazarpen horrek guztiak isolamendu, bakardade eta mehatxuaren pertzepzio etengabea uzten du. Horrek osasunean izandako eragina berandu baino lehen agertzen hasi ziren, eta horixe azaldu ziguten elkarrizketatu batzuek. Batzuetan, are urte batzuen ondotik ere diagnostikatu izan da trauma osteko estresa, gaur egun ere oraindik tratatu behar izaten dutena osasun-profesionalen laguntzaren bidez.

“Bitxia da, baina nik beti pentsatu izan dut oso ondo eraman dudala, berriki gogoratzen hasi eta konturatu naizen arte: ‘Ba, hau, zera, nik ez daukat oso garbi...’, eta aholkatu zidaten: ‘Aizu, batzuetan, arrastoren bat dago jokabidean? Zergatik ez zoaz psikiatra batengana zure egoera aztertzeke?’ Eta joan egin nintzen, Gizarte Segurantzako batengana, gainera; zuzenean joan nintzen. Eta esan zidan: ‘Trauma osteko estresa da hau’. Eta oso ongi nengoela uste nuen nik. Baina, jakina, pentsatzen jarri eta bi urte baino gehiago daramatzat herrira joan gabe, guztiz apartaturik, eta gurasoak han dauzkat lurperatuta, guztiarekin ere. Udala utzi nuenetik, ez naiz joan ezta hilotia bisitatzer ere (...) Konturatzan naiz gehiegizko zainketarako joera dudala, oraindik ere hor dagoen antsietate hori guztia ateratzen dela.” (E11)

“Garai hartan guztian lasaigarriak hartzen nituen.” (E5)

“Nire senarrarekin 40 urte eman ditut, eta gauza batzuek konturatzen joaten zara. Gauza guztiengatik haserretzen da, baina ezin diozu ezer esan. Edo guztiak haren kontra gaudela esaten tematzen denean... Trauma osteko estresaren diagnostikoa eman zioten zinegotzia zen garaian (...) Jarrera konpultsibo ugari dauzka. Trauma osteko estresari buruz azterlan bat egiten ari zen psikologo batek aipatu zigun: Eta esan zidan: ‘kontua da zure senarra kasu paradigmaticoa dela; liburukoa. Aztertzeke gogoia ematen dit. Sintoma guztiak ditu. Baita zango geldiezinen sindromea ere’. Lo egiten egon eta sekula ez dute atsedenik hartzen; zartada moduko batzuk izaten dituzte hankan. Nik batzuetan kontatu egiten dut, eta 13 segundo izaten dira, matematiko. Guztiz lo dagoenean, gelditu egiten da, baina hasieran horrela egoten da. Eta esaten dute horrek ez diela sekula erabateko atseden hartzen uzten. Estresa bezala, urduritasun- eta antsietate-egoera etengabe bat da.” (E4)

Amaierarako utzi dugu eraildako zinegotzi baten familiaren testigantza. Mehatxuek iraun zuten bitartean, ahalegindu zen familia errealitate horretatik urrun edukitzen. Tamalez, hurrengo testigantzan ikusiko den bezala, emaztea eta alabak ez ziren tormentutik kanpo geratu, eta okerreana dena, zinegotzia hil ondoren osasun-profesionalen laguntza behar izan zuten hainbesteko sufrimendua gainditzeko; alaba baten kasuan, gainera, behar hori aita bizirik zela ere agertu zen.

“Eta horrek mina egin zidan, jakitea bera adiskideekin negar eginga zela. Esaten zuen: ‘Agian hilko naute, baina uste dut ezetz’. Eta, jakina! hori esatea oso erraza da, baina barrutik, nola pentsatu hori? Zeren eta gero berak sendoarena egiten baitzuen esanez: ‘Bahitu nahi banaute oso erraza da, medikazioa kendu eta berehala hilko naiz’. (...) Behar duzun laguntza bilatzen duzu eta abar. Eta pastillak behar izanez gero, hartu egiten dituzu. Hasieran, amesgaizto bat dirudi hori guztia, baina oinak lurrean jartzen dituzunean, nolabaiteko laguntza behar duzu, eta nik era guztietakoak bilatu nituen, haiei laguntzeko, zeren eta nire buruari hau esaten bainion: ‘Ongi ikusten banaute, haiek ere hobeki egongo dira’. Orduan, psikologo bat bilatu nuen, eta esan nuen: ‘Nik gauzak aurrera eraman behar ditut, nola edo hala, eta nahiago nuke hau azken atentatua balitz!’. Gero, ikusten duzu horrek jarraitu egiten duela, zeren eta urte haiek izugarriak izan baitziren, eta

atentatu bat gertatzen den bakoitzean nire haragitan sentitzen baitut; hasiera behinik behin hain gogorra da, non berriz hura biziko banu bezala baita. Gero, hedabideek ere lotsa gutxi izaten dute ateratzen dituzten irudiekin; oso gogorra da guztia. (...) Aita bizirik zela, neskak bi urtez egon behar izan zuen tratamendu psikiatrikoarekin, oso gaizki baitzegoen; bera zen kalean ibiltzen zena gauzak esaten zizkieten tokietatik, eta aitari buruzko mehatxuak ikusten zituen, bizitu egiten zuen hura guztia, ez dakit, gaizki zegoen, medikazioa behar izaten zuen, eta horregatik hartzen zituen pastillak.” (E8)

3.2.5. Erreparaziorako memoria eraikitzea eta gizartearentzako irakaspenak

Honaino ikusi ditugun testigantzetan egiaztatu ahal izan dugu elkarrizketatutako zinegotziek zein baldintza gogorretan eraman behar izan zituzten aurrera beren egitekoak, sistema demokratiko baten funtzionamendu normalak haiei eskatuko liekeenetik oso urrun. Orduan, galdera bat sortzen da: zergatik erabaki ote zuten halako zoritxarrak jasan behar izatea eta ez ote zuten sekula pentsatu beren egitekoari uko egitea, sufrimendu pertsonal eta familiar hori guztia amaitze aldera. Orduan, testigantzetan konbentzimendu bat azaltzen da, norberaren kontzientziaren aginduen alde, askatasun ideologikoaren alde eta, azken batez, aniztasun demokratikoak irautearen alde borrokan egotearena.

“Erosoena handik alde egin eta alderdia uztea zen, alderdiko ordezkaria izateari utzita ez baitzen ezer gertatuko. Horixe zen nagusiki haiek bilatzen zutena, posizioa utz genezan, eta hori ez zuten sekula lortuko (...); errazena uko egitea zen. Uko egin eta akabo arazoak, baina, noski, nik ulertzen nuen hura zela nolabait guk herrian geneukan ordezkariak, oso txikia; hura zen, nolabait, marinako kapitaina izan eta ontzia hondoratzen denean gertatu beharrekoa, kapitaina dela ontzitik irteten azkena, eta guk, nik gutxienez, uste genuen hau hondoratu baino lehen, alderdia bere tokian utzi behar zela.” (E1)

“Halakoak gertatzen ziren bitartean, ia gehiago berresten zenuen jarraitu egingo zenuela, horrela gutxienez ere ni ez nindutela makurtuko, ez mehatxuarekin, ez auskalo zer egiten saiatuz, ez etxearen aurkako erasoekin... erresistentzia kontu bat zen ia. Baina, arrazoi oso logiko bat tarteko, horrekin amaitu beharra zegoen, eta une hartan alde egitea edo herritik joatea, edo zeure zinegotzi-eginkizunak uztea edo orduan zuretzat arruntak ziren gauzetatik edozein utzi behar izatea, haiei garaipen bat ematea zen, eta une horretan ez nuen atzera urratsik egingo. Nik uste dut besteak beste hainbeste zinegotziren jarrerari esker izan dela, tente aguantatu baitute hau guztia (...); hor, soil-soilik ‘nirekin edo nire aurka’ goiburua zegoen; haiekin ez zegoen oro haien aurka zegoen, berdin zen zein aldetakoa zinen, zeren eta ikusi zenuen gero ertzainak ere nola hiltzen zituzten, gizarteko jendea nola hil zuten, kazetariak esate baterako; hau da, berdin zitzaien dena, haien moldera pentsatzen ez zuen orok edo haiekin ados ez zegoen oro oinkatu beharreko etsaia zen: argi eta garbi egon da hori. Ez dute barkatu izan haiek bezala pentsatzen ez zuen inor.” (E14)

“Indarkeria erabili zuten gainerakoak mendean hartzeko eta horrela beren tesiak inposatzeko. Haien proiektua ez zen jendea biltzekoa, jendea baztertzekoa baizik (...); haien proiektua totalitarioa da: nahi duten bakarra da haiek agintzea eta puntu. Hau da, Euskal Herria aske baten ideia erromantikoa jendea haien postulatuetara hurbiltzeko amua zen, baina egiazki bilatzen zutena beraiek agintzea zen, gainerakoek beraiek nahi zutena egitea.” (E10)

Egindako elkarrizketetan, auzitan jarri da euskal gizarteak ETaren terrorismoa izan zen urteetan bete izan zuen egitekoa.

“Erakundeen bilbean zenbat eta gorago egon, orduan eta kontzientzia gutxiago izan dute. Eta gizarteak, berriz, gizartearen zati bat beti izan da kontziente, zeren eta sufritu baitu, zuzenean ez bada, sufritzen zuenaren ondoan egoteagatik, eta, beraz, beraiek ere sufritzeagatik. Alboko kalteak; azkenean beraiek ere beren kalteak sufritu dituzte. Baina nik uste dut gizartearen gehiengoak alde batera eta bestera egiten zuela: ea ez zaidan tokatzen! Eta horregatik ez dut esan nahi okerragoak edo hobeak zirenik, zeren eta nik ulertu ere egin dezaket, norbera defendatzeko modu bat da: makurtu, ez nazatela ikus eta ez nazatela zipriztindu, zipriztintzen ez nauten bitartean bizirik jarraituko dut. Ez baikara bizi izan, bizirik iraun baizik.” (E11)

“Bestaldera begiratu izan dela’ eta abar. Dirudiena baino zailagoa da gaia. Behin baino gehiagotan pentsatu behar diren gauzak dira, goiburu estereotipatuak dira, gure pentsaeran sartzen joan direnak. Isiltasunaz hitz egiten da doilorkeria balitz bezala, bildotsen isiltasunaz. Alabaina, isiltasuna he-

rrialde honetako bakearen aldeko mugimendu garrantzitsuenaren ikurretako bat izan zen, Gesto por la Paz koordinakundearena. Isiltasuna ez da izan indarkeria baiesten duen isiltasun bat, ez da izan onartzen duen isiltasun bat, babes-barrera moduko isiltasun bat baizik. Isiltasuna segur aski familia babesteko barrera bat izan da, nor bera babestekoa eta abar. Babes-barrera bat, ideologia totalitarioaren biktima ez izateko. Agian ideia bitxiak dira, baina uste dut horrexetan dagoela afera, edo, gutxienez ere, horretatik askotxo egon zela. Beldurra egon zela? Batere zalantzarik ez dago. Baina, zer da beldurra? Beldurrari atxikitzea ote da akaso?” (E13)

“Doilorkeria, doilorkeria eta, azpimarratu behar da, doilorkeria.” (E5)

“Gizartea ezaxola egon zen hura guztia gertatzen zen bitartean, eta pixkanaka bilakatzen joan zen, zeren eta hasieran, manifestazio guztietan, hilketa bat edo bahiketa bat gertatzen zen bakoitzean izaten ziren ekitaldi publiko guztietan, oso jende gutxi baikeunden. Gero, pixkanaka, taldea handitzen joan zen, eta mehatxuak hain nabarmenak ez zirenean, orduan jendea, oro har, atxikitzen joan zen, masa bat izateraino, baina hasieran beldurra zegoen.” (E1)

“Atzera begiratzea komeni da, eta autokritika egin; ikusi une bakoitzean non zegoen bakoitza eta zer egiten zuen. Aitortu ez zela ongi egon, ezta? Nik uste dut gizarteak beste aldera begiratu izan ez balu, hau guztia ez zela hain luzea izango. Uste dut geure burua inplikatu behar dugula bizikidetzaz sortzen joateko, elkar errespetatuz, enpatiaz, bata bestearen tokian jarriz, eta hori historian islatuta utzi, zeren eta horixe baita geratu dena, eta ahal den bizikidetzarik onena eta askatasunean eta bakan oinarritutako etorkizun bat eraikitzen joan.” (E8)

Hala eta guztiz ere, euskal gizarteak ETaren terrorismoaren urteetan jokaturako paperari buruzko pertzepzioez haratago, elkarriketatu batzuk bat datoz diagnostiko honetan: erreparazioa ekarriko duen memoria-lanak euskal gizartearen inplikazioa, hezkuntza eta enpatia eduki beharko ditu. Horretarako, azpimarratu egiten digute argi utzi behar dugula biktimen, errugabeen eta delitu-egileen –biktimagile errudunen– arteko asimetria morala, kontakizun sozial justu eta erreparatzaile bat artikulatzeko, berriz ez gertatzeko bermeak dauzkana.

“Nire ustez, gizarteak, muturreko kasu batzuek izan ezik, oso argi du nor izan den ona eta nor gaiztoa. Mundu guztiak daki ETA dela erail duena, biktima asko egon direla (izan ere, jende asko biktima sentitu da, bizitza arriskuan eduki gabe ere, jazarri, iraindu... baitute). Baina Hannah Arendtek nazismoari buruz duen goiburua ‘Mundu guztia erruduna den tokian, inor ere ez da erruduna’ saihesteko oso argia izan beharra dago, eta errudunei buruz hitz egin behar da. Eta uste dut gatazka hori honako honetan dagoela: errudun horiek zein diren argi utzi behar da. Nik ez dut esaten laurogeita bost mila errudun –edo beste zenbaki bat– egon behar direnik, ez eta Nazioarteko Zigor Auzitegira jo behar denik ere, baina sozialki konturatu behar dugu erruduna nor den argi uztea dela gertatutakoa berriz ez gertatzeko txertorik onena. Biktima begi bistan baitago, eta biktimak, askotan, ez baitu nahitaez berariazko errekonozimendurik behar. Kezkatzen nauena da erruduntasunaren gaia lausotzen ari dela. Zenbait arrazoi tarteko gaizkiaren hutsaltze bat gertatu da, eta badirudi, aizu, ez dela ezer gertatu. Kaltea egin da, familiak hautsi dira, gizartea hautsi da, gauza asko eta asko konpontzeko geratu dira, baina erruduna, hasteko, ez du ezta barkamena eskatu ere. Terrorista batzuek, pertsonalki, barkamena eskatu dute. Izan ere, biktimak hori behar du, eta gizarteak ere, biktima izan den neurrian, hori behar du.” (E3)

“Hemen hilketak kalean gertatu ziren, babesgabe, desarmaturik zegoen jendea hil dute, jende errugabea. Gure testigantzetan oinarrituta hori jaso beharra dago; jendeak jakin behar du zer ez den egin behar. Hau da, ezagutzatik ateratzen da, ustez, ondorioa. Sekula jakin izan ez bagenu Hitlerrek hainbeste judu eta hainbeste jende hil zuela kontzentrazio-eremuetan, bada gaur jendeak ez zuen jakingo esaten kontzentrazio-eremu bat ona ala txarra den. Orduan, ezagutzatik ateratzen da ondorioa eta bakeari eta askatasunari buruzko jarrera ona; beti ezagutzatik. Orduan, zer ez dugun nahi jakin behar dugu. Eta sufrimendutik aiherkunde eza ateratzen da, jendearena, batasun hori guztia osa dezagun, planteamendu soziala: guzti-guztiok berdinak gara; berdintasun eta anaitasun hori. Jakintza ezagutzan dago.” (E2)

“Historia ongi kontatu beharra dago; hau da, ETA existitu zen (...), eta ETAz gainera hura osatzen zuen ingurune bat zegoen, Ezker Abertzalea, beldurra tresna politiko gisa erabiltzen zuena gizarte osoa baldintzatzeko, eta erabaki politikoak, erabaki kultural, sozial eta ekonomikoak baldintzatzeko. Hau da, dena baldintzatu zen, eta bizitza kultural, sozial eta politikoa beldurraren bidez baldintzatu zen, indarkeria modu desberdinetara erabiliz, ahozko mehatxuetatik hasi eta jo, iraindu, harrikatze-

raino, paskinak botatzeraino, etxe aurrean manifestazioak egin eta autoa hausteraino –niri ez, baina beste zinegotzi batzuei bai– Hau da, jakin beharra dago ez zela soilik erakunde armatu bat, ETA, izan herri honetan indarkeria erabili zuena; bere buruari ENAM deitutakoak (ezker abertzalea eta haren konglomeratu osoa) beldurraren estrategia baliatu zuela zinegotziak eta erakunde politiko, kultural, sozial eta kirolekoak deuseztatzeko.” (E10)

“Ez dago bizikidetzarik memoria batean, beste faktore batzuen artean, oinarritzen ez denik. Gizartea bedeinkapen bat da, eraiki beharreko bedeinkapen bat; baina etengabe eraikitzen den bezalaxe, etengabe berreraikitzen da bizikidetzarako baliagarria ez denari buruzko zuzenketa-ariketa bat eginenez. Zer zuzentzen da? Bizikidetzarako txarra dela uste dena; hori zuzendu eta alde batera uzten da. Hau da, dinamika sozialak eskatzen du bizikidetzarako txarrak edo kaltegarriak diren gauzak alde batera utzi behar dituzula. Nik uste dut pertsona guztiak, ETako preso guztiak, baita gogorrenak ere, barneratu behar direla, bizikidetzan barneratzeko helburua eduki behar dela. Baina haien esperientziak, eragindako kalteari buruz duten esperientziak, zentzu moral bat eman behar dio memoria horri. Zer dagoen gaizki erantsi behar diola memoria horri, bizikidetzan zuzendu beharreko elementu gisa, zer ez den berriz ere gertatu behar irakasten digun elementu gisa. Gertatutakoa berriz ez gertatzea ekarriko duen memoria bat nahi badugu, esan behar dugu zer den berriz gertatzea nahi ez duguna, eta zergatik ez dugun nahi berriz gertatzea. Memoriak ikasbiderik emango ez balu, ona eta txarra bereiziko ez balu, emango luke berdin zaigula gertatutakoa berriz gerta dadin.” (E13)

Memoria konpontzaile bat sortzeko neurri zehatzei dagokienez, eztabaidarako elementuak sortzen dira. Alde batetik, ohartarazten denean biktimek egonkortasuna zenbateraino galtzen duten espetxetik ateratako ETako kideei omenaldiak egiten zaizkienean; edo, berriki, euskal gizartearen azken hamarkadei buruzko unitate didaktikoen gaineko eztabaidak daudenean, giza eskubideen urraketak direla eta.

“Erreparazioa, niretzat, nahiko erraza da. Nik, neuretzat, ez nuke inongo erreparaziorik eskatuko; eskatuko nukeen bakarra da jokabideak zuzentzea; esate baterako, umiliagarria den gauza bat, hiltzaileei egiten zaizkien omenaldiak, hori niretzat umiliagarria baita. Hiltzaile bati ezin diozu omenaldi bat egin, pertsona horren hilketa justifikatzen ari baitira. Hau da, pertsona horrek egin duen hilketa: ezinezkoa da hori. Nire aburuz, hori da zuzenketa bakarra; baina jokabideari dagokion zuzenketa bat da. Nik ez dut inongo erreparaziorik behar. Zeren eta zailagoa iruditzen baitzait bestea, jokabidea zuzentzearena.” (E7)

“Nik baietz uste dut, kontakizun didaktiko bat behar dela, ezta? Izan ere, ikus dezagun, agian nik sentiberatasun berezi bat badaukat, hori pairatu baitut; kontua da hemen batzuek eskolta eraman behar izan genuela urtetan; batzuek leihoetan pertsianak jarri behar izan zituztela lehenengo solairuan bizi baitziren, eta molotov koktelak jaurtikitzen zizkietelako, eta askotan, gainera heriotzak izan baitira. Horri guztiari buruz hitz egin beharra dago, esan egin behar da hori guztia, eta gizarteak jakin egin behar du (...) Esate baterako, estortsioa pairatu dutenen kasuan eta eskolta daramatenen kasuan, bada uste dut gutxienez jakitera eman beharra dagoela hori guztia, gizarte honetan hori gertatu zela, 800 hildako baino gehiago izan zirela. Eta beste biktima batzuk ere egon zirela, estortsioa jasanakoak, eskolta eraman behar izan zutenak, torturatuak, poliziaren gehiegikeriak; hori guztia ere bai, dena kontatu behar baita. Delituak dira. Kontua ez da hilketa beste delitu batzuekin konparatzea, ez, ez, argi dago ezin dudala hilketa tortura batekin konparatu, poliziaren gehiegikeria batekin. Baina delituak dira, gradu desberdinekoak, eta legeak zigortzen ditu, ezta? Delituak dira, hau da, eskubideen urraketak, eta eskubide-urraketak direnez alertan jarri behar da.” (E12)

“Une hauetan, Jaurlaritza okerra den unitate didaktiko bat defendatzen ari da. Uste dut asmo oneko jende asko ari dela material horietarako lankidetzan, baina ‘gida didaktiko’ bat gida bat da, eta gida batek gidatu, eraman egin behar zaitu; eta zuk ezin duzu hamar irtenbide desberdin dituen labirinto bat plantatu, esanez: ‘bila ezazu bat zeuretzat’. Ezin duzu unitate didaktiko bat egin non nik hitz egin eta nirea, zintzo, kontaktzen baitut, zuri kontatu dizudan bezala, eta kito; eta ETako bat etorri eta berea kontaktzen baitu, eta beste bat etorri ez dakit nondik eta berea kontaktzen baitu; eta halako panorama bat osatzen baitugu non bakoitzak berea kontaktzen duen, eta kito. Horrela, neska-mutilek dena dakite, eta beraiek deduzitu behar dute zer iruditzen zaien.” (E5)

“Ongi legoke hori jakitera ematea. Eta haurrak haur direnetik kontzientziatzeko hitza dela gizakiak duen garrantzitsuena, gatazkak hitzaren bidez konpondu ahal ditzagun, indarkeriara jo behar izan gabe ezer ere ez lortzeko. Horiei, hainbeste jenderen bizitza suntsitu duten horiei, honek guztiak ez die ezertarako ere balio izan. Beraz, uste dut beraiek ere gogoeta egiten ari direla. Zentzutzen joango dira.” (E4)

Bi testigantza bagenituen eztabaida ezinak, elkarrizketatuei galdetu diegunean terrorismoko eta estortsioko hainbeste urtek euskal gizartean utzitako arrastoari buruz. Esparru demokratiko batean, giza eskubideekiko errespetuan guztiz oinarrituta dagoen harreman-kultura batean aurrera egiteko jokabideak eta sinesmen sakonak aldatzeko beharra dago, euskal gizartearen kasuan ez ezik, munduko beste latitude batzuetan ere, eta hori belaunaldien arteko lan bat izaten da. Azkenik, mezu positibo gisa, ikusarazi digute euskal gizartea prozesu horretatik gizarte plural baten modura aterala dela, ideologikoki anitza, eta hori jasandako hertsatzeen, erasoen eta atentatuaren aurrean beren posizioetan tinko mantendu zirenekin daukagun zor bat da.

“Nik ulertzen dut zauriak ixteko belaunaldi batzuk beharko direla, zeren eta irizpide batzuen arabera hezi zena, hainbeste urtez hain gogor lan egiten eta jarduten egon zena, egunean 24 orduz, eta orain hain atsegin, heziara oneko, txeratsu eta nahi duzun guztia bilakatzen dena... baina hori guztia urte luzetan ikasi dute, modu batez jokatu. Irizpide horiek guztiak ahaztu eta beste bide bat hartzea, hori ez da egun batetik bestera egiten. Belaunaldiak beharko dituzte; helduek, heldu horien seme-alabek, agian haien bilobek edo birbilobek, baliteke zerbait egin ahal izatea, irizpideak gehiago batu ahal izatea, baina momentuz, nik uste dut nahiko markaturik eta bereziturik egongo direla.” (E1)

“Alderdikide batek esaten zigun gu ez garela biktimak; guk irabazi egin dugula, borrokariak izan garela. Bagenekien zer egiten genuen, eta bagenekien non sartzen ari ginen, kontziente ginen (...) Ni ez bainaiz biktima sentitzen. Ni prest nago nire testigantza emateko, baina horretarako, zinegotzien, zinegotzi pila baten, lana dela-eta errekonozimendu bat egon dadin, eskubideak urratu baitzizkigute, eskubide pila bat. Ez gaituzte ez hil, ez torturatu, ez digute iraultza-zergarik eskatu, nahiz gure ingurukoei, lagundu diegun horiei bai, halakoak gertatu zaizkienean, baina bizitzako gauza asko eta asko baldintzatu dizkigute. Alde horretatik, bistan da, ENAMen indarkeriaren biktima izan gara, oinarrizko eskubideak urratu dizkigutelako. Baina, aldi berean, ni sentitzen naiz lehenengo lerroan, trintxeran, borrokatzen ibili eta defendatzen ariutako hori euskal gizarteak konkistatu duela ikusi duenaren moduan.” (E10)

4. Ondorioak eta gomendioak

4.1. Antzeman diren giza eskubideen urraketaren kalifikazioa

Aurreko atalean zinegotziek –hau da, sufragio unibertsal zuzenaren bidez hautatutako udal ordezkariak– deskribatutako egitateak, patologia sakon bat izan ziren gizarte demokratiko batean, zeren eta bai mehatxatutako pertsonen, bai haien hautesleen oinarrizko eskubideak urratu baitzituzten. Eskubide horiek modu inperatiboan aitortuta daude erreferentziako testu juridikoetan, bai etxeko mailan, bai nazioartean ere.

Desberdin pentsatzen duenaren aurkako erasoak, ezberdintasunaren suntsitzea, askatasun publikoaren sistema batek araututako edozein gizarteren oinarrizko ideien aurkako eraso bat da, eta haren aitortzak dibertsitate soziala babestea besterik ez du bilatzen. Hori dela eta, **aniztasun politikoa zaintzea** demokrazia liberaletako ordenamendu juridikoak inspiratzen dituzten printzipioetako bat da. Printzipio hori berariaz adierazita dago Espainiako Konstituzioaren 1. artikuluan. Disidentzia politikoaren aurkako erasoak baliorik sakonenaren eta demokrazia ororen azken xedearen aurkako oldar bat da.

Norberaren mailan, soil-soilik planteamendu ideologiko jakin batzuk jendaurrean defendatzeagatik edo herritarren ordezkari izateko hautatua izateagatik mota desberdinetako mehatxu eta eraso bidez intimidazioaren helburu izateak ordenamendu juridikoko gorengo baloreak urratzen ditu, hala nola, **nortasunaren garapen askea**⁸ eta zehazki, **ideologia-, kontzientzia- edo pentsamendu-askatasuna**⁹ eta **adierazpen-askatasuna**¹⁰.

8 Espainiako Konstituzioaren (EK)10. artikulua jasotzen du. Aipatzeko modukoa da Nazio Batuen Asanblada Orokorraren 1981eko azaroaren 25eko Adierazpenaren egiten den printzipio horren aintzatespena, erlijio eta sinesmenak direla eta sortzen diren bazterkeria- eta intolerantzia-mota guztien desagerepenari buruzkoa. 1.2 artikuluan hau ezartzen da: “Ezin izango da inor behartu, bere aukerako erlijio edo sinesmena edukitzeko askatasuna murrizteraino”.

9 Aipatu beharrik ez dago printzipio hori oinarrizkoa edo funtsezkoa dela edozein estatu demokratikotan. Printzipio hori honako hauek jasotzen da: Espainiako Konstituzioaren 16. artikulua, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren (GEEH) 9. artikulua, Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunaren (Nizako Gutuna) 10. artikulua eta 1976ko martxoaren 23ko Eskubide Zibil eta Politikoaren Nazioarteko Itunaren (EZPNI) 18. artikulua.

10 Aurreko eskubideekin bezalaxe, hainbat testu jasotzen dute eta ezinbestekoa da zaintzea. Espainiako Konstituzioaren 20. artikulua,

Ikuspegi politikotik, nahitaez aipatu beharra dago deskribatutako anomalia horiek nola erasan zioten ordezkari politikorako eskubideen funtzionamendu arruntari. Herritarrek sufragio unibertsal eta zuzenez hautatu dituzten pertsonak mehatxatzea eta jazarpena, zuzenean edo ordezkarien bidez, legez kontrako oztopoa jartzea da **arazo publikoetan parte hartzeko oinarrizko eskubideari**¹¹. Horrela, mehatxatutako pertsonen sufragio pasiborako eskubidea ez ezik (bozkatua izateko eskubidea), hautetsi horiek legez ordezkari gisa zituzten herritarren sufragio aktiborako eskubidea ere urratu nahi zen¹².

Lehenago eman ditugun testigantzetan ikusten denez, jazarpenarekin batera erasoak egoten ziren, eta, nolana ere, praktika horiek luzaro irauteak (kronifikazioa) kalte emozionala eragin zuen batzuetan, hau da, estres iraunkorra edo trauma osteko estresa. Mehatxuak atentatu bihurtu zirenean, zauri konponezinak gertatu ziren, eta, batzuetan, heriotza ere bai. Ildo horretatik, pertsonen **integritate fisiko eta moralerako eskubidea**¹³ urratu zen eta, kasu larrietan, **bizitzarako eskubidea**¹⁴ ere bai.

Eskolta eduki beharraren ondoriozko muga eta galerei dagokienez, eman diren testigantzetan argi eta garbi ikusten da **askatasun eta segurtasunerako eskubideari**¹⁵ eragiten diola, gizarte demokratiko batean inori ezin zaiolako askatasuna kendu, legeak ezarritako kasuetan izan ezik. Hau da, Estatuak baino ezin du askatasuna murriztu, eta legeak ezarritako kasuetan. Hemen aztertzen ari garen kasuetan murriztapen hori legez kanpo eta modu arbitrarioan ezarri zen. Bizitza babesteko eskolta operatibo baten menpe egoteak berekin dakartzan murriztapenen artean dago **joan-etorrietarako askatasunaren** murriztapena. Beste kasu batzuetan, egiaztatu dugun moduan, babestutako pertsonaren integritatea bermatzeko, helbidez aldatzeko aholkatu zitzaion eta beraz, **bizilekua askatasunez aukeratzeko eskubidea**¹⁶ urratu zen.

Eskolta eduki behar izan zuten mehatxatutako pertsonak lan-merkatuan sartzeko izan zituzten zailtasunak (testigantzetan jaso ditugunak) oinarrizko eskubide baten urraketa dira: **lanerako eskubidea**¹⁷ eta **lanbidea edo ogibidea askatasunez aukeratzeko eskubidea**.

Azkenik, agerikoa bada ere, nabarmendu beharra dago atal honetan aipatutako eskubideen aurkako erasoak Espainiako Konstituzioaren 1. artikuluan jasotako ordenamendu juridikoko gorengo balio guztiei kalte egitea dela, batez ere hauei: **askatasuna, justizia eta berdintasuna**.

GEEHren 10. artikulua, Nizako Gutunaren 11. artikulua, EZPNren 19. artikulua.

11 Bizitza publikoan parte hartzea da, beharbada, demokrazien elementu agerikoena eta adierazgarriena. Espainiako Konstituzioaren 23. artikulua, GEDUren 21. artikulua eta EZPNren 25. artikulua.

12 Asmo hori lortu nahi zuten mehatxatuta zeuden eta beren lana egiten jarraitu zuten pertsonekin, baina beste kasu askotan eskubide hori urratzeko asmoa lortu zuten, pertsona horiek hauteskundeetan aurkezteari uko egitea erabaki baitzuten, beraien aurkako edo beren ingurunearen aurkako mehatxua zela eta.

13 Egonkortasun emozionalari edo osasun psikologikoari eragitea integritate moralerako eskubidea oztopatzea da. Izan ere, pertsonen bizitzarako eta integritate fisiko eta moralerako eskubidea da Espainiako Konstituzioaren II. kapituluko lehenengo atalean (Oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak) jasotzen den lehenengoa, 15. artikuluan. Nizako Gutunaren 3. artikuluan ere jasota dago.

14 Konstituzio Auzitegiak zein Giza Eskubideen Europako Auzitegiak hierarkia bat ezartzeari uko egin diote Giza Eskubideen aitortzari dagokionez; izan ere, horiek guztiek maila bera dute askatasun publikoaren ohiko egikaritzean eta, ordenamendu juridikoaren balio gorena diren aldetik, estu lotuta daude pertsonaren duintasun-printzipioarekin (EKren 10. artikulua). Hala ere, aurrekoa horrela den arren, bizitzeko eta integritate fisiko eta moralerako eskubideak betekizun ontologikoa dira eta hori gabe gainerako eskubideak ezin dira existitu. Bizitzarako eskubidea GEEHren 2. artikuluan, Nizako Gutunaren 2. artikuluan, eta EZPNren 6. artikuluan jasotzen da.

15 Espainiako Konstituzioaren 17. artikulua, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren (GEDU) 3. artikulua, GEEHren 5. artikulua, Nizako Gutunaren 6. artikulua eta EZPNren 9. artikulua.

16 Bizilekua askatasunez aukeratzeko eta joan-etorrietarako eskubidea honako hauetan jasotzen da: Espainiako Konstituzioaren 19. artikulua, GEEHren 4. zenbakiko protokoloaren 2. artikulua, Nizako Gutunaren 45. artikulua eta EZPNren 12. artikulua. Berriz esan behar da: pertsonen oinarrizko eskubide hau Estatuak besterik ezin du mugatu, eta legeak ezarritako arrazoiengatik.

17 Lan-eskatzaileak ez dira lan bila aritzen beharizan ekonomikoagatik bakarrik; aitzitik, lan-merkatuan sartzeko garrantzi handia dauka pertsonak gizartearen parte hartzeko eta gizarteratzeko. Hori dela eta, oinarrizko eskubidea denez, ordenamendu juridikoko gorengo balioekin lotuta dago, hala nola, nortasunaren garapen askea, pertsonaren duintasuna eta bere integritate morala. Kasu honetan elementu bereziki lazgarri bat dago: lanaren galera ez da gertatzen lan-merkatuaren egoera txarragatik edo Estatuaren arduragabekeriagatik, baizik eta faktore bi horietatik kanpoko hertsapen batengatik. Espainiako Konstituzioaren 35. artikulua, GEDUren 23. artikulua, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren (EZPNI) 6. artikulua eta Nizako Gutunaren 31. artikulua.

4.2. Amaierako balorazioak

Jasotako testigantzak ikusita, ondoriozta dezakegu gure ikerketa kualitatiboak hartzen dituen urteetan (1991tik 2011ra), beren ideia politikoak eremu publikoan defendatzeagatik eta beren auzolagunak zinegotzi gisa ordezkatzegatik bereizitako pertsonen kolektibo batek hainbat indarkeria-modu pairatu zituen: bizitzaren eta integritate fisikoaren aurkako mehatxuak, hertsatze eta beldurrarazteak, bai udaleko osoko bilkurretan, bai kalean ere, eta beraien aurkako erasoak eta beraien ondarearen aurkako oldarrak; eta halakoen emaitza, askotan, lesio larriak eta are heriotza ere izan ziren. Jazarpen etengabeko indarkeria mota hori, mehatxu-sentipen jarraitua uzten duena, jazarpen indarkeria kontzeptuaren bidez definitu izan da Egoera hori bidegabea izan zen, eta demokrazia baten berezko askatasunak baliatzearekin bateraezina den patologia bat da. Sozialki eta politikoki, anomalia gaizto bat izan zen, eta bizikidetzaren demokratikoa ahuldu zuen sekula normalizat edo saihetsezintzat jo behar ez zen puntu bateraino.

Horrelako indarkeria pairatu zuten pertsonen amaierako kopurua ezin da zehaztasunez esan, zeren eta eraso horiek modu askotara gertatu baitziren, eta beldurrarazte modu horiek guztiak ez baitzitzaizkien jakinarazi kasuko agintari eskudunei, kronikoak izan zirelako. Alderdi Popularreko eta Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerrako udal ordezkariak oinarritako eskubideen urraketa sistematikoa pairatu zuten, hautagaiak izate hutsarengatik eta alderdi jakin horietan militarizazioagatik. Horrek adierazten du indarkeria-mota hori baliatu zutenek asmoa zutela eremu publikotik erauzteko formazio horiek defendatzen zituzten ideiak, eta hori udal ordezkarien aurkako jazarpen etengabearen bidez egin nahi izan zutela. Aniztasun demokratikoaren aurkako eraso horrek ongi erakusten du Euskadiko araubide demokratikoa nolako erronka jasan behar izan zuten.

Halaber, egiaztatu ahal izan den bezala, jazarpen indarkeriak iraun zen hamarkadetan zehar, beste indar politiko batzuetako ordezkariak udal eremuko erasoaren dinamikaren erdian ikusi zuten beren burua. Nabarmenezkoa da 2003an hasi zen legegintzalditik aurrera geratutakoa, orduan leporatu baitzitzaizen “lapurrak” izatea nori eta Alderdi Politikoen Legean aurreikusitako legez kanporatzeko neurriak ezarri izan ez balira Ezker Abertzaleak beteko zituen zinegotzi karguetan zeuden pertsonen. Aldi horretan, nabarmen zabaldu zen mehatxuaren espektroa. Beldurraraztearen egiturek denboran modu jarraituan iraun zuten eta aztergai dugun fenomenoak bere horretan jarraitu zuenean, ohikoa izan zen beldurrarazte hori biktimagileen iritziz disidentzia zitala ordezkatzeko zuten beste edozein pertsona-multzoren aurka ere zuzentzea.

Kapitulu honen helburua da dei bat egitea euskal iritziz publikoari hauek direla eta: egitate horiei buruz gogoeta egiteko beharra, memoria konpontzailea eraikitzeko beharra, eta biktimek pairatutako sufrimenduari enpatia sortzeko beharra. Nazio Batuen Erakundeak memoriarako eskubidearen prozesua hiru arlotan laburbildu du: egiarako eskubidea, justiziarako eskubidea eta erreparazioarako eskubidea¹⁸. Hiru arlo elkarri lotuta dituen formula horrekin bat, gure azken gogoetak neurriak proposatuko ditu arlo horietako bakoitzean.

A) Memoria eta egia. Bazterketa morala eta diferentziaren hondamena

Memoria eraikitzeko ariketaren helburua gertatutako egitateen dimentsio kualitatiboa aipatzea ez ezik, gertakari horien ondorioak aztertzea ere bada. Horrenbestez, gertatu dena ezagutu eta horrek hura pairatu duten biktimei eragin dien zuzengabekeria aitortu beharra dago. Ezagutzaren eta aitortzaren ariketa bikoitz horrek publikoa izan behar du eta, erakundeek babestuta dagoen neurrian, aitortza ofizial bat eduki behar du¹⁹. Horrenbestez, memoria konpontzaile batez ari gara, biktima errugabeentzat ez ezik –haien sufrimendu bidegabea agerian jarriko da–, gaixotasun onartezin baten baitan bizi izan den ehundura sozialarentzat ere, zeinak orain bizikidetzaren demokratikoa berreskuratu nahi baitu. Ez da ariketa erraza, zeren eta, bide horretan, gizagabekeriaren eta gure lagun hurkoen saminarenean amildegira hurbiltzeko beharrean aurkituko baikara agian²⁰.

“Gogoratzen saiatzeko” prozesuan, “historia egiten” laguntzen dugu, hau da, kontakizun kolektibo bat albatzen. Etxebarriak Mauleonek laburbildu zuten moduan, biktimen testigantza “*espazio publikoan adierazita*”

18 Joinet, Louis *La cuestión de la impunidad de los autores de violaciones de los derechos humanos (civiles y políticos)*. Amaierako txostena, gutxiengoaren bereizkeriaren eta babesaren prebentzioarako azpibatzailearen 1996/119 erabakiaren aplikazioan, 1997. Hemen eskuragarri: <http://www.derechos.org/nizkor/doc/joinete.html>.

19 Gómez Isa, Felipe, “El derecho de las víctimas a la reparación por violaciones graves y sistemáticas de los derechos humanos”. Hemen: Gómez, F. (zuz.) *El derecho a la memoria*. Bilbo: Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea, 2006, 23-75. or.

20 Múgica Munárriz, Guillermo “Algunos retos y tareas de un futuro post-ETA”. Hemen: Duplá, A. eta Villanueva, J. (koord.) *Con las víctimas del terrorismo*. Donostia: Gakoa, 2009, 119.-137. or.

ko memoria gisa ikusi behar da, herritarrek entzuteko egindakoa, edo erabilera desberdinetarako agiri-artxi-bo ireki bihurtzeko, edo prozesu judizial baterako frogagiri bihurtzeko”, edo bake-hezkuntzako prozesuetan erabiltzeko²¹.

Horri dagokionez, gorago aipatutako testigantzetan aurkitu ditugun ebidentziekin ondorioztatzen dugu Euskadiko jazarpen indarkeriari sektore sozial batzuek eutsi ziotela, bazterketa moraleko prozesu baten bitartez. Bazterketa morala gertatzen da *“gizabanako edo talde jakin batzuk azkenean balio moralak, arauak eta justizia-gogoetak aplikatzen direneko mugetatik kanpokatzen hartzen direnean. Moralki baztertzen direnak ezdeusak, baztergarriak edo duintasunik gabeak balira bezala hautematen dira, eta, horrenbestez, haiei mina eragitea onargarri, egoki eta justuzat hartzen da²²”*. Horrenbestez, kolektibo jakin batek herritarren zati bat uzten du beraiek justiziaren beren esparrutzat ulertzen duten hartatik kanpo eta, beraz, herritarren zati hori indarkeriazko erasoan menpe geratzen da. Baztertutako pertsonentzat *“bazterketak berekin ekarriko luke haiekiko joera positiborik ez egotea eta esplotazio, gorroto eta indarkeriaren helburu gisa hautatuak izateko aukera egotea; halakoak, gainera, onargarri gisa hauteman daitezke²³”*.

Ez da bistatik galdu behar ezen zinegotzien aurkako jazarpen indarkeriaren arrazoia izan zela desberdintasunarekin amaitzea, disidentzia eraztea non eta ordezkartza politikoa distantzia laburrean jokatu den eta, horrenbestez, ahulagoa den tokian. Horretarako, justifikazio-ingurune bat sortu behar izan zen, eta hark bideratu zuen biktimegileek beren burua eta beren ingurunea konbentzitzea, pentsa zezaten gertatzen ari zena, nolabait ere, biktimek *“bilatutako”* zerbait izan zela.

Ikusi den bezala, jazarpen indarkeriaren irismen soziala hazten joan da. Biktimak, lehenengo unetik, beren jarduera publikoarengatik eta beren ideologiagatik definituta egon dira, eta halakoen eragileek horrekin justifikatu izan dituzte mehatxuak, beldurraraztea eta era askotako erasoak. Hortik aurrera, arlo publikoan ETAREN agenda totalitarioa kritikatu zuen edozein pertsonak horrelako indarkeria jasan zezakeen. Horrenbestez, eta bildutako testigantzetan ere islatu den zerbait bada, indarkeria hori pairatu duten biktimek estigmatizazioa eta bakardadea hauteman dituzte.

Bazterketa moraleko prozesuak aztertu dituzten ikertzaileei jarraituz, beren justiziaren idealetik beste pertsona batzuk baztertzen dituztenak bat etorri ohi dira ondoko hauetan:

- “Baztertuak psikologikoki urrun daudela eta deslotuta daudela hautematea;*
- Baztertuak betebeharrak edo erantzukizun moralik ez edukitzea;*
- Hautematen da baztertuak ez dituztela justizia eta komunitatearen balibideak merezi;*
- Baztertuak onartzen dira justizia-kontsiderazioen barruan daudenentzat onartuko ez liratekeen egoerak.”²⁴*

Jazarpen indarkeriaren biktimekiko gertatu zen bazterketa moralaren prozesuari atentzioa ematerakoan, gonbita egin nahi diogu euskal gizarteari gogoeta egin dezan biktima errugabeek pairatutako sufrimendua-rekiko memoria konpontzaile eta enpatiko bat eraikitzeke beharri buruz, bai eta ETA banda terroristak eta haren ingurune sozialak kaltetutako aniztasunaren balioa kontuan hartzeko ere. Aurreko beste txosten batzuetan gogoratzen genuenez, memoriaren ariketa honako helburu hauetara zuzendu behar da:

- Bizi izandako egoeretan zenbait elementu patologikok (tolerantziarik eza, aniztasunaren bazterketa, norberaren iritzia indarrez inposatzea, gizabanakoa ukatzea...) izan duten eginkizuna ulertzea.
- Indarkeriaren bidegabekeria, eta beraz, biktimek errugabetasuna aintzatestea erraztea.
- Giza eskubide urraketa guztiak onartezinak direla onartzea, bai eta azaldu diren gertaerak ere.
- Memoriak orainaldiarekin lotuta egon behar du, eta are gehiago, orainaldia azaltzen lagundu behar du. Iragan kaltegarriari begiratzen diogu eta aztertu egiten dugu, oraingo balio irmoetatik

21 Etxebarria Mauleon, Xabier; *Dinámicas de la memoria y víctimas del terrorismo*, Bilbo: Bakeaz, 2007, 60-61 or.

22 Opatow, Susan “Moral exclusion and injustice: an introduction” en *Journal of Social Issues*, vol. 46, nº 1, 1990, p. 1. *Moral exclusion occurs when individuals or groups are perceived as outside the boundary in which moral values, rules, and considerations of fairness apply. Those who are morally excluded are perceived as nonentities, expendable, or undeserving. Consequently, harming or exploiting them appears to be appropriate, acceptable, or just.*

23 Martín-Peña, Javier, Opatow, Susan y Rodríguez-Carballeira, Álvaro “Amenazados y víctimas del entramado de ETA en Euskadi: un estudio desde la teoría de la exclusión moral”. Hemen: *Revista de Psicología Social*, 26:2, 2011, 177-190 or.

24 Martín-Peña, Javier, Opatow, Susan y Rodríguez-Carballeira, Álvaro, op. cit. 188 or.

abiatuta. Saihestu behar da Martínez de Bringasek²⁵ memoriaren fetitxismoa deritzona; orainaldia menperatzen duten iraganeko dinamikak, hari ulerbide eta zentzu bat emateko ezgai bihurtzen dutenak. Ariketa politiko bat, zeina lotuta baitago Hannah Arendtek *gaizkiaren hutsaltzea* deitu zuen harekin²⁶.

B) Justizia eta erreparazioa: Zorretan, aniztasunaren zainketa dela-eta

Gizarte gisa, geure buruari ezarri diogu memoria egiteko betebeharra, zeren eta ulertzen baitugu justizia egiteko betebeharra badaukagula. Horrenbestez, aurkitzen dugu memoria eraldatzaile bat eduki behar dugula, zertarako eta birgogoratze-ariketa huts bat ez bihurtzeko. Memoria eraldatzaile bat da memoria konpontzailearen klabea planteatzen dena, hain zuzen biktimagileek biktimei kendu nahi izan dioten horri begira, bai eta gizarteari berari begira ere, bizikidetzaren demokratikoaren klabea.

Memoriaren erabilerak honako honetarako balioko du: erreparazioaren oinarriak ezartzeko eta biktimei eskubideak emateko²⁷. Elkarrizketatu ditugunetatik batzuek ohartarazi digute memoriaren eraikuntza etiko bat ezartzeko beharrari buruz. Ariketa hori izango litzateke biktimei eragindako mina aitortzeaz gainera, moralki jarrera bat hartzea, kalte hori zuzengabetzat eta, horrenbestez, onartezintzat kalifikatuz. Biktimak modu arbitrarioan jazarri ziren, borroeroek baizik ezagutzen ez zituzten akusazio batzuetatik defendatzeko aukerarik eman gabe. Horrek inspirazio-iturri ditugun justizia-idealak nabarmen kaltetzea dakar, bai eta bizikidetzaren demokratikoaren printzipio etikoak ere, haiek edukirik gabe uzteraino.

Gizarte gisa, guri dagokigu aitortza-moduak artikulatzea eta erreparazio eraginkorrerako neurriak ezartzea²⁸. Horri dagokionez, gomendatzen dugu hainbeste erabili diren formula batzuetara ez jotzea: “inor ere ez da egiazki erruduna” edo “gizarte osoa da erruduna”. Izan ere, praktikan haien eragina da gertatutakoaren erantzukizuna lausotuz gelditzen dela. Azken batez, guztien ekintzak parekatuz gero, dela haien erantzukizun-maila gorenean, dela maila txikienean, inor ez da ateratzen egiazki gertatutakoaren errudun²⁹.

Bere ikuspegi kolektiboan, aitortu beharra dago jazarpen indarkeria euskal gizartearen aniztasun politikoa- ren aurkako eraso bat izan dela, eta mehatxatutako pertsonen erakutsi zuten erresistentzia-bokazioak egiteko erabakigarria izan zuela aniztasunaren iraupenean; hain zuzen ere, aniztasun horixe da demokrazia ororen funtsezko oinarria.

Aurreko txosten batzuetan adierazi izan dugun bezala, memoria konpontzaile batek ondoko hauek hartu behar ditu kontuan:

- Biktimen sufrimenduarekiko enpatia, hau da, laguntza ematea eta elkartasuna adieraztea. Jasandako sufrimenduaren inguruan kontakizuna eraiki duen gizarte batek aitortu behar du bidegabekeria hori, eta eskubideak urratuta eduki zituzten pertsona horiekin sentibera izan behar du. Komeni da azpimarratzea, lehen esan bezala, horrek ez duela esan nahi biktimen ideologiarekin ados egotea³⁰. Desadostasun politikoa zilegi da gizarte guztietan eta beharrezkoa da, hain zuzen ere, justiziaren prozesua eta eztabaida ideologikoa bereiztea. Hortxe dago, baita ere, eskuzabaltasun demokratiko eta desberdinen arteko bizikidetzaren ariketa garrantzitsu bat.

- Nabarmendu dugu mehatxatutako pertsonak gizarte-estigmatizazioko prozesu baten menpe egon zirela. Beharrezkoa da pertsona horiei errehabilitazio soziala eta morala eskaintzea. Kendutako edo zailantzan jarritako balioa eta duintasuna berriro itzultzea.

- Gainera, gure ikerketaren helburuko pertsonak adierazpen-askatasuna erabiltzeagatik edo aldarrikapenak egin eta herriaren alde lan egiteko hautatuak izateagatik mehatxatu eta hertsatu zituztela kontuan hartuta, beharrezkoa da erresilientziaren balioa nabarmentzea, bai eta prezio pertsonal handia ordainduta beren eskubideak baliatzen jarraitzeak duen balioa ere.

25 Martínez de Bringas, A. “De la ausencia de recuerdos y otros olvidos intencionados. Una lectura política de los secuestros de la memoria” en Gómez, F. (dir) *El derecho a la memoria*, op. cit. 270-275 or.

26 Arendt, Hannah. *Eichmann en Jerusalén*, Barcelona: DeBolsillo, 2009.

27 Etxebarria, Xabier. *Dinámicas de la memoria y víctimas del terrorismo*. Bilbo: Bakeaz, 2007, 83-93 or.

28 Bilbao, Galo y Etxebarria, Xabier. *La presencia de las víctimas del terrorismo en la educación para la paz en el País Vasco*. Bilbo: Bakeaz, 2005.

29 Etxebarria, Xabier. *Dinámicas de la memoria y víctimas del terrorismo*. Op. cit., 90 or.

30 Múgica, Guillermo. op. cit. 131 or.

-Biktimen galera konponezina da. Ezinezkoa da sortutako kaltea erabat ordaintzea. Inork ezin dizkie biktimei itzuli kendutako denbora, galdutako aukerak, kendutako integritate fisiko eta morala eta, are gutxiago, senideren bat hil zietenean. Konponezintasun hori, bai eta eragileen eta biktimen artean dagoen asimetria morala ere, aitortzea memoria-ariketa ororen betekizun morala da. Memoriak iraganaren bizipenezko eraldatze bat ere bilatzen du, eragindako bidegabekeriaren aitortpenaren bidez, bai eta hainbeste sufrimendu sorrarazi zuen iragan horretaz bestelako etorkizun bat balioan jartzea ere. Horrek beste fase bati ekitera garamatza: ulertze eta adiskidetzea.

-Orain arte esandako guztiagatik, justiziak kalte-ordaina ekarri behar du. Europar Batasuneko legeriak ematen duen definizioaren arabera, justizia leheneratzailea hau da: *“biktimek eta arau-hausleek, horretarako baimena askatasunez ematen badute, zigor arloko arau-haustearen ondoriozko arazoei irtenbidea ematea ahalbidetzen duen prozesua, hirugarren inpartzial baten laguntza”*³¹.

C) Gizartearen adiskidetzea eta kohesioa. Gertatutakoa berriz ez gertatzeko konpromisoa

Gizarte-adiskidetzea, komunitate-politika den aldetik, memoria, justizia eta leheneratzeko prozesu guztien azken helburua da. Adiskidetzetik gabe, bakea su-eten bat izango litzateke, luzeagoa edo laburragoa, eta gizarte-haustura gailenduko litzateke. Fase honetan, beharbada, biktimen barkamena egon daiteke, baina baldintza hori ez dugu hemen sartu, oso ekintza pertsonala eta borondatezkoa baita, eta ezin da inoiz halakorik eskatu. Barkamenaren ordeztu, ulertzeko baldintza sartu dugu. Hannah Arendt-ek ulertzeari eta adiskidetzeari buruz hitz egin zuen:

*Adiskidetzea ulertzearekin batera doa, ezinbestez, eta horrek tout comprendre c'est tout pardonner ohiko gaizki-ulertzea ekarri du. Hala ere, barkamenak ia-ia ez dauka zerikusirik ulertzearekin, ez baita horren baldintza, ezta ondorioa ere. Barkamena (zalantzarik gabe, gizakiaren gaitasun handienetako bat, eta, beharbada, ekintzarik ausartena, itxuraz ezinezkoa dena -egindakoa desegitea- egiten saiatzen delako, eta dena amaituta zegoela zirudienean, hasiera berria ezartzea lortzen duelako) ekintza bakarra da eta ekintza bakar batean amaitzen da. Ulertzeak, ordea, ez dauka amaierarik, eta beraz, ez du egiazko emaitzarik sorrarazten; gizakien bizimodu espezifikoak da, gizabanakoak arrotz bezala jaio den munduarekin adiskidetu beharra daukalako, eta mundu horretan arrotz bezala jarraituko du beti, bere bakartasun espezifikoak dela-eta... Totalitarismoa ulertzeak ez dakar barkamena berekin, aitzitik, halakorik gerta daitekeen munduarekin adiskidetu ahal garelako esan nahi du*³².

Egile alemaniarren definizioaren arabera, ulertzeak adiskidetzeko prozesu politikoaren giza alderdiak eta gizartearen aintzatestera bultzatzen gaitu. Ondorioz, adiskidetzea honela definitu daiteke: topaketa publikoaren prozesua, non tarteko pertsonak komunitate politiko gisa aitortzen duten jasandako oinarritzko esku-bideen urraketa eta bidegabekeriak onartezinak direla. Prozesu hori harremanen esparru berria eraikitzeko oinarria da, eta esparru berri horretan giza harremanen etikarekiko eta arau demokratikoekiko begirunea bide bakarrak dira etorkizunean sor litezkeen auziak konpontzeko, betiere gertaera horiek berriz ez gertatzeko helburuari begira³³.

ETAren eta bere ingurunearen erasoan kasu honetan, biktimagileek beraiek irmotasunez adierazi behar dute adiskidetzeko konpromisoa, eman dugun definizioarekin bat etorriz. Adiskidetzeko prozesu baterako ezinbesteko urratsak dira, batetik, bidegabekeria eta kaltea egin dela berriaz eta zintzotasunez adieraztea, eta bestetik, iraganeko akats berdinak ez errepikatuzko konpromisoa adieraztea. Adiskidetzeko prozesua berez luzea izango da eta oztopoz beteta egongo da, irain, susmo, gaitzespen, aurreiritzi, gaizki-ulertze... ugari gairitu beharko dituelako. Sentimendu negatibo asko daude metatuta eta horrek esan nahi du erakunde pribatu eta publikoek topaketa-foroak antolatuzko lan handia egin beharko dutela, erakunde horiek baitira hausnarketa-prozesuen gidariak edozein gizartetan. Biktimek eta biktimagileek komunikazio-espazioak izan beharko lituzkete adiskidetzeko gizarte baterako konpromisoa adierazteko, bizi izandako trauma hutsaltzeko edo ahazteko, jasandako kolpeak biktimagileei itzultzeko tentazioak ezabatuta.

31 2.1. artikulua Europar Batasunaren Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/29/EB Zuzentaraua, 2012ko urriaren 25ekoa, delituen biktimen eskubideen, laguntzaren eta babesaren inguruko gutxieneko arauak ezartzen dituen. Zuzentzarau horrek Kontseiluaren 2001/220/JAI esparru-erabakia ordeztzen du.

32 Arendt, Hannah “Comprensión y política (Las dificultades de la comprensión)”. Hemen: *Daimon, Revista de filosofía*, 26 zk., 2002, 17-18. or.

33 Definizio hori lan honetan dago oinarrituta: Nordquist, Kjell Åke “¿La verdad de quién? ¿Cuál reconciliación? Sobre la reconciliación como concepto político”. Hemen: *Estudios de filosofía*, 2008, 491.-497. or.

5. Bibliografía

Arendt, Hannah. "Comprensión y política (Las dificultades de la comprensión)". Hemen: *Daimon, Revista de filosofía*, 26 zk., 2002, 17.-30. or.

Arendt, Hannah. Eichmann en *Jerusalén*, Barcelona: DeBolsillo, 2009.

Azurmendi, José Félix. *ETA de principio a fin. Crónica documentada de un relato*. Donostia: Tarttalo, 2014.

Bilbao, Galo eta Etxebarria, Xabier. *La presencia de las víctimas del terrorismo en la educación para la paz en el País Vasco*, Bilbo: Bakeaz, 2005.

Etxebarria, Xabier. *Dinámicas de la memoria y víctimas del terrorismo*, Bilbo: Bakeaz, 2007.

Gesto por la Paz. "Violencia de persecución". Hemen: *Palabras de Paz*, 40 zk., 2000ko iraila.

Gómez, Felipe. "El derecho de las víctimas a la reparación por violaciones graves y sistemáticas de los derechos humanos" en Gómez, F. (dir) *El derecho a la memoria*, Bilbo: Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea, 2006, 23-75. or.

Joinet, Louis. *La cuestión de la impunidad de los autores de violaciones de los derechos humanos (civiles y políticos)*. Amaierako txostena, gutxiengo bereizkeriaren eta babesaren prebentziorako azpibatzaordearen 1996/119 erabakiaren aplikazioan, 1997. Hemen eskuragarri: <http://www.derechos.org/nizkor/doc/joinete.html>

Marín-Peña, Javier; Opatow, Susan eta Rodríguez-Carballeira, Álvaro. "Amenazados y víctimas del entramado de ETA en Euskadi: un estudio desde la teoría de la exclusión moral". Hemen: *Revista de psicología social*, 26:2, 2011.

Martínez de Bringas, Asier. "De la ausencia de recuerdos y otros olvidos intencionados. Una lectura política de los secuestros de la memoria". Hemen: Gómez, F. (dir) *El derecho a la memoria*, Bilbo: Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea, 2006, 267-294. or.

Múgica Munárriz, Guillermo. "Algunos retos y tareas de un futuro post-ETA". Hemen: Duplá, A. eta Villanueva, J. (koord.) *Con las víctimas del terrorismo*, Vitoria-Gasteiz: Gakoa, 2009, 119.-137. or.

Nordquist, Kjell Åke. "¿La verdad de quién? ¿Cuál reconciliación? Sobre la reconciliación como concepto político". Hemen: *Estudios de filosofía*, 2008, 491.-497. or.

Opatow, Susan. "Moral exclusion and injustice: an introduction". Hemen: *Journal of Social Issues*, 46. liburukia, 1. zk., 1990, 1.-20. or.

Pérez, Kepa. *La violencia de persecución en Euskadi*, Bilbo: ADDH eta Eusko Jaurlaritzza, 2005.



A large, bold, grey number '4' is centered on the page. Below the number is a solid grey circle. The background features abstract, overlapping white and light grey shapes that resemble torn paper or layered planes, creating a sense of depth and movement.

dokumentua



Pertur kasuari buruzko txostena:
gaiaren egungo egoera

Pertur kasuari buruzko txostena: gaiaren egungo egoera

EHU Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedra



Giza Eskubideen eta
Botere Publikoen Katedra
Cátedra de Derechos
Humanos y Poderes Públicos



2017ko maiatzaren 17a

Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren
enkarguz egina

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Giza Eskubide, Bizikidetzeta
eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General de Derechos Humanos,
Convivencia y Cooperación

Aurkibidea

Sarrera

I. ***Pertur*** kasuaren historia

1. Sarrera
2. Eduardo Moreno Bergaretxe *Pertur*
3. *Perturren* desagertzea
4. Desagertzea baino lehen
 - 4.1. Familiaren etxebizitzaren aurkako atentatua
 - 4.2. *Perturren* aurkako mehatxuak
 - 4.3. Marta Bergaretxe Ituarteren atxiloketa
 - 4.4. Marta Bergaretxe desagertutako bi polizia espainiarrekin trukatzeko ekimena
 - 4.5. La Voz de España egunkariak ETAko militanteen aurkako ofentsiba bat iragarri
 - 4.6. José Amedoren liburuan bahitutako polizia-inspektoreei buruz egiten den aipamena
 - 4.7. Indarkeria politikoa 1975. eta 1976. urteetan
 - 4.8. ETApn-ren egoera 1976an
5. Desagertzearen ondoren
 - 5.1. Donibane Lohizuneko eta Donostiako polizia-etxeetan aurkeztutako salaketak.
 - 5.2. Erreibindikazioak
 - 5.3. Trukeari buruzko zurrumurrua
 - 5.4. ETApn-ren baitan egindako ikerketak
 - 5.5. ETApn-ren VII. Biltzarra. 1976ko abuztua-iraila
 - 5.6. Frantziako diligentziak
 - 5.7. 1978: Familiak “Bereziei” buruz dauzkan susmoak

- 5.8. ETA m-k familiari emandako erantzuna
- 5.9. Biriatuko hilerrian. 1997ko iraila
- 5.10. José Antonio Sáenz de Santa Mariak “gerra zikina”ri buruz esandakoak 1998an
- 5.11. 30. urteurrena (2006)
- 5.12. Italiako sumarioa: ETAREN aurka Frantziako hegoaldean
- 5.13. Auzitegi Nazionaleko kereila
- 5.14. F. Andreu epailearen instrukzioa
- 5.15. Ángel Ugarte eta Emilio Rodríguez Román zitatzeko berraztertze errekurtsoa. 2010eko urria
- 5.16. Autoa
- 5.17. Ondorio gisa

II. *Pertur* kasua: Prozedura irekitzeko eta zigorra ezartzeko aukerei buruzko arazoak nazioarteko estandarren eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentziaren ikuspuntutik

- 1. Sarrera
- 2. Espainiako Auzitegi Gorenaren irizpidea
 - 2.1. Zigor arloko prozedura eta egiaren bilaketa
 - 2.2. Legezketasun-printzipioa
 - 2.3. Sintesia
- 3. Nazioarteko ikuspegia
 - 3.1. Delitu iraunkorrak eta haien preskripzioa
 - 3.2. Amnistia Legea aplikatzekoa den ala ez
- 4. Egungo egoera prozesala eta etorkizunerako perspektibak

III. Sintesi bat: amaierako gomendioak

Bibliografia eta bestelako iturriak

Sarrera

Txosten hau Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak eskatu zion 2016ko irailean UPV/EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedrari. Urte bereko ekainean, bi erakunde horiek lankidetzaz hitzarmen bat sinatua zuten Katedra sortu, garatu eta sostengatzeko, eta hitzarmen horretan jardueren programa bat zehaztu zen, zeinean jaso baitzen ikerketa-ildo bat egotea Euskadin motibazio politikoko testuinguruan gertatutako giza eskubideen urraketako kasu enblematikoei buruz.

Txostenak oinarritzako hiru atal dauzka: egitateen deskribapena; haien azterketa juridikoa eta amaierako hainbat gomendio. Txostenarekin asmoa ez da izan ikerketa bat egitea egitateak behin betiko argitzeko —horretarako ez eskumenik, ez ahalmenik ez du Katedrak—, baina bai bilketa ahal den fidagarriena egitea gaiaren egoerari buruz, sekula argitu ez den egiletzari buruzko bi hipotesien arabera (ETA versus Estatuaren aparatuetan). Lehenengo atalean zehar zabaltzen doan bilketa horretan datu ukaezinak ez ezik, funtsean bigarren mailako iturrien bidez (hemeroteke, liburuak...) eta eskura dagoen material judizialaren bidez argitzen joan diren erreferentziak ere jaso dira.

Bigarren atalean, “prozedura irekitzeko eta zigorra ezartzeko aukerei buruzko gaiak” deitu direnak aztertzen dira, bai barneko ikuspegitik, bai nazioarteko ikuspegitik ere. Azterlana, azterketaren sakontasunari dagokionez, hura egiteko izan dugun denbora-tarteari egokitzen zaio. Lanaren profila gehiago da konklusio bat ateratzekoa eta asertiboa espekulatiboa baino, zeren eta gehiago bilatzen baitu txostena eskatu duen erakundeari, geroko erabakiei begira, abiapuntu fidagarri bat ematea, sortzen diren galderei buruzko eztabaida zientifiko eta jurisprudenzia-eztabaida irristakorretan —amnistia eta indarrezko desagertze kasu hauen preskripzioa, esate baterako— sakontzea baino. Nolanahi ere, ezinbestekoa zen gaiaren egoerari eta etorkizunerako perspektibei buruzko argitze bat, kasu hau gaur egungoa dela aintzat hartuta: Eduardo Moreno Bergaretxek —*Pertur* ezizenaz ezagunak— desagertuta jarraitzen du. Eta desagertuta jarraitzen duenez, horrek berekin dakarren zuzengabekeriak egunetik egunera gaurkotzen jarraitzen duenez eta sufrimendua ren sorrera gelditu ez denez, lanaren amaiera sintesi erako hainbat gomendiorekin egiteko premia zegoen.

Txostena, nagusiki, Bertha Gaztelumendik egin du, bera arduratu baita, funtsean, egitateen atalaz; Enara Garrok, berriz, arreta handiagoa eskaini dio azterketa juridikoari. Jon-M. Landa txostenaren zuzendaritzaz eta koordinazioaz arduratu da.

Ez genuke sarrera hau amaitu nahi eskerrik beroenak eman gabe Martin Auzmendi abokatuari, material judizial ugaria Katedraren esku uzteagatik, helarazi dizkigun jarraibide eta informazioengatik eta, batez ere, proiektu honekiko izan duen jarrera hurbilagatik. Haren ekarpenak zinez erraztu digu lana.

I

Pertur kasuaren historia

1. Sarrera

Eduardo Moreno Bergaretxe bahitu zutenetik eta desagertu zenetik 40 urte iragan ondoren, egitate horri buruzko ia daturik ez dago, eta are gutxiago erantzunik. Ezer ere ez dakigu 1976ko uztailaren 23ko eguerdi hartan gertatutakoaz, Apalak eta Pakitok Pertur Donibane Lohizunetik Behobiara (Hendaia) autoz eraman eta mugatik hurbil utzi zutenetik. Lehenengo susmoak Espainiako talde parapolizialei buruzkoak izan ziren, zeren eta ordurako hainbat atentatu eginak baitzituzten ETako errefuxiatuen aurka Ipar Euskal Herrian. Gainera, Pertur desagertu eta egun gutxiren buruan “Alianza Apostólica Anticomunista de España” eta “Batallón Vasco Español” taldeek bahiketa erreibindikatu zuten, eta arestian aipatutako ideia indartu zuen horrek.

Hala eta guztiz ere, urte eta erdi igarota, ETApM-ko komando berezietako burukideen (Eugenio Etxebeste, Miguel Ángel Apalategi eta Francisco Mujika Garmendia ziren liderrak) eta Perturren artean zegoen lehia ezagututa eta jakinda Apala eta Pakito izan zirela Pertur bizirik ikusi zuten azkenak, Perturren familiak haiek seinalatu zituen susmagarri gisa.

Egun, Martin Auzmendik, Perturren militantziako kide, abokatu eta familiaren lagun denak *“haren bahiketa eta desagertzea argitzeko”* eskatzen jarraitzen du¹. Auzmendik salatzen du *“ETA erakundeak eta haren inguruneak urte hauetan guztietan gertatutakoa argitzeko izan duen interes eza eta Espainiako agintari polizialek urte hauetan guztietan zehar ezer ere ikertu ez izana”*², Fernando Andreu epaileak egindako diligenzietan agerian geratu zen moduan.

Auzitegi Nazionaleko magistratuak lau urtez ikertu zituen bi hipotesi horiek, “Bereziak” egile gisa seinalatzen zituena eta Espainiako zerbitzu polizial eta parapolizialak edo neofaxista italiarrak arduraduntzat jotzen zituena. Auzmendik dio sinetsita dagoela *“batzuek badakitela zer gertatu zen, baina isilik daude. Itxura guztien arabera, bere konfiantzako pertsonaren baten parte-hartzearekin, Pertur amarruzko hitzordu baten biktima izan zen; bahitzea eta desagerraraztea prestatua zutenengana eramatea zen hitzordu horren xedea”*³.

Eduardo Moreno Bergaretxeren desagertzearen 40. urteurrenean, 2016ko uztailaren 17an, Diario Vasco egunkarian argitaratutako gutun batean, haren guraso eta anai-arrebek azaldu zuten denbora honetan guztian denetatik bizi izan dutela, *“hasiera bateko nahasmena, zalantza, amorrua, bertsio desberdinak, pista faltsuak, manipulazioa, omenaldiak eta huts egindako ikerketak; eta urrats bakoitzean itxaropen-izpi bat izan dutela eta gero berriz ere etsipena”*.

Gutun berean samingarritzat jotzen dute gaur egun oraindik ere *“zer gertatu zen ez jakitea”*, eta honako hau aipatzen dute: *“ezer ere ez daukagu, mina eta pena izugarri bat baino ez”*. Gutunaren amaieran dei bat egiten diote *“egiazki zerbait badakiten pertsonen kontzientziari. Esan diezagutela zer gertatu zen eta, batez ere, non dagoen, azkenean kapitulu hau behin betiko itxi ahal dezagun”*⁴.

2. Eduardo Moreno Bergaretxe Pertur

Donostian jaio zen 1950eko urriaren 13an. 1972an Frantziara erbesteratu zen, Bilbon poliziengandik ihes egin ondoren. Donibane Lohizunen bizi zen, errefuxiatu politiko gisa.

ETApM-ko buruetako bat izan zen, eta bulego politikoaren arduraduna, *Erreka* esaten zioten Javier Garaialderekin batera. Pertur desagertu aurreko hilabeteetan, Perturrek eta Errekak “Otsagabia” ponentzia idatzi zuten, zeinean Franco hil ondoren zabaltzen zen garai politiko berrian, bide politiko bat irekitzearen alde egiten baitzuten, borroka

1 AIZPEOLEA, L.R. “¿Qué fue de Pertur?” *EL PAÍS*. 2016ko uztailaren 23a.

2 AUZMENDI, M. “Pertur: ostirala, 2016.eko uztailak 22ostirala, 2016.eko uztailak 2240 años desaparecido” *ELDIARIO.ES*, 2016ko uztailaren 22a. 2016ko urriaren 19a.

3 AIZPEOLEA, L.R. “¿Qué fue de Pertur?” *EL PAÍS*. 2016ko uztailaren 23a.

4 EFE. “Perturren familiak “zerbait badakitenei” eskatzen die “non dagoen” esan diezaietela”. 2016ko uztailaren 17a.

armatua atzealdean utziko zuena. Proposamen hori ETApm-ren VII. Biltzar Nagusian onartu zen, 1977ko abuztu-irailetan, Pertur desagertu ondoren. Erabaki hori da gero EIA (Euskal Iraultzarako Alderdia) alderdi politikoaren sorrera ekarriko zuena. Eduardo Moreno Bergaretxe 1976ko uztailaren 23tik, ostirala, dago desagertuta.

3. Perturren desagertzea

Jarraian, Perturri buruz ezagutzen diren azken datuak emango ditugu, hura desagertu aurrekoak, Moreno Bergaretxeren gurasoek 2008ko maiatzean aurkeztutako kereilan jasota dauden moduan.

“Eduardo Moreno Bergaretxek 1976ko uztailaren 22tik 23rako gaua Donibane Lohizunen bizitoki zeukan apartamentuan eman zuen.

Uztailaren 23an goizeko 9:00etan irten zen bere apartamentutik hitzordu batera joateko. Hitzordu hori egun batzuk lehenagotik jarria zuen Hendaiako Mugalde liburu-dendaren bitartez. Hitzordua 10:00etarako jarrita zegoen, Donibane Lohizuneko Consolation kafetegian, ustez “orain dela hilabete ezagutu zenuen eta berriz ere zu ikusi nahi zaituen pertsona batekin” biltzeko. Kafe horretan lanean ari ziren pertsonen lekukotasunaren arabera, uztailaren 23ko goizean Eduardo ez zen establezimendu horretara iritsi, zergatik ez zen iritsi inork ez dakiela.

Donibane Lohizunen bertan, 09:40ak aldera, Eduardo Miguel Ángel Apalategi Aierberekin, Apala, eta Francisco Mujika Garmendiarekin, Pakito, egina zuen topo. Horiek Hendaiara bizi ziren, eta autoa bazeukaten. Haiak adierazitakoaren arabera, Eduardo Moreno Bergaretxek galdetu zien Hendaiara joateko asmorik ba al zuten, eta hala bazen, Behobiaraino eramango ote zuten. Betiere haiak esandakoaren arabera, baiezko erantzuna jasota, autoan sartu zen Miguel Ángel Apalategi Aierberekin eta Francisco Mujika Garmendiarekin. Hori guztia hirurak ezagutzen zituzten bi lagunek ikusi omen zuten; horietako bat, Eleuterio Jauregi Beloki, Trotsky, izan zen. Horrela, esandakoaren arabera, Apalak eta Pakitok Behobian utzi zuten Pertur, Irungo mugatik hurbil zegoen bidegurutze batean, eguerdiko 11:30ean gutxi gorabehera”⁵.

4. Desagertu aurretik

Eduardo Moreno Bergaretxe desagertu baino zenbait hilabete lehenago, kasuaren ikerketarako garrantzitsuak diren zenbait gertakari izan ziren. Aipatuko ditugun egitateak ez dira isolatuak, lotura bat baitute elkarren artean, eta lotura baitute, halaber, Perturren familiarekin eta gertukoekin.

4.1. Familiaren etxebizitzaren aurkako atentatua

Lehenbizi, gogorazi behar dugu, Irunen, Moreno Bergaretxeren familiaren etxebizitzaren aurka Batallón Vasco Españoleko kideek 1975eko azaroaren 20an egindako atentatua⁶.

4.2. Perturren aurkako mehatxuak

1976ko martxoaren 25ean, Eduardo Moreno Bergaretxek salaketa bat aurkeztu zuen Donibane Lohizuneko polizia-etxean, “Union Patriótica Nacional” Espainiako eskuin-muturreko taldeak sinatutako gutuna jasoa baitzuen. Hartan, egileek Perturren gurasoen kontra jotzeko mehatxua egiten zuten, ETApm-k 1976ko martxoaren 18an bahitutako Ángel Berazadi industrialia berehala askatzen ez bazuten.

⁵ Auzitegi Nazionalen maiatzaren 13an aurkeztutako kereila.

⁶ RUIZ DE AZUA, V “Un «ultra arrepentido» denuncia actuaciones de miembros del Batallón Vasco Español en Euskadi”. *EL PAÍS*. 1981eko irailaren 3a.

Gertakari hori aipatu egiten da Frantziako Polizia Judizialak Eduardo Moreno Bergaretxeren desagertzeari buruz egindako txostenean. Agiri berean aipatzen da Moreno Bergaretxeren izena *“bahiketa horren ardura-dun nagusi gisa”* aipatu zela⁷.

4.3. Marta Bergaretxe Ituarteren atxiloketa

Pertur desagertu baino lau hilabete lehenago, 1976ko martxoaren amaieran, Eduardo Moreno Bergaretxeren ama Irungo mugatik hurbil atxiki zuten, semea ikustera zihoanean. Marta Bergaretxe Irungo poliziako buru López Maturanaren etxebizitza partikularra eraman zuten, eta han hiru egunez egon zen atxilotuta⁸.

Atxiloketa hain bitxi horretarako azalpen bakarra urte asko iragan ondoren lortu zen, Andreu epaileak Moreno Bergaretxeren desagertzeari buruz irekitako diligenzietan zehar (2008-2012).

Eduardo López de Maturana García Irungo komisarioburua eta Mugarako delegatua zen, eta Andreu epailearen aurrean eman zuen lekukotasunaren arabera *“Segurtasun Zuzendaritza Nagusiko goi-agintari batek dei egin zion Bergaretxe andrea neutraliza zezan, Frantziara ihes egin nahi baitzuen, eta beldur baitziren Frantzian semea bilatzeko egin zitzakeen urratsek nahigabeko desbideratzeak eragingo ote zituzten orduko gai polizialean [...] besteak beste, Berazadi industrialaren bahiketari buruzko ikerketan. Berazadi ETak hil zuen Bergaretxe andrea komisarioburuaren etxean zegoela. Komisarioburuak gogoan du berak eman ziola albiste hori, eta Bergaretxe andrea negarrez hasi zela”*.

Komisarioak baieztatu zuen *“gertakari horren bidez jakin zuela Pertur existitzen zela eta desagertuta zegoela”*⁹.

Alabaina, Pertur uztailaren 23an desagertu zen, eta Berazadi apirilaren 8an hil zuten. Horrenbestez, ezinezkoa da komisarioak Perturren desagertzearen berri izatea Marta Bergaretxe etxean atxikia zeukan bitartean, apirileko lehen egunetan.

Bestalde, deigarria da aldi berean gertatu zirela Marta Bergaretxeren atxiloketa eta Moreno Bergaretxeren desagertzearekin gurutzatzen den beste egitate bat. Honako hau da:

1976ko apirilaren 4an, Espainiako bi polizia-inspektore desagertu ziren Hendaiaiko zinema baten inguruetan. Gertatutakoaren berri izan zuten bi polizia frantsesak, egun batzuen buruan, kudeaketa-lan batzuk egin hasi ziren, *“beren agintariekin kontatu gabe”*, polizia espainiar horiek non zeuden jakiteko.

4.4. Marta Bergaretxe desagertutako bi polizia espainiarrekin trukatzeko ekimena

Bi polizia frantsesen mugimenduen berri izan zen ENBATA egunkarian 1976ko abuztuan eta irailean (1976-08-12ko 416. eta 1976-09-02ko 419. zenbakietan) argitaratutako bi komunikazioen bitartez. Horietan esaten da, Errepublikako Segurtasun Konpainietako bi kide, Sánchez eta Taillardat, Hendaiaiko Aire eta Muga Polizian 1976ko martxoan eta apirilean destinatuta zeudenak, harremanetan jarriak zirela euskal errefuxiatuen ingurunearekin, Hendaiaiko zinema baten inguruetan desagertutako Espainiako bi poliziar buruzko informazioa lortzeko: José Luis Martínez Martínez eta Jesús María González Ituero ziren polizia espainiar horiek¹⁰.

Informazioa Baionako Auzitegira iritsi zenean, lekukotasuna hartu zitzairen bi poliziei (Errepublikako Segurtasun Konpainiakoak ziren) eta Abeberry abokatuari, aurretik bi poliziek harengana jo baitzuten informazio bila.

7 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa: Frantziako Estatuan Perturren desagertzeari buruz 1976an eta 1977an egindako diligenziak. *Polizia Judizialaren txostena, 1977ko abuztuaren 22koa*. 119. or.

8 AMIGO, A. *“Pertur, ETA 71-76”*, Arg. Lur, Hordago argitaletxea, Donostia, 1984, 124. or.

9 Auzitegi Nazionalaren autoa, 2012ko irailaren 20koa, 17. or.

10 Enbata 416. eta 419. zenbakiak. Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa, op. cit, 142- 143 or.

Baionako Polizia Judizialeko inspektoreari egindako deklarazioan, Espainiako bi polizia-inspektoreen desagertzea ofizial egin eta egun gutxiren buruan, 1976ko azaroaren 29an, Maurice Abeberry abokatuak aditzera eman zuen bi poliziek berarengana jo zutela desagertutako bi polizia espainiarrei buruzko informazioa lortzeko.

Abeberryk deklaratu zuen polizietako bat Manuel Sánchez zela, eta hark adierazi ziola “bi polizia espainiarrak ezagutzen zituela” eta eskatu ziola “haien desagertzeei buruzko informazioa emateko”. Abeberry abokatuak esan zion “*ezeren berri ez zuela*” eta une hartan, Sánchezek esan zion “*Espainiako Poliziako Irungo ofizial batekin harremanetan zegoela, eta hori zela-eta aurreratu zezakeela ezen bi polizia espainiarrak berriz agertzen baziren “Moreno andrea askatu egingo zutela”, zeren eta une hartan bertan Espainiako Poliziaren esku baitzegoen*”.

Abeberryk kontatu zuen une haietan ez zekiela zeri buruz ari zen, baina gero ondorioztatu zuela Bergaretxe andreaki buruz ari zela, Perturren amari buruz; izan ere, Espainiako poliziak atxilotuta zegoela konfirmatu zioten¹¹.

Frantziako polizia Manuel Sánchezen deklarazioak abokatuak kontatutako ekintzak berresten ditu; gainera, aipatzen du halakoak “*maila pertsonalean egin nituela, nire agintariek egiteko hori eman gabe [...] kasuari buruzko informazioak lortzea erabaki bainuen*”¹².

Halaber, Sánchezek dio lehenago, xede berarekin, Zokoko apaizarengana jo zuela: “*Zokoko apaizak Moreno andreakin —Frantziar bizi zen errefuxiatu politiko baten ama— kasua aipatu zigun; izan ere, Espainiar zaintzapeko egoitzan zegoen. Aukera aprobetxatu nuen Frantziar desagertutako bi polizien eta andreakin arteko balizko truke baten ideia proposatzeko; hartara andreak joan-etorrietan ibiltzeko askatasuna berreskuratuko zuen*”.

Eta jarraitzen du:

“*Abeberry abokatuarekin izandako bigarren hitzorduan, aditzera eman nion harremanetan egona nintzela Espainiako Poliziako funtzionarioekin. Irungo polizia-etxeko inspektoreburu bat aipatu nion. Orduan honako proposamen hau asmatu nuen, kontuan izanda Zokoko apaizak esan zidana: baldin eta bi poliziak onik askatzen bazituzten, Moreno andreak askatasun osoa berreskuratu ahalko zuela pentsa zitekeen*”.

Sánchez Hendaiako Aire eta Mugetako Poliziako kidea zen, hara destinatatu baitzuten 1976ko martxoaren 1ean, errefortzu gisa.

Beste polizia frantsesa, Manuel Sánchezekin zegoena, Christian Taillardat zen, aldi baterako Hendaiako mugara destinatua, 1976ko apirilaren hasieratik aurrera.

Taillardatek honako hau baieztatzen du: “*Espainiara egindako irtenaldi batzuetan, Irungo polizia-etxeko polizia-inspektore batzuk ezagutu genituen. [...] Beren lankideak desagertu izanaren arazoa aipatu ziguten*”.

Haren deklarazioan, halaber, Larzabal apaizarekin eta Abeberry abokatuarekin izandako elkarriketak aipatu zituen. Azken horri buruz honako hau dio: “*Sánchezek aurreratu zion, gezurretan berriz ere, harremanetan genituela Espainiako poliziarekin eta Moreno andreakin arteko askatzea berma genezakeela, baldin eta bi polizia espainiarrak askatzen bazituzten*”¹³.

Deklarazio horietan oinarrituta, ondorioztatu dezakegu, lehenbizi, bi polizia frantsesek egindako kudeaketak eta Marta Bergaretxe Ituarteren atxilotuta izanaren gertatu zirela; bigarrenik, Sánchez eta Taillardat poliziek bazekitela Perturren ama atxilotuta zegoela eta, gainera, harremanetan zegoela Irungo polizia-inspektoreekin.

Hala eta guztiz ere, Polizia Judizialak ez zuen ikerketa gehiagorik egin, eta kasua amaitutzat eman zuen, poliziei egindakoarengatik kargu hartuz eta honako iruzkin hau jasotzen duen txosten batekin:

“*Badirudi Sánchezek eta Taillardatek gehiegizko borondate onez jokatu zutela, baina egia da jokabide horren sendotasunik ezak eta haien baldartasunak zalantzazko egoera bat eragin zuela, nekez aurreikus zitezkeen ondorioekin*”¹⁴.

11 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa, op. cit., 108-109 or.

12 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa, op. cit., 105-107 or.

13 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa, op. cit., 103-104 or.

14 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa, op. cit., 122. or.

4.5. *La Voz de España* egunkariak ETAko militanteen aurkako ofentsiba bat iragarri

1976ko maiatzaren 30ean *La Voz de España* egunkariak “Hamar milioi hil zituztenak hiltzeko” izenburupean ETAko militanteen aurkako ofentsiba bat iragarri zuen, “ETAko buruzagiak hiltzeagatik 10 milioi pezeta ordaintzeko prest zegoen erakunde baten eskutik”. Hainbat izen aipatzen dira, eta horien artean Eduardo Moreno Bergaretxe *Pertur* dago, ETApn-ko zuzendaritzako kidea; eta atentatu batzuk ekartzen dira gogora. Orrialde osoko erreportajea Enrique Sanz Martínek sinatuta ageri da¹⁵.

4.6. José Amedoren liburuan bahitutako polizia-inspektoreei buruz egiten den aipamena

José Amedoren “*La conspiración: el último atentado de los G.A.L.*” liburuan aipamen batzuk ageri dira bi polizia-inspektoreen bahitzeari buruz eta eskuin muturreko taldeek Ipar Euskal Herrian errefuxiatuta zeudenen aurka ustez aurrera eramanak zituzten ekintzei eta errepresaliei buruz. Batallón Vasco Español taldeak eta B.P.S.ko kide batzuek “*beren kabuz*” burututako “*terrorismoaren aurkako*” jarduerak aipatzen ditu Amedok. Honako hau ere baieztatzen du: “*Batallón Vasco Españolak jarduten zuen une berean, B.P.S.ko kide batzuek sartu-irten batzuk egiten zituzten Frantzia hegoaldeko mugako herrietan*”. Liburuan, hain zuzen, ekintza horietako batzuk kontatzen dira.

Halaber, kontatzen da 1976ko apirilean Donostian ikastaro bat egin zuela, eta bertan José Luis Martínez inspektorearekin batera hartu zuela ostatua. Gero, aipatzen du bi funtzionario desagertuta zeudela eta nola, beste polizia lagun batzuekin batera, honako hau erabaki zuten: “*gauetz armatuta joango ginen Frantzia hegoaldera erakunde terroristako burukide batzuk atxilotzera, maiz egoten ziren lokal batzuetan*”. *Gure asmoa zen haiei presioa egitea gure bi lankideak aska zitzaizaten lortzeko*”¹⁶.

4.7. Indarkeria politikoa 1975. eta 1976. urteetan

Aipatutako gertakariez gainera, 1975. eta 1976. urteak bereziki nahasiak izan ziren, indar parapolizialek eta eskuin muturreko taldeek, Espainiako polizia-zerbitzuen laguntzarekin, euskal errefuxiatuen aurka eta ETA-ko ustezko kideen aurka Ipar Euskal Herrian aurrera eraman zituzten ekintza terrorista ugariengatik.

Halaber, Bidasoaz bestaldean, urte horietan eragin zituzten hildako gehien ETAm-k eta ETApn-k, talde parapolizialek eta Poliziak eta Guardia Zibilak. Iturri batzuen arabera, 1975. urtean, ETAm-k eta ETApn-k 16 pertsona hil zituzten; Guardia Zibilak eta Poliziak beste 12 hil zituzten, eta BVAk beste 2 erail zituen. Hurrengo urtea are ankerragoa izan zen. 1976an, ETAn bi adarrek 30 pertsona erail zituzten, Guardia Zibilak eta Poliziak 14 hildako eragin zituzten eta indar parapolizialek beste 3 pertsona erail zituzten. 1975ean eta 1976an, guztira, 59 pertsona hil ziren euskal gatazkaren indarkeriaren ondorioz¹⁷.

Hemen Espainiako eskuin muturreko hainbat siglatako taldek Ipar Euskal Herrian egindako atentatuen adibide batzuk aipatzen ditugu, txosten honen xederako daukaten garrantzia dela eta:

- Liburu-denda batzuetan jarritako lehergailuak: Hendaiako Mugalde (1975eko apirilean, maiatzean eta ekainean), Baionako Nafarroa (1975eko ekainean eta uztailan) eta Donibane Lohizuneko Axular eta M. Marie (1975eko abuztuan).
- Jesús María Zabarteren neska-laguna bahitzeko ahalegina.
- ETAko buruzagizat jotzen ziren pertsonen aurkako atentatu selektiboak hasi ziren: Josu Urrutikoe-txea *Josu Ternera* (1975eko ekainaren 5ean); Txomin Iturbe (1975eko azaroaren 16an); Pérez Revilla (1976ko martxoaren 6an).

15 MARTIN, E.S. “Diez millones para matar a quienes mataron”, *LA VOZ DE ESPAÑA*, 1976ko maiatzaren 30a.

16 AMEDO, J. *La conspiración: el último atentado de los G.A.L.* Espejo de tinta arg. Madril. 1988.

17 ARGITUZ. Giza Eskubideen aldeko Elkartea. 2016.

Espainiako Gobernuak ekintza horiek “*inkontrolatuei*” egotzi zizkien, baina horietako batzuk erreibindikatu ere egin ziren: hasiera batean, ATE (Antiterrorismo ETA) siglak erabili ziren, eta gero Triple A (Alianza Apostólica Anticomunista) eta BVE (Batallón Vasco Español). Gertatu zen, baita ere, ekintza bera bi erakunde desberdinek erreibindikatzeko: AAA eta BVE, esate baterako, hala gertatu baitzen hain zuzen ere Perturren bahiketarekin. AAAk erreibindikatu zuen Bartzelonako *Cifra* agentzian eta BVEren “Emilio Guezala” komandoak, berriz, Bilboko *El Correo* egunkarian¹⁸.

Horri dagokionez, adierazgarri gertatzen da “*La Trama de los G.A.L.*”¹⁹ liburuan esaten dena:

“*Batallón Vasco Españolen lehen agerpen publikoa (ETA militarrek hil berri zuen eskuin muturreko ideologia-ko autobus gidari baten izena, «Emilio Guezala», gehituta), 1976ko uztailaren amaieran izan zen, Eduardo Moreno Bergaretxe, Pertur, ETA politiko militarreko buruzagiaren desagertzea eta heriotza erreibindikatzeko. Gero sortuko zen eztabaidak —bere jarduketa-ildoarekin ados ez zeuden erakundeko kideetako batzuek hil ote zuten Pertur— eta ekintza hori bera garai hartan askoz ere ospetsuagoak ziren eskuin muturreko beste sigla batzuek (ATE, Triple A) erreibindikatu izanak, berekin ekarri zuten inork aintzat ez hartzea arestian aipatutako izen ezezagun hori, garrantzi oso nabarmeneko ekintza hori bere gain hartzen zuena”.*

Halaber, egiaztatuta dago Espainiako Poliziak Ipar Euskal Herrian esku hartu zuela; esate baterako, Donibane Lohizuneko Mingo tabernaren aurkako atentatuko (1975eko maiatzaren 24a) ustezko antikuarioren (Martínez) kasuan. Halaber, ETAn infiltratutako Cocoliso ezizenaz ezagutzen zena (Jesús Arrondo Martín) atxilotu zuten²⁰.

4.8. ETApM-ren egoera 1976an

Eduardo Moreno Bergaretxe desagertu aurreko egitateak aztertzen ari gara, eta horien harira ezin nahitaez aipatu behar dugu ETApM erakundeak garai hartan bizi zuen krisi-egoera.

Ángel Amigoren liburuak osorik jasotzen du ETApM-k 1978ko urtarrilean *Diario 16* egunkarira igorritz argitara eman zuen komunikatu bat. Komunikazio horretan hauteman daiteke 1976an nolako gatazka-giroa zegoen erakundearen barruan.

Ohar horretan oinarrituko gara, orain, desagertu aurreko egunetan Perturren inguru politiko eta militarrean izan ziren gertakari batzuk kontatzeko.

Urte hartan tentsio handiak izan ziren ETApM-ren barruan, Francisco Franco diktadorea hil ondoren sortutako jarrera ideologiko desberdinen ondorioz. Une kritikoenetako bat gertatu zen 1976ko martxoaren 18an ETApM-k egindako Ángel Berazadi industrialaren bahiketari eman zitzaion amaierari buruzko desadostasunen ondorioz. Berzadiren hilotza apirilaren 8an agertu zen Elgoibar inguruko ezponda batean, garunean tiro bat zuela.

Berzadiren hilketak ika-mika eta desadostasun larriak eragin zituen polimilien zuzendaritzaren —Pertur eta Erreka kide zireneko bulego politikoa— eta borroka armatuaren jarraipenaren eta nagusitasunaren aldeko apustua egiten zutenen linearen artean; azken hori “Bereziak” deitutakoekin identifikatuta zegoen, eta honako hauek zituen buru: Miguel Ángel Apalategi *Apala*, Francisco Mujica Garmendia *Pakito* eta Eugenio Etxebeste *Antxon*. Azken hori aparatu politiko militarren burukidea izan zen 1976ko apirilera arte.

Gauzak horrela, Perturrek, une hartan, antolamenduko beste agintari batzuekin batera, agintarien konferentzia bat (Biltzar Ttipia) egiteko eskatu zuen, bertan “Berzadi” kasuan gertatua argitzeko, erakundearen ibilbide osoa aztertzeko eta Biltzarra egin aurretik zuzendaritza berria hautatzeko. Biltzar Ttipiaren bilkura hori 1976ko maiatzean deitu zen.

Bilkura hasi baino bi egun lehenago, ordea, Zuzendaritza Batzordeko bi kidek eta Segurtasun Batzordeko arduradun batek, ETApM-ko zuzendaritzako gainerakoek ezer ere ez zekitela, Pertur bahitu zuten, eta diziplinarik eza eta informazio-ihesak leporatu zizkieten, eta Biltzar Ttipiaren hasierara joatea eragotzi zioten.

18 Berraztertzeko errekurtsioan jasotako zerrenda, op. cit., 10. or.

19 MORALES, J.L.; TODA, T., IMAZ, M., *La Trama de los G.A.L.* Revolución arg., Madril, 1988, 27-29 or.

20 Berraztertzeko errekurtsioan jasotako zerrenda, op. cit., 11. or.

Biltzar Ttipiaren lehenengo saioan, bildutakoetatik gehienek Pertur bertan egotea eskatu zuten. Azkenean, atxikia zegoen tokira joan ziren batzuk —Simón Loyola erbesteratuak Auzitegi Nazionalan deklaratu zutenaren arabera, Eugenio Etxebeste eta gogoan ez duen besteren bat—, biltzarrera eramateko. Topaketa hartan ETApM-ren zuzendaritza berria hautatu zuten; hain zuzen ere, zuzendaritza horrek, aurrerago, Perturri etxebizitzaz aldatzeko gomendatuko zion, “Komando Berezien” balizko errepresaliak zirela eta²¹.

Eugenio Etxebeste *Antxonek* honela azaldu zuen Andreu epailearen aurrean kide batzuek Pertur bahitu izana:

“ETApM-ren zuzendaritzak jakin zuen bandako presoekin aparatuak jarraitu beharreko ildoaz beste ildo batetik ari zela Pertur, zuzendaritzari “zubiarena eginez” espetxeekiko harremanetan; hori zela eta, Bulego Politikoari diziplinarik eza leporatu zitzaion, erakundearen zuzendaritzaren eskuetatik iragan ez ziren harreman batzuk edukitzeagatik. Hori dela eta, Perturren “behin-behineko etxeko atxiloketa” erabaki zen, ikerketa hori egiteko. “Atxiloketa” hori “agintarien konferentzia” bat izan zen garai berean gertatu zen; hain zuzen ere, VII. Biltzarra prestatzeko bilkuran. Etxebestek adierazi zuen ETAREN zuzendaritzak jakin zuela Bulego Politikoa, zuzendaritzaren bideetatik kanpo, noizbehinkako harremanak izaten hasia zela Espainiako Gobernuarekin; eta Juan María Bandrésekin eta Manuel Fragarekin bildua zela horretarako. Perturren etxeko atxiloketa eta “isolamendua” erabaki ziren, agintarien konferentzian horri guztiari buruzko azalpenak eman zitzaizkien eta konferentziak erabaki zezan gertatzen ari zena larria zen ala ez”²².

ETApM-ren barruko liskar-giroaren erakusgarri, 1976ko uztailaren 11n, desagertu baino hamahiru egun lehenago, Perturrek bere neska-lagun Lourdes Auzmendiriri idatzi zion gutuna dago. Gutunean esaten zuen “ez zegoela ondo”.

Gutunean, bere iritzia ematen zuen *Berezien* buruzagien jarduketari buruz eta erakundearen sortutako konspirazio-giroari buruz:

“Astakirten horiek halako giro bat sortu dute erakundearen, non Ipar Euskadin ETA bihurtu baitute ez iraultzaileen kolektibo bat, polizia-estatu bat baizik, zeinean nor bere auzoaren susmoa baitu, eta azken horrek bere auzoarena”.

Idatzian kritika gogorrak egiten ziren barne-eztabaida ezari buruz.

“[...]... konspirazioen infernuko dinamika horretatik, asmakeriatik, gezurretik eta abarretatik ihes egin nahi dut, aurkari politikoak eztabaida politikoaren bidez beharrean diziplinaren, segurtasunaren izenean egindako maniobra zikinen bidez desagerraraztea bilatzen duen dinamika horretatik...”²³.

5. Desagertzearen ondoren

5.1. Donibane Lohizuneko eta Donostiako polizia-etxeetan aurkeztutako salaketak.

1976ko uztailaren 24ko arratsaldean, María Asunción Bergaretxe, Eduardo Moreno Bergaretxeren izeba, Polizia Nazionalaren Donibane Lohizuneko polizia-etxera joan zen, iloba desagertua zela deklaratzera. Goiz hartan, telefono-dei anonimo bat jaso zuen, emakume ahotsa zuena, eta hartan aditzera eman zioten Donibane Lohizunera joan behar zuela, Eduardo Moreno Bergaretxe desagertuta zegoelako²⁴.

Egun hartako gauean, 23:45ean, polizia-etxe horretara Francisco Mujika Garmendia *Pakito* joan zen, Donibane Lohizunen errefuxiatuta zegoen Eusko Jaurlaritzako ministro ohi Telesforo Monzonekin batera. Mujika Garmendiak deklaratu zuen, bezperan, 1976ko uztailaren 23an, 11:00ak aldera, Vauban tabernatik hurbil

21 AMIGO, A. op. cit., 147-151 or.

22 Auzitegi Nazionalaren autoa, 2012ko irailaren 20koa, 7- 8 or.

23 Auzitegi Nazionalaren autoa, op. cit. 9- 10 or.

24 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. Op. cit., 164. or.

egin zuela topo Eduardo Morenorekin, eta azken horrek galdetu ziola ea Hendaiara joatekoa ote zen eta Behobiaraino eramango ote zuen. Pakitok baietz esan zion eta berehala joan ziren, lagun baten Renault 5 batean. Hiritik atera baino lehen, bi errefuxiarekin egin zuten topo; haien izenak ez dakizki, baina horietako bati *Trotsky* esaten zioten. Trotskyren lagunak Perturri galdetu zion ea José Mari ikusia zuen, eta hark ezetz esan zion, eta alde egin zuten. Moreno Bergaretxe Behobiatik hurbil utzi zuen, Hendaiara doan errepidean. Bidaian errefuxiatu politikoekin zerikusia zuten gaiei buruz hitz egin zuten, eta Mujika Garmendiari *“iruditu zitzaion”* Bergaretxek hitzordu bat zuela Behobian.

Pakitok gehitzen du gau hartan bertan jakin zuela hura desagertua zela, etxera joan zitzaion errefuxiatu batek esanda²⁵.

Mujika Garmendiak, bere lekukotasunean, ez zuen aipatu Apalarekin batera egona zela eta hirurak elkarrekin joan zirela Behobiaraino.

Urte batzuk geroago, Auzitegi Nazionaleko Andreu epailearen aurrean inputatuta zegoela, inkulpatu gisa deklaratu zuen Apalak eta berak Perturrekin egin zutela topo Donibane Lohizuneko erdigunean, eta gero autoz eraman zutela Behobiaraino²⁶.

Uztailaren 24ko gau hartan bertan, Biriaturuko mugako poliziak Moreno Bergaretxe senar-emazteei bidea moztu zien, beren semeari gertatutakoari buruzko argibide bila Donibane Lohizunera zihoazela.

Dokumentazioa behar bezala zegoen arren, ez zieten pasatzen utzi. Poliziak esan zuen bazuela bahiketaren berri. Alabaina, Espainian desagertzea salatu gabe zegoen oraindik, eta ordu gutxi batzuk baizik ez ziren iraganak Perturren amaren ahizpa, María Asunción Bergaretxe, Donibane Lohizuneko polizia-etxean egon zenetik, gertatutakoaren berri emateko.

Poliziaren eskutik jasotako tratuari buruzko azalpenak eskatzeko, gau hartan, Biriaturuko mugan, Moreno Bergaretxeren gurasoek salaketa bat aurkeztu zuten Donostian zeuden agintari espainiarren aurrean. Gorabehera hori hilabete geroago itxi zen, sinesgarritasun eskaseko azalpen ofizial batekin, alegia, Moreno Bergaretxe senar-emazteei ez zietela utzi muga igarotzen *“gehiegi tematu zirelako”*²⁷.

J.A. Lekuona kazetariak Biriaturuko mugan gertatutakoari buruz eman zuen bertsioa, *La Voz de España* egunkariak egun batzuk geroago argitaratua, nabarmen desberdina da Moreno Bergaretxe senar-emazteek deklaraturakotik. Honako hau da kronikaren testua²⁸:

“ETAko buruzagi Moreno Bergaretxeren desagertze misterioitsuaren berri halabeharrez izan dute Irunen larunbat honetan. Autobidean Perturren gurasoak eta anaia bat autoz Frantziara zihoazenean izan da.

Biriaturuko justaposizio-araubideko gunean zerbitzuan zegoen funtzionario bat errutinazko eta kontsultako tramitea egitera joan da, eta Moreno Bergaretxeren senideak, semearen bahiketarengatik larrituta eta oso kezkatuta, Irunera itzuli dira”.

Bi egun geroago, 1976ko uztailaren 26an, Perturren gurasoak, Álvaro eta Marta, Polizia Nazionalaren Donibane Lohizuneko polizia-etxera joan ziren, beren semearen desagertzea ofizialki salatzeraz.

Haien deklarazioak jasotzen du aurreko egunean Donibane Lohizunera joanak zirela eta beren semearen lagun politikoen bitartez jakin zutela Eduardo Moreno Bergaretxek telefono-dei bat jaso zuela, hirugarren baten bitartez, eta eskatu ziola Donibane Lohizuneko “Consolation” tabernara joateko, norbaitekin biltzeko. Gehitzen dute itxura guztien arabera ez zela tabernara joan, eta aipatzen dute gero bere lagun batzuei eskatu ziela Behobiara hurbiltzeko.

Adierazten dute beren semeak hiru mehatxu jasoak zituela, eta hirurak salatuak zituela polizia-etxe hartan bertan. Deklaratu zuten, halaber, litekeena zela ETAREN aurkako taldeek edo OVAAK bahitu izana. Perturren gurasoek baieztatu zuten beraiek ere mehatxu bat jaso zutela, Gerrilleros de Cristo Rey taldeak sinatua, eta adierazi zuten 1975eko azaroaren 20an atentatu bat jasan zutela.

25 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. Op. cit., 162. or.

26 Auzitegi Nazionalaren autoa, 2012ko irailaren 20koa, 18. or.

27 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. Op. cit., 96. or.

28 LECUONA, J.A., “Misteriosa desaparición de un dirigente de ETA”. *LA VOZ DE ESPAÑA*, 1976ko uztailaren 27a.

Senar-emazteen deklarazioa jasotzen duen aktaren amaierako zatian²⁹, ohar bat dago, zeinean aipatzen baita Moreno Bergaretxe bilatzen ari direla Ángel Berazadi 1976ko martxoaren 18an bahitu eta hiltzeari buruzko ikerketaren barruan.

Egun horietan eta hurrengoetan Frantziako polizia ikerketa batzuk egin zituen, eta ez zuen inongo daturik aurkitu Moreno Bergaretxeri gertatutakoari buruzko pista ematen zuenik.

Egindako ikerketei esker, jakin ahal izan zen, Consolation tabernako jabeen bitartez, Pertur ez zela establezimendu horretan egon uztailaren 23an (ostirala), eta ohiko bezeroa ere ez zela.

Joncaux industrialdearen miaketa polizialak ez zuen jasotako informazio bat berretsi; informazio horren arabera, desagertutakoa bahituta egon zitekeen inguru hartako hangarren batean. Poliziak, halaber, zenbait egiaztatze-lan egin zituen Behobiako eta Biriaturko hainbat establezimendutan, bai eta autobideko Hendaia-ko eta Behobiako muga-igarobideetako funtzionarioekin ere³⁰.

Halaber, uztailaren 26an bertan (astelehena), Eduardoren anai-arrebek salaketa bat jarri zuten Donostiako Guardiako Instrukzio Epaitegian, non eskuin muturreko kideak jotzen baitzituzten desagertzearen egiletzat.

Punto y Hora aldizkariak salaketaren testua argitaratu zuen. Hartan aipatzen zen, oinarriaren arrazoiak bazeudela uste izateko *“ATEko, OVAAko edo izen desberdinekin Espainiako lurraldetik operatzen zuten antzeko ideologiako beste talderen bateko eskuin muturreko komando batek bahituta zegoela.”*

Salaketa oinarrietan aipatzen dute Perturrek *“orain dela gutxi heriotza-mehatxuak jaso dituela, bere familiak bezalaxe, eskuin muturreko talde horiek idatzitako ohar batean”*, eta argudiatzen dute, halaber, Frantziako poliziak ez zuela Pertur aurkitu bere lurraldean, *“ikerketa xeheak eginda ere”*. Argitalpen horren beraren arabera, salaketarekin batera, datu gisa, E.S. Martínek sinatutako *“Diez millones para matar a quienes mataron”* izenburuko artikulua aurkeztu zuten, *La Voz de España* egunkarian maiatzaren 30ean argitaratua. Hari buruz diote *“krimenerako dei bat dirudiela, eta salatzaileen anaia berariaz aipatzen duela”*³¹.

5.2. Erreibindikazioak

Egunkarietan jasotakoaren arabera, Perturren bahiketa ATE (Antiterrorismo ETA) eta Triple A (Alianza Apostólica Anticomunista de España) taldeek erreibindikatu zuten, “Cifra” albiste-agentziari 1976ko uztailaren 26an egindako dei baten bitartez. Esandakoan, honako hau adierazi zuten:

*“Ez gara masen mugimendu bat, baizik eta gerrillari talde bat, gerrillarako militarki entrenatua eta helburu bat baduena: KGBk babestutako nazioarteko terrorismo marxistari aurre egitea”*³².

El Correo Español-El Pueblo Vasco egunkariak, 1976ko uztailaren 31n, Batallón Vasco Españolen komunikatu bat jaso zuen, zeinean talde horrek bere gain hartzen baitzuen Perturren hiketa.

“Eduardo Moreno Bergareche, Pertur, hil egin dugu eta Nafarroako herri batean lurperatu dugu. Ez da azkena izango. Begia begi truk. Gora Espainiaren batasuna”.

5.3. Trukeari buruzko zurrumurrua

Oraingoan, *Unidad* arratsaldeko egunkariaren 1976ko uztailaren 28ko zenbakiaren lehenengo orrialdeko berria agertu zen berriz ere trukearen deia.

Kronikak honako izenburu hau dauka: *“Berririk ez Perturri buruz”*, eta azpiztituluan susmo bat jasotzen du, alegia, litekeena zela bahituta izana urte hartako apirilaren 4an desagertutako José Luis Martínez eta Jesús González polizia-inspektoreekin trukea egiteko. Zehazki, honako hau zen goiburua: *“ETAkidea bahitutako bi polizien truke?”*

29 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. Op. cit. 160. or.

30 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. Op. cit., 149- 154 or.

31 1976 “La misteriosa desaparición de Pertur”. *PUNTO Y HORA* 9. zk./1976ko abuztuaren 15a, 24-25 orrialdeak.

32 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. Op. cit., 99-100 or. (*DIARIO VASCO*, 1976ko uztailaren 27an).

Informazio horrek jasotako hipotesia aipagarria da, kontuan hartuta iturria *Radio Nacional* dela, zeina jatorri polizialeko informazioen ohiko hedatzailea baitzen. Eta honelaxe dio:

“Alde batetik, errealitate-zantzurik duten albisterik ez dago batere; bestetik, zurrumuruak minuturo sortzen ari dira. Azkena Donostiako Radio Nacionalek eman du, iradoki baitu aukerak badaudela pentsatzeko hura bahitu duen eskuin muturreko ustezko taldeak adostasun batera iritsi nahi duela ETArekin, antzeko beste gai batean nahastuta baitago. Eta adostu beharrekoa hau izango litzateke: “Pertur” askatzea Donostiako kidegoari atxikitako José Luis Martínez Martínez eta Jesús María González Ituero polizia-inspektoreak askatzearen truke. Hendaia zinema baten inguruetan desagertu ziren azken horiek, joan den apirilaren 4ko arratsaldean. Hain zuzen ere, astebete barru, abuztuaren 4an, laugarren hilabetea beteko da bi pertsona horiek desagertu zirenetik edo bahitu zituztenetik. Halaber, esan behar dugu ordutik ezer ere ez dela jakin bi polizia horiek pairatu duten edo pairatzen ari diren egoerari buruz”³³.

5.4. ETApM-ren baitan egindako ikerketak

ETApM-ren zuzendaritzak, Moreno Bergaretxe desagertu izanaren berri izan zuenean, militante guztiei dei egin zien elkarrizketa bat egiteko; elkarrizketan, galdetu zitzaion ea horietako bakoitza non zegoen Pertur desagertu zen egunean. ETApM-ko kide Fermin Imazen deklarazioaren arabera, bera izan zen, Joseba Aulestiarekin batera, Apalaren eta Pakitoren lekukotza jasotzeaz arduratu zena. Biek ere esan zioten Perturrek eskatu ziela Behobiara hurbiltzeko, Trotskyrekin topo egin zutela eta Pertur Behobian utzi zutela³⁴.

ETApM-ren zuzendaritzak egindako barneko inkesta horren ondorioak 1978ko urtarrilean argitaratutako komunikatu batean eman ziren ezagutzera. Komunikatu horren erreferentzia arestian jaso dugu txosten honetan.

Bestetik, Francisco Mujika Garmendia *Pakitok* Andreu epailearen aurrean deklaratu zuen bezala, Pertur desagertu zen arratsaldean ez Miguel Ángel Apalategi *Apala*, ez bera ez ziren etxetik atera. Gau hartan bertan, ETApM-ko burukideren bat joan zitzaion etxera; ez du gogoan nor. Galdetu zien zer edo zer ba ote zekiten Perturri buruz, eta esan zien Donibane Lohizuneko Jendarmeriara joan behar zutela deklaratzera, haren desagertzeari buruzko salaketa bat baitzegoen. Apalak dokumentazioa behar bezala ez zuenez, erabaki zen beste hura izatea Frantziako polizia-zerbitzuetara joango zena. Jendarmerian hiruzpalau pertsona elkartu ziren; horietako bat Lourdes, Perturren neskalaguna. Bera izan zen Perturren arropa eramane zena, jendarmeei emateko³⁵.

5.5. ETApM-ren VII. Biltzarra. 1976ko abuztu-iraila

Urte hartako irailean, ETApM-k, VII. Biltzarra amaitu ondoren, polizia-zerbitzuei leporatu zien bahiketaren ardua eta ustezko hilketa, oinarri hartuta poliziak eta Guardia Zibilak mugan, Pertur desagertu ondoren, egin zituzten mugimendu susmagarriak³⁶.

VII. Biltzar horretan, zeinera Lourdes Auzmendi ere joan baitzen, Perturren desagertzeari buruz hitz egin zen. Perturren neska-lagunak Andreu epaileari aditzera eman zion moduan, *“une batean, Eduardoren desagertzearen gaia atera zen, eta bertaratuetakoz batzuek beren poztasuna adierazi zuten, bertan ez zegoelako”*. Hori ikusita, Lourdesek lokaletik alde egin zuen, eta Argalarekin eta Txominekin egin zuen topo. Horiek Biltzarrera gonbidatuta zeuden, baina aretotik ateratzeko eskatu zieten, barneko gai bat jorratu behar zuten-eta. Argala eta Txomin Lourdes kontsolatzera hurbildu ziren, *“eta esan ere egin zioten sinetsita zeudela “erakundearen” barruko jendea zela Eduardo “desagerrarazi” zutenak”*. Auzmendik deklaratu zuen, halaber, *“behin etakide ohi batekin hitz egin zuela, Nikaraguan Apalarekin egondako batekin, eta hark kontatua ziola Pertur beraiek bahitu zutela, eta hil eta itsasora botu zutela”³⁷.*

33 “Nada nuevo sobre Pertur. ¿Canje del etarra por los dos inspectores de policía secuestrados?” *UNIDAD*, 1976ko uztailaren 27a.

34 Auzitegi Nazionalaren autoa, 2012ko irailaren 20koa, 11. or.

35 Poliziaren autoa, 18-19 or.

36 AMIGO, A. Op. cit., 143. or.

37 Auzitegi Nazionalaren autoa, 2012ko irailaren 20koa, 9- 10 or.

Luis R. Aizpeolea kazetariak *El País* egunkarian idatzitakoaren arabera, epaileak etakide ohi bat deitu zuen deklaratzera, ustez Apalarekin Nikaraguan egon zena, baina epaileari ez zion berretsi Lourdesi kontatutakoa³⁸.

5.6. Frantziako diligentziak

Baionako Lehen Auzialdiko instrukzio-epailea, Jean Michel Larque, da Eduardo Moreno Bergaretxeren desagertzea ikertzeko ardura duena. 1976ko uztailetik 1977ko azaroaren 30era egin zuen lan, orduan eman baitzuen kasua largesteko epaia.

1977ko abuztuaren 22an, Bordeleko Eskualdeko Polizia Judizialak Perturren desagertzearen kasuari buruz egindako ikerketen berri eman zuen txosten batean.

Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioaren arabera, zeinean egindako ikerketen laburpen gisa jasotzen baita 1977-08-22ko txosten hori, instrukzioak hiru ekintza nagusi izan zituen:

*a. Errepublikako Segurtasun Konpainietako bi poliziak, Sánchezek eta Taillardartek, 1976ko martxotik apirilera egindako kudeaketak*³⁹

Polizien deklarazioen arabera, haiek lan egin zuten bi inspektore espainiar desagertuen —beraiek ez zituzten ezagutzen— eta Irungo polizia-etxean atxilotuta zegoen Perturren amaren arteko trukea lortzeko. Betiere, *“beren gainekoek ezer ere ez zekitela”*⁴⁰.

Aipatutako txostenak dio poliziei kargu hartu zietela eta gehitzen du *“badirudiela gehiegizko borondate onaz jokatu zutela, baina egia da jokabide horren ahuldadeak eta haien baldartasunak zalantzezko egoera bat eragin zuela, nekez aurreikus zitezkeen ondorioekin”*⁴¹.

Idazki berean, jasota dago, halaber, familiaren eta lagunen testigantzen arabera, Pertur oso zuhurra zela eta sekula ere ez zela bakarrik ateratzen; horrenbestez, *“jo daiteke bahiketa desagertuaren hurbileko baten konplizitatearekin —hau da, traizioarekin— gertatu zela, Perturren konfiantza osokoa zen baten konplizitatearekin”*⁴².

Bestalde, Frantziako Polizia Judizialaren agirian, baieztatzen da ezin zaiela sinesgarritasunik eman *“Alianza Apostólica Anticomunista de España”*ren kasuan bahiketa erreibindikatzeko eta *“Batallón Vasco Español, Comando Emilio Guesala”*ren kasuan, bahiketa eta hilketa erreibindikatzeko —Pertur Nafarroan lurperatuta zegoela ere gehitzen zuen— igorritako komunikatuei, *“informazio faltagatik”*⁴³.

b. Agintari Judizial Espainiarrei egindako Nazioarteko Erreguzko Eskaera

Larque epaileak Nazioarteko Erreguzko Eskaera bat egin zien Espainiako Agintari Judizialei, 1976ko abenduaren 3an. Eskaeran, magistratuak esaten du *“litekeena dela Pertur eskuin muturreko nahiz ETArean aurkako komando baten edo OVAAre (Organización de Voluntarios Antiseparatistas y Antiterroristas) edo Guerrilleros de Cristo Rey-ren komando baten biktima izatea”*, eta eskatzen du ikerketa bat egin dadila erakunde horietako pertsonen haren desagertzean izandako parte-hartzea zehazteko. Oro har, eskatzen du ikerketa bat egin dadila errefuxiatua aurkitzeko edo gertatutakoa zehazteko.

Espainiako agintarien erantzuna Segurtasun Zuzendaritza Nagusiaren txosten bat izan zen, 1977ko otsailaren 19ko data duena. Hartan, honako informazio hauek nabarmentzen dira⁴⁴:

38 AIZPEOLEA, L.R. “¿Qué fue de Pertur?” *EL PAÍS*, 2016ko uztailaren 23a.

39 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. Op. cit., 6.,7. eta 8. or.

40 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. Op. cit., 121. or.

41 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. Op. cit., 122. or.

42 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. Op. cit., 120. or.

43 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. Op. cit., 121. or.

44 Segurtasun Zuzendaritza Nagusiaren Espainian egindako txostena, 1977ko otsailaren 19an. Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. 130- 131 or.

Moreno Bergaretxe deskribatzen du esanez ETaren V. Biltzarrean *“eragin handia”* izan zuen etakidea zela, bulego politikoaren arduraduna, eta baieztatzen du Espainian egindako ikerketek *“ez dutela aukerarik eman desagertze honen egilea edo egileak aurkitzeko”*.

Agiriak gutun anonimo bat aipatzen du, *“Alianza Apostólica Anticomunista de España”* erakundeak sinatua eta *La Voz de España* egunkarian jaso zena. Zehazten da gutun horretan, *Ñ* letrari tileta falta zaiola, eta hori dela-eta jotzen dute ez dela erabili Espainian fabrikatu eta erabiltzen den makina bat.

Adierazten dute *“ez dagoela jasota”* aipatutako erakunde hori existitzen denik. Baina honako hau aipatzen dute:

*“hori dela eta, joan den uztailaren 26an desagertuaren anai-arrebek salaketa bat aurkeztu zuten Donostiako 3. Instrukzio Epaitegian, “Orden Nuevo” erakundeko Adolfo Hitler VI. Komandoa deitutako talde batengandik jasotako mehatxuen ondorioz”*⁴⁵.

Segurtasun Zuzendaritza Nagusiak igorritako dokumentazio hori ez dator bat ordura arte hedabideetan erreibindikazioei buruz aditzera emandakoarekin. *“Alianza Apostólica Anticomunista de España”* erakundeak bahiketa erreibindikatu zuen *Cifra* agentziari egindako telefono-dei baten bidez, eta ez *La Voz de España* egunkariari igorritako gutun batez. Horrenbestez, gutxienez ere bitxia da erreibindikazioaren kontakizun hori eta tipografiaren analisia⁴⁶.

Halaber, Moreno Bergaretxeren anai-arrebek uztailaren 27an Donostian jarritako salaketan, ez da aipatzen ez *“Alianza Apostólica Anticomunista de España”*, ez eta *“Orden Nuevoko Adolfo Hitler VI. Komandoa”* ere, Segurtasun Zuzendaritza Nagusiak igorritako informazio horretan aipatzen den moduan. Gainera, azken erakunde hori ez da lotuta ageri desagertzearen hurrengo egunetan gertatu ziren erreibindikazioekin.

Bitxiena da Perturren desagertzearen ondorengo hilabeteetan, azaroaren 15ean, haren arreba Marta Moreno Bergaretxek jasotako heriotza-mehatxua *“Orden Nuevoko Adolfo Hitler VI. Komandoak”* izenpetuta dagoela, aurrerago aipatuko dugun moduan.

Bistan da agiria nahasgarria dela eta errealtateari gutxi egokitzen zaiola erreibindikazioei eta familiak Donostian egindako salaketari dagokienez, baina ausarta dela, berriz, bahiketaren egileei buruzko hipotesi bat egiterakoan.

Segurtasun Zuzendaritza Nagusiak Frantziako agintari judizialei igorritako txostenak aipatzen du *“errealitate handiagoko zantzuak dauzkan beste hipotesi baten arabera, Pertur desagerrarazi zuena Miguel Ángel Apalategi etakidea izan zela”*⁴⁷.

Agiriak bertsio horren alde egiten du, eta horretarako oinarritzat hartzen du ETaren biltzarra prestatzeko bilera, 1976ko maiatzean, *“Bereziek”* —zeinak Apalaren zuzendaritzapean baitzeuden— Perturren dimisioa eskatu zutela, eta bilera hartan bertan, Perturrek gogor kritikatu zuela Berzadiren heriotza, zeina Apalak eta bere komandoak hil baitzuten, txosten horren arabera.

Halaber, honako hau dio: *“agintari politikoen, VII. Biltzarra egin arte, zenbait agiri egin zituzten ETak hartu behar zuen ikuspegi berriari buruz, masen alderdi politiko gisa”*. Baieztatzen du *“Otsagabia”* azterlana lehenbizi uztailaren 7an eta gero abuztuaren 4an argitaratu zela, *“nahiz eta Perturrek ez zuen amaitzerik izan, zenbait egun lehenago desagertu baitzen”*. Halaber, nabarmentzen du *“haren edukia Apalak defendatzen zuen jokabidearen guztiz aurkakoa zela”*.

Eta nabarmentzen du Moreno Bergaretxeren desagertzeari buruz Hazparnen egindako VIII. Biltzarrean *“gertatu zen isiltasun adierazgarria”*, bai eta Otsagabia ponentziaren edukiak izan zuen babes zabalak Apalaren taldean eragindako inpaktu handia.

Hartara, Segurtasun Zuzendaritza Nagusiak igorritako agiria honako hau esanez amaitzen da:

*“badirudi zantzu horiek babesten dutela erakundearen muturreko atalak Perturren desagertzean zuzenean esku hartu zuela dioen hipotesia, Pertur oztopo sendoa izan zitekeen-eta jarduera terroristekin jarraitu nahi zutenentzat”*⁴⁸.

45 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. Op. cit. 130. or.

46 Diario Vasco, 1976ko uztailaren 27a.

47 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. Op. cit., 130-131 or.

48 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. Op. cit., 131. or.

c. Miguel Ángel Apalategiren lekukotza

Azkenik, epaileak agindu zuen Miguel Apalategi *Apala* 1977ko ekainaren 2an zitatzea, deklarazioa hartzeko. Apalak deklaratu zuen Moreno Bergaretxe ezagutzen zuela Donostian pare bat aldiz ikusi zuelako, eta baieztatu zuen *“ez zuela kasu horrekin zerikusirik batere”*⁴⁹.

Francisco Mujika Garmendiak bere deklarazioan egin zuen bezala, Miguel Apalategik ez zuen aipatu berak, Pakitorekin batera, Eduardo Moreno Bergaretxe Donibane Lohizunetik Hendaiara autoz eraman zuela desagertu zen egunean.

Aipatutako hiru lan-ildo horiez gainera, Frantziako agintari judizialek Andreu epaileari igorritako dokumentazioan, Marta Moreno Bergaretxeri zuzendutako mehatxua jaso zen.

Perturren arrebak heriotza-mehatxua zekarren gutun bat jaso zuen: (...) *“desagerrarazi egingo zaitugu, zure anaiari egin genion bezala, eta balez josiko zaitugu, eta zure gorpua guztiek ahaztuta Euskal Herritik kanpo ustelduko da, Perturrena bezalaxe”*⁵⁰.

ORDEN NUEVOko Adolfo Hitler Seigarren Komandoak izenpetuta dago. Zigilu-marka 1976ko azaroaren 15ekoa da.

Hemen nabarmendu behar dugu komandoaren izena ORDINE NUOVO⁵¹ izenaren gaztelaniazko bertsioa dela. Ordine Nuovo Italiako neofaxisten talde bat izan zen, eta haren kideetako batzuek deklaratu zuten Espainiako polizia-zerbitzuekin batera euskal errefuxiatuen aurka jardun izana Ipar Euskal Herrian, 1975etik 1980ra⁵².

Familiaren abokatu Maité Maniortek, azaroaren 20an, instrukzio-epaileari eskatu zion eskuin muturreko talde bateko kide Grau Lloret galdekatzeko Perturren desagertzeari buruz⁵³.

Ez dago jasota Larque epaileak inongo kudeaketarik egin izana letratuaren eskaerari erantzuteko, ez eta inongo ikerketarik egin izana ere Perturren arrebak jasotako mehatxuari buruz.

Largespen-epaia Baionako instrukzio-epaile Jean Michel Larquek eman zuen 1977ko azaroaren 30ean. Hartan aipatzen da atentatua erreibindikatu zuten bi mugimendu espainiarrek, *“Alianza Apostólica Anticomunista de España”* bahitzaile gisa, eta *“Batallón Vasco Español comando Emilio Guesala”* bahitzaile eta hiltzaile gisa, *“itxura batean Espainiako mugimenduak direla. Frantzian ez dira ezagutzen.”*

Ondorioztatzen du egindako ikerketek berretsi dutela Moreno Bergaretxe desagertu egin zela, baina *“ez dutela biderik eman zer gertatu zen jakiteko, ez eta nortzuk diren ere biktima izan omen denaren aurkako ekintzen egileak”*⁵⁴.

5.7. 1978: Familiak “Bereziei” buruz dauzkan susmoak

Petur desagertu eta urte eta erdi geroago, 1978ko urtarrilaren 20an, haren senideetako batzuek prentsaurreko batean baieztatu zuten Perturren desagertzearen ustezko susmagarriak “Bereziak” deitutakoen kide batzuk direla, desagertuarekin desadostasun politiko handiak zituztenak. “Bereziek” erakundearen barruan tentsioen eta mesfidantza sakonen giroa sortua zuten.

Hedabideen aurrean egindako agerraldi horretan, publiko egin ziren, halaber, Perturrek bere neska-lagun Lourdes Auzmendiri igorritako gutunaren zati kritikoenak. Gogora dezagun gutun horretan *“astakirten”* dei-

49 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. Op. cit., 102. or.

50 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. Op. cit., 137. or.

51 Auzitegi Nazionalaren autoa, 2012ko irailaren 20koa, 13- 14 or.

52 11305/88 C PM/ 2999/88 A G zigor prozedura, Auzitegi Nazionalan 2008ko maiatzaren 13an aurkeztutako kereilan aipatua, 7. or.

53 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. Op. cit., 136. or.

54 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. Op. cit., 89. or.

tzen ziela Ipar Euskal Herriko ETAre barruan “*polizia-estatu bateko giroa sortua zutenei, zeinean nork bere auzoaren susmoa baitu, eta azken horrek bere auzoarena*”⁵⁵.

“Bereziak” ETApm-tik bereizi ziren bahiketa izan eta hamar hilabetera, 1977ko maiatzean, eta ETAm-n sartu ziren.

5.8. ETAm-k familiari emandako erantzuna

ETAm-k familiari dokumentu baten bitartez erantzun zion, non amaieran esaten baita deklarazio horiek euskal eskuinaren sektore batzuen maniobra bat direla, susmoetan oinarrituak, “*inongo frogarik gabeak*”⁵⁶, eta lokatzerat botatzen dituztela Perturren alde egindako mobilizazioak.

ETApm-ren zuzendaritzak, bere aldetik, elkarri botatako akusazioei amaiera eman zien *Diario 16* egunkari-ira igorritako zortzi puntuko komunikatu batekin, zeina lehenago ere aipatu baitugu. Idazkiaren zazpigarren atalean honako hau dio:

*“Perturren desagertzeari dagokionez, erakundeak egindako ikerketek hasiera-hasieratik eskuin muturraren, polizia-indarren edo informazio-zerbitzu sekretuei erreparatu zieten, bai eta Perturren ezaguna zen pertsonaren batek, etakidea izan nahiz ez izan, bera saldu izanari buruzko aukerari ere. Gero, ETA militarreko kideek egindako iradokizunen aurrean, alegia, desagertzearen arduradunak “Berezietako” kideak izan zitezkeela, gure ikerketak ildo horretara ere zuzendu ziren. Esan beharra daukagu pista edo jarraibide ugari aurkeztu badigute ere, norabide batera zein bestera, ezin izan dugula ez daturik, ez frogarik bildu akusazio zehatz bat egiteko”*⁵⁷.

5.9. Biriatuko hilerrian. 1997ko iraila

Familiaren abokatu Juan María Bandrésék informazio bat jaso zuen, zeinaren arabera Eduardo Moreno Bergaretxeren gorpua Behobiatik hurbil dagoen Biriatu herriko hilerriko panteoi batean egon baitzitekeen; izan ere, Behobiatik hurbil ikusi zuten azkeneko aldiz Moreno Bergaretxe.

Informazio hori zela eta, familiak Baionako Agintari Judizialei eskatu zien hilerri horretako hilobi bat irekitzeko. ADN probak egin ziren, topatutako gorpua Eduardo Moreno Bergaretxerena zen ala ez konfirmatzeko. Egiaztatze-lanek ez zuten halakorik konfirmatu⁵⁸.

5.10. José Antonio Sáenz de Santa Mariak “gerra zikina”ri buruz esandakoak 1998an

Egin dezagun hamar urteko jauzi bat denboran Fernando Lázaro kazetariak José Antonio Sáenz de Santa Mariari *El Mundo* egunkarian egindako elkarrizketari erreparatzeko. 1998ko abuztuan argitaratu zen. Elkarri-riketak bultzatzen gaitu hilketaren egileak Espainiako polizia-zerbitzuak izan zirela dioten hipotesietara. Militarrek honako hau baieztatu zuten: “*Mareyren bahiketa hauts-izpi ñimiño bat da terrorismoaren aurkako borrokan*”. Aurrerago, PSOE Gobernura iritsi aurreko garaian buruz hitz egiten du. Honela jaso zuen *El Mundo* egunkariak hitzez hitz: “*Teniente jeneralak gogoratu zuen urte askotan terrorismoaren aurkako borrokan parte hartzen egon zela eta ederki dakit nola lan egiten zen garai hartan eta nola lan egin zen PSOEren garaian. Ez da komeni iragana harrotzea, baina egitateak egitate dira, eta Mareyren bahiketak ez digu ahan-tzarazi behar hura baino lehen beste egitate batzuk izan zirela, **ikertzea komeni ez direnak**, Espainiaren onerako, baina egitateak badirenak; esate baterako, Almeriako kasua, Cubillokoa, Montejurrakoa, Argalarena, **Perturrena**”*⁵⁹.

55 AMIGO, A. Op. cit., 143. or.

56 AMIGO, A. Op. cit., 145- 146 or.

57 AMIGO, A. Op. cit., 150. or.

58 Auzitegi Nazionalean 2008ko maiatzaren 13an aurkeztutako kereila, 5. or.

59 LÁZARO, F. “Martin Villa y Fraga debían solidarizarse con los condenados”. *EL MUNDO*, 1998ko abuztuaren 3a.

5.11. 30. urteurrena (2006)

Moreno Bergaretxeren desagertzearen 30. urteurrenean, Donostian 2006ko uztailean egin zioten omenaldian, haren lagunek beste behin eskatu zuten haren desagertzea argitu zedin. Horixe jaso zuen *Diario de Noticias* egunkariak:

“Ez da hartu behar amaitutako gai baten gisara; izan ere, Espainiako eta Frantziako estatuen erantzukizunak badaude, kasua argitu dadin”⁶⁰.

Egunkariak berak honako hau baieztatzen zuen: *“oinarri handienak dituen hipotesiak BVE eta Triple A seinalatzen ditu, bai eta Espainiako zerbitzu sekretuak ere, zeinek arreta desbideratu baitzuten milien kontu-garbitze bat izan zela pentsa zedin”*. Baina ez zuen ezkututzen beste bertsio bat ere bazegoela, senideena.

5.12. Italiako sumarioa: ETArek aurka Frantziako hegoaldean

Omenaldi hartan, zeinean Ángel Amigo zinemagile eta *polimili* ohiak parte hartu baitzuen, kide izan zuen lagunaren desagertzeari buruzko beste analisi bat egiteko ideia sortu zen. Ikerketa talde txiki bat sortu zuten, eta haien bilaketak eta ondorioak *El año de todos los demonios* (2007) deitutako dokumentalean bildu zituzten. Ikerketa-ildo baten hasiera da, zeinak eraman baitzituen Italian neofaxistei buruz egindako sumario batera: *ETArek aurka Frantziako hegoaldean*.

Ángel Amigok, GARAK egindako elkarrizketa batean, honako hau adierazi zuen: *“sumarioak hamar bat neofaxistaren deklarazioak biltzen ditu, eta guztiak bat datoz berrestekoan Espainiako poliziako sektoreentzat ari zirela lanean. Ederki ezagut daitezkeen atentatu batzuei buruz hitz egiten dute, eta testigantza horien arteko batean, lekuko batek deklaritzen du Concutellik kontatua ziola etakide bat bahitu zutela eta narkotizatu egin zutela, eta Espainiara eraman eta Espainiako Poliziaren talde bati entregatu ziotela, lehenengo galdekatu eta gero desagerraraz zezaten. Deklarazio horiek berrestekotan, Pertur izan zitekeela jo liteke”⁶¹.*

5.13. Auzitegi Nazionaleko kereila

Bi urte geroago, 2008ko maiatzaren 13an, Álvaro Morenok eta Marta Bergaretxek kereila bat aurkeztu zuten Auzitegi Nazionalan, beren semearen desagertzea iker zedin.

Kereila 2008ko ekainaren 27an onartu zuen Auzitegi Nazionaleko Fernando Andreu instrukzio-epaileak.

Egitateak, alde batetik, terrorismoko delitu gisa jaso ziren, eta haien gaineko eskumena, batetik, Botere Judizialari buruzko uztailearen 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 23. artikulua araberan xedatu zen, eta, bestetik, NBERen Biltzar Nagusiaren doktrinaren arabera; izan ere, azken horrek ezartzen du indarrezko desagertze-egintzek ez dutela preskribatzen egileek desagertutako pertsona non dagoen ezkututzen jarraitzen duten bitartean eta egitateak argitzen ez diren bitartean⁶². Zehazki, Nazio Batuetako Biltzar Orokorra 1992ko abenduaren 18ko 47/133 ebazpenean onetsitako Pertsona guztiak indarrezko desagertzeen aurka babesteari buruzko Adierazpenaren 17.1 artikulua, honako hau ezartzen du:

“Indarrezko desagertze-egintzak delitu iraunkortzat joko dira egileek desagertutako pertsona non dagoen ezkututzen jarraitzen duten bitartean eta egitateak argitzen ez diren bitartean”.

Kereilak bi hipotesi planteatzen zituen. Baten arabera, aukera zegoen desagerpena ETApn erakunde terroristako “Bereziak” izenaz ezagutzen zen sektoreko kideen erantzukizuna izateko —sektore hori aurrerago ETA militarrean sartuko zen—; besteak, berriz, aipatzen zuen desagerpena Espainiako polizia-zerbitzuetan integratutako elementuek —dela zuzenean, dela haien zerbitzuan ari ziren Espainiako eskuin muturreko erakundeetako kide edo neofaxista italiarrak ziren hirugarrenen bitartez— eragindakoa izan zitekeela⁶³.

60 NOTICIAS DE GIPUZKOA. 2006ko uztailek 8a.

61 “El año de todos los demonios” GARA. 2007ko irailaren 2a.

62 Auzitegi Nazionalaren autoa, 2008ko ekainaren 27a.

63 Auzitegi Nazionalan aurkeztutako kereila, op. cit, 5-6 or.

Kereilan argudiatutakoaren arabera, desagertzearen egile gisa “Bereziak” —ETApm erakundeko “komando berezien” sektorea— seinalatzen dituen hipotesia oinarritzeko arrazoiak honako hauek dira:

1. Barne-borroka, 1976ko apirilaren 8an Berazadi industrialaren hilketak larriago egin zuena. Egitate horrek ETApm-ko gehiengoaren eta “Komando Berezien” arteko desadostasunak areagotu zituen.
2. “Bereziak” Pertur atxiki izana. Horren arduradunak Eugenio Etxebeste *Antxon* eta Simón Loyola *Mendi* izan ziren, 1976ko maiatzean, Pertur ETApm-ko Biltzar Ttipira joatea eragotzi nahi baitzuten. Bilerara horretara joandako batzuek azalpenak eskatu zituzten, eta gehienek Perturrek biltzarrean parte hartzearen aldeko botoa eman zuten. Pertur, azkenean, biltzarrera joan ahal izan zen.
3. Perturrek bere neska-lagun Lourdes Auzmendiri bidalitako gutuna, zeinean, besteak beste, aipatzen baitu “*Bereziak*” erakundea Iparraldean “*polizia-estatu bihurtua zutela, zeinean nork bere auzoaren susmoa baitu, eta azken horrek bere auzoarena*”.
4. Miguel Ángel Apalategik eta Francisco Mujika Garmendiak Donibane Lohizunetik Behobiara autoz joateko denbora gehiegi eman zutela.
5. Pertur desagertu zenean, ez erregistrorik, ez atxiloketarik, ez bestelakorik gertatu ez izana... Moreno Bergaretxek eman zitzakeen informazioen ondorioz.
6. María Dolores González Katarain *Yoyesen* (1986) eta Eduardo Moreno Bergaretxe *Perturren* hilketen arteko paralelismoa. Batzuentzat, Pertur desagerrarazteko arrazoiak eta Yoyes hiltzekoak berak dira.

Hala eta guztiz ere, Frantzia 1977ko ekainaren 2an eta 1976ko uztailaren 24an egindako diligentzietako deklarazioetan, bai Miguel Ángel Apalategik, bai Francisco Mujika Garmendiak ukatu egin zuten inongo harremanik izatea Eduardo Moreno Bergaretxeren desagertzearekin⁶⁴.

Beste hipotesiari dagokionez —Espainiako eskuin muturreko taldeak edo neofaxista italiarrak seinalatzen dituen, Espainiako polizia-zerbitzuekin elkar hartuta, zuzenean nahiz zeharka—, kereilak bi informazio-ildo aipatzen ditu.

Lehenengoa, Francisco Javier Vinader kazetariaren babes-errekurtsoaren kariatara, Moreno Bergaretxeren desagertzeari buruz Konstituzio Auzitegiaren epaian aurkitutako erreferentzietan jasota dago⁶⁵:

Francisco Javier Vinader Sánchez kazetaria kondenatua izan zen “Interviú” aldizkarian argitaratutako bi artikulurengatik: haietan, zenbait informazio eman zituen eskuin muturreko talde terroristekin ustez loturak izan zituzten pertsona batzuei buruz. Horietan, Eduardo Moreno Bergaretxeren hilketa eta desagertzea aipatzen da. Artikulu horiek aipatutako “Interviú” aldizkariaren 188. eta 189. zenbakietan argitaratu ziren, 1979ko abenduko azken astean eta 1980ko lehenengo astean, hurrenez hurren, “Confesiones de un infiltrado” izenburu bakarraren pean.

Konstituzio Auzitegiaren aipatutako epaiaren aurrekarietako 1 A) atalean, aipatzen dira “*zenbait informazio, Vinaderren esanetan, X. X. jaunak eman zizkionak Francisco Ros Frutos polizia nazional ohia*” Frantzia euskal errefuxiatuen aurkako antolaketari eta ekintzei buruzkoak, eta gehitzen du ekintza gehienak “*horretarako kontrolatutako jendeak burutzen zituela*”⁶⁶.

Arestian esandako 1 A) atalean aipatzen diren egitateen artean Perturren desagertzeari buruzkoa dago; horri buruz, honako hau esaten da, hitzez hitz:

“...; [X. X. a Ros Frutos]-ek “*Pertur*” kasuari buruz ere hitz egin ziola, eta esan ziola zuzenean lotuta egon zela horrekin, eta hura hil ondoren eskuak moztu zizkiotela identifikazioa eragozteko, eta haren gorpua Espainiako bandera batean bildu zutela eta Frantzia hegoaldeko herri bateko hilerriaren ondoan lurperatu zutela”⁶⁷.

Informazioaren bigarren ildo da Italiako Justiziaren 11305/88 C PM/2999/88 A G zenbakiko zigor prozeduratik heldu dena. Prozedura hori ireki zen Vittorio Occorsio magistratuaren 1976ko hilketa zela-eta, eta Txi-

64 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. Op. cit., 102. eta 162. or.

65 Konstituzio Auzitegiaren 105/1983 epaia.

66 Konstituzio Auzitegiaren 105/1983 epaia.

67 Konstituzio Auzitegiaren 105/1983 epaia.

leko lehendakariorde ohi Bernardo Leightonen eta haren emazte Ana Fresnoren aurka 1975ean izandako atentatua zela eta, biak ere “*Ordine Nuovo*” talde neofaxistaren eskutik⁶⁸.

Magistratu italiarra Espainiako segurtasun zerbitzuen Ingram metraileta batez hil zuten.

Italiako zigor prozedura horretan ageri diren deklarazioek erakusten dute neofaxista italiarrek 1975 eta 1980 bitartean jardun zutela Ipar Euskal Herrian Espainiako polizia-zerbitzuen tutoretzapean, eta Ingram metrailetak erabili zituztela.

Bereziki Angelo Izzok egindako deklarazioan, honako hauek jaso ziren:

“*Gogoan dut (Concutellik) esan zidala ETAko euskaldunen aurka jardundakoa zela [...] Countellik berriaz ekin-tza horietako bi aipatu zizkidan: behin esan zidan Ingramarekin pertsona bat hila zutela, ETAREN base gisa era-biltzen zen argazkilaritza-estudio baten atarian, eta Concutellik esan zuen tiro-sorta bat jaurtiki ziola bularrera eta beste bat aurpegira. Concutellik aipatu zidan beste gertakari bat izan zen behin, autoan zihoazela, motorrean zihoan etakide bat kolpatu eta lurrera bota zutela, eta gero lurretik jaso, narkotizatu eta Espainiara eraman zutela, eta motorra desagerrarazi zutela. Concutellik esan zuen bahitutako hori, behin Espainiara eramanda, ez zute-la poliziaren esku utzi; izan ere, ETAREN aurkako komandoetako kide baten esku utzi zuten, zehazkiago CIAko agentea omen zen —edo, hobeki esan, zehatzagoak izateko, iraganean CIArentzat lan egindakoa omen zen— baten esku. Hark esan zuen etakide euskaldun hori torturatu eta gero desagerraraziko zuela”.*

Kereilan azpimarratzen da lekukotasun horiek egiazkoak badira, komenigarria litzatekeela honako hauek gogoan izatea:

Neofaxista italiarren taldeek euskal errefuxiatuen aurkako atentatueta esku hartu zuten urteetan Ipar Eus-kal Herrian desagertu ziren pertsona bakarrak Eduardo Moreno Bergaretxe, 1976ko uztailaren 23an desa-gertua, eta José Miguel Etxeberria Alvarez, 1980ko ekainaren 11n, izan ziren.

Pierluigi Concutelli, *Ordino Nuovo* erakundeko kidea, 1975etik 1977ra bitartean egon zen Espainian errefu-xiatuta, eta ageri da lotuta egon zela urte horietan Espainian burututako ekintzekin. (Beste ekintza batzuen artean, Jurramendikoa, 1976ko maiatzaren 9an, non bi hildako izan baitziren. Orduan, azaldutakoari erre-paratuta, Pierluigi Concutellik esan zion buruz Angelo Izzok kontatzen duena egia balitz, aukera legoke adierazpen horietan aipatutako pertsona Eduardo Moreno Bergaretxe izateko.

Argudiatze-ildo berean, kereilak Espainian egindako ikerketak ere aipatzen ditu. *El País* egunkariak 1986ko irailaren 25ean, kasuarekin lotutako informazio batzuk eman zituen ezagutzera:

“*Barneko Informazio Brigadaren 1983ko otsaileko isilpeko txosten batek dio Espainian 1972tik bizi zen Car-lo Cicuttini neofaxista italiarrak, atxilotuta egon zen aldian, 1982aren amaieran, onartu zuela —galdeketa-k izan ziren bitartean, baina haietatik kanpo—, Espainiako poliziarentzat lan egin zuela, eta “Frantziar Antite-rrorismo ETA (ATE) talde gisa hainbat operazio egina zela, bai Espainiako ezkerreko kideak, bai etakideak zelatatu eta behatzekoak, eta azken horien aurkako atentatuak ere egin zituela”.*

Kereilak jasotzen du Carlo Cicuttini, “*dirudienez, gaur egun Espainiako espetxe batean dagoela*” eta haren lekukotza eskatzen du.

Andreu epailearen instrukziopeko prozesuan Cicuttiniri ez zitzaion deklaraziorik hartu, nahiz eta autoan ha-ren lekukotza jaso eta hitzez hitz honakoa ageri den “*(Cicuttinik) ez du Eduardo Morenoren desagertzeari buruzko inongo daturik eman*”⁶⁹.

Hori zela eta, demanda-egileak autoa argitzeko eskaera bat egin zuen, eta haren ondorioz autoaren zati hori zuzendu zen, eta seigarren argudio juridikoaren hirugarren paragrafoa kendu zen⁷⁰.

Hipotesi berari jarraituz, kereilak *El País* egunkariak argitaratutako beste informazio batzuk aurkezten ditu, zinetan urte haietan erakunde neofaxista italiarretako kideek egindakoak aipatzen baitira:

1985eko apirilaren 8ko egunkariak Internazional Faxistako burukideen jardueri buruzko ikerketak aipatzen ditu, eta honako hau esaten du horri buruz:

68 Kereila, op. cit, 7-10 or.

69 Auzitegi Nazionalaren autoa, 2012ko irailaren 20koa, op. cit 13. or.

70 Auzitegi Nazionalaren autoa, 2012ko urriaren 30ekoa.

“Internazional Faxistako burukide garrantzitsuak, horietako batzuk polizia frankistarekin zerikusia dutenak, ikertzen ari dira Santiago Brouard buruzagi abertzalearen erailketa dela eta. Espainiako poliziaren txosten batek, sumarioan jasota dagoenak, Erromako Interpolen mezu bat jasotzen du, non baieztatzen baita Stefano delle Chiaiek, Augusto Cauchik eta Pier Luigi Concutellik etakide baten aurka atentatua egina zutela Frantziako hegoaldean, eta beste bat bahitu eta Espainiara eraman zutela, narkotizatu ondoren.”

Eta 1986ko apirilaren 22an, egunkari berean, honako hau aipatzen da:

“Lillo ezizenaz ezaguna zen italiar batek, zeina Espainiako poliziak Piero Luigi Concutelli gisa identifikatzen baitu, 1976ko hasieran etakideen aurkako ekintza terroristak zuzendu zituen Frantzian, berak, Giuseppe Calzonak eta Augusto Cauchik osatutako komando baten buru gisa; hain zuzen, hirurak Italiako mugimendu neonaziko kide ezagunak ziren, Polizia Zuzendaritza Nagusiaren txostenaren arabera.”

Egunkarietako argitalpen horiek zabalduetako informazioak alderdi batzuetan bat datozen arren Angelo Izzok Italiako 11305/88 C PM/2999/88 A G zigor prozeduran egin zituen adierazpenekin, Concutellik euskaldun bat bahitu izanari buruz ezin izan da deus ere frogekin demostratu, Andreu epailearen autoak amaieran aipatzen duen bezala. Hori, halere, paradoxa bat da, zeren eta kereilak berak baieztatzen baitzuen *“hipotesietako bakarra ere ezin izan dela froga bidez berretsi”*.

Kereilak, halaber, kritika zorrotza egiten du erakundeek izan duten interes falta dela eta: *“EDUARDO MORENO BERGARETXE desagertu zenetik joan diren 31 urteetan, guk dakigula instantzia eskudunek inongo ikerketarik ez dute egin kasua argitzeko”*⁷¹.

5.14. F. Andreu epailearen instrukzioa

Instrukzioa lau urtez egin zen, eta kereilan azalduetako bi hipotesietan oinarritu zen.

Epaileak lekuko gisa deklarazioa hartu zien Ipar Euskal Herrian errefuxiatuta zeuden erakundeko zazpi kide eta jarraitzailei: Juan José Gurrutxaga, Eugenio Etxebeste, Simón Loiola, Lourdes Auzmendi, Eleuterio Jauregi, Fermin Imaz eta Sabino Atxalandabaso; eta inputatu gisa Francisco Mujika Garmendia *Pakitok* ETako burukidea galdekatu zuen, Pertur berarekin ikusi baitzuten desagertu zen egunean. Pakitok deklaratu zuen ez zekiela zer gertatu zitzaion Eduardo Morenori.

Beste hipotesiari jarraituz, hiru neofaxista italiarrek deklaratu zuten epailearen aurrean, Espainiako zerbitzu sekretuekin zerikusia izan zutelakoan: Pierluigi Concutelli, Angelo Izzo eta Sergio Calore. Hiru ikertuetako batek, Angelo Izzok, baieztatu zuen bere mertzenario-taldeak urte haietan harremanak izan zituela Poliziarekin eta Guardia Zibilarekin⁷². Adierazi zuen Concutellik, haren kamarada batek, kontatua ziola bera eta Cauchi *“Frantziara joaten zirela ETako burukideak eta antifaxistak bahitzera”*. Gero, Bartzelonako landetxe batera, *“La Granja”* deitzen zuten batera, eramaten zituzten, eta han *“torturatu, erail eta lurperatzen zituzten”*. Baieztatu zuen *“Bartzelonako Poliziaren edo Guardia Zibilaren agindua jasotzen zituztela “La Granja” zeudenek”*⁷³.

Angelo Izzok, 1984ko otsailean, Erromako Epaitegi Penal eta Zibilean deklaratu bazuen ere bere kamarada batek, Pierluigi Concutellik, adierazia ziola 1976ko udan Frantziako hegoaldean etakide bat bahitu zutela eta Espainiako polizia-zerbitzuei entregatu zirela, Andreu epaileak, Italiara joanda, ez zuen lortu halako xehetasunik konfirmatzea⁷⁴.

El País egunkariak, 2009ko maiatzaren 29an, ondotik datorren kronikan —*EFE* agentziaren informazioarekin egindakoan— Andreu epaileak Italian Concutelliri egindako galdeketa jasotzen du.

“Badirudi Pierluigi Concutelli neofaxista italiararren memoriak ETApn-ko burukide ohi Eduardo Moreno Bergaretxe Perturren bahiketaren eta desagertzearen parte hartu izanari buruzko oroitzapen oro ezabatu duela. Atzo, Auzitegi Nazionaleko Fernando Andreu epaileak galdekatu zuen Portoglarion, Veneziatik hurbil, non

71 Kereila, op. cit, 10. or.

72 Auzitegi Nazionalaren 2012ko irailaren 20ko autoa, op. cit 13. or.

73 Auzitegi Nazionalaren 2012ko irailaren 20ko autoa, op. cit 14. or.

74 AIZPEOLEA, L.R. “¿Qué fue de Pertur?” *EL PAÍS*. 2016ko uztailaren 23a.

Concutelli baitago espetxealdi arinaren araubidearen pean, atake iskemiko bat (iktusa) izan ondoren. Epai-leak, halere, ezin izan dio garbitik ezer atera, neofaxistaren gaixotasuna dela eta.

Ikerketak Andreu epailea eraman zuen joan den martxoan beste neofaxista italiar bat, Angello Izzo, galdekatzera, eta azken horrek baieztatu zuen harremanak izan zituela Batallón Vasco Español-arekin. Angello Izzok, zeina zigortuta baitzegoen zenbait hilketarengatik, azaldu zuen hirurogeita hamarrek hamarkadan, ETArek aurkako talde italiarrak, zeinak egiazki mertzenarioak baitziren bi taldetan eratuta zeudela: Madrillgo taldea eta Bartzelonako taldea. Bartzelonako taldeak neofaxista frantses eta portugesak ere bazituen.

Angelok kontaktu zuen bere lagun Concutellik kontaktua ziola ETako burukide bat bahitua zuela —izenaz ez zen gogoratzen—, eta hura Bartzelonako kanpoaldeko La Factoría deitzen zuten masia batera eraman zutela. Aipatutako etakidea, zeina ez baitzuten ezagutu galdekaturak erakutsitako argazkian, erail egin zuten, torturak eta galdeketak egin ondoren, masia hartan, eta gero hurbileko baso batean lurperatu zuten, beste neofaxista batek, Sergio Caloresek adierazi zuenez, hura ere Andreu epaileak galdekatu zuenean”⁷⁵.

5.15. Ángel Ugarte eta Emilio Rodríguez Román zitatzeko berraztertze errekurtsoa. 2010 urria

Auzitegi Nazionalean jarraitutako prozesu judizialean, Andreu epaileak ezezkoa eman zion Ángel Ugarte de Landa, CESED-Gobernuaren Informazio Zerbitzuko kidea, eta Emilio Rodríguez Román, Gipuzkoako gobernadore zibil eta Mugimenduaren buruzagi probintziala, zeina aurrerago, uztailaren 24an Segurtasun zuzendari nagusi izendatu baitzuten, deklarazioa hartzeko zitatzeari. Irailaren 30eko autoak, lekukotzak ukatu zituenak, argudiatu zuen “ez zegoela behar besteko segurtasuna zuen datu objektiborik pentsarazteko pertsona horiek datuak eman zitzaizketen instrukzio horretarako; hori dela eta, alferrik izango litzateke hura egitea”⁷⁶.

Kereila aurkeztu zuen aldeak aurkeztutako errekurtsoak berriz ere zioen bi pertsona horien deklarazioak garrantzi handia zuela, kontuan izanda gertakariaren unean betetzen zituzten karguak eta Ugartek “*Espía en el País Vasco*” bere liburuan —Plaza & Janésekin argitaratua 2005eko maiatzean— Moreno Bergaretxeri ematen zion garrantzia. Izan ere, liburua Ángel Ugarteren eta Francisco Medinaren arteko elkarrizketetan oinarrituta dago. Liburuan “*hogeita bat aipamen daude Eduardo Morenori buruz.*”⁷⁷.

Azkenik, Andreu epaileak deklarazioa hartu zion Ángel Ugarte de Landari, eta azken horrek esan zuen ez zekiela ikertu ote ziren ATE (Antiterrorismo ETA) eta Batallón Vasco Español taldeek bahiketa zela-eta egin dako errebindikazioak. Eta baieztatu zuen “*berak ez zituela ikertu*”⁷⁸.

Emilio Rodríguez Románek deklaratu zuen ez zuela gaiari buruzko inongo ikerketarik agindu⁷⁹.

Eduardo López de Maturana García, zeina Irungo komisarioburua eta Mugarako delegatua baitzen, emandako lekukotasunean, adierazi zuen bere gaineko aginduak jaso zituela Marta Bergaretxe atxilotzeko, zeren eta haren semea bilatzeko Frantzia egindako bilatze-kudeaketek beste polizia-gai batzuk nahas baitzitezaketen. (Gogoratu beharra dago Perturren ama apirilaren lehenengo egunetan atxilotu zutela eta haren semea 1976ko uztailaren 23an desagertu zela). Ez du gogoratzen nor eman zion hura atxilotzeko agindua⁸⁰.

5.16. Autoa

2012ko iraileko autoan, Fernando Andréu epaileak ondorioztatu zuen Perturren familiaren deliberoa gorabehera, “*ezin zela argudio-ildorik ezarri, Eduardo Morenori egun hartan, 1976ko uztailaren 23an, gertatuta*

⁷⁵ “Un ictus borra el recuerdo de Pertur”. *EL PAÍS*, 2009ko maiatzaren 29a.

⁷⁶ Berraztertze errekurtsoa, op. cit

⁷⁷ Errekurtsoa, op. cit 12. or.

⁷⁸ Auzitegi Nazionalaren autoa, 2012ko irailaren 20koa, op. cit 15. or.

⁷⁹ Autoa, op. cit, 16. or.

⁸⁰ Autoa, op. cit, 17. or.

koari buruz”⁸¹. Magistratuak gehitzen du egindako jarduketetatik *“ez dela ondorioztatzen behar adina aztar-na dagoenik pertsona jakin batzuei egozteko desagertzearen ardura”*⁸²; horrenbestez, kausa artxibatzeko agindu zuen.

Hala eta guztiz ere, Andreuk bai egiaztatu zuen desadostasun sendoak zeudela Perturren —ekintza politiko eta armak uztea aldeztu zuen— eta “Berezien” ildoaren —indarkeriarekin jarraitzearen aldekoak— artean. Hainbestearinokoak izan ziren desberdintasunak non azken horiek Pertur bahitu ere egin baitzuten, biltzarraren aurreko bileran parte har zezan eragozteko.

Magistratuak probatutzat ematen du Pertur uztailaren 23an ikusi zutela “Berezien” Miguel Ángel Apalategi eta Francisco Mujika Garmendia buruzagiekin. Haiak ikusi zituen Eleuterio Jauregi *Trotsky* errefuxiatuaren esanetan, ez zuen ezer anormalik ikusi Perturren jarreran arreta deitu zionik; izan ere, harekin txantxetan ere aritu zen.

Halaber, berresten du garai hartan zenbait atentatu izan zirela Frantzian errefuxiatutako zenbait etakideren bizitzaren aurka, eta *Alianza Apostólica Anticomunista de España* taldeak bahiketa erreibindikatu zuela *Cifra* agentziari egindako dei batean, eta *El Correo* egunkariak *Batallón Vasco Español* taldearen komunikatu bat jaso zuela, non esaten baitzuen *Pertur* hil eta Nafarroako herri batean lurperatu zutela.

Martin Auzmendik, desagertzearen berrogeigarren urteurrenaren kariatara argitaratutako artikulu batean, honako desio hau adierazi zuen:

*“Seguru nago egileetako batzuk eta desagertzeari estaldura eman zioten batzuk bizirik daudela oraindik. Litekeena da nola desagerrarazi zuten ezagutzera iritsi ziren beste batzuek beraiek dakitena oraindik ere esan ahal izatea”*⁸³.

5.17. Laburpen gisa

Atal honetan saiatu gara bilketa ahalik eta exhaustiboena egiten dauden hipotesiak oinarritu ditzaketen datuei buruz. Datu-bilketan, nolana ere, saiatu gara hipotesi baten edo bestearen alde ez lerratzen, datuek beraiek daukaten indarra bera gorabehera.

Halere, dirudienez batere zalantzarik ez dago ez zela kasua behar bezala ikertu, ez eta efizientziaz ikertu ere, ez egitateak gertatu ziren unean, ezta gero ere.

81 Autoa, op. cit, 19. or.

82 Autoa, op. cit, 21. or.

83 AUZMENDI, M. “Pertur: 40 años desaparecido” *ELDIARIO.ES*, 2016ko uztailaren 22a. 2016ko urriaren 19a. «eldiario.es»

II

Pertur kasua

Prozedura irekitzeko eta zigorra ezartzeko aukerei buruzko arazoak nazioarteko estandarren eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentziaren ikuspuntutik

1. Sarrera

Eduardo Moreno Bergaretxe *Pertur*, ETApM-ko kidea, 1976ko uztailaren 23an desagertu zen, haren desagertzearen inguruabarrak inon jasota ez daudela; halere, funtsean, bi hipotesi izan ziren gaiari buruz: desagertzea ETApM-ko “Bereziak” sektoreko kideek burututakoa izatea, eta erantzule gisa Espainiako polizia-zerbitzuetan integratutako elementuak jotzen dituen, dela zuzenean, dela haien zerbitzuko hirugarrenen bitartez (Espainiako eskuin muturreko edo Italiako neofaxisten erakundeetako kideak). Lau urteko jarduketan ondoren, Auzitegi Nazionalako 4. Instrukzio Epaitegi Zentraleko magistratu-epaile Fernando Andreu Merellesek, 2012ko irailaren 20ko autoan, kausaren behin-behineko largespena xedatu zuen, behar adina frogarik ez baitzuen aurkitu pertsona jakin bati edo batzuei egozteko Eduardo Moreno Bergaretxe 1976ko uztailan desagerrarazi izanaren erantzukizuna.

Egitate haietatik lau hamarkada igaro direnean, **prozedura aurrera eramateko aukeraren** blokeorako elementuak egoteari ala ez egoteari buruzko alderdia eta **balizko zigorrarena** dira ikuspuntu juridikotik azken analisi edo gai-lanketa bat eskatzen dutenak. Perturren desagertzetik iragan den denbora dela eta, azter daiteke ea inguruabarrak ba ote dagoen beharrezko egiten duenik zigor erantzukizunak irauten duen ala ez egiaztatzea, egitateen balizko preskripzioa dela eta, edo egitate horiek Amnistiari buruzko urriaren 15eko 46/1977 Legearen pean jar ote daitezkeen.

2. Espainiako Auzitegi Gorenaren irizpidea

Espainiako Auzitegi Gorenak Gerra Zibilean eta diktaduraren lehenengo urteetan zehar gertatutako indarrezko desagertze kasuak direla-eta hartutako irizpidea aztertuta, badirudi **zigor erantzukizuna azkentzearen** aldeko arau-interpretazio bat egin daitekeela. Interpretazio hori bere egin dute gainerako epaitegiek aipatutakoaren antzekoak diren kausetan, beren geroko ebazpenetan, eta aztergai dugun kasuarekin bat datozen elementu batzuk direla-eta, bereziki egokitzen da hori txosten honetan gogora ekartzea.

Otsailaren 27ko 101/2012 epaian, Auzitegi Gorenak dio, laburbilduz, ez dela bidezkoa zigor-ikerketak bat egitea gerran eta diktaduraren lehenengo urteetan zehar gertatutako indarrezko desagertze kasuak direla eta, zeren eta kasu horiek preskribatuta egonen bailirateke eta balizko erantzuleak hilik baileudeke, kontuan hartuta, gainera, desagertzeen izaera jarraitua fikzio bat izango litzatekeela (zeren eta ez bailitzateke logikoa izango pentsatzea 1936an desagertutako pertsona batek bizirik jarraitzea); eta, edonola ere, 1977ko Amnistia Legea izango litzatekeelako aplikatzekoa. Ikus daitezkeen moduan, balorazio-parametro horiek urrun daude nazioarteko zuzenbidearekin bat datorren araudia interpretatetik eta aplikatetik, oro har, eta zehazki giza eskubideen arloko nazioarteko zuzenbidea aplikatetik.

Pertur kasuari dagozkion egitateak denboran askoz ere berriagoak diren arren Garzón epaileak ikertutako krimenak baino, hain zuzen ere aipatutako epaia ekarri zutenak (halako moduz non pentsa baitaiteke arduradunetako batzuek bizirik jarraitzen dutela), zera aztertu behar da: ebazpen horretan aipatutako gainerako inguruabarrak legitimitatez aipa badaitezke zigor arloko erantzukizuna ukatzeko, bereziki balizko preskripzioari eta amnistiari dagokienez.

Ondoren 101/2012 epaiaren alderdi garrantzitsuenak aletzen joango gara, konexioak ezarri eta *Pertur* kasuari buruzko balizko ondorioak inferituz, kasu horri aipatutako epaian hartutako irizpide bera aplikatuta.

2.1. Zigor arloko prozedura eta egiaren bilaketa

Auzitegi Gorenak arlo honi buruz daukan irizpidea ezartzeko premisak kokatzeko, bereziki deigarria eta argigarria da organoak “egiaren bilaketari” buruz egiten duen baieztapena; izan ere hari buruz esaten du ezen, zilegi den asmo bat bada ere, ez dela berezko kontu bat, eta ez dela, ezta ere, zigor prozesuaren atal bat, eta beste erakunde batzuei ere ez dagokiela.

Zigor arloa bazterten denean, esanez ez dela egokiena ez biktimek bila dezaten zigor arloko instrukzioko epailea —helburu hori Estatuaren esku utzita, senidea hil zeneko inguruabarrei buruzko informazioaren birtartez—, ez eta argiki delituzkoak diren egitate batzuk iker daitezen, zeinak lehenago sekula ez baitira ikertu zigor arloaren ikuspegitik Espainian, eta ez dela egokiena, ezta ere, kasuko erantzukizunak ezartzeko eta biktimei erreparazioa emateko, badirudi Auzitegi Gorenak alde batera uzten duela ezen giza eskubideen nazioarteko zuzenbiderako estatuen betebeharrak orokorra dela, hain zuzen ere, egindako delituak ikertzea, bai egitateen inguruabarrei buruzko egia argitzeko, bai eta errudunak zehatzeko eta biktimei erreparazioa emateko ere. Baina, horretaz gain, doktrinak egokitasun handiz adierazi duen moduan, ez dio ezertarako ere erreparatzen honako kontu honi: Espainiako barne zuzenbidearen ikuspuntutik ere, biktimek erreklamatzeko duten “jakiteko eskubidea” hertsiki lotuta dago beste eskubide batzuekin; esate baterako, justizia eskuratzeko eskubidearekin eta errekurso eraginkor baterako eskubidearekin, zeinak Espainiako Konstituzioan islatuta dauden moduan, honela itzul daitezkeen: epaile eta auzitegien babes eragingarria lortzeko eskubidea, Espainiako Konstituzioaren 24. artikulua jasotzen duen moduan⁸⁴.

Azken batean, Auzitegi Gorenak plangintza bat garatzen du, non errefusatzen baitu zigor-prozesura jotzearen egokitasuna, aurrez jakiten denean azken horrek ez duela ondorioztatuko erantzukizun-deklaraziorik, erantzukizuna azkentzeko arrazoiren bat badagoelako; esate baterako, egilearen heriotza, delituaren preskripzioa edo amnistia.

2.2. Legezketasun-printzipioa

Epaia abiapuntua da ezen Espainian nazioarteko zuzenbideko krimenak (zehazki, indarrezko desagertzeak, gizateriaren aurkako krimenen testuinguruan) zigorraren arlotik jazartzeko, beharrezkoa zela eta beharrezkoa dela barne zuzenbidearen arabera egindako transposizio bat. Hori hala da edozein sistematan, baldin eta, Espainiakoak bezala, ez badu jasotzen nazioarteko arauen zuzeneko eraginkortasuna. Ildo horretatik, Auzitegiak dio “ez dela posible —doktrinaren sektoreen batek hala baieztatzen duen arren— tipizitate printzipioaren beharkizunak betetzea nazioarteko ohiturazko zigor zuzenbidean jasotako aurreikuspenarekin, baldin eta barne zuzenbideak tipizitate hori jasotzen ez badu”.

Aurkakotasun horrek, zeina argiro lotuta baitago legezketasun-printzipioarekin, eramaten gaitu argitzera ea gizateriaren aurkako krimenen kontzeptua dela-eta errekurtoa aurkez daitezkeen, kontuan hartuta kategoriatu hori ez zegoela Espainiako Zigor Kodean jasota egitateak gertatu ziren garaian. Auzitegi Gorenak 101/2012 epaian ulertu zuen halakorik ez zela posible, eta argudiatu zuen aurreikusgarritasunaren eta irisgarritasunaren betekizunak ez direla betetzen, zeren eta Garzón epaileak ikertu zuen aldiaren gizateriaren aurkako krimenen kontzeptua bera ez baitzen ezagutzen.

Baina egitateak gizateriaren aurkako krimenen kategorian sartzea alde batera utzita ere, eta hertsiki indarrezko desagertzeei dagokienez, nabarmendu beharra dago Espainiak ez zuela izen hori zuen zigor-tipo berariazkorik. Une horretan, legearen aurkako atxilotzea zen horrelako jokabideak har zitzakeen zigor-tipo hurbilena, nahiz eta nahikoa ez izan indarrezko desagertzea nazioarteko zuzenbidearen arabera osatzen duten elementu guztiak bere baitan hartzeko. Aurrerago aztertuko den moduan, zigor figura berariazkorik ez izateak ez lituzke estatuak salbuetsi beharko indarrezko desagertze-egintzak ikertzetik eta zigortzetik, nahiz eta, dirudienez, Auzitegi Gorena jarrera horrekin ados ez egon. Izan ere, Auzitegi Gorenak, Pertsona guztiak indarrezko desagertzeen aurka babesteari buruzko 2006ko abenduaren 20ko Konbentzioaren —Espainiak 2007ko irailaren 27an berretsi zuen— 8. artikulua baliatuta, aipatzen du legez kontrako atxilotzea, desagertuta non dagoen esan gabekoa, ez zegoela aurreikusita legez kontrako atxilotzearen tipo larriagotu gisa instrukzio judizialaren xedea den aldiaren hasieran (zigor tipo hori 1928ko Kodean agertu zen, eta Errepublikara garaiako 1932ko Kodean desagertu zen, eta berriz ere jaso zen 1944ko Kodean). Horrenbestez, Auzitegiak ondorioztatzen du Garzón epailearen instrukzioaren xede den aldiaren zati handi batean, zigor-tipo hori ez zegoela indarrean.

84 CHINCHÓN ÁLVAREZ, JAVIER/VICENTE MÁRQUEZ, LYDIA/MORENO PÉREZ, ALICIA, “La posición del Tribunal Supremo respecto a la aplicación del derecho internacional a los crímenes del pasado en España: Un análisis jurídico tras los informes del Grupo de Trabajo sobre Desapariciones Forzadas, el Comité contra la Desaparición Forzada y el Relator Especial sobre Justicia Transicional de las Naciones Unidas”, *Anuario Iberoamericano de Derecho Internacional Penal*, 2. liburukia, 2014, 79. or.

Hala eta guztiz ere, gogorarazi beharra dago Perturren desagertzea egitate horiek baino askoz geroago gertatu zela. Garzónek ikertutako kasuetan gertatzen zenaz bestera, Pertur desagertu zen unean legez kontrako atxilotzearen —desagertua non dagoen esan gabekoa— zigor-tipoa bazegoen aurreikusia, eta, horrenbestez, Auzitegi Gorenak 101/2012 epaian argudiatutako tipizitate faltari buruzko lehen-lehenengo eragozpen hori gaindituta egon liteke. Baina ikus dezagun orain zein izango liratekeen preskripzioaren edo amnistiaren bidezko zigor erantzukizuna azkentzearen berariazko kasuak.

2.2.1. Delituaren preskripzioa

Gauza jakina da delituaren preskripzioa zigor-erantzukizuna azkentzeko arrazoietakoa bat izan daitekeela. Zigortzeko asmoa indargabetu egiten da egindako arau-hausteari dagokion preskripzio-epea iragaten bada, eta epe hori, izan ere, delituaren larritasunaren arabera ezartzen da. Delitu batzuen egungo preskribaezintasuna ez da orain dela gutxi samar arte Espainiako antolamendu juridikoan sartutako berritasun bat, eta ez zegoen jasota 1976an indarra zuen Zigor Kodearen aurreikuspenetan. Baina Perturren desagertzearen unean delitu guztiek preskripzio-epeak edukitzeak (ikus 1973ko Zigor Kodearen 112.6 eta 113. artikulua) ez du esan nahi gaia agortuta dagoenik, ez eta delitua automatikoki preskribatuta dagoenik ere, egin zenetik hainbat hamarkada iragan ondoren. Hori horrela da zeren eta preskripzioari dagokionez erabakigarria baita epea noiztik hasi behar den kontatzen. Eta gauza jakina denez, zigor tipoaren mota da hori determinatzen duena. Hartara, bat-batekoak diren delituen kasuan, nola baita homizidioarena, zeinak emaitza gertatzen den une berean gauzatzen baitira, preskripzio-epea une horretatik bertatik hasiko da kontatzen; delitu iraunkorretan, berriz, zeinetan zuzenbidearen aurkako egoera bati eusten baitzaio, tipoa gauzatzen jarraituko da egoera horri amaiera ematen ez zaion bitartean; horrenbestez, preskripzio-epea kontatzen hasiko da zuzenbidearen aurkako egoera hori amaitzen den une berean⁸⁵.

Gauzak horrela, bada, Auzitegi Gorenak hartutako irizpideak harridura baizik ezin du sortu, zeren eta, delituaren iraunkortasunari dagokionez, Auzitegi Gorenaren aipatutako epaiak baieztatu baitzuen delituaren iraunkortasun hori logika juridikoaren aurkako fikzio bat baizik ez zela, eta gehitu zuen “ez dela arrazoizkoa argudiatzea 1936ko legez kontrako atxilotze baten kasuan, zeinean gertatzen baita haren aztarnak 2006an oraindik ere ez direla aurkitu, modu arrazionalen pentsatzea atxilotuak 20 urteko preskripzio epeaz —gehieneko epea aipatzearen— haratago atxilotuta jarraitu zuela. Deigarri gertatzen da Auzitegi Gorenak bere epaian epea zenbaketara hartu zuen erreferentzia dela, hain zuzen, biktimen askatasun-gabetzea gertatu zen unea. Irizpide horri berari eutsiz, eta Auzitegiaren arabera, gerran eta diktaduran egindako krimenak onartuta ere, preskripzio-epea kontatzen hasi beharko litzateke Konstituzioak indarra hartu zuen unetik aurrera (une horretara arte egileek zeukaten zigorgabetasuna dela eta), eta krimenak berdin preskribatuta egonen lirateke.

Gainera, Auzitegiaren arabera, Espainiak berretsi dituen eta haren antolamendu juridikoan integratuta dauden nazioarteko itunetan indarrezko desagertzeak direla-eta aurreikusitako preskribaezintasuna ezin da atzeraeraginez aplikatu. Preskripzio hori arautzen duten xedapenak, zehazki epeen aldaketa bat edo zenbaketaren hasiera-egunaren seinalamendua jasotzen duten erreformak, zigor izaera substantiboa duten arauak dira, eta, horrenbestez, atzeraeraginaren aplikazioaren debekuaren operatibotasun-esparruan sartzen dira, haien edukia erruztatuaren aldekoa denean izan ezik. Horrenbestez, Auzitegiaren arabera, preskripzioari dagokionez, ez da aplikatzekoa jarduten den une prozesalean indarra duen araua (*tempus regit actum* izeneko araua), baizik eta egitateen unean indarra zuena, eta Auzitegiak jarrera hori babesten du hari eutsiko lioketen erreferentzia jurisprudentzial ugari aipatuz, eta horietatik inferitzen du organoak egitateak preskribatuta daudela.

2.2.2. Amnistia Legea aplikatzekoa den ala ez

Auzitegi Gorenak, Garzónen ikerketa ekarri zuten egitateak direla eta, baieztatu zuen amnistiaren barruan sartzen ziren delituak zirela, eta aipatzen zuen 1977ko Amnistia Legearen operatibotasun-esparruan sartzen zirela; zehazki, 1. artikulua barruan, zeinak honako hau baitzuen:

“Amnistiaren pean daude: a) Intentzio politikoko egintza guztiak, emaitza edozein dela ere, delitu eta falta gisa tipifikatuta daudenak, baldin eta mila bederatzehun eta hirurogeita hamaseiko abenduaren 15a baino lehen egindakoak badira”.

85 MIR PUIG, SANTIAGO, *Derecho penal. Parte General*, 10. argitaraldia, gaurkotua eta berrikusia, Reppertor,artzelona, 2016. 232. or. eta ondorengoak ASHOLT, MARTIN, *Verjährung im Strafrecht*, Mohr Siebeck, Tübingen, 2016, 418. or. eta ondorengoak.

Auzitegi Gorenak aitortzen du ezen, Nazioarteko Zigor Gorteak 1998an sortu zuen Erromako Estatu-tua baino lehen ere (Espainiak 2000an berretsi zuen eta EAOn 2002ko maiatzaren 27an argitaratu zen, zehaztuta estatutu hori indarra hartu ondoren egindako delituei aplikatuko litzaiekeela), estatuek konpromisoa hartu zutela giza eskubideen urraketak jazartzeko baliabide eragingarriak edukitzeko, 1966ko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren bitartez (2.3 artikulua); izan ere, itun hori 1977an berretsi zuen Espainiak. Hala eta guztiz ere, Auzitegi Gorenak adierazten du itunean jasotako eskubideak exigitzekoak izango liratekeela, halaber, itun horrek indarra hartu ondoren egindako urraketak zirela eta. Jarrera hori babesteko, Auzitegi Gorenak selektiboki aipatzen ditu Itunaren zaintzaz arduratzen den Komitearen zenbait ebazpen⁸⁶.

Azken batean, amnistia lege bat egonda ere, legezkotasunaren printzipioa nagusituko litzateke eta printzipio horrek mugatuko lituzke biktimek dauzkaten itxaropenak lege hori aplikatzeko litzatekeen kasuetan justizia eskuratzeko. Auzitegiaren arabera, ez da bidezkoa halako interpretazio bat egitea non amnistiaren debekua, giza eskubideen funtsezko edukari dagozkion delituak direla eta, nazioarteko ohitura izango litzatekeen, *ius cogens*, eta, horrenbestez, loteslea Espainiarentzat. Are gehiago, azpimarratzen du Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak, ohitura horri oihartzuna ematen diotena, 1977an berretsi zuela Espainiak; horrenbestez, legezkotasunaren printzipiorako eragozpenak bere horretan jarraituko luke.

101/2012 epaian jasotakoaz beste interpretazio bat egitekotan gertatuko litzatekeen arazo bat aipatzen du Auzitegi Gorenak: Espainiako auzitegi batek Amnistia Legea deuseztat jotzeko aukera, zuzenbidearen aurkakoa izategatik. Auzitegi Gorenak dioenaren arabera, ituna ez betetzeak berekin dakar ituna zaintzen duten organoek hura salatzea, baina epaileak legezkotasunaren printzipioari lotuta egonen lirateke eta inolaz ere ezin izango lituzkete legeak indarrak gabe utzi, hori botere legegilearen eskumen eksklusiboa baita.

2.3. Sintesia

Orain arte azaldutakotik ondoriozta liteke Espainiako Auzitegi Gorenaren irizpideak, aztergai dugun kasuari aplikatzen zaionak, berekin ekarriko lukeela biktimaren indarrezko desagertzea preskribatuta egotea, edo, bestela ere, amnistiaren pean sartutako krimenetako bat izatea, kontuan hartuta nola interpretatzen duen itunaren indarra 1977a baino lehen gertatu ziren baina data horretatik aurrera ere iraun zuten indarrezko desagertzeen kasuetan.

Hala eta guztiz ere, kasuaren balizko norainokoa nazioarteko zuzenbidearen ikuspuntutik baloratzen hasi baino lehen, bidezkoa da azken zehaztapen bat egitea. Badirudi Auzitegi Gorenak modua lukeela krimenen erantzuleak Estatuko agenteak ziren kasuetan bere epaian hartutako jarrerari eutsi ahal izateko, eta hura, zehaztapen batzuekin, *Pertur* kasua dela-eta hemen ateratako ondorioei aplikatu ahalko liekeela, baldin eta berresten bada desagertze hori Espainiako polizia-zerbitzuek burutu zutela, dela zuzenean, dela bere zerbitzuko hirugarrenen bitartez. Eta egia bada ere aurreko egitateen egileen baldintzek edo inguruabarrek (Estatuko aparatuetako edo erakunde terrorista bateko kideak izateari dagokionez) ez lukezela funtsezko inongo eraginik izan beharko Auzitegi Gorenak Amnistia Legearen preskripzioa edo aplikagarritasuna direla-eta egiten duen diskurtsoan, ezinbestez nabarmendu beharra dago ez dela egiaztatu Perturren indarrezko desagertzearen egiletzari buruz posible diren hipotesietako bakarra ere. Horrenbestez, baldin eta datu berri batzuk tarteko berretsiko balitz egiletza ETAp-*ren Bereziak* taldeari leporatu dakiokeela, egokia da gutxienez ere galdetzea ea kausaren zigorgarritasuna eta jazargarritasuna errefusatzeko Auzitegi Gorenak izan duen erabatekotasunari eutsiko litzaiokeen, bai eta delitu bat izan ondoren “egia” ezagutzeko zigor prozesu batera jotzearen desegokitasuna salatzei adierazi duen konbikzioari ere, hori egitea gauza guztiz estrabagantea balitz bezala. Badirudi galdera egitea egokia dela, bereziki ETaren jarduerarekin lotutako kasuei buruzko epaiak eta Espainiako organo judizialen bestelako ebazpenak aztertuta ikusi ditugun diskurtsoak eta argudio-ildoak direla eta.

86 275/1988, 343/1988, 344/1988 eta 345/1988 Ebazpenak, zeinetan Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordeak gogorarazten baitu ituna ezin dela atzeraeraginez aplikatu.

3. Nazioarteko ikuspegia

Egiakzi, Auzitegi Gorenaren interpretazio-ildoak kontraste nabarmenean dago nazioarteko zuzenbidean nagusi denarekin. Maila orokorrean, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 15. artikulua xedatzen du, legezkotasunaren eta atzeraeraginik ezaren printzipio orokorra aitortu ondoren, “artikulu honek ez duela eragotziko egin zen egunean, nazio zibilizatuak aitortutako zuzenbideko printzipio orokorren arabera, delitua zen ekintza baten edo ez-egite baten erruduna den pertsona bati epaiketa egitea edo hura zigortzea”.

Pertsona Guztiak Indarrezko Desagertzeen aurka Babesteari buruzko 1992ko Adierazpenean —Nazio Batuen Batzar Orokorrak onetsi zuen 47/133 Ebazpenean— eta berriagoa den Pertsona guztiak indarrezko desagertzeen aurka babesteari buruzko 2006ko abenduaren 20ko Konbentzioan oinarrituta, ez dirudi zalantzarik dagoenik kontatutako egitateak jazartzeko modukoak izateari buruz.

Hala eta guztiz ere, Espainiako Auzitegi Gorenak, lan honen bigarren blokean jada azaldu denez, zigor arloko legeen atzeraeraginik eza adierazi zuen, tesi hori babesteko balio zion Giza Eskubideen Batzordearen erabaki isolatu bat aipatuz, kontrakoak diren beste batzuk alde batera utzita —azken horiei buruz, izan ere, esan zuen “gomendio eta ohar” hutsak direla, eta ez ez-betetzeen salaketak⁸⁷. Badirudi Espainiako Auzitegi Gorenak aipatutako organoaren dokumentu horiei balio juridiko guztia kentzen diela, eta, aitzitik, Batzorde berak egindako beste batzuei eman egiten diela, jokabide horri eusteko bidea ematen duen inongo oinarri juridikorik azaldu gabe⁸⁸.

Azken batez, doktrinak zuzen aipatu duen bezala, badirudi agerikoa dela honako hauek bereizi behar direla: alde batetik, Giza Eskubideen Batzordearen denborazko eskumena nola interpretatu —horrek, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren I. Protokolo Gehigarriari jarraituz, eragina izango du estatuentzako banakako komunikazioen ebazpenean—, eta, bestetik, nazioarteko itun baten interpretazioa eta aplikazio orokorra gidatu behar duen araua, batez ere haren etengabeko bortxaketak daudenean⁸⁹.

Jarraian, bigarren blokean aipatu diren alderdi berberak aztertuko ditugu —alegia, Amnistia Legearen balizko preskripzioa eta hura aplikatzekoa den ala ez—, eta agerian jarriko ditugu nazioartean indarrezko desagertze-delituen zigor erantzukizunaren azkentzea baztertzeko erabiltzen diren argudioak.

3.1. Delitu iraunkorrak eta haien preskripzioa

Giza eskubideak babestearen sistema unibertsean, bai eta sistema erregionaletan ere, inork ez du zalanztan jartzen indarrezko desagertzeak egiten diren unean ez ezik hortik aurrera ere egiten diren bortxaketak direla. Jada aipatu den bezala, delitu iraunkorrak dira, eta horrek berekin dakar ezen biktimak non dauden argitzen ez den bitartean, giza eskubideen urratze etengabe bat gertatzen ari dela. Inguruabar hori berariaz jasota dago Pertsona Guztiak Indarrezko Desagertzeen aurka Babesteari buruzko 1992ko Adierazpenaren 17. artikuluan eta Pertsona guztiak indarrezko desagertzeen aurka babesteari buruzko 2006ko abenduaren 20ko Konbentzioaren 8. artikuluan.

Indarrezko desagertzeen balizko preskripzioari buruzko gaiari heltzeko, egoki da gogora ekartzea “Jardunbide egokiak indarrezko desagertzeen esparruari buruzko zigor arloko legedi nazionalen” izeneko agiria. Indarrezko edo Borondatez kontrako Desagertzei buruzko Lantaldeak egin zuen 2010ean, eta haren helburua zen aipatutako 1992ko adierazpenean jada jasota zegoen indarrezko desagertzeen delitua barne mailan tipifikatzeko betebeharra betetzen laguntzea. Lantalde horrek zioen ezin dela baieztatu berdin-berdinak diren bi delitu hauek: legez kontrako atxilotzea eta indarrezko desagertzea. Egia bada ere legez kontrako atxilotzea indarrezko desagertzearen delituaren zati bat izan daitekeela, hark ez ditu hartzen indarrezko desagertzearen elementu guztiak. Izan ere, indarrezko desagertze bat hasten da biktimaren atzipenaldiarekin,

87 Esate baterako, Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordearen 20. ohar orokorra, 1992ko martxoaren 10ekoa, Amnistia Legea indarrak gabe uzteari buruzkoa, edo delituen preskribaezintasunari buruz eta giza eskubideen bortxaketei buruz Espainiari egindako oharpenak.

88 CHINCHÓN ÁLVAREZ, JAVIER/VICENTE MÁRQUEZ, LYDIA/MORENO PÉREZ, ALICIA, *op. cit.*, 89. or. eta ondorengoak.

89 CHINCHÓN ÁLVAREZ, JAVIER/VICENTE MÁRQUEZ, LYDIA/MORENO PÉREZ, ALICIA, *op. cit.*, 91. or.

atxilotzearekin edo bere borondatearen kontra eramatearekin (hau da, hasten da edo legez kontrako atxilotze batekin edo hasiera batean legezkoa izan daitekeen atxilotze edo atzipenaldi batekin). Hala eta guztiz ere, Nazioarteko Zuzenbidearen ikuspuntutik, indarrezko desagertzea osatzen duen bigarren elementua biktimaren askatasun-gabetzea aitortzeari ezezkoa ematean datza, edo haren halabeharraren berri edo non dagoen ez esatean. Indarrezko desagertzeak berekin dakar, horrenbestez, lehen uneko askatasun-gabetzeaz harago, ziurgabetasuneko egoera iraunkor bat, zeinean informazio falta dagoen edo gertatutakoa nahita ezkututzen den urte askoan edo are hamarkadetan, aztergai dugun kasuan gertatu den moduan.

Lan honen ondorioetarako, garrantzitsua da, hain zuzen ere, nazioarteko zuzenbidearen ikuspuntutik, indarrezko desagertze bat egitate bakarra eta bateratua izatea: osatzen duten elementuak gorabehera, zatiturik edo egitate isolatu edo lokabeen batuketa baten gisara ikusi behar ez den egintza bat. Hori dela eta, indarrezko desagertzearen alderdietako bat hamarkada batzuk geroago osatuko balitz ere, egitatea osatzen duten gainerako elementuek irauten duten bitartean (esate baterako, biktima non dagoen argitu ez izana) ulertuko da giza eskubideen urratzeak gertatzen jarraitzen duela. Zatiketa hori saihestu beharrekoa da, nahiz eta indarrezko desagertzeari eusten dioten egitateen oinarri faktikoan eskubide baten baino gehiagoren bortxaketak bil daitezkeen (askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea; torturarik, zigor edo tratu krudelik, ankerrik edo apalesgarririk ez jasateko eskubidea; bizitzarako eskubidea...).

Bada, indarrezko desagertzea delitu iraunkorra denez eta batasun baten gisara aztertu behar denez, inferitu beharra dago preskripzio-epea hasiko litzatekeela, kasua bada, legez kontrako egoera deuseztatzen den unean, edo biktimaren halabeharraren berri jakiten den eta non dagoen argitzen den unean. Eta inguruabar horiek, jakina denez, ez dira gertatu *Pertur* kasuan. Hala eta guztiz ere, Indarrezko edo Borondatez kontrako Desagertzeei buruzko Lantaldea harago joan da, eta nabarmendu du “jokabide hobea” dela indarrezko desagertzeek ez preskribatzea.

Indarrezko Desagertzearen aurkako Batzordeak, hain zuzen ere, azpimarratu zuen nolako kezka sortzen zion Espainiako Auzitegi Gorenak ustezko indarrezko desagertzeen kasuen ikerketan izandako irizpideak, eta premiatu zuen preskripzio epeak has daitezkeen kontatzen kasuko pertsona bizirik agertzen den unetik, haren gorpua aurkitzen denetik edo haren identitatea berrezartzen denetik. Indarrezko Desagertzearen aurkako Batzordeak, halaber, nabarmendu zuen indarrezko desagertze guztiak modu exhaustiboan ikertu behar direla, haiek hasi zirenetik iragan den denbora gorabehera.

Europar, eskualdeetan, badirudi **Giza Eskubideen Europako Auzitegiak** ere aipatutakoaren antzeko interpretazio bat finkatu duela, eta horrek kontrastea egiten du, horrenbestez, Auzitegi Gorenak erabili dituen gakoekin. Preskripzioa aipatu berri diren termino berdinetan ulertzeaz gainera (*Kolk eta Kislyly vs. Estonia*, 2006ko urtarrilaren 17ko epaia), Giza Eskubideen Europako Auzitegiak azpimarratu du, halaber, indarrezko desagertze guztiak ikertu behar direla, egitateak eta desagertutako pertsona non dagoen argitze aldera, baita heriotzaren balizko presuntzioa dagoenean ere, biktimaren halabeharrari buruzko inongo albisterik gabe urte ugari iragan direlako (*Varnava eta beste batzuk vs. Turkia*, 2009ko irailaren 18a). Auzitegiaren ustez, ikerketa eragingarririk ez izatea bera Itunaren urratze bat izango litzateke, eta urratze hori, biktimaren heriotzaren presuntzioa egonda ere, irits liteke 2. artikulua (bizitzarako eskubidea) ematen duen babesetik modu independentean funtzionatzera. Bereziki garrantzitsua da ikertzeko betebeharra estatuetara heda daitekeela baita heriotza Ituna indarrean sartu aurretik gertatu den kasuetan ere. Hau da, indarrezko desagertzearen alderdi batzuk nazioko edo nazioarteko kasuko tresna indarrean sartu aurretik gertatu direnean ere, baldin eta urratzearen beste alderdi batzuek (esate baterako, kasu honetan bezala, desagertutako pertsona non dagoen oraindik ere jakiten ez bada) irauten badute, ulertuko da kasuko erakundeak eskumena eta jurisdikzioa izango dituela indarrezko desagertzearen kasuaz bere osotasunean arduratzeko, eta ez soilik Estatuari egotz dakizkiokeen eta bidezko lege-tresnak indarra hartu ondoren edo jurisdikzioan onartu ondoren gertatu diren egintzez edo ez-egiteez arduratzeko. Hori indarrezko desagertzearen izaera jarraitutik dator, atzeraeragingarritasunaren printzipioa gorabehera.

Horrenbestez, azpimarratu beharra dago ezen, egitateak preskribatu diren ala ez alde batera utzita, ikerketarik eza bera urratze jarraitu bat izango litzatekeela, baita biktimaren heriotza egiazkotzat jotzera iritsi daitekeen egitate bat denean ere. Aztergai dugun kasuan, bistan da txosten honen hasieran aipatutako behin-behineko largeste-autoa ekarri zuen Andreu epaileak egindako ikerketa *Pertur* desagertu eta hainbat hamarkada geroago hasi zela. Hartan lortutako datuek, ordea, erakusten dute delitua izan eta berehala ez zela egin egitateak argitzera eta haiei zegozkien ardurak egotzera bideratutako diligentziarik, baina orduan

—delitua gertatu eta gutxira— halakorik egin izan balitz, errazagoa zitekeen biktimaren desagertzearen inguruko inguruabarrak ezagutzea.

3.2. Amnistia Legea aplikatzekoa den ala ez

Nazioarteko zuzenbidearen ikuspuntutik, ez dirudi, ezta ere, onargarria denik esatea egitateak ezin direla zigortu 1977ko Amnistia Legea dela-eta, zeren eta, lege hori parlamentu demokratiko batek onetsi bazuen ere, haren aurreikuspenak ez lirateke nazioarteko ikuspegitik zilegi izango, baldin eta haien edukia ageri-ageriko kontraesanean badago Estatuak nazioartean dituen betebeharrekin (Pertsona Guztiak Indarrezko Desagertzeen aurka Babesteari buruzko 1992ko Adierazpenaren 18. artikulua).

Zehazki, Indarrezko edo Borondatez kontrako Desagertzei buruzko Lantaldeak iritzia eman du, halaber, Pertsona Guztiak Indarrezko Desagertzeen aurka Babesteari buruzko 1992ko Adierazpenaren 18. artikuluari buruz, eta baieztatu du jo beharra dagoela amnistia lege bat Adierazpeneko xedapenen aurkakoa dela baita erreferendum batez edo antzeko kontsulta-bide batez onetsi denean ere, baldin eta haren aplikazioaren edo ezartzearen ondorioz, zuzenean nahiz zeharka, egoera hauetakoren bat gertatzen bada: ikertzeari uztea, arduradunak prozesatu eta zigortzea; zigor-kausak largestea edo ustezko erantzuleen aurkako ikerketak ixtea, edo zehapen hutsalak ezartzea. Hala, bada, lantalde horrek Espainia premiatu zuen behar diren neurri guztiak hartzera indarrezko desagertzeak ez daitezela izan amnistiaren peko krimenak. Halaber, “1977ko Amnistia Legeari eragin oro” kentzeko eskatu zuen (2013ko irailaren 30ean Espainiara egindako bisitan egindako oharpenak).

Indarrezko desagertzearen aurkako batzordeak ere bere iritzia eman zuen, esanez indarrezko desagertze guztiak ikertu behar direla eta ikerketa horiek direla-eta dauden barne-oztopo guztiak gainditu behar direla, bereziki Amnistia Legea⁹⁰.

Egia, justizia, erreparazioa eta egitateak berriz ez gertatzeko bermeak sustatzeko errelatore bereziak Espainiako Amnistia Legea aipatu zuen, eta kritikoki baloratu zuen nola aplikatu den, eta eskatu zuen eraginik gabe utz zedin⁹¹.

Era berean, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak nabarmendu du amnistia bateraezina dela estatuak giza eskubideen bortxaketak ikertzeko daukaten betebeharrarekin eta biktimei “errekurtso efektibo” bat eskaintzeko xedarekin. Horrenbestez, egitate izugarri larrien egileei amnistia legeen bitartez inpunitatea aitortzea Nazioarteko Zuzenbidearen ikuspuntutik abusuzkotzat jo daitezkeen aukera bat da. Auzitegiak baieztatu ere baieztatu du amnistia orokorrak ematea debekatu daitekeela eta juridikoki onartezina litzatekeela (ikus *Abdulsamet Yaman vs. Frantzia*, 2004ko azaroaren 2koa, eta *Ould Dah vs. Frantzia* kasua ez onartzeko erabakia, 2009ko maiatzaren 17koa, bai eta, *Margus vs Kroacia* epaia ere, 2012ko azaroaren 13koa).

Puntu honetara iritsita, beharrezkotzat jotzen da Espainiako Auzitegi Gorenaren jarrerari berriz heltzea eta hura Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziaren argitan balioestea. Esan bezala, hainbestetan aipatu den epaian Auzitegi Gorenak adierazi zuen amnistia legeak Giza Eskubideen Europako Itunaren aurkakoak izanda ere, itun hori ezin dela atzeraeraginez aplikatu. Hala eta guztiz ere, indarrezko desagertzei dagokienez, ezin izango litzateke atzeraeraginezko aplikazioari buruz hitz egin, *Antonio Gutiérrez Dorado eta Carmen Dorado Ortiz vs Espainia* kasutik ondorioztatzen denez. Eta Auzitegi Gorenak ez du adierazi Espainiakoa bezalako amnistia lege batek berekin dakarrenik gisa horretako krimenak ikertzeko Estatuak daukan betebeharra amaitu denik (Giza Eskubideen Europako Auzitegia, kasua ez onartzeari buruz 2012ko martxoaren 27an hartutako erabakia).

Izan ere, deigarri gertatzen da Auzitegi Gorenak amnistiaren debekua *ius cogens* (hau da, aginduzko arau gisa, zeina, xedapen-arauei kontrajarrita, ez baitu onartzen hura baztertzea edo haren edukia aldatzea)

90 COMITÉ CONTRA LA DESAPARICIÓN FORZADA, “Observaciones Finales sobre el Informe Presentado por España en virtud del artículo 29, párrafo 1, de la Convención”, Nazio Batuen agiria, CED/C/ESP/CO/1, 2013ko abenduaren 12koa, 12. paragrafoa.

91 RELATOR ESPECIAL PARA LA PROMOCIÓN DE LA VERDAD, LA JUSTICIA, LA REPARACIÓN Y LAS GARANTÍAS DE NO REPETICIÓN DE LAS NACIONES UNIDAS, “Observaciones Preliminares del Relator Especial para la Promoción de la Verdad, la Justicia, la Reparación y las Garantías de No Repetición, Pablo de Greiff, al concluir su visita oficial a España”, 2014ko otsailaren 3koa. Esteka honetan eskura daiteke: <http://www.ohchr.org/SP/NewsEvents/Pages/DisplayNews.aspx?NewsID=14216&LangID=S>

kalifikatu izana eta aldi berean esatea Espainia debeku hori betetzetik kanpo dagoela Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Ituna berretsi bitartean.

Auzitegi Gorenaren interpretaziotik honako hau ondorioztatzen da: Espainiako legea Espainiak hartutako nazioarteko betebeharren aurkakoa balitz, lehentasuna izango luke barneko legearen aplikazioak. Amnistia Legeari dagokionez, Auzitegi Gorenak bi aukera baizik ez du ikusten: indarrik gabe uztea ala aplikatzea, eta itxarotea aplikazio hori kasuko kontrol-organoen aurrean salatzen den arte. Hau da, aukera gisa ere ez du planteatzen epaileek aukera izan dezatela hura halako moduz interpretatzea non giza eskubideen kasu larrienen bortxaketak hartatik kanpo geratuko diren.

Amnistia Legeari buruz daukan jarreraren, arauak izan zuen babes zabala azpimarratzen du Auzitegi Gorenak, eta legegilea hura sortzera bultzatu zuten arrazoiak ematen ditu ezagutzera (funtsean, demokraziarako arrakastazko trantsizio baterako baldintza bat izan zela). Auzitegiak ez du kontuan hartzen, azken batean, arrazoiak, goresgarriak izanagatik ere, egiazki garrantzirik gabeak direla erabakitzeke arauak betetzen ote dituen Estatuarentzat lotesleak diren nazioarteko betebeharrak. Gainera, parlamentuan gehiengo zabala izatea ezin da arrazoi gisa erabili lege baten onargarritasuna ebaluatzeke, Uruguako Estatuaren Zigor Asmoaren Iraungigarritasunari buruzko Legea dela-eta Giza Eskubideen Batzordeak egindako oharpenetatik ondorioztatzen den moduan⁹².

Azken batez, aztergai dugun kasuan egitateek daukaten larritasuna kontuan hartuta, eta amnistia legeei buruz eta haiek honelako kasuetan aplikatzeari buruz hainbat organok eta instantziak erabili dituzten argudioak eta izan dituzten jarrerak aipatuta, ez dirudi nazioarteko zuzenbidearen ikuspuntutik defendagarria denik *Pertur* kasuan zigor erantzukizuna amnistiaren ondorioz azkenduta dagoela jotzeko aukera.

4. Egungo egoera prozesala eta etorkizunerako perspektibak

Espainiako Auzitegi Gorenak eta Europako hainbat eskualdetako eta mundu osoko hainbat instantziak jorratutako interpretazio-ildoez harago, *Pertur* kasuaren egungo **egoera prozesalari** erreparatuta, beste behin nabarmendu beharra dago 2012ko irailaren 20ko aipatutako autoak haren **behin-behineko largestea** dekretatu zuela, eta sumariotik ondorioztatzen dela ezen delitu bat egin bazen ere, ez zegoela behar adina arrazoi pertsona jakin bati edo pertsona jakin batzuei leporatzeko egile, konplize edo estaltzaile izan izana.

Egia bada ere behin-behineko largestea eta largeste librea erabakitzen duten autoek errealitate bera adierazten dutela (zigor prozesuaren amaiera), bien artean dagoen desberdintasuna da behin-behineko largespenean prozesuaren azkentzea ez dela behin betikoa izango eta, horrenbestez, bideragarria izango dela prozesua berriz irekitzea hori komenigarri egiten duten aztarna edo datu berriak daudenean. 1976an gertatutako egitate batzuen behin-behineko largestea 36 urte geroago diktatzearen inguruabar hori bereziki garrantzitsua dela iruditzen zaigu, eta badirudi abalatu nahi lukeela kausa ez dagoela preskribatuta, eta ezin zaiola Amnistia Legea aplikatu; izan ere, hala izan balitz, largestea behin betikoa izango zen.

Azpimarratzekoa da, nolana ere, autoak ez duela aipatzen zigor-erantzukizunaren balizko azkentzea (dela preskripzioaren bidetik, dela amnistiaren bidetik), ezta hura baztertzeko ere. Autoa egitateen errelatoak, hipotesiek eta egindako diligentsiek osatzen dute, baina ez ditu jasotzen txosten honetan aipatu diren balizko eztabaida juridikoak. Arazo horiek gaika landu ez direnez, zail gertatzen da erabatekotasunez baieztatzea Andreu epaileak *Pertur* kasuan gehiago egin zuenik nazioarteko estandarrekin hobeki ezkontzen den interpretazio baten alde Auzitegi Gorenak 101/2012 epaian markatutako ildoaren alde baino, baina, nolana ere den, eta aipatu den bezala, ikuspuntu teknikitik, behin-behineko largespen-autoa denez, kausa ez litzateke egongo behin betiko artxibatuta eta ezerk ere ez luke eragotziko hura berriz irekitzea halakorik egoki egiten duten aztarna berriak aurkituz gero.

92 CHINCHÓN ÁLVAREZ, JAVIER/VICENTE MÁRQUEZ, LYDIA/MORENO PÉREZ, ALICIA, *op. cit.*, 96. or.

III

Sintesi bat: azken gomendioak

1. Egitateen errelatoak egiletzari buruzko bi hipotesi uzten ditu zabalik; haiei buruz, ordea, gaur egun ez dago daturik bata ala bestea egiantzekoagoa dela esan ahal izateko. Lan honen helburua ez da, ezta ere, ikerketa faktiko bat egitea. Halere, segurtasunez esan daitekeena da ikerketaren ibilera oso eskasa izan zela hasiera batetik, bai eta hurrengo urteetan ere. Desagertzea gertatu zenetik, agerikoa da ez dela interesik izan ikerketa efiziente eta exhaustibo bat egiteko.

2. Egitateak, nolana ere, ez dira iraganekoak. Desagertzea gaur egungoa da. Gaur den egunean, oraindik ere ez dakigu Eduardo Moreno Bergaretxe Pertur non dagoen. Eta horrek berekin dakar absentzia horren sufrimenduak eragina izaten jarraitzen duela, bereziki senide hurbileneoengan. Termino teknikoetan, nabarmen izaten jarraitzen du jokabidea zuzenbidearen aurkakoa dela eta delitua egiten jarraitzen dela. Hori dela eta, ikerketarik eza ez da iraganeko analisi bat, baizik eta gaur egungo errebindikazio bat, agintari eskudunak eta gizartea bera, oro har, zuzenean konprometitzen dituena.

3. Aurreko kontsiderazioaren argitan, egia bilatzen jarraitzeko egintza-eza justifikatzeko ahalegin oro onartezin gertatzen da termino juridikoetan, bai eta giza terminoetan ere. Eta litekeena da hori argiago ikustea baldin eta egitatei buruzko gogoeta egiletzaren gaineko bi hipotesien arabera egiten bada: amnistiaren, preskripzioaren eta, azken batean, ezin jazartzearen balizko arrazoiak ontzat hartu beharko al lirateke bai ustezko egileak segurtasun indarretako kideak —edo haien zerbitzuko elementu pribatuak— badira, bai etakideak badira? onargarria al litzateke gaur egun oraindik ere argitu gabe dagoen desagertze baten ikerketarantzko balizko egiletzaren araberrako hurbilketa berezitu bat? egiletzak egiaren atea ireki dadin ala itxi dadin baldintzatzen al du? egiletzak baldintzatzen ote du giza eskubidei buruzko nazioarteko zuzenbideak jasotako egiaren, justiziaren eta erreparazioaren estandarra onartzea ala errefusatzeko? Bistan da kasu honetan egiletzaren itzala eta haren inplikazio politikoak harlauza baten gisakoak izan direla eta ikerketari hainbesteko zama jarri diotela non eragingarritasunik ez izatera eraman baitute.

4. Perturren gorpua edo hura non dagoen dioten albisteak agertzen ez diren bitartean, badirudi balizko erreparazioari eta giza eskubideen bortxaketaren balizko errekonozimenduari buruzko gogoeta oso bigarren mailakoa den plano batean utzi behar direla. Zer gertatu zen eta nork egin zuen argitzeko ere egirik ez badago, zer erreparatu daiteke? Gaurkoa den desagertze baten kasuan, biktimei erreparazioa emateko lege-aurreikuspenak eskura daude eta aktibatu ere egin litezke (terrorismoaren biktimei buruzko legedia eta giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei buruzko Euskadiko 12/2016 Legea), baina gertatuko da topo egingo dela egiletzari eta egitatearen inguruabarrei buruzko hipotesiaren gaineko zalantzek berekin ekarriko dutela errekonozimendu-prozedura oztopatzea; eta horrek Perturren hurbilekoen sufrimendua eta birbiktimizazioa areagotzea baizik ez luke ekarriko.

5. Txosten honek balio beharko luke, ordea, gertatutakoaren zuzengabetasunari buruz berriz ere arreta deitzeko eta, agian, beste ikerketa judizial exhaustiboago bat aktibatuzko. Eta, bigarrenik, edo hain zuzen ere lehenengoa aktibatuzko, balio lezake, halaber, gaur egun bizirik dauden eta egitate horiei buruzko informazioa izan dezaketen pertsonen, modu anonimoan bada ere, noticia criminis hori helaraz dezaten, kasu honek sortzen jarraitzen duen sufrimendua hein batean arindu ahal izateko. Horrenbestez, badirudi gomendagarria dela kanpaina instituzional bat abian jartzea, desagertze honen egitateen berri gaurkotua emango duena eta herritarri lankidetzarako dei egingo diena, gertatu zenaren egia edo/eta gutxienez ere haren gorpua non dagoen ezagutzeko bidea emango duten datu berriak, halakorik bada, eman ahal izateko.

Bibliografia eta bestelako iturriak

I. Pertur kasuaren historia

Bibliografia

AMEDO FOUCE, JOSÉ, La Conspiración. La Conspiración. El Último atentado de los GAL, Espejo de tinta arg., Madril, 2006.

AMIGO, ÁNGEL, PERTUR ETA 71-76, Lur arg. Hordago arg., 1978.

MORALES, JOSE LUIS; TODA, TERESA; IMAZ, MIREN, La Trama del G.A.L., Revolución arg., Madril, 1988.

UGARTE, ÁNGEL; MEDINA, FRANCISCO, Espía en el País Vasco. Memorias del primer hombre que negoció con ETA, Plaza & Janés arg., Bartzelona, 2005.

Agiri juridikoak

Frantziako Estatuko diligentziei buruzko dossierra. Frantziako agintari judizialek Auzitegi Nazionalari igorritako dokumentazioa.

Auzitegi Nazionallean aurkeztutako kereila. 2008eko maiatzaren 13a.

Auzitegi Nazionalaren autoa, 2008ko ekainaren 27koa.

Berraztertze errekurtsoa. Auzitegi Nazionallean 2010eko urriaren 5ean aurkeztua.

Auzitegi Nazionalaren autoa, 2012ko irailaren 20koa.

2012ko urriaren 20ko autoa argitzeko autoa.

105/1983 Epaia, 1983ko azaroaren 23koa. Vinader kasua.

Hemeroteka

La Voz de España. 1976ko maiatzaren 30a.

El Correo. 1976ko uztailaren 31a.

La Voz de España. 1976ko uztailaren 27a.

Unidad. 1976ko uztailaren 28a.

Punto y Hora. 9. zk. 1976ko abuztuaren 1-15.

El País. 1981eko irailaren 3a o *El País*. 1985eko apirilaren 8a edo *El País*. 1986ko apirilaren 22a.

El País. 1986ko irailaren 25a.

El Mundo. 1998eko abuztuaren 3a.

Noticias de Gipuzkoa. 2006ko uztailaren 8a.

Gara. 2009ko irailaren 2a o *El País*, 2009ko maiatzaren 29a edo *Gara*. 2016ko apirilaren 5a.

El Diario.es. 2016ko uztailaren 22a.

El País. 2016ko uztailaren 23a.

II. Prozedura irekitzeko eta zigorra ezartzeko aukerei buruzko arazoak nazioarteko estandarren eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentziaren ikuspuntutik

Bibliografia

ASHOLT, MARTIN, *Verjährung im Strafrecht*, Mohr Siebeck, Tübingen, 2016.

CHINCHÓN ÁLVAREZ, JAVIER/VICENTE MÁRQUEZ, LYDIA/MORENO PÉREZ, ALICIA, “La posición del Tribunal Supremo respecto a la aplicación del derecho internacional a los crímenes del pasado en España: Un análisis jurídico tras los informes del Grupo de Trabajo sobre Desapariciones Forzadas, el Comité contra la Desaparición Forzada y el Relator Especial sobre Justicia Transicional de las Naciones Unidas”, *Anuario Iberoamericano de Derecho Internacional Penal*, 2. liburukia, 2014, 66-101 or.

MIR PUIG, SANTIAGO, *Derecho penal. Parte General*, 10. argitaraldia, gaurkotua eta berrikusia, Reppertor, Bartzelona, 2016.

Ebazpen judizialak

Auzitegi Gorena

Auzitegi Gorenaren 101/2012 epaia, otsailaren 27koa.

Giza Eskubideen Europako Auzitegia

•Epaiak

Abdülsemet Yaman vs. Frantzia, 2004ko azaroaren 2koa, *Kolk eta Kislyly vs. Estonia*. 2006ko urtarrilaren 17a.

Varnava eta beste batzuk vs. Turkia, 2009ko irailaren 18a.

Margus vs Kroacia, 2012ko azaroaren 13koa.

•Ez onartzeko erabakiak

Ould Dah vs. Frantzia, 2009ko maiatzaren 17koa.

Antonio Gutiérrez Dorado eta Carmen Dorado Ortiz vs Espainia, 2012ko martxoaren 27koa.





5

• dokumentua

1973ko martxoaren 24an
desagertutako
hiru gazte coruñarrei
buruzko txostena

1973ko martxoaren 24an desagertutako hiru gazte coruñarrei buruzko txostena

EHUko Giza Eskubideen eta
Botere Publikoen Katedra



Giza Eskubideen eta
Botere Publikoen Katedra
Cátedra de Derechos
Humanos y Poderes Públicos



2018ko martxoaren 24a

Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren
enkarguz egina

Euskadi, auzolana

Aurkibidea

Aurkezpena

I. Aurrekariak

1. Sarrera
2. Hiru gazte coruñarrak
3. Desagerpenari buruzko lehen informazioak prentsan
 - 3.1. *La Voz de Galicia*, 1973ko apirilak 6
 - 3.2. *ABC*, 1973ko apirilak 22
 - 3.3. *La Vanguardia Española*, 1973ko apirilak 29
 - 3.4. *ABC*, 1973ko maiatzak 29
 - 3.5. Sud-Ouest egunkaria
4. Panfletoak
5. *ABC* egunkariko kronikak hurrengo hiletan
 - 5.1. *ABC*, 1973ko ekainak 1
 - 5.2. *ABC*, irailak 8
 - 5.3. *ABC*, 1973ko abenduak 27 eta 26
 - 5.4. *ABC*, 1974ko urtarrilak 3
 - 5.5. *ABC*, 1974ko urtarrilak 5
 - 5.6. *ABC*, 1974ko urtarrilak 6
 - 5.7. *ABC*, 1974ko urtarrilak 8
 - 5.8. *ABC*, 1974ko urtarrilak 10
6. Coral Rodriguezen borroka
 - 6.1. Galdera Senatuan Mayor Orejari
1999ko martxoaren 24ko osoko bilkuran
 - 6.2. Legez besteko proposamena Eusko Legebiltzarrean,
2005eko otsailak 3

7. *El Mundo* egunkariaren erreportajeak

7.1. A. Rojo, 2001eko ekainak 17: *El crimen más oculto de ETA*

7.2. *El Mundo*, 2005eko ekainak 11: *Los tres gallegos desaparecidos, otro gran misterio de ETA*

7.3. Dokumentala. “*El crimen más oculto de ETA*” I eta II.

Egilea: *El Mundo TV*. Emisioa: A3 telebista-katea

II. Azterketa juridikoa

1. Sarrera

2. Jurisdikzio eskuduna

3. Sumarioaren urrats nagusiak (1973-1975)

3.1. 1973. urtea

3.2. 1974. urtea

3.3. 1975. urtea

4. Prozesuaren bermeak: 1974ko sumarioaren azterketa

4.1. Frantzia egindako jarduketak

4.2. Espainiako agintaritzen jarduketak

III. Sintesia: amaierako gomendioak

Bibliografia eta beste iturri batzuk

Aurkezpena

Txosten hau Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzeta Idazkaritza Nagusiak (Lehendakaritza, Eusko Jaurilaritza), 2017ko jarduera-programaren baitan, Euskal Herriko Unibertsitateko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedrari egindako enkargu baten emaitza da. Euskadin motibazio politikoko testuinguruan gertatutako giza eskubideen urraketen kasu entzutetsuei buruzko ikerketa-ildoarekin jarraitzea aurreikusi zen programa horretan; hala, bigarren txosten hau egin da (Eduardo Moreno Bergaretxeren¹ desagertutako buruzkoa izan zen lehenengoa).

Ikusi ahal izango den moduan, ez dago ziurtasun handirik kasu honen inguruan; gauza bakarra da ziurra, Jose Humberto Fouz, Jorge Juan Garcia eta Fernando Quirogaren desagertzea, lau hamarka baino gehiagoan era mingarrian iraun duena. Gertatutakoaren inguruabarrei, hiru gazteen patuari eta, noski, haiek dauden lekuari buruzko zalantzak bizi-bizi dituzte familiek, itxi ezin den zauri baten pare, eta nahigabeak jarraitu egiten du, zama handia da, gure herrian oraindik argitzeko dauden giza eskubideen urraketa larrien legatua.

Txosten honen xedea ezin da izan, justiziaz, egia jakiteko eskubideak behar lukeen —eskatzen duen— erantzuna ematea, baina ekintzak eskatzen dituen larritasun handieneko kasu bati buruz ohartarazteko balio dezake, balio behar du. Zuzenbideko estatu sozial eta demokratiko batek bilatzen jarraitu behar du, eta ahalegina egin behar du itzaropenerako leiho txiki bati irekita eusteko, egunen batean egia gailendu dadin. Aldaba-hots baten gisa, txosten honek helburu hori lortzen lagundu beharko luke, eta argia ikusteko ahaleginei beste bultzada bat eman beharko lioke. Nolanahi ere, gutxienez, hiru pertsona horien desagertutako buruzko kasu hau gizartean, maila politikoa eta instituzionalean ezagutarazten lagundu behar du txostenak, eta hari errekonozimendua ematen, kasu larria izan arren bereziki ezkutuan egon baita, gure herrian gertatutako giza eskubideen urraketei buruzko eztabaidetatik kanpo.

Dena den, gertaerak hain nahaspilatuak izanik, txostenaren egitura ez da hain analitikoak izan, bai, ordea, deskribatzaileagoa. Nahaste handia dago iturrien eta horien azpian dauden hipotesien artean, eta, horrenbestez, zer dakigun eta zer ez deskribatzeari eman zaio lehentasuna; hau da, ahalegina egin da zantzuak ez interpretatzeko eta zantzu horien arteko kontraesanak ez nabarmentzeko, interpretazio horrek ez duenean arrazoizko funtsik kasua argitzeko. Kasuari buruz egunkarietan argitaratutako artikuluak eta beste agiri dokumental batzuk bilduz, auziaren egoera ordenatu nahi da, bere ziurtasun eta kontraesanekin. Txostenaren lehen erdian, lehen zati luzean, kasuaren kronologia jaso da, eta bigarren erdian, jarduketa judizialak deskribatu dira, desagertutako ondoren irekitako sumarioa eduki nagusitzat hartuta. Gertaerak epaitzeko jurisdikzio eskudunari buruzko zenbait gogoeta sarrera modura egin dira, eta sumarioko alderdi nagusiak zerrendatu dira. Atal horren amaieran, desagertutako ikertzeko agintariek egindako jarduketei buruzko zenbait hausnarketa jaso dira; hasieratik nabarmentzekoa da jarduketa horietan ez dela antzeman aparteko larritasuneko gertaeren aurrean (txosten honetan aipatzen direnak) desiragarri litzatekeen edo eskatu beharko litzatekeen ardura.

Bigarren zatian, gai juridikoei buruzko zenbait gogoeta jaso dira, teknikoagoak, baina horien garrantzia murriztea eta oin-oharretara mugatzea² erabaki da; hau da, argitasunari eta txosten honek sustatu nahi duen dibulgazio-xedeari eman zaio lehentasuna.

Txostenaren amaieran, laburpen bat eta zenbait gomendio daude, eta, horrez gain, zer bibliografia eta zer iturri erabili diren adierazi da, zerrenda banatan.

Txostena, funtsean, Bertha Gaztelumendik egin du; bera arduratu da gertaeren atala osatzeaz, eta, neurri handi batean, baita sumarioaren azterketa egiteaz ere. Bestalde, Enara Garrok alderdi juridikoak gainbegiratu eta bideratu ditu, Laura Yanguas eta Leire Garrastatxuren laguntzarekin. Azkenik, Jon Mirena Landa arduratu da txosten osoaren zuzendaritza- eta koordinazio-lanez.

1 EHU-KO GIZA ESKUBIDEEN ETA BOTERE PUBLIKOEN KATEDRA: *Pertur kasuari buruzko txostena: gaiaren egungo egoera*, Eusko Jaurilaritza, 2017 (webgune honetan dago eskura: <http://katedraddhh.eus/eus/>).

2 Oin-ohar horiek naturaltasunez lotuko lirateke prozedura irekitzeko eta zigorra ezartzeko aukerei, preskripzioari eta amnistiari buruzko hausnarketekin; hausnarketa horiek jada jaso ziren beste txosten honetan —eta, neurri handi batean, komunak dira: *Pertur kasuari buruzko txostena: gaiaren egungo egoera*, Eusko Jaurilaritza, 2017.

I Aurrekariak

1. Sarrera

Urteak behar izan dira Irunen bizi ziren Jose Humberto Fouz Escobero, Jorge Juan Garcia Carneiro eta Fernando Quiroga Veiga gazte coruñarren istorioa osatzeko. Lan hori egiteko, kazetariak emandako informazioak, poliziaren konfidenteak esandakoak eta ETAko militante ohien adierazpenak erabili dira, zenbait komunikabide eta agerkarietan argitaratu direnak bildu ondoren.

Txosten honen lehen kapituluak ordena kronologikoak biltzen eta aztertzen ditu hiru gazteen desagerepenaren gaineko kazetaritza-artikuluak, eta beste agiri dokumental batzuen gaineko erreferentziak txertatzen ditu, hala nola garai hartako panfletoak eta 1974. urtean abiatu zen sumarioa.

Ondoren, hurrengo kapituluan, auziaren analisi juridikoari helduta, sakon aztertuko da 1/1974 Sumarioa. Azterlan honen amaieran, eranskin batean, sumarioan abiatu diren akzio judizialen zerrenda adierazi da. Behin-behinean artxibatu dira horiek guztiak.

ABC eta La Vanguardia egunkariak kaleratu zituzten lehen kroniken sorburua “iturri propioak” izan ziren. Hori adierazi zuen, bederen, Madrilgo egunkariak. Horrez gainera, bestelako iturrien aipamen lainoa egin zuen, eta ondoriozta daiteke poliziaren konfidenteak edo egunkari horien informatzaileak baliatu zituztela. Kasu jakinen batean, jendarmeriaren edo polizia frantsesaren ikerketen erreferentzia urrunak ematen dira, baita gertakariaren lekuan izan ziren lekukoaren informazioak ere, baina ezin izan da, oraingoz, horien egiazkotasunik konprobatu.

1/1974 sumarioak adierazten du ABC egunkariko Alfredo Semprun kazetariak uko egin ziola, epailearen aurrean, bere iturrien berri emateari, bere informatzaileen segurtasuna babesteko. Erreserba-egoeran geratu zen, beraz, bere kazetaritza-lanetan argitaratu ziren informazioen jatorria.

Agerkarietan zabaldu den bertsio nagusi iritsi da gaur egunera, eta adierazten du hiru gazte galiziar horiek Miarrizera edo Donibane Lohizunera joan zirela “*El último tango en Paris*” filma ikustera 1973ko martxoaren 24ko arratsean. Ondoren, zerbait edan zuten Donibane Lohizune eta Miarritze bitarteko taberna batean, eta errefuxiatu politikoen talde batek polizia espainiarrekin nahastu, eraso egin eta auto batean sartu zituzten. Ondoren, bahitu, torturatu eta hil egin zituzten. Ez da gerora haien berririk izan eta ez dira aurkitu haien gorpuak.

Ikerketa-talde honek gertakariari buruz aurkitu duen lehen albistea *La Voz de Galicia* egunkariak 1973ko apirilaren 6an emandakoa da. Hala ere, ABC egunkariak handik egun gutxi batzuetara eman zuen hiru gazte galiziarren desagerepenaren berri, eta egunkari horrek egin zuen, hortik aurrera, kasuaren gaineko kazetaritza-jarraipen handiena.

Finean, ABC egunkari madrildarrak gertakari horri buruz argitaratu zituen informazioen gainean eraiki dira, gero, kasuaren kontakizun nagusia eta beste komunikabide batzuek errepikatu eta zabaldu dituzten bertsioak.

Hala ere Humberto Fouz gaztearen ilobak, Coral Rodriguez andreak, Florencio Domínguez kazetariari³ adierazi zion iturri ofizialek ez dutela inoiz ere berretsi ABC egunkariak emandako bertsio hori.

Kazetariak eman dituzten informazio guztiek adierazi dute ETA izan zela krimenaren erantzule. ETAk ez du inoiz ere bere gain hartu Galizian jaio eta Irunen bizi ziren hiru gazteen desagerepenaren eta heriotzaren gaineko egiletzarik, baina ez du inoiz ere gezurtatu gertakarietan parte hartu zuenik.

Bi sumario abiatu dira desagerepen misterioetsuaren nondik norakoak argitzeko, baina ez dute argitu zer gertatu zen Jose Humberto Fouz Escobero, Jorge Juan Garcia Carneiro eta Fernando Quiroga Veiga gazteekin 1973ko martxoaren 24ko arrats hartan, Irunen, azken aldiz ikusi zituztenetik.

Donostiako Epaitegiak 1974. urtean abiatu zuen lehen sumarioa, hiru familien kereila onartu ondoren. Kereila horrek homizidioa, erailketa eta lapurreta egotzi zien Tomas Perez Revillari eta gertakariaren balizko egileei. Sumarioa 1975eko apirilaren 17an itxi zen, auto batek hura amaitutzat deklaratu ondoren, ezin izan zelako pertsona konkretuen aurkako prozedurarik abiatu, hau da, gaztelaniaz adierazten den moduan: “sin que se haya dirigido el procedimiento contra persona alguna determinada”⁴.

3 DOMINGUEZ, F. “Cadáveres en el armario de ETA” LA VANGUARDIA. 2000ko apirilak 30.

4 Antonio Salinas Yanes epailearen autoa, 1/1974 sumarioaren amaiera adieraztekoa

Familiaren prokuradorearen eskaria aintzat hartu gabe, magistratu instrukziogileak ez zion biderik zabaldu Frantzian gertakariaren gaineko ikerketa judizial bat egiteko aukerari. Ez zuen onartu, ezta ere, garai hartako prentsak eta Segurtasun Zuzendaritza Nagusiko Ikerketa Sozialeko Komisaria Nagusiaren 46. zenbakiko Buletinak A Coruña-ko hiru gazteen desagerean eta erailketan inplikaturiko pertsona moduan adierazi zituztenak galdekatzeko eskaera, kereila jarri zuen alderdiak egindakoa.

Ez zen ikertu gertakariaren egiletza ETArri leporatzen zion hipotesia. Hala ere, ez zen bestelako ikerketa-ildorik abiatu desagerepen horren bestelako azalpenak bilatzeko, hori iradokitzen da, izan ere, sumariora ekarritako dokumentazioak⁵.

Coral Rodriguezek egoeraren irakurketa hau egin zuen *La Opinión A Coruña* egunkarian:

“Irakurri ondoren, etsita geratu nintzen. Ez zegoen ia ezer ere. ABC egunkariako artikulua bat, Revillari deitzeko eginbide batzuk eta prokuradoreak egindako zenbait eskaera, epaileak beti ‘no ha lugar’ formularekin erantzundakoak. Besterik egin gabe itxi zen”⁶.

Urteak igarota, 1999. urtean, kasua Senatura eraman zuen Coral Rodriguezek. Parlamentu-galdera baten bidez, garai hartako Barne ministroari, Mayor Orejari, interpelatu zion, eta desagerepena ikertzeko konpromisoa hartu zuen hark.

2005. urtean, Humberto Fouzen ilobak agerraldi bat egin zuen Eusko Legebiltzarrean, eta, agerraldiaren ondoren, ganbera horrek legez besteko proposamen onartu zuen, ETak desagerrarazi dituen pertsonen gorpuak topatu eta identifikatzeko neurriak har zitzan eskatzeko Eusko Jaurlaritzari⁷. Bi ganbera horietan abiatu ziren jardunbideak ere ez zuten hiru gazteekin gertatutakoa argitu.

Jose Humberto Fouz Escobero, Jorge Juan Garcia Carneiro eta Fernando Quiroga Veiga gazteak terrorismoaren biktima izan zirela aitortu da, eta Terrorismoaren Biktimen Laguntzeko Zuzendaritza Nagusiaren zerrendan ageri dira.⁸ Horrez gainera, “La Gran Cruz de reconocimiento civil a las Víctimas del Terrorismo” kondekorazioa jaso zuten 2000ko azaroaren 24an.⁹

Humberto Fouzen ilobak abiatu zituen ekimen politikoaren ondorioz, eta EL MUNDO TV komunikabideko arduradunek, hiru gazteen gorpuak non lurperatu ziren argitzeko datu berriak eman ondoren, jarritako salaketa batek eraginda, berriro zabaldu zen auzia 2005. urtean. Auzitegi Nazionalak hartu zuen bere gain sumarioa, eta Fernando Andreu epailea izan zen haren instrukziogilea.

Coral Rodriguezek, 2006. urtean, Andreu epailearekin aurrez aurre hitz egitea lortu zuen, eta azken horrek polizia-txostenen zain zeudela esan zion, baina Humbertoren iloba etsita azaldu zen: *“Iruditzen zait ez zela ezer ere egin”¹⁰.*

Kasua 2006ko azaroan itxi zen, eta ez da azken sumario horren gaineko informaziorik zabaldu. Coral Rodriguezek berak harriduraz hartu zuen albistea, orain hilabete gutxi jakin duenean, zeharkako bide batetik, kausa artxibatu zela, bere garaian ez baitzioten artxibatzearen berririk eman¹¹.

2017ko urriaren 19an, ostiralarekin, Euskal Herriko Giza eta Eskubide eta Botere Publikoen Katedrak egindako telefono-dei bati erantzun zion Coral Rodriguezek.

Elkarrizketa bat egiteko hitzordua adostea zen deiaren helburua, eta gerora ikerlana elkarrizketa horrekin dokumentatzea. Interesa agertu zuen Coralek, eta kasuaren egoera judizialaren berri eguneratua eman zигun. Esan zigun, urte horretan (2017), “Naparra” auzia zeraman epaitegiak Frantziari errege-eskaera bat egin ziola, Auzitegi Nazionaleko Terrorismo Biktimetarako Zuzendaritzara jo zuela, izapide horrekin batera Humberto, Jorge eta Fernandoren kasuaren gaineko informazioa eskatu ote zen, edo, hala egin ez bazen,

5 Ikusi Guardia Zibila Zuzendaritza Nagusiaren Txostena, eranskinaren X. orrialdean.

6 ROMERO, S. “El crimen más oscuro de ETA” LA OPINIÓN A CORUÑA. 2017ko apirilak 24.

7 EFE. “La emoción de una diputada del PSE-EE logra el consenso de la Cámara vasca para aprobar una iniciativa”. EL MUNDO. 2005eko otsailak 3.

8 Barne Ministerioa. “Fallecidos Terrorismo Indemnizados Ministerio Interior” Terrorismoaren Biktimei laguntzeko Zuzendaritza Nagusia.

9 “Concedida a Lluç la Gran Cruz de Sanidad”. EL PAÍS. 2000ko azaroak 25.

10 ROMERO, S. Op. Cit.

11 Coral Rodriguez Fouzekin 2017ko urriaren 19an izandako telefono-elkarrizketa.

eskatu ote zitekeen jakiteko. Hiru gazte galiziarren desagerpena 2006ko azaroan artxibatu zela jakinarazi zien auzitegi horrek.

Azkenik, honako hau esan zigun: “ETA desegitekotan denez, nire osaba Humberto eta bere bi lagunak non dauden esan dezakete. Hori egin dute, esaterako, Irlandan, batzorde independente bat sortu baitute Ostiral Santuko Akordioa adostu ondoren, informazio anonimoa baliatu eta desagertutako pertsonen gorpuzkiak bilatzeko”.

2. Hiru gazte coruñarrak

A Coruñan jaio zen Jose Humberto Fouz¹², 1943ko irailaren 28an. Ezkongabea zen, 29 urte zituen desagertu zenean, interpretaria zen Irungo “Traffic SA” garraio-agentzian. Bere arreba Isabel eta bere koinatu Jose Cesareo Ramírez Ponteren etxean bizi zen, Irunen, bi urte lehenagotik.

Hizkuntzak ikasi zituen eta ikasketa horiek hobetzeko saioak egin zituen Ingalaterran, Belgikan, Frantzia, Suitza eta Suedian. Lan-kontratuak izenpetu zituen herrialde horietan, eta kontratuek irauten zuten denboran, herrialde horietako hizkuntzen gaineko jakintza handitzen zuen. “Ibilbide horretan, frantsesez, ingelesez, italiaraz, alemanez eta errusieraz hitz egiten ikasi zuen, eta azken bi hizkuntza horiek ikasten jarraitu zuen Altza auzoko etxebizitza partikular batean –alemana–, eta Donostiako Urbieta kaleko Edwards akademian –errusiera–”. Ikasi zituen hizkuntzei esker, Traffic SA enpresan hasi zen lanean, sail komertzialeko interprete-lanetan. “Bere anaia politikoa Jose Cesareo Ramírez Ponte jaunaren bidez lortu zuen lanpostu hori”. Bere hileko soldata 25.000 pezetakoa zen. Austin 1.300 markako autoa erosi zuen, C-2143-B matrikuladuna.

Fernando Quiroga Veiga¹³, 25 urtekoa, A Coruñan jaio zen, 1947ko apirilaren 9an. Irunen lan bat bila zelaion eskatu zion bere lagun Humberto Fouzi. Ezkongabea zen eta, desagertu zenean, aduanetako “Carlos Llanos” lan egiten zuen. Urtebete zeraman Irunen bizitzen.

Jorge Juan Garcia Carneiro A Coruñan jaio zen, 1949ko irailaren 4an, eta 23 zituen. Administraria zen lanbidez, eta ez zegoen ezkontuta. Bi hilabete ziren Jorge Irunera iritsi zela, eta lan bat lortu zain zegoen, “bat lortuko baitzion lagunaren koinatuak¹⁴”.

Azken bi pertsona horiek ere bere lagun Jose Humberto Fouzen arrebaren etxean bizi ziren, Irunen.

3. Desagerpenari buruzko lehen informazioak prentsan

3.1. LA VOZ DE GALICIA, 1973ko apirilak 6

Ikerketa-talde honek egindako lanaren arabera, Fernando Quiroga Veiga, Jose Humberto Fouz Escobero eta Jorge Juan Garcia Carneiro galiziar gazteen desagerpenari buruzko lehen informazioa La Voz de Galicia egunkariak eman zuen 1973ko apirilaren 6an, ostiralez¹⁵.

Hau zuen izenburua: “Desagerturik Irunen bizi diren hiru gazte coruñar” eta azpian “Ez dago haien berririk martxoaren 24az geroztik”. Honako hau zioen kronikak: “lanera joan ziren hiri gipuzkoar horretara. Aduane-

12 KEREILA homizidioa, erailketa eta lapurreta egiteagatik Tomas Perez Revillaren aurka eta ekintza kriminalen egile izandako pertsonen aurka. Donostiako Epaitegia. 1974ko urtarrilak 7.

13 KEREILA. Op. Cit.

14 Irungo polizia-komisaldegiak 1973ko apirilaren 17an egindako atestatu-ziurtagiria. Aurretiazko eginbideak. 1/1974 sumarioa. Donostiako 3. Instrukzio Epaitegia.

15 CIFRA. Tres jóvenes coruñeses, residentes en Irún, desaparecidos. LA VOZ DE GALICIA. 1973ko apirilak 6.

tako agentzia batean lan egiten zuen lehenak, garraio-enpresa batean bigarrenak eta hirugarrena, aurreko bien laguna, lan bila joana zen Irunera”.

CIFRA agentziak emandako informazioarekin osatu zuten kronika, eta bertan adierazten zen Coruñako 2143-B matrikula zuen auto batean zihoazela gazteak. Hipotesi moduan, adierazten zen “akaso istripu bat izan dute jende gutxi izaten den lekuren batean edo Frantziara igaro zitezkeen, mugatik gertuko lekuren batera”.

Kronika horrek hauxe dio, aurreko bi egunetan, apirilaren 4an eta 5ean, gertatutakoen gainean: “Frantziako jendarmeriak La Cornichen dituen zerbitzuek kostaldea miatu dute, ibilgailua itsasora erori ote den ikusteko. Lan horiek ez dute emaitzarik izan orain arte eta urpekari-talde bat jarriko da lanean Irun eta Frantzia bitarteko urak arakatzeko”.

Familiak Irungo poliziarekin harremanetan jarri zirela konfirmatu zuen egunkari horrek. “Fernandoren aitak, Jaime Quirogak, egunkariari esan dio martxoaren 24an, larunbatean, telefonoz deitu ziola bere semeak arratsaldeko hirurak aldera, lana amaitu berri zela eta zinemara zihoala esateko. Itxura batean, Fernandok enpresako idazkarietako bati esan zion zinemara zihoala bi lagunekin, Frantziara”.

Kronika amaitzeko, hiru gazteek A Coruñara egin berri zuten bisita baten berri ematen zen: “Martxoaren 18an eta 19an izan ziren azken aldiz A Coruñan, “zubia” aprobetxatuta. Bidaia Austin 1.300 markako auto zuri batean egin zuten. Humberto Fouz da haren jabea eta C 2143-B zenbakiko matrikula du. Frantziara ibilgailu horretan bertan joan zitezkeela uste da”.

3.2. ABC, 1973ko apirilak 22

Kazetaritza-testu honek ekin zion gerora ABC egunkariak berak eta garai hartako beste agerkari idatzi batzuek ustez gertatu zirenen gainean garatu eta indartu zuten kontakizunari. Testu hori izan zen, gainera, desagerketa bost errefuxiatu politikori leporatu zien lehena.

“*Hiru gazte espainiar desagerturik*” izan zen ABC egunkariak 1973ko apirilaren 22an kaleratu zuen kronikaren titularra. Alfredo Semprunek izenpetu zuen kronika¹⁶.

Testuan zehar, hauek esaten ziren: “Desagertutzat jotako hiru gazte espainiarren bila ari da ondoko herrialdeko polizia. Zinema-emanaldi jakin bat ikustera joateko igaro zuten muga”.

Aurrerago, hauek esaten dira: “gure iturrien arabera, ikerlari frantsesek zehaztu dute desagerturik dauden hiru gazteak (...)zinema-aretoetik irteteen, eta beren bizilekura itzultzeko bidean ari zirela, Donibane Lohizuneko taberna batean gelditu zirela muga zeharkatu aurretik, trago batzuk hartzeko. Taberna horretan, ‘errefuxiatu politiko’ deritzoten horietako batzuk zeuden, mozkor-mozkor eginda. Iritsi berriak espainiarrek zirela ikusi zutenean, ‘errefuxiatu politikoak’ irainka hasi zitzaizkien, eta elkar joka hasi ziren. Liskarraren larria ikusita, esku hartu beharrean izan ziren han zeudenak. Lokala ixtea erabaki zuen tabernaren jabeak. Kalera irtenda zeudela, elkar joka jarraitu zuten batzuek zein besteek, eta, lekukoetako batek esandakoaren arabera, jipoi handia jaso zuten hiru gazte espainiarrek”.

Erasotzaileak identifikatzen ditu albisteak, eta adierazten du egunkaria bera dela informazioaren iturburua. Adierazten da erasotzaileen taldean zeudela, “gure iturrien arabera beti, CEFERINO AREVALO, El Ruso goitizenekoa, ETako kidea eta Frantzian errefuxiatu berria, Gasteizen soldaduzka egiten ari zela Ejertzitotik desertatu ondoren; MANUEL MURUA, El Casero goitizenekoa; PRUDENCIO SUDUPE, El Pruden goitizenekoa, seminarista ohia; JESUS DE LA FUENTE, Frantziara ihesean iritsi berria, bolborategitik lapurtutako dinamita garraiatzeko Eustaquiok¹⁷ erabili zuen kamioiaren gidari izan ondoren, eta SABINO ACHALANDABASO, Savin goitizenekoa. Azken hori izan zen, hain justu, kazetari frantsesaren itxurak eginez, “Txikiaren” agindu eta jarraibide guztiak jaso eta erakundeari jakinarazten zizkiona Don Felipe Huarte jauna bahitu zuten denboran”.

Kronikaren egileak adierazi zuen Frantziako poliziak bost pertsona horiek deitu ziela deklarazioa hartzeko: “itxura batean, Frantziako polizia zorrotasunez ari da bost gizabanako horiek galdekatzen, lekuko asko adierazi baitute esandako horien eta beste batzuen biktima zirenen unean ikusi zirela bizirik azken aldiz orain desagertuta dauden hiru gazteak”.

16 SEMPRUN, A. “Tres jóvenes españoles. Desaparecidos”. ABC. 1973ko apirilak 22.

17 Eustaquio Mendizabal, Txikia, Poliziarren tiroek hil zuten bi egun lehenago, apirilaren 19an, Bilbon.

Amaitzeko, honako hau gaineratzen du: “desagerketa horien gainean hitz egiten da dagoeneko A Coruña, Bilboko, Irungo eta Donostiako kaleetan, eta pentsatzekoa da Frantziako poliziak une batetik bestera kale-ratuko duela gaur zurrumurruen oihartzunean ekarri ditugun gertakarien bertsio ofiziala”.

Deigarria da “zurrumurruen oihartzunean” identifikatu zituztela liskar horretan parte hartu zuten pertsonak, eta, informazio horrekin batera, ziur asko polizia-iturrietatik bakarrik lor zitezkeen datuak eman zituztela.

ABC egunkariak ez zuen esan nondik eskuratu zuen informazioa. Testuan “gure iturriak” esaten zaie informatzaileei, baina badirudi Frantziako poliziaren ikerketak izan zirela kronikan azaltzen diren gertakarien iturburua. Kazetariak esaten du, era berean, “lekuko askok” ikusi zituztela bizirik azken aldiz hiru galiziarrek, adierazitako errefuxiatu horien ustezko erasoen biktima zirenean.

Bi egun geroago, kronika-egile horrek berak, egunkari horretan bertan informazio hau eman zuen: “ez dago desagertutako hiru gazte espainiarren berririk”; hala ere, hau errepikatu zuen: “agintari frantziarrek une batetik bestera eman dezakete informazio ofiziala”¹⁸.

Egiaz, ez da inoiz ere izan Frantziako poliziak gertakarien inguruan eskuratutako informazioaren berririk. Desagerturiko hiru gazteen familiek kereila bat jarri ondoren, sumario bat zabaldu zen 1974. urtean eta, alderdi salatzaileak behin eta berriro eskatu zion arren, sumarioaren instrukzioa egin zuen epaileak ez ziren ikerketa judizial bat abiatzeko eskatu Frantziako agintari judizialei¹⁹.

3.3. LA VANGUARDIA ESPAÑOLA, 1973ko apirilak 29

La Vanguardia Española egunkariak, 1973ko apirilaren 29ko alean, “Ez dago Frantzian eraso dituzten hiru galiziarren berririk” izeneko kronika kaleratu zuen, eta beste bertsio bat eman zuen.

ABC egunkariak gertakarien kontakizun zehatza eta xehetasun handikoa egin zuen eta, adierazi dugun moduan, horien egileen berri eman zuen, baina egunkari katalanak gertakarien kontakizun nahasiagoa egiten zuen.

Bi jipoiaren berri ematen du La Vanguardia agerkariak: horietako lehena hiru galiziarrek Donibane Lohizuneko taberna batean jasotakoa izan zen, eta bestea, geroago jasotakoa, “balizko beste jipoi handi bat, lekukorik gabekoa” izan zitekeen, egunkari horrek esandakoaren arabera.

Testu horretan honakoa irakurtzen da: “jakin ahal izan da eraso egin zietela Donibane Lohizuneko taberna batean. Eraso hori egin izana aitortu du erasoan parte hartu zuen batek, eta aurpegia handitu diegu” hitzekin deskribatu du gertatu zena. Hala ere, La Vanguardia Española agerkariak, honako hau zehazten du aurreago: “uste da, hala ere, beste jipoi handi bat eman zitzaizela geroago, leku bazterren batean eta lekukorik gabe, eta litekeena dela galiziarrek hil egin izana jipoi horren ondorioz”²⁰

Komunikabide horrek berak esan zuen “Tabernako erasotzaileak, han ziren lekukoaren esanetan, Frantzian errefuxiatutako espainiarrak ziren eta poliziak identifikatuta dituela uste da”.

La Vanguardia Española egunkariak adierazi zuen Jendarmeriak ikerketa bat abiatu zuela, desagertutakoaren familiek eskatu ondoren. Ikerketa horien harian, honako hau gehitu zuen kazeta horrek: “polizia frantziarrek onartu du frantziarren arteko liskar bat izan zela eta oso litekeena dela liskarrean euskal errefuxiatu baten esku hartu izana, baina hiru itsasgizon frantziar eraso zituzten, ETAren diruaren kontura lasai asko bizi zirela esan baitzieten hiru horiek beste haiei”.

La Vanguardia egunkariak, hala ere, ñabardura hau erantsi zuen: “kapital honek konfirmatu du beste eraso bat izan zela hori, hiru gazte coruñarrei egindakoa baino lehenagokoa”.

Kronika horrek berak adierazten du ETAko kideek, agian, beste norbaitekin nahastu zutela aduana-agenziako langilea, polizia-funtzionarioen batekin edo Guardia Zibilaren aduanetako espezialista-taldeko funtzionarioen batekin.²¹

18 SEMPRUN, A. “Aún no hay noticias de los tres jóvenes españoles desaparecidos”. ABC. 1973ko apirilak 24.

19 1/74 SUMARIOA, Donostiako Epaitegia.

20 LOGOS “Sin noticias de los tres gallegos agredidos en Francia”. LA VANGUARDIA. 1973ko apirilak 29.

21 LOGOS. Op. Cit.

3.4. ABC, 1973ko maiatzak 29

Desagertuak lehenik, ETAk erailak ondoren: panfletoak

Desagerpenaren berri ematen duen hurrengo albiste 1973ko maiatzaren 29an kaleratu zen. ABC egunkariak panfleto batzuen berri ematen du, eta panfleto horiek “ETAri leporatzen diote hiru langile galiziarrek erail izana”. Hau dio informazioak: “Ipar euskal herriko postontzietan banatutako panfletoak dira, langile espainiarrek izenpetutakoak”²².

Idatzian, honako hau nabarmetzen du ABC egunkariak: “panfletoek dakarten akusazio-testuaren berri ematen dute Baionako egunkariak eta irratiek”. EFE Agentziaren informazioa zerabilela adierazi zuen egunkariak.

Testu hori bera argitaratu zuen, egun berean (1973ko maiatzaren 29an), La Voz de Galicia agerkariak²³.

3.5. Sud-Ouest egunkaria

SUD-OUEST egunkaria kontsultatu du ikerketa-talde honek, Iparraldeko komunikabide erreferentziala garai hartan, baina ez du panfleto horien aipamenik aurkitu, ez adierazitako egun horretan, ez egun horren aurretik zein ondoren.

Albiste aipagarria den arren, ez dugu aurkitu komunikabide horretan hiru gazte galiziarren desagertuari buruzko informaziorik. Pentsatzekoa zen, hala ere, horrelako albiste batek oihartzuna izango zuela eskualde horretako egunkari salduenaren orrialdeetan. Egiaztatu dugu euskal errefuxiatu politikoen eta ETAren ekintzen gaineko beste albiste batzuk argitaratu zituela egunkari horrek. Hala ere, adierazi dugun moduan, egunkari frantses horretan kontsultatu ditugun aleek, 1973ko martxoaren 25etik 1974ko urtarrilaren 17ra bitartekoek, ez dute desagertuaren berri ematen.

4. Panfletoak

Sei panfleto ageri ditu sumarioaren dokumentazioak. Horien edukiaren zati nabarmenenak adieraziko ditugu hemen. Horien berri ematen da, era berean, Guardia Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak epaile instrukzio-gileari igorritako txostenean²⁴.

1. PANFLETOA (1973 maiatzaren 28aren inguruan)

Izenburua: “Bi hilabete berririk gabe: hirurogei eguneko laidoa”

(...) “ETAko komando batek eraso egin zien, haren buru “Txikiaren” bigarrena zen, Galparsoro izeneko oñatiar bat. Honako hauek ziren komando-kide: MANUEL MURUA ALBERDI “El Casero”; JOSE DE LA FUENTE IRURETAGOYENA; CEFERINO AREVALO IMAZ “El Ruso”; SABINO ACHALANDABASO, “Sabin”; eta PRUDENCIO SUDUPE AZCUE “El Pruden”. Eraso horren ondoren, ez da hiru gazte horien berririk izan”.

Panfletoak testuak kritikak egiten dizkie gobernuari, elizari, prentsari eta alderdi politikoei. Aldarri hauek egiten ditu: Ez opresio arrazistari, ez diskriminazio etnikoari, ez mespretxuari, burlari eta irainari. Ez dago izenpetuta.

22 EFE. “Acusan a la ETA de asesinar a los tres trabajadores gallegos desaparecidos” ABC. 1973ko maiatzak 29.

23 EFE. “Los tres gallegos desaparecidos en Francia fueron asesinados por ETA” LA VOZ DE GALICIA. 1973ko maiatzak 29.

24 Guardia Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak epaile instrukzio-gilearentzat egindako txostena, 1974ko apirilaren 29koa. 1/1974 Sumarioko dokumentazioa.

2. PANFLETOA (1973ko uztailaren 25aren ingurukoa, Santio egunaren inguruan)

Izenburua: "LAU HILABETE dira HIRU LANGILE galiziar GAZTEAK gupidagabe erail zituztela".

ADIERAZTEN DUGU:

Ceferino Arevalo "El Ruso" izan zen ETAko komando hiltzailearen burua. (...)Esana du "El Caserio" izeneko lekuan zeudenean, hiru gazteak probokatu zituztela eta eraso egin zietela irteeran.

Biktimak Morris 1.100 autoa erabiltzen zuten, eta orain ETA ari da hura erabiltzen, matrikula faltsuarekin. Hori esan du Pedro Alquiza Leizarretak, "El Quepa" goitizenekoak. Disc-jokeya da eta harro kontatzen du erasoan parte hartu zuela.

Frantziako gobernua txosten bat eskatu zuen, eta polizia frantses batek, ETAREN soldatapekoa bera, idatzi du txosten hori. Guk egin dugun moduan, normahik egiazta dezake albistea, "Mingo" tabernara joanda.

Izenpetuta: TRABAJADORES ESPAÑOLES

3. PANFLETOA

Izenburua: Irailaren 24an SEI HILABETE izango dira hiru langile gazte galziarrak Frantzian, "La Lycorne" tabernan, desagertu zirela

"Erailketaren konplize dira agintari frantziarrak, ez baitute gertakariak argitzeko edo errudunak atxilotzeko neurririk hartu, ezta, noski, haiek epaitzekorik ere; bien bitartean, lasai asko dabilta pasieran biktimen auroan, Z-0978-B matrikularekin.

Konplize dira Agintari espainiarrak, ez baitiete agintari frantsesei exijitzen bere herritarrak babesteko, teoriarik 'errefuxiatu politiko' (baina, egiaz, soldatapeko terrorista) diren separatista euskaldunen erasoan aurrean.

Konplize da, era berean, hierarkia katoliko espainiarra, "lan alorreko propagandistek eta propagandista politikoek, gertakari guztiak baliatzen dituztenak demagogia egiteko, baina, orain, isilik daudenak."

Izenpetuta: TRABAJADORES ESPAÑOLES

4. PANFLETOA (7 HILABETE geroago, 1973ko urria)

Izenburua: "Erabat konprobatua erailketa".

Hauek dira zehatz-mehatz konprobatutako gertakariak:

"Martxoaren 24ko arratsean gure hiru lagun langileak beren herriko abestiak kantatzen ari ziren LA LYCORNE tabernan, eta ETA erakunde terroristako espainiar talde bat, leku horretan bertan egonda, haiei irainka hasi zen eta isilarazi egin nahi izan zituen, ESPAINIA irainduz eta haiek bortizkeria itzelez kolpatuz.

Jaso zituzten jipoi ikaragarrien ondorioz, larriki zauritu ziren hirurak; erasotzaileen krudelkeriak eta gorrotoak begi bat atera zioten gure lagun horietako bati.

Hori egin bezain laster, ETAko komando horretako kideek, zoritxarrean hain ezagun den PEREZ REVILLA gaiztagin profesionala buru zutela, haiek desagerraraztea erabaki zuten, egindako barrabaskeriaren aztararik ez uzteko, eta ondoren hotz-hotzean erail zituzten eta gorpuak desagerrarazi zituzten."

Izenpetuta: TRABAJADORES ESPAÑOLES

5. PANFLETOA

Izenbururik gabea (zortzi hilabete, 1973ko azaroa)

“Bizikidetzaren nazionalaren historian, GORROTO ARRAZISTAREN GAUA izen tristemak du 1973ko martxoaren 24ak, gau horretan hiru langile galiziar gazte erail baitzituzten, beren herriko abestiak kantatzen zitutelako!, Donibane Lohizuneko herri frantziarreko taberna batean.”

Horren eragingarri bakarra GORROTOA izan zen, burugabekeria basatia, hori zatekeen leku hartan zegoen ETako terroristen taldeak egin zieten eraso bortitzaren eragilea. Eraso horren ostean, erasotzaileek hotz-hotzean erail eta **mutilatu** zituzten jipoitutako langileak –“garbitu” egin zituztela esan zuen Tomas Perez Revillak, komando-buruak.”

Izenpetuta: TRABAJADORES ESPAÑOLES

6. PANFLETOA (1973ko abenduak 24)

Izenburua: “9 hilabete semeak erail zizkietela”.

“Abesteagatik, espainiar izateagatik eta langile izateagatik erail zituzten. Miarrizteko jokalaria izatera, zinema lizunaren ilaran izatera, separatistak izatera, onik leudeke”.

Baina justiziaren irudiak ez du balantza bakarrik ageri.

Hor du ezpata ere, hiltzaileentzat.

Izenpetuta: TRABAJADORES ESPAÑOLES

7. PANFLETOA (Datarik gabekoa)

Izenburua: “FRANTZIAN ERAILAK hiru langile gazte galiziar, ESPAINOLAK zirela adierazteagatik”.

Juan Humberto Fonz Escobedo 28 urte, Jorge Juan Garcia Carneiro, 23 urte, Fernando Quiroga Veina 25 urte. Bortizki eta modu koldarrean erail zituen ETako fanatiko espainiarren talde handi batek 1973ko martxoaren 24an, Donibane Lohizunen (Frantzia)²⁵.

25 Jatorrizko testuan agertzen diren moduan idatzi dira izenak

5. ABC egunkariko kronikak hurrengo hiletan

Espainiako prentsak idatzitako artikuluetara bueltatuta, adierazi behar da une horretatik aurrera, hau da, azaldu ditugun lehen kronika horiek argitaratu ostean, ABC egunkariak eta prentsa idatzian argitaratutako informazio guztiek ETArri leporatu zioten hiru galziarrak erailteza eta haien gorpuak desagerraraztea, hala ere, gertakarien bertsio bat baino gehiago kaleratu ziren. Informazio horiek, ordez, ez zuten polizia-ikerketen edo gertakarien azalpen ofizialen berririk eman.

5.1. ABC, 1973ko ekainak 1

Alfredo Semprun kazetariak, ordura arte argitaratu zen ildoari jarraituta, izenburu hau jarri zion ABC egunkariko bere kronikari 1973ko ekainaren 1ean: *“Ez da hiru espainiarrak Frantzian non izan daitezkeen jakiteko ikerketa zorrotzik egin”*²⁶. Kronika horretan, zabaldu egin zuen Jose Humberto Fouz Escobero, Jorge Juan Garcia Carneiro eta Fernando Quiroga Veigari 1973ko martxoaren 24an ustez gertatu zitzaizkaienari buruzko informazioa.

Datu berriak eman zituen artikulua horrek; izan ere, adierazi zuen hiru gazte horietako batek kolpe hilgarriak jaso zituela liskarrean, haren bi lagunak hil zituztela gertatutakoaren lekukorik izan ez zedin, eta desagerrarazi egin zituztela, galziarren autoarekin batera.

Artikuluak *“Galparsoro”*²⁷, Murua, De La Fuente, Sodupe eta beste batzuei leporatu zien kontatutako ekintzen egile izatea. Kazetari horren esanetan, *“lasai daude, inork ez baitu zorrotz ikertu non, nola eta noiz kendu zituzten gainetik beren biktimen gorpuak. Baina, jakin ahal izan dugunez, eraso jasandako hiruetako batek jaso zituen, gertakarien lekuan, kolpe ezinbestean hilgarriak, eta agerikoa dirudi haren hiltzaileek erail egin zituztela, gerora, haren bi lagunak lekukorik izan ez zedin, eta haien autoarekin batera desagerrarazi zituztela”*.²⁸

Gertakarien taberna *“gauaren ordu askotan Donibane Lohizunen, errepidearen ertzean, irekita izaten den edaritegi gutxietako bat”* zela adierazi zen idatzi horretan.

5.2. ABC, irailak 8

ABC egunkariak, 1973ko irailaren 8an, Fernando Quirogaren aitari egindako elkarrizketa bat argitaratu zuen. A. Semprun kronistak egin zion elkarrizketa. Hiru gazteak bizirik zeudela esan zioten Fernando Quiroga Veigaren aitari telefono-dei anonimo baten bidez.²⁹

Semprunek idatzi zuen ustekabean izan zutela Jaime Quiroga Campok jaso zuen deiaren berri: *“Kasualitatez jakin genuen. Pertsona ezezagun batek aurreko martxoaren 24an desagertutako gazte galziarretako baten aitaren etxera deitu zuen telefonoz (...)”*

–“(...)Quiroga jauna al zara, Fernandoren aita? (...)”

–Zure semea bizirik dagoela esateko deitzen dizugu –esan zuen gero ahots horrek.

–Aizu, baina hilik dagoela esan du Prentsak...

–Ez egin kasurik. Zure semea eta haren bi lagunak bizirik daude eta laster jakingo dituzue horien gaineko berri zehatzagoak.”

(abuztuaren 13a, goizaldean)

26 SEMPRUN, A. “No se ha investigado rigurosamente el paradero de tres españoles en Francia”. ABC. 1973ko ekainak 1.

27 A. Semprunek idatzitako aurreko kronikan, Galparsoro ez zen erasotzaileetako bat.

28 SEMPRUN, A. Op. Cit.

29 SEMPRUN, A. “Renace el misterio sobre la desaparición de tres jóvenes gallegos en Francia”. ABC. 1973ko irailak 8.

5.3. ABC, 1973ko abenduak 27 eta 26

Kronika hori eta aurreko egunekoa izan dira gerora egindako kazetaritza-lanen erreferentzia.

Zehazki, ABC egunkariak A. Semprun kazetariaren sinadurarekin 1973ko abenduaren 27an argitaratu zuen informazioa izan da, ordutik aurrera, kazetaritza-lanek hiru galiziar desagertuen kasuaren gainean informatzeko erreferentzia.

Argitaratu zituen datuen eta informazioaren xehetasunei begiratuta, kronika zabal horrek jauzi kualitatibo handia eman zuen. Egunkari madrildarraren "iturri propioak" dira informazioaren sorburu. Idazkera interpretatiboa baliatzen du, eta adjektibo ugari darabiltza ustezko gertakarien berri emateko.

Tomas Perez Revillari egotzen zaio "garondoan tirokatzea bi biktima babesgabe (Jorge Juan Garcia Carneiro eta Fernando Quiroga Veiga) bere 'Firbird' zitalarekin, eta ondoren haien gorpuak Sarre etxaldearen inguruan lurperatzea, erakundea etxalde hori ustiatzen ari baita Saint Palais inguruan"³⁰.

Horrez gainera, Jose Humberto Fouz Escobero erail izana egotzen dio Semprun kazetariak Perez Revillari, eta, ondoren, egoera horiek erakundean zer eragin izan duten azaltzen du kazetariak. Kronikaren egileak honako hau idatzi zuen ustezko erailketen gainean: "oraindik gehiago handitu dute, hori posible baldin bada bederen, erailtzaileren artean zeuden desadostasunak, Polizia espainiarrak 'Txikiaren' abentura kriminalak amaiarazi ondoren"³¹. (...)Ezin zuten doilorkeria absurdu horrekin ados egon Anai-Arteakoek, haren presidente Telesforo Monzonek ordezkaturik, ezta aurrez adierazitako 'Embatako' gainerako kideek ere".

Aurreko eguneko kronikan³², honako hau idatzi zuen Semprun kazetariak: "orain hilabete batzuk esan zigiten hura berretsi dute gure informatzaileek. Hiru gazte galziarrak, Jose Humberto Fouz, Fernando Quiroga eta Jorge Juan Garcia, Madrilén magnizidio itsusi hori egin zutenen biktima izan ziren"³³.

Azaltzen du hiru horietako bat Donibane Lohizuneko "Garni" tabernan hil zela liskarrean, Miarritzetik itzultzen ari ziren unean "ETAren soldatapeko 8 pistolari, mozkor-mozkor eginda, haiei irainka hasi ondoren, etorri berriak ziren hirurak gure nazionalitate berekoak zirela konturatu zirenean. Galiziaren adoretsua eskuineko parietala txikitu zion botilakada baten ondorioz hil zen, entzefalo-masa ugari galdu ondoren".

Kronika-egilearen hitzetan, beste biak "bahituta izan ziren egun batzuetan erakundeak Saint Palais herrian duen etxaldean, eta haiekin zer egin ez zekitenez, gertatutakoari buruzko arrasto guztiak ezabatu nahi izan zituzten agintari frantziarrek horren berririk ez izateko, eta haiek exekutatzeko erabaki azkarra hartu zuen Tomas Perez Revillak"³⁴.

Semprun kazetariak adierazi zuen Tomas Perez Revillak "berak" tirokatu zituela garondoan, eta hark erabaki zuela gorpuak inguruan lurperatu eta desagerraraztea. Semprun kazetariaren kontakizunak esaten du Donibane Lohizuneko badiara bota zutela Humberto Fouzen gorpua martxoaren 25eko egunaren goizaldeko lehen orduetan, hura erail eta ordu gutxira. Zehaztasun hau eman zuen: "ETAren jabetzako ontzi bat erabili zuten, Baionan matrikulatua dagoena 1694 zenbakiarekin eta 'Dragón' izena margotuta daramana". Beste xehetasun hau ere eman zuen: "Lucio Ochoantesana, 'Luken' izenez ezaguna, izan zen, jaso genituen informazioen arabera, gazte galziarraren gorpua itsasoaren erdira bota zuena."

Berriz ere abenduaren 27ko kronikara bueltatuta, Semprunek aitortzen eta kritikatzeko du agintari frantziarrak beste kasu bat ikertzen ari dela, "hiru marinel frantziarrena". Txosten honetan bertan, lehenago, adierazi dugun moduan, La Vanguardia egunkari espainiarrak eman zuen horren berri.

ABC egunkariko erredaktoreak azaltzen du dena Fouz hil zen lehen liskar harekin hasi zela, eta krimen hori tapatzeko, bere bi lagunak "garbitu" behar dituztela. Ildo horri jarraituta, honako hau idatzi zuen: "gertatutakoaren berri zabalduko zen lehenago edo geroago, eta edozein unetan irits zitezkeen frogak edo lekukotzak agintari frantziarren eskuetara, nahiz eta, momentuan, 'hiru marinel frantziarren' kasua-

30 SEMPRUN, A. "La reaparición de Francisco Iturrioz en la escena 'Etarra' inicio de la grave escalada en la violencia. El asesinato de los tres jóvenes gallegos continua impune." ABC. 1973ko abenduak 27.

31 Polizia espainiarrak Algortan, 1973ko apirilaren 19an, egindako tiroen ondorioz hil zen Eustaquio Mendizabal.

32 SEMPRUN, A. "Ha surgido una posible pista en Alsasua: el conductor de un camión pudo haber sido obligado a desviarse de su ruta por uno de los terroristas". ABC. 1973ko abenduak 26.

33 1973ko abenduaren 20an Carrero Blanco hil zuen atentatuaz ari da.

34 SEMPRUN, A. Op. Cit.

ren 'agerpen' unekoarekin lanpetuta dauden ikerketa funtsik gabeko batean, gertaera hori lekukoen buru beldurtuak asmatua baita, Donibane Lohizuneko "Garni" tabernarentzat lan egiten duten zerbitzariak eta emakumeak guztiak. ETaren soldatapeko pistolari mozkorrek taberna horretan erail zuten, hain justu, A Coruñan jaiotako gure herrikidea".

Honako hau gaineratu zuen, polizia frantziarrari egindako kritika amaitzeko: "Frantziarrek, eta, berariaz, bulego ofizial paristarrek, ez dute konplikaziorik nahi eremu horretan, baina hainbat faktorek urra dezaketenez lasaitasuna eremu horretan, M. Marcellinek zuzentzen duen segurtasun-indar efizienteak bere historian egin duen polizia-ikerketa funtsik gabekoenari eutsi diote"³⁵.

Agintari frantziarrei kargu hartzeko arrazoiak ematean, Interpol erakundeak Vienan egin zuen urteko kongresuan "Frantziako Barne Ministerioaren kolaboratzaile zuzenetako batekin" izan zuen elkarrizketaren berri ematen du kronikaren egileak. Oraingoan "irudipenak dira, adiskide estimatu hori. Irudipenak eta ez besterik...". Hori esan omen zion kolaboratzaile horrek kazetariari, desagertuen kasuaren gainean egin bide zizkion galderei erantzuteko.

Agerikoa da artikulua horrek datu oso zehatzak ematen dituela, eta, ziur asko, polizia berak edo poliziaren konfidenteek soilik eman ditzaketela xehetasun horiek. Deigarria da "eskuineko parietala txikitu zion botilakada baten ondorioz hil zen, entzefalo-masa ugari galdu ondoren" hitzak erabiltzea, auzitegi-medikuek darabilten hizkuntza baita, eta deigarria da, era berean, Revilla biktimen aurka ustez erabili zuen armaren marka zehaztu izana.

Nabarmetzeko datua da, era berean, lehen aldiz hitz egiten duela desagertutako gazteen autoari buruz.

Perez Revillak hiru gazte horietako bi noiz eta nola hil zituen frogatzeko eskatzen dio kazetariari polizia frantziarrari, eta argitzeko nola eta noiz bota zuen, ustez, Lucio Ochoantesak hirugarren gaztearen gorpua 'Dragón' ontziko kareletik Donibane Lohizuneko badiara. Era berean, "hiru coruñarren autoa ekainean zer mekanika-tailerretan desegin zuten" aurkitzeko eskatzen die Frantziako polizia-agintariei.

Kazetariaren esanetan, "jokabide zuhurra ez den arren, ibilgailu hori erabiltzen jarraitu zuten aste askotan, matrikula aldatuta. Baina, arriskua sumatu zutenean, erabat desegiteko agindu zuten"³⁶.

Kronikak esparrua zabaltu eta gertakari horiek "girokoen artean" sortu zuten hausturaren berri ematen du. Semprunek ziurtatu zuen bilerak edo asanbladak egin zirela –horiek egin ziren lekak eta egunak adierazten ditu—. Eta adierazten du desadostasunak sortu zirela bi talderen artean: Monzón, Txillardegia eta aita Larzabal zeuden lehenengoan, eta "erabat gaituta" omen zeuden; bigarrenengoan, berriz, Pérez Revilla, Mugica Arregui eta Zabalde Romero, 'El Cabra' goitzenekoa zeuden, eta "literatura gutxiago eta ekintza gehiago" eskatzen zuten.

Semprunek, informazio trinko eta, sarritan, nahasi hori amaitzeko, Eustaquio Mendizabalaren heriotzaren gaineko komentario bat egiten du³⁷. Iruzkina horretan iradokitzen du ETAn konfidenteak infiltratuta zeudela izan zela posible hura hiltzea, eta baita informazio-emaileak izan zirelako. Itxura batean, kronika-egileak azken horiek baliatu zituen artikulua idazteko.

Argudiatu zuen ETako militantearen heriotzak "agerian utzi zuela 'hain berezia den giro horretako' pertsonen artean errotutako traizioa, askoren ustez hurrengo hilabeteetan ere agerian geratu dena, gure poliziak ekintzetan nola asmatu duen ikusita."

Gertakari bertsio berri horretan, Semprunek ez zituen aipatu 1973ko apirilaren 22ko artikuluan eman zuten izenak (Ceferino Arevalo, Manuel Murua, Prudencio Sudupe, Jesus de la Fuente eta Sabino Achalandabaso), eta Tomas Perez Revillari leporatzen dio, zuzenean, hiru gazteak hil izana.

35 George Pompidouren Gobernuaren barne-ministroa.

36 Segurtasuneko Zuzendaritza Nagusiaren txosten bat dakar 1/1974 Sumarioak, eta honako hau adierazten du: "Adierazi behar da ez dela egia Austin 1300 autoak Z-0978-B matrikularekin zirkulatzen duenik". Hori esaten du desagertutako hiru gazteen ibilgailuaren gainean. Honako hau dio "Dragón" izeneko ontziari buruz: "ez da ezaguna ETaren jabetzako ontzia erabili denik gazte galiziarren ustezko erailketan".

37 1973ko apirilaren 10ean hil zen, Algortan, Poliziaren tiroen ondorioz. Ihes egitea lortu zuen Peixotok.

5.4. ABC, 1974ko urtarrilak 3

Prentsak 1974. urteko urtarrilean ekarri zuen berriro kasua bere orrialdeetara. Hilaren 3an, ABC egunkariak argitaratu zuen Quiroga, Fouz eta Garciaren gurasoak Donostian zeudela, beren semeen desagerepenaren gaineko salaketa aurkezteko hiri horretako Instrukzio Epaitegian³⁸. Bederatzi hilabete ziren igaroak desagertu ziren egunetik, martxoaren 24tik.

Egun bat geroago, 1974ko urtarrilaren 4an, La Voz de Galicia egunkariak elkarrizketa bat egin zien Donostiako Galiziako Etxean Jaime Quiroga Camposi eta Julio Garcia Souzari, Fernandez eta Jorgeren aitak, hurrenez hurren. “Gure semeen gorpuak nahi ditugu gutxienez, geure lurrera eraman eta han lurperatzeko” esan zion Quirogak kazetariari.

“Egunkariak argitaratu duena dakigu guk, ez gehiagorik” esan zuten. Alde horretatik, deigarria da ikustea bi aita horiek elkarrizketan zehar eman zituzten erantzunek hitzez hitz errepikatu zutela Semprunek 1973ko abenduaren 27ko kronikan eman zuen bertsioa³⁹.

5.5. ABC, 1974ko urtarrilak 5

CIFRA agentziaren informazioa baliatuta, Donibane Lohizunen Tomas Perez Revilla atxilotu zutela argitaratu zuen ABC egunkariak 1974ko urtarrilaren 5ean. “Baionara eraman dute ETaren V. Asanbladako Fronte Militarreko burua, deklaratzeko”⁴⁰. Kronikak esaten du hau gerta daitekeela: “polizia Perez Revillarekin izango da hura espetxera eraman ondoren, Bordeletik gertu egin zen prentsaurrekoan gertatutakoa argitu dezan”⁴¹.

Albisteak ez du Perez Revillak hiru gazte galiziarren ustezko erailketarekin eta desagerepenarekin izan zezakeen loturaren gainekorik aipatzen. Hemen ikusi dugu, ordea, egunkari horrek hiru ustezko erailketen egiletzat jo zuela atxilotutako pertsona hori.

5.6. ABC, 1974ko urtarrilak 6

CIFRA agentziak zabalduetako informazio bat argitaratu zuen ABC egunkariak urtarrilaren 6an. Albiste horrek jakinarazi zuen ETA erakundearen mehatxu-gutunak iritsi zitzaizkiela Galizian jaio baina Bizkaian bizi ziren hiru pertsonari. Hiru pertsona horiek Guardia Zibilarri eman zioten horren berri. Informazio horren arabera, hau zioen testu idatziak: “Zorioneko zara zeurea ez den lur honetan jateko aukera duzulako. Ez zaitez, gainera, nagusitzen saiatu, ez duzu lortuko-eta. Hirurekin nahiko izan ez baduzue, hirurehun izango dira laster. ETA”. Eta ‘Euzkadi Ta Askatasuna’ zigilua darama, tinta morez⁴².

5.7. ABC, 1974ko urtarrilak 8

Urtarrilaren 8an, Madrilgo egunkarian izenpetutako informazio baten bidez, Alfredo Semprunek jakinarazi zuen Jose Saile izeneko hiritar frantziarra hil zutela Baionan “orain hilabete batzuk Galiziako hiru gaztek jasanez erasoaren oinarrian zeuden arrazoi berberengatik, ETako kide zenbaiten hitzezko erasoei aurre egin ondoren, Baionan”.

Informazioak zehazten du ustezko biktimak Parrecou kalean topatu zituela “ETako kide batzuk, Espainiako Gobernuaren presidentearen aurkako atentatuan nolabait parte hartu izanaz harro ageri zirenak”⁴³ eta ho-

38 CIFRA. “Demanda judicial por la desaparición de los tres jóvenes gallegos”. ABC. 1974ko urtarrilak 3.

39 Erredakzioa. “La Misteriosa desaparición de los tres jóvenes gallegos cerca de San Juan de Luz”. LA VOZ DE GALICIA. 1974ko urtarrilak 4.

40 EFE. “Tomás Pérez Revilla, alto jefe de la ETA, detenido en San Juan de Luz”. ABC. 1974ko urtarrilak 5.

41 ETAK 1973ko abenduaren 20an Carrero Blanco almirantearen aurka Madrilan egin zen atentatu hilgarriaren egiletza bere gain hartzeko prentsaurrekoaz ari da.

42 CIFRA. “ETA amenaza a tres gallegos residentes en Vizcaya”. ABC. 1974ko urtarrilak 6.

43 SEMPRUN, A. “Muerto por elemento de la E.T.A. en Bayona”. ABC. 1974ko urtarrilak 8.

riei aurre egin ziela, ETArek jarduna kritikatu. Semprunek informazio horretan esaten du arrazoi horregatik joan zela talde hori, tabernaz taberna, hiritar frantziarraren atzetik, jipoi bat eman ziotela kalean eta, ordu batzuk geroago, ospitalean hil zela, jipoiaren ondorioz. Semprunek gaineratu zuen Frantzian ez dela gertatzen horren gaineko informaziorik argitaratu.

5.8. ABC, 1974ko urtarrilak 10

Hil horren beraren 10. egunean, iturri fidagarriak aipatu zituen Semprunek, Jendarmeriak Tomas Perez Revilla “nazionalitate frantseseko emakume gazte bat bortxatu izanaren akusazio formalarekin”⁴⁴ atxilotu zuela jakinarazteko, eta ez Errefuxiatu Estatutuaren betebeharrak urratzeagatik edo konfinamendutik ihes egin izanagatik.

Harrigarri da, beste behin, kronika-egile horrek ez eguneratu izana informazio horretan bertan A Coruña hiru gazteen desagertuaren kasua.

6. Coral Rodriguezen borroka

Humberto Fouz Escoberoen ilobak osabaren oroitza du, neskato bat baitzen hura desagertu zen unean. Galera horrek markatutako familia batean hazi da Coral Rodriguez, eta ez dute erakundeen eta gizartearen babesik sentitu denbora horretan guztian.

“Isiltasunaren horma urratzea, iritzi publikoari gogoraraztea eraiketa horiek” eta bere osaba eta bere bi lagunak aurkitzea izan ziren Coralen helburuak gertakariak argitzeko borrokari ekin zionean⁴⁵.

6.1. Galdera Senatuan Mayor Orejari 1999ko martxoaren 24ko osoko bilkuran

Coral Rodriguez PSE alderdiko senatari sozialista zen garaian, Senatuko osoko bilkurara eraman zuen kasua, eta, horren ondorioz, berriro itzuli zen komunikabideetara Humberto Fouz, Fernando Quiroga eta Jorge Juan Garcia coruñarren kasua, urte askotako isiltasunaren ondoren. Senatuan, desagertutako hiru gazte galziaz arazteko galdetu zion Rodriguezek Jaime Mayor Oreja ministroari. Barne ministroak bere gain hartu zuen “desagertu horiek eta Perturrena ikertzeko konpromisoa”⁴⁶.

Bi urte lehenago, 1997ko irailean, Coral Rodriguezek Barne Ministerioarekin jarri zen harremanetan, Eduardo Moreno Bergaretxe zenaren gorpua egon zitekeen hilobi bat agertu baitzen Biriatuan. Coralek hau esan zion El País egunkariari: “hiru hilotz zeudela esan zen, eta guk pentsatu genuen nire osaba eta bere lagunak izan zitezkeela, eta ni ikerketen gainean informatuta edukitzeko eskatu nion ministroari”⁴⁷. Ez zitzaion azalpenik iritsi, eta Coralek, urte batzuk geroago, berriro jo zuen Barne ministroarengana, baina parlamentu-galdera baten bidez oraingoan.

Rodriguezek Senatuan egin zuen interbentzioaren kazetari-informazioaren arabera, hau esan zuen Coralek: “eskandalagarria da garai hartan sumarioa ikertu ez izana”⁴⁸.

“Familiek ez zuten baliabiderik, ez zekiten nora jo. Istripu bat izan zitekeela esan zieten eta autoa amildegiaren batetik eror zitekeela” azaldu zuen Rodriguezek Senatuan⁴⁹.

Honako hau esaten du 1999ko martxoaren 25eko kronika horrek berak: “desagertu gertatu eta bederatzi

44 SEMPRUN, A. “Pérez Revilla, detenido por violación”. ABC. 1974ko urtarrilak 10.

45 RUIZ, ANA. “Una senadora del PSE pregunta a Mayor por la muerte de tres jóvenes en 1973 supuestamente a manos de ETA”. EL PAÍS. 1999ko martxoak 25.

46 RUIZ, ANA. Op. Cit.

47 Azkenik, hiru emakumeren gorpuak zirela egiaztatu zen.

48 RUIZ, ANA. Op. Cit.

49 RUIZ, ANA. Op. Cit.

hilabete baino igaro ez zirela, senideek kereila kriminal bat aurkezteko bultzada izan zuten, Madrilgo egunkari batean argitaratutako informazio baten ondorioz". Era berean, 1973. urtean argitaratutako albiste horrek esaten du ETako kide batek eman zuela erakundeak hiru gazteen heriotzan izan zuten partaidetzaren berri. Horrela adierazi zuen kazetariak: "Albiste haren esanetan, etarra batek kazetariari esan zion ETak erail zituela hiru mutil haiek, kaleko jantziak zeramatzen polizia espainiarrak zirelakoan".⁵⁰

Madrilgo egunkari hori, ziur asko, ABC izango da, eta zehazki, 1973ko abenduaren 27ko kronikaz ariko da. Hori horrela izan bazen, nabarmendu behar da kronika horrek ez duela ETako iturririk aipatzen; aitzitik, kazetariak iradokitzen du, txosten honetan azaldu dugun moduan, informazioen iturri poliziaren informatzaileak, konfidenteak edo ETaren barnean gertatutako "traizioak" izan daitezkeela.

Honako hau idatzi zuen Alfredo Semprun kazetariak:

"Errealitatea gailendu zen. Hazparneko bileran bertan, behatzaileek argi eta garbi ikusi zuten ETA ez zela, ordurako, "Yulen" Madariagak, Alvarez Enparantzak eta enparauek eraturako hura, haren aurpegi odoltsua eta pistola mehatxariak baino ez zirela geratzen, eta inork ere ezingo zituela menderatu, beren zoroan".⁵¹

6.2. Legez besteko proposamena Eusko Legebiltzarrean, 2005eko otsailak 3

Coral Rodriguez, PSE alderdiko legebiltzarkidea, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordean agertu zen, eta legez besteko proposamen bat abiatu zuen, hau eskatzeko Eusko Legebiltzarrari: "ETak desagerrarazi dituen pertsonen hilotzak aurkitu eta identifikatzeko neurriak abiaraztea"⁵². Onartu egin zen ekimena.

Coralek jakinarazi zuen gorpuak, zantzuen arabera, Saint Palais herriko baserri batean egon zitezkeela lurperaturik.

Hiru alderdiko Jaurlaritzak (PNV, EA, IU), hasiera batean, osoko zuzenketa batekin erantzun zion proposamen horri. Baina, PSEko legebiltzarkidearen interbentzioaren ondoren, atzera egin eta babestu egin zuen proposamen sozialista.

Coral Rodriguezi mingarri egin zitzaion testu alternatiboaren hotsasuna, eta kritikatu egin zuen, "burla" bat iruditzen zitzaiolako.

Garai hartan Eusko Alkartasunako bozeramaile zen Rafael Larreinak, hirukoaren izenean, behin baino gehiagotan eskatu zion barkamena Coral Rodriguez legebiltzarkideari, hizkera oso administratiboa erabili zutelako beren zuzenketa.⁵³

J. Pagolak idatzi bat argitaratu zuen ABC egunkariak 2005eko otsailaren 2an argitaratu zuen alean, eta idatzi horrek Coral Rodriguezek Eusko Legebiltzarrean egin zuen interbentzioaren berri ematen du. Honako hau gaineratu zuen: "Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen zuzendariak, Chema Urquijok, bere gain hartu zuen, lehen ekinbide moduan, krimenaren egile gizarteratu baten lekukotza jasotzeko konpromisoa. Coralek berak bi gutun idatzi zizkion pertsona horri⁵⁴, gizatasun keinu bat erregutzeko".⁵⁵

J. Pagolak egindako erreportajearen zenbait kritika egiten dira, Frantziak ez zuelako "inolako" ikerketarik egin eta Espainiak ezer gutxi egin zuelako. Kazetariaren esanetan, "1974. urtean Jesus M^a Zabarte Arregui pistolaria galdekatzera mugatu zen ikerketa. (...)Zabartek esan zuen gazte galiziarren gainean galdetu ziola Perez Revillari. Erakundeko buruak erantzun omen zion ez zela horri buruzko ezer jakiterik komeni."

Bilboko Ospitalean, zauriturik eta eskuineko eskua igeltsuz estalirik zuela, egin zuen deklarazio hori Jesus M^a Zabartek, eta, gerora, hainbat artikulutan hala nola El Mundok 2001eko ekainaren 17an eta La Opinión

50 RUIZ, ANA. Op. Cit.

51 SEMPRUN, A. "La reaparición de Francisco Iturrioz en la escena 'Etarra' inicio de la grave escalada en la violencia. El asesinato de los tres jóvenes gallegos continua impune.". ABC. 1973ko abenduak 27.

52 EFE. "La emoción de una diputada del PSE-EE logra el consenso de la Cámara vasca para aprobar una iniciativa". EL MUNDO. 2005eko otsailak 3.

53 EFE. Op. Cit.

54 Manuel Murua Alberdiz ari da.

55 PAGOLA, J. "La granja de los horrores de ETA" ABC. 2005eko otsailak 2.

A Coruña 2017ko apirilaren 24an argitaratutakoetan, esan da datu argigarria dela hori, Perez Revilla eta ETako beste kideak desagertuaren eta erailketaren egile izan zirela adierazten duelako.

1/1974 Sumarioak dakar galdeketa dokumentazioa, Jesus Maria Zabartek egindako deklarazioaren aktari dagokion ziurtagiria, hain justu, eta 1974ko maiatzaren 18ko data duena. Galdeketa irailaren 8an, urriaren 1ean, urriaren 3an eta urriaren 22an egin zitzaizkion, Bilbon, Generalísimo Franco ospitale zibilean.

Hau esaten du aktak, hasieran: “minez dago zauriak jasan zituen hankan, baina egoera onean dago egiten zaizkion galdera guztiei erantzuteko, eta prest dago haiei normaltasun osoz erantzuteko”.

148. folioa.- GALDETU ZAIO.– Azaltzeko non dauden martxoan muga igaro eta oraindik ageri ez diren hiru gazte “galziarrak”, eta honako hau adierazi du: Galiziar horiek Hendaiara egin zuten bisitaren ondoren, egunkariak argitaratu zuten ETA erakundeak hil eta desagerrarazi zituela; deklarazio egileak esan du, erakundearen barruan zela horiek argitaratu zirenean, baina esan du ez zekiela ezertxo ere horri buruz eta TOMAS PEREZ REVILLARI horren gainean galdetu zionean, honako hau erantzun ziola: “ZENBAT ETA GUTXIAGO JAKIN HORRI BURUZ, HOBE”,

“Esku ezkerre erabili du deklarazioa izenpetzeko, zaurituta eta igeltsuz estalia baitu eskuinekoa”⁵⁶.

7. *El Mundo* egunkariaren erreportajeak

7.1. A. Rojo, 2001eko ekainak 17: *El crimen más oculto de ETA*

2001. urtean, *El Mundo* egunkariko Crónica astekariak *El crimen más oculto de ETA*⁵⁷ izeneko idatzia argitaratu zuen. Alfonso Rojo kazetari ezaguna izan zen haren egilea. Artikulu horrek osatu du hiru gazte galiziarren desagertuaren gainean orain arte eman den bertsiorik interpretatiboena. Krimena gertatu zen lekuan egonda soilik jakin zitezkeen xehetasunekin deskribatzen du Rojok coruña horiei gertatutakoak. Hala ere, kronikaren egileak ez du informazio horien iturririk zehazten, eta lanaren amaieran soilik egiten ditu informazio horien sorburuen gaineko zenbait iruzkin labur eta lauso. Gertakarietan ustezko partaidetza izan zuen pertsona baten komentarioak, ETako kide ohi batek argitaratutako memoriak eta ETAn infiltratu zen pertsona batek esandakoak baliatu omen zituen.⁵⁸

Artikulu horretan esaten du Tomas Perez Revilla eta beste lau pertsonak nahastu zituztela hiru galziarrak kaleko arropaz jantzitako polizia espainiarrekin. 1974ko martxoaren 24an gertatu zen hori, Donibane Lohizuneko errepede-taberna batean (La Lycorne).

Rojoren esanetan, errefuxiatuak haien zain geratu ziren, parkinean. Leku horretan, botilakada bat eman zioten Humbertori garunean, eta, eskuak lotu ondoren, bi kotxetako maletategietan sartu zituzten. Gazteen Austin autoa zen horietako bat. Aparkaleku horretatik La Sarra etxaldera eramane zituzten, Saint Palais herrian. Torturatu, erail eta lurperatu egin zituzten. Rojo adierazi zuen Perez Revillak tirokatu zituela hiru biktimak garondoan.

Lehen esan dugun moduan, kazetariak ez du bere esanak eta akusazioak bermatzeko iturbururik aipatzen; hala ere, idatziaren atal jakin batean, A. Semprun kazetariak ABC egunkarian argitaratutako artikulua du hizpide eta honako hau esaten du: “Zuzen zebilen funtsezkoan, tabernaren izena eman eta hiltzaileen gainekoak aipatu zituenean”⁵⁹. Hala ere, tabernaren izena ez da orduan emandako bera.

56 Donostiako Plazako Epaitegi Militarraren idazkariak 1/1974 SUMARIOAN egindako deklarazioari dagokion aktaren ziurtagiria.

57 ROJO, A. “El crimen más oculto de ETA”. CRÓNICA (EL MUNDO). 2001eko ekainak 17.

58 “Mikel Lejarza, urteetan ETAn infiltratuta egon zen Lobo mitikoak, bere memorietan adierazten du Perez Revillaren eta Peixotoren arteko elkarrizketa bat entzun zuela, “Iparraldean kamuflaturik zebiltzan” hiru galziarrak hizpide zituztela.

Agur ETA izena du Soares Gamboa damutuaren autobiografiak, eta etakide izandakoak, lan horretan, adierazten du galziaren gorpuak gehitu behar zaizkiola ETaren biktimen zerrenda luzeari, “lurperatuak izan ziren, mendiren batean akaso, garoak bestela baino altuago hazten diren lekuan”. Aipua: ROJO, A. “El crimen más oculto de ETA”. CRÓNICA (EL MUNDO). 2001eko ekainak 17.

59 ROJO, A. Op. Cit.

Erreportajearen aipatzen dira, alde batetik, Irungo komisaldegiko atestatua –hor jarri zuen salaketa Cesareo Rodríguezek, Humberto Fouzen koinatuak, 21 egun geroago–, eta sumarioa bestetik, Donostiako epaitegi batean “hondoratua”. Esaten du familiak ez zuela ezeren berririk eta horrek harriturik zeuzkala, prentsa espainiarrean eta frantziarrean argazkiak argitaratu zirelako. Adierazten du “deigarria” zela sumarioaren laburtasuna eta baliatzen zituen egunkari-zatien ugaritasuna.

Rojok esaten du Bidarteko irteeran gertatu zela dena, orduko Lycorne tabernan (gerora, Pakakolo izena jarri zioten lokalari). Garai hartako jabeak, Jean Pierre Bernateau jaunak, ez zuela ezertxo ere gogoratzen zin egin zion kazetariari: “Aparkalekuan izango zen; barruan ez genuen liskarrik ametitzen”.⁶⁰

Alfonso Rojok adierazi zuen Revilla izan zela krimenaren egile, eta harekin batera Ceferino Arevalo, El Ruso goitizenekoa, Prudencio Sodupe, Pruden goitizenekoa, Jesus de la Fuente Iruretagoyena, Basacarte eta Manuel Murua, El Casero”.⁶¹

Kronika-egileak Logroñoko espetxean topatu zuen Murua. Harekin izan zuten elkarrizketaren berri ematean, Rojok esaten du “gertatutakoak ukatu zituela hasieran”. “Aurrerago, onartu zuen Humbertoren ilobaren eskutitza jaso zuela eta bere osabaren hilotza topatzeko laguntza eskatu ziola, baina, horren berri izanda, Mikel Sueskunek (...) ezer ez esateko aholkatu ziola” kontatzen du El Mundo egunkariko kazetariak.

Manuel Murua hilik dago, eta ezin da informazioa kontrastatu. Hala ere, honako hau ziurtatu digu Coral Rodríguezek 2017ko urriaren 19an, ostegunez, telefono-elkarrizketa batean: “Manuel Murua Alberdiri idatzit nion Logroñoko espetxera, baina ez zidan erantzun”.

Erreportajearen azken zatian, Manuel Muruarekin izandako elkarrizketa laburraren amaiera kontatu zuen Alfonso Rojok:

*“Ez dut galiziarren berririk”, esan zuen Muruak marmarrean. Agintzen dutenei galdetu behar zaie hori. Martini eta Martini artean, eta beti baldintzazko esaldiak erabilia, iradoki zuen, baldin eta bahitu egin baldin bazituzten, hantxe bilurtuko zituztela, aparkalekuan. Eta galdekatu egin izan balituzte, gogorra izango zela, baina ez Guardia Zibilak bezala. Eta amaitzeko, La Serra hondeatu eta haien gorpuzkiak topatzeko aukerarik ba ote dagoen galdetuta, ezetz adierazi zuen, hura oso handia delako. Joan aurretik, inork eskatu gabe, esan zuen lurperatu izan balituzte, ubidetik gertu egingo zutela, lurra bigunagoa den tokian”.*⁶²

7.2. El Mundo, 2005eko ekainak 11: *Los tres gallegos desaparecidos, otro gran misterio de ETA*

Lau urte geroago, Coral Rodríguezek Eusko Legebiltzarrean egindako interbentzioaren ondoren, beste artikulua batzuk argitaratu zituen EL MUNDO egunkariak. Horietako bat 2005eko uztailaren 11n argitaratu zuen.

Egun horretan argitaratutako informazioak ez darama sinadurarik. Madrilen, erredakzioan osatu dela esaten da, eta Alfonso Rojok idatzitakoa errepikatzen da neurri handi batean; hala ere, gazte coruñarrei ustez egin zizkieten torturen gaineko informazioak gaineratzen ditu Artikuluan esaten da Mikel Lejarzak emandako informazioak direla, baina ez da kontrasta daitekeen daturik ematen.

Aurretik argitaratutako kronikek ez bezala, lehen aldiz esaten da Jose Manuel Pagola, Peixoto, izan zela egilea.

Lejarzak “ziurtatu zuen Jose Manuel Pagoagak, Peixotok, kontatu ziola, harro, galiziarren istorioa, torturatu eta hil egin zituztela poliziak zirelako eta horietako bati bihurkin bat sartu ziotela begian”.⁶³

2005eko uztailaren 11ko artikulua horretan bertan, hitzez hitz jasotzen dira Jose Sainz poliziak (Poliziaren buru nagusia Bilbon, 1970 eta 1974 bitartean) idatzitako *Testimonios de un policía español* liburuko pasarte batzuk. Liburu horretan Ceferino Arévalo, El Ruso goitizenekoa, bere neskalagun Paquita Aguirreri bidalitako gutunaren pasarte baten berri ematen da. Hau da, ustez, pasarte horrek esaten duena: “Madrilgo egunkariak irakurtzen baldin badituzu (...) ETA aipatzen dutela ikusiko duzu (...) esaten dute nik hil nituela hiru

60 ROJO, A. Op. Cit.

61 ROJO, A. Op. Cit.

62 ROJO, A. Op. Cit.

63 EL MUNDO. 2005eko uztailak 11.

mutil horiek, polizia espainiarraren txibatoak zirenak (...) nik esango dizut matraka horren atzean dagoen egia: gezurra da mutil horiek hiltzearena, baina jipoi bat ematearena, hori bai”.⁶⁴

Mikel Lejarza, El Lobo⁶⁵ gotizenekoari egindako elkarrizketa bat argitaratu zuen El Mundo egunkariak 2005eko azaroaren 7an.

Infiltratutako agenteak kazetariari esan zion 1974. urtearen amaieran elkarrizketa bat izan zuela Jose Manuel Pagola, Peixoto etakidearekin, eta gazte galiziarren kasuaren gainean “Jose Humberto, Jorge eta Fernando torturatzen eta erailtzen parte hartu zuela aitortu zion Loberi”.

El MUNDO egunkariak horrela idatzi zituen Mikel Lejarzak esandakoak:

“Hendaiaiko hondartzan geunden eta pasieran ari ginela etorri zen gaia hizpidera. Leku bat seinalatuta, hau esan zion (Peixotok): “Hor lurperatu genituen tipo horiek, polizia galiziarrek. Oso urduri jarri nintzen, (Peixoto) harro esaten baitzituen honelakoak: “Horiek marruak kabroi horienak! Bihurkin batez atera genizkien begiak” Tripak nahastu zitzaizkidan. Aurrerago hilotzak lurpetik atera behar izan zituztela esan zuen. Gau batean atera zituzten hondartatik eta beste leku batean lurperatu zituzten.”⁶⁶

Elkarrizketa horretan bertan, Lobok ziurtatzen du elkarrizketan horren berri eman ziela bere nagusiei, baina “oraindik ere neure buruari galdetzen diot zergatik ez ote zidaten kasurik egin...”. Hori esan zion El Mundo egunkariari Lejarzak.

7.3. Dokumentala. “El crimen más oculto de ETA” I eta II. Egilea: El Mundo TV. Emisioa: A3 telebista-katea

Urte horretan bertan, 2005ean, EL MUNDO egunkariak eta Antena 3 TV telebista-kateak telebistarako bi kazetaritza-lan sentsazionalista argitaratu zituzten. Hiru coruñarren desagerpena kontatu zuten dokumental horretan, berriro ere “El crimen más oculto de ETA” izenburua erabilita. Urte horretako azaroaren 7an eta 24an emititu zituzten, eta gertakariak berritzearekin batera, “gertakarietatik gertu izandako” pertsona elkarrizketatu zituzten. El Mundo komunikabideko kameraren aurrean izan ziren Javier Zumalde eta Julen Madariaga etakide ohiak; Jose Amedo polizia ohi eta GAL-eko kide izandakoa; CESID erakundeak Euskadin izandako ordezkaria, Angel Ugarte; ETA erakundearen infiltratu eta CESID erakundeko kide Mikel Lejarza, “Lobo”; La Razón egunkariko Alfredo Semprun (semea) eta Matias Antolin kazetariak; Humberto Fouzen iloba eta arreba, Coral Rodriguez eta Isabel Fouz, hurrenez hurren; eta beste pertsona batzuk.

7.3.1. “El crimen más oculto de ETA” 1. zatia, 2005eko azaroak 7

Erreportajearen Javier Ugarte izan zen lehen elkarrizketatua, CESID erakundeko agente ohi⁶⁷.

Ugartek hau esaten du: “Frantziako konfidenteen bidez iritsi zitzaigun informazio guztia”. Horrez gainera, azaltzen du poliziak Segurako Eguzkiza baserria miatu zuela 1974ko ekainean, eta han Ceferinok ustez Paquita Aguirreri idatzi zion eskutitz bat aurkitu zuela. (0:33’ 40”)

Erreportajeak aurrera egitean, El Mundoko erreportariak Luis Ceitegui elkarrizketatzen dute, 70ko hamarkadan polizia-inspektore izandakoa Bilbon, eta konfirmatzen du eskutitz hori aurkitu zela erregistro horretan. Arevalok Aguirreri idatzitako eskutitzaren edukia jakinarazten du Ceiteguik, oroimen-ariketa bat eginda El Mundoko erreportariarentzat:

“Egunkari batzuetan, ABC eta horrelakoetan irakurri duzuna, gazte galiziar edo espainiar batzuk hil ditugunarena, benetan esaten dizut atsekabetu egin naizela, guk, eta nire hitza ematen dizut, ez ditugu hil, jipoi bat baino ez genien eman, eta ez dakigu beste ezer gainerakoena”. (34’20”-34’45”)

64 “Los tres gallegos desaparecidos, otro gran misterio de ETA”. EL MUNDO. 2005eko uztaillak 11.

65 EL MUNDO, 2005eko azaroak 7. Elkarrizketa Mikel Lejarza, “Lobo” agente infiltratuari. “Oso urduri jarri nintzen ‘Peixotok’ esan zidanean begiak bihurkin batez atera zizkietela”

66 EL MUNDO, Op.Cit.

67 http://www.youtube.com/watch?v=PhUE_6SEGYg

Ceitegui gaineratzen du, ustezko jipoiaren ondoren, Perez Revillak, Peixotok eta “ez dakit beste norbaitek hartu ote zituen” (hau da, beste nonbaitera eraman ote zituzten hiru gazte galiziarrek).

El Mundoren ustez, eskutitz horrek argi eta garbi frogatzen du ETAko kideak izan zirela ekintza horien egile. Zehazten du, hala ere, polizia ez zuela Paquita Agirre galdekatu.

Beasainen aurkitu zuten Paquita El Mundoko kazetariak, eta kamera ezkutu bat erabilita, eskutitzaren gaineko galderak egin zituzten. Ukatu egiten du eskutitz hori jaso zuenik. Baina aurrerago esaten du Ceferino Arevalok gutun bat bidali ziola eta berak bueltatu egin zuela, ez zuelako “ezertxo ere” jakin nahi.

Dokumentalean Matias Antolin kazetariak hitz egiten du, besteak beste. Hark idatzi zuen “*Agur, ETA. El adiós a las armas de un militante histórico (1997)*” lana, ETAko kide izandako Soares de Gamboaren biografia. Kazetari horren esanek babestu egiten dute gertakarien gaineko hipotesi nagusia: “Soares de Gamboak esan zidan poliziekin nahastu zituztela edo arrazoi hori ematen zutela, hiru mutil horien heriotza justifikatzeko koartada itsusi moduan. Hark uste du mendian daudela lurperaturik inguru hartan, Frantziaren hegoaldean, Donibane Lohizunen, oso gertu, baina ez du inoiz ere izan datu konkreturik”.

Mikel Lejarzak, Lobok, erreportaje horretan ematen duen lekukotza ez dator bat pertsona horrek El Mundo egunkariari ordura arte eman zizkion elkarrizketetan eman zuen bertsioarekin. Hau esaten du infiltratuak:

“Kontatu zidatenean, oilo-ipurdiko azala jarri zitzaidan benetan. Galiziar batzuk harrapatu zituzten hor polizia zirelakoan, hil egin zituzten, oso modu itsusian gainera, eta Peixoto zegoen horien artean. Benetan gogorra da izan zuten elkarrizketaren berri ematea. Momentu batean, hau esan zuen batek: Gogoratzen al zara begiak bihurkin batean atera genienekoa? Zer-nolako oihuak egiten zituzten. Pentsa nola senti zaitezkeen hori entzun ondoren...” (12’56”)

Mikel Lejarzak, El Mundo egunkariak 2005eko azaroaren 7an argitaratu zuen elkarrizketan, Peixotorekin izan zuen elkarrizketaren berri ematen du, elkarrizketa horretan esan omen baitzion torturatu, erail eta Hendaia hondartzan lurperatu zituztela. Entzun zuen elkarrizketa bat kontatzen du telebistako erreportajearen, eta ez du esaten gorpuak Hendaia hondartzan lurperatu zituztenik, gerora atera zituztenik edo hiltzak leku seguruago batera eraman zituztenik.

Dokumentaleko beste elkarrizketatuetako bat Jose Amedo izan zen. GAL taldeko kide izandakoak esaten du polizia egin zituela ETA hiru gazte galiziarrek desagerrarazi izanaren erantzule zela salatzen zuten panfletoen egilea; zehazki, Madrilgo Segurtasun Zuzendaritza Nagusiak egin zituela adierazten du. “Polizia berak egin eta banatu zituen”. (32’28”)

Ikus-entzuneko erreportajearen beste pasarte batean esaten du inplikatu guztiak galdekatzeko eskatu zuela fiskalak: Perez Revilla, Ceferino Arevalo, Manuel Murua, Prudencio Sodupe, Jesus de la Fuente eta Sabino Achalandabaso. Epaileak, ordea, erabaki zuen ez zela beharrezkoa horiek galdekatzeko. Dokumentalean honako hau esaten da 1/1974 sumarioaren gainean: “oso laburra da, 148 folio ditu, Donostiako 3. Epaitegian egin da eta prentsa-artikuluek osatua dago gehien-gehienean”.

Aurrerago, dokumentalak beste ildo bati heltzen dio, eta azaltzen du informatzaile anonimo batek dei bat egin zuela EL MUNDO egunkariko erredakziora, eta 70ko hamarkadan ETAtik oso gertu egondako pertsona bat zela esan ondoren, Humberto, Jorge eta Fernandoren gorpuak leudekeen tokiaren berri eman zuen. Herri Batasunako agintari Telesforo Monzónen jabetzako finka bat zen”. Ondoren, zehaztu zuten tokiaren mapa bat eman ziela konfidenteak.

Telebistako erreportajearen bereizi egiten dira errefuxiatuen taldeak La Tupiña tabernan –eta ez, ordura arte esan zen moduan, La Lycorne tabernan– gazte galiziarrei eman zieten jipoiak, alde batetik, eta gerorako unea, Peixotok eta Revillak beste finka batera eraman zituztenekoa. Bertsio horren arabera, finka horretan torturatu, hil eta desagerrarazi zituzten gazteak. Bilboko komisaldegiko inspektore ohi Luis Ceitegui eta Mikel Lejarza agente infiltratuak uste dute bi horiek egin zituztela krimenak.

Erreportajeak, amaieran, esaten du hobi komun baten modukoa zela Monzonena izandako finka, hiru galiziarrez gain, han lurperatuta bailegoke Pertur.

Horrez gainera, dokumentalak esaten du Angeluko hondartzan aurkitu ziren bi polizien kasuan parte hartu zuela Perez Revillak (1976ko apirilean desagertu ziren bi polizia horiek). Horrenbestez, El Mundo TV komunikabideak emandako bertsioaren arabera, “hiru kasu horien arteko lotura” bat egongo litzateke.

7.3.2. “El crimen más oculto de ETA” 2. zatia, 2005eko azaroak 24

Konfidenteak El Mundoko erredakziora egindako telefono-deian ematen duen informazioa da erreportajearen bigarren zatiaren oinarria. Gorpuak non egon daitezkeen esan zion informatzaileak komunikabide horri, eta mapa bat ere helarazi zion. Informazio horren arabera, Telesforo Monzonena izandako finka bat da. Konfidenteak esaten die, era berean, leku horretan egon daitezkeela lurperatuta Perturren eta Naparraren gorpuak ere. El Mundok ikerketa-operazio bat abiatu zuen leku hartan, baina ez zuen emaitzarik eman⁶⁸.

Erreportajearen bigarren zatian, elkarrizketak egin zitzaizkien ETako militante izandako pertsona batzuei, Teo Uriarte, Jesus Garcia Garde eta Gorka Landabururi; Jose Luis Cervero guardia zibilari; eta Cambio 16 agerkariko Jose Duaz Herrera kazetariari. Era berean, telebistan eman zen aurreko dokumental-zatian parte hartu zuten pertsona batzuk parte hartu zuten bigarren zatian ere: Javier Zumalde eta Julen Madariaga etakide ohiak; Jose Amedok, polizia ohia eta GAL-eko kide izandakoa; Angel Ugartek, CESID erakundeak garai hartan Euskadin izandako ordezkaria; Mikel Lejarzak, “Lobo” goitizenekoa, CESID erakundeko kidea, ETA erakundean infiltratua; Alfredo Semprunek (semeak), La Razón egunkariko kazetaria; eta Coral Rodriguezek, Humberto Fouzen ilobak.

Kamera ezkutuak baliatuta, erreportariak galderak egin zizkieten ETako kide izandako Juan Cruz Unzurrunzagari eta, kazetariaren informazioen arabera, gertakarietan parte hartu zuten bi pertsonari, Manuel Muruari eta Ceferino Arevalori. Erreportajearen hau esaten da Muruari buruz: “galiziarrekin izandako liskarrean parte hartu zuen, datu guztien adierazten dutenaren arabera”. Kazetaritza-lan horretan, honako hau esaten da Arevalori buruz: “gertakarietan parte hartu izana aitortu zuen etarra bakarria izan zen garai hartan. Bere neskalagun Paquita Aguirreri bidalitako eskutitz batean egin zuen”.

Logroñoeko espetxean Coral Rodriguezen eskutitz bat edo bi jaso zituela aitortzen du Muruak. Eskutitzei zergatik ez zien erantzun galdetzen diote, eta Muruak erantzuten du hori aholkatu ziotela –Rafael Larreina eta Carlos Garaikoetxearekin hitz egin zuela esaten du.

Arevalorengana jo zutenean, bere etxeko atean erantzun zien kazetariaren galderari. Kamera ezkutu bat zeraman kazetariak. Hau esaten die: “egun horretan Ceferino ez zegoen hemen, beraz, ezin du hark izan, eta gainera ez zegoen ez ETAn sartuta, eta ez ezer. Ez da Donibane Lohizunen bizi izan. Hori hasteko”.

Telebistako “El crimen más oculto de ETA” erreportajearen bigarren zatia amaitzeko, gertatu zena ezkutatzen jarraitzea egozten die Muruari eta Arevalori: “Hor darrai isiltasunaren hormak. Arevalok eta Muruak ez dute esan, oraindik, dakiten dena”.

Beste kontu batzuei helduta, nabarmendu behar da Diego CARCERO jeneralak “*Sáenz de Santa María, el general que cambió de bando*” liburua argitaratu zuela 2004. urtean. Liburu horren 95. orrialdean, esaten du hiru langileak “poliziaren konfidenteak” zirela, eta “zerga iraultzailea” biltzen zutenak identifikatzea zela beraien lana. Poliziarentzat lan egiten zutela esaten du, eta horrek, ikerketa-lanetan, gatatzak sortu zituela Guardia Zibilarekin Gaineratzen du kasua itxi zutela “frantziarrak haserretu egin zitezkeelako, jendea bidali guelako muturrak beren lurrean sartzera”.⁶⁹

Telebistan “El crimen más oculto de ETA” erreportajea eman baino egun batzuk lehenago, 2005eko azaroaren 4an, Aguilera eta Mirallosek, CANAL MUNDO PRODUCCIONES AUDIOVISUALES katearen izenean, salaketa bat jarri zuten kazetaritza-lan horretan bildu zituzten datuetan oinarrituta, eta honako hau eskatu zuten salketan: “*hemen azaltzen diren gertakariak behin betiko argitzeko jardunak egitea*”.

EL MUNDO egunkariaren informazio eta jarduera horien ondorioz eta Coral Rodriguez legebiltzarkideak egindako lanaren harian, Donostiako fiskalak kasua berriro irekitzeko eskatu zuen “Auzitegi Nazionalaren alde inibitzeko eskaera egiteko asmoarekin.”⁷⁰

Hilabete batzuk geroago, kasua, 1975. urteaz geroztik artxibatuta zegoena, berriro irekitzea erabaki zuen Auzitegi Nazionalak.

2006. urtearen hasieran, ikerketa-lanen egoeraren berri jakin nahi izan zuen Coral Rodriguezek, eta Andreu epailearekin hitz egitea lortu zuen, baina ez zion informaziorik eman, poliziaren txostenen zain zeudelako⁷¹.

68 <https://www.youtube.com/watch?v=pvnjh7QOfz0>

69 CARCERO, Diego. “*Sáenz de Santa María, el general que cambió de bando*”

70 EFE. “El fiscal de San Sebastián pide que se investigue el paradero de tres presuntas víctimas de ETA en 1973”. EL MUNDO. 2005eko azaroak 9.

71 ROMERO, S. “El crimen más oscuro de ETA”. LA OPINIÓN A CORUÑA. 2017ko apirilak 24.



Azterketa juridikoa

1. Sarrera

Gertakarien kontakizuna egin ondoren, auziaren alderdi juridikoak aztertuko ditugu ondorengo orrialdeetan. Azalpena errazteko, hiru ataletan banatuko dugu analisia.

Gertakarien gaineko hipotesi sinesgarrienak dio Frantziako lurraldean gertatu zirela, eta, hori jakinda, labor aztertuko dugu zer jurisdikziok duen Jose Humberto Fouz Escobero, Jorge Juan Garcia Carneiro eta Fernando Quiroga Veiga gazteen desagertzea epaitzeko eskumena.

Alderdi hori aztertu ondoren, gertakariak kontatzeko kapituluak erabili dugun irizpide kronologiko bera erabiliko dugu sumarioko dokumentazioaren alderdi nagusien berri emateko; izan ere, dokumentazio horretara iristeko modua izan du EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen katedrak. Lanaren zati hori nahiko lehorra da irakurtzeko, baina xehetasunez azaldu nahi ditu alderdi nagusi horien nondik norakoak, sumarioaren sintesi egoki bat eskaini eta dokumentu original osoa irakurtzeko premiarik izan ez dadin.

Hurrengo puntuan, Donostiako 3. epaitegiak auzi horretan egin zuen instrukzioa baloratuko da, prozesuak izan behar dituen bermeen estandarrek ezarritako parametroen arabera egin ote zen aztertzeko. Izan ere, egin ziren eginbideen xehetasunen berri izan ondoren, egokia da, eta ezinbestekoa dela ere esan daiteke, agintariak garai hartan egin zuten jarduna hona ekartzea eta aztertzea. Egia da auzi honetan delitu bat egin dela eta ez dela ziurra hura erabat argituko denik edo haren erantzule izan ziren guztiei zigor bat ezarriko zaienik, baina gertaera larriak gertatu dira kasu honetan: hiru gizaki desagertu dira arrastorik utzi gabe, eta urraturik geratu dira haien bizitzak eta beren familiaena. Hori horrela izanda, gertatutakoa argitzeko bultzada eta ahalegin serioa, egiazkoa eta saiaturia eskatu behar zaie agintariei, baina kasu honetan ez da hori horrela izan denaren zantzurik ageri.

Auziari buruzko atal juridikoan, aurreko txostenetan azaldu diren alderdi teknikoak eta juridikoak ez errepikatzen ahalegina egin da⁷², baina kontuan izan behar da, alde horretatik, indar eta balio osoa dutela kasu honetan: delituen preskripzioa da kontuan hartzeko alderdietako bat⁷³ eta desagertutako erantzuleak Amnistiaren Legearen esparruan sartzen diren ala ez erabakitzea⁷⁴, baldin eta ekintzak arrazoi politikoengatik egindakoak izan baldin baziren.

2. Jurisdikzio eskuduna

Jakina da lurraldetasuna dela jurisdikzio eskuduna zehazteko lehen irizpidea, hau da, gertakariak non gertatu diren begiratzen da, lurralde horretako estatuaren auzitegiek izango baitute delitua epaitzeko eskuduntza.

72 Ikusi *Pertur* kasuari buruzko txostena: egoera eguneratua, 2017, 32. or.

73 Erantzukizun penal azkentzeko arrazoiak bat da delituaren preskripzioa. Zigorretako pretentsioa bertan behera geratzen da, baldin eta egindako arau-hausteari dagokion preskripzio-epea gainditzen baldin bada. Delituaren larritasunaren arabera finkatzen da epe hori. Hiru gazteak desagertu ziren unean, delitu guztiek zituzten araututa beren preskripzio-epeak (1963. urteko Zigor Kodearen 112.6., 113. eta 114. artikuluek arautzen zituzten); hala ere, horrek ez du esan nahi gaia agortuta dagoenik (Auzitegi Gorenak, otsailaren 27ko 101/2012 sententzia, frankismoko krimenak agortutzat deklaratu ondoren, interpretazio horren alde egiten duela dirudien arren), ezta delitua ezinbestean preskribatuta dagoenik ere, hura gertatu zenetik hamarkada batzuk igaro direlako. Izan ere, preskripzio-epearen zenbaketa has-teko uneari begiratu behar zaio beti. Jakina da, alde horretatik, tipo penalaren nolakoak erabakitzen duela zer une izango den hori. Hori horrela, delitua aldiuneko baldin bada, hau da, emaitza gertatzen den unean burutzen baldin bada, une horretan bertan hasiko da kontatzen preskripzio-epea; delitu iraunkorretan, berriz, egoera antijuridikoak denboran irauten du eta tipoa indarrean izango da egoera hori amaitzen ez den bitartean, beraz, egoera antijuridiko hori amaitzen den unean bertan hasiko da kontatzen preskripzio-epea.

74 Urriaren 15eko 46/1977 Legeak, Amnistiari buruzkoak, 1. artikuluan arautzen du bi osagai hauek gertatu behar direla legearen eremuan sartzeko: alde batetik, eta irizpide objektibo moduan, delituek asmo politikoz egindakoak izan behar dute amnistia eskuratzeko; eta, bestetik, denborazko irizpide moduan, mila bederatzehun eta hirurogeita sei abenduaren hamabosta baino lehenago egindakoak izan behar dute. Hori guztia aztertzen ari garen kasura ekarri gero, agerikoa da bete egiten dela osagai objektiboa, desagertzea ETAko kideei egotzeko baldin bada, argi eta garbi frogatuko bailitzateke ekintzaren asmo politikoa. Denborazko baldintzarri begiraturik, Auzitegi Gorena-ren doktrinak dio ekintzak gertatu diren uneari erreparatu behar zaiola. Aintzat hartzen baldin badugu ekintzak 1973. Urtean gertatu zirela, lege horren denborazko eremuan sartuko litzateke, eta ezingo litzateke horien aurkako akzio penalik abiatu. Hala ere, aztertzea litzateke Amnistia Legearen aplikazioa blokeatu ote daitekeen kasu honetan, delituak irauten duela eta, ondorioz, haren burutzean jarraipen bat dagoela arrazoitu baitaiteke, egoera antijuridikoa amaitzen ez den bitartean.

Logika hori erabiltzen baldin badugu egoera honetan, jurisdikzio frantziarra litzateke auzia aztertu behar zuen lehena, ekintzak estatu horren lurraldean gertatu zirela baitirudi. Hala ere, txosten honek egiten duen kontakizunean irakur daitekeen moduan, polizia ikertu zituen, herrialde horretan, hiru gazteen desagertuaren nondik norakoak, herrialdeko hartako epaitegietara iritsi gabe.

Frantziako agintaritzak ez zuen gaia aztertu, baina Espainian egin zen eginbide judizialik, biktimen familiek salaketa bat jarri baitzuten hiru gazteak desagertu eta egun gutxi batzuetara. Jurisdikzio frantziarra zen, lurraldetasun-irizpideari begiratuta, auzia aztertzeko lehen jurisdikzioa, baina jurisdikzio horretara iritsi ez zenez, jurisdikzio espainiarrak⁷⁵ abiatu zuen, hasierako une hartan, auziari zegokion prozedura penala. Donostiako 3. Instrukzio Epaitegiak abiatu zuen prozedura hori.

Kasu honen inkognita handietako bat da ez dela jakina nork desagerrarazi zituen gazte galiziarrek, eta alderdi horrek badu eraginik auzia aztertzeko jurisdikzio eskuduna zehazteko, baldin eta onartzen baldin bada auzitegi espainiarrek gertakari horiek epaitzeko eskumena dutela. Hala ere, ezin izan da, oraindik, ezer ziurrik jakin eta ez da “egia judizialik” iritsi. Sumarioaren instrukzioa egin denean, ordea, agerikoa da balizko bi egoera gerta zitezkeela, *a priori* izaeraz. Alde batetik, ETAko kide zen pertsonaren batek edo batzuk egin zitzaizketen ekintza horiek, eta talde edo erakunde kriminaleko kide izanda, Espainiako auzitegiak lirateke desagertetako epaitzeko instantzia, eta zehazki jurisdikzio militarreko auzitegiak⁷⁶, eta horien erreferentzia-zako araubide juridiko-penala⁷⁷ Justizia Militarren 1945eko kodea litzateke⁷⁸. Eta, bestalde, hipotesi horren ifrentzuan, gerta zitezkeen erakunde kriminaleko loturarik gabeko pertsonen desagerrarazi izana hiru galiziarrek. Hori horrela izanez gero, jurisdikzio arruntak aztertu beharko luke auzia, eta, ondorioz, delitua egin zen unean indarrean zen kode penala erabili beharko litzateke gertakariaren kalifikazio juridikoa zehazteko: 1963ko Kode Penal⁷⁹.

3. Sumarioaren urrats nagusiak (1973-1975)

Sumarioa berraztertu zen hurrengo aldian, abiatutako akzio judizial nagusien dokumentuak aztertu ziren ordena kronologikoan, Irungo epaitegiak 1973an abiatu zituen aurretzeko eginbideetatik hasi, eta 1975eko urrian sumarioa behin-behinean artxibatu zen arte.

Sumarioan, adierazitako dokumentu horiez gain, garai hartako prentsa-artikuluen zatiak jasotzen dira (lan honen lehen zatian eman dugu horien berri), eta baita itxura batean Irunen eta Donostian banatu ziren “panfletoak” ere, hiru galiziarrek ETAko kideek desagerraraziak eta erailak izan zirela salatzen zutenak.

75 Jurisdikzioa esleitzeko, Botere Judizialari buruzko 1870ko Lege Organikoaren 339. artikuluari begiratu zitzaion, eta, zehazki, ekintzak gertatu ziren unean indarrean zuen testuari.

76 Alde horretatik, zehaztu behar da “ekintza terroristak” bi jurisdikziotan aztertzekoak zirela: arruntean eta militarrean. Ekintzaren subjektu aktiboari begiratuta erabakitzen zen bietako zenetan aztertuko ziren. Hori horrela, jurisdikzio militarrek aztertzekoak ziren *inoizka edo banaka egindako ekintza terroristak izan gabe, denboran irauten duten erakundeek edo taldeek egindakoak*; eta jurisdikzio arruntak aztertzekoak, berriz, *banaka egindako ekintza terroristak edo talde antolamendu eta egonkortasunik gabekoak egindakoak*. Hori arautzen zuten, hurrenez hurren, azaroaren 15eko 42 eta 44/1971 legeak. Gai horretan sakontzeko, ikusi LAMARCA C., “Capítulo segundo: tratamiento jurídico del Terrorismo en el Derecho Penal Español. Aproximación histórica”, *Tratamiento jurídico del terrorismo*, Justizia Ministerioko argitalpen-zentroa, Madril, 1985, 147-153 or.

77 Aukera bakarra dago delitua egin zen unean indarrean zenez beste lege penal bat erabiltzeko: lege hori gerora erreformatua edo aldatua izan baldin bada eta, aldi berean, aldatetaren edo erreformaren ondorengo arau indarreko hura baino onargarria baldin bada.

78 Delituak egin zirenean ETAko pertsona bati edo gehiagori egotzi izan baldin bazitzairen horiek egin izana, egindako horiek terrorismo-delituaren tipifikazioa jaso zezaketzen, Justizia Militarreko Kodearen 294. artikuluko bis. b) artikuluari erreparatuta (azaroaren 15eko 42/1971 legeak sartu zuen artikulua hori). Gertatutakoak gaur egun epaituz gero, beste lege bat erabiliko litzateke, 1995eko Kode Penalaren bertsio originala, bitarteko lege penal onargarria den aldetik. Hori horrela, delitua ETAko kideren batek edo batzuek egindakoa dela frogatzen baldin bada, kode horren 572.1.3. artikulua tipifikatutako terrorismo-delitua beteko litzateke, kode horren beraren 571. artikulua arautzen duenarekin harremanean. Horrekin batera, Espainian baliatzen den jurisprudentzia beteko litzateke, eta erakunde terroristako kide izatearen delitua erantsiko litzateke, Kode Penalaren 516. artikuluan arautua.

79 Kode horren 483. artikulua arautzen duenari erreparatuta, legez kanpoko atxiloketaren delitua izango litzateke, eta delitu horren larriagorri izango litzateke atxilotutako pertsonaren berririk ez ematea. Ikus daitekeen moduan, gertakariaren kalifikazio hori ez da Donostiako 3. Instrukzio Epaitegiak bere garaian instrukzio-fasean egin zen bera; izan ere, ekintza horiek homizidio, erailketa eta lapurretako delituak izan zitezkeela adierazi baitzuen. Ekintza horiek gaur egun epaituko baldin balira, legezketasun-printzipioa bete beharko litzateke eta gerora emandako lege penal onargarriena izango litzateke betetzeko, hau da, 1995eko Kode Penalaren jatorrizko bertsioa. Zehazki, legez kanpoko atxiloketaren delitua izango litzateke, atxilo hartutako berri eman gabekoa, eta kode horren 166. artikulua arautua.

3.1. 1973. urtea

Prozedura 1973ko martxoaren 26an abiatu zen, Cesareo Ramirez Ponte jaunak, Jose Humberto Fouzen koinatuak, hiru gazteen desagerpena salatu zuenean Guardia Zibilaren Irungo kuartelean.

Irungo poliziak atestatu bat egin zuen Jose Cesareo Ramirezek egin zuen salaketan oinarrituta, eta maiatzaren 5ean zabaldu zen sumarioan sartu zen, Gonzalez Najera epaileak Donostiako 3. Instrukzio Epaitegian egin zituen aurretiazko eginbideekin batera.

Salatzailearen eta hiru gazteen datuez gain, Fouzen koinatuaren deklarazioa jasotzen da:

(...) "Austin 1.300 markako auto zuri bat zerabilen, C-2143-B matrikulakoa. Autoaren jabeak, Fouz Escobero, gidatzen zuen, eta haiek esandakoaren arabera, Hendaiara edo Donibane Lohizunera ziren joatekoak, pelikula bat ikustera. Gaueko hamarrak aldera ziren itzultzekoak" (...) Salaketa-egileak hainbat gestio egin ditu eta desagertuen argazkiak eta iragarkiak argitaratu ditu Espainiako eta Frantziako prentsan, baina denbora igaro da haien eta zerabilten autoaren berririk izan gabe" (...)

(...) "Hilaren 24. eguneko 16:30ean abiatu ziren, eta Ramirez Ponte "Decoexsan" utzi ondoren, ez da hiru horien berririk izan geroztik" (...)

"Hiru gazteen desagerpenaren berri eman zitzaizen Segurtasun Zuzendaritza Nagusiari eta Frantziako agintariei, horiek bilatu eta non zeuden jakiteko, baina orain arte egindako gestioek ez dute emaitzarik izan".

(...) "Bidasoako Itsas Komandantzia Frantziarrak, hiru gazte horien autoak "Kantauri itsasoko ertzean" -Frantzian sarturik, Hendaiako errepedetik gertuko eremuan- istripu bat izan eta itsasora erori izan zitekeelakoan, miaketak egin ditu itsasertz horretan, baina ez dituzte aurkitu." (...).

Hurrengo data aipagarria 1973. urteko maiatzaren 5a da; izan ere, Gonzalez Najera epaile-magistratuak probidentzia bat igorri zion Irungo polizia-komisaldegiari, eta, probidentzia horren bidez, hiru gazte galiziarak non zeuden jakiteko gestioak abiatzeko agindu zuen.

Sumarioaren dokumentazioak adierazten du urte horretako maiatzaren 15ean Gonzalez Najera instrukzio-epailearengana jo zuela Irungo Segurtasun Zuzendaritza Nagusiak, hiru coruñarrak topatzeko gestioek emaitzarik ez zutelari jakinarazteko. Bilaketak egin zituzten "bai polizia frantziarrak, bai ondoko nazioko Jendarmeriak eta Itsas Komandantziak. (...) Frantziako errepede nagusietan eta bigarren mailakoetan begiratuta, Kantauri itsasoko ertz guztia miatu da, istripuren bat izan zuten eta itsasora erori ote ziren ikusteko, baina oraingoz ez da pertsona horien eta beraien autoaren arrastorik edo seinalerik topatu".

Hiru egun soilik igaro ondoren, maiatzaren 28an, aurretiazko eginbideak behin-behinean largesteko auto bat eman zuen, "gertatutakoen egile ezagunik ez zegoelako".

3.2. 1974. urtea

Sumarioak, 1974. urtean, urtarrilaren 7an eman zuen lehen urrats garrantzitsua, familiak homizidio, erailketa eta lapurretako delituen gaineko kereila bat jarri baitzuen Tomas Perez Revillaren aurka eta ekintza kriminalen egilearen edo egileen aurka.

Sumarioak honela ematen du gertakarien berri:

"1973ko martxoaren 23an, Fouzek, Quirogak eta Garciak festa-egun baterako plana egin zuten ondoko herri frantziar zenbaitetan, "El último Tango" filma ikusteko asmoarekin. Ramirezen ama gonbidatu zuten, semearen etxean egun batzuk igarotzera joana zelako, baina ezin zuela adierazi zuen hark (...) Goizean, Quirogak, pasaportetik ez zuenez, Irungo Mugen Agintaritzan 48 ordutarako muga-baimen bat lortzeko eskatu zion lan egiten zuen enpresako Maria Pilar Campos administrariari."

"Bazkaldu ondoren, eta Ramirezen amari berriro eskaintza egin ondoren, Irungo Castilla tabernara joan ziren Fouz bera, Quiroga eta Garcia, kafe batzuk edan eta kartetara jolasteko. Jarduera horiek amaituta, laurak aldera, Austinera igo ziren eta, ohikoak zituzten txantxen artean, Fouz, Quiroga eta Garcia mugarantz abiatu ziren, Ramirez haren Renfeko lantokian utzi ondoren. Orduz geroztik, ez da berriro ere haien berririk izan". (...)

“Zurumurrurru arraroak entzuten hasi ziren. (...) Esan zen Austin 1300 autoak, euskal eta frantziar lurren arteko mugaldean gutxi ikusten zen markakoa izaki, Z-0978-B matrikula zeramala eta marka eta modelo bereko auto baten dokumentazioarekin zebilela errepideetan, eta dokumentazioa lapurtu ziotela haren jabeari, Miarrizeko Castillo zinemaren ondoan aparkatuta zuenean. Ibilgailua beste matrikula batekin agertu zenean, gertaeren interpretazio berriak osatu eta beste ikerketa batzuk egin ziren, baina ezin izan zen aurrera egin ikerketa horiekin, ibilgailua ekainean desegin zutela jakin baitzen”. (...)

(Kereilako orrialde bat falta da)

(...) “Irainei erantzun zioten Fouzek, Quirogak eta Garciak, baina aurrean zenbat pertsona zituzten eta nor ziren jakin gabe, ziur asko. Liskar bat abiatu zen, eta Fouzek botilakada bat jaso zuen buruan. Horren ondorioz, garun-masa atera zitzaion eta hil egin zen. (...) Taldeko kideek Saint Palais herriko etxalde batera joatera derrigortu zituzten Fernando eta Jorge; bien bitartean, Fouzen gorpua desagerrarazi zuten, ‘Dragon’ izena eta BA 1694 matrikula zuen itsasontziaren bidez”.

(...) “Gertaera larri horrekin urdurituta, Quiroga eta Garcia hiltzea erabaki zuten, arrastorik ez uzteko. Tomas Perez Revilla erabaki zuen gazteak hiltzea eta pertsona horrek berak hil zituen; ondoren, etxaldean lurperatu zituzten”.

Eginbide hauek burutzea eskatu zen kereilan:

- Honako lekuko hauen deklarazioa: Jose Cesareo Ramirez Ponte; Alfredo Semprun, bere informazioen iturrien berri emateko eskatuta; Victor Maillo Fernandez, “Traffic SA” enpresako Trafiko Departamentuko kidea; Carlos Llanos Saenz, aduanetako agentea eta Fernando Quirogaren nagusia; Maria Pilar Campos Gascon, Fernandoren lankidea eta muga igarotzeko baimena eskatu zuena Fernandorentzat; Rosa Pita Aradas, Jorge Juan Garcia Carneiroren neskalaguna; eta Oswaldo Aldave, autoen salmentarako enpresa baten kidea, Humbertok enpresa horretan eskuratu baitzuen autoa.
- Seguritasun Zuzendaritza Nagusia: zuzendaritza horren artxiboek hiru galiziarren heriotzaren inguruan zuten informazioa.
- Tabernaren izena.
- Fouzen, eta Fernandoren eta Jorgeren heriotzen egilea.
- Austin C-2143-B autoari buruzko informazioa eta Z-0978-B matrikula ere erabili ote duen.
- Z-0978-B matrikula zuen autoaren dokumentazioaren lapurretari buruzko informazioa.
- ‘Dragon’ itsasontziari buruzko informazioa.
- Ramirez Ponteren pasaportearen desagertuari eta hirugarren pertsonen horrekin egindako erabileraren gaineko informazioa.
- Desagertuari buruzko datuak zekartzaten panfletoei buruzko informazioa eta informazio horien jatorria.
- Fernando eta Jorge Juan lurperatu zituen lekuari buruzko informazioa.
- Honako hauek hiru gazte galiziarren heriotza izandako parte-hartzeari buruzko informazioa: Manuel Murua Alberdi, “El Casero”; Ceferino Arevalo Imaz, “El Ruso”; Jesus de la Fuente Iruetagoiena, “Basacarte”; Prudencio Sudupe Azcune, “Pruden”; Sabino Achalandabaso Barandica, “Sabin”; eta Tomas Perez Revilla, “Tomas” edo “Hueso”⁸⁰.
- Mugetako agintaritari informazioa eskatzea Fernando Quirogari emandako 48 ordurako igarobide baimena: baimena eskatu izanaren ziurtagiria eta, horrela araututa dagoen arren, baimena itzuleran ez zela entregatu adierazten duen ziurtagiria.
- Donibane Lohizunen (Frantzia) hiru espainiarren heriotza eragin zuten gertakarien gaineko ikerketa judicial bat abiarazteko eskatzea agintari judicial frantziarrei.

Eginbide horiek guztiak eskatu ondoren, erruztatuak berehala atxilotu eta prozesatzeko erabakia hartzeko erregutzen da.

80 Sei pertsona horien izen-abizenekin batera, NANeko datuak ematen dira, hala nola jaiotze-data, aitaren eta amaren izena eta helbidea.

Kereilan LEAL ESPAÑOL delakoaren eskutitza barneratzeko eskatu zen 1974ko urtarrilaren 15ean. LEAL ESPAÑOL delako batek izenpetutako gutun bat da, eta Fouz, Garcia eta Quiroga jaunei zuzenduta dago. Donostiako Casa de Galician jaso zuten. Urtarrilaren 5eko zigilu-marka du.

Sinatzailearen lagun frantziar batek, IGNACE ROZE izenekoak, kontatutakoaren berri ematen du gutunak. Ingalaterrako RAMSGATE abadetxeko beneditarra zen hura.

Iturri horren arabera, Ramsgate hiriko St. Gregory's College eskolako ikasle espainiar batzuek, igaro berri zen udan, ETAk Frantzia hegoaldean polizia espainiarreko hiru inspektore "garbitu" zituela esaten entzun zioten Elias Jauregui.

Sinatzaile anonimoak ziurtatzen du Elias Jauregui ETAko hiltzailearen ezkutalekua dela eskola beneditarra. "Elias Jauregui terroristari buruzko datu asko izan behar ditu polizia espainiarrak. ETA aurreko abuztuan Hazparnen (Frantzia) egin zuen Batzar Orokorrean izan zen".

Gutuna amaitzeko, hausnarketa hau egiten du: (...) "ez dut nire izenik emango, Baionan bizi naizelako eta han lan egiten dudalako, eta ETakoek nahi dutena egiten dutelako hemen. Inpunitate osoz egiten dituzte erailketak ere. Ezin al da espainiar fin eta adoretuen talde bat prestatu, hemen, Frantzian, ETako pizti batzuk "garbitzeko"?

Kereila onartzeko autoa eman zuen urtarrilaren 18an Manuel Gonzalez Najera magistratu instrukzio-egileak, eta honako alderdi hauek erabaki zituen auto horretan:

- Adierazitako lekukoaren deklarazioa.
- Segurtasun Zuzendaritza Nagusiaren informazioa eskatzea, Irungo polizia-komisaldegiaren bitartez.
- Muga igarotzeko baimen-eskaeraren ziurtagiria eskatzea Mugako Agintaritzari.
- Ez da onartzen, oraingoz, agintari judizial frantziarrei ikerketa judizial bat abia dezaten eskatzea, harik eta autoek ziurtasun zehaztasun handiagoz egiaztatzen dituzten arte adierazitako egitate horiek.

1974ko urtarrilaren 30ean, Espainiako Ipar Mugako Agintaritzaren ziurtagiri bat aurkeztu zuen Segurtasun Zuzendaritza Nagusiak. Ziurtagiri horrek esaten du Fernando Quiroga Veigak muga igarotzeko baimen bat, epe labur baterakoa, eskatu zuela 1973ko martxoaren 24an, eta egun horretarako eta hurrengo egunerako balioa zuela, Frantziara joateko. Era berean, honako hau esaten da: "ez dago jasota Espainiara itzuli denik eta igaro-baimena entregatu denik". Mugako ordezkari-buruaren sinadura darama agiriak.

Donostiako Ikerketa Sozialeko Brigada Probintzialak, Segurtasun Zuzendaritza Nagusiko organoak, 1974ko otsailaren 14an erantzun zion epailearen exhortoari, eta honako hau adierazi zuen:

"Bertako artxiboak kontsultatuta eta orain arte egin ahal izan diren beste gestio batzuekin (...)oso zaila da gestioak zuzenean egitea Frantziako lurretan":

- Jose Cesareo Ramirez Pontek 1973ko apirilaren 17an Irungo komisaldegian jarri zuen salaketaren, 4.015 zenbakidun eginbideen eta bildutako informazioen ondorioz, jakin da hiru gazteek beren etxean bazkaldu zutela 1973ko martxoaren 24an, 13:30ean, eta ondoren gertu zuten Irungo Castilla tabernara joan zirela. Han karta-partida batzuk jokatu zituzten Ramirez Ponterekin, eta, haiek amaitzean, Austin 1300 auto zurian eraman zuten "Decoexsa" enpresara, han lan egiten baitzuen. Horren ondoren, gazteek esandako moduan, Hendaiara edo Donibane Lohizunera joan ziren, filma bat ikusteri, eta gaueko 10:00ak aldera itzuliko zirela esan zuten. Martxoaren 26an, Ramirez Pontek, gazteak falta zirela ikusita, Guardia Zibilaren kuartelean salatu zuen gertatutakoa. Ez dago erregistratuta C-2143-B matrikulako ibilgailua irten zenik, bai larunbat arratsaldean ibilgailu ugari igaro zirelako, bai mugan oso ezagunak zirelako Frantziara egiten zituzten joan-etorri ugariengatik.
- Kantauri itsasoko ertzean istripu bat izan eta itsasora erori zitezkeela pentsatuta, desagerketaren berri eman zitzaion Frantziako Jendarmeriari, haien bilatzen has zitezen. Itsas Komandantziak miatu zuen itsas eremua, eta errepideak begiratu zituen poliziak.
- Hiru galiziarren heriotza eragin zuen liskarra taberna batean gertatu bazen ere, ez da jakina tabernak zer izen duen edo non ote dagoen. Frantziako poliziaren bidez modu estraofizialean jakin da ezin izan dela egiaztatu hiru gazteen liskar batean parte hartu zutenik Donibane Lohizunen edo Hendaian. Saint Palais herrian SERRA izena darama etxalde batek, ETA V-ren mendekoa da itxura batean eta, Burgoseko espetxean kondena betetzen ari den JESUS MARIA MUÑO A GALARRAGAK

egindako adierazpenen arabera, 7 milioiko etekinak izaten ditu urtean. Ez da jakina Fernando Quiroga eta Jorge Juan Garcia etxalde horretan edo besteren batean hil ote zituzten.

- Ezin da ziurtasunez eta frogetan oinarrituta esan nor edo nortzuk izan diren hiru gazte galziarren heriotzaren egile edo egileak, baina modu konfidentzian adieraz da Ceferino Arevalo "El Ruso" izan zela liskarrean parte hartu zuenetako bat. Horrez gainera, honako hau esan da: "Egitate kriminalean oso partaidetza zuzena edukitakoa izan daiteke Tomas Perez Revilla".
- Nabarmendu behar da gezurra dela Austin 1300 autoa Z-0978-B matrikularekin ibili zenik.
- Ez da jakina ETaren jabetzako itsasontzia erabili zenik "gazte galziaren ustezko erailketan".
- Ez da jakina non dagoen Ramirez Ponteren pasaporte, 143-B matrikulako autoan zegoena.
- Ez da jakina zer pertsona dauden Irunen eta Donostian agertu den propagandaren atzean.
- Ez da jakina zer lekutan lurperatu zituzten Fernando eta Jorge Juan.
- Honako hau adierazi da Manuel Murua Alberdik, Ceferino Arevalo Imazek, Jesus de la Fuente Iruretagoyenak, Prudencio Sudupe Azcunek, Sabin Achalandabaso Barandicak eta Tomas Perez Revillak hiru gazte horien heriotzan izan duten balizko parte-hartzeari buruz: "nahasmen handia dago kasuaren inguruan eta ezin da zehaztu horien balizko parte-hartzea, baina ezin da baztertu, ETA V. Asanbladako kide arriskutsuak, ekintza terroristen egileak eta Frantziara, Donibane Lohizune, Hendaia eta Baiona arteko eremura, ihes egindakoak diren aldetik, horietakoren batek hiru gazte galziarren erailketan parte hartu dutenik, espainiarrak zirela adierazte hutsagatik edo poliziak edo poliziaren kolaboratzailea zirela uste zutelako".
- ETA V. Asanbladako Jesus Maria Zabarte Arregui, "Garratz" liberatua atxilotu zen 1973ko irailaren 30ean (...) eta honako hau jakin da Zabarteren deklarazioan: "behin batean Tomas Perez Revillari hiru gazte desagertuei buruzko galdera egin ondoren, hark erantzun zion ZENBAT ETA GUTXIAGO ZABALDU HORREN INGURUAN, HAINBAT HOBE. Zabartek gaineratu zuen: ZERBAIT ARRAROA GERTATU ZELA IKUSI NUEN ETA EZ NUEN GALDERA GEHIAGORIK EGIN NAHI IZAN".

Segurtasun Zuzendaritza Nagusiaren mende zegoen Donostiako Ikerketa Sozialeko Komisaria Nagusiko komisario-buru probintzialak sinatuta dago idatzia.

Bestalde, epailearen aurrean deklaratzera deitutako pertsonen artean, Alfredo Semprun da nabarmenetako bat, kasuaren gaineko informazioa argitaratu baitzuen ABC egunkarian. Martxoaren 1ean deklaratzeko deialdia egin zitzaion, baina ez zen agertu. Ez zen agertu, ezta ere, martxoaren 22an, eta ondorioz, epaileak probidentzia bat eman zuen hari isun bat jartzeko. Horrekin batera, jakinarazi zitzaion hurrengo deialdira agertzen ez baldin bazen, indar publikoa erabiliko zela. Azkenik, martxoaren 28an agertu zen Alfredo Semprun eta bere deklarazioan esan zuen ezin zuela bere iturrien berri eman, informatzaileen segurtasuna bermatzeko: "ez daki informatzailetako askoren nortasun pertsonal eta egiazkoa, ez dutelako horren berririk eman nahi izan, hain justu ere, beren segurtasun pertsonala babestu nahi izan dutelako, ETAkoen heriotza-mehatxuak jaso ondoren".

Kronista horrek, era berean, "Madrilgo ABCn idatzitakoak berresten ditu", eta gaineratu zuen, berak eskuratutako beste txosten argitaragabe batzuen arabera, gertakariak Donibane Lohizuneko "El Unicornio" tabernan abiatu zirela⁸¹.

Apirilaren 15ean, Jose Luis Tames Guridi prokuradoreak epaileari zuzendu zitzaion, honako eginbide hauek egin zitezkeen eskatzeko:

1. Tomas Perez Revillaren aurrekari penalak.
2. Jesus Maria Zabarteri Donostiako Epaitegi Militar Berezian –Loiolako infanteria-kuartelean zegoen– egindako galdeketa deklaratuakoen ziurtagiria.
3. Segurtasun Zuzendaritza Nagusiari informazio-buletinaren 46. zenbakia, 1973ko azaroaren 16koa, eskatzea.
4. Guardia Zibilaren Zuzendaritzari txosten bat eskatzea, sumarioaren sorburu diren gertakarien gainean haren ikerketa-zerbitzuek, informazio-iturriek, eta, halakoak egin izanez gero, hartu dituen deklarazioek emandako informazioa biltzeko.

81 Kazetari horrek idatzitako kroniketan ez zen taberna hori aipatu.

5. Honako lekuko hauen deklarazioa: Rosa Pita Aradas (Jorge Juanen neskalaguna); Jesus Maria Zabarte, Donostiako Epaitegi Militar Bereziaren eskura garai hartan, hiru gazte coruñarren gainean zuen informazioarengatik; eta Fuerza Nueva aldizkaria, Ramsgateko St. Gregory's College eskolari buruz argitaratutako gutunen egilearen berri eman zezan.

Astebete geroago, apirilaren 23an, eskatutako eginbide guztiak egiteko agindu zuen Gonzalez Najera epaileak, Tomas Perez Revillaren aurrekari penalei zegokiena izan ezik. Azalpen hau eman zuen magistratuak: "Ez da onartzen, oraingoz, Tomas Perez Revillaren aurrekari penalak eskatzea, ez delako gertatuak ikertze-ko eginbidea". Honako hau esan zuen Jesus Maria Zabarteren deklarazioaren eskaeraren gainean: "bere garaian erabakiko da, behar diren datuak jakiten direnean".

Bi hilabeteko epean iritsi ziren Donostiako Epaitegira epaileak agindutako gainerako frogak. Segurtasun Zuzendaritza Nagusiak informazio-buletinaren 46. zenbakia, 1973ko azaroaren 16koa, bidali zuen maiatzaren 8an. Buletin horretan, ez zaie egiletzarik egozten Prudencio Sudupe Azcuneri eta Sabino Achalandabaso Barandicari. Hala ere, honako hau esaten da Manuel Murua Alberdiri, Ceferino Arevalo Imazi eta Jesus de la Fuente Iruretagoyenari buruz, hots, horietako bakoitzari buruz: "Frantzia, Irunen bizi ziren hiru langile galiziarren hilketan parte hartu zuen". Honako hau esaten da Tomas Perez Revillari buruz: "Aurtengo martxoan, hiru gazte galiziarren erailketa eta desagerraraztea zuzendu zuen, haiei Donibane Lohizunen ikaragarritzko jipoia eman ondoren".

Buletinak "Dragon" ontzia ETArena zela esaten du eta hura Lucio Ochoantesana "Luquen" goitzenekoaren ardurapean zegoela. Baina ez da esaten hiru galiziarren desagertzearekin zerikusia duenik.

Fuerza Nueva aldizkari zuzendariak ere erantzun zion epailearen errekerimenduari, eta honako hau azaldu zuen maiatzaren 9an izenpetutako idatzi batean: "ezezagunak zaizkigu aldizkarian St. Gregory's College eskolaren gainean argitaratutako artikuluen egileen izenak". Esaten du bi gutun jaso zirela aldizkari horren erredakzioan, UN LEAL CAMARADA delakoak sinatutakoa (sumarioak gutunaren kopia bat dakar, eta "Un leal español" da sinatzailea) bat, eta MJD-k sinatutakoa bestea". Honako hau gaineratu zuen: "horien edukia baliatu zen lehen eta bigarren artikulua osatzeko".

Maiatzaren 18an, Jesus Maria Zabartek egindako deklarazio-aktaren ziurtagiria iritsi zen Donostiako Epaitegi Militar Berezitik. Horren jatorria 13-73 Sumario Arrunta zen –Jose Lasanta Martinez infanteriako teniente-koronela izan zen sumario horren epaile instrukziogilea.

Bilbon galdekatu zutela esaten da deklarazioaren aktan, 1973ko irailaren 28an, Generalísimo Franco ospitale zibileko Revilla pabilioaren 13. gelan. Polizia Kidego Orokorreko inspektoreek egin zuten galdeketa, Bilboko Polizia Buruzagitza Nagusiaren Ikerketa Sozialeko Eskualde Brigadakoak. Hau esaten da akta horretan:

"Minez dago zauriak jasan zituen hankan, baina egoera onean dago egiten zaizkion galdera guztiei erantzuteko, eta prest dago haiei normaltasun osoz erantzuteko".

148. folioa.- GALDETU ZAI O.- Azaltzeko non dauden martxoan muga igaro eta oraindik ageri ez diren hiru gazte "galziarrak", eta honako hau adierazi du: Galiziar horiek Hendaiara egin zuten bisitaren ondoren, egunkariek argitaratu zuten ETA erakundeak hil eta desagerrarazi zituela; deklarazio egileak esan du, erakundearen barruan zela horiek argitaratu zirenean, baina esan du ez zekiela ezertxo ere horri buruz eta TOMAS PEREZ REVILLARI horren gainean galdetu zionean, honako hau erantzun zio-la: "ZENBAT ETA GUTXIAGO JAKIN HORRI BURUZ, HOBE",

"Esku ezkerra erabili du deklarazioa izenpetzeko, zaurituta eta igeltsuz estalia baitu eskuinekoa".

Agiria jaso ondoren, Gonzalez Najera epaileak Jesus Maria Zabarteri deklarazioa hartzeko agindu zuen maiatzaren 27an. Zabarte Basauriko espetxe probintzian zuten une hartan.

Jesus Maria ZABARTEK Basauriko udal-epailearen aurrean egindako deklarazioaren berri ematen duen idatzian ez da argi eta garbi bereizten ekaineko zer egunetan egin zitzaion galdeketa. Baina argi eta garbi irakurtzen da zer esan zuen Zabartek: "ez duela inolako zerikusirik aipatu zaion gertakariarekin, ez baitu horretan parte-hartzerik izan eta ez dakiela nork edo nortzuk desagerrarazi dituen aipatu zaizkion pertsonak".

Epaileak apirilaren 23an baimendu zituen lau eginbideetatik azkena osatzeko, Guardia Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak txosten bat igorri zion epaile instrukziogileari maiatzaren 29an.

Hasiera batean, honako hau esaten du txostenak: "1973ko martxoaren 26an, Jose Ramirez Pontek desagertzearen gaineko salaketa jarri zuen gure indarrek Irunen duten kokagunean" (...) Honako hau zehazten du aurrerago:

“Egun haietan, poliziak eta gure indarrek harreman ofiziosoak abiatu genituen muga inguruko polizia frantziarrarekin, baina ez zen desagertutako gazteak non egon ote zitezkeen jakin; hala ere, denbora igaro ondoren, propaganda zabaldu zen gure herrialdeko zenbait lekutan, eta propaganda horrek esaten zuen ETAko kide batzuk erail zituztela gazteak, Donibane Lohizuneko taberna batean egin zieten eraso baten ondoren, Espainiara itzultzen ari zirenean filma bat ikusi ostean”.

“Propagandak aipatzen dituen egileen artean daude ETA erakunde klandestinoko kide hauek, Frantzia bizi direnak: Manuel Murua Alberdi, “El Casero”, Jose de la Fuente Iruretagoyena, Ceferino Arevalo Imas, “El Ruso”, Sabino Achalandabaso Barandica “Sabin” eta Prudencio Sudupe Azcune, “El Pruden”, gutzien buru Oñatiko Galparsoro delako bat dutela, Txikiaren bigarrena”.

Adierazten du, era berean, honako hau ziotela Guardia Zibilaren txostenek: “abuztuaren 13an, Jaime Quiroga Campok (...) telefono-dei bat jaso zuen bere etxean, (...) bere semea eta bere lagunak bizirik zeudela, Frantzia. Deitzaileak ez zuen bere burua identifikatu, berri gehiago emango zuela esan zuen, baina ez zuen halakorik egin”.

Txostenak konfirmatzen du, era berean, Guardia Zibilak, abuztuan, bi gutun jaso zituela Irunen:

“Bi gutun jaso ziren Irungo postuan, Postuko komandanteari zuzenduta bat, eta desagerturik zegoen QUIROGA VEIGA gazteari zuzenduta bestea, Bartzelonatik bidalitakoa eta Fernandez osabak, Antonio Veiga Villa jaunak, izenpetua. Bere iloba non zegoen jakin nahi zuen, bazekielako, haren amaren esandakoagatik, semeak, Jaque edo Jaqui izeneko batekin eta Jose Humberto Fouz Escoberoarekin garraio-agentzia bat sortzen saiatzen ari zirela eta, horretarako, diru-kopuru handi bat eman ziela gizon ezezagunak”. (...)

Horrez gainera, hau adierazi zuten txostenean:

“Segurtasun Zuzendaritza Nagusiak emandako zenbait datuk daude gure artxiboetan, eta datuok gazte horien hilketarekin eta desagerpenarekin lotzen dituzte, egile gisa, ETAko Tomas Perez Revilla, Manuel Murua Alberdi, Ceferino Arevalo Imas eta Jose de la Fuente Iruretagoyena kideak, baina ez da jakina zein den akusazio horien informazio-iturburua”.

Estatu Nagusiko koronel buruak sinatutako agiria da. Madrilen. Guardia Zibilaren Zuzendaritza Nagusiaren zigilua du. Estatu Nagusia.

1974. urtearen amaieran, abenduaren 27an, hiru coruñarren senideen prokuradoreak honako frogak hauek egiteko eskatu zion Donostiako 3. Instrukzio Epaitegiari:

- Deklarazioa hartzea Jorge Juanen neskalagun Rosa Pitari.
- Ofizioa bidaltzea Segurtasun Zuzendaritza Nagusiaren Ikerketa Sozialeko Komisariari, eta, horren bidez, Perez Revillak, Ceferino Arevalok, Manuel Muruak eta Jesus de la Fuentek erail zituzten hiru galiziarren izenak zehazteko eskatzea, 46. zenbakiko buletinean, 1973ko azaroaren 16koan, esaten direnei erreparatuta –Epaitegira bidali zen buletin hori, 1974ko maiatzaren 7ko ofizioarekin batera–; eta adierazteko, era berean, nola erail zituzten hirurak. Eskatzen zaie azaltzeko nola eta zer modutan gertatu zen hiru gazte galiziarren erailketa, eta informazio horien iturriak zehazteko.
- Ofizioa bidaltzea Segurtasun Zuzendaritza Nagusiko Informazio Buruzagitzaren Azterlanen Kabinetera, hiru gazteak Donibane Lohizunen nola eta zer erataria hil zituzten jakiteko informazioa galdatzeko eta erailtzaileak identifika ditzaten eskatzeko.
- 1974ko abuztuaren 12ko buletinaren (GE/6, 67. zk./RG/mj) 20. eta 21. orrialdeen kopiak igorriko dira, epigrafe hauekin: –ASESINATO DE TRES JÓVENES GALLEGOS EN SAN JUAN DE LUZ E IDENTIFICACIÓN DE LOS AUTORES DEL TRIPLE CRIMEN–.

Bestalde, nabarmendu behar da 1973ko maiatzaren eta abenduaren bitartean banatutako zazpi panfleto ageri direla 1/1974 sumarioan. Eskura dauden datuen arabera, desagerpena gertatu eta bi hilabetera zabalduak da horietako lehena. Lehen panfleto horrek esaten du ETAko ustezko kide hauek direla egileak: “ETAko komando batek eraso egin zien, haren buru “Txikiaren” bigarrena zen, Galparsoro izeneko oñatiar bat. Honako hauek ziren komando-kide: MANUEL MURUA ALBERDI “El Casero”; JOSE DE LA FUENTE IRURETAGOYENA; CEFERINO AREVALO IMAS “El Ruso”; SABINO ACHALANDABASO, “Sabin”; eta PRUDENCIO SUDUPE AZCUNE “El Pruden”. Eraso horren ondoren, ez da hiru gazte horien berririk izan”⁸².

82 Txosten honen lehen zatiko laugarren puntuan ematen dira propaganda horren xehetasunak.

3.3. 1975. urtea

Donostiako 3. Instrukzio Epaitegiko Salinas Yanes epaileak magistratu-probidentzia bat eman zuen urtarrilaren 9an, eta, haren bidez, kereila jarri zuen alderdiaren bi eskaera onartu zituen, Rosa Pita Aradasi deklarazioa hartzea eta kasuaren gainean dituen dokumentuak eskatzea Segurtasun Zuzendaritza Nagusiaren Ikerketa Sozialeko Komisaldegi eta Informazio Buruzagitza-Azterlanen Kabineteari.

1975eko urtarrilaren 17an deklaratu zuen Rosa Pita Aradasek.

“Martxoaren 24an, arratsaldeko hiruak inguruan, bere mutilagunak (Jorge Juan Garcia Carneirok) telefonoz deitu zion, Frantziara, Donibane Lohizunera, zihoala esateko, filma bat ikustera. Deklarazio-egileari ez zion esan bidaia horren helburua Fouzen arrebarentzat urtebetetze-opari bat erostea zenik”.

Yanes epailearen exhortoari erantzuteko, Ikerketa Sozialeko Komisaldegi Nagusiaren Segurtasun Zuzendaritza Nagusiak (Madril) urtarrilaren 28an bidali zuen txostenak esaten du hau dela bere informazioaren oinarria: “Donostiako Ikerketa Sozialeko Eskualde Brigadak apirilaren 27an egindako informazio-oharra”.

“Martxoaren 26tik aurrera, ikusita hiru gazte horiek ez zirela ondoko herrialdetik bueltatzen, beraien senideek, Guardia Zibilak, Poliziak eta polizia frantziarrak hainbat gestio abiatu zituzten, hiru pertsona horiek non egon ote zitezkeen jakiteko. Hurrengo egunetan egindako gestioen ondorioz, jakin zen martxoaren 24ko gauaren lehen orduetan, Donibane Lohizuneko taberna batean, ETA V. Asanbladan parte hartu zuten eta ihes eginda dauden pertsona batzuek eraso egin ziotela hiru langile espainiarrei, eta jakin zen, era berean, eraso horren ondorioz zenbait zauri larri eragin zitzaizkiela hirurei, eta, zehazki, begi bat aterra ziotela horietako bati. Informazio-ohar horretan esaten da pentsatzekoa dela beste lesio batzuk eragin zitzaizkiela horren ondoren, eta jakina dela honako pertsona hauek osatzen zutela eraso egin zuen taldea: Manuel Murua, (...) Ceferino Arevalo, (...) Prudencio Sudupe, (...) eta Jesus de la Fuente. (...) ETA V. Asanblada erakunde terroristako aktibistak dira horiek guztiak, berriki ihes egindakoak”.

“Gerta zitezkeen erasotzaileek, “langile espainiarrei” emandako jipoi itzelek ekar zitzaizketen ondorioekin ikaratuta, gertatu zena ezkutatzeko erabakia hartu izana, eta hotz-hotzean erail izana hiru biktimak, gerora beren gorpuak eta bidaian erabili zuten autoa desagerrarazteko”.

Sumarioa abiarazi zuen akziora bueltatuta, adierazi behar da desagerturik zeuden hiru coruñarren familiek jarritako kereilak eginbide-zerrenda bat betetzeko eskatzen ziola epaileari, eta, haren amaieran, honako hauek prozesatzeko eskaera egiten zuela: Tomas Perez Revilla, Manuel Murua Alberdi, Ceferino Arevalo Imaz, Jesus de la Fuente Iruretagoyena, Prudencio Sudupe Azcune eta Sabino Achalandabaso Barandica. Epaileak, ordea, ez zion orduan erantzun azken eskaera horri.

Gerora erantzun zitzaion eskaerari, epaileak martxoaren 6an eman zuen autoaren bidez. Hau esaten du autoak: “ez da onartzen Tomas Perez Revilla, Manuel Murua Alberdi, Ceferino Arevalo Imaz, Jesus de la Fuente Iruretagoyena, Prudencio Sudupe Azcune eta Sabino Achalandabaso Barandica prozesatzeko eskaera, kereila jarri duen alderdiak egindakoa; hala ere, alderdi horren eskubidea da prokuradoreak berriro egitea eskaera galdegindako Auzitegi eskuduneari”.

Aintzat hartuta “autoetan gauzatu diren jardueretan ez dela behar bezala zehaztu salatutako pertsona horiek sumario honen hasierako idatzian adierazten diren gertakarietan parte hartu dutenik; bidezkoa da, horrenbestez, horiek prozesatzeko eskaera ezesteko erabakia hartzea”.

Auto hori eman ondoren, sumarioan behin eta berriro errepikatzen dira prozesatzeko eta Frantzian ikertzeko eskaerak, prokuradorearen aldetik, eta “ez da onartzen” erantzunak epaile instrukziogilearen aldetik, harik eta magistratuak adierazten duen arte Epaitegiak ez duela gertakariak epaitzeko eskumenik.

Bi egun geroago, martxoaren 8an, ordura arte gauzatu gabeko eginbide batzuk gauzatzeko eskatu zuen prokuradoreak, bere garaian kereilan eskatutakoak. Zehazki, 4. eginbidea gauzatzeko eskatu zuen, hau da, Espainiak eta Frantziak elkarrekiko izenpetuta dituzten hitzarmenetan oinarrituta, (...), Polizia Judizial frantsesari ikerketa bat egiteko eta Epaitegi honi informatzeko agindua eman diezaiola eskatzea Frantzian eskumena duen Auzitegiari. Horrez gainera, sumarioko lekuko guztien deklarazioak, Espainiako Segurtasun Zuzendaritza Nagusiko agiri ofizial guztiak eta ABC egunkariako kazetaritza-artikuluak bidaltzeko eskatu zuen. INTERPOL erakundearen parte-hartzea eskatzen du, hauek iker ditzan:

- Poliziak judizial frantziarrak egin dituen eginbideen gaineko informazioa.
- Frantzian egin diren jarduera judizialak.

- Eskatzen du Pedro Alquizuk, "El Quepa" goitzenekoak, gertakarien egunetan edo ondorengoetan Austin 1300 autoa erabili ote duen hark faltsifikatutako matrikula erabilia.
- Auto hori non dagoen ikertzeko.
- "La Lycorne" tabernaren gaineko ikerketa bat egitea, jakiteko nork gobernatzen duen, zer pertsona zeuden taberna horretan 1973ko martxoaren 24an, bai lanean, bai bezero moduan, eta horien artean Manuel Murua, Ceferino Arevalo, Prudencio Sudupe, Jesus de La Fuente eta Tomas Perez Revilla ote zeuden.
- Ikertzea 1973ko martxoaren 24an liskar bat izan ote zen taberna horretan, eta liskar horretan adierazita pertsona horiek aritu ote ziren beste espainiar batzuen aurka.
- Ikertzea ea adierazitako pertsona horiek beste liskarren bat izan ote zuten beste lekuren batean.
- Ikertzea pertsona horiek Donibane Lohizunen ote zeuden martxoaren 24an.
- Desagerturik dauden hiru gazte galziarrak non diren ikertzea.
- Ramsgateko beneditarrek desagerturikoen kasuari buruz zer dakiten iker dezala eskatzea INTERPOL Ingalaterrari.

Bi egun geroago, martxoaren 10ean, familiaren ordezkariak erreforma-errekurtso bat jarri zuen martxoaren 6ko autoaren aurka, hau da, kereilan egile moduan adierazi zirenak prozesatzeko eskaera ezetsi zuen autoaren kontra (Tramitera onartu zen martxoaren 17an).

Errekurtsoak, ematen dituen argudioen artean, adierazten du autoa ez dela erabat zuzena izan, martxoaren 8ko idatzian proposatu zen proba osotasunean egin zela adierazten duenean –autoritate judizial frantziarrari ikerketa judizial bat abia zezala galdatzeko eskatzen zuen idatzi horrek–.Froga hori ez dela gauzatu adierazten du errekkurtsoak. Aurrerago, honako hau adierazten du sumarioaren gainean: "informazio anonimo edo ezkutuen gainean abiatu da". (...) Eta beste hau ziurtatzen du: "mutil horien egin zutenaren froga bat dago- eta horien berri ematen du, bestalde, Semprun lekukoak autoetan egin zuen deklarazioan, eta, gainera, deklarazio horretan, berretsi egin ditu Madrilgo ABC egunkarian idatzitakoak".

Prokuradoreak, era berean, hizpide hartzen du Segurtasun Zuzendaritza Nagusiaren 46. zenbakiko buletina, 1973ko azaroaren 16koa. Txosten pribatu bat da buletin hori, poliziaren barne-erabilerarako. Buletinak esaten du Tomas Perez Revillak, Manuel Murua Alberdik, Ceferino Arevalo Imazek eta Jesus de la Fuente Iruretagoyenak hiru langile galziarren hilketan parte hartu zutela, Frantzia.

Azkenik, honako hau erregutzen du: "sei pertsona erruztatuak prozesatzeko agintzea, gertatu direnak argitzeko behar diren frogak egitea, gauzatu ez dena izatea horietako bat, eta legez dagokien moduan bideratzea autoak".

Epaileak martxoaren 20an eman zuen autoak ezetsi egin zuen martxoaren 6ko autoa erreformatzeko eskaera eta martxoaren 8ko idatzian eskatu ziren eginbideak, Epaitegiak eskumenik ez duelakoan:

AINTZAT HARTUTA (...) "salatu diren pertsonak gertakarietan parte hartu dutela jakiteko frogarik ez dagoela adierazi da pertsona horiek prozesatzeko eskaera ezesteko autoan, baina horrez gain, nabarmendu behar da Epaitegi honek ez duela eskumenik gertakari horiek epaitzeko, ez direlako betetzen Botere Judizialaren Lege Organikoak 339. artikuluan arautzen dituen eskakizunak, eta, ondorioz, bere horretan utzi behar da ebazpen hori" (martxoaren 6koa).

Hau esan zuen epaileak: "Ez da onartzen Epaitegi honek auzi honetan 1975eko martxoaren 6an eman zuen autoa erreformatzea (ustezko sei egileak prozesatzeko eskaera ezesten du auto horrek), eta bere horretan eutsiko zaio, zati guztietan. Ez da onartzen kereila-jartzaileak hilaren zortzian aurkeztutako idatzian eskatzen dituen eginbideak gauzatzetik".

Prokuradoreak handik lasterrera, martxoaren 22an, aurkeztu zuen martxoaren 20ko autoa emendatzea ezesten duen autoaren aurkako apelazio-errekurtsoa, eta honako arrazoi hauek eman zituen:

- Pertsona horien prozesamendua agintzeko behar den zantzu arrazional nahikoa dagoela irizten du. Aurkeztutako froga eskatzen da martxoaren 10eko erreforma-errekurtsoan (Semprunek ABC egunkarian idatzitako artikulua eta Segurtasun Zuzendaritza Nagusiaren 46. zenbakiko buletina).

-
- Honako hau adierazten du Epaitegiaren eskumenik ezaren gainean: “Sumarioak ez dakar inplikatuak Espainian ez daudela erakusten duen frogarik”. Zuzenbidean, halako frogarik izan gabe, ezin da, arintasunez, eskumenik eza xedatu”. Gaineratzen du autoak kontraesan bat dakarrela, izan ere “erruduntasun-frogarik dagoen ala ez epaitzen da, baina, aldi berean, eskumen-gabezia adierazten da. Eskumenik ezean, ezin dira gertakariak epaitu, eta gertakariak epaitzen dituen aldetik, horretarako eskumena duela ulertu behar da”.
 - “Kereila-idatzian adierazten diren alderdiak frogatzeko behar adina frogarik ez dagoela uste baldin badu Epaitegiak, are handiagoa da, oraindik, froga hori gauzatzeko beharrezana (...)”.

Apelazio-idatziaren amaieran, honako hau azaltzen du prokuradoreak BEREBAT DIOT idatz-zati batean: “Auto horretan zenbait berritasun daudela ikusita, hala nola eskumen-gabeziaren deklarazioa eta frogaren ezespena, bi erabaki horien aurkako erreforma-errekurtsoa eskatzen dut, baldin eta ezinbestekoa baldin bada, apelazioko errekurtsua jarri aurretik”.

Berriro ere, epaileak, apirilaren 7an emandako magistratu-probidentziaren bidez, eutsi egiten dio bere jarraitzaileari: “ez da izapidetzeko onartzen kereilatuen prozesamendua ezestea erabaki zuen erreformaren aurka aurkeztu den apelazio-errekurtsoa (...); hala ere, alderdiaren eskubidea da eskaera hori berriro egitea, prozesuko une egokian”.

“Eta izapidetzeko onartzen da diligentzien gauzapena ezetsi izanaren aurka jarri den erreforma-errekurtsoa (...) Kopia igortzen zaio Fiskaltzari”.

Ildo berari lerratzen zaio epaileak apirilaren 10ean eman zuen autoak, eta ezetsi egin zituen eskatutako eginbideak, arrazoi honegatik: “ez dira beharrezko ikusten sumario honen jardunbidean”:

“AINTZAT HARTUTA: Kereila-jartzailearen ordezkariak eman dituen argudioek ez dituztela inondik inora ere desitxuratu errekurritzen den ebazpena ematean kontuan hartu ziren oinarriak, eutsi egingo zaie ebazpenaren zati guztiei, eta ez da onartuko eskatu ziren eginbideen gauzapena, ez direlako beharrezko ikusten sumario honen jardunbidean”.

Hau esan zuen epaileak: “Ez da onartzen 1975eko martxoaren 20an eman zen Autoa, Tames Guridi prokuradore-jauak proposatu zituen frogak ez onartzekoa, erreformatzeko erabakia hartzea, eta ebazpen hark irimo jarraituko du, indarrean zati guztietan”.

Gerora, apirilaren 17an, eginbide bat jaso zen sumarioan, ziurtatzeko azken ebazpenaren jakinarazpena egin zenetik bost egun igaro zirela eta kereila jarri zuen alderdiak ez zuela apelazio-errekurtsorik jarri eginbideak gauzatzeko ezetsi eta sumarioa amaitutzat ematen zuen ebazpenaren aurka.

Azkenik, apirilaren 17ko auto horren bidez, Antonio Salinas Yanes epaileak amaitutzat eman zuen sumarioa, “prozedura pertsona jakinen aurka zuzendu ezin izan delarik”.

Urriaren 22an amaiarazi zen 1/1974 Sumarioa, Salinas Yanes epaileak emandako probidentzia baten bidez, hura idazkaritzan behin-behinean artxibatzeko xedatu baitzuen.

4. Prozesuaren bermeak: 1974ko sumarioaren azterketa

Azken atal honen xedea da 1973ko martxoaren 24 hartan izandako gertaerak argitzen saiatzean egindako askotariko jarduketak –polizialak nahiz judizialak– aztertzea eta baloratzea, prozesuaren bermeei dagozkien estandarretara egokitzen diren ikusteko.

Gertaera haien egiletasunari buruz abiapuntutzat hartutako hipotesia gorabehera, bistakoa da elementu horrek ez duela aldatzen prozesuari lotutako eskakizunen indarraldi betea. Hau da, delitu-ekintza bat gertatzean, ekintza horren ikerketa poliziala eta judiziala berme juridiko guztiekin gauzatzeko obligazioak bere horretan jarraitzen du; ikerketa hori, hain zuzen, legez horretarako eskumena eta erantzukizuna duen elementuak egingo du, hots Estatuak, bere erakunde eta aginte-botereen bitartez.

4.1. Frantzia egindako jarduketak

Frantziak egindako jarduketei dagokionez, nabarmentzekoa da, gertaerak ustez lurralde horretan gertatu arren eta, beraz, Frantzia izanagatik ere desagerepenen berri izateko lehentasunezko jurisdikzioa, herrialde horretan egindako ikerketak jarduera polizial batzuetara mugatu zirela, eta ez zela gertatutakoari buruzko prozesu judizialik ireki.

Antza, polizia-jarduera horien xede bakarra gazteak bilatzea izan zen, eta, emaitzarik lortu ezenez, ez dirudi desagerepenaren inguruabarretan sakontzeko edo ustezko egileak nor izan ziren ikertzeko ahalegin berezirik egin zenik, ez behintzat indar handiz. Zalantzarik gabe, deskribatutako gertaera horien aurrean, zentzuzkoena litzateke Frantziako epaitegi batean (kasu horri zegokion epaitegian) zenbait eginbide ofizioz hasteko eskatzea, batik bat desagerepenak denboran iraun duela kontuan hartuta.

Beraz, ez dirudi zentzugabea adieraztea Frantziako estatuko agintari eskudunek utzikieriaz jokatu zutela eta ez zituztela beren betebeharrak bete, ez baitzuten egin zentzuz eskatzeko modukoa zen ikerketa bat, eta ez baitziren prozesu judizial bati hasiera eman, zirkunstantziek hala eskatu arren⁸³.

4.2. Espainiako agintaritzen jarduketak

Kontakizun faktikoan adierazi den moduan, eta sumarioaren alderdi nagusien atalean jasota geratu den bezala, Espainiako auzitegietan bi prozesu penal hasi ziren kasu honekin lotuta: lehenengoa, Donostiako 3. Instrukzio Epaitegian, eta bigarrena, Auzitegi Nazionalean.

Giza Eskubideen Katedrako taldeak aipatutako sumarioetatik lehenengoa soilik eskuratu ahal izan du; beraz, ondorengo lerroetan, Donostian egindako instrukzio-fasearen baitan gauzatutako jarduketei soilik egingo zaie erreferentzia, horiei buruz soilik egin baitaitezke zalantzarik gabeko adierazpenak.

Ildo horretan, merezi du hainbat gai eztabaidagarri lantzea, guztiak ere 1975. urtekoak, antza, desagerepenak gertatu zirenetik bi urtera.

Jarduketen ordena kronologikoari jarraituz, hautemandako lehen arazoetako bat ebazpen judizialen –funtsean, autoen– arrazoiketa eskasa da, kereila jarri duen alderdiak egindako eskaerak ukatzen baitituzte, bereziki, eskatutako eginbideak egitea ukatzearekin lotuta, bai eta organo judizialak berak aginpiderik ez duela ebatzita.

Hona ekartzea merezi duen bigarren unea martxoaren 20ko autoa hartzekoa da, zehaztutako pertsonak auzipetzeari uko egitearen aurka kereila-jartzaileak ezarritako erreforma-errekurtsoa ebazten duena. Bertan, epaileak uste zuen “aurkaratutako ebazpena ematean kontuan hartu ziren oinarriak” ez zirela indargabeku errekurtsio-jartzailearen alegazioak tarteko, bi argudio zirela-eta. Argudio horiek aztertzen hasi aurretik, ordea, azpimarratu behar da oinarriei pluralean egiten erreferentzia ez datorrela bat inpugnatutako autoaren edukiarekin, aurreko lerroetan adierazi bezala, argudio bakarra erabili baitzen auzipetzeari uko egitea arrazoitzeko.

Epaileak emandako arrazoi zehatzei dagokionez, lehenengo arrazoiak errekurtsioa jarri zaion autoan aipatutakoa errepikatzen du beste modu batean. Horri dagokionez, arrazoiketaren ikuspegitik, zalantza ez du sortzen argudio bera erabiltzeak, errekurtsioaren alegazioei erreferentziarik ez egiteak baizik, hark berariaz aipatu baitzituen zer eginbide jotzen zituen erabakigarritzat auzipetzea eskatzeko. Oinarri orokorregietara jo beharrea, erantzun zehatz bat emateko eska zitekeen, auzipetzea agintzeko gauzatutako eginbideen emaitza hain eskasa zergatik izan zen zehaztuz.

Lehen arrazoi horrekin batera, martxoaren 6ko autoaren reformari uko egiteko, magistratuak nabarmendu zuen ez zuela aginpiderik gertaera haien berri izateko, bere iritziz ez baitziren betetzen Botere Judizialaren Lege Organikoaren 339. artikuluan xedatutako baldintzak. Merezi du gai horrekin lanketa zehatua eta espezifikoa egitea, askotariko eztabaidak sortzen baititu. Hasteko, nabarmendu behar da instrukzioak iraun zuen

83 Horri dagokionez, Golder Erresuma Batuen aurka epaian, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak adierazi zuen Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 6.1. artikuluan zehazten den eskubideak –epaiketara jotzeko eskubideak– ez diola soilik eragiten auzitegi edo epaile eskudunaren aurrean prozesua garatzeari, behin prozesua ireki edo antolatuta denean; hau da, agintaritzak eskudunak prozesua bera hastea edo irekitzea bultzatzeko eskubidea aintzat hartzen du. Ikus HARRIS, O’BOYLE eta WARBRICK: Law of the European Convention on Human Rights, hirugarren argitalpena, Oxford University Press, 398. or., 2014.

aldian, 1973ko maiatzetik 1975eko martxora (bi urtetik gora), ez zela alderdi hori aipatu; izan ere, zirkunstantziak, antza, gutxi aldatu ziren, edo batere ez, kereila jarri zen unetik ordura arte. Nolanahi ere, aginpiderik ezaren kausak bat-batean gerta zitekeela onartu arren, arrazoiketa-falta nabarmena da berriro, ez baitago aginpiderik ez izate hori azaltzeko arrazoirik, baldintzak era abstraktuan ez betetzeaz harago (zer eta zergatik zehaztu gabe). Aldi berean, hain gai garrantzitsua denez gero, bidezkoa izango zen aginpiderik ez izate hori autoaren hasieratik adieraztea, eta ez zirkunstantzia hori argudiotzat erabiltzea ustezko susmagarriren bat ez auzipetzea defendatzeko. Are gehiago, horrela jokatzuz, inkongruentzia argian eroriko litzateke, aginpiderik ez duen organo batek ezingo bailuke ez baloratu ez erabakirik hartu eskatutako eginbideen egokitasunaren inguruan, kereila-jartzaileak gerora aurkeztutako apelazio-errekurtsoan adierazten duen bezala.

Azaldutakoaz batera, gertaeren berri izateko aginpiderik gabekotzat jotzeak sakoneko gai garrantzitsu bat azaleratzen du, horren bidez kotasanari edo bidezkoa ez izateari buruzkoa. Zentzu horretan, horrelakotzat jotzea zerk eragin duen zehaztu ez arren, kasuaren zirkunstantziak kontuan harturik, eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 339. artikulua edukia oinarri hartuta, aukera bakarra da organoari aginpiderik ez onartzea, delituaren ustezko egileak ez zeudelako Espainiako lurraldean⁸⁴. Nolanahi ere, presuntzio baten aurrean gaude, eta ez da, gerora, gai nagusitzat hartu.

Gaiaren funtsari buruzko erabakiaren egokitasuna edo egokitasun eza aparte utzirik, arrazoiketa-falta agerikoa da, eta nahiz eta aginpiderik gabekotzat jotzearen aurkako erreforma-errekurtsoa jarri zen, magistratu instrukziogileak ez zuen gai hori aintzat hartu, ez izapidetzeko onartzeko erabakian ez ebazpen-autoan; soil-soilik errekurritutako beste gaiari –hurrengo lerroetan aipatuko diren ikerketako zenbait eginbide gauzatzeari uko egitea– buruzko erabakia hartu zuen.

Sumario horren instrukzioan, akusazioak, behin eta berriz, eginbide bat gauzatzeko egindako eskaera nabarmendu behar da, hain zuzen, Frantziako agintaritza polizialei eta judizialei eskatzea gertaerak argitzeko ikerketak egitea beren lurraldean. Hasierako kereilan eskatu arren, atzera bota zen, eginbide hori prozesuko une egokiago batean gauzatzeko egokiagoa zela argudiatuta, “gertaera horien ziurtasun eta zehaztasun handiagoa” den une batean, hain zuzen. Martxoaren 8ko idatzian, berriro egin zuten eskaera hori, baina apirilaren 10eko autoan ukatu egin zen, beste zenbait eginbiderekin batera, iritzi baitzen ez zirela “beharrezkoak sumarioak aurrera jarrai zezan”. Erantzun horiek harrigarriak dira; izan ere, kereila jarri zuen alderdiak adierazi bezala, gertaerak Frantziako lurraldean gertatu zirenez, estatu horretako agintaritzak lirerateko egokienak gertaera horiek bermerik handienaz ikertzeko. Egiaz, ez da zentzugabea pentsatzea eginbide zehatz horrek garrantzi handia izan zezakeela ikerketak zer bilakaera izango zuen zehazteko eta zer gertatu zen jakiteko, bai eta, finean, erantzukizunak egotzi ahal izateko ere. Aldi berean, argudio hori erabil daiteke auto berean uko egin zitzaiezen beste eginbide batzuetan ere, Interpoli zenbait informazio eskatzearekin loturikoetan, esaterako. Halaber, instrukzio-fase horretako ebazpen judizial gehienetan bezala, apirilaren 10eko autoan ez da arrazoiketa-lan handirik hauteman (ezaugarri bereizgarri hori dute), inongo kasutan ez baita zehaztu zergatik ez diren funtsezkoak eskatutako eginbideak; hau da, estereotipatutzat eta orokorregitzat har daitekeen esaldi bakar batez adierazten du iritzi hori⁸⁵.

Donostiako 3. Instrukzio Epaitegiak instruitutako sumarioko zenbait alderdi eztabaidagarriekin amaitzeko, apirilaren 17ko autoa aipatu behar da, sumarioa amaitutzat eman zuena, prozedura zehazki noren aurka abiatu jakiterik ez zela-eta. Egia da, bai, ez zeudela behar beste zantzu akusazioak salatutako inor auzipetzea agintzeko, baina badirudi erabaki horretan zerikusia izan zuela bidezko ikerketa-baliabide guztiak erabili ez izanak, beharrezko baldintza izan arren prozedura-legeen arabera largespena agintzeko⁸⁶. Aldi berean, beharrezko ikerketa-baliabide guztiak baliatu izan balira ere, horrelako erabaki batean, gutxienez, sakontasun handiagok azaldu beharko lirerateko zer arrazoi izan zituen oinarri magistratuak erabakitzeko ez zegoela zantzurik akusazioak salatutako pertsonak auzipetzeko⁸⁷.

84 1970eko Botere Judizialaren Lege Organikoaren 339.2 artikulua.

85 Konstituzio Auzitegiaren 133/2003 Epaia, ekainaren 30ekoa.

86 Konstituzio Auzitegiaren 46/1982 Epaia, uztailearen 12koa.

87 Ibidem.

III

Sintesia: Amaierako gomendioak

1. ZER GERTATU ZEN. Iturri judzialak edo hemeroteka bilduta, gertaeren kontakizunari buruzko oso hipotesi ahula egiten da, eta ezin da honelako ikerketa akademiko baten bidez berdindu. Desagertutakoek, nolana ere, terrorismoaren biktimen errekonozimendua jaso zuten Estatuaren aldetik, modu ofizialean eta indarrean dagoen legediaren arabera. Hala ere, argi dago Frantzian eta Espainian egindako ikerketak eskasak izan zirela oso, bai hasierako unean bai ondorengo urteetan. Desagerpenak gertatu zirenetik, nabaria eta bereziki deigarria da agintaritzaren ofizialek gertaerak ikertzeko agertutako interes falta; horrez gain, prentsan agertutako informazioen artean kontraesan nabarmenak zeuden, eta aipatutakoei ez zen koherentziazko bultzadarik eman. Prentsan agertutako informazioak, gainera, oso ahulak dira, eta ez oso sinesgarriak, gertaeren bertsioa etengabe aldatu zelako, eta, oro har, egiaztatu gabeko interpretazioak zirelako. Horrez gain, prentsa eta jarduketaren judzialen bilakaera paraleloa izan zen, mugaren alde batean eta bestean, eta ez zuten borondate txikiak ere agertu batzuen informazioak besteekin egiaztatzeke edo, gertaerak argitzeke xedez, mugaz gaindiko gutxieneko lankidetzaren bultzatzeke.

2. DESAGERPENAREN GAURKOTASUNA. Guztiarekin ere, gertaerak ez dira iraganeko gaia. Desagerpenak egungoak dira, oraindik ez baitakigu non dauden Jose Humberto Fouz Escobero, Jorge Juan Garcia Carneiro eta Fernando Quiroga Veiga. Horrenbestez, gabezia edo ez jakite horrek dakarren sufrimendua, egun, oraindik, bereziki eragiten die desagertutako pertsona haien gertuko senideei. Zehaztapen teknikoak dagokienez, jokabidearen antijuridikotasunak hedatzen jarraitzen du, eta delitua egiten jarraitzen da; beraz, ikerketarik eza ez da iraganeko azterketa bat, gaur egungo aldarrikapen bat baizik, zuzenean agintari esku-dunak eta, oro har, gizarte osoa estatusunean jartzen dituenak.

3. ERAKUNDEEN JARDUKETA. Aurreko gogoeta kontuan hartuta, gelditasun hori arrazoitzeko saiakera orok zuzen-zuzenean dakarren egia jakiteko eta justizia izateko eskubideaz baliatzeke zailtasun erantsia, eta hori onartezina da zehaztapen juridikoei eta humanoei dagokienez. Agian, ideia hori argiago ikus daiteke, ustezko edozein desagerpenen aurrean egun erakusten den sentimendua bera agertzen bada gertaera haien inguruan hausnartzeko. Gertaera horiek zigorgabetasuna bermatuta zegoen garaian gertatu izanak, etsipenera eraman behar al gaitu? Agintariek ahalegin berezia egin behar lukete gertaera haiek zabalteko, baita egiaztatu gabe dauden baina beste ikerketa-hari batzuk aurkitzen lagundu dezaketen xehetasunak ere, betiere zehaztasun eta arduraz jokatu. Desagerpen haiek, egungo gaia sufrimenduari dagokienez, egunera ekarri behar dira gizartearen imajinarioan eta imajinario politiko-instituzionalean ere, iraganetik gaurkotasunera ekarri gertaera haren injustiziaz jabetu gaitzen eta egia jakiteko bidean beste akuilu bat izan dadin. Beraz, beste datu batzuk izanez gero ikerketa-eginbideak berriro irekitzeko aukeraz gain, agian baliteke beharrezkoa izatea Euskadiko botere publikoen egutegi ofizialean egun bat zehaztea desagertuta jarraitzen duten pertsonen aldarrikapena egin dadin, jazotako injustiziak gogorarazteko, oromenean gordezteko eta aitortzeko.

Gerora, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2010eko abenduaren 21ean onartutako ebazpen bidez, "Egia jakiteko eskubidearen Nazioarteko Eguna, giza eskubideen urraketa larriei dagokienez, eta biktimen duintasunerakoa" izendatu zuten, era solemnean, martxoaren 24a (37 urte lehenago hiru coruñarrak desagertu ziren eguna); beraz, data hori baliagarria izan liteke, urtero, desagertuak gogora ekartzeko, eta haiek non dauden jakiteko ahalegin eraginkorrak egitea eskatzen jarraitzeko.

4. HERRITARREN LAGUNTZA. Gertaera horien informazioa duten eta bizirik dauden pertsonak, anonimotasunean bada ere, *notitia criminis* hori jakitera emateko ere balio dezake txosten honek, egunez egun sortzen duen sufrimendua arintze aldera. Horregatik, jarduera-lerro instituzional proaktibo bat abian jartzea proposatzen da, desagertu horiekin loturiko gertaerei buruz informazio eguneratua emateko eta herritarrek kolaboratzera bultzatzeko, datu berriak ezagutzera eman daitezen, egiaz zer gertatu zen jakiteko eta/edo, gutxienez, Jose Humberto Fouz Escobero, Jorge Juan Garcia Carneiro eta Fernando Quiroga Veigaren gorpuak aurkitzeko.

5. GOGORA. Azkenik, txosten hau Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuan gordetzea gomendatzen da; horrez gain, beste desagertu-kasu batzuen txostenekin batera (hala nola Katedra berak 2017an egindako Perturri buruzko txostena), herritarren eskura egongo den informazio-kategoria berezi eta berezi bat osatzea, eta hari atxikitzea, proposatzen da, nabarmendu ahal izateko gertaera bidegabeak eta mingarriak direla, eta, iraganean sortuak izan arren, egun, oraindik, giza eskubideen urraketa larriak eragiten dituztela.

Bibliografia eta beste iturri batzuk

1. Bibliografia

- ANTOLIN, M., *Soares Gamboa, AGUR ETA*, Edit. Temas de hoy argitaletxea, 1997.
- CARCEDO, D., *Sáenz de Santa María, el general que cambió de bando*, Temas de hoy argitaletxea, 2004.
- HU-KO GIZA ESKUBIDEEN ETA BOTERE PUBLIKOEN KATEDRA, *Pertur kasuari buruzko txostena: gaiaren egungo egoera*, Eusko Jaurlaritza, 2017.
- CERDÁN, M. y RUBIO, A., *Lobo, un topo en las entrañas de ETA*, Plaza & Janes Editores, 2003.
- HARRIS, O'BOYLE & WARBRICK, *Law of the European Convention on Human Rights*, hirugarren argitalpena, Oxford University Press, 2014.
- LAMARCA C., "Capítulo segundo: tratamiento jurídico del Terrorismo en el Derecho Penal Español. Aproximación histórica", *Tratamiento jurídico el terrorismo*, Justizia Ministerioaren argitalpen-zerbitzua, Madril, 1985.
- MUNDO TV (Reportaje del), "El crimen más oculto de ETA" Antena 3 TV, 2005.
- SÁINZ GONZÁLEZ, J., *Testimonios de un policía español*, Sáinz González, José argitaletxea, 1993.

2. Kontsultatutako jurisprudentzia

- Konstituzio Auzitegiaren 46/1982 Epaia, uztailaren 12koa.
- Konstituzio Auzitegiaren 133/2003 Epaia, ekainaren 30ekoa.
- Konstituzio Auzitegiaren 101/2012 Epaia, otsailaren 27koa.
- 1/1974 SUMARIOA. Donostiako 3. Instrukzio Epaitegia.

3. Hemeroteka

- CIFRA, "Tres jóvenes coruñeses, residentes en Irun, desaparecidos", LA VOZ DE GALICIA. 1973ko apirilaren 6a.
- CIFRA, "Demanda judicial por la desaparición de los tres jóvenes gallegos". ABC. 1974ko urtarrilaren 3a.
- CIFRA, "ETA amenaza a tres gallegos residentes en Vizcaya". ABC. 1974ko urtarrilaren 6a.
- DOMINGUEZ, F., "Cadáveres en el armario de ETA" LA VANGUARDIA, 2000ko apirilaren 30a.
- EFE, "Los tres gallegos desaparecidos en Francia fueron asesinados por ETA" LA VOZ DE GALICIA. 1973ko maiatzaren 29a.
- EFE, "Acusan a la ETA de asesinar a los tres trabajadores gallegos desaparecidos" ABC. 1973ko maiatzaren 29a.
- EFE, "Tomás Pérez Revilla, alto jefe de la ETA, detenido en San Juan de Luz". ABC. 1974ko urtarrilaren 5a.
- EFE, "La emoción de una diputada del PSE-EE logra el consenso de la Cámara vasca para aprobar una iniciativa". EL MUNDO. 2005eko otsailaren 3a.
- EFE, "El fiscal de San Sebastián pide que se investigue el paradero de tres presuntas víctimas de ETA en 1973". EL MUNDO. 2005eko azaroaren 9a.
- EL MUNDOko erredakzioa, 2005eko uztailaren 11.
- EL MUNDOko erredakzioa, "Los tres gallegos desaparecidos, otro gran misterio de ETA. El mundo. 2005eko uztailaren 11.

EL MUNDOko erredakzioa, “Me puse muy nervioso cuando ‘Peixoto’ me dijo que les sacaron los ojos con un destornillador”, 2005eko azaroaren 7a. Elkarrizketa: Mikel Lejarza, “Lobo” / Agente infiltratua.

EL PAÍSko erredakzioa, “Concedida a Lluch la Gran Cruz de Sanidad”. EL PAÍS. 2000ko azaroaren 25a.

LA VOZ DE GALICIAko erredakzioa. “La Misteriosa desaparición de los tres jóvenes gallegos cerca de San Juan de Luz”, 1974ko urtarrilaren 4a.

LOGOS “Sin noticias de los tres gallegos agredidos en Francia”. LA VANGUARDIA. 1973ko apirilaren 29a.

PAGOLA, J. “La granja de los horrores de ETA” ABC. 20015eko otsailaren 2a.

ROJO, A., “El crimen más oculto de ETA”. CRÓNICA (EL MUNDO). 2001eko uztailaren 17a.

ROMERO, S., “El crimen más oscuro de ETA”. LA OPINIÓN A CORUÑA. 2017ko apirilaren 24a.

RUIZ, ANA, “Una senadora del PSE pregunta a Mayor por la muerte de tres jóvenes en 1973 supuestamente a manos de ETA. EL PAÍS. 1999ko martxoaren 25a.

SEMPRÚN, A., “Tres jóvenes españoles. Desaparecidos”. ABC. 1973ko apirilaren 22a.

SEMPRUN, A., “Aún no hay noticias de los tres jóvenes españoles desaparecidos”. ABC. 1973ko apirilaren 24a.

SEMPRUN, A., “No se ha investigado rigurosamente el paradero de tres españoles en Francia”. ABC. 1973ko ekainaren 1a.

SEMPRUN, A., “Renace el misterio sobre la desaparición de tres jóvenes gallegos en Francia”. ABC. 1973ko irailaren 8a.

SEMPRUN, A., “Ha surgido una posible pista en Alsasua: el conductor de un camión pudo haber sido obligado a desviarse de su ruta por uno de los terroristas”. ABC. 1973ko abenduaren 26a.

SEMPRUN, A., “La reaparición de Francisco Iturrioz en la escena ‘Etarra` inicio de la grave escalada en la violencia” El asesinato de los tres jóvenes gallegos continua impune. ABC. 1973ko abenduaren 27a.

SEMPRUN, A., “Muerto por elemento de la E.T.A. en Bayona”. ABC 1974ko urtarrilaren 8a.

SEMPRUN, A., “Pérez Revilla, detenido por violación”. ABC 1974ko urtarrilaren 10a.

Guardia Zibilaren Zuzendaritza Nagusiaren txostena epaile instrukziogileari, 1974ko apirilaren 29a.

4. Beste iturri batzuk

BARNE MINISTERIOA, “Fallecidos Terrorismo Indemnizados Ministerio Interior” Terrorismoaren Biktimei laguntzeko Zuzendaritza Nagusia.

Coral Rodríguez Fouzekin 2017ko urriaren 19an izandako telefono-elkarrizketa.

http://www.youtube.com/watch?v=PhUE_6SEGYg

<https://www.youtube.com/watch?v=pvnjh7QOfz0>





6

• dokumentua

Jose Miguel Etxeberria Alvarez
Naparraren desagertuari
buruzko txostena.
1980ko ekainaren 11n
desagertu zen

Jose Miguel Etxeberria Alvarez *Naparraren* desagertuari buruzko txostena. 1980ko ekainaren 11n desagertu zen

EHUko Giza Eskubideen eta Botere
Publikoen UNESCO Katedra



Universidad
del País Vasco



Euskal Herriko
Unibertsitatea



Giza Eskubideen
eta Botere Publikoen UNESCO
Katedra - Cátedra UNESCO
de Derechos Humanos y Poderes
Públicos de la UPV/EHU

Jon-M. Landa (zuz.)
Enara Garro (koord.)
Bertha Gaztelumendi
Mikel Anderez
Iñigo Gordon
Uxue Martín



2020ko otsaila

Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren
enkarguz egina

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Aurkibidea

Sarrera

I. *Naparra* kasuaren historia.

1. José Miguel Etxeberria, “Naparra”ren desagerpena.
2. Erreibindikazioak.
3. Batallón Vasco Español (BVE).
4. Desagerpenari buruzko hipotesia.
5. Frantziako ikerketak eta ibilbide judiziala (1980-1982).
 - 5.1. Euskal errefuxiatuei buruzko ikerketak eta Jose Arzuagaren (“Solomo”) atxiloketa.
 - 5.2. Batallón Vasco Españolak bahitu eta hil zuela dioen hipotesiarekin erlazionatutako ikerketa-eginbideak.
6. Espainiako ikerketak eta ibilbide judiziala (1999-2004).
 - 6.1. Familiak kereila jartzea eta Espainian prozedurari hasiera ematea.
 - 6.2. Erregu-eskaera Frantziari.
 - 6.3. Polizia Judizialaren eta Guardia Zibilaren txostenak.
 - 6.4. Kereila-jartzaileek eskatutako lekuko bidezko froga ukatzea.
 - 6.5. Prozesua largestea eta behin-behinean artxibatzea.
7. Auzitegi Nazionalean prozedura berriz irekitzea eta gaur egungo egoera (2016-2019).
 - 7.1. Jarduketak berriz irekitzea.
 - 7.2. Landetan egindako bilaketan ez zen ezer aurkitu.
 - 7.3. Auzia gaur egunean.
8. Aitorpen instituzionala, berandu eta ez nahikoa.

II. Azterketa juridikoa.

1. Sarrera eta erreferentziako testuingurua.
2. Giza eskubideen nazioarteko zuzenbidean desagertze behartuak ikertzeko betebeharra: Nazio Batuen estandarrak.
 - 2.1. Biktima estatusa onartzea: erantzukizun penala eta erreparazioa.
 - 2.2. Egia jakiteko eskubidea.
 - 2.3. Erreparazio osoa lortzeko eskubidea.
3. Desagertze behartuen alorreko Europako estandarrak, eta Estatuak ikerketa eraginkorra egiteko duen betebeharra.
 - 3.1. Ikerketa eraginkor bat egin beharra, bizitzeko eskubidea errespetatzen dela adierazten duen prozesuko berme gisa (GEEHren 2. art.).
 - 3.2. Ikerketa eraginkorra egiteko betebeharra tortura edo tratu anker/umiliagarriak debekatzeko berme gisa (GEEHren 3. art.): ondorioak biktimaren senideentzat.
 - 3.3. Desagertze behartuen kasuan estatuarteko lankidetzan aritu beharra.

III. Ondorioak eta gomendioak.

Kontsultatutako dokumentuen zerrenda.

Sarrera

Txosten hau Euskal Herriko Unibertsitateko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedrari eskatu zion egiteko Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak, bi erakunde horiek sinatuta duten lankidetzaren hitzarmenaren esparruan. EAEn motibazio politiko-ko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen kasu enblematikoei buruzko ikerketa-ildoak gauzatzeko eskatu ere.

Txostenak oinarritzko hiru atal dauzka: gertaeren deskribapena, jarduketa judizialen azterketa juridikoa eta amaierako zenbait ondorio eta gomendio. Txostenaren asmoa ez da izan egitateak behin betiko argituko dituen ikerketa bat egitea –horretarako ez baitu Katedrak ez eskumenik, ez ahalmenik–, baina bai gaiaren egoerari buruz ahalik eta bilketa fidagarriena egitea, eskura dauden iturriak kontuan hartuta.

Agiri hau Bertha Gaztelumendi, Mikel Anderez, Iñigo Gordon eta Uxue Martin Katedraren ikertzaileek egin dute, Enara Garro irakasleak koordinatuta eta Jon M. Landa irakaslearen zuzendaritzapean.

I

Naparra kasuaren historia

1. José Miguel Etxeberria, *Naparraren* desagertpena

1958ko apirilaren 14an jaio zen Iruñean Jose Miguel Etxeberria Alvarez *Naparra* edo *Bakunin*. Hiri horretako Jesuiten ikastetxean ikasi zuen. Nafarroako Ikasleen Batzordeko kide izan zen, zeinak frankismoaren kontrako jarduerak egiten zituen. Irakurle grinatsua zen, eta garai hartan Trotski eta Bakuninen testuak zituen irakurgai ia bakarrak. Franco hil ostean, LKlra hurbildu eta gero eta denbora gehiago eskaintzen hasi zen jarduera politikoari, eta, azkenean, bertan behera utzi zituen ikasketak. Geroxeago, ETAm-ren Bereziak komandoetako kide egin zen, eta erakundea bereizi zenean ETAm-n¹. sartzearabaki zuen. Handik gutxira, ordea, 1978ko amaieran, ETAm uztea eta Komando Autonomo Antikapitalisten kide egitea erabaki zuen, alde batetik ETAn erabakiak hartzeko zegoen egitura hierarkikoarekin ados ez zegoelako eta, bestetik, ideia libertarioagoak zituelako. Garai hartakoak dira *Naparra* edo *Bakunin* ezizenak.

1978ko abenduan Lapurdin errefuxiatu zen, Altsasun Komando Autonomo Antikapitalistek ustezko kide bat atxilotu ostean *El País*², egunkariak argitaratutako informazioaren arabera, poliziak ez zuen lortu Jose Miguel Etxeberria Nafarroako herri horretako sarekadan atxilotzea, eta muga pasatzea lortu, eta Lapurdin jarri zen bizitzen. Frantziako Estatuko bizileku-baimena lortu zuen han. Eta errefuxiatu politikoaren estatusa emateko ere behin baino gehiagotan eskatu zion OFPRari (Office Français de Protection des Réfugiés et Apatrides). *Naparrari* Komando Autonomo Antikapitalistak berregituratzeko eta berrantolatzekeo ardura egotzen zaio.

Jose Miguel Etxeberria *Naparra*, Moreno Bergaretxe *Pertur* 1976ko uztailaren 23an Behobian (Hendaia) desagertu zenetik lau urtera, desagertu zen, herri hartatik kilometro gutxira, Donibane Lohitzunen, hain zuzen ere; 22 urte zituen. Dirudienez, eta familiak diotenaren arabera, hitzordu-tranpa bat jarri ahal izan zioten *Naparrari*, Moreno Bergaretxeri gertatu zitzaion bezalaxe. Indarkeria bizia zen bi kasu horiek gertatu zirenean, eta une horretantxe, gainera, Espainiako trantsizioko³ unerik latzenetako bat ari zen bizitzen.

1980ko ekainaren 11n Jose Miguel Etxeberria dirudienez Ziburun zuen hitzordu batera joateko atera zen etxetik. Hauxe da hari buruz dakigun azkena: 14:30ak aldera ikusi zutela bere ibilgailua gidatzen, Simca 1100 marroi metalizatu bat, Baiona-Donibane Lohitzuneko errepidera sartzen ari zela. Badirudi, geroxeago, arratsaldeko 16:00ak aldera ere ikusi zutela Donibane Lohitzuneko Consolation tabernan beste norbaitekin eztabaidatzen⁴.

1980ko ekainaren 18an, Francisco Etxeberria eta Celestina Alvarez Jose Miguelen gurasoek semea desagertu zela salatu zuten Baionako Epaitegian. Hurrengo egunean, ekainaren 19an, Jose Miguelen autoa aurkitu zuten Ziburu inguruan⁵.

Ibilgailua aurkitu eta hurrengo egunean Komando Autonomo Antikapitalistek⁶ komunikatu bat argitaratu zuten eta

1 ZABALZA, R. *Voluntarios. Semillas de libertad*, Txalaparta, Tafalla, 2000, 133 y 134 orrialdeak.

2 GOÑI, F. "Desaparecido un refugiado del País vasco francés". *El País*, 1980ko ekainaren 18a.

3 SÁNCHEZ SOLER, M.: *La Transición sangrienta. Una Historia violenta del proceso democrático en España (1975-1983)*, Península, Bartzelona, 2010.

4 Auzitegi Nazionalako Instrukzioko 2. Epaitegi Zentralaren 245/1999 Aurreiazko Eginbideak, 3. folioa (I. liburukia).

5 *Ibid.*

6 Hirurogeita hamarrek hamarkadaren amaieran eratu ziren Komando Autonomo Antikapitalistak. Egitura zehaztugabea zuten talde armatu multzo bat izan zen; nagusiki, Komando Bereziak izena zuten ETA politiko-militarraren beso armatuaren zatiketa batetik sortu ziren. Uste da, laurogeiko hamarkadan berrogeita hamar bat lagunek osatzen zizutela Komando Autonomo Antikapitalistak. Ezker abertzalearen sektore batek korronte autonomoetarantz egin zuenean agertu zen Euskadiko Koordinakunde Autonomoa izenez ezagutzen dena eta horren atzetik Komando Autonomo Antikapitalistak. Baina prozesu hori, aldi berean, ezin da langile-autonomia Euskadin bizitzen ari zen esperientzietatik bereizi, zeinak puntu gorena 1976ko martxoaren 3an Gasteizen izandako gertakarietan izan zuen. Diktadura bukatu zenean, optimismo giroa sortu zen gizarte-sektore askotan, eta horrek aldaketa politikoa posible zela pentsarazi zuen. Hala ere, batzarretan sortutako gatazkak konpontzeko erabakitako eredu horrek, hau da, sindikatuek eta alderdi politikoak legezkatzeak, ez zituen asebetete, ideologia zela eta, enpresaburuekin eta erakunde ofizialekin gatazkak konpontzeko ohiko moduetatik harago joan nahi zutenak, eta "borroka armatua" zela iruditu zitzaizkien beren helburuak lortzeko irtenbide egokiena. Hala, 1977an, Talde Armatu Autonomoen Koordinakundea sortu zen "borroka armatuari" ekiteko erabakitik; zenbait taldeen artean ekintza koordinatuak egitea zen

hauxe adierazi: “*Jose Miguel Etxeberria gure taldeko kide aktibo bat da; 78an erbesteratu zen, baina ez dio borrokatzeari utzi, eta horixe dela uste dugu hura desagertzeko arrazoi nagusia*”⁷ (itzulpena da). Idazki horretan Frantziako polizia kasu argitzeko ahalegin eskasa egin zuela kritikatzeko zuten, ibilgailua hirugarren batzuek aurkitu zutelako polizia-etxe inguruan, *Naparraren* desagertzen buruzko salaketa bat jada erregistratuta zegoenean⁸.

2. Erreibindikazioak

Desagertu osteko hilabeteetan Batallón Vasco Español (BVE) bost bider adierazi zuen krimenaren egi-lea zela, eta aldi bakoitzean leku desberdin batean zegoela lurperatuta adierazi zuen⁹.

Naparra desagertu eta hamaikagarren egunetik aurrera BVEk egindako bost erreibindikazio horiek nahas-mendua nola sortu eta iruzurraren eta itxaropen faltsuen joko makabro batek nolakoa izan behar duen erakusten duen eredu on bat izan zirela esan daiteke, helburua Etxeberria non zegoen ezkutatzea izan zuena. Lehenengo erreibindikazioa ekainaren 21ean egin zen, *DEIA* egunkariari egindako dei anonimo baten bidez; BVEk bahitu zuela esan zuten. Hurrengo egunean, egunkariak bere orrialdeetan idatzi zuen komunikatuaren bidez adierazitakoa:

“*Naparra Ziburun (Frantzia) bahitu genuela erreibindikatzeko dugu. Espainian dago. ETaren azken erailketen ondoren, haren patua erabakita dago. Batallón Vasco Español da irtenbide bakarra. Gora Espainiaren batasuna. Batallón Vasco-Español, Esteban Beldarrain komandoa*”.

Handik ia 3 hilabetera, 1980ko uztailaren 3an, BVEren komando batek, *DEIA* egunkariari egindako beste telefono-dei anonimo baten bidez, ekainaren 30an *Naparra* hil eta Xantako inguruan lurperatu (Donibane Lohitzune) zutela adierazi zuen. Hauxe hitzez hitz esandakoa:

“*José Miguel Etxeberria “Naparra” ha sido ejecutado el día 30 y está enterrado cerca de Biarritz, por la zona de Txantako. Nuestros comandos seguirán actuando en Francia contra los terroristas marxistas de ETA y contra instalaciones turísticas del Sur de Francia y Costa Azul. En este orden reivindicamos el atentado contra la Plaza de Toros de Mont-de-Marsan. Volaremos otras instalaciones en el País Vasco-Francés y Costa Azul próximamente y sin avisar*”. Viva la Unidad de España. Batallón Vasco-Español, Comando Esteban Beldarrain”¹⁰.

Jendarmeriak gainetik miatu zuen ingurua, baina ez zuen pistarik aurkitu. Datu horiekin *Naparraren* gorpua aurkitu ezin izan zutenez, Etxeberriaren senitartekoei gorpua aurkitzeko argibide zehatzak emateko eskatu zien bahitzaileei¹¹.

1980ko uztailaren 16an beste komunikatu bat bidali zuen BVEk *DEIA* egunkariari; hauxe zioten han:

“*Naparraren gorpua Txantakon lurperatuta dagoela berresten dugu. Hilaren 8an, Baionako suprefetari gorpua aurkitzeko leku zehatza adierazten duen krokis bat bidali zitzaion postaz Hendaiatik*.”

Badakigu krokisa jasoa dela, eta suprefetak Frantziako Gobernuari ere eman diola horren berri. Bide batez, familiari esan nahi diogu ETako terrorista marxistek erailtzen dituztenek edo hanketan tiroak jasotzen dituztenek edo ordaindu dezaketen baino kantitate handiagoko estortzioak jasotzen dituztenek ere, zeinak dirua edonon bilatu

asmoa Euskadiko langile- eta gizarte-mobilizazioak babesteko, ikusirik, dinamika politiko eta sindikalen eraginez, gelditzen ari zirela. Ikusi txosten hau: *Bahía de Pasaia (Gipuzkoa) 22 de marzo de 1984, Informe sobre una ejecución extrajudicial encubierta*, Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UPV/EHUko UNESCO Katedra, 2019, 4. orr. [argitaragabea].

7 245/1999 Aurretiazko Eginbideak, op. cit., 3. folioa (I. Liburukia).

8 Ibid.

9 Iñigo Iruin familiaren abokatuak gogorarazi zuen urte horretako ekainaren 21etik abuztuaren 2ra bitartean bost bider hartu zuela bere gain BVEk *Naparraren* bahiketa eta hilketa. Fiskaltzari eta Auzitegi Nazionalako Instrukzioko 2. Epaitegiari auzia irekitzeko eskatu ziela jakinarazteko komunikabideen aurrean agertu zenean egin zituen adierazpen horiek Iruinek. EUROPA PRESS. “*La familia de José Miguel Etxeberria ‘Naparra’ pide la reapertura del caso 36 años después de su desaparición*”. *El Mundo*, 2016ko urriaren 1a.

10 245/1999 Aurretiazko Eginbideak, op. cit., 4. folioa (I. Liburukia).

11 RUIZ DE AZUA, V. “El Batallón Vasco Español anuncia que ha asesinado a *Naparra*”. *El País*, 1980ko uztailaren 5a.

behar duten errepresalien edo hilko dituzten beldur direlako, horiek ere badituztela gurasoak eta familiak. Kezka-tu al da inoiz ETA horiengatik? Batallón Vasco Español "José María Arrizabalaga" Gora Espainiaren Batasuna"¹².

1980 uztailaren 24an beste errebindikazio bat iritsi zen; orduko hartan, EGIN egunkariaren erredakziora. Telefono-dei baten bidez, BVEren kide zela adierazi zuen pertsona batek hauxe esan zuen:

"Naparraren gorpua hilaren 12ko gauean atera zuten jendarmek Txantako ingurutik. Miarritzeko hiru jendarme izan ziren; bi luze eta argal, 28-30 urte bitartekoak, eta bestea gizona eta handia, 24 bat urtekoa. Horietako bat guardia egiten aritu zen hilaren 13an Miarritzeko Jendarmeriaren atean".

Abuztuaren hasieran, abuztuaren 2an, alegia, EGIN egunkarian beste telefono-dei bat jaso zen, eta berriemaile anonimo batek zera adierazi zuen:

"Naparraren gorpua Daxetik hurbil, 30 bat kilometrotara dagoen San Vicente de Tirost-era eraman zuten Miarritzeko polizia-etxeko hiru jendarmek. Jendarmetako bat luzea eta handia zen, eta beste biak ba-xuagoak, 22 bat urtekoak"¹³.

Familiakoek eta boluntario askok, berriz, behin baino gehiagotan miatu zuten Txantxakoko ingurua Ziburun, baina ez zuten ezer aurkitu.

3. Batallón Vasco Español (BVE)

Diktaduraren amaieran, Carrero Blanco almiranteak sortutako Presidentziako Dokumentazio Zerbitzu Nagusiak ideologia ultradun eta militarki trebatutako mertzenario-sare bat sortzen lagundu zuen. Frankismoaren garaiko Espainian babestu ziren neofaxista italiarrak ziren asko; gerora, sare horri esker, talde hauetako kide egin ziren: Batallón Vasco Español (BVE), Aliantza Apostoliko Antikomunista (Tríplice A), Antiterrorismo ETA (ATE), Acción Nacional Española (ANE), Grupos Antiterroristas ETA (GAE), etab. Estatuko Segurtasun Zerbitzuak¹⁴ ere, sigla horien azpian kamuflaturik, Bidasoko bi aldeetan ETA guztietako kideen edo jarraitzaileen aurka egin ziren delitu-jardueretan nahastu ziren¹⁵.

Kasu horiek zigorrik jaso gabe geratzen ziren, batez ere egileak ikertzera eta atxilotzera bideratutako polizia-jardunak ez zegoelako; hartara, indartu egin ziren talde parapolizial horiek; izan ere Estatuaren babesa zuten, batez ere Ipar Euskal Herrian.

Eskuin-muturreko talde terrorista horiek bortizki jardun zuten nazionalisten eta ETako errefuxiatuen kontra, baina baita inolako esanahi politikorik gabeko herritarren kontra ere. Horixe da, esate baterako, Ladislao Zabala eta Ignacio Maria Iturbide¹⁶ Heriotzaren *triangelua* deiturikoan (Andoain, Urnieta, Hernani) hildako zenbaiten kasua. Edo 1980ko azaroaren 23an Hendayais tabernaren aurka egindako atentatua, non bi pertsona hil ziren metrailatuta eta bederatzi larri zauritu. Bik soilik zuten harremanen bat euskal errefuxiatuekin pertsona horietatik guztietatik. Egileek Irungo muga zeharkatu eta ihes egin zuten. Izan ere, mugan Manuel Ballesteros terrorismoaren aurkako borrokarako aginte bakarraz arduratzen zen komisarioarekin erlazionatzen zituen dokumentu bat erakutsi zutelako utzi zieten ihes egiten¹⁷.

12 245/1999 Aurretiazko Eginbideak, op. cit., 5. folioa (I. Liburukia).

13 Ibid. *Naparra* kasuari buruz EGIN egunkariak uztailaren 12an argitaratu zuen kronikaren arabera, suprefeturak ez zuela ez krokisik ez komunikatuari erreferentzia egiten dion gutunik jaso argitu zuen Frantziako Polizia Judizialak.

14 "Jose Antonio Saenz de Santa Maria jeneralaren arabera, atentatu horietako askok Administrazioaren sektore baten (jarduteagatik edo ez jarduteagatik) eta talde neofaxisten laguntza izan zuten". F. SOLDEVILLA, G.: *Héroes, heterodoxos y traidores. Historia de Euskadiko Ezkerra (1974-1994)*, Tecnos, Madril, 2013, 65. orr.

15 MOLINA, F./PÉREZ, J.A. "El monopolio de la violencia ilegítima: Terrorismos paraestatales y brutalidad policial" hemen: FUSI, J.P./PÉREZ, J.A.: *Euskadi 1960-2011. Dictadura, transición y democracia*, Biblioteca Nueva, Madril, 2017, 151-173 orr.

16 1979 eta 1981 bitartean zazpi pertsona hil zituzten eta zigorrik jaso gabe jardun zuten, nahiz eta agintariek nahiz inguruko bizilagunek bazeukaten haien jardueren berri; 1981eko martxoan atxilotu, eta epaitu eta kondenatu egin zituzten. Ikusi: MOLINA, F./PÉREZ, J.A. "El monopolio..." op. cit., 169.

17 WOODWORTH, P.: *Guerra sucia, manos limpias. ETA, el GAL y la democracia española*, Crítica,artzelona, 2002 31-32 orr.

1976ko uztailearen amaieran izan zen lehen aldiz BVEren berri; Eduardo Moreno Bergaretxe Perturren desagerpena eta heriotza hartu zuen bere gain. Oraindik ere argitu gabe dago kasua¹⁸. Gerora, ekintza hori bera Antiterrorismo ETA (ATE) eta Triple A¹⁹ taldeek hartu zuten beren gain. Urte haietan ohikoa zen atentatu berberak talde batek baino gehiagok erreibindikatzeko. Hala ere, denbora gutxi behar izan zen BVE lehen gerra zikinaren bastioi edo ikur bihurtzeko. Aldi horren amaiera, azterketa batzuen arabera, Jean Pierre Cherid-en heriotzak ekarri zuen. BVEren buruzagi eta funtsezko gizonetako bat izan zen, eta 1984an hil zen Miarritzen lehegailu bat prestatzen ari zela. Garai horretan, BVEko militante asko 1983an sortutako Askapenerako Terrorismoaren Aurkako Taldeen (GAL) parte izatera pasa ziren, estatu terrorismoaren edo gerra zikinaren bigarren olatu gisa.

1980. urtea izan zen indarkeria horren urterik odoltsuena. Orain aztergai dugun kasuaren erantzukizuna bere gain hartzeaz gain –hau da, Jose Migel Etxeberria *Naparraren* bahiketa eta heriotza– BVEk Carlos Saldisen ere hil zuen Lezon (Gipuzkoa) urte horretako urtarrilaren 15ean. Hilabete bereko 19an, berriz, bonba bat jarri zuen Alonsotegiko (Bizkaia) Aldama tabernan, eta eztaidaren ondorioz, lau pertsona hil eta beste zortzi larri zauritu zituzten. GAEk (Grupos Armados Españoles) hartu zuen bere gain; BVEren homonimoa zen. Oraindik ere egileak nor izan ziren ez dakigu, eta kasuak argitu gabe jarraitzen du. BVEren beste bonba batek adingabea bi anai-arreba ijito hil zituen Bilbon; neska haurdun zegoen. Ana Teresa Barrueta eta Maria Jose Bravo, horiek ere adingabeak, bortizki bortxatu eta torturatu zituzten hil aurretik, Bilbon (urtarrilaren 9an) eta Donostian (maiatzaren 8an), hurrenez hurren. Madrilen, Yolanda Gonzalez ikaslea torturatu eta hil zuten (otsailaren 1ean); ez zuen lotura politiko nazionalistarik. Urte hartan hogeitatu lagun hil zituzten eskuin-muturreko taldeek edo parapolizialek, inolako zigorrik gabe jaso gabe. Guztira, 40 hildako zenbatu dira BVEren eta haren talde “sateliteen” atentatuengatik²⁰. Kasurik gehienak argitu gabe daude oraindik, eta, beraz, egileek atxilotu gabe, auzipetu gabe eta kondenatu gabe jarraitzen dute²¹.

Sanchez Solerrek honela laburtzen du BVEren jardura:

“Zenbait urtez, ETAREN terrorismoaren aurkako gerra zikina ezkutatu zen Batallón Vasco Español (BVE) izenpean; Latinoamerikako “heriotzaren eskuadroien” antzera funtzionatzen zuen. Euskal Herrian, BVEk bonbak jartzen zituen, erakunde autonomiko eta demokratikoen aurkako atentatuak burutzen zituen, ezker abertzaleko militanteak metrailatzen zituen... Nahieran ibili zen”²².

4. Desagerpenari buruzko hipotesia

Pepe Rey kazetariak *Intxaurrondo la trama verde*²³ izeneko liburuan, BVE talde parapoliziala jo zuen *Naparraren* desagerpenaren ustezko erantzulezat. Familia ere hipotesi horren aldekoa da. *Naparraren* desagerpenaren hogeigarren urteurrenean, ARGIA aldizkariak kasuari buruzko erreportaje luze bat argitaratu zuen; gertakariaren ostean kontuan izan ziren bi hipotesiak jaso zituen²⁴.

18 GIZA ESKUBIDEEN ETA BOTERE PUBLIKOEN KATEDRA (UPV/EHU). “Pertur kasuari buruzko txostena: gaiaren egungo egoera”, *Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia*, 2017, passim.

19 MORALES, J.L./TODA, T./IMAZ, M.: *La trama del GAL*, Revolución, Madril, 1988, 30-31 orr.

20 FONSECA, C. (koord.)/GARRO, E./MARTIN, J.A./RODRÍGUEZ, J.M. (aholk.). “1960. eta 2014. urteen artean hildakoak eragindako erakunde terroristen atentatuaren auzibideari buruzko txostena. Euskal kasua”, *Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia*, 2014, 21. orr.

Txostenean, egileek diote 6 epai (% 15,00) eta behin-behineko 10 largespen baino ez daudela jasota (% 25,00). Gainerako 24 hilketetan (% 60,00), ez dakite kausen egoera prozesala zein den. Gainera, krimen horietako asko Frantziara egin zirela gehitzen dute, eta horrek asko zailtzen duela prozeduren instrukzioa kazetaritza-aipamenez haratago jarraitzea.

21 MORALES, J.L./TODA, T./IMAZ, M.: *La trama... op. cit.*, 19-32 orr eta MOLINA, F./PÉREZ, J.A. “El monopolio... op. cit.”, 168-170 orr.

22 SÁNCHEZ SOLER, M.: *La Transición sangrienta... op. cit.*, 191. orr.

23 REI, P.: *Intxaurrondo. La trama verde*. Txalaparta, Tafalla, 1997.

24 ASURMENDI, M. “*Naparra* afera. Duela hogeitatu urte desagertu zen *Naparra* Iparraldean”. Argia, 2000ko ekainaren 18a. Eskuragarri linean: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/1766/duela-hogei-urte-desagertu-zen-Naparra-iparraldean> [azken aldiz noiz sartu: 28/11/2019].

Hipotesietako batek BVERi egozten dio *Naparra* hil izana, eta dio *Escaleras* militante autonomo ohiak hartu zuela parte desagerpenean. Kontakizunaren arabera, Julio Cabezas Centeno *Escaleras* edo Mikel izenez ere ezagutzen zena, Ballesteros komisarioaren eta Jean Pierre Cherid mertzenarioaren esanetara makurtu bide zen eta *Naparraren* heriotzaren erantzule zuzena zatekeen. *Escaleras* hilda dago.

Alderdi horri dagokionez, egokia dirudi Teresa Rilok, Jean Pierre Cheriden emazteak, kontatutakoa gehitzea, *Cherid. Un sicario en las cloacas del Estado*²⁵ izeneko liburuan, haren lehengusu Julio Cabezas *Escaleras* buruz. Julio Erreterian jaio zen 1958. urtean, eta hogeitau urte bete aurretik Komando Autonomo Antikapitalisten kide egin zen. Dirudienez, aurrerago, Ipar Euskal Herrian bizi izan zen, eta, une jakin batean, ihes egin behar izan zuen handik, komando-lagunen errepresalien beldur zelako, eman zioten diru bat gastatu bide zuen eta. Cabezas Pontevedrako familiako etxean gorde zen, eta laguntza eskatu zion haren lehengusu Teresari, Madrileko etxean ezkuta zezan. Jean Pierre Cheridek ezkonlehengusua zertan zebilen jakin zuenean, Antonio Gonzalez Pacheco *Billy el Niño* laguna bidali zion Galiziako ezkutalekura. *Escaleras* atxilotu eta torturatu egin zuten. Handik egun gutxitara, poliziaak Cabezasen lau komando-kide atxilotu zituen, eta Juliori zortzi hilabeteko kartzela-zigorra ezarri zioten talde armatuari laguntzeagatik. Kartzelatik atera zenean, Madrilen jarri zen bizitzen Rilo-Cherid bikotearekin. Handik aurrera bereizezin bihurtu ziren Cherid eta Cabezas²⁶. Teresa Riloko hauxe idatzi zuen: “*No sé si Julio se convirtió en un confidente de Billy el Niño o si colaboró con el Batallón Vasco Español. Lo ignoro, aunque supongo que trabajó para Jean Pierre.*”²⁷

Bigarren hipotesiak, berriz, bere arma-kideak izan zirela dio desagerpenearen erantzule; garai hartan, ez zen ez ohikoa egoera hori. Izan ere, gerra zikinaren lehen urteetan, hirurogeita hamarrek hamarkadaren erdialdean, eskuin-muturreko taldeek, polizia-zerbitzuak tartean zirela, egindako atentatuen arreta desbideratzen saiatu ziren agintariak, guztia ETako kideen arteko kontu-garbitzeen ondorio zela esanez²⁸.

Naparraren kasuari dagokionez, EFE agintziak landu eta 1980ko ekainaren 28an zabalduak informazioaren arabera, komando autonomoek leporatzen zitzaizkien haien kidea hiltzea, nahiz eta BVEk aurretik bere gain hartuta eduki. Hemen kopiatzen dugu EFE agintziak argitaratutakoa osorik:

“*José Miguel Etxeberria, alias ‘Naparra’ y ‘Bakunin’, ha sido asesinado posiblemente por sus propios compañeros de los comandos autónomos, según ha manifestado a EFE, en Madrid, fuentes de toda solvencia del País Vasco francés. Al parecer, según estas fuentes, José Miguel Etxeberria, desaparecido el 11 de junio del sur de Francia, viajó ese día a Bruselas en compañía de José Luis Arzuaga Amundarain, alias ‘Solomo’, con actual residencia en Burdeos, con el encargo de comprar armas en la capital belga. El Batallón Vasco Español se responsabilizó el pasado domingo, día 22, del secuestro de José Miguel Etxeberria*”²⁹.

Informazioaren sendotasuna eta sinesgarritasuna zalantzan geratzen dira; izan ere, ez zuten argitu informazio horren iturburua zein zen, txosten honen bosgarren puntuan aztertuko dugun moduan Garai hartako prentsak ere ez zion jarraipenik egin berri horri, ikusi ahal izan denez. Horrenbestez, familiak eta Komando Autonomoek gezurtatu egin zuten berria, *EGIN* egunkarian 1980ko uztailaren 17an argitaratu zuten oharrean.

Familiak horri buruz hauxe dio: *Naparrak “ekainaren 11n hitzordu bat zuen norbaitekin, baina ez dago garbi hitzordu horretara joan zen edo ez”*. *ARGIA* astekariaren erreportajearen beste atal batean esaten da ETA militarrek behin baino gehiagotan esan ziola familiari ez zuela zerikusirik izan *Naparraren* desagerpenearekin³⁰.

Komunikabideetan argitaratutakoa eta egin diren kazetaritza-ikerketak ikusita, ez dago ziurtasunik desagertu aurreko orduak nolakoak izan ziren eta non desagertu zen jakiteko. Sinesgarriagoa da, ordea, krimenaren egilea: alde batetik, BVEk behin eta berriz egindako aldarrikapenek, eta, bestetik, CESIDeko agente ohi

25 PASCUAL, A.M./RILO, T.: *Cherid. Un sicario en las cloacas del Estado*, Garaje Ediciones, Madril, 2019, 137-152 orr.

26 PASCUAL, A.M./RILO, T.: *Cherid... op. cit.*, 137-152 orr.

27 PASCUAL, A.M./RILO, T.: *Cherid... op. cit.*, 142 orr.

28 BABY, S.: *El mito de la transición pacífica. Violencia y política en España (1975-1982)*, 586 orr.

29 EL PAÍS. “Asesinado un miembro de los comandos autónomos”. *El País*, 1980ko ekainaren 28a.

30 ASURMENDI, M. “*Naparra* afera. Duela hogeitau urte desagertu zen *Naparra* Iparraldean”. *Argia*, 1980ko ekainaren 18a. Eskuragarri linean: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/1766/duela-hogei-urte-desagertu-zen-Naparra-iparraldean> [azken aldiz noiz sartu: 28/11/2019].

batek gerra zikinaren egiturari buruz eman dituen azken informazioek –kasua berriz irekitzea eragin dute– akusazio-balantza noranzko horretara okertzen dute nabarmen.

5. Frantziako ikerketak eta ibilbide judiziala (1980-1982)

Lehenengo salaketa Etxeberriaren familiak jarri zuen 1980ko ekainaren 17an Baionako epaitegian, hura desagertu eta sei egunera. Ekainaren 27an, *Naparraren* familiak aurkeztutako salaketaren ostean, Frantziako Fiskaltzak ikerketa judizial bat hasteko eskatu zion Baionako Instantzia Handiko Auzitegiari ustezko legearen aurkako atxiloketa eta bahiketa delitu bat egin ahal izan zelako³¹. Baionako Instrukzioko epaile Larqué jauna auziaren instrukzioa egiten hasi zen, eta zenbait ikerketa-eginbide egiteko agindu zion polizia.

Frantziako poliziaren ikerketak, neurri handi batean, komando autonomoen barruan izandako “kontu-garbitzearen” hipotesiari heldu zion. Hala, Bordeleko Polizia Judizialaren inspektoreburuak agintaritza judizialari bidalitako ikerketaren ondorioen idazkian ukatu egin zuen laburki *Naparra* Espainiako eskuin-muturrak desagerrarazi zuela zioen hipotesia, bi arrazoiengatik: alde batetik, desagerepenak ez zuelako zalaparta handirik sortu euskal errefuxiatuen artean, eta, bestetik, desagerepen hori ez zetorrelako bat eskuin-muturrak “erabiltzen zituen metodoekin”³².

Jarraian, Frantzia egin zen polizia-ikerketaren gertaera garrantzitsuenen errebaso laburra egingo dugu. Bordeleko Polizia Judizialak egin zuen ikerketa (*Service régional de Police judiciaire*); Polizia Nazionalaren Zuzendaritza Nagusiaren mendekoa da (*Direction Générale de la Police Nationale*) Bordeleko Polizia Judiziala. Arroxelako Polizia Judizialeko funtzionarioen eta Donibane Lohitzuneko Udaltzaingoaren laguntza izan zen ikerketan.

Desagertu eta egun batzuetara, BVEren zenbait komunikatu argitaratu ziren prentsan; komunikatu horietan esaten zuten haiek bahitu eta hil zutela *Naparra* eta haren gorpua Txantakon lurperatu zutela (Donibane Lohitzune). Hala ere, egoera horrek ez zuen bultzatu Polizia frantsesa ikerketak norabide horretan bideratzea, hipotesi hori egiaztatzeko eginbiderik ia ez zegoelako.

Desagertu eta astebetara, ekainaren 19an, Frantziako Poliziak Simca 1100 autoa aurkitu zuen Ziburuko aparkaleku batean; abokatu batek adierazi zien autoa non zegoen, abokatu horrek dei anonimo bat jaso baitzuen *Naparraren* autoa non zegoen esan ziona. Autoa ate guztiak itxita zituela agertu zen, maletategiko atea izan ezik. Zenbait objektu aurkitu zituzten desagertuaren ibilgailua miatu zutenean; nabarmentze-koak, aitzur bat eta metalezko pala bat kirtena hautsita zuela³³. Zoritxarrez, ez dago jasota ibilgailua miatu zutenean aurkitutako objektuak aztertu zirenik, ez eta peritu-egiaztapenik egin zenik ere, berrosatutako dokumentua izan ezik Txikitutako dokumentu bat aurkitu zela ere jasota dago; poliziak berrosatu egin zuen, eta eskuz idatzitako bi izen zituen: Jokin eta Ana. Kontu-garbitzearen hipotesia iradokiko luke, itxura guztien arabera, berrosatutako dokumentu horrek, bi erreferentzia baitzituen; hauxe zioen hitzez hitz: “*gastar el dinero del Comando y responsabilidad del comando* [Jokini erreferentzia eginez]” eta “[Ana] *habla demasiado, gasta el dinero con Jokin. Acusa a Jokin de la falta cometida por ella*”³⁴. Ez dago jasota, ordea, dokumentuari peritu-azterketa egin ziotenik nork idatzi zuen egiaztatzeko³⁵. *Naparraren* aitak, aldiz, hasierako lekukotza-deklarazioan adierazi zuen ez zela bere semearen letra, baina beste dokumentu batekoa bazela adierazi zuen³⁶.

31 Larqué epailearen 66/80 Instrukzioa, Baionako Instantzia Handiko Auzitegia.

32 Bordeleko Polizia Judizialaren inspektorearen 1981eko ekainaren 5eko idazkia. 245/1999 Aurretiazko Eginbideak, *op. cit.*, 713-515. folioak (III. Liburukia).

33 Zigilu-agiria, 245/1999 Aurretiazko Eginbideak, *op. cit.*, 703. folioa (III. Liburukia).

34 245/1999 Aurretiazko Eginbideak, *op. cit.*, 786-787. folioak (III. Liburukia).

35 Sumarioan dokumentuaren edukiarri buruzko erreferentzia orokor bat soilik dago jasota, ez dokumentua bera.

36 Francisco Etxeberria *Naparraren* aitaren deklarazioa, 1980ko uztailearen 3koa. 245/1999 Aurretiazko Eginbideak, *op. cit.*, 149-150. folioak (I. Liburukia).

5.1. Euskal errefuxiatuei buruzko ikerketak eta Jose Arzuagaren (“*Solomo*”) atxiloketa

Frantziako poliziak egindako ikerketaren ondorio-idazkian jasotzen denez, “kontu-garbitzearen” hipotesiak bildu zuen Frantziako ikerketa guztia³⁷. Poliziak hamar lagun baino gehiagori egin zien galdeketa; guztiak Iparraldean bizi ziren euskal errefuxiatuak edo haiekin harreman estua zutenak. Hipotesi hori onartu zen hasieran, nahiz eta biktimaren senideek hasiera-hasieratik esan zuten BVE³⁸ izan zela bahiketaren egilea eta hori zela “tesi sinesgarri bakarra”. Kontuan hartzekoa da erakunde horrek publikoki errebindikatu zuen bahiketa, eta, bestetik, Komando Autonomoek irmoki gezurtatu zutela zerikusirik izan zutenik *Naparraren* desagertzearekin eta gertaerak argitzeko eskatu zutela³⁹.

EFE agentziak zabalduko “kontu-garbitzearen” hipotesiak Jose Arzuaga (alias *Solomo*) seinalatzen zuen. Hipotesi horren arabera, *Naparra* Bruselara joan bide zen harekin erakunderako armak erostera. Frantziako poliziak galdekatu eta Solomoren Bordeleko etxea miatu zuen, baina ezin izan zen hipotesi hori babestu gauzatutako eginbideekin. Arzuagak, atxilotu eta galdekatu zutenean, ukatu egin zuen Komando Autonomoetako kide zela eta *Naparrarekin* Belgikara joan izana, eta, gainera, egiaztatu egin zezakeela adierazi zuen, ez zuelako sekula lanera hutsik egin. Era berean, bera bahiketarekin nahasi zuen EFEK zabalduko informazioa Espainiako poliziak “nahastea” sortzeko gauzatutako kanpaina bat zela adierazi zuen⁴⁰. Alde horretatik, aipatu behar da Frantziako polizia Espainiako EFE albiste-agentziarekin jarri zela harremanetan “kontu-garbitzearen” hipotesiari buruzko informazio osatzeko, baina informazioa Frantziatik zetorrela, iturria sekretua zela eta ezin zuela ezagutzera eman adierazi zuela soilik agentziako zuzendariordeak⁴¹.

Ondorengo egunetan, poliziak *Naparraren* gertukoena ikertzen jarraitu zuen. Euskal errefuxiatuak eta *Naparra* bera ibiltzen ziren tabernetako langileei hartu zieten deklarazioa. Batzuk *Naparra* ezagutzen zutela eta desagertu aurreko egunetan ikusi zutela deklaratu zuten, baina “nahikoa mesfidatia” zela esateaz aparte, ez zuten desagertzea argitzen lagun zezakeen informaziorik eman⁴².

Naparraren Simca autoa Ziburuko Erdian egoitzaren aurrean aparkatuta egon zela zioten zenbait informazio jaso zirenez, poliziak etxebizitza hura miatu, eta lehergailuak eta beste frogak aurkitu zituen bertan. Aurkitutako frogak etxebizitzako bost bizilagunak “Frantziako ministerioaren aginduz debekatutzat jotako elkarrekin bateko” kide zirela susmarazten zutenez, atxilotu egin zituzten⁴³. Baina ez dirudi atxiloketa horiek *Naparraren* desagertzearekin erlaziorik zutenik, eta ez dago jasota ikerketa-ildo hori jarraitu zenik.

5.2. Batallón Vasco Españolak bahitu eta hil zuela dioen hipotesiarekin erlazionatutako ikerketa-eginbideak

Jakin izan dugunaren arabera, Jean Pierre Foixeti deklarazioa hartzea izan zen (1981eko maiatzaren 25ean) Frantziako poliziak BVEren egiletzaren hipotesiari buruz egindako ikerketa-eginbide bakarra. Sain-teseko (Charente Maritime) espetxean zegoen Foixet, 1980ko ekainean izan zen Mont-de-Marsaneko zezen-plazaren kontrako atentatuagatik. Polizia-eginbideetan galdeketa zergatik egin zitzaion jasota ez datarren arren, pentsa daiteke BVEk *Naparraren* bahiketa errebindikatzeko egindako komunikatuetako batean zezen-plazaren aurkako atentatua ere bere gain hartu zuelako egin ziotela galdeketa, bi gertaerak denbora bertan izan baitziren. Deklarazioa laburra eta hutsala izan zen, Foixetek ukatu egin baitzuen BVErekin

37 245/1999 Aurretiazko Eginbideak, *op. cit.*, 714. folioa (III. Liburukia).

38 Francisco Etxeberria *Naparraren* aitaren deklarazio-akta, 1980ko uztailaren 3koa. 245/1999 Aurretiazko Eginbideak, *op. cit.*, 742-744. folioak (III. Liburukia).

39 Komando Autonomo Antikapitalisten adierazpena; 1980ko urrikoa. 245/1999 Aurretiazko Eginbideak, *op. cit.*, 825. folioa (III. Liburukia).

40 Jose Luis Arzuagaren deklarazioak, 1980ko ekainaren 30ekoa eta uztailaren 1ekoa. 245/1999 Aurretiazko Eginbideak, *op. cit.*, 788. folioa eta hurrengoak (III. Liburukia).

41 1980ko uztailaren 2ko informazio-akta. 245/1999 Aurretiazko Eginbideak, *op. cit.*, 770. folioa eta hurrengoak (III. Liburukia).

42 Francis Darjo Maitena tabernako zerbitzariaren 1981eko otsailaren 14ko deklarazioak. 245/1999 Aurretiazko Eginbideak, *op. cit.*, 723. folioa eta hurrengoak (III. Liburukia). Danielle Múgica Consolation tabernako zerbitzariaren 1981eko uztailaren 11ko deklarazioa ere bai, hemen: 245/1999 Aurretiazko Eginbideak, *op. cit.*, 729. folioa eta hurrengoak (III. Liburukia).

43 Jakinarazpen- eta miaketa-akta, 1980ko uztailaren 3koa. 245/1999 Aurretiazko Eginbideak, *op. cit.*, 757. folioa eta hurrengoak (III. Liburukia).

loturarik zuenik, eta zezen-plazaren aurkako atentatua ekintza indibiduala izan zela adierazi zuen, zezenketen aurka zegoelako⁴⁴.

Ikerketa artxibatu egin zuten Frantzia, urte eta erdian alferrikako ikerketa-lanetan aritu ondoren. Jarduketak artxibatze eskatu zuen Fiskaltzak, poliziaren txosten laburra ikusita, zeinak urte eta erdian egindako eginbideek izandako emaitza eskasa jasotzen baitzuen. Artxibatze eskaperan, Fiskaltzak ohiz kanpoko biribiltasunez adierazi zuen “Bordeleko Polizia Judizialaren Eskualdeko Zerbitzuak egindako ikerketen ondoren, [*Naparra*], zalantzarik gabe, bere erakundearen barruko kontu-garbitze baten biktima izan”⁴⁵ zela eta, beraz, bere egin zuen “kontu-garbitzearen” hipotesia. Ikerketa artxibatu egin zuen Cousteaux Baionako Instrukzioko epaileak 1982ko otsailaren 10ean emandako ebazpen labur baten bidez, zeinetan fiskalak eskatutakoa errepikatzen zuen⁴⁶.

6. Espainiako ikerketak eta ibilbide judiziala (1999-2004)

Frantziako agintari judizialek 1982an auzia artxibatu eta ikerketa ez aurrera ez atzera geratu zen, eta halaxe egon zen hamazazpi urtean, zehazki 1999an Jose Miguel Etxeberria Alvarezen familiak Espainiako jurisdikzio penale-
ra jo zuen arte. Atal honetan sumarioa aztertu ondoren atera diren prozeduraren une garrantzitsueni heldu nahi zaie⁴⁷. Une nagusietan jarriko da arreta, kontuan hartuz gero egingo den analisi juridikoa izango dela jomuga.

6.1. Familiak kereila jartzea eta Espainian prozedurari hasiera ematea

1999ko irailaren 13an *Naparraren* familiak kereila bat jarri zuen Espainiako Auzitegi Nazionalako Instrukzioko 2. Epaitegi Zentralean. Kereilaren edukiar dagokionez, txosten hau egiteko garrantzitsuenak irizitako alderdiak nabarmenduko dira jarraian.

Lehenik eta behin, BVEk⁴⁸ kidea edo kideak edo haren kolaboratzaileak aipatzen dira 1973ko Zigor Kodearen 480. artikuluan eta hurrengoetan jasotako legearen aurkako atxiloketa-delituaren eta ZKren 406. artikuluan oinarritutako hilketa-delituaren ustezko egile gisa –behin behineko kalifikazioan–, kontuan hartuz kereilaren laugarren apartatua jasotako gertakari-zerrenda⁴⁹.

Bigarrenez, kereilarekin batera hiru dokumentu gehitzen dituzte kereila-jartzaileek: 1.- Frantziako jurisdikzio penalean egindako jarduketaren kopia arrunta; 2.- Prentsa-dosierra; 3.- BVEk sinatutako bi komunikaturen kopia, zeinak 1980ko uztailaren 3an eta 1980ko uztailaren 16an argitaratu ziren.

Hirugarrenez, gertaerak egiazta zitezen, auzitegiari eskatu zitzaion kereila izapidetzea onartzeko, aurretiazko eginbideak abiarazteko, eta egoki iruditutako eginbideak egiteko, honako hauek berezik⁵⁰: Baionako Instan-

44 Jean Pierre Foixeti egindako galdeketa-akta, 1981eko maiatzaren 25ekoa. 245/1999 Aurretiazko Eginbideak, *op. cit.*, 719. folioa eta hurrengoak (III. Liburukia).

45 Paueko Lurralde Auzitegioko fiskalaren 1982ko otsailaren 9ko idazkia. 245/1999 Aurretiazko Eginbideak, *op. cit.*, 705-706. folioak (III. Liburukia).

46 245/1999 Aurretiazko Eginbideak, *op. cit.*, 708. folioa (III. Liburukia).

47 Auzitegi Nazionalako Instrukzioko 2. Epaitegi Zentralaren 245/1999 Aurretiazko Eginbideak.

48 Zehazki, kereilaren hirugarren apartatua haxe dator idatzita: “*El/los querellado/s es/son la persona o personas que resulten responsables de los hechos que a continuación se narran, ignorándose por el momento sus circunstancias, sobre las que, inicialmente, sólo cabría indicar, que estarían integradas en el autodenominado Batallón Vasco Español, o colaborarían en su funcionamiento, financiación u organización, facilitando infraestructura, medios económicos, armamento, información sobre objetivos, y todo aquello que fuera necesario para la ejecución de las acciones delictivas y para garantizar su impunidad*”. 245/1999 Aurretiazko Eginbideak, *op. cit.*, 2. folioa (I. Liburukia).

49 Kereilako gertakarien zerrenda horretan txostenaren aurreko atalen egindako kontakizun faktikoan jasotako informazio bera jasotzen da funtsean.

50 Ikusi kereilaren bosgarren apartatua. 245/1999 Aurretiazko Eginbideak, *op. cit.*, 6-7. folioak (I. Liburukia).

tzia Handiko Auzitegiari erregu-eskaera bidaltzea, 66/80 zenbakiko prozeduraren lekukotza osoa bidal zezan (a) –aurretik aipatu da prozedura hori–, eta lekukotzaren itzulpena egitea (b); Polizia Judizialaren Komisaria Nagusiari eta Guardia Zibilarren Zuzendaritza Nagusiaren Informazio Zerbitzuko Buruzagitzari ofizioa bidaltzea, BVeri buruzko txostena bidal zezaten eskatzeko (c eta d), eta *DEIA* egunkarira ofizioa bidaltzea, 1980ko ekainaren 22ko, 1980ko uztailaren 4ko eta 1980ko uztailaren 17ko edizioen aleak eta BVEk egunkari horretara bidalitako eta egun horietan argitaratutako jatorrizko komunikatuak edo kopiak bidal zitzaizkion eskatzeko (e).

Kereila aurkeztu ondoren, Aurretzako Eginbideak hasteko autoa eman zuen Ismael Moreno epaileak 1999ko irailaren 16an, eta kereila-jartzaileek eskatutako eginbide guztiak egiteko eskatu zuen, 1999ko urriaren 1ean emandako ebazpenaren bidez⁵¹.

6.2. Erregu-eskaera Frantziari

Frantziari erregu-eskaera egitea izan zen hasieratik eskatu zen ikerketa-eginbidetako bat, lurralde horretan egindako jardueren berri bidaltzeko eskatzeko. Erregu-eskaera 1999ko urrian egin bazen ere, Frantziako auziari buruzko dokumentazioa ez zen Ismael Moreno epailearengana 2000. urtearen erdialdera arte iritsi. Lehenengo errekerimendua egin eta erantzunik jaso ezenez, nazioarteko erregu-eskaera betetzeko eskatu behar izan zen 2000ko urtarrilaren 14an⁵². Frantziako agintariak urte bereko otsailaren 23an erantzun zioten erregu-eskaera horri, eta adierazi zuten ezin izan zutela prozedura hori aurkitu⁵³. Azkenik, maiatzaren 25eko data zuen hirugarren errekerimendu baten bidez –akusazioak kereila-idazkian aurkeztu zuen Frantziako kausari buruzko dokumentazioaren kopia erantsi zitzaion laguntza modura–, Baionako Instanzia Handiko Auzitegiak bideratutako 66/80 prozedura bidali zuten, eta abian zen Espainiako auzian sartu zen.

6.3. Polizia Judizialaren eta Guardia Zibilarren txostenak

1999ko urriaren 1eko autoaren bidez, Instrukzioko 2. Epaitegi Zentraleko Ismael Moreno Chamarro epaile-magistratuak ofizioa bidali zien Polizia Judizialaren Komisaria Nagusiari eta Guardia Zibilarren Zuzendaritza Nagusiaren Informazio Zerbitzuko Buruzagitzari txosten bana egin eta bidaltzeko eskatzeko (aurrerantzean “Poliziaren txostena” eta “Guardia Zibilarren txostena”), alde batetik, BVE autoizendatutako taldeari buruz eta, bestetik, *Naparraren* bahiketari buruz zuten edozein datu argitzen laguntzeko. BVeri dagokionez, erakunde horrek errebindikatutako atentatuen zerrenda bat egiteko eta hura osatzen zuten ustezko kideen zerrenda bat egiteko eskatzen da berariaz, baina ez hori bakarrik.

Polizia Judizialeko Komisaria Nagusiari zuzendutako ofizioari dagokionez, 1999ko urriaren 11n, *Informazio-komisaria Nagusiaren Idazkaritza Teknikoak* epaitegitik urriaren 1ean jasotako idazkia bidali zion *Inteligentziako Unitate Zentralari* (IUZ) gai honi buruz zekien guztiaren berri eman ziezaion Idazkaritza Teknikoari. 1999ko azaroaren 2an erantzun zion eskaerari IUZk txosten batean. Hurrengo egunean helarazi zion txosten hori Informazioko Komisaria Nagusiari Ismael Moreno Chamarro magistratu-epaileari, eta 245/99-I Aurretzako Eginbideetara gehitu zuen epaileak 1999ko azaroaren 13ko probidentzia bidez. Aurretzako eginbide horiei 1999ko irailaren 16ko autoaren bidez eman zitzaizkien hasiera. Txosten horri Donostiako Polizia Etxeko Probintziako Informazio Atalak 1981eko martxoaren 12an bideratutako 88. zenbakiko eginbideak ere gehitu zitzaizkion, zeinak azterketa honetarako eduki interesgarriak eman ahala xehatu eta laburtuko diren. Osagarri gisa, 1980ko uztailaren 4an *DEIA* egunkaria⁵⁴ argitaratutako berri bat ere gehitzen da; izan ere, jasota dagoenez, *Naparraren* bahiketari buruz ez dago egunkari horretan argitaratutakoak baino datu gehiago. Guardia Zibilarren Zuzendaritza Nagusiko Informazio Zerbitzuko Buruzagitzari zuzendutako ofizioari dagokionez, *1. zenbakidun Unitate Zentral Berezia* (UCE- 1) arduratu zen eskatutako txostena egiteaz, 1999ko urriaren 1ean Epaitegiak eskatutakoa bete zedin. 1999ko azaroaren 16ko data du unitate

51 Auzitegi Nazionalaren Instrukzioko 2. Epaitegi Zentralaren autoa, 1999ko urriaren 1ekoa. 245/1999 Aurretzako Eginbideak, *op. cit.*, 65-66. folioak (I. Liburukia).

52 Auzitegi Nazionalaren Instrukzioko 2. Epaitegi Zentralaren probidentzia, 2001eko urtarrilaren 14koa. 245/1999 Aurretzako Eginbideak, *op. cit.*, 291. folioa (I. Liburukia).

53 Auzitegi Nazionalaren Instrukzioko 2. Epaitegi Zentralaren probidentzia, 2001eko urtarrilaren 14koa. 245/1999 Aurretzako Eginbideak, *op. cit.*, 291. folioa (I. Liburukia).

54 *DEIA*. “El Batallón Vasco-Español afirma que ha dado muerte a *Naparra*”. *DEIA*, 1980ko uztailaren 4a.

horrek egindako txostenak. Ismael Moreno Chamarro magistratu-epaileak 245/99-I Aurretiazko Eginbideei gehitu zien txostena azaroaren 18an emandako probidentzia bidez.

Une honetan, «Poliziaren txostenak»⁵⁵ eta «Guardia Zibilaren txostenak»⁵⁶ zer dioten jakiteko geldialdi bat egitera goaz. Biak ere labur idatzita daude eta antzeko egitura dute, eta, beraz, batera aztertuko ditugu puntuz puntu. Poliziaren txostenak modu abstraktuan aipatzen du ezker abertzaleari lotutako ondasun edo pertsonen aurka egindako atentatu batzuk izan zirela Euskal Herrian eta Frantzian 1978-1982 bitartean. Txostenean jasotzen da ohikoa zela era horretako atentatuak eskuin-muturreko talde biolento batek edo batzuek hartzea beren gain, tartean, BVEk, bai telefono-deien bidez bai euskal egunkarietara bidalitako idazkien bidez. Baina ez dute BVEk bere gain hartutako delitu-egitateen zerrendarik gehitzen; Guardia Zibilaren txostenak, ordea, bai. Guardia Zibilak hildako hamar biktimaren⁵⁷, zortzi zaurituen⁵⁸, eztanda egindako bost lehegailuren eta garaiz desaktibatu ahal izan zen beste baten berri ematen du⁵⁹. Baina, egia esan, bai Poliziaren txostenak bai Guardia Zibilarenak Ladislao Zabala Solchaga eta Ignacio Iturbide Alcain ustez BVEko militanteak aipatzen dituzte atentatu horien eta aldarrikatu gabeko beste batzuen egile edo ustezko egilezat. 1981eko martxoaren hasieran atxilotu zituzten biak⁶⁰, baina ukatu egin zuten BVEren kide zirela. 1985ean kondenatu zituen Auzitegi Nazionalak⁶¹. Azkenik, *Naparrari* buruz BVEk haren bahiketa eta heriotzari buruz egindako erreibindikazioez gain ez dagoela informazio gehiagorik jasotzen da bi txostenetan⁶². Era berean, Komando Autonomoek *DEIA* egunkariari bidalitako komunikatu bat ere aipatzen da bi txostenetan, zeinetan zalantzan jarri baitzuten BVEren erreibindikazioa, eta ETA militarri egotzi *Naparra* bahitu eta hil izana⁶³. Gainerakoan, ez dago informazio gehiagorik kasuari buruzko ikerketak Frantzian egin zirelako.

Donostiako Polizia Etxearen Probintziako Informazio Atalak 1981eko martxoaren 12an bideratutako 88 zenbakiko eginbideei dagokienez (horien kopia osoa lehen aipatutako txostenetako lehenengoari erantsita dago⁶⁴), deklarazio-, aitorten-, sarrera- eta erregistro-aktak dira nabarmentzekoak, bai eta eskuin-muturreko erakunde armatuak eta, bereziki, BVEk beren gain hartutako delitu-jarduerekin nolabait erlazionatutako zenbait atxilotu kontrolatu zituztela ere. Interes gehien izan dezaketen artean, Ladislao Zabala Solchaga⁶⁵

55 245/1999 Aurretiazko Eginbideak, *op. cit.*, 205-206. folioak (I. Liburukia).

56 245/1999 Aurretiazko Eginbideak, *op. cit.*, 272-275. folioak (I. Liburukia).

57 BVEk bere gain hartutako hamar biktima horietatik zazpi *Naparra* desagertu zen urte berean izan ziren. Hemen biktimen zerrenda; kronologikoki ordenaturik daude, heriotza eragin zuen atentatuaren dataren arabera: Ignacio ECHAVE OROBENGOA (1975.10.05), Martín MERQUELANZ SARRIEGUI (1978.05.23), Tomás ALBA IRAZOSTA (1979.09.28), Carlos SALDISE CORTA (1980.01.16), Jesús María ZUBICARAY BADIOLA (1980.02.02), Felipe SAGARNA ORMAZABAL (1980.04.19), Luis ELIZONDO ARRIETA (1980.09.07), Miguel María ALBALAIZ ECHEVARRÍA (1980.09.07), Joaquín ANTIMASBERES ESCOZ (1980.11.14) eta Francisco Javier ANSA CINCUNEGUI (1981.03.03).

58 Bat izan ezik, gainerako guztiak 1981eko urtarrilaren 24an Berrizeko (Bizkaia) "Conexo-Etxe" tabernan jarri zuten lehegailuak eztanda egin zuenean zauritu ziren. Hauek dira atentatu horretan zauritu zirenak: Lourdes GARROCHASTEGUI URÍA, Máximo GARCÍA SÁNCHEZ, Petra CONCEPCIÓN TENA, Pedro GALINDO PADILLA, María CONCEPCIÓN TENA, Aurelio CONCEPCIÓN CANO eta Ana TENA LASO. Zortzigarren zurtia, Andres ECHEVARRIA ECHEVARRIA, 1980an Joaquín Antimares Escos hil zutenean zauritu zuten.

59 Lehenengoa Donostian zegoen Eusko Kontseilu Nagusiaren egoitzan jarri zuten (1979.08.10ean); bigarrena Trapagaraneko Batzokian (1979.12.07); hirugarrena, Miarrizko turismo-bulegoan (1980.06.28); laugarrena, Baionako taberna batean (1980.09.15), eta bosgarrena Berrizeko Conexo-Etxe tabernan (1980.01.24). Seigarrena eta azkena –garaiz desaktibatu zuten– auto partikular baten azpian jarri zuten, Hendaian.

60 RUIZ DE AZUA, V. "Detenidos dos presuntos miembros del Batallón Vasco-Español, posibles autores de siete asesinatos". *El País*, 1981eko martxoaren 5a. Ignacio Iturbide Alcain 1998an atxilotu zuten berriz, armak zilegi ez den moduan edukitzeagatik. Ikusi PINAZO, F. "Detenido en Valencia un ex miembro del Batallón Vasco Español". *El País*, 1998eko martxoaren 14a.

61 YOLDI, J. "Iturbide y Zabala, del Batallón Vasco Español, condenados a 231 años de cárcel cada uno por siete asesinatos". *El País*, 1985eko ekainaren 26a.

62 Poliziaren txostenak, hori bai, *DEIA* egunkarian argitaratutako berri bat nabarmentzen du. Berri horretan jasotzen da 1980ko uztailean 3an telefono-dei bat jaso zela egunkari horretara, eta Esteban Beldarrain (BVE) komandoaren izenean ari zela adierazi zuen ahots batek *Naparra* ekainaren 30ean hil zutela eta "Txantako" inguruan lurperatu zutela jakinarazi zuela *DEIA* "El Batallón Vasco-Español... *op. cit.* BVEren erreibindikazioaren laburpen bat sumario 46. eta 47. folioetan dago jasota, eta *DEIA*n argitaratutako berria 261. eta 262. folioetan (I. Liburukia).

63 Halaber, ikusi: GONZÁLEZ, A. "Los comandos autónomos dudan del secuestro de "Naparra"". *El País*, 1980ko uztailean 11.

64 245/1999 Aurretiazko Eginbideak, *op. cit.*, 207-260. folioak (I. Liburukia).

65 245/1999 Aurretiazko Eginbideak, *op. cit.*, 212-220. folioak (I. Liburukia).

eta Ignacio Iturbide Alcainen⁶⁶ 1981eko martxoaren 6ko deklarazioen aktak dira aipatzekoak. Deklarazio-akta horietan, Zabalak eta Iturbek diote ez bakarrik ez direla BVEren kide, baizik eta ez dakitela BVE egitura terrorista antolatua gisa existitzen denik ere. Hala ere, BVEren izenean zenbait atentatu erreibindikatu zituztela adierazi zuten, eta horien inguruko galdeketa ere egin zieten. ETari aurre egiteko asmoa zutela argudiatuta justifikatzen duten haien borroka armatua. Zehazki, bazirela adieraztea eta talde terrorista urduritzea zela asmoa. Erakunde horren aurkako kanpaina bereziaren parte zen dena. Gainera, haien iritziz, BVE ez da existitzen erakunde egituratu gisa, haren zigilua ekintza askok zutela soilik adierazi zuten, baina sigla horiekin bat zetorren afinitate ideologiko batetik haratago beste ezer esan nahi gabe. Horrenbestez, ziurtatzen dute haien baliabideekin ordaindutako borroka armatua erabili izan dutela beti, inolako azpiegiturari lotu gabea⁶⁷.

6.4. Kereila-jartzaileek eskatutako lekuko bidezko froga ukatzea

Kereila-jartzaileek lau lekukori deklarazioa hartzeko eskatu zuten unea izan daiteke prozedura honetan, ikuspuntu juridikotik, interes gehien piztu dezakeen uneetako bat. 2002ko irailaren 2ko idazkiaren hirugarren apartatuan, Ismael Moreno epaileari eskatzen zitzaion onartzeko lau lekukoren adierazpenak ikerketa-eginbide gisa: José Antonio Sáenz de Santamaría, Juan Antonio González Pacheco (“Billy el Niño” ezizenez ezagutzen zen), Manuel Ballesteros García eta José Luis Fernández Dopico⁶⁸ziren lau lekukoak.

Akusazio partikularren proposamen hori, ordea, ukatu egin zen 2003ko apirilaren 28ko autoaren bitartez⁶⁹, Fiskaltzak ere lekuko bidezko froga horiek ez egiteko txostena egin zuen.

Auto horretan, Ismael Moreno epaileak modu abstraktuan hasten du bere argudioa, EKren 24.2. artikuluan onartzen den defentsarako frogabide egokiak erabiltzeko eskubideari dagokionez, Konstituzio Auzitegiaren eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia-doktrinari erreferentzia eginez⁷⁰.

Doktrina hori azaldu ostean, bigarren arrazamendu juridikoan azaltzen du ez dagoela proposatutako lekuko bidezko eginbidea onartzearen alde, arrazoi hauengatik “(...) *tan solo puede conducir a una dilación indebida del procedimiento*” dado que su “(...) *relación con los hechos, su capacidad o habilidad para el adecuado desarrollo de la investigación, en definitiva, su pertinencia y necesidad, no está suficientemente justificada (...)*”.

Zehazki, hauxe adierazten du, “(...) *conforme señala el Ministerio Fiscal en su informe (...), el hecho de que los testigos, cuyas declaraciones se interesan, ocuparan determinados cargos en la administración en las fechas en que pudieron tener lugar los hechos investigados o algún tipo de relación con personas sobre las que pudiera recaer la actividad investigativa, en modo alguno justifica que haya de admitirse una sucesión –que podría ser indefinida– de testigos respecto los que no existen elementos mínimamente objetivos que hagan suponer que pueden conocer y aportar a la causa algún dato de interés para un mayor esclarecimiento de los hechos*”.

L2003ko apirilaren 28ko autoaren arrazoiketa eta ondorioa bat zetozen aurretik Fiskaltza egindako txostenean jasotakoekin. Fiskaltzaren txostenetik aipagarriena da Konstituzioan jasotako errugabetasun-presuntzioari heltzen diola lekuko gisa proposatutako pertsonetako batek –José Antonio Sáenz de Santamaría– inolako erlaziorik ez zuela defendatzeko; honelaxe dio: “*Ningún dato del sumario [le] vincula (...) con los hechos más allá del cargo que ejerció coetáneamente a los mismos. De la realidad del cargo no cabe inferir que Sáenz de Santamaría conociera de los hechos y a sus autores, ocultándolos a la justicia por cuanto es predicable del mismo, al menos, la presunción constitucional de inocencia.*”

66 245/1999 Aurretiazko Eginbideak, *op. cit.*, 221-229. folioak (I. Liburukia).

67 Egindako eta dokumentatutako eginbideetan badaude beste pertsona batzuen deklarazioak ere, Zabalaren eta Iturbideren legez kontrako jarduerekin lotura izan eta atxilotu zituzten beste batzuen, alegia. Jesús Jiménez Gortazar, Benito Santos Medina eta José Luis Jiménez Clavería dira. Zabala eta Iturbide BVErekin erlazioan zirela zuten galdetuta, ez zekitela adierazi zuten hirurek. Zehazki, ikusi 245/99 Aurretiazko Eginbideak, *op. cit.*, 230., 233. eta 236. folioak.

68 Sáenz de Santamaría, karrerako militarra, Polizia Nazionalaren inspektore nagusi zen Naparra desagertu zenean, eta Gobernuaren EAEko ordezkari izendatu zuten; terrorismoaren aurkako borroka zuzentzen zuen. Gerora, Guardia Zibilarren zuzendari nagusi izendatu zuten. Gonzalez Pacheco Polizia Nazionalaren inspektore zen, eta Informazioko Brigada Zentralari atxikirik zegoen. Ballesteros Polizia Nazionalaren Informazioko Komisaria Nagusiko buru zen. Azkenik, Fernández Dopico Estatuko Segurtasunaren Zuzendaritzako idazkari zen 1980an; gerora, Polizia Nazionalaren zuzendari nagusi izendatu zuten.

69 Auzitegi Nazionalaren Instrukzioko 2. Epategi Zentralaren autoa, 2003ko apirilaren 28koa.

70 *Ibid.*, lehen Z.O.

Ezetzkoa jaso zuela ikusita, akusazio partikularrak erreforma-errekurtsoa eta apelazio-errekurtso subsidiarioa jarri zituen aipatutako apirilaren 28ko autoaren aurka 2003ko apirilaren 30ean.

Erreforma ezetsi egin zuen Ismael Moreno epaileak 2003ko maiatzaren 30eko autoaren bidez, kereila-jarraitzaileen alegazioek errekurritutako ebazpena emateko kontuan hartu ziren arrazoiak ez zituela indargabetzen iritzi ziolako, eta, horrenbestez, ebazpenari bere horretan eutsi behar zitzaioela⁷¹.

Ezetzkoa emateko ebazpenaren ostean, ordea, apelazio-errekurtso subsidiarioa onartu zen izapidetzeko, zeina Auzitegi Nazionalako zigor-arloko salak (hirugarren sekzioa) ebatzi zuen 2003ko abenduaren 3ko autoaren bidez⁷². Epaitegiak ezetsi egin zuen errekurtsoa instrukzio-epaileak erabilitako argudio berberak erabilia.

Hartutako erabakia defendatzeko arrazoi nagusia da ez dagoela datu objektiborik pentsarazteko lekuko gisa proposatutako pertsonak bazutela gertatutakoaren eta desagerepenaren egileen berri. Ildo horretatik, bereziki adierazten du prozesu batera lekuko bat deklaratzera eramateko ezinbestekoa dela gertaerak, egileak edo errealitatearekin erlazionatutako informazioen bat ezagutzen dela adierazten duten zantzuak egotea, eta ez dela nahikoa ustekabearen zerbaiten berri eman ahal izatea⁷³.

Azkenik, argudio-ildo horri jarraituz, epaitegiak dio gertaerak izan zirenean kargu jakin bat betetzeak –Estatuko Segurtasun Indarren arduradun izatea, adibidez– ez duela esan nahi pertsona horrek delitu jakin bati buruzko xehetasunak dakizkienik, *Naparraren* desagerepenaren kasu zehatzean esaterako⁷⁴. Beraz, ezetsi egin zuten lau lekukori deklarazioa hartzeko akusazio partikularrak egindako eskaera.

6.5. Prozesua largestea eta behin-behinean artxibatzea

Lekukoei deklarazioa hartzeari uko egin eta gutxira, beste ikerketa-eginbide bat eskatu zuen akusazioak 2003ko abenduaren 16ko idazki bidez: Gilbert Perretek inputatu gisa deklaratzera, haren kontrako kriminalitate-zantzu nahikoa bazeudela uste zutelako. Kriminalitate-zantzu hauek aipatu zituzten⁷⁵:

-“Cambio 16” aldizkarian argitaratutako erreportajeak, zeinetan Perret anaiak inplikatzeko baitziren *Naparraren* desagerepenean.

-Erreportaje horiek egin zituzten Rafael Cid Estrellas eta José Díaz Herrera kazetarien deklarazio judicialak; kazetariak berretsi egin zuten haiek egindako ikerketen emaitza.

-Estatuko terrorismoaren amarruak ikertzen aditu zirenean beste batzuk ere, hala nola Melchor Miralles eta Ricardo Arqués Amedo: el Estado contra ETA izeneko liburuan ere bat etorri zirela *Naparraren* desagerepena Perret anaiei egoztearekin.

Eskaera horri erantzuteko, auto bat eman zuen 2004ko martxoaren 31n⁷⁶ Ismael Moreno epaileak; auto horren bidez, ukatu egin zuen proposatutako eginbidea gauzatzea, eta dekretatu, behin-behinean largestea eta jarduerak artxibatzea. Aurretik, Fiskaltzak ere iritzi bera agertu zuen 2004ko martxoaren 3ko txostenean; hau da, uko egin zio Gilbert Perretek inputatu gisa deklaratzeari, eta auzia behin-behinean largesteko eta artxibatzeko eskatu zuen.

71 Auzitegi Nazionalaren Instrukzioko 2. Epaitegi Zentralaren autoa, 2003ko maiatzaren 30ekoa, Lehen Z.O.

72 Auzitegi Nazionalako zigor-arlo salaren autoa (3. sekzioa), 2003ko abenduaren 3koa.

73 THitzez hitz hauxe argudiatzen du Salak (bigarren Z.O.): Manuel Ballesterosi buruz: “no puede gratuitamente traérsele a declarar por si eventualmente pudiera aportar datos sobre un delito que todo induce a creer que desconocer todo su realidad o sobre el autor de los mismos”; Antonio González Pachecori buruz: “para que una persona actúe como testigo en un proceso, (...), es absolutamente necesario que existan indicios de que conoce algo sobre los hechos y no que podría eventualmente conocerlos”; y sobre José Luis Fernández Dopico: “no tiene sentido que cada vez que se cometa un delito se tome declaración a los responsables de las Fuerzas de seguridad de Estado por si eventualmente tienen información (y en conclusión la ocultan) sobre el mismo”.

74 Alde horretatik epaitegiak hauxe dio hitzez hitz José Antonio Sáenz de Santamaríari buruz: “lo único que ocurre es que el cargo público de la persona cuya declaración se solicita es simultánea a los hechos, pero esto no indica que tuviera conocimientos específicos relativos a un delito concreto y determinado como el que aquí se persigue”.

75 Auzitegi Nazionalako zigor-arlo salaren autoa (3. sekzioa), 2004ko urriaren 4koa; horren bidez, zantzu horiei erreferentzia egiten dien 237/04 apelazio-errekurtsoa ebazten da (Bigarren Z.O.).

76 Auzitegi Nazionalaren Instrukzioko 2. Epaitegi Zentralaren autoa, 2004ko martxoaren 31koa.

Azalpena ordenatzeko, komeni da jorratzen ari garen bi gaiak bereiztea.

Alde batetik, Gilbert Perretek inputatu gisa deklaratzeko proposamena. Alderdi horri dagokionez, instrukzio-ko epaileak, martxoaren 31ko autoan. Adierazten du eginbide horren egokitasuna eta beharra ez zegoela behar bezala justifikatuta, eta eginbide hori gauzatzeak prozedura bidegabe atzeratzea baino ez lukeela ekarriko. Epaileak, arrazoitzaerakoan, EKren 24.2. artikuluko eskubidearen edukiari buruz –defentsarako frogabide egokiak erabiltzeko eskubideaz– Konstituzio Auzitegiak eta Auzitegi Gorenak erabili zuten doktrina abstraktu bera erabiltzen du, zeina lehenago ere, 2003ko apirilaren 28ko autoan erabili baitzuen, akusazio partikularrak eskatutako lekuko-froga ukatzeko. Era berean, eta eskatutako eginbideari buruzko aipamen zehatzagoa eginez, uste du, alde batetik, ez dagoela Gilbert Perret-ek *Naparraren* desagerpenaren berri bazuela eta nork egin zuen bazekiela adieraz lezakeen elementu edo zantzurik; eta, bestetik, kausan ez dela agertzen *Naparraren*⁷⁷ desagerpenean Gilbert Perret-ek parte hartu zuela ondorioztatzeko elementurik. Argudio hori bera darabil Fiskaltzak, termino ia berdinak erabilia, aurretik egindako txostenean. Dena den, komeni da nabarmentzea Fiskaltzak ofizioz jardun ordez, akusazio partikularrak desagerpen behartua argitzeo duen interesari lekua kentzen saiatzen dela: Izan ere aipatzen du ez Epaitegi Zentralak ez Fiskaltzak ez dutela ikerketa-ildo sendorik (...) eta, beraz, bete direla akusazio partikularrak eskatutako ikerketa-eginbide guztiak.

Beste alde batetik, bigarren gai eztabaidagarria da behin-behineko largespena dekretatzea eta kausa artxibatzea. Gai horri buruz, Moreno epaileak, labur eta Fiskaltzak ikerketaren egoerari buruz egindako azterketa zehatzagoa bere eginez⁷⁸, auziaren largespena eta behin-behinean artxibatzea dekretatzen du, bi premisa kontuan hartuta⁷⁹:

Lehenik eta behin, argudiatzen du une horretara arte egindako eginbideetatik ezin dela egiaztatu desagerpena “*delituzko ekintza jakin batzuen*” ondorio izan denik, batetik, eta eginbide horietatik ezin dela ondorioztatu “*inolako loturarik izan denik inorekin*”, bestetik. Hau da, auzian ordura arte zeuden informazioen arabera, ez du egiaztatutzat jotzen ezta zigor-prozedura hastea eragin zuen delitua egin zenik, ezta inork parte hartu zuenik ere.

Bigarrenik, etorkizunari begira, uste du ez dagoela gertaerak delitu-egitate gisa zehazteko eta parte-hartzaileak identifikatzeko informazio berririk lortzeko itxaropenik (egileak, konplizeak edo haien estaltzaileak); izan ere, hau uste du: “*no se ha acreditado el lugar, fecha, modo o cualquier otra circunstancia de la supuesta desaparición, ni vínculo de persona alguna con la realidad de la desaparición (...)*”. Laburtuz, Moreno epaileak irizten dio ez dagoela gertakariak argitzen lagunduko lukeen ikerketa-ildo sendorik⁸⁰.

Bide prozesalaren azken mailari dagokionez, aurretiko ezesprenak kontuan hartuta, 237/04 apelazio-errekurtsoa ebazteko, ezespren-autoa eman zuen Auzitegi Nazionalako zigor-arloko salak (hirugarren sekzioa) 2004ko urriaren 4an. Aurreko eskema jarraituz, apelazio-errekurtsoaren xede ziren bi gaiak buruz epai-mahaiak erabilitako argudioak deskribatzen dira jarraian.

Alde batetik, Gilbert Perretek inputatu gisa deklaratzeko; bigarren zuzenbideko oinarrian ematen du horri buruzko iritzia auzitegiak. Irizten diote akusazioaren nahia oinarritzeko dauden zantzuak ezin direla halakotzat hartu zigor-inputazio bati eusteko. Lehenik eta behin, erreportajeei eta Rafael Cid Estarellasen eta José Díaz Herreraren deklarazio juridikoei ez die baliorik ematen ikuspegi juridikotik, arrazoi hauengatik: “*(...) de*

77 Ibid., bigarren eta hirugarren zuzenbideko oinarriak.

78 Fiskaltzak, martxoaren 3ko txostenean, auzian ordura arte egindako eginbideak eta bildutako informazioa aztertu zituen, bai eta horietatik ateratako ondorioak ere, behin-behineko largespenaren eta jarduketak artxibatzearen alde egiteko. Oso sakon aztertzeako asmorik gabe, baina hauek dira Fiskaltzak aipatu zituen eginbideak: Informazioko Komisaria Nagusiaren bi txosten; Guardia Zibilaren Zuzendaritza Nagusiaren bi txosten; *DEIA* egunkariaren komunikazio bat; 1.182. folioan eta hurrengoetan dauden dokumentuak, zeinak sumatzen dugu “*Cambio 16*” aldizkariaren erreportajeak izan ditzakeela; desagertuaren gurasoen DNA aterakinen Fénix Programari buruzko txosten bat; Rafael Cid Estarellasek eta José Díaz Herrerak egindako deklarazio judicialak, txosten fiskal horren arabera, “ez zuten ondorioztatu erantzuleak banan-banan aipatzea”; eta gauza bera ondorioztatzen du “*ETA militarra gertakarien egiletzat jotzen zuen lekuko babestu baten deklarazioari*” buruz; eta, azkenik, Frantziari egindako erregu-eskaerak zeinek Frantzian hasitako prozedura ekarri baitzuten.

79 Ibid., bigarren Z.O.

80 2004ko martxoaren 31ko auto horren aurka, kereila-jartzaileek erreforma-errekurtsoa eta apelazio-errekurtso subsidiarioa aurkeztu zituzten 2004ko apirilaren 8an, baina ezetsi egin zituzten 2004ko maiatzaren 4ko auto bidez, arrazoi labur batzuk soilik emanda –erreforma-errekurtsoen ildo berekoak–; izan ere, errekurritutako autoan azaldutako arrazoiei eusten die, eta indarrak ez dutela galdu irizten die.

principio no suministran sus auténticas fuentes de su conocimiento, para poder comprobar la veracidad de las mismas (...), ez eta *(...) suministran el razonamiento lógico que siguieron (...) para llegar a sus conclusiones, partiendo de premisas reales (...)*. Bigarrenez, “*Amedo: el Estado contra ETA*” Melchor Mirallesen eta Ricardo Arquésen liburuari dagokionez, uste du *Naparraren* desagerepena Gilbert Perreti egozten dioten informazioak iritzi hutsak baino ez direla, eta ez daudela egiazkoak direla adieraz dezaketen datu objektiboetan oinarriturik, eta, horrenbestez, ezin direla zigor-inputazio baten euskarri izan. Era berean, auzitegiak gehitzen du ez Estarellasek, ez Herrerak, ez Arquések ez dutela inoiz adierazi *Naparraren* desagerepenean Perretek izandako esku-hartzeari buruz zer iritzi duten. Ez da Melchor Mirallesi buruzko aipamenik egiten.

Hirugarrenez, auziaren behin-behineko largespena eta artxibatzea dekretatzeko erabakia hirugarren zuzenbidezko oinarrian aztertzen da. Horren harira, instrukzio-epaileak 2004ko martxoaren 31n emandako autoan adierazitakoa eta apelazioan egindako lekukotzak kontuan hartuta, dio ez dagoela gertakariak ikertzeko erabil daitekeen elementurik eta *(...) no ha quedado acreditado, ni siquiera a nivel indiciario, dónde, cómo y cuándo desapareció José Miguel Echevarría, y mucho menos que haya sido asesinado, no existiendo atisbos acerca de la participación de persona alguna en tal desaparición, ni de los objetivos que permitan divisar líneas de investigación que puedan conducir a la averiguación de la realidad de los hechos y la identificación de los autores*”. Horrenbestez, epaitegiak apelazio-errekurtsua ezatea eta auzia behin-behinean largestea eta artxibatzea erabaki zuen.

7. Auzitegi Nazionalen prozedura berriz irekitzea eta gaur egungo egoera (2016-2019)

7.1. Jarduketak berriz irekitzea

Sumarioa artxibatu eta bi urtera, informazio gehiago izan zirenez, Ismael Moreno epaileak kasua berriz irekitzea erabaki zuen Madrilgo Instrukzioko 2. Epaitegi Zentralaren 2016ko urriaren 13ko auto bidez. Autoaren oinarri juridikoaren arabera, akusazio partikularrak kasua berriz irekitzeko eskatzeko aurkeztutako 2016ko irailaren 29ko⁸¹ idazkiak, zeina epaitegi horri berari zuzenduta dagoen, “*datu berriak ekarri ditu, eta datu horiek gorpua Frantziako zein toki zehatzetan lurperatuta egon daitekeen identifikatzeko*” balioko lukete, eta, beraz, “*gertakariak argitzeko garrantzitsutza*” jotzen da informazio hori⁸².

Auto horretan Fiskaltzak 2016ko urriaren 7an emandako txostena jasotzen da osorik, eta kereila-jartzaileek auzia berriz irekitzeko aurkeztutako idazkia organo horretara trasladatzeko eskaerari erantzuten dio. Fiskaltzaren txostenean akusazio partikularrak *Naparraren* gorpua aurkitzeko adierazitako kokaleku berria jasotzen da: “*Brocasetik Labriterako errepedean dagoen zuhaizti bat, Mont-de-Marsanetik gertu*”⁸³. *Naparraren* gorpua non egon zitekeen adierazten zuen informazio hori zehaztu egin zen: “*Brocasetik Labriterako errepedean dagoen zubi baten irteeran dagoen zuhaizti bat [D651 errepedea], ipar-mendebaldeko noranzkoan, 150 metro eskuinera jota*”⁸⁴, horixe azaltzen zen Etxeberria medikuaren⁸⁵ 2016ko abuztuaren 4ko txostenean, Iñaki Errazkin kazetariari iturri konfidentzial batek emandako informazioari jarraituz, zeina prozedura berriz zabaltzeko idazkian ere jaso zuten⁸⁶. Errazkinek, 2015eko abenduan, elkarrizketa bat egin zion Espainiako nazionalitatea zuen pertsona bati Brasilen –São Paulon bizi zen–, Euskal Herrian jarduten zuten erakunde terroristen aurkako legez kontrako jardueren berri bazuena, zeinak, antza denez, gerra zikina izenez ezagutzen zenarekin erlazonaturik baitzeuden⁸⁷. Datu berri horiek egiaztatzeko, Errazkin kazetariak informazio-iturriari egindako grabazio bat eta lurperatze-lekua zehazten zuen eskuz idatzitako dokumentu bat erabili ziren⁸⁸. Komunikabideetara iritsi zenez, Ramon Francisco Arnau de la Nuez Araña ezizena zuen CESIDeko (Defentsarako Informazio Zentro Nagusia) agente ohia izan zen Iñaki Errazkinen informatzailea⁸⁹.

81 Eneko Etxeberriak (*Naparraren* anaia), Iñigo Iruinek (familiaren abokatua) eta Francis Etxeberria mediku forentseak eman zuten idazkiko edukiaren berri prentsaurreko batean, prozedura berriz ireki ostean. EUROPA PRESS. “La familia... *op. cit.*”

82 Auzitegi Nazionalaren Instrukzioko 2. Epaitegi Zentralaren autoa, 2016ko urriaren 13koa, Z.O. bakarra.

83 Fiskaltzak gogorarazten du, halaber, bere garaian, zenbait eginbide gauzatu ondoren, hala nola Baionako Instantzia Handiko Auzitegiak egindako ikerketa edo Ladislao Zabala eta Ignacio María Iturbide BVEko kideek inputatu gisa egindako adierazpenak, susmagari gisa Perret anaia buru zituen pertsona-talde bat jo zutela. Ikusi Fiskaltzaren 2016ko urriaren 7ko txosteneko hirugarren eta laugarren alegazioak.

84 Ikusi gauzatu beharreko hirugarren eginbidea (erregu-eskaera Frantziako agintari judizialei); *Naparraren* gorpua hondarrak bilatzeko lanekin dago erlazonaturik eta Auzitegi Nazionalaren Instrukzioko 2. Epaitegi Zentralaren 2016ko urriaren 13ko autoan dago jasota, xedapen-zatian.

85 Euskal Memoria Fundazioaren bidez Eneko Etxeberriak eskatuta egin zen txostena. Ikusi ETXEBERRIA GABILONDO, F. “Informe relativo al posible lugar de enterramiento de José Miguel Etxeberria Álvarez, desaparecido en 1980”, 2016ko abuztuaren 4koa; 12 orrialde.

86 Auzitegi Nazionalaren Instrukzioko 2. Epaitegi Zentralari prozedura berriz irekitzea eskatzeko aurkeztutako idazkia (245/99 Aurretzako Eginbideak - proz. laburtua). 2016ko irailaren 29a. Hirugarren alegazioa.

87 Iñigo Iruinek esan zuenez informatzaileak: “*ETAren eta beste erakunde batzuen aurka 70eko urteen amaieran eta 80koen hasieran egindako Estatu-terrorismo jarduerekin izan zuen erlazioa, edo, behintzat, ekintza horiek egiten zituzten pertsonekin*”. EFE. “Las autoridades francesas intentan localizar el cuerpo de *Naparra*”, El Mundo, 2017ko apirilaren 3a.

88 Auzitegi Nazionalaren Instrukzioko 2. Epaitegi Zentralari prozedura berriz irekitzea eskatzeko aurkeztutako idazkia (245/99 Aurretzako Eginbideak - proz. laburtua). 2016ko irailaren 29a. Hirugarren alegazioa.

89 Iñaki Errazkinek informatzailea nor zen esan zuen epaitegian, 2016ko urriaren 26an lekuko gisa Auzitegi Nazionalaren Instrukzioko 2. Epaitegian deklarazioa hartu ziotenean. Hori, gero, Frantziar abian jarriko den instrukzioari gehituko zaio. Ikusi txostena: Iñaki Errazkinen deklarazioaren transkripzioa. Auzitegi Nazionalaren Instrukzioko 2. Epaitegian (Espainia) 2016ko urriaren 26an Errazkinek egin-

Etxeberria medikuak egindako txostenean, 2016ko uztailaren 30ean in situ egindako miaketaren emaitza jasotzen da⁹⁰; izan ere, Errazkinen iturriak adierazitako lekua miatu zen, hark esandakoa egia zen egiaztatzeko. Txostenean bi ehorzketa-leku egon daitezkeela adierazten da –geografikoki lekuak bat datozela jasotzen da ondorioetan–, Brocas eta Labrit herriak lotzen dituen errepidean harrizko bi zubi baitzeuden⁹¹. Etxeberria medikuak adierazten du bi leku horietan lurra hareatsua dela eta erraza dela ehorzketa klandestino bat egitea, “*ambos lugares son de suelo arenoso y fácil para llevar a cabo una inhumación clandestina. De hecho, de ser cierto que existe el enterramiento, es previsible que el estado de conservación de los restos sea bueno siendo potencialmente posible su análisis con fines identificativos y para establecer la causa de muerte*” dio Etxeberriak txostenean⁹². Geroago, Frantzia egin zuen deklarazioan, Etxeberria medikuak berriz ere esan zuen ezinezkoa zela *Naparra*-ren gorpuzkiak bilatzeko aukera egokiena zein zen zehatz mugatzea, informazio gehiagorik izan ezean⁹³.

Iruin abokatuak, familiaren izenean, *Naparraren* gorpua bilatzen hasteko hainbat jarduera egiteko eskatu zio Auzitegi Nazionalari. Bat, lekukoaren deklarazioa hartzea Errazkin kazetariari, kazetariak bere iturri konfidentzialak emandako informazioa eta dokumentazioa eman zitza. Bi, Etxeberria lege- eta auzitegi-medikuntzan espezialista den medikuari deklarazioa hartzea lekuko eta peritu gisa, ordurako egona baitzen ustez *Naparra* lurperatuta egongo zitekeen lekuan. Eta hiru, azkena, premiazko erregu-eskaera bat bidaltzea Frantziako agintariei, Mont-de-Marsaneko Instrukzio Epaitegiaren bidez *Naparraren* gorpuzkiak bilatzeko lanak bidera zitezten, Etxeberria medikuaren txostenean jasotako jarraibideak betez⁹⁴.

Elsmael Moreno epailea, 2016ko urriaren 13an emandako autoan, Fiskaltzak aurretik egindako txostenean eskatu zuen bezalaxe, familiak eskatutako eginbide guztiak gauzatzeko proposamenaren alde agertu zen. Iñaki Errazkin kazetariak lekukoaren deklarazioa egin zion epaileari 2016ko urriaren 26an. Francisco Etxeberria mediku forentseak ere egun berean deklaratu zuen; txosten tekniko bat aurkeztu zuen aditu gisa. Era berea, erregu-eskaera bat egin zitzaion Frantziako justiziari, CESIDeko agente ohia zen iturriak adierazitako lekuan gorpuzkiak bilatzeko. Frantziako agintariak 2017ko apirilaren 4a ezarri zuten hondeaketa-lanak has-teko. Adierazitako eguna baino pare bat hilabete lehenago, 2017ko otsailaren 1ean, beste auto bat eman zen. Han, instrukzioa konplexua zela adierazten zen, eta jarduerak berriz hasi zirenetik jarduerekin amaitzeko hemezortzi hilabeteko epea eman zen (2016.10.13-2018.04.13).

7.2. Landetan egindako bilaketan ez zen ezer aurkitu

Solenne Motyl epailea, Mont-de-Marsaneko Instantzia Handiko Auzitegiako lehendakariordea eta instrukzioaren arduraduna⁹⁵, arduratu zen Frantziari egindako erregu-eskaera gauzatzeaz; 2016ko abenduan jaso

dako deklarazioaren itzulpena, 2017ko martxoaren 20koa. Nazioarteko erregu-eskaera gauzatzea - Espainia (sumario-zenbakia: JICABDOY16000013); Mont-de-Marsaneko Instantzia Handiko Auzitegia, 44-48. orr.

90 Etxeberria medikuarekin batera Eneko Etxeberria, Iñaki Egaña (historialaria) eta Iñaki Errazkin joan ziren. Geroago ireki zen Frantziako instrukzioan dago jasota dagoen Francisco Etxeberriaren deklarazioaren berri izateko, zeinak gai honi buruzko informazioa duen, jo: Deklarazio-atestatua: Francisco Etxeberria Gabilondo, 2017ko urtarrilaren 26a, nazioarteko erregu-eskaera gauzatzea - Espainia (sumario-zenbakia: JICABDOY16000013), Mont-de-Marsaneko Instantzia Handiko Auzitegia, 70-72. orr.

91 A aukera (1. zubia): hormigoiz zabaldua dagoen zubia, Brocasen irteeran Labriterako noranzkoan, 53. eta 54. kilometroen artean, erreka baten gainetik pasatzen da mendebaldera (Ruisseau de Biensang). B aukera (2. zubia): Brocas-Labrit errepidean hori ere, garai bateko biderako balio du (“Nafarroako bidea” deiturikoa); errepidearen paralelo doa, eta bi herriak lotzen ditu horrek ere. Zehazki, Labritetik gertuago dago zubi hori, 51. eta 52. kilometroen artean; erreka txiki baten gainetik pasatzen da mendebaldera (Ruisseau de la Bernède) Ikusi ETXEBERRIA GABILONDO, F. “Informe relativo al posible lugar de enterramiento de José Miguel Etxeberria Álvarez, desaparecido en 1980”, 2016ko abuztuaren 4koa; 3. orr.

92 Ibid., 4. orr.

93 Deklarazio-atestatua: Francisco Etxeberria Gabilondo, 2017ko urtarrilaren 26a, nazioarteko erregu-eskaera gauzatzea - Espainia (sumario-zenbakia: JICABDOY16000013), Mont-de-Marsaneko Instantzia Handiko Auzitegia, 72. orr.

94 Auzitegi Nazionalaren Instrukzioko 2. Epaitegi Zentralari prozedura berriz irekitzea eskatzeko aurkeztutako idazkia (245/99 Aurreiazko Eginbideak - proz. laburtua). 2016ko irailaren 29a. Seigarren alegazioa.

95 Horren ondorioa da Frantziako Estatuak, azkenean, auzia Parisen egoitza duen terrorismoaren kontrako epaitegieta ez bideatzea erabaki zuela. ARRETXE, J. “Francia iniciará la búsqueda de ‘Naparra’ entre enero y febrero”. Noticias de Navarra, 2016ko abenduaren 27a.

zela dago adierazita. 2017ko martxoaren 30ean, Anne Coulombeix⁹⁶ izendatu zuen Motyl epaileak *Naparra*-ren gorpuzkien bilaketan eta gorpua aurkituz gero lurpetik ateratzeko zereginetan peritu gisa aritzeko. Era berean, txosten zehatza egiteko eta 2017ko maiatzaren 15a baino lehen entregatzeko eskatu zitzaion⁹⁷. Paueko Jendarmeriako unitate berezi bati eman zitzaion bilaketa-lanak egiteko ardura. Laurent Lesaffre teniente koronela jarri zuten operatiboaren buru –Paueko ikerketa-ataleko komandantea.

Hondeatu beharreko lursailaren kokapen zehatzari buruzko lehenengo ikerketetan, Frantziako Jendarmeriak Errazkinen informatzaileak emandako bi hipotesiak hartu zituen kontuan –Etxeberrria medikuaren txostenean ere jasota datoz–, emandako informazioarekin bat zetozen tokiak izan zitezkeelakoan. Baina, desadostasunak ere nabaritu ziren. Izan ere, “*lekuetako batera ezin da errepidez iritsi, eta, bigarreanean, basotxoaren eta zubien artean distantzia askoz ere handiagoa dago*”. Baina informatzailea zein lekuri buruz ari zen zehazteko orduan, garrantzi berezia hartu zuen *Naparra* desagertu zenean eremuak zuen egoerak. Horretarako, inguruko bizilagunen argazkiak eta haien nahiz jabeen usteak bildu ziren. A aukerari buruz, hauxe da ondorioa: “(...) [80ko hamarkadan] ez zegoela basotxorik leku horretan, baso bakar bat baizik, nahikoa pinu handiak, haritzak eta makalak zituena”. B aukerari buruz, ondorioa oso bestelakoa da: “... airiala eta hariztiak 80 hamarkadan zegoen bezalatsu egon daiteke”. Ondorioz, A aukera baztertu egin zuten, ikerketak egin ostean ez zetorrelako ezertan bat informatzaileak emandako deskribapenarekin⁹⁸.

2017ko apirilaren 4an, goizeko 11:20an, hondeaketa-lan teknikoei ekin zieten *Naparraren* gorpuzkiak lurperatuta egon zitezkeen lekuan, CESIDeko kide ohiak ezagutzera emandakoaren arabera. 16:35ean bertan behera utzi ziren lanak, gorpurik aurkitu ez zelako⁹⁹. Iruin Sanz abokatua eta Etxeberrria medikua, azken hori familiak eskatuta, lekuan bertan egon ziren hondeaketa-lanak egin zirenean.

Anne Coulombeixi eskatu zitzaion txostenean –2017ko apirilaren 25eko data du txostenak–, hondeamakina hidrauliko bat erabili zela eta 400 m²ko azalera hondeatu zela adierazten da. Gainera, eremu horrek aldaketa gutxi izan duela esaten da, *Naparra* desagertu zen garaian lursailari egindako aire-argazkietan ikusten denez. Tamaina handiko sustraien usteltzeak eragindako landare-jatorriko anomalia batzuk antzemateaz gain, hauxe da ondorioa: Ziurtasunez esan daitekeela ekipo mekanikoarekin hondeaketa-lanak egindako hiru eremuetan ez zegoela gorpurik¹⁰⁰. Hala ere, lursailaren gaur egungo jabeak 15-20 bat urte lehenago bere semeak A aukerako zubitik 400 bat metro tara belarrez estalita zegoen militar erako bortzegi bat aurkitu zuela (45 neurrikoa) esan zuen hondeaketak egin zituzten egun berean. Oinetako hori Jendarmeriari entregatu zion berehala, eta hortik Espainiako justiziarik bidali zioten, egoki irizitako egiaztapenak egin zitzaion¹⁰¹.

Jean Philippe Récappé Mont-de-Marsaneko fiskalaren arabera, baliteke, hasiera batean, gorpua han lurperatu izana, eta gero lekuz aldatzea, baina kontua da arakatutako eremuan ez zutela gorpuz-hondarrik aurkitu¹⁰².

96 Anne Coulombeix Frantziako Jendarmeria Nazionalaren Ikerketa Kriminalako Institutuaren (IRCGN) Antropologia-Hematomorfologia sailako burua da.

97 Peritu izendatzeko autoa, 2017ko martxoaren 27koa. Nazioarteko erregu-eskaera gauzatzea - Espainia (sumario-zenbakia: JICABDOY16000013), Mont-de-Marsaneko Instantzia Handiko Auzitegia, 9-10. orr.

98 Hori guztia Lesaffre koronelak izendatutako Michel Hugounenc ikerketa-zuzendariak azalduta du Frantziara bidalitako erregu-eskaerari buruzko laburpen-atestatuan, zeina lekuan bertan egindako hondeaketa-lanen ondoren bete baitzuen. Ikusi laburpen-atestatua (erregu-eskaera), 2017ko ekainaren 19koa. Nazioarteko erregu-eskaera gauzatzea - Espainia (sumario-zenbakia: JICABDOY16000013), Mont-de-Marsaneko Instantzia Handiko Auzitegia, 39-41. orr.

99 Gertakariaren lekura joateko atestatua, 2017ko apirilaren 4koa. Nazioarteko erregu-eskaera gauzatzea - Espainia (sumario-zenbakia: JICABDOY16000013), Mont-de-Marsaneko Instantzia Handiko Auzitegia, 7-8. orr.

Anne Coulombeixek gerora egindako txostenaren arabera, lekura goizeko 10etan iritsi ziren; hondeaketa-lanei 10:40an ekin zieten, eta amaitu, arratsaldeko 17:00etan egin zuten. Ikusi 4369/EX/ANH/90/17 peritu-txostena. Nazioarteko erregu-eskaera gauzatzea - Espainia (sumario-zenbakia: JICABDOY16000013), Mont-de-Marsaneko Instantzia Handiko Auzitegia, 16. orr.

100 Xehetasunetarako, ikusi 4369/EX/ANH/90/17 peritu-txostena. Nazioarteko erregu-eskaera gauzatzea - Espainia (sumario-zenbakia: JICABDOY16000013), Mont-de-Marsaneko Instantzia Handiko Auzitegia, 13-29. orr.

101 Ikusi laburpen-atestatua (erregu-eskaera), 2017ko ekainaren 19koa. Nazioarteko erregu-eskaera gauzatzea - Espainia (sumario-zenbakia: JICABDOY16000013), Mont-de-Marsaneko Instantzia Handiko Auzitegia, 41. orr.

102 EFE. “Termina si éxito la búsqueda del cuerpo de Naparra en La Landas francesas”. *EFE agentzia*, 2017ko apirilaren 4a.

7.3. Auzia gaur egunean

Landetako bilaketak arrakastarik izan ez eta bi hilabetera, Eneko Etxeberriak, *Naparraren* anaiak, ikerketen egoeraren berri eman zuen 2017ko ekainaren 12an *GARA* egunkarian argitaratutako gutun batean. Epai-leak eginbide gehiago egitea onartu zuela eman zuen jakitera Etxeberriak, tartean, Polizia Nazionalari eta Guardia Zibilari agente ohia lokalizatzeko informazioa eskatzea. Era beran, “*borrokan*” jarraitzeko asmoa dutela adierazi zuen, “*bilaketa-eremua zabaldu dadin eta gorpua lurperatuta egon daitekeen beste tokia, Paco Etxeberriaren txostenean ageri dena, ere kontuan har dadin*”¹⁰³.

2018ko otsailaren 7an, Fiskaltzak hala eskatuta, militar erako bortzegia edo bota (45 neurrikoa) Polizia Zientifikoaren Komisaria Nagusira bidaltzea erabaki zen, aztertu eta erabili zituen pertsonaren hondakin biologikorik bazuten ikusteko (hau da, DNA identifikatzen saiatzeko). Otsailaren 28an, eskatutakoa egiaztatzeko denbora gehiago beharko zutela adierazi zion Polizia Zientifikoak instrukzio-epaileari telefonoz, oinetakoa nahiko hondatuta zegoela ikusita. 2018ko martxoaren 1ean, gehieneko instrukzio-epeak ez agortzearen, Ismael Morenok jarduketak behin-behinean largestea eta auzia artxibatzea erabaki zuen. Dena den, auzia berriz irekiko zela aurreikusi zuen epaileak, hauxe jaso baitzuen autoan: “*(...) hasta el cumplimiento de la diligencia encomendada a la Comisaría General de Policía Científica, momento en que procederá la reapertura de las diligencias*”¹⁰⁴.

2018ko martxoaren 9an, *Naparraren* senideen ordezkari prozesalak (Celestina Álvarez, Eneko Etxeberria eta María Camino Etxeberria) erreforma-errekurtsoa jarri zuen aurreko autoaren aurka, dekretatutako largespena eta artxibatzea indarrik gabe uzteko, instrukzioa amaitzeko gehieneko beste epe bat finkatzeko eta eginbide berriak izapidetuta auziak aurrera jarrai zezan lortzeko. Zehazki, hiru eginbide egiteko eskatu zuten: a) Ramón Francisco Arnau de la Nuez non zegoen zehazteko, deklarazio judiziala har ziezaioten; b) Ramón Francisco Arnau de la Nuez jaunari buruz informazio gehiago biltzeko; eta c) Nazioarteko erregeru-erregu-erregu zabaltzeko, agintari frantsesek aurretik haiek baztertutako “A aukera” izeneko eremuan gorpua bila zezaten¹⁰⁵. 2018ko martxoaren 16an, aurkeztutako errekurtsioa ebatzi aurretik, Polizia Zientifikoaren Komisaria Nagusiak egindako txostena jaso zuen epaitegiak. Militar erako 45 neurriko bortzegi edo botari egindako azterketan ezin izan dela DNAririk lortu da ondorioa. Fiskaltzak, erreforma-errekurtsoari erantzuteko, hura ezesteko eta 2018ko martxoaren 16an aurkaratutako autoa berresteko eskatu zuen. Eta oinarri dituen arrazoiak guztiz bat datoz eskatu ziren eginbide guztiak gauzatzeko asmoa ezesteko instrukzio-epaileak 2018ko martxoaren 22ko autoan emandako oinarriarekin.

Frantziako agintariak gorpuren bilaketa “A aukerari” dagokion eremura hedatzeari dagokionez, Landetan emaitzarik izan ez zuen bilaketaren ondoren egindako txostenean jasotakoari lotzen zaio instrukzio-epailea. Zehazki, berresten du baztertutako gunearen egoera ez datorrela ezertan bat informatzaileak egindako deskribapenarekin. Ramón Francisco Arnau de la Nuez aurkitzeari eta ondoren hari deklarazioa hartzeari dagokionez, autoak berriro dio ezin dela jakin non dagoen, eta ofizioa bidali zitzaizela Polizia Nazionalari eta Guardia Zibilari lortzen zuten edozein daturen berri emateko, baina Instrukzioko Epaitegi Zentralak ez dakiela ezer egin duten. Horrenbestez, instrukzio-epaileak hauxe ondorioztatzen du: “*(...) no existen razones que justifiquen fijar un nuevo plazo máximo para la finalización de la instrucción (...) dado que no podemos condicionar los plazos de la instrucción a un acontecimiento incierto y no previsible en el tiempo, cual es el momento de la localización de D. Ramón Francisco Arnau de la Nuez*”¹⁰⁶. Aurrekoa gorabehera, instrukzio-epaileak partzialki baiesten du errekurtsioa, largespena kentzeko eta jarduketak berriz irekitzeari dagokionez bakarrik, hala adierazten baitzen berriaz 2018ko martxoaren 1eko autoan, Polizia Zientifikoak egindako eginbidearen emaitzak ezagutu ondoren¹⁰⁷.

2018ko apirilaren 11n, Iñaki Errazkin kazetariak *Naparraren* gorpuzkiak aurkitzeko informazioa eman zuen iturria nor zen adierazi zuen gizarte sareetan eta YouTube: Ramón Francisco Arnau de la Nuez zela adie-

103 ETXEBERRIA ÁLVAREZ, E. “¡Queremos saber la verdad!”. *Noticias de Navarra*, 2017ko ekainaren 12a.

104 Auzitegi Nazionalaren Instrukzioko 2. Epaitegi Zentralaren autoa, 2018ko martxoaren 1ekoa, Z.O. bakarra.

105 Dena den, baztertu zen eremua da, hain zuzen ere, Etxeberria medikuaren ustez, Iruñeko errefuxiatuaren gorpuzkiak aurkitzeko aukera gehien zituen lekua: “*Ulertezinak egiten zaizkigun arrazoiengatik, Frantziako agintaritzek erabaki zuten hondeaketa-lanak aukera gutxienez zegoen lekuan egitea*”. *EFE*. “La búsqueda del cuerpo de Naparra: ‘esperanza y prudencia’ en la familia”. *Noticias de Navarra*, 2018ko ekainaren 15a.

106 Auzitegi Nazionalaren Instrukzioko 2. Epaitegi Zentralaren autoa, 2018ko martxoaren 22koa, laugarren Z.O.

107 *Ibid.*, bigarren Z.O.

razi zuen. CESIDeko agente ohia guardia zibilez jantzita agertu zen kamera aurrean, eta egin zuen mintzaldi laburrean, lokalizatutzat jo zuen *Naparraren* gorpua, eta adierazi zuen CESIDek pertsona hori non zegoen zergatik zekien azaldu beharko duela Espainiako estatuak. Bideo horretan *Araña* ezizena zuen CESIDeko agente ohizat jo zuen bere burua. Youtuben zintzilikatutako bideoaren argitalpenarekin batera Iñaki Errazkinek idatzitako testuan azaltzen da familiak Auzitegi Nazionalari kasua ez ixteko eta Frantziako Jendarmeria presionatzeko eskatu ziola, jarrai zezan Jose Miguel Etxeberriaren gorpua bilatzen Francisco Etxeberria mediku forentseak gorpua bilatzeko aukera gehiago zegoela adierazi baina Jendarmeriak miazteari uko egin zion lekuan. Bestetik, agente ohia oso gaixo zegoela adierazi zuen kazetariak testu horretan bertan. Hau da *Naparraren* auziarekin erlazionatutako bideo-zatiaren transkripzioaren itzulpena: “(...) *Euskal Herrian desagertutako azkenari dagokionez, adierazi nahi nizueke lokalizatuta dagoela jada gorpua, badagoela informazioa eta hemendik gutxira haren gorpuzkiak berreskuratuko direla espero dugula, uste dugula eta nahi dugula. Une horretan, CESIDek pertsona hori non zegoen zergatik zekien azaldu beharko du Espainiako estatuak(...)*”¹⁰⁸. *NAIZ* egunkari digitalak bideoari buruz zabalduko informazioaren arabera, grabazioa Landetan egindako hondeaketan aurretikoa da, eta adierazten du inork ez dakiela agente ohia non dagoen¹⁰⁹.

Familiak, ikerketa nola egin zen batere gustura ez zegoenez, 2018ko martxoaren 22ko autoa errekurritu zuen apelazio bidez. Fiskaltzak, berriz ere, errekurtsioa ezesteko eskatu zuen, eta auzia Auzitegi Nazionalako zigor-arloko salako bigarren sekziara iritsi zen. Auzitegi Nazionalaren 2018ko maiatzaren 8ko 254/18 autoan erabilitako arrazoibide juridikoak garrantzia handiko alderdi bat du oinarri, lehenik eta behin. Errekurtsogileak eskatutako eginbideak auzirako egokiak direlako aintzat hatuko balira –gogora dezagun, instrukzio-epaileak ukatu egin zituela–, asko baldintzatuko luke instrukzio-fasearen emaitza. Hala, errekurtsogileek irizten diote lehenengo luzapenetik geratzen den denbora ez dela nahikoa egin nahi diren eginbideak gauzatzeko. Horregatik, instrukzioarekin jarraitzeko beste luzapen bat eskatu zuten. Ez ohiko epe hori emateko, *arrazoi egiaztatuak* egon behar dutela ezartzen du Prozedura Zibilaren Legearen 324. artikulua. Auzitegi Nazionalako magistratuen iritziz, halako arrazoirik badagoen jakiteko, alde aurretik egindakoa eta instrukzioak arrakasta izango duen jakiteko etorkizuneko aurreikuspena balioetsi beharko dira. Eta puntu horretan, magistratuek uste dute eginbideak salbuespenezko epe batean bakarrik egin daitezkeela, baina horrek ez duela esan nahi ikerketarako emaitza positiborik emango ez dutenik. Hortaz, instrukzioaren epea luzatzea justifikaturik dago¹¹⁰.

Errekurtsogileek, halaber, berriz ere adierazi zuten 2017ko apirilean egindako bilaketa 1987ko argazki batzuetan oinarritu zela. Argazki horiek bizilagun batek eman zituela, lurretik ateratakoak zirela, eta ez zela urte haietako aireko argazkirik erabili argudiatu zuten. Hartara, familiak eremu horretako 1982ko aireko argazkiak zituen CD bat aurkeztu zuen. Argazki horietan ikusten da A eremuan ere harizti bat zegoela eta bertara iristeko pista, zeina bat datorren CESIDeko agenteak deskribatutakoarekin. Auzitegi Nazionalak uste du ez dagoela argi jasota alderdi horiek aurreko eginbidean kontuan hartu zirenik, hondeaketa-lanak egin zirenean, eta, beraz, egokia dela irizten dio Frantziari beste errekerimendu bat egitea¹¹¹.

Ramón Francisco Arnau de la Nuez aurkitzeko eskatzen zen eginbideari dagokionez, Auzitegi Nazionalak uste du kudeaketak ez direla zertan mugatu hura bilatzera. Epe luzapenak, beraz, aukera emango luke haren inguruabar pertsonalak, profesionalak eta lan-bizitzakoak ezagutzeko; izan ere, deklarazioan entzuteko aukera izanez gero, baliagarri izan daitezke haren lekukotza balioesteko¹¹².

Aurreko guztiagatik, Auzitegi Nazionalako magistratuek erregurtsogileek jarritako apelazio-errekurtsioa onartu, eta aurkaratutako ebazpena (2018ko martxoaren 22ko autoa) eman zuen instrukzioko epaileari eskatzen diote instrukzioko epea ixteko beste epe bat ezartzeko “*irizpide-askatasunez*”¹¹³.

Familiak jarritako errekurtsioa onartu zenean, Moreno epaileak erregu-eskaera bat bidali zien Frantziako agintari judizialei Etxeberria Álvarez-en gorpua bilatzeko berriz ere lanak egin zitzaten aurretik Jendarmeriak baztertutako eremuan, hau da, A eremuan. Poliziarri eta Guardia Zibilarri Arnau de la Nuezek 1980 eta 1990

108 <https://www.youtube.com/watch?v=hIQXj6oSaK8> [último acceso: 28/11/2019].

109 *NAIZ*. “La fuente sobre *Naparra*, un ex agente del Cesid hoy en paradero desconocido”, *Naiz*, 2018ko apirilaren 12a.

110 Auzitegi Nazionalaren 254/18 autoa, 2018ko maiatzaren 8koa, lehenengo Z.O.

111 *Ibid.*, bigarren Z.O.

112 *Ibid.*, hirugarren Z.O.

113 *Ibid.*, laugarren Z.O.

bitartean izan zituen inguruabar pertsonal eta profesionalei buruzko txosten bat egiteko agindu zien, eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintzari, berriz, haren lan-bizitzaren berri emateko. Auziaren instrukzioa beste hemezortzi hilabete luzatu zen, epailearen aginduz¹¹⁴.

2019ko ekainaren 12an, *Naparra* bahitu eta desagertu zenetik 39 urte igaro zirenean, Eneko Etxeberria anaiak “denbora-eternaldi” ulertezin bat izan dela aipatu zuen. Zehazki, hitz hauek egin zituen (itzulpena da): “(...) Espainiako justiziak Frantziako agintariei egindako errekerimenduen erantzunik jaso gabe jarraitzen dugu, eta ez dakigu zer arrazoi dauden bigarren hondeaketa hori atzeratzeko. Ezin ulerturik gabilta zer gertatzen den”¹¹⁵.

8. Aitorpen instituzionala, berandu eta ez nahikoa

Etxeberria-Álvarez familiak bi aldiz eskatu du José Miguel Etxeberria Álvarez *Naparra* terrorismoaren biktime-tzat hartzeko, baina Espainiako estatuak ukatu egin dio estatus hori. Barne Ministerioak familiaren eskaerari erantzun zion ezin izan zela frogatu gertakariak jarduera terroristaren ondorio izan zirenik, eta hori, gainera, lehenago ere ebatzi zela bide administratibo eta judizialean.

Lehenengo aitorpen instituzionala Eusko Jaurlaritzak egin zuen 2008an, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak auzia *Talde inkontrolatuek, eskuin-muturreko taldeek eta GALek eragindako terrorismoaren biktimei buruzko txostenean* sartu zuenean. Krimen horren erantzule BVE dela adierazten da dokumentu horretan, eta poliziak egilea Perret mertzenario frantziarra dela dioela jasotzen da. Urte horretan bertan Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritzak argitaratu zuen txostenean ere jaso zen Iruñeko gaztearen desagertzenaren auzia¹¹⁶.

Urte batzuk geroago, *Naparraren* familiak Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioaren Bulegoko Desagertze Behartu edo Nahi Gabekoei buruzko Lantaldearen esku jarri zituen Frantziako eta Espainiako jurisdikzio-organismoetan egindako ikerketen datu guztiak. 2014ko ekainaren 13an, Espainiako eta Frantziako gobernuei zuzendu zitzaizkien organo hori bera, *Naparra* non zegoen eta zer gertatu zitzaizkien jakin zedin beharrezkoak ziren ikerketak egin zitzaizkien eskatzeko¹¹⁷.

2019ko azaroan, familiak berri gehiago jaso zituen Nazio Batuen Lan Talde horretatik, Etxeberria kasua aztertutik baitzuten beste behin, Genevan 2019ko irailaren 16tik 20ra egindako 119. bilkura-aldian. Nazioarteko erakunde horrek familiari bidalitako gutunean, aditu-taldeak adierazten die ez duela nahikotzat jo Espainiako Gobernuak “Etxeberria Álvarez jauna non egon daitekeen”¹¹⁸ zehazteko emandako informazioa, eta hurrengo 120. bilkura-aldian auzia aztertzen jarraituko dutela ziurtatzen die, zeina Genevan egingo baita 2020ko otsailean.

114 NAIZ. “La AN pide a las autoridades francesas que busquen de nuevo a *Naparra* en Las Landas”. *Naiz*, 2018ko maiatzaren 24a.

115 ETXEBERRIA ÁLVAREZ, E. “Caso *Naparra*: un paréntesis temporal”. *Noticias de Navarra*, 2019ko ekainaren 12a.

116 LANDA GOROSTIZA, J.M. “Informe sobre víctimas de vulneraciones de derechos humanos derivadas de la violencia de motivación política”, *Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Saila*, 2008, 61 eta 147 orr.

117 Auzitegi Nazionalaren Instrukzioko 2. Epaitegi Zentralari prozedura berriz irekitzea eskatzeko aurkeztutako idazkia (245/99 Aurretiazko Eginbideak - proz. laburtua). 2016ko irailaren 29a. Zazpigarren alegazioa.

118 IMPLEMENTATION LETTER WGEID 119 SESSION. Desagertze Behartu edo Nahi Gabekoei buruzko Lantaldearen mandatu. Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioa, 2019ko azaroaren 4a.



Azterketa juridikoa

1. Sarrera eta erreferentziazko testuingurua

Txosten honen lehen blokean azaldutako gertaerak kontuan hartuta, José Miguel Etxeberria Álvarez (*Naparra* edo *Bakunin*) 1980ko ekainaren 11n Estatuaren babesarekin edo oniritziarekin BVE erakunde parapolizial eta eskuin-muturrekoak bahitu eta desagerrarazi zuela da hipotesi nagusia da. Giza eskubideen nazioarteko zuzenbidean¹¹⁹ erabat debekatuta dago desagertze behartua, hau da, Estatuak edo haren baitanekin, babesarekin edo oniritziarekin jarduten duten taldeek pertsona bat atxilotzea, bahitzea edo askatasunaz gabetzea, desagertutako pertsona non dagoen ezkutatzea, eta legezko babesa kentzea¹²⁰. Giza duintasunari irain egiteaz gain, nazioarteko zuzenbidean onartutako giza eskubideen urraketa larria eta agerikoa da¹²¹.

Nazio Batuen sisteman, 1966ko Eskubide Zibilen eta Politikoaren Nazioarteko Itunetik abiatu behar da; 1977an berretsi zuen Espainiak itun hori. Funtsezko eskubide baten urraketarik izanez gero, hari aurre egiteko baliabide eraginkor bat bermatzeko konpromisoa hartu zuten ituna sinatu zuten estatuak¹²². Berriki, eta bereziki desagertze behartuen krimenari buruz, desagertze behartuen aurka pertsona guztiak babesteko 2006ko Nazioarteko Konbentzioak –2011n berretsi zuen Espainiak¹²³– guztiz debekatzen du desagertze behartuak egitea, gizateriaren aurkako delituak baitira modu orokorrean edo sistematikoki egiten badira¹²⁴. Konbentzioa oinarrizko erreferentzia-puntua da desagertze behartuari buruzko azterketa juridikoa egiteko, Espainiak arlo horretan sinatu eta berretsi duen tresna lotesle bakarra baita; beraz, haren xedapenek jokoan dauden oinarrizko eskubideen eta arlo horretako etxeko aurreikuspen penalen norainokoa interpretatzeko balio dute. Konbentzioak prebentziozko betebeharrak ditu. Desagertze-delitu bat tipifikatzera behartzen dute¹²⁵ betebeharrak horiek, eta ekintza penalaren preskribaezintasuna xedatzen. Funtsean, giza eskubideen nazioarteko zuzenbideak desagertze behartuaren biktima izan direnei buruzko egia jakiteko eta kaltea erreparatzeko eskubidea onartzen du, biktimaren definizio zabal batean oinarrituta; hor sartzen da desagertzearen ondorioz kalte zuzena jasan duen edonor¹²⁶.

Behartutako desagertzeen beste kasu batzuetan ez bezala, zeinetan interes juridikoa¹²⁷, baitzuen 1977ko Amnistia Legea aplikatzeko balizko aukerak, hala nola *Pertur*¹²⁸ auzian edo *Galiziako hiruren*¹²⁹;kasuan, Am-

119 Giza eskubideen nazioarteko zuzenbidean oro har onartzen den kontzeptua da hori, desagertze behartuen aurka pertsona guztiak babesteko nazioarteko konbentzioan jasoa; New York, 2006ko abenduaren 20a (BOE, 2011.02.18koa, 42. Zk., 18254 orr. eta hurrengoak), 2. artikulua.

120 *Ibid.*, 1. artikulua.

121 Desagertze behartuen aurka pertsona guztiak babesteari buruzko deklarazioa Batzar Nagusiak onartua, 1992ko abenduaren 18ko 47/133 ebazpenean [1/Res/47/133], 1. art.

122 Eskubide Zibil eta Politikoaren Nazioarteko Ituna, New Yorken egina, 1966ko abenduaren 19an (BOE 1977.04.30koa, 103. zk., 9337. orr. eta hurrengoak), 2.3. art.

123 Desagertze behartuen aurka pertsona guztiak babesteko Nazioarteko Konbentzioa, New Yorken egina, 2006ko abenduaren 20an (BOE, 2011.02.18koa, 42. zk., 18254 orr. eta hurrengoak).

124 *Ibid.*, 1. eta 5. artikulua.

125 Zigor-arloko legegileak 1/2015 Lege Organikoaren bidez Zigor Kodearen erreforman desagertze behartuaren mota bat sartu zuen gizateriaren aurkako delitu gisa (baldin eta biztanleria zibilarren edo haren zati baten aurkako eraso orokor edo sistematiko baten parte gisa egiten bada), eta 12 urtetik 15 urtera bitarteko espetxe-zigorra ezarri zuen (607 bis artikulua 2.6. apartatua).

126 Desagertze behartuen aurka pertsona guztiak babesteko Nazioarteko Konbentzioa, New Yorken egina, 2006ko abenduaren 20an (BOE, 2011.02.18koa, 42. zk., 18254 orr. eta hurrengoak), 24. art.

127 46/1977 Legea, urriaren 15ekoa, Amnistiarena.

128 Ikusi honi buruz GIZA ESKUBIDEEN ETA BOTERE PUBLIKOEN KATEDRA (UPV/EHU). “Pertur kasuari buruzko txostena: gaiaren egungo egoera”, *Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia*, 2017, 32-33. orr. Eskuragarri linean: https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/9576/Informe_Caso_Pertur.pdf?1495010623 [último acceso: 28/11/2019].

129 Ikusi honi buruz: GIZA ESKUBIDEEN ETA BOTERE PUBLIKOEN KATEDRA (UPV/EHU), “1973ko martxoaren 24an desagertutako hiru gazte coruñarrei buruzko txostena”, *Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia*, 2018ko martxoaren 24a. Eskuragarri linean: http://katedraddhh.eus/documentos/pdf/informes/INFORME_Desaparicion_tres_jovenes_gallegos_1973_24-03-2018.pdf [último acceso: 28/11/2019].

nistia Legearen aplikazio-eremutik kanpo dago *Naparraren* kasua argi eta garbi, delitu-egitateak 1980koak baitira. Kasu honetan ez dago preskripzioaren¹³⁰ balizko aplikagarritasuna balioetsi beharrik ere, *Naparraren* auzi judizialean ez delako erakunde juridiko hori ofizios aplikatu eta Fiskaltzak ere ez duelako alegatu horretarako prozesu-aukera zegoenean¹³¹. Gainera, nolana ere, delituaren preskripzioa eten egingo zukeen kereila aurkezteak eta 1999an Auzitegi Nazionalean prozesu-judiziala hasteak.

Sub iudice kausa bat denez, zuhurtziaz jokatu behar da, eta kasuaren azterketa juridikoa honetan oinarritu behar da: desagertze behartuen biktima orori onartutako egia jakiteko eta erreparazioa jasotzeko eskubidean, eta, zehazkiago, desagertzea argitzeko ikerketa eraginkor bat egiteko Estatuak duen betebeharraren. Nazioarteko arauak eta sistema kontrolatzeko Nazio Batuen organoak, hala nola Giza Eskubideen Europako Auzitegiak gutxienezko eskakizun batzuk garatu dituzte Europako Kontseiluaren esparruan, zeinak desagertze behartuen biktimen benetako estatutu juridikoa baitira.

2. Giza eskubideen nazioarteko zuzenbidean desagertze behartuak ikertzeko betebeharrak: Nazio Batuen estandarrak

2014an, desagertze-salaketa bat jarri zuen Egiari Zor fundazioak Nazio Batuen Desagertze Behartu edo Nahi Gabekoei buruzko Lantaldean (WGEID), Behatokiak *Naparra* kasuari buruz egindako txostena oinarri hartuta. Salaketaren ondorioz, lantaldea kasua izapidetzen hasi zen prozedura arruntaren bidez, eta gaia zehatz-mehatz aztertu zuten 103. bilkura-aldian. WGEIDk desagertutako pertsonen familiei laguntzeko agindua du, non dauden jakiteko, eta inplikaturako gobernuen eta familien eta gizarte zibileko erakundeen arteko komunikazio-bide izateko balio du. 1992an Pertsona Guztiak Desagertze Behartuen aurka Babesteari buruzko Adierazpena onartu ostean, adierazpen horretatik datozen betebeharrak betetzen estatuak egiten duten aurrerapena kontrolatzea ere bada lantaldearen egitekoa, bai eta betebeharrak horiek benetan gauzatzen laguntzea ere.

2.1. Biktima estatusa onartzea: erantzukizun penala eta erreparazioa

Aurretik ere esan denez, nazioarteko zuzenbidearen ikuspegitik, desagertuaz gain, desagertze behartu baten biktima da desagertze horren ondorioz zuzeneko kaltea¹³² jasan duen pertsona fisiko oro, desagertutako pertsonaren senideak edo lagunak barne¹³³. Pertur kasuari¹³⁴ buruzko txostenean adierazten zen bezala, desagertze-krimen baten zantzuek daudenean estatuak duten ikertzeko betebeharraren helburua ez da prozesu penalaren bidez erantzuleak zigortzea soilik, baita biktimen egitarako eta erreparaziorako

130 Preskripzioa prozeduragarritasuna eta zigorgarritasuna blokeatzeko kausa giza, Auzitegi Gorenaren eta giza eskubideen nazioarteko estandar garrantzitsuenen ikuspegitik, hemen: GIZA ESKUBIDEEN ETA BOTERE PUBLIKOEN KATEDRA (UPV/EHU). "Pertur kasuari buruzko txostena... *op. cit.*, 32. orr.

131 Kontuan hartzeko da, ordena publiko prozesalaren barruko gai bat denez, prozeduraren edozein unean alega daitekeela; MORALES PRATS, Fermín, "Título VII, Capítulo I: De las causas que extinguen la responsabilidad criminal", hemen: QUINTERO OLIVARES, Gonzalo, *Comentarios al Código Penal Español*. Tomo I, Thomson Reuters Aranzadi, Navarra, 7ª ed., 2016, 907. orr.

132 Desagertze behartuen aurka pertsona guztiak babesteko Nazioarteko Konbentzioa, New Yorken egina, 2006ko abenduaren 20an (BOE, 2011.02.18koa, 42. zk., 18254 orr. eta hurrengoak), 24. art.

133 Horri dagokionez, irakurri Amnistia Internazionalen txosten hau: *No a la impunidad de las desapariciones forzadas. Lista de requisitos para la implementación efectiva de la Convención Internacional contra las Desapariciones Forzadas*, Londres, 2011, 50. orr. Eskuragarri linean: <https://www.amnesty.org/download/Documents/32000/ior510062011es.pdf> [azken aldiz noiz sartu: 2019/11/28]

134 GIZA ESKUBIDEEN ETA BOTERE PUBLIKOEN KATEDRA (UPV/EHU). "Pertur kasuari buruzko txostena... *op. cit.*, 31. orr.

eskubidea gauzatzea ere. Alde horretatik, giza eskubideen nazioarteko arauen ageriko urraketen biktimei buruzko NBEren oinarriko printzipioak aipatu behar dira, errekursoak jarri eta erreparazioak lortzeko¹³⁵. Printzipio horiek argi eta garbi bereizten dituzte, alde batetik, biktimaren estatusaren aitortzea erreparazioarako, eta, bestetik, dagokion zigor-prozeduraren emaitza. Hala, biktimaren estatusa onartzeko ez da beharrezkoa urraketa egilea nor den argitzea –eta, are gutxiago, kondena-epaia izatea– prozedura penal baten esparruan¹³⁶.

2.2. Egia jakiteko eskubidea

Desagertze behartuen biktimek, Konbentzioaren babesean, egia jakiteko eskubidea dute, desagertzearen inguruabarrei, ikerketaren bilakaera eta emaitzei eta desagertutako pertsonaren egoerari dagokienez¹³⁷. Eskubide horrek betebeharrak ezartzen dizkio estatuari; izan ere, desagertutako pertsonak bilatzeko, lokalizatzeko eta askatzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartu beharko ditu, eta hil badira, haien gorpuk bilatu, errespetatu eta itzultzekoak¹³⁸. Egitarako eskubideak, argi dagoenez, dimensio indibiduala du, baina baita kolektiboa ere, zigorgabetasunaren aurkako borrokarekin eta desagertze behartuen prebentzioarekin bat egiten duena¹³⁹. Nazio Batuen esparruan zigorgabetasunaren aurka borrokatzeko printzipioen arabera, eskubide hori estatuaren betebeharrak preskribaezina da, eta horrek ikerketa judizial independentea eskatzen du gertaerak argitzeko, baina mekanismo ez-judizialen bidez ere bete behar da, hala badagokio, esate baterako egia erabazteko baten bidez¹⁴⁰.

Aurretik esandakoari jarraituz, biktimek ikerketa-prozesuaren egoera eta emaitzak ezagutzeko eskubide instrumentala dute. Era berean, desagertutako biktima non dagoen jakiteko eskubidea ere jasotzen da Konbentzioan, bai eta hildakoen gorpuzkiak berreskuratzeko eskubidea ere, haien senideen eta hurbilekoen sinesmenen arabera hilobiratzeko¹⁴¹. Betebeharrak, halaber, gertakariak eta erantzukizunak argitzeko ere balio du¹⁴².

2.3. Erreparazio osoa lortzeko eskubidea

Bai 1992ko Adierazpenak, bai Desagertzen behartuen aurkako Konbentzioak desagertzeen biktimek erreparazio azkarra, osoa eta benetakoa lortzeko eskubidea dutela onartzen dute¹⁴³. Erreparazioak zuzenbidea-

135 Giza eskubideen nazioarteko arauen ageriko urraketen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larrien biktimek errekursoak jartzeko eta ordainak jasotzeko duten eskubideari buruzko oinarriko printzipio eta jarraibideak; NBEren 2005eko abenduaren 16ko Ebazpena [A/RES/60/147].

136 Ibid., V. printzipioa, 9. paragrafoa.

137 Desagertze behartuen aurkako Nazioarteko Konbentzioa, 24.2. art. eta hitzaurrea: “*Biktima bakoitzak eskubidea du egia jakiteko desagertze behartuaren inguruabarrei buruz, ikerketaren bilakaerari eta emaitzei buruz eta desagertutako pertsonaren egoerari buruz. Estatu alderdi bakoitzak egokiak diren neurriak hartu beharko ditu esandakoa betetzeko*”.

138 Ibid.

139 Ikusi Giza eskubideak babesteko eta sustatzeko printzipio eguneratuen sorta, zigorgabetasunaren aurka borrokatzeko: 4. printzipioa (E/CN.4/2005/102/Add.1).

140 Ibid., V. printzipioa.

141 Desagertze behartuen aurkako Nazioarteko Konbentzioa, 24.3. art.: “*Estatu alderdi bakoitzak neurri egoki guztiak hartuko ditu, desagertutako pertsonak bilatu, aurkitu eta askatzeko, eta, pertsona horiek hilda badaude, horien gorpuzkiak bilatu, errespetatu eta itzultzeko*”.

142 Ikusi Amnistía Internazionalen txostena: *No a la impunidad de las desapariciones forzadas...*, op. cit., 52. orr, eta 168. oharrean aipatzen den CIDHren jurisprudentzia.

143 Pertsona Guztiak Desagertzen Behartuen aurka Babesteari buruzko Adierazpenaren 19. art.: “*Desagertze behartuen biktimek eta haien senideek erreparazioa lortu beharko dute, eta kalte-ordain egokia jasotzeko eskubidea izango dute eta berriz ere ahalik eta modu egokienean egokitzeko baliabideak izateko. Desagertze behartuaren ondorioz biktima hiltzen bada, haren familiak izango du kalte-ordaina jasotzeko eskubidea*” eta Desagertze behartuen aurkako Nazioarteko Konbentzioaren 24. art.: “*4. Estatu alderdiek euren lege-sistemak desagertze behartu baten biktimari erreparazioarako eta kalte-ordain azkar, bidezko eta egokirako eskubidea bermatuko diela zainduko dute. 5. Artikulu honen 4. paragrafoan jasotzen den erreparazioarako eskubideak kalte material eta moral guztiak hartzen ditu, eta, dagokionean, beste erreparazio-modalitate batzuk ere bai, hala nola a) lehengoratzea; b) berregokitzea; c) gogobetetzea, duintasuna eta izen ona lehengoratzea barne; d) berriz ez gertatzeko bermeak. 6. Desagertutako pertsona non dagoen argitu arte ikerketarekin jarraitzeko betebeharrari kalterik*

ren aurkako egitatearen ondorioak ezabatzea edo arintzea du helburu, eta desagertzeak eragindako kalte materialak nahiz moralak hartzen ditu barnean. Hauek dira erreparazio moduak edo modalitateak: lehengoratztea (biktima urraketaren aurreko egoerara lehengoratzeko edo itzultzeko, aukera dagoenean), kalte-ordaina, errehabilitazioa (arreta medikoa eta psikologikoa eta zerbitzu juridiko eta gizarte zerbitzuak barne), gogobetetzea eta berriz ez dela gertatuko bermatzea¹⁴⁴. Edonola ere, jasandako urraketan eta kaltearen larritasunaren arabera izan behar du erreparazioa¹⁴⁵. Kalte-ordainen bidearen kasuan, kalte materialak nahiz moralak ordaindu behar dira, bai eta laguntza juridikoak edo adituen laguntzak, medikamentuek eta zerbitzu mediko eta psikologikoei nahiz gizarte zerbitzuei sortutako gastuak ere¹⁴⁶.

3. Desagertze behartuen alorreko Europako estandarrak, eta Estatuak ikerketa eraginkorra egiteko duen betebeharra

3.1. Ikerketa eraginkor bat egin beharra, bizitzeko eskubidea errespetatzen dela adierazten duen prozesuko berme gisa (Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren –GEEH– 2. art.)

Pertsona guztiek bizitzeko eskubidea dutela eta legez babestuta egongo direla ezartzen du 2. artikulua. Hala ere, badago kausa tasatuen *numerus clausus* bat, non heriotza eragiteak ez dakarren berekin GEEHren 2. artikuluan jasotako arau-haustea. Horrek ikerketa eraginkor bat egiteko betebeharrarekin bat datorren lehen eskakizun bat aurreratzen du. Jarraian azalduko dugu xeheki. Zehazki, 2.1. artikulua GEEHn jasotako bizitarako eskubidearen urraketa salbuesten du, auzitegi batek emandako heriotza-zigorra ezartzen duen kondena baten betearazpenaren bidez gertatzen bada, betiere legezketasun-printzipioaren arabera. 2.2. artikulua arau-haustetik salbuesten du, erabat beharrezkoa den indar batera joz, pertsona bat legez kontrako eraso baten aurka defendatzen duena, zuzenbidearen arabera pertsona bat atxilotzen duena edo preso edo legez atxilotutako baten ihesa eragozten duena edo matxinada edo errebolta bat legez erreprimitzen duena. Hemen interesatzen zaigunerako, pertsona baten heriotza justifikatzen duten inguruabarrak zorrotz egiaztatu eta mugatu behar dira¹⁴⁷, eta horrenbestez, GEEHrekin bat datozen jardueren edo jokabideen esparru horretatik kanpo geratzen direnak ere ezagutu ahal izango dira.

Gainera, GEEHren 2. eta 1. artikuluen irakurketa bateratua eginez gero, zeinak Estatuari eskatzen baitie GEEHren eskubide eta askatasunak aitortu, bermatu eta errespetatzeko bere jurisdikziopeko pertsona orori, Estatuak ikerketa ofizial eraginkorra egiteko betebeharrak positiboak duela ari da ezartzen, indarra erabiltzearen ondorioz heriotza bat gertatzen denean. Izan ere, GEEHren 2. artikulua arabera, estatuek bizitza babesteko duten betebeharra (bizitzeko eskubidearen dimentsio “substantiboa”) praktikan edukirik gabe geratuko litzateke ikerketa ofizial egokia egiten ez bada (bizitzeko eskubidearen dimentsio “prozesala”)¹⁴⁸. Betebeharrak hori modu autonomoan hartzen da kontuan eta bizitzeko eskubidearen alderdi

egin gabe, estatu alderdi bakoitzak xedapen egokiak hartuko ditu desagertutako pertsonen lege-egoerari, pertsona horien egoera ez denean argitu, eta horien senideei dagokienez, besteak beste, gizarte-babesaren, gai ekonomikoaren, familia-zuzenbidearen eta jabetza-eskubideen esparruetan”.

144 Errekurtsoak jarri eta erreparazioak lortzeko eskubideari buruzko Oinarrizko Printzipioak (Van Boven-Bassiouni printzipioak), NBEren Giza Eskubideen Batzordea, E/CN.4/RES/2005/35, 2005eko apirilaren 13a.

145 *Ibid.*, 15. paragrafoa.

146 *Ibid.*, 20. paragrafoa.

147 TEDH, *Hugh Jordan c. Reino Unido*, 2001eko maiatzaren 4a (102. apart.).

148 TEDH, *McCann y otros c. Reino Unido*, 1995eko irailaren 27a (161. apart.); TEDH, *Kaya c. Turquía*, 1998ko otsailaren 19a (86. apart.).

substantibotik bereizita, eta doktrina berezi bat finkatuz joan da¹⁴⁹. Jarraian azalduko ditugun ezaugarriak dituen ikerketa batek berebiziko garrantzia du, batetik, bizitzeko eskubidea babesten duen legedi nazionala benetan ezartzen dela ziurtatzeko, eta, bestetik, estatuko agenteak tartean diren kasuetan, heriotza izan bada dagozkion erantzukizunak argitzeko¹⁵⁰. Are gehiago, nahitaezko berraktibatze gaitasun hori guztia ahultzen duen ikerketaren edozein akatsek GEEAren (Giza Eskubideen Europako Auzitegia) gutxieneko estandarra urratzeko arriskua du¹⁵¹.

Ikerketa eraginkor batek, besteak beste¹⁵², heriotzaren arrazoa zehazteko gaitasuna eta erantzulea(k) identifikatzeko eta zigortzeko ahalmena ditu ardatz. Beraz, ikerketa bat eraginkorra izan dadin, aurrebaldintza da «egokia» izatea¹⁵³. Baliabideen betebeharrak bat da, baina ez dago lotuta interes legitimoak eta haren inguruan sortutako itxaropenak ase nahi dituen emaitzekin. Agintariak behartuta daude egitatei buruzko frogak lortzeko eta gauzatzeko arrazoizko urrats guztiak ematera, eta horren barruan sartzen dira, gure kasuan, zentzuzkoak izan daitezkeen beste eginbide batzuen artean, Gilbert Perreti deklarazioa hartzea¹⁵⁴ (2004an eskatu eta ukatu zen) eta *Naparraren* gorpuzkiak Mont de Marsanen bilatzea¹⁵⁵ —amaitu gabe. Aurrekoaren haritik, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak argi uzten du ikerketak azkar egin beharko direla, hori bai, ikerketa garatzea eragoz ditzaketen zailtasunak edo oztupoak sor daitezkeela jakinda¹⁵⁶. Urrunago joan gabe, agintari nazionalen praxi txarragatik ikerketa garatzen ari den moduari buruzko informaziorik ematen ez dutenez, gerta liteke Auzitegiak ezin adierazi ahal izatea hartutako neurri batzuek denbora-baldintza hori betetzen duten ala ez¹⁵⁷.

Pentsatzekoa denez, egin beharreko ikerketa zehatza aldatu egingo da kasuaren inguruabarren arabera. Hala ere, inguruabarrak edozein direla ere, estatuko agintariak ofizioz jardun behar dute ezer dakiten unetik beretik, haien jarduna prozedura judiziala abian jartzeko familiako ekimenaren mende jarri gabe¹⁵⁸. *Naparraren* kasuan, eta 1982ko otsailaren 10ean Baionako Instrukzio Epaitegiak irekita zeuden eginbideak artxibatu zituenetik 1999. urtera arte, Espainian ez zen jarduera judizial handirik egon; izan ere, familiak, orduan, kereila bat jarri zuen delitua preskribatu ez zedin, Frantzian zazpi urte lehenago gertatu zen bezala.

Nolanahi ere, ikerketa eraginkor baten betebeharretik datozen eskakizun berezi horiek ez dira mugatzen egileak estatuaren agente diren kasuetara. Alderdi horri dagokionez *Yaşa c. Turquia*, *Salman c. Turquia* edo *Toğcu c. Turquia* kasuetan argitzen da betebeharra ez dagoela mugaturik estatuko agente bat inplikaturik dagoela uste den kasuetara¹⁵⁹. *Menson c. Reino Unido* kasuan, GEEAk argitzen du norbaiten heriotzan Estatuak zuzenean erantzukizunik ez izateak ez duela baztertzen GEEHren 2. artikulua aplikagarritasuna. Azken batean, ikerketa ofizial eraginkorra egin beharko dela pertsona batek egoera susmagarrietan bere

149 GEEA, *Varnava y otros c. Turquia*, 2009ko irailaren 18a (138. apart.).

150 GEEA, *Hugh Jordan c. Reino Unido*, 2001eko maiatzaren 4a (105. apart.).

151 GEEA, *Hugh Jordan c. Reino Unido*, 2001eko maiatzaren 4a (107. apart.); TEDH, *McKerr c. Reino Unido*, 2001eko maiatzaren 4a (113. apart.); TEDH, *Orhan c. Turquia*, 2002ko ekainaren 18a (335. apart.); TEDH, *Aktas c. Turquia*, 2003 apirilaren 23a (300. apart.); TEDH, *Tahsin c. Turquia*, 2004ko apirilaren 8a (223. apart.); TEDH, *Ramsahai y otros c. Holanda*, 2007ko maiatzaren 15a (324. apart.).

152 Adibidez, ikerketa eraginkor bat izan daiteke haren arduradunentzat “beharrezkoa” dena, hau da, pertsona independente eta inpartzialak egitea gertakarietan ustez inplikaturik dauden pertsonen buruzko ikerketa. Zehatzago, hierarkia- edo erakunde-mailako ikerketa independenteaz gain, ondorio praktikoetarako ere hala izan behar du. Horretaz gain, kontuan hartzekoa da ikerketek eta haien emaitzek behar adinako azterketa publikoa izan behar dutela, eta senideek parte hartzeko aukera izan behar dutela.

153 GEEA, *Ramsahai y otros c. Holanda*, 2007ko maiatzaren 15a (324. apart.).

154 Ikusi lekuko batek deklarazioa ez egitearekin erlazioatutako adibidea: GEEA, *Tanrikulu c. Turquia*, 1999ko uztailaren 8a (109. apart.).

155 Ikusi auzitegi-frogak ez biltzearekin erlazioatutako adibidea: GEEA, *Gül c. Turquia*, 2000ko abenduaren 14a (89. apart.).

156 LASAGABASTER HERRARTE (zuz.), *Convenio Europeo de Derechos Humanos. Comentario sistemático (3. ed.)*, Civitas, Iruña, 2015, 40. orr. Besteak beste ikusi GEEA, *Toğcu c. Turquia*, 2005eko maiatzaren 31 (111. apart.).

157 GEEA, *Vagapova y Zubirayev c. Rusia*, 2009ko otsailaren 26a (100. apart.).

158 RAINEY, WICKS & OVEY, *Jacobs, White & Ovey. The European Convention on Human Rights* (6th Ed.), Oxford University Press, Oxford, 2014, p. 160; HARRIS, O’BOYLE, BATES & BUCKLEY, *Harris, O’Boyle, and Warbrick Law of the European Convention on Human Rights* (3rd Ed.), Oxford University Press, 215. orr.; GEEA, *Ilhan c. Turquia*, 2000ko ekainaren 27koa (63. apart.); GEEA, *McKerr c. Reino Unido*, 2001eko maiatzaren 4koa (111. apart.); GEEA, *Nachova y otros c. Bulgaria*, 2005eko uztailaren 6a (111. apart.); *Akpinar y Altun c. Turquia*, 2007ko otsailaren 27a (35. apart.).

159 GEEA, *Yaşa c. Turquia*, 1998ko irailaren 2a (100. apart.); TEDH, *Salman c. Turquia*, 2000ko ekainaren 27a (105. apart.); TEDH, *Toğcu c. Turquia*, 2005eko maiatzaren 31 (109. apart.).

bizitza arriskuan jartzen duten lesioak jasan dituela pentsatzeko arrazoiak daudenean. Gainera, ohartarazten du aipatutako oinarriko prozesu-eskakizun guztiak indar berarekin aplikatzen direla pertsona baten bizitza mehatxatzen duten erasoei buruzko ikerketa batean ("life-threatening"), heriotza gertatu ala ez¹⁶⁰. Desagerpen batean izaten den bizitzarako arrisku-egoera baten adibide bat izan daiteke gatazka-eremu batean pertsona bat identifikatu gabeko estatu-agenteek atxilotzea eta atxilotu dutela ez onartzea geroago¹⁶¹. Testuinguru horretan, hurrengo urteetan desagertuaren berririk ez izateak balioko du desagertuena bizitza mehatxatzen duten egoeretan gertatu dela uste izateko¹⁶².

Azken finean, Hitzarmenaren 2. artikulutik ondorioztatzen den ikertzeko betebeharrak ofizial eta eraginkorra oraindik non dagoen ez dakigun desagertutako edozein pertsonaren kasuetarako da¹⁶³. Aipatu berri dugun ildo horretatik, Estatuak ikertzeko duen betebeharraren nondik norakoak zehaztasun handiagoz ikusteko, gai horri buruzko zenbait erabaki interesgarri aztertuko ditugu labur-labur, hau da, 2. artikulua urratzeagatik estatuari zigorra ezarri dioten desagertze-kasuei buruzko zenbait erabaki.

Chipre c. Turquía kasu garrantzitsuan (2001)¹⁶⁴, Auzitegiak gogorarazten du ez dela desagertutako pertsona batek bizia galdu duela egiaztatzen duen frogarik behar egitateen kontakizuna argitzen duen ikerketa eraginkor baten betebeharra egon dadin. Aitzitik, litekeena da ikertzeko betebeharrak prozesala bizitzarako arriskutsutzat jo daitekeen testuinguru batean norbait desagertu zela dioen adierazpen eztabaidagarri batetik sortzea. Testuinguru hori, aipatutako kasuan, bat dator indar turkiar edo turkiar-zipretarrek atxilotu ugari egiten zituen garaiarekin (1974ko uztaila eta abuztua), non Turkiak egindako operazio militarretan atxilotu eta hilketa ugari egin ziren Zipreko iparraldean. Gutxienez, arrisku-giro iraunkorri eta beldurrari buruzko adierazleak zeuden, bai eta atxilotuek atxilotu izateagatik zituzten benetako arriskuei buruzkoak ere. Auzitegiak dio etengabe urratu dela GEEHren 2. artikulua, desagertutako zenbait greziar-zipretarren kasuan. Izan ere, agintari nazionalak ez dute inoiz ikerketa bat abiarazi desagertutako pertsonen senideen adierazpenak kontuan hartuta, hau da haien bizitzak arriskuan egotea onargarria zen egoeretan atxilotu eta desagertu zirela jakinda. Agintari nazionalak ez zuten espero izatekoa zen ikerketa eraginkorra bideratu, desagertutako greziar-zipretarrei zer gertatu zitzaien eta non zeuden argitzeko¹⁶⁵.

Baina Zipre Turkiaren aurka kasua Zipreko Gobernuak testuinguru horretan Turkiaren aurka jarritako demandatako baten amaiera baino ez da. *Varnava y otros c. Turquía* kasuan (2009)¹⁶⁶, desagertuena kasuan ikerketa eraginkorra egiteko betebeharrari heldu zion berriz ere Sala Nagusiak. Epai horretan jasotzen diren interes ukazineko gaien artean, gutxienez bik banan-banan aipatzea merezi dute: 1) Heriotza presuntzioa; eta 2) Desagerpenak ikertzeko betebeharrak prozesalaren izaera eta ondorioak.

Lehenik eta behin, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak Turkiako Gobernuak egindako alegazioei erantzuten die. Alegazio horien arabera, desagertutako pertsonak ustez hiltzat jo behar ziren, eta, horrenbestez, haien desagertuena beren bizitzarako arriskutsuak diren egoeretan izan zirela ikertzeko betebeharra ere indargabetu egiten zen. Auzitegiak ondorioztatzen du, desagertutakoak 1974ko uda hartan edo gertakari haien ondoren hil zirela babesteko adinako oinarri zirkunstantzialik balego ere, hori ez litzatekeela oztopo izango demandatzaileek beren demandari eusteko, gertakariak ikertzeko betebeharrak eraginkorrik izan ez zelako. Are gehiago, ikertzeko betebeharrak nekez amai daiteke gorpua aurkituta edo heriotza-presuntzioa izanda; izan ere, horrek zati batean bakarrik argitzen du desagertuari zer gertatu zitzaion. Arrazoibide-ildo honetatik, ondorioa argia eta zehatza da: "Desagertu eta hiltzeagatik erantzuteko betebeharra, bai eta

160 GEEA, *Menson y otros c. Reino Unido* (47916/99 eskabidea onartzeari buruzko erabakia), 2003ko maiatzaren 6a (1. apart.). Interes berezia du GEEAk *Toğcu c. Turquía* kasuari buruz adierazitakoak: "Auzitegiak irizten dio ez dagoela Ender Toğcu hil egin dutela esateko frogarik. Dena den, Auzitegiak uste du betebeharrak [GEEHren 2. artikuluan jasotako bizitzarako eskubidearen dimentsio «prozesalarekin» erlazionatutakoak] (...) ere aplikatzen zaizkiela pertsona bat bizitzarako arriskutsuak direla jo daitezkeen egoeretan desagertzen den kasuei" (guk egindako itzulpena eta azpimarra gehitua). Ikusi GEEA, *Toğcu c. Turquía*, 2005eko maiatzaren 31 (112. apart.).

161 GEEA, *Aslakhanova y otros c. Rusia*, 2012ko abenduaren 18a (101 apart.).

162 Ikusi GEEA, *Vagapova y Zubirayev c. Rusia*, 2009ko otsailaren 26a (86. apart.); TEDH, *Aslakhanova y otros c. Rusia*, 2012ko abenduaren 18a (101. apart.).

163 HARRIS, O'BOYLE, BATES & BUCKLEY, *Harris, O'Boyle, and Warbrick Law of the European Convention on Human Rights* (3rd Ed.), Oxford University Press, 214 orr..

164 GEEA, *Chipre c. Turquía*, 2001eko maiatzaren 10a.

165 *Ibid.*, 131-136 apart.

166 GEEA, *Varnava y otros c. Turquía*, 2009ko irailaren 18a.

edozein arduradun identifikatu eta epaitzeko betebeharra ere (...), oro har, mantendu egingo dira”, denbora igaro arren eta desagertzeari buruzko datu gehiago ez izan arren, eta nahiz eta heriotza hori faktikoki uste izatekoa izan daitekeen (141-146. apartatutak).

Bestetik, Auzitegiak desagerpenen fenomenoak izaera iraunkorra duela azpimarratzen du bete-betean, eta haren ezaugarri bereizgarriak aipatzen ditu: ziurgabetasun-egoera, erantzukizunik ez hartzea, informazioaren eza, nahita ezkutatu ahal izatea, gertatutakoan itsutzea ez jakintasunagatik eta desagertutako pertsonaren ahaideek luzaroan jasaten duten atsekabea. Horregatik, heriotza dakarren beste edozein delitutan ez bezala, ikertzeko betebeharraren prozesalak iraun egingo du desagerpenaren inguruabarrak oraindik azalpenik gabe dauden bitartean. Hortik, bereaz, Zipre Turkiaren aurka kasuan (2001) GEEHaren 2. artikulua etengabe urratu dela esatea (147-149. apartatuak). Desagertzeen kasuetako ikerketak normalean frogamaterialekin hasten direnez, funtsezko proben bilaketa nahiko atzeratu ohi da. Ildo horretatik, Estrasburgoko Auzitegiak ulertu du zentzuzkoa dela denbora-muga luzatzea, egindako ikerketan akatsak edo murrizketak direla-eta erantzukizunak eskatzeko¹⁶⁷.

Azkenik, adierazi behar da, halaber, Estatuak ikerketa ofizial eraginkor bat egiteko duen betebeharraren positiboaren ikuspegitik, alderdi prozesalari dagokionez askatasunerako eta segurtasunerako eskubideari buruzko 5. artikulua ere urratu daitekeela, hala badagokio eta modu osagarrian. *Varnava y otros c. Turquía* kasuan (2009) GEEAk hori bera aipatzen du, esaten duenean prozesuaren dimentsioari dagokionez GEEHren 2. artikulua urraketa izan dela adierazten duten ageriko ebidentziak daudenean, horrek adierazten duela GEEHaren 5. artikulua urratzen dela etengabe¹⁶⁸. Izan ere, ohikoa da GEEHaren 2. edo 3. artikuluari buruz GEEAren iristen diren zalantzetan, GEEHren 5. artikuluari dagozkion alegazioak ere ebaztea. Horrek zentzua du; izan ere, desagertutako pertsonaren askatasun fisikoari eta segurtasunari buruzko esku-hartze edo gainbegiratze judizial azkar batek, zalantzarik gabe, haren bizitzarako edo osotasun fisikorako kaltegarria izan daitekeen mehatxu bat detektatzen eta prebenitzen lagun dezake, eta horiek zuzenago daude babestuta GEEHren 2 eta 3. artikuluen bidez¹⁶⁹.

Desagerpenaren atzean daudenak Estatuako agenteak edo partikularrak izan ala ez, Estatuak neurri egokiak hartu behar ditu GEEHren 2. eta 3. artikuluetako eskubideak eta askatasunak urratzen dituen edozein interferentziaren aurrean babes nahikoa emateko. Halaxe xedatzen da *Storck c. Turquía* kasuan (2005); izan ere auzitegiari eskatzen zaio GEEAren 5. artikulua ere GEEAren 2. eta 3. artikuluetan jasotako noranzkoan eraiki behar dela. Hau da, Estatuaren prebentziorako betebeharraren positibo bat, herritar guztien askatasunaren babesarekin lotuko dena, agintariak badakiten edo jakin beharko luketen gabeziei aurre egiteko. Hala ez balitz, libre utziko litzateke atxilotetaren arbitrariotasuna¹⁷⁰.

3.2. Ikerketa eraginkorra egiteko betebeharra tortura edo tratu anker/umiliagarriak debekatzeko berme gisa (GEEHren 3. art.): ondorioak biktimaren senideentzat

GEEHren 2. artikulua arabera, estatuak bizitza babesteko duten betebeharrarekin gertatzen den bezala, eta zehazkiago ikerketa eraginkor bat egiteko betebeharraren positiboarekin, GEEHaren 3. artikulua ere premisa horietatik abiatzen da, tortura edo tratu anker edo umiliagarriak jasateko debekua dimentsio «substantiboa» eraikitzeko, eta, aldi berean, debeku absolutu eta indargabetu ezinaren dimentsio «prozesala» eraikitzeko. Bigarrena da, berriz ere, txosten hau egiteko finkatutako helburuetarako garrantzia duena. Hala eta guztiz ere, GEEAren 2. artikuluko ikerketa ofizial eraginkorraren inguruko eskakizunek berdin balio dute, orobat, GEEAren 3. artikulurako ere; horrenbestez, azaldutakoa berriz ere ez errepikatze, komeni da GEEAren 3. artikuluan ematen den babesaren alderdi nabarmenenak eta berezianak ezagutzea haren dimentsio prozesalean, desagertze behartuen egoerei aurre egiteko. Gainerakoan, giza-

167 GEEA, *Aslakhanova y otros c. Rusia*, 2012ko abenduaren 18a.

168 GEEA, *Varnava y otros c. Turquía*, 2009ko irailaren 18a (208. apart.). Ikusi, orobat SCHABAS, *The European Convention on Human Rights. A commentary*, 229 orr.; RAINEY, WICKS & OVEY, *Jacobs, White & Ovey. The European Convention on Human Rights* (7th Ed.), Oxford University Press, Oxford, 2014, 244 orr.

169 Ikusi GEEA, *Aksoy c. Turquía*, 1996ko abenduaren 18koa (76. apart.); TEDH, *El-Masri c. Ex República Yugoslava de Macedonia*, 2012ko abenduaren 13koa (231. apart.); TEDH, *Husayn (Abu Zubaydah) c. Polonia*, 2014ko uztailaren 24koa (522. apart.).

170 GEEA, *Storck c. Alemania*, 2005eko irailaren 16a (101-102. apart.).

banakoek torturarik edo tratu anker edo umiliagarriak ez dutela izango ziurtatzeko, Estatuak hartu behar dituen neurri positiboak ere aldarrika daitezke eragile pribatu gisa jarduten dutenentzat¹⁷¹. Beraz, hemen xedatzen den guztia ez da soilik desagertze kasuetan nahasita egon daitezkeela uste den eta, ezbairik gabe, kasu gehienak hartzen dituzten estatu-eragileak izango, espektoak edozein herritar edo herritar -talde ere hartuko baitu.

Dimentsio prozesalean GEEHaren 3. artikulua alegatuz GEEAra jotzeko agertokirik ohikoa, desagertze behartuek osatzen duten bezalako esparru mugatua, baldintza subjektibo oso bereziki uztartzen da, non, tartean, demandatzailea dagoen. Oro har, desagertutako pertsonaren ahaide batek sufrimendu-plus bat frogatu behar du, gertakariaren ikerketan inplikaturako agintariaren erakutsitako erreakzio eta jarrerekin zuzenean lotutakoa, horren berri jakiten duenean. Dirudienez, *Kurt c. Turquía* kasua (1998) litzateke arreta desagertzeetan jartzen duen garapen-ildo bati jarraitzen dion lehenengo kasua¹⁷². GEEAk aditza ematen duenez, desagertuaren ama, agintari turkiarrek bere semeari buruz informaziorik ez emateak dakarren larritasun eta atsekabeak jota, bakarrik utzi zuten, eta, hori guztia, segurtasun indarrek atxilotu zutela susmatzen zela jakinda¹⁷³. Tratu anker eta umiliagarriaren biktima dela dio, eta GEEHaren 3. artikulua urratzen dela.

Hala ere, *Çakici c. Turquía* kasua arte itxaron beharko litzateke (1999) GEEAk *Kurt c. Turquía* kasuan islatu ez ziren printzipio orokor batzuk finkatzeko. Lehenik eta behin, Auzitegiak eskatzen du faktore partikularrak egon behar direla senidearen sufrimenduaren kalte emozionala hutsa gainditzen duen dimentsioa eta izaera ematen diotenak; nolabait ere, kalte emozional hori beti jasango dute horrelako gertaerak bizi dituzten senideek. Nolanahi ere, kalte emozional hori beti jasango dute horrelako gertaerak bizi dituzten senideek. Nolanahi, sufrimenduaren "normaltasun" atalase hori gainditu behar da, senideentzako muturreko egoera baten barruan. Eta estandar hori gainditu dela balioesteko, GEEAk zenbait elementu kontuan hartzea proposatzen du, baina zerrenda irekita uzten du. Hauek dira: a) desagertua eta senidea lotzen dituzten familia-loturak gertukoak izatea, gurasoen eta seme-alaben arteko lotura bereziki garrantzitsua izanik; b) desagertuaren eta senidearen arteko harremanaren inguruabar partikularrak; c) senitartekoak desagertuaren inguruko gertaerak ikusi zituen; d) senitartekoak desagertutakoari buruzko informazioa biltzeko orduan zer nolako inplikazio-maila izan zuen, eta agintariak nola erantzun zioten.

Baina sufrimenduaren plusa beharrezkoa bada ere, GEEHaren 3. artikulua urratzen funtsa, dimentsio prozesalean, ezin da desbideratu eta desagertuenean bertan kokatu. Aitzitik, agintari nazionalak familiarrekoari erakutsitako erreakzioa eta jarrera izan behar da sufrimenduaren iturria, behin kasuaren berri dutenean¹⁷⁴. Senitartekoaren ziurgabetasun-egoera oso lotuta dago desagertuak izan zezakeen zoriarekin, eta egoera horrek garrantzi handia du¹⁷⁵. Hori dela eta, GEEA ez da denboran asko luzatzen ez diren desagertuak balioesten hasten, eta joera handiagoa izango du, esate baterako, desagertua hilda agertzen den arte denboran luzatzen direnak balioesteko¹⁷⁶. Horretaz gainera,

171 Vlksi, adibidez, GEEA, *H.L.R. c. Francia*, 1997ko apirilaren 29a (40. apart.); GEEA, *A c. Reino Unido*, 1998ko irailaren 23koa (22. apart.); GEEA, *Z y otros c. Reino Unido*, 2001eko maiatzaren 10a (73. apart.).

172 Kasu honetan, Koçeri Kurt desagertuaren ama –turkiarra nazionalitatez– demanda bat jartzen du semea desagertu zelako. Dirudienez, terrorismoaren aurkako operazio batzuen esparruan ari ziren soldadu eta udaltzainek desagerrarazi zuten 1993an. Agintariak, halaber, demanda aurkez ez zezan saiatu ziren uneoro, bai izuri eginez, bai errua PKK (Kurdistango Langileen Alderdiak) erakunde terroristak egindako ustezko bahiketa bati botaz. Demanda jarri ostean, GEEHren 3. artikulua alderdi substantiboa argitzen du GEEAk errekurtsogilearen semeari dagokionez, bai eta dimentsio prozesala ere, errekurtsogileari berari dagokionez, biktima gisa. Lehenengoari dagokionez behintzat, Auzitegiak errekurtsogilearen aurka epaitzen du, ez baitzuen froga eztabaida ezinik aurkeztu semeak tratu ankerra jasan zuela frogatzeko. Ez zen gauza bera gertatu GEEHaren 3. artikulua ustezko urratetan, dimentsio prozesalari dagokionez; izan ere, GEEAk ondorioztatu zuen Estatuak benetan urratu zuela artikulua hori.

173 GEEA, *Kurt c. Turquía*, 1998ko maiatzaren 25a (130-134. apart.).

174 GEEA, *Çakici c. Turquía*, 1999ko uztailaren 8a (98. apart.).

175 Izan ere, norbait atxilotu eta gero hilda agertzen denean, min handia eragin arren, gertaera horrek berak ere desegin egiten du senidearen ziurgabetasun-egoera, eta, horrenbestez, GEEAk ukatu egiten du GEEHaren 3. artikulua urratu dela. Era berean, GEEHaren 2. artikulua dimentsio substantiboaren nahiz prozesalaren urrateta gertatu dela jakitean, ez da GEEHaren 3. artikulua urratetarik balioesten. Ikusi HARRIS, O'BOYLE, BATES & BUCKLEY, *Harris, O'Boyle, and Warbrick Law of the European Convention on Human Rights* (3rd Ed.), Oxford University Press, 256. orr.; SCHABAS, *The European Convention on Human Rights. A commentary*, 171. orr. (irakurri zehazki 54. eta 55. oin-oharrek, era horretako epaien-zerrenda ikusteko).

176 Ikusi HARRIS, O'BOYLE, BATES & BUCKLEY, *Harris, O'Boyle, and Warbrick Law of the European Convention on Human Rights* (3rd Ed.), Oxford University Press, pp. 256-257; SCHABAS, *The European Convention on Human Rights. A commentary*, 171. orr. (irakurri zehazki 53. oin-oharra, era horretako epaien-zerrenda ikusteko).

praxi txar batek desagertuari buruzko egia jakiteko eskubidea ikertzeko zer eragin izan dezakeen azpimarratu du Auzitegiak. Eta ez soilik demandatzailearentzat edo desagertuaren familiarentzat, baita antzeko gertaeren biktimarentzat eta, oro har, publikoarentzat ere¹⁷⁷. Hain zuzen, GEEHaren 3. artikuluari dagokion ikerketa ofizial eraginkor batek eskatuko du biktimak modu batean edo bestean parte hartzea ikerketan, eta ikerketa injerentzia hierarkiako eta instituzionalik gabe egitea, praktikan. Informazio eza eta biktimaren sufrimenduari behar bezalako arretarik ez jartzea desagertzeari buruzko ikerketa desegokia dela erakusten duten ebidentziak dira¹⁷⁸.

3.3. Desagertze behartuen kasuan estatuarteko lankidetzan aritu beharra

Aurreko atalean esan den bezala, Estrasburgoko Auzitegiak argi eta garbi ezarri du Europako estatuek beren lurraldean izan diren legez kanpoko ustezko gauzatzeen ikerketa eraginkorra egiteko betebeharra dutela, eta betebeharraren prozesala hori, nagusiki, bizitzeko eskubidea babesteko betebeharraren substantibotik dator (GEEHaren 2. art.). Alde horretatik, arau orokor gisa, bizitzarako eskubidea desagertu edo urratu den estatua izango da, printzipioz, ikerlanaren erantzulea, ikertzeko betebeharra sortzeko egon behar den jurisdikzio-loturaren arabera (GEEHaren 1. art.)¹⁷⁹.

Hala ere, onartzen da, inguruabar berezi batzuetan, urraketarik gertatu ez den beste estatu batek ere bada ikerketa eraginkorra egiteko betebeharraren prozesala. Hemen interesatzen zaigunari dagokionez, azpimarratu behar da Auzitegiak, Sala Nagusi eran, duela gutxi, *Güzelyurtlu c. Turquia* [2019] kasuan hain zuzen ere, onartu duela “egoera berezi” bat dela estatu kide bateko agintariek beren lurraldetik kanpo gertatutako heriotza bati buruzko ikerketa judicial bat hastea, etxeko legeria kontuan hartuta¹⁸⁰. Kasu horietan, ikertzeko betebeharra eskumena onartu duen estatuaren eta prozedura bultzatu duen biktimaren senideen artean ezartzen da¹⁸¹. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzia aplikatuz, esan daiteke, beraz, *Naparraren* kasuan, Hitzarmenaren 2. artikulutik ondorioztatzen den desagertzea ikertzeko betebeharraren prozesala Frantziako eta Espainiako estatuei dagokiela.

Nolanahi ere, bereizi egin behar dira ikertzeko betebeharraren prozesala eta aztergai duguna bezalako kasuetan Europako estatuen artean lankidetzan aritzeko betebeharra. Lankidetzan aritzeko betebeharraren GEEAren jurisprudentzian oso onartuta dagoen betebeharraren positiboa da, eta Hitzarmenaren 2. artikulutik datorren ikerketa-betebeharraren prozesalaren parte da¹⁸². Bi noranzkoko betebeharra da; hau da, lankidetzaren eskatzeko betebeharra eta lankidetzaren errazteko betebeharra, beste estatu batek eskatzen duenean¹⁸³. Urraketa –kasu honetan, desagertze behartua– zer estaturen jurisdikziopean gertatu den hark egin beharko du ikerketa eraginkorra, eta kasu zehatz horretarako beharrezkoa den nazioarteko lankidetzaren eskatu beharko du. Hala, nazioarteko laguntza eskatzeko betebeharra kontuan hartu beharreko irizpideetako bat da estatu batek behar den arduraz ikertzeko betebeharra bete duen ala ez erabakitzeko orduan¹⁸⁴.

Kasu honetan, desagertzea Frantziara gertatu zela iradokitzen duen arren guztiak, badira zenbait inguruabar kasuari nazioz gaindiko osagai bat ematen diotena, *Naparraren* desagertzearen Espainiako erakunde parapolizial batek (BVE) parte hartu zuela adierazten duten zantzu handiak baitaude. Beraz, hipotesi hori

177 RAINEY, WICKS & OVEY, *Jacobs, White & Ovey. The European Convention on Human Rights* (7th Ed.), Oxford University Press, Oxford, 2014, 198-199. orr. (irakurri zehazki 126. oin-oharra, era horretako epaien-zerrenda ikusteko).

178 GEEA, *El-Masri c. Ex República Yugoslava de Macedonia*, 2012ko abenduaren 13a (184., 185. eta 192. apartatuak).

179 Ikusi, jurisdikzio-loturari dagokionez, TALMON: “*The Procedural Obligation under Article 2 ECHR to Investigate and Cooperate with Investigations of Unlawful Killings in a Cross-Border Context*” hemen: Bonn Research Papers on Public International Law 13 (2018). Adibidez: GEEA, *Rantsev c. Chipre y Rusia*, 2010eko urtarrilaren 7a, 243-244. apartatuak.

180 Sala Nagusiak adibide gisa jartzen du zenbait delituentzat jurisdikzio unibertsal onartzen duten edo nortasun aktibo edo pasiboaren printzipioetatik eskumena ezartzen duten etxeko arauak daudela: GEEA, *Güzelyurtlu c. Turquia*, 2019ko urtarrilaren 29a.

181 *Ibid.*

182 GEEA, *Güzelyurtlu c. Turquia*, 2019ko urtarrilaren 29a, 221. apart.; *Huseynova c. Azerbaiján*, 2017ko apirilaren 13a, 111. apart.

183 *Ibid.*, 229. apart.

184 *Ibid.*, 229. apart.

modu ulertezinean baztertu beharrean, Frantziako agintariek zehatz aztertu behar zuketean Espainiako indar parapolizialek pertsona bat desagerrarazi izana, eta, horretarako, Espainiako agintariei behar zuten laguntza eskatu, batik batik "kontu-garbitzearen" hipotesian oinarritutako ikerketek ez zituztenean desagertuaren nondik norakoak argitu, ez eta adierazi ere norena izan zitekeen desagertuaren ardura.

III

Ondorioak eta gomendioak

1. Zer gertatu zen. Gertakarien kontakizunak, ebatzi gabeko kasu bati dagozkion ziurgabetasunek ezartzen duten ezinbesteko zuhurtzia izanik ere, zenbait datu argi eta zalantzarik gabeko ematen ditu. Nahiz eta era hone-tako txosten batek nahi den ziurtasuna eman dezakeen ikerketa faktiko bat egitea jomuga ez duen, agerikoa da poliziaren ikerketa oso eskasa izan zela hasieratik, hainbestearino ezen esan baitaiteke Komando Autonomoen kontu-garbitzearen hipotesiari eman zaion indarrak oztopatzen duela ikerketa hura. Hipotesi hori seta ulertezint-zat jo daiteke, batez ere ez dagoelako ziurtasunik BVEk egin zuela dioen hipotesi-aukera bideragarriena serio-ski ikertu zenik. Eta hori guztia, talde parapolizialak gertatutakoa behin eta berriz bere gain hartu zuen arren eta gertaerak izan eta hilabete gutxira ikerketak gelditu egin ziren arren. Horrek guztiak garrantzia berezia hartzen du, baldin eta estatuko agintaritzek desagertze behartu bat dela susmatzen denean berehala eta erabakitasunez erantzuteko duten betebeharrarekin erlazionatzen bada. Utzikeria hori are nabarmenago geratzen da, egiazta-tuta geratu baita Espainiako agintariei ere ez zitzaizela laguntzarik eskatu gertatutako egintza larri horiek ikertu eta argitzen saiatzeko. Zoritxarrez, 1999. urtetik aurrera Espainiako agintariak esku hartzen hasi zirenean ere, ez zuten espero eta nahi zen jarrera proaktiborik izan, baizik eta, kasurik onenean, pasibotasuna agertu zuten akusazio partikularraren ekimenen itxaropenaren aurrean, eta, okerrenean, eginbideak egiteko proposamenak oztopatu zituzten. Horrek guztiak, oinarritzko berme prozesal gisa ikerketa eraginkor bat egiteko betebeharrari buruz Giza Eskubideen Europako Auzitegiak egindako interpretazio-erregelari bizkarra eman izanaren itxura du.

2. Desagerpenari buruz gaur egun zer dagoen. Gertaerak ez dira iraganekoak, eta desagerpena ezin da gaur egungoa ez denik esan. Gaur egun, Jose Miguel Etxeberria Naparra non dagoen jakin gabe jarraitzen dugu. Eta horren ondorioz, falta horren sufrimenduak bereziki eragiten die hurbileko senideei, bereziki Ene-ko anaiari; izan ere, gurasoen heriotzen ondoren, lehenik bere aitarena, Patxi Etxeberriarena, 2006an, eta, berriki, bere amarena, Celes Alvarezena. Jose Migel semea aurkitzeko erabaki irmo eta nekazezinaren on-doren hil ziren biak. Naparra non dagoen jakiten ez den bitartean, jokabidearen antijuridikotasuna, teknikoki, zabaltzen eta delitua egiten jarraitzen da. Azken batean, kasua desagertze behartu bat izan dela onartu denez eta, beraz, Nazio Batuen iritziz, krimen preskribaezina denez, argi eta garbi esan daiteke ikerketarik eza ez dela iraganeko azterketa bat, baizik eta egungo erreibindikazio bat, agintari eskudunak eta gizarte osoa zuzenean konprometitzen dituen.

Hori dela eta, ulertezina eta axolagabea dirudi Frantziako Justiziak atzeratzen ibiltzea Las Landaseko A ere-muan oraindik ere egiteke dagoen ikerketa, nahiz eta Francisco Etxeberria mediku forentseak behin baino gehiagotan adierazi duen, bere ustez, probableagoa zela han lurperatuta egotea, 2017an indusketa egin zen lekuan baino. Desagerpen bat konpontzeko benetako aukera dagoela ikusita, hainbeste hamarkada etengabeko oztopoei aurre egiten eta borroka judizialean igaro ondoren, onargarria al da atzerapen hori eta halako eginbide zehatz bati bultzadarik ez ematea?

3. Erakunde-jarduerak. Aurreko gogoeta kontuan hartuta, ekintzarik eza justifikatzeko ahalegin orok zailta-sun erantsia dakar egitarako eta justiziarako eskubidea gauzatzeko, eta hori onartezina da, bai juridikoki, bai gizakiei dagokienez. Eta hori argiago ikus daiteke, agian, gertaerei buruzko gogoeta gaur egungo edozein desagertze-kasutan izaten dugun sentsibilitatetik abiatuta egiten bada. Ez da onargarria etsipena eragin behar izatea desagerpena zigorgabetasuna bermatuta zegoela zirudien garai batean gertatzeak. Agintariak ahalegin berezia egin beharko lukete gertakariak hedatzeko, zuhurtziaz eta erantzukizunetz betiere, egiazta-tu gabeko baina ikerketa-ildo berriak aurkitzen lagun dezaketean alderdiak barne. Desagerpena –gaur egun-go, sufrimenduak jarraitzen duelako– irudimen sozial eta politiko-instituzionalean ere eguneratu egin behar da, iraganetik erreskatatu, injustiziaren kontzientzia aktiba dadin, egia bilatzeko akuilu berritu gisa.

Baina, horren orde, Estatuak ez du Naparra terrorismoaren biktima gisa aitortu ere egin, eta horretarako gertatutakoari buruzko ziurtasunik ezaz baliatzen da, jakin gabe geratu delarik desagertzearen gertaera nagusi, erreal eta egiaztagarriaren garrantzia eta lehentasuna zenbatekoa den.

Desagerpenei buruzko aurreko beste txosten batzuetan adierazi den bezala, bide judicialari benetako bult-zada emateaz harago, agian komenigarria litzateke Euskadiko botere publikoen egutegi ofizialean egun bat ezartzea urtean, desagertuta jarraitzen dutenak gogoratzen jarraitzeko, ahaztu ez ditzagun eta gertatu zena bidegabea izan zela aitortzeko. Gerora, hain zuzen ere 2010eko abenduaren 21ean Nazio Batuen Ba-tzar Nagusiak onartutako Ebazpenaren bidez, martxoaren 24a “Biktimen duintasunari eta giza eskubideen urraketa larriei lotutako Egia Jakiteko Eskubidearen Nazioarteko Eguna” izendatu zen, eta, beraz, egun aproposa izan daiteke urtero desagertuak gogoratzeko, eta ahalegin efikaz eta benetakoak egin daitezen eskatzen jarraitzeko, gutxienez non dauden jakin dadin.

4. Herritarren laguntza. Gustatuko litzaiguke txosten hau baliagarri izatea oraindik bizirik dauden eta gertaera horiei buruzko informazioa duten pertsonen informazio hori, modu anonimoan bada ere, azalarazteko, gaur egun oraindik sortzen ari diren sufrimenduaren zati bat, ahal den neurrian behintzat, arindu ahal izateko. Horrenbestez, eta aurretik beste desagertzen batzuetarako egindako proposamenarekin bat etorritik, erakundeek jarduerari-ildo proaktibo bat abian jartzea gomendatzen da, desagertzen horietan zer gertatu zen gaurkotuta jakin dadin eta herritarrei laguntza eskatzera jo dadin, benetan zer gertatu zen jakiteko bidea eman dezaketenean datu berria ager daitezenean edo, gutxienez, Jose Miguel Etxeberriaren gorputza non dagoen jakin dadin. Hauxe da informazio hori jasotzeko eskura jarri dugun helbide elektronikoa: desagertuak@euskadi.eus

5. Gogora. Azkenik, txosten hau hedatzea gomendatzen da eta Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuan gordetzea beste desagertze-kasu batzuekin batera, hala nola, Perturri buruzko txostenarekin eta Coruña hiru gazteen desagertzenari buruzko txostenarekin batera –2017an eta 2018an egin ziren, hurrenez hurren–, bai eta herritarrei zuzendutako informazio-kategoria partikular eta bereizi bati atxikitzea ere, argi azal dadin iraganeko izandako gertaera bidegabeak eta oso mingarriak direla, baina oraindik giza eskubideen urraketa larriak eta egungoak izaten jarraitzen dutela, eta desagertzetik urrun daudela.

Kontsultatutako dokumentuen zerrenda

1. 66/80 Ahozko Prozesua, Baionako Instantzia Handiko Auzitegian egina (Paueko Apelazio Auzitegia)

2. Nazionalako Instrukzioko 2. Epaitegi Zentralaren 245/1999 Aurretiazko Eginbideak
 - 2.1. Auzitegi Nazionalaren Instrukzioko 2. Epaitegi Zentralaren autoa, 1999ko urriaren 1ekoa.
 - 2.2. Auzitegi Nazionalaren Instrukzioko 2. Epaitegi Zentralaren probidentzia, 2001eko urtarrilaren 14koa.
 - 2.3. Auzitegi Nazionalaren Instrukzioko 2. Epaitegi Zentralaren autoa, 2003ko apirilaren 28koa.
 - 2.4. Auzitegi Nazionalaren Instrukzioko 2. Epaitegi Zentralaren autoa, 2003ko maiatzaren 30ekoa.
 - 2.5. Auzitegi Nazionaleko zigor-arlo salaren autoa (3. sekzioa), 2003ko abenduaren 3koa.
 - 2.6. Auzitegi Nazionaleko zigor-arlo salaren autoa (3. Sekzioa), 2004ko urriaren 4koa.
 - 2.7. Auzitegi Nazionalaren Instrukzioko 2. Epaitegi Zentralaren autoa, 2004ko martxoaren 31koa.
 - 2.8. Auzitegi Nazionalaren Instrukzioko 2. Epaitegi Zentralaren autoa, 2016ko urriaren 13koa.
 - 2.9. Auzitegi Nazionalaren Instrukzioko 2. Epaitegi Zentralaren autoa, 2018ko martxoaren 1ekoa.
 - 2.10. Auzitegi Nazionalaren Instrukzioko 2. Epaitegi Zentralaren autoa, 2018ko martxoaren 22koa.
 - 2.11. Auzitegi Nazionalaren 254/18 autoa, 2018ko maiatzaren 8koa.



A large, bold, grey number '7' is the central focus of the page. It is set against a background of overlapping, torn-edge white paper shapes that create a sense of depth and movement. To the right of the number, there is a vertical grey dot followed by the word 'dokumentua' in a lowercase, sans-serif font. Further to the right, a large yellow circle is partially visible, suggesting a sun or a logo element.

● dokumentua

Pasaiako badiako
gertakariei buruzko
txostena (Gipuzkoa)
1984ko martxoaren 22a

Pasaiako badiako gertakariei buruzko txostena (Gipuzkoa) 1984ko martxoaren 22a

Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedra
Euskal Herriko Unibertsitatea



Euskal Herriko Unibertsitatea



Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedra (UPV/EHU)
UNESCO Chair in Human Rights and Public Power

Jon-M. Landa (zuz.)
Enara Garro (koord.)
Bertha Gaztelumendi
Mikel Anderrez
Iñigo Gordon
Uxue Martín



2020ko otsaila

Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren
enkarguz egina

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Aurkibidea

Sarrera.

1. Egitateak.

1.1 Hitzaurrea.

1.2 Bertsio ofiziala.

1.3 Gertakarien bertsio alternatiboa: “segada”.

2. Kasuaren Ikerketa Judiziala.

2.1 Prozedura judiziala Gipuzkoako Instrukzio Epaitegian eta Probintzia Auzitegian.

2.1.1. Liskarraren lekukoen adierazpenak.

2.1.2. Komandoari konfiskatutako armak eta dokumentazio garrantzitsua eskuratu ezin izatea.

2.1.3. Polizia-operazioan parte hartu zuten agenteak identifikatzeko saialdi hutsalak.

2.1.4. Preskripzio bidezko behin-behineko artxibatzea eta ikerketarekin jarraitzeko agindua (2004-2005).

2.1.5. Eginbide berriak egitea eta esku hartu duten agenteak identifikatzeko oztopoak (2005- 2009).

2.1.6. Ikerketa ez atzera ez aurrera: agenteak ezin identifikatzea eta proposatutako ikerketa-eginbideak ukatzea.

2.2 Babes-errekurtsoa Konstituzio Auzitegian.

2.3 Estrasburgoko Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren erabakia.

3. Memoria eta aitorten instituzionala: gaiaren egoera.

4. Ondorioak eta gomendioak.

Sarrera

Txosten hau Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak eskatu zion Euskal Herriko Unibertsitateko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedrari, bi erakundeek duten lankidetzaz hitzarmenaren esparruan, eta Euskadin motibazio politikoko testuinguru batean izandako giza eskubideen urraketen kasu enblematikoei buruzko ikerketa-ildoak gauzatzeko.

Txostena funtsezko hiru bloketan egituratuta dago: egitateen deskribapena, aurretik komando autonomoen errealitateari buruzko sarrera-atal bat duena; jarduketa judizialen azterketa juridikoa; eta azken ondorio eta gomendio batzuk. Txostenaren asmoa ez da izan egitateak behin betiko argitzeko ikerketarik egitea –Katedrak ez du ez eskumenik ez gaitasunik horretarako–, baina bai, ordea, eskura dauden iturrien argitan, ahalik eta informazio gehiena biltzea kasuaren egungo egoerari buruz.

Dokumentu hau Bertha Gaztelumendi, Mikel Andereiz, Iñigo Gordon eta Uxue Martin Katedrako ikertzaileek egin dute batez ere, Enara Garro irakasle doktoarearen koordinaziopean eta Jon-M. Landa irakasle doktoarearen zuzendaritzapean.

1. Egitateak

1.1. Hitzaurrea

“Pasaiako segada” deiturikoa 1984ko martxoaren 22ko gauean gertatu zen, 22:30ak inguruan, Gipuzkoako Lurralde Historikoan, Oiartzun ibaiaren bokalearen ondoan dagoen herri horretako badian. Gertakari horietan, Komando Autonomo Antikapitalistak izeneko erakundeko lau kide hil ziren. ¹Komando Autonomo Antikapitalistak hirurogeita hamarrek hamarkadaren amaieran eratu ziren. Egitura lausoko talde armatuena multzo bat izan ziren, eta batez ere ETA politiko-militarraren Komando Bereziak izeneko zatiketa batetik sortu ziren. José María Izura Sanz, «Pelu». Iruñean jaio zen, 1958an², eta ETAn kide izan zen. Ipar Euskal Herrian babestu ondoren, Komando Autonomo Antikapitalistetan sartu zen.

Pedro María Isart Badiola, «Pelitxo» Azpeitian jaio zen 1961ean³. GAIko (Gazte Iraultzaile Abertzaleak) kidea izan zen. Bi aldiz egon zen atxilotuta; lehenengoan, hiru hilabetez ospitaleratu zuten, Guardia Zibilak emandako tratua onduz. Bigarrena, handik gutxira, Poliziak atxilotu zuen. 1982an, 21 urte zituela, hirugarren aldiz atxilotu behar zutenean, Ipar Euskal Herria ihes egitea erabaki zuen.

Rafael Delas Aizkorbe, «Txapas», 1957an jaio zen Iruñean⁴. 1983an errefuxiatu zen Ipar Euskal Herrian.

Azkenik, Dionisio Aizpuru Arbelaitz Azpeitian jaio zen, 1962an⁵, eta Delineazioa ikasi zuen Azkoitiko Lanbide Institutuan. 1983an errefuxiatu zen Ipar Euskal Herrian.

Joseba Merino Quijano “Coronel” (Donostia, 1960) ere han zegoen, Rosa Jimeno Goicoechearekin (Orio, 1957) batera bizirik atera zen bakarra⁶, poliziak ‘amuzki’ gisa erabili zuena. Pasaiako sarraskiak, praktikan, Komando Autonomo Antikapitalisten ⁷ jardueraren amaiera ekarri zuen.

1984ko martxoaren 22an, 19:00ak aldera, José María Izura Sanz “Pelu”, Pedro María Isart Badiola “Pelitxo”, Rafael Delas Aizkorbe “Txapas”, Dionisio Aizpuru Arbelaitz “Kurro” eta Joseba Merino Quijano “Coronel” –*Beltza* txakurrarekin batera zihoana– gazteak Ziburuko (Ipar Euskal Herria) zodiac batean abiatu ziren Ziburuko portutik Pasaiarako norabidean. Hortik aurrera, gertakarien inguruko bi bertsio daude, erabat ezberdinak direnak⁸.

1 Kalkulatzen da ezen laurogeiko hamarkadan, gutxi gorabehera berrogeita hamar pertsonak osatzen zituztela Komando Autonomo Antikapitalistak. Ikus TORRONTEGUI, J.: “Pasajes para la muerte” (Heriotzarako Paisaiak edo txartelak –hitz-jokoa), in *Revista Cambio* 16, 644 zk. (1984), 21. or. Euskadiko Koordinakunde Autonomoaren eta Komando Autonomo Antikapitalisten sorrerak ezker abertzaleko sektore batek korronte autonomoetarako izan zuen bilakaeran du jatorria. Prozesu hori ezin da bereizi Euskadin langileen autonomiaren inguruan izandako esperientzietatik; izan ere, puntu gorena 1976ko martxoaren 3an Gasteizen izandako gertaerekin iritsi zen, non poliziak tiro egin baitzuen greba orokor baten zioz hiriko San Frantzisko Asiskoaren elizan elkartutako 5.000 pertsona ingururi. Horren ondorioz, bost pertsona hil ziren, eta ehunka inguru tiroz zauritu. Martxoaren 3ko istiluak eta sarraskia gertatu ziren testuinguru historikoari buruz, ikus berriki BABY, S.: *El mito de la transición pacífica. Violencia y política en España (1975-1982)*, Akal, Madril, 2018, 261-263. orr.

2 EUSKO JAURLARITZAKO BAKEGINTZA ETA BIZIKIDETZARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA. “Retratos municipales de las vulneraciones del derecho a la vida en el caso vasco. Pasaia, 1960-2010 (2. Ed.)”, *Eusko Jaurjaritza*, Gasteiz, 2016, 37. or.

3 EUSKO JAURLARITZAKO BAKEGINTZA ETA BIZIKIDETZARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA. “Erretratuak... op. cit., 34. or.

4 EUSKO JAURLARITZAKO BAKEGINTZA ETA BIZIKIDETZARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA. “Erretratuak... op. cit., 36. or.

5 EUSKO JAURLARITZAKO BAKEGINTZA ETA BIZIKIDETZARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA. “Erretratuak... op. cit., 35. or.

6 Autoetan ageri diren peritu-txostenen arabera, Joseba Merino Quijanori 1984ko martxoaren 23an egindako azterketa medikoaren ondoren, hark higadura txikia eta oso azalekoa baino ez zuen sudurrean. Adierazi zenez, atxilotu zuten unean eroriko batek eragindako ustekabeko lesio bat izan zen. Ikus 734/84 Aurretzako Eginbideak (I. liburukia), 32-33 folioak.

7 GIACOPUZZI, G.: *E.T.A. Historia política de una lucha armada - 2ª parte*, Txalaparta, Tafalla, 2006, 188-189. orr. 1984an Komando Autonomo Antikapitalistek talde batzuk baino ez zeuden aktibo, eta ekintza isolatuak egiten zituzten. Hala ere, 1984ko otsailaren 23an, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeen kanpaina betean, Komando Autonomo Antikapitalistek Enrique Casas Vila erail zuten (Euskadiko Alderdi Sozialistako bigarrena eta Gipuzkoako zerrendaburua zen). Ikus BARBERÍA, J.L. “Komando Autonomo Antikapitalistek eta ‘Mendeku’ taldeak Enrique Casas senatari eta hautagai sozialistaren hilketaren ardura hartu dute”. *El País*, 1984ko otsailaren 24a.

8 Horren erakusgarri, Pasaiaren gertatutakotik bi egunera, *EL PAÍS* egunkariako editorialak honako hau adierazi zuen: “Kazetariei jarritako trabek, zeinak Barne Ministerioak azken garaian aplikatutako politika desinformatzailearen ildoan kokatzen baitira, zalantzak sortzen dituzte, gertaeren garapen zehatzaren inguruan alarmagarriak bezain alferrekoak direnak”. *EL PAÍS*. “Editorial: Pasajes y Biarritz”. *El*

Bertsio ofizialak gertatutakoa Komando Autonomo Antikapitalistetako kideen eta polizia-operatiboan zeuden Polizia eta Guardia Zibileko agenteen arteko liskar gisa deskribatu zuen. Gertakari horien biharamunean, Julen Elgorriaga⁹orduko Gipuzkoako gobernadore zibilak su gurutzatuaren hipotesia defendatu zuen, eta gertatutakoaren erantzukizun guztia Komando Autonomo Antikapitalistetako kideei leporatu zien. Haren adierazpenen arabera¹⁰, polizia-indarrek gelditzeko agindua eman ondoren, Komando Autonomo Antikapitalistetako kideek armak jaurti zituzten, eta segurtasun-agenteek erasoari aurre egin zioten. Ildo beretik, bertsio ofizial horri eutsi dio, besteak beste, Enrique Rodríguez Galindo Guardia Zibileko jeneral ohiak¹¹, 2006ko memoria-liburuan honako hau adierazten baitu, hitzez hitz: “[...] eutsi egin zioten, eta tiro-truke gogor bat gertatu zen, banda horretako kideak hiltzea eragin zuena”¹².

Hasieratik, bertsio hori zalantzan jarri eta gezurtatu zuten Pasaiaiko bizilagunek¹³. Bizirik atera zirenen, senitar-tekoen eta lekukoek testigantzen arabera, gertatutakoa Poliziak eta Guardia Zibilak Komando Autonomo Antikapitalistetako lau kideak hiltzeko egindako segada bat izan zen. Francisco Etxeberria Gabilondo auzitegiiko antropologo eta Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) irakasleak biktimei egindako autopsiek egiaztatu zuten guztira 113 bala-zulo zeudela biktimen lau gorpuen artean, munizio-mota desberdinekin eta ibilbide eta inpaktu ugari zituzten balekin: José María Izura Sanz “Pelu” 28 bala-zulorekin, Pedro María Isart Badiola “Pelitxo” 28 bala-zulorekin, Rafael Delas Aizkorbe “Txapas” 21 bala-zulorekin eta Dionisio Aizpuru Arbelaitz “Kurro” 36 bala-zulorekin, postak barne¹⁴; erabat debekatuta zegoen, ordea, ehiza-munizio hori erabiltzea¹⁵.

Gertakarien ikuspegi bikoitz horren aurrean, komeni da bertsio bakoitzean pilatzen diren datu eta iturrietan murgiltzea.

1.2. Bertsio ofiziala

Garaiko prentsak terrorista edo etakide gisa erakusten ditu lau gazteak, zeinek atentaturen bat egitea helburu baitzuten, eta horregatik zeharkatu zuten muga Frantziatik.¹⁶ Poliziak zenbait atentatutan parte hartzea egozten die. Zehazki, argitaratutako informazioen arabera¹⁷, Jose Maria Latiegui Valmaseda Moulinexeko zuzendariaren eta Francisco Machin Martosen hilketetan parte hartzea leporatu zion Poliziak Pedro Maria Isart Badiola “Pelitxo” -ri. Rafael Delas Aizkorbe “Txapas” ri Asepeyo Mutuaren zuzendari nagusia, Antonio Conejero Salguero eta Fidel Lazaro Aparicio guardia zibilak eta Jesus Blanco Cedeceda Noingo (Iruñea) aireportuko transmisio-burua hil izana leporatu zioten. Dionisio Aizpuru Arbelaitz “Kurro”ri Francisco Machin Martosen hilketan eta Rafael Gil Marin eta Enrique Rua Diaz guardia zibilen hiketan parte hartzea egotzi zioten, baita Jesus Guibert enpresaburuaren bahiketan ere. José María Izura Sanz “Pelu”ri bakarrik ez zitzaion

País, 1984ko martxoaren 24a.

9 Auzitegi Nazionalak Julen Elgorriaga eta Enrique Rodríguez Galindo jenerala kondenatu zituen, 2000ko apirilean, 1983an Jose Antonio Lasa eta Jose Ignacio Zabalaren bahiketan eta ondorengo hilketan parte hartzeagatik. YOLDI, J. “Galindo eta Elgorriaga, 71 urtera zigortuta”. *El País*, 2000ko apirilaren 27a.

10 EGIN. “Pasaiaiko metrailatzeari buruz gobernadore zibilak emandako bertsioa gezurtatu dute lekukoek”. *Egin*, 1984ko martxoaren 24a.

11 Enrique Rodríguez Galindo, Ángel Vaquero, Enrique Dorado eta Felipe Mayo guardia zibilekin eta Julen Elgorriaga Gipuzkoako gobernadore zibilekin batera, Auzitegi Nazionalak 67 eta 71 urte bitarteko espetxe-zigorra ezarri zion (Auzitegi Nazionala, Zigor arloko Sala, 1. sekzioa, 21/2000 Epaia, apirilaren 26koa), José Antonio Lasa eta José Ignacio Zabala bahitu, torturatu eta hiltzeagatik. Estrasburgoko Giza Eskubideen Europako Auzitegiak (Giza Eskubideen Europako Auzitegiak) abalatu zuen epai hori (3. sekzioa, *Vaquero Hernández eta beste batzuk Espainiaren kontrako auzia*, 2010eko azaroaren 2ko Epaia).

12 RODRÍGUEZ GALINDO, E.: *Mi vida contra ETA. La lucha antiterrorista desde el cuartel de Inchaurren*, Planeta, Bartzelona, 2006, 126. or.

13 EGIN. “Lekukoek gezurtatzen dute... op. cit.

14 Zehatz-mehatz, biktima horiei buruzko autopsia-txostenetarako, ikus 734/84 Aurretiazko Eginbideak (I. liburukia), 24-31 folioak.

15 *EL PAÍS*en arabera, Barne Ministerioko goi-kargudunek ez zekiten polizia-operatibo batzuetan ehiza-munizioa erabiltzen zenik. Nahiz eta, egia esan, egunkariak berak baieztatu zuen “[...] berriki segurtasun-zerbitzu bati Pasaiaiko ehiza-posten antzeko munizioa emateko establezimendu instituzional garrantzitsu bat jarri zela”. ORGAMBIDES, F. “Poliziak debekatutako ehiza-kartutxoekin tiro egin zion Pasaian hil zen euskal terroristetako bati”. *El País*, 1984ko maiatzaren 30a.

16 LA VANGUARDIA. “Garaikoetxeak Pasaiaiko polizia-ekintza ikusgarriari buruzko ikerketa hasteko agindu du”. *La Vanguardia*, 1984ko martxoaren 24a.

17 BARBERÍA, J.L. “Gertakarien lekuko batek gezurtatu egin du Pasaiaiko tiroketari buruzko bertsio ofiziala; lau terrorista hil ziren bertan”. *El País*, 1984ko martxoaren 24a.

odol-deliturik egozten, eta ETA (m)ko kidea izateagatik soilik jazarri zuten¹⁸.

ABCren¹⁹ informazioaren arabera, gaueko 22: 30ean 'Igueldo' izeneko ontzia azkar sartu zen portuan eta amarratzearen bila. Une horretan:

"Poliziek beren armak jaitsi eta norabide egokian jarri zituzten eszena argitzeko balioko zuten foku indartsuak. Komando terroristako txalupak abiadura moteldu zuen, eta 'Puntas' izeneko kai txiki baterantz abiatu zen. Motorra geldituta, bost "autonomoak" lehorreratzeko prest zeuden. Eta gertaerak zorabiozko abidan jazo ziren. Hamar segundotan, ozta-ozta, fokuak piztu egin ziren, eta gelditzeko agintzeko ahotsek portuko baretasun faltsua hautsi zuten. Terroristek, argiekin eta oihuekin harrituta, pistolen kargadoreak hustu zituzten ahotsen norabidean. Segurtasun Indarren erantzuna berehalakoa izan zen: lehorreratzea lortu zuten hiru terroristak segundoko hamarrenetan erori ziren hilda; gainerako biak alferrik saiatu ziren txalupa martxan jartzen eta haien gorpuek portuko uretan amaitu zuten... Horregatik, une batzuk igarota, isiltasuna nagusitu zen berriz. Segundo batzuk geroago, bizirik atera zen pertsona bakarra, balen aurkako txalekoa soinean zeramana, atxilotzera aurreratu ziren poliziak.

ABCk zabalduzako beste ohar batek azaltzen duenez, Pasaiako badiaren ertzetan zabalduzako 'GEO'ek²⁰[...] ETako taldea ustekabeen harrapatu zuten lehorreratzen saiatzen ari zela. Karelez kanpoko motor-dun txalupa hondoratu egin zen tiroen ondorioz, eta ihes egiten saiatu ziren bi terroristen gorpuak arrastaka eraman zituen. Guardia Zibilaren eta Gurutze Gorriaren urpekariek itsasadarra arakatu zuten, gorpuak eta itsasontzia berreskuratzeko²¹.

Barne Ministerioak zabalduzako ohar ofizial baten arabera: "Tiroketa poliziak aipatutako taldea atxilotzen saiatu zirenean gertatu zen; izan ere, aipatutako portutik Espainiako lurraldera sartzen ikusi zuten"²². Ohar berean azaltzen denez, "Taldea [terrorista] hori Frantziatik zetorren Espainiara sartzen saiatu zen, zenbait atentatu egiteko, tartean bonba-auto bat jartzeko eta bahiketa bat egiteko".

Julen Elgorriaga gobernadore zibilak gertaeren biharamunean adierazi zuen biktimak atxilotzea ezinezkoa izan zela, "[...] oso azkar zetozen txalupa batean, hiltzera ohituta zegoen jende armatua zen, eta poliziak egin behar zuena egin zuen. Polizia zela esan eta ozen hitz egin zien; komandoaren batzuek lehorrera salto egin zuen, beste batzuek ontziaren martxa bizkortu zuten, eta baten batek lehen tiroak bota zituen"²³. ABCren²⁴ beste albiste batek, zeinak haren adierazpenak ere jasotzen baititu, hau adierazten zuen: "[...] Txalupa oso azkar batean zetozen, eta bagenekien 55 zaldiko motor bat eta ontzi oso azkar bat zituztela [...]. Jende armatu talde bat zetorren, eta hiltzera ohituta zeuden. Eta Poliziak egin beharrekoa egin zuen: polizia zirela ohartarazi eta gelditzeko esan zion taldeari, eta taldeko batzuek lehorrera salto eginez erreakzionatu zuten, beste batzuek ontzia abiadura handian jarriz, eta gainerakoek tiro eginez. Poliziak, noski, aurre egin zion erasoari, eta une hartan egin behar zuena egin zuen".

Gainera, Elgorriagak berak ere honako hau adierazi zuen operatiboari buruz: "[...] badakigu, eta jendeak ere jakin behar du, erakunde honetako kide gehiago daudela hiltzen jarraitzeko prest. Esan behar dut, halaber, operazio hau Poliziaren oso lan pazienteia izan dela, non hilabete baino gehiagoz jende askok lan egin duen"²⁵.

Ordurako, hedabideetako batek bertsio ofizialaren kontrako informazioa argitaratu zuen. *EL PAÍS*²⁶ egunkariak argitaratutako albiste batean, polizia-operazioaren lekuko zuzen batek bertsioa ezeztatu zuen, eta gertakariaren biharamunean adierazi zuen GEO taldeko hamar edo hamabi poliziak ontzia minutu batez baino gehiagoz metrailatu zutela, aurrez bost gazteak zihoazen zodiac-etik tirorik izan gabe²⁷. Lekukoak honako hau dio: "Ez nuen

18 OLAVE, C. "Hilketen historia luzea, etakide hilen eskutik". *ABC*, 1984ko martxoaren 24a.

19 C.O. "Harridura eta azkartasuna, polizia-operazioaren gakoak". *ABC*, 1984ko martxoaren 24a.

20 Polizia Nazionalaren Operazio Talde Bereziak dira GEOak.

21 ABC. "Terrorismoaren aurkako operazioa Pasaiako itsasadarrean". *ABC*, 1984ko martxoaren 24a.

22 BARBERÍA, J.L. "Ustekeko lau terrorista 'GEO' -ek metrailatuta hil dira Pasaian". *El País*, 1984ko martxoaren 23a.

23 BARBERÍA, J.L. "Lekuko bat... op. cit.

24 ABC. "Poliziak hilabete zeraman terroristen zelatan". *ABC*, 1984ko martxoaren 24a.

25 OLAVE, C. "... luze bat op. cit.

26 BARBERÍA, J.L. "Lekuko bat... op. cit.

27 Hala, Melchor Miralles eta Ricardo Arques kazetariak, GALi buruzko liburuan, "sarraskitzat" jo zituzten Pasaiako Badian gertatutakoak. Era berean, gertaera horiek izaten ari ziren unean bertan, Amedo eta Dominguez, GALEko buruzagi gisa oso ezagunak, Donostiako kasino berria bisitatzen ari zirela adierazi dute. Izan ere, MIRALLESek eta ARQUSEK gaineratu zuten Amedok erabat ezezaguna zuela Pasaiako portuan gertatzen ari zena. Ikus MIRALLES, M.; ARQUES, R.: *Amedo. El estado contra ETA*, Plaza & Janes, Bartzelona, 1989, 180. or.

gelditzeko eskatzeko ahotsik entzun, ezta tirorik ere, GEOen ufadak entzun arte,aldi berean hainbat tokitatik tirokatu baitzuten txalupa, orduan itsasertzetik 20 metro baino gutxiagora zegoena. Metrailaketak minutu bat pasatxo iraun zuen, eta ondoren Guardia Zibilaren hiru zodiac –lantxak– agertu ziren, ordura arte argirik gabe egon zirenak, eta uretan flotatzen zuten kartoizko paketeak biltzen hasi ziren. Pasai San Pedroko itsas-bazterrean bi argi piztu ziren orduan, bi autoren gainean jarrita “. Horrez gain, “tiroketaren gunea nahiko argituta zegoen Pasaiako San Pedroko Askorreta ontziolako argiekin”, eta, jarraian, gaineratu duenez, “itsas-ertz horretan linternak mugitzen hasi ziren, eta berehala agertu zen Itsas Komandantziako ontzia foku batekin. Gero bigarren tiroketa bat gertatu zen, tiro-sortak egin zituzten alde horretako arrokatarantz; odol-orbanak omen daude hor. Argi dago zain zituztela, baina diskrezio handiz egin zuten, ordu eta erdi lehenago ez zirelako hemen uniformeak ikusten “.

Pedro Miguel Etxenike Eusko Jaurlaritzako bozeramaileak, berriz, poliziaren jokabidea “neurritz kanpokoa” izan zela esan zuen orduan, “ez baitzegoen proportzionaltasunik komandoa polizientzako segurtasunez eta immunitatez atxilotzeko helburuaren eta komandoko kideak tiroz akabatzeko prozeduraren artean”²⁸. Era berea, Carlos Garaikoetxea jarduneko lehendakariak honako hau eskatu zion Herrizaingo Sailari: “[...] “Egin eza-zu ikerketa sakon bat tiroketaren inguruabarrei buruz”; izan ere, [...] badirudi talde terroristaren zain zeudela, era guztietako neurriak hartuta, eta lau heriotzek [...] gertaerak berehala eta erabat argitzea eskatzen dute”²⁹.

1.3. Gertakarien bertsio alternatiboa: “segada”

2002an, Joseba Merinok, Duesoko espetxetik (Santofña-Kantabria) irten berria zela, 17 urte baino gehiago han eman ondoren, Bartzelonan izan zenean, bere historia kontatu zuen. Bisita horretatik sortu zen Pasaiako badian gertatutakoari buruzko liburu bat idazteko ideia. Gertatutakoari buruz ikertu ondoren, konturatu ziren informazio asko ez zettorrela bat Joseba Merinok azaldutakoarekin edo “manipulatuta” egongo zela. Ia bi urtez informazioa biltzen aritu ondoren, 2008an sortu zen gertatutakoa kontatzen duen monografia bakarra: “Pasaiako segada. Estatu krimen bat”⁶⁰.

Bestalde, bi urtez, Xabier Otamendi, Yuri Agirre eta Erik Aznal azpeitiarrak eta UPV/EHUko Kazetaritza eta Ikus-entzunezko Zientzietan lizentziadunak Pasaiako Badia dokumentalaren errealizazioan murgildu ziren, 2017an, Pasaiako badian 1984an gertatutakoari buruz³¹. *Oinatzak produkzioaren* dokumentalak gertakarietatik bizirik atera zen pertsona bakarraren testigantzak jasotzen ditu, baita eraildakoen senideenak ere, besteak beste³². Proiektu hori crowdfunding bidez finantzatu zuten, eta, azkenean, 2017ko urriaren 24an estreinatu zuten, Iruñean³³.

Liburuaz eta dokumentalaz gain, Rosa Jimeno eta Joseba Merino bizirik atera ziren bi lagunek azaldu dute gertatutakoaren kontakizuna, bi elkarrizketetan: bata, GARA³⁴ argitaratua, 2008an, eta bestea, berriz, NAIZEN³⁵, 2014an. Oraintsuago eta interes berezikoak dira, halaber, José Bono jaunak bere “*Les voy a contar*” memoria-liburuan egindako adierazpenak. Bertan, Joaquín Leguina jaunarekin izandako elkarrizketa bat aipatzen da, garai hartan PSOEko goi-karguduna zena, Pasaiako gertakariari buruzkoa. Leguinak Casasen hilketaren ondorengo uneaz hitz egingo zukeen, bilera bat egin omen zen EAJren eta Ricardo García Damborenearen artean, orduan PSEko idazkari nagusia zena eta GALEn auzian inplikaturik zegoena. Ministro ohiak bere liburuan kontatzen duenaren arabera, bilera horretan buruzagi sozialistek ulertzeko eskatu

Antza denez, Jose ONETOk bertsio ofiziala gezurtatzen du: gelditzeko agindu ondoren, Komando Autonomo Antikapitalistetako kideek ez zuten astirik ere izan kirol-poltsa batean zeramatzatzen armak erabiltzeko; izan ere, polizia tiroka hasi zitzaizen metrailadore eta posta-esko-petekin, eta uretara erori ziren. Ikus ONETO, J.: *El secuestro del cambio. Felipe año II*, Plaza & Janes, Bartzelona, 1984, 111-114. orr.

1984ko ekainaren 11n, epaitegira deitu zutenean, garai hartako Pasaiako alkate Roberto López de Echezarreta Murgiongo jaunak adierazi zuen Pasaiako Buenavistako kaian zegoela, gau hartan gorpuak uretatik nola ateratzen zituzten ikusten. Handik, gorpuek armarik ez zutelarik ikusi zuen. Gainera, urpekari baten hitz gutxi batzuk entzun zituela esan zuen (Gurutze Gorrikoa, ziur asko, baina ezin du zehatz esan), armarik eta objekturik uretatik atera ez zutela baieztatuko lukeena. Xehetasunez, ikus 734/84 Aurretiazko Eginbideak (I. liburukia), 219. folioa.

28 ETXARRI, T. “Eusko Jaurlaritzak neurritz kanpokotzat jotzen du Pasaiako portuko polizia-operazioa”, *El País*, 1984ko martxoaren 28a.

29 A.H. “EAJK ‘tranpatzat’ jo du Pasaiako polizia operazioa”. 1984ko martxoaren 24a.

30 AIZPURU ISARD, J.R.: *Segada... op. cit.*, 7. or.

31 CABASÉS HITA, L. “Pasaiako segada, isildu ezingo litzatekeen krimena”. *Noticias de Gipuzkoa*, 2017ko urriaren 29a.

32 GARA. “Loreak Pasaiako segadan tirokatuen oroimenez”. *Gara*, 2017ko azaroaren 12a.

33 KAMIO, A. “Memoriak ez du oraindik artxibatu”. *Gara*, 2017ko urriaren 24a.

34 LLORENTE, O. “Pasaiako badia, zigorrik gabeko segada”. *Gara*, 2008ko abenduaren 29a.

35 NAIZ. “Joseba Merinoren kontakizuna, Pasaiako segadatik bizirik atera zena”. *Naiz*, 2014ko martxoaren 21a.

zuten, Casasen hilketaren ostean “erreakzionatu egin behar zutelako, eta gau batean, hiltzaileek Bidasoa zodiac batekin gurutzatzen zutenean, euren merezimendua aurkitu zutelako”³⁶. Txosten horrek aurrerago adierazten duen bezala, hildako lau gazteen senideen ordezkariak Donostiako 2. Instrukzio Epaitegiari eskatu zion José Bono eta Joaquín Leguinari deklarazioa hartzeko, kasuari buruz argitalpen horretan adierazitakoari dagokionez. Eginbidea ezetsi egin zen.

Bertsio ofizialaren arabera³⁷, Pasaiako segada edo “84ko martxoko operazioa” egun batzuk lehenago hasi zen forma hartzen, 1984ko martxoaren 18an, Rosa Jimeno bere autoan Oriotik Donostiara joan zenean. Donostiako Pio XII.a plazan aparkatuta zegoenean, komando autonomoiekin lotuta egoteagatik jasaten ari zen polizia-zaintza kontuan hartu gabe, kalez jantzitako bi poliziak atxilotu eta Polizia Nazionalaren Amara (Donostia) auzoko polizia-etxera eraman zuten³⁸. Ez zioten inoiz jakinarazi, legez, atxilotu egin zutela, eta ez zioten jakinarazi zegokion epaitegiari, ez haren senideei ere³⁹. Izan ere, Felipe Jimeno Cirizak, Rosa Jimenoren aitak, salaketa jarri zuen 1984ko martxoaren 24ko arratsaldean alabaren desagerpenagatik, hau da, Pasaiara izan zen gertakariak bi egunera.

Atxilotu zutenean, Rosa Jimenok Dionisio Aizpuru Arbelaitz “Kurro” bikotekidea zegoen etxeko telefono-zenbaki bat zeraman. Rosa Jimeno ‘amu’ gisa erabili zuten, komando autonomoetako bost militanteekin hitzordua hitzartzeko. Epailaren aurrean egin zuen deklarazioaren arabera, tratu txarrak eta torturak jasan zituen, helburu bakar batekin: kolaborazioa onartzea, kideak inola ere zaurituko ez zituztela hitz emanda. Ustez jasan zuen tortura ez zen amaitu Dionisio Aizpuru Arbelaitz “Kurro”rekin hitzordua egitea onartu zuen arte. Bahiketak iraun zuen bitartean, José Onetok urte horretan bertan argitaratutako liburuan kontatzen duenez, Jesús Martínez Torres “informazioa ateratzeko” arduratu izan zen⁴⁰. Bahiketak iraun zuen bitartean, Rosa Jimeno polizia-etxetik

36 BONO, J.: *Les voy a contar*, Planeta, Bartzelona, 2012, 240. or.

37 Beste bibliografia-iturri batzuek ere, funtsean behintzat, gertakari bertsio alternatiboaren alde egingo lukete. Ikus, adibidez, MIRALLES eta ARQUES kazetariak GALi buruz egindako ikerketa sakonaren emaitza den liburua: MIRALLES, M.; ARQUES, R.: *Amedo... op. cit., passim*.

38 Enrique Casas Vila PSOEko Gipuzkoako senatariaren hilketaren auzian Auzitegi Nazionalak 1985ean emandako epaiaren arabera, Rosa Jimenok harreman sentimentala zuen Dionisio Aizpuru Arbelaitz “Kurro”-rekin, dakigun bezala komando autonomoetako kidea eta Pasaiako segadan hil zena. Aurrekoaz gain, epaian jasota dago Rosa Jimenok bazekiela Dionisio Arbelaitzek komando autonomoekin zuen lotura hori, eta, gainera, berak ere erakunde horretan parte hartuko zuela. Hala, poliziak Rosa Jimeno jo zuen Gipuzkoako azpiegituraren arduradun nagusitzat. Hori dela eta, Joseba Merino kondenatu zuten epai horretan bertan, beste kargu batzuen artean, talde armatuarekin kolaboratzeagatik ere kondenatu zuten. Era berean, poliziak lortu zuen identifikatzea garai hartan (1984ko martxoan) Enrique Casasen hilketan inplikaturako pertsonetako bat, Joseba Merino; hilabete horretan bertan Rosa Jimenorekin batera ikusi zuten, eta poliziaren zaintzapean egon zen. Izan ere, Enrique Casasen hilketaren epaiketan egindako akusazioaren arabera, Merinok Jimenori eman zizkion hilketa horretan erabilitako autoaren giltzak, hark adostutako leku batean jar zitzen. Ibilgailu hori ez zen lapurretaren bidez lortu, kontzesionario batean baizik, eta ondoren transferentzia bat egiteko konpromisoarekin. Antza denez, Joseba Merinok 2014an GARA egunkariari azaldu zionez, modus operandi horri esker poliziarentzat hura ez zen auto lapurtutaz jotzen. Hala ere, gaineratu zuen inozoak izan zirela, eta poliziari erraza gertatu zitzaiola Trafiko Zuzendaritzara deitzea, oraindik ordaindu gabe zeuden autoez galdetzea eta hura aurkitzea. Hala, poliziak autoa zein Rosa Jimeno aurkitu zituen, zeina prest baitzegoen 1984ko martxoaren 18an, adostutakoaren arabera mugitzeko. Ikus YOLDI, J. “Casasen hiltzaileetako bati 53 urteko kartzela zigorra ezarri diote”. *El País*, 1984ko irailaren 28a; DÍAZ HERRERA, J.; GÓMEZ, J.: “Honela hil genuen Casas”, in *Revista Cambio* 16, 646. zk. (1984), 24. or.; SOLA, R. “Bono, Leguina eta Damborenea, Pasaiako badiara daramaten hiru hari”. *Gara*, 2014ko martxoaren 22a. Ikus, halaber, “*Estatuko Segurtasun Indarren eta Komando Autonomo Antikapitalistak izeneko taldearen kideen arteko enfrontamenduari*” buruzko informazio-oharra, Donostiako polizia-etxeak 1984ko martxoaren 28an emana.

39 Ikus AIZPURU ISARD, J.R.: *Segada... op. cit.*, 89. or. Hala ere, garai hartan abokatu eta Eusko Legebiltzarreko kide zen Iñigo Iruinen hitzetan (1984-2001): “*Jarduketa hori [...], hau da, pertsona bat atxilotzea eta haren kokapena ez ezagutaraztea, legez kontrako ematen duen arren, Poliziaren arau erabat legezkoa da. Atxilotuari letradu-laguntza emateko 1983ko abenduan onartutako Lege berriaren arabera, atxilotutako pertsonak inkomunikatuta geratzen dira, eta ez dute eskubiderik egoera hori senideari edo hark nahi duen pertsonari jakinarazteko* “. Zehazki, Iruin abenduaren 12ko 14/1983 Lege Organikoan jasotako artikulua bakarrari buruz ari da (14/1983 Lege Organikoa, abenduaren 12koa, Konstituzioaren 17.3 artikulua atxilotuari eta presoari abokatu-laguntza emateari dagokionez garatzeari eta Prozedura Kriminalaren Legearen 520. eta 527. artikulua aldatzeari buruzkoa). Izan ere, PKLren 527.b) artikulua idatzita geratuko litzateke atxilotuari edo presoari, inkomunikatuta dagoen bitartean, lege bereko 520.2.d) artikuluan aintzatetsitako eskubideaz baliatzea galarazteko moduan. Hau da, “*nahi duen familiakoari edo pertsonari atxilotu bera eta une oro zainpean zein tokitan dagoen komunikatzeko eskubidea*” (Prozedura Kriminalaren Legearen 520.2.d) artikulua). Ikus PUNTO Y HORA: “Legezko bahiketa”, in *Punto y Hora*, 346. zk. (1984), 12. or.

40 Jesús Martínez Torres, 1982tik, Polizia Nazionaleko Informazio komisario nagusia eta terrorismoaren aurkako borrokaren arduradun nagusia zen. Bere pertsonaz eta mailaz igotzeaz, bai eta zalantzan jarritako praktikez ere, ikus DE LA CUADRA, B. “Ustezko torturatzaile baten igoera jasanezina”. *El País*, 1985eko martxoaren 3a. Zehatzago esanda, atxilotetan nola parte hartu zuen eta nola gidatu zuen atxi-

etxebizitza batera eraman zuten, eta bertan gau bat eman zuten eskuburdinak jarrita, eta bidean zehar mehatxatu ere egin zuten “hil” egingo zutela eta “frogak” utziko zizkiotela, “kontu-garbitzearen” itxura eman zezan⁴¹.

Rosa Jimenok berak kontatzen duenez, pistola batekin garondoa behartu zuten bere gurasoei telefonoz deitzera, eurekin bizi baitzen, bai eta Orioko Udalean behar egiten zuten lantokira ere, agertuko ez zela jakinarazteko, haurdun zegoen lagun bati lagundu behar zion aitazakiapen. Arrazoi horrek ez zituen gurasoak konbentzitu, eta egun batzuen buruan zerbait gertatzen ari zela susmatu zuten. Orduan Rosa Jimenoren gurasoak komisariara joan ziren alabaz galdezka, baina alaba ez zen agertzen atxilotu lege, atxiloketa nortasun faltsu baten bidez estali baitzen (Asuncion Echauri Ozcoidi, Iruñean bizi dena)⁴². Bizirik atera zirenen hitzetan: “Isilpean gorde nahi zuten atxiloketa... azken finean, bahiketa bat izan zen”⁴³.

Aldez aurretik, Rosa Jimenok Komando Autonomo Antikapitalistetako bost kideekin adostu zuten gunea “⁴⁴garbi” balego argi-seinale bat egingo zuela linterna batekin⁴⁵. Garai horretan, eskualdeko jarduera parapoliziala nahiko trinkoa zen, baina berak ziurtatu zien egoera bare zegoela. 1984ko martxoaren, 21: 30etik 22: 00etara adostu zuten hitzordua. Hala ere, hitzordua 48 ordu atzeratu zen, Frantziako poliziaren presentzia handi eta ezohikoa zelako Hendaia eta Baiona artean, eta horrek bost gazteak Ziburutik (Ipar Euskal Herria) irtetea eragotzi zuen⁴⁶.

Elkartzeko eguna iritsi zenean, martxoaren 22an, 19: 00ak aldera, Joseba Merinoren *Beltza* txakurrarekin batera zeuden bost gazteek Ziburutik abiatu zuten bidea zodiac motako txalupa batean, segada bat zela jakin gabe. Denek salbamendu-jantziak zeramatzen, haietakoren bat itsasora eroriko ote zen babesteko neurri gisa, eta horrek armak aldean eramatea eragozten zien. Bost gazteak ontziarekin atera ondoren, Joseba Merinoren beraren hitzetan:

“Itsasoa zakar zegoen, behe lainoa zegoen, eta Hondarribia parean harkaitzen kontra jotzeko zorian egon ginen. Erabaki genuen, hamar minutuan itsasargia ikusten ez bagenuen, buelta emango genuela. Orduan, Pasaia kanpo atrakatura zeuden bi merkantzia-ontziren argiak ikusi genituen. Bokalearen sarreran bertan erregairik gabe geratu ginen, zodiac txalupa bete genuen, eta sartu ginenean Rosa ikusi genuen linterna batekin seinale batzuk egiten, dena ondo zegoela adierazten zigutenak “.

Rosa Jimeno adostutako lekuan zegoen, poliziek eraman baitzuten bertara. Joseba Merino hara iristean, Rosa Jimenok honako hau kontatzen du: “Mugimendu handia zegoen, eta poliziek, denak balen aurkako txalekoekin jantzita, gero eta arma gehiago hartzen zituzten... Ni oso urduri jarri nintzen, eta galdetzen nien, inozoa ni, zertarako nahi zituzten arma horiek, eta,aldi berean, oihu egiten nien agindu zidatela atxilotuko zituztela, besterik ez”⁴⁷.

Jarraian, Joseba Merinok honako hau kontatu zuen: “Iritsita eta urrutitik, 50 bat metrora, dena normal ikusten zen; Rosa ohiko lekuan zegoela ikusi genuen linternarekin seinaleak egiten, eta lasai abiatu ginen hara”⁴⁸. Gero, gertaerak oldartu egin ziren, eta bere hitzetan:

“Linternaren seinaleak ikusi eta branka jarri genuen hemen (harkaitzen ondoan). Ez genuen ezer ikusten. Rosari kabo bat bota nion ontziari eusteko. Lehenengo, ‘Kurro’ eta ‘Pelitxo’ lehorreratu ziren. Ondoren, ‘Pelitxo’ ri poltsa bat eman nion eta ‘Kurro’ ri Beltza hartzeko esan nion. Txakurra hartzen makurtuta nengoela, eta ‘Kurro’ri hartzeko esan nion bigarren aldian, ‘Geldi!’ entzun zen. Polizia! ‘Eta tiro solte bat. Eta jarraian, ehunka tiro. Harriduraz harrapatu gintuen. Rosak soka batekin lotuta zituen oinak, eta tiro-segida hasi zenean, bertatik tiratu egin zuten; ondorioz, lurrera erori zen, eta ez zen zauritu. ‘Pelu’ eta ‘Pelitxo’ tiroen ondorioz hil ziren, gainerako kideak bizirik irauten saiatu ziren bitartean. Ni makurtuta nengoen txakurra hartuta, eta senez jokatu nuen. Txakurra askatu eta kareletik uretara bota nuen neure burua. Besakada batzuk eman nituen ur azpitik, balak nigandik oso gertu nola pasatzen ziren sumatzen nuen, eta batek sudurra ukitu zidan. Minutu eta erdi pasa baino lehen aurkitu ninduten [...]. Harkaitzetara igotzera behartu ninduten. Dena poliziaz beteta zegoen, eta egoera oso tirabiratsua zen, irainka eta mehatxuka hasi baitziren. “Ez mugitu, bestela hilko zaitut [...]. Poliziak histeriko zeuden”⁴⁹.

loketa, eta, ondoren, Rosa Jimenok poliziarri laguntzea onar zezan sortutako estrategia. Ikus: ONETO, J.: *Bahiketa... op. cit., 95-115. orr.*

41 AIZPURU ISARD, J.R.: *Segada... op. cit., 91. or.*

42 AIZPURU ISARD, J.R.: *Segada... op. cit., 92. or.*

43 LLORENTE, O. “Badia... op. cit.

44 LLORENTE, O. “Badia... op. cit.

45 LLORENTE, O. “Badia... op. cit; NAIZ. “Josebaren kontakizuna... op. cit.

46 AIZPURU ISARD, J.R.: *Segada... op. cit., 94. or.*

47 LLORENTE, O. “Badia... op. cit.

48 AIZPURU ISARD, J.R.: *Segada... op. cit., 97. or.*

49 KAMIO, A. “A fondo. Emboscada de Pasaia”. *Naiz*, 2014ko martxoaren 21a.

Era berean, aurretik honako hau ere azaldu zuen: “Erabateko ustekabea izan zen. Operazioa horrelakoa izan zen: operazioaren buruak bere gizonei esan zien berak tiro bat egingo zuela, denak tiroka has zitezzen seinale gisa balioko zuela; ustekabea harrapatzea zen kontua, erreakzionatzeko denborarik izan gabe. Dena oso azkar gertatu zen, segundo bakar bat ere ez zen pasatu gelditzeko esan zietenetik eta tiro-sorta izan arte”⁵⁰.

Rosa Jimenok adierazi zuen blokeatu egin zela, eta ezin izan zuela ezer egin gertaerak oso azkar jazo zirelako; izan ere, berehala eraman zuten pistolaz gorago dagoen bide batera, bide estu batetik, tiroek jarraitzen zuten bitartean. Bidetik gertu, 200 bat metrora, herriko jendea pilatzen hasi zen. Hala ere, lekua urrun eta ilun zela eta, ikuspen eskasa zegoen, baina horrek ez zuen eragotzi auzokide askok hura ikustea⁵¹.

Ondoren gertatutakoari buruz Joseba Merinok honako hau azaldu du:

“Aurkitu ninduten, eta metrailetaz mehatxatuta, uretatik aterarazi, harkaitzetara igoarazi eta eskuak buruan jarri zizkidaten. Rosa jada ez zegoen han, Kurro eta berori heltzen zioten txakurrak besterik ez nituen ikusi. Bitartean, polizia askok bizirik egon zitezkeen beste kideen bila jarraitzen zuten; biz-pahiru minuturen buruan, Guardia Zibilaren beste ontzi batekin Txapas ekarri eta uretara salto eginarazi zioten, eta, ondoren, harkaitzetara igotzera behartu zuten. Segadan Pelitxo eta Pelu eta txakurra hil ziren. Hirurak ilaran jarri gintuzten, arroken ertzean eta itsasotik hurbil, eskuak buruan genituela. Armarik gabe geunden, armak poltsetan geratu baitziren. Identifikatzeko agindu ziguten, eta, izena ematerakoan, Jose Luis Merino zela esan nienean, haietako batek esan zidan: “Zu koronela zara”; nik ezetz erantzun nion, ni Yosua nintzela [sic]. Poliziak oso urduri zeuden, eta, irain eta mehatxuka, metro batzuk banantzeko esan zidaten. Hiru txakur hurbildu ziren kideengana, bi metrailetan (bata Ingram M-10 eta UZI bat) eta bestea Corredora motako posta-eskopeta batekin, eta Kurro eta Txapasek hitzik eta ekintzarik egin gabe fusilatu zituzten ... metro bat baino gutxiagotik; itsasadarrari bizkar emanda erori ziren, gorpuetan talka egin zuten bala ugarien indarrez. Nire kideak fusilatu zituzten”⁵².

Joseba Merinoren arabera, Gorenako Polizia Kidegoko kalez jantzitako hiru poliziak egin zituzten fusilamenduak, inguruetan zeuden 20 lagunetatik. Dioenez, bere bizitza salbatzeak zerikusia du Enrique Casasen hilketaren erantzuleetako bat epaitu eta zigortzeko helburu politikoarekin⁵³. Horrez gain, mehatxupean, harkaitzen gainetik bide bateraino iristen den bidezidor bat igotzera behartu zuten, non kasualitatez Juan Jose Alzua eta Maria del Carmen Fernandez herriko bikote bat baitzegoen. Merinok dioenez, “[...] horiek atxiki egin zituzten lekuko gisa erabiltzeko [...], iritzi publikoari begira, sarraskia justifikatu nahi zuten, eta bikotea erabili, gelditzeko agindu zigutela frogatzeko. Bikotea entzumen-lekuko baino ez zen izan”⁵⁴. Bikote horrek, geroago, ‘geldi, polizia’ bat eta tiro asko entzun zituela adierazi zuen, baina ezin izan zutela ikusi nork bota zituen, poliziak lurrean atxikita zituelako⁵⁵.

Joseba Merinok ere azaltzen du operatiboa Madrildik zuzenduta zegoela, Espainiako Poliziaren Informazio Brigada Zentralaren bidez. Hala ere, operazioa Gipuzkoan egin zenez, beharrezkoa izan zen Brigada Probintzialaren laguntza, baita aipatutako ‘GEO’ taldearena ere. Gainera, operazio berezien taldea Donostiara joan zen egun batzuk lehenago, Londres hotelean ostatu hartuta⁵⁶.

Azkenik, azpimarratu behar da, auto judizialek jasotzen duten bezala, gazteetako hiruren altxamendua eta identifikazioa ez zela *in situ* egin. Hilaren 23ko goizaldean, epailea gertakarien lekura joan zenean, gazteetako baten gorpua altxatu zuten, eta honako hau adierazi zuten: “Poliziaren jardunean beste hiru pertsona daude inplikatur, orain arte non dauden ez dakigu”. Hilaren 23ko goizean, Donostiako polizia-etxearen dei bat jaso zen, eta esan zuten beste hiru gorpu aurkitu eta erreskatatu zituztela, eta zuzenean eraman zituztela Auzitegiko Institutu Anatomikora; batzorde judicialak ez zuen esku hartu gorpuen altxamenduan⁵⁷.

50 AIZPURU ISARD, J.R.: *Segada... op. cit.*, 98. or.

51 AIZPURU ISARD, J.R.: *Segada... op. cit.*, 99. or.

52 AIZPURU ISARD, J.R.: *Segada... op. cit.*, 99-100. orr.

53 Ikus Joseba Merinoren lekuko-adierazpen osoa, 2001eko urtarrilaren 8koa, 734/84 Aurretzako Eginbideetan (I. liburukia), 329-337 folioak. Ikus ere SOLA, R. “Bono... op. cit.

54 AIZPURU ISARD, J.R.: *Segada... op. cit.*, 101. or.

55 Hain zuzen ere, eskuburdinak jarri zizkieten, eta lurrean isilik egotera behartu zituzten, aurreikusitako gertakarien zain. Horrela egon ziren ordu laurden batez baino gehiagoz. DÍAZ HERRERA, J.; GÓMEZ, J.: “Horrela hil genituen... op. cit.”, 24. or.

56 Ikus NUÑEZ, L. (koord.): *Euskadi ta Askatasuna. Euskal Herria y Libertad. VI*, liburukia, Txalaparta, Tafalla, 1994, 119. or.

57 734/84 Aurretzako Eginbideak (I. liburukia), 4-5 folioak.

2. Kasuaren Ikerketa Judiziala

2.1. Prozedura judiziala Gipuzkoako Instrukzio Epaitegian eta Probintzia Auzitegian

Pasaiako portuan polizia-operatiboa egin eta lau gazteak hil eta Joseba Merino atxilotu zuten egun berean, Donostiako 2. Instrukzio Epaitegiak ikerketa-eginbideak ireki zituen gertakari haiengatik⁵⁸. Epaileak ediktu bat argitaratu zuen, non lekukoen edo datuak eman zitzaizketen beste pertsona batzuen agerraldia eskatzen zen, baina ez zen lortu inor borondatez aurkeztea epaitegian deklarazio bat egiteko⁵⁹.

Gertakarien polizia-bertsioa, funtsean, Donostiako polizia-etxeak epaitegira bidalitako informazio-oharrean jasotzen da, probintziako komisario buruak sinatuta, eta, dirudienez, Informazio Brigadaren zigilua dauka⁶⁰. Oharrak polizia-dispositiboaren muntaketa deskribatzen du, eta liskarrari buruz honako hau dio: “[...] 22:00ak aldera, zenbait gizabanakok okupatutako zodiac txalupa bat iritsi zen Pasaiako portura, haie-tako batzuk armatuta eta poltsekin jaitzita. Une horretan, geldi egoteko agindu zieten, eta tiroketa hasi zen Segurtasun Indarren eta aipatutako gizabanakoen artean. Tiroketa horren ondorioz, horietako lau hil ziren [...] eta beste bat atxilotu zuten, [...] eta zenbait arma eta dokumentu harrapatu zizkieten. Une hartan berreskuratutako armetatik, zehazki, pistola batekin eta metrailleta batekin egin zuten tiro elementu terroristek, eta bala-inpaktuak ikusi ziren Estatuko Segurtasun Indarretako kideak zeuden lekutik gertu zeuden petrilean eta harkaitzetan”. Eta hauxe esaten amaitzen du: “[...] inguruan bi gazte zeuden, eta, tiroketa hasi aurretik, terroristei “Polizia, geldi “oihukatu zitzaizela entzun zuten. Adierazpen horiek informazio-ohar honekin batera doaz”.

Atestatuan ez da jaso gazteek ustez tiro egindako pistola eta metrailadoreari buruzko argazki- edo balistika-txostenik, ezta, poliziaren bertsioaren arabera, tokiko arroketa eta petriletan ikus zitezkeen jaurtigaien (balen) inpaktuei buruzkoa ere. Operazioan erabilitako polizia-armak identifikatzeko txostenik ere ez zen egin. Era berean, aurkeztutako polizia-eginbideetatik ezinezkoa da polizia-dispositiboa zuzendu eta/edo bertan esku hartu zuten agenteak identifikatzea, probintziako komisario nagusiak informazio-oharra agintaritzaren bidali zionetik harago.

Ondoren, maiatzaren 29an, “Justiziari laguntza ukatzeko ustezko delituagatik” hasitako prozeduraren harira, epaileak deklaratzera deitu zituen Eusko Jaurlaritzak agindutako ikerketa egiteko arduradunak⁶¹. Epailearen aurrean egindako agerraldi horretan, Eli Galdos Herrizaingoko sailburuordeak lekukoen nortasuna eta ikerketa horren informazio iturriak eman zituen⁶². Herrizaingoko sailburuordearen adierazpenen ondoren, hurrengo egunetan zazpi lagun deitu zituzten, eta lekuko bakarra identifikatu zuten. Azkenean, 1984ko uztailean, eginbideak ireki eta hilabete gutxira, kasua artxibatu egin zen⁶³. 2000ko maiatzera arte, hau da, zorigaitzoko gertaera gertatu eta 16 urtera arte, ez zen kasua berriro ireki, lau gazteen familiak bultzatutako akusazio partikularrak eskatu ostean. Ondoren, Azpeitiko Udala ere herri-akusazio gisa aurkeztu zen.

58 Donostiako 2. Instrukzio Epaitegiaren 734/1984 Aurretzako Eginbideak.

59 AIZPURU, J.R.: *Segada... op. cit.*, 163. or.

60 734/84 Aurretzako Eginbideak (III. liburukia), 36-38 bitarteko folioak.

61 Autoa, 1984ko maiatzaren 19koa, Donostiako 2. Instrukzio Epaitegiarena, 734/84 Aurretzako Eginbideak (I. liburukia), 194. folioa eta hurrengoak, Eusko Jaurlaritzako hainbat arduradunen aurka justiziari laguntza ukatzea egotzita sumarioa irekitzeko agintzen duena. Horri dagokionez, AIZPURU, J.R.: *Segada... op. cit.*, 163. or.

62 BARBERÍA, J.L. “Herrizaingoko sailburuordeak epaileari jakinarazi dio tiroketaren lekukoak nor diren”. *El País*, 1984ko maiatzaren 30a.

63 Bestalde, 1984ko ekainaren 1ean hirugarren ikerketa bat iragarri zen gertatutakoa argitze aldera. Jose Maria Mohedano Giza Eskubideen Aldeko Elkarteak bultzatutako ikerketa honen jatorria poliziak postak erabili izanaren aurrean zegoen sinesgabetasunean zegoen. Ikerketa hori, amaitutakoan, garai hartako Barne ministro Jose Barrionuevori helarazi behar zitzaion, baina ez dago jasota ibilbide luzeagorik izan zuenik. ORGAMBIDES, F. “Pasaiako tiroketan postak erabiltzeari buruzko azalpena eskatuko dio PCEk Barrionuevori”. *El País*, 1984ko maiatzaren 31.

2.1.1. Liskarraren lekukoaren adierazpenak

2001eko urtarrilean Instrukzio Epaitegian egindako deklarazioan⁶⁴, Joseba Merinok, Komando Autonomo Antikapitalistetako kide izaki egindako delitu batzuegatik zigorra betetzen ari zela, gertatutakoa “segadatzat” jo zuen. Merinok epaitegian emandako bertsioak bat egiten du lehen azaldukoarekin⁶⁵, eta azpimarratu zuen fusilamendua izan zela, gazteek ez zituztelako erabili armak, poltsetatik atera ere ez zituzten egin. Azaldu duenez, agenteek inor bereizi gabe egin zuten tiro, eta “Pelu” eta “Pelitxo” tiroen ondorioz hil ziren. Merinok uretara bota zuen bere burua, eta minutu batzuk geroago erreskatatu zuten. Harkaitzera eraman zutenean, “Kurro” eta “Txapas” atxilotuta zeuzkaten, eta hiru agentek “fusilatu” zituzten, metro bat baino gutxiagora, aurpegia agerian zutela, eta agenteon ezaugarri fisikoak zehazten ditu.

Rosa Jimenok, berriz, 2001eko martxoan deklaratu zuen epaitegian⁶⁶. Dispositiboan parte hartzeari buruzko poliziaren bertsioaren arabera, komandoetan parte hartzeagatik atxilotu zuten, eta atxilotetan “jakin zuten Komando Autonomo Antikapitalistetako talde batek Frantziatik igaro nahi zuela Gipuzkoan hainbat ekintza egiteko”, eta ez zuten esan “amutzat” erabili zutenik⁶⁷. Jimenok, ordea, atxilotetan tratu txarrak eta torturak jasan zituela adierazi zuen, Komando Autonomo Antikapitalistetako kide izatea ukatu zuen, eta Dionisio Aizpurua “Kurro”rekin “hitzordua hitzartzera behartu” zutela esan zuen. Gertakarien gauean, harkaitzeraino eraman eta soka batekin lotu omen zuten oinetatik. Zodiac txalupa iritsi zenean, Rosak linterna batekin adostutako seinalea egin zuen, txalupa hurbildu eta bertatik “Kurro” jaitsi zen. Une horretan poltsa bat eman zion, poliziak sokatik tira egin zion, eta Rosa lurrera erori zen. Une horretan, tiroak entzuten ari zela, tokitik aldendu omen ziren.

Maria del Carmen Fernandez lekukoari ere hartu zioten deklarazioa berriro, Juan Alzua lagunarekin baitzegoen Pasaiako Itsasargiaren pasealekuan. Gogoan izan behar da gertaeren bertsio polizialak, zeina ondoren emandako informazio-oharraren bidez jakinarazi baitzen, bikote hori aipatzen zuela poliziak gelditzeko agindua eman zuela egiaztatzeko lekuko gisa. Bada, bi adierazpenetatik ondorioztatzen da gertakariak baino ordubete lehenago atxilotu eta eskuburdinak jarri zizkietela poliziek, lurlean etzanda egotera behartu baitzituzten, eta ezin izan zituzten gertakariak ikusi polizia-dispositiboak iraun zuen bitartean, eta biek entzun zituzten “geldi, polizia” oihukatzea eta ondorengo tiroen hotsa. Jakina, lekukotza horiek ez dute poliziaren bertsioa berresten, ezta gezurtatzen ere, eta ez dute azaltzen zergatik atxilotu zuten bikotea, ez eta operatiboa ez ikusteko erabilitako gogortasuna ere.

2.1.2. Komandoari konfiskatutako armak eta dokumentazio garrantzitsua eskuratu ezin izatea

2001eko urrian, Gipuzkoako Probintzia Fiskaltzak bi eginbide egiteko eskatu zion epaitegiari: alde batetik, polizia-dispositiboan parte hartu zuten agenteak identifikatzea; eta, bestetik, komandoak zeramatzan armei buruzko txostena eta horiei buruzko balistika-txostena eskatzea poliziariei⁶⁸. Gazteek erabili omen zituzten armei dagokienez, poliziak adierazi du Instrukzioko 5. Epaitegi Zentralera bidali zituztela, Joseba Merino eta Rosa Jimeno ere epaitegi horren esku utzita, eta txosten balistikoa, behin eginda, organo horri “igorriko” zitzaiola⁶⁹. Instrukzioko 5 zenbakiko⁷⁰ Epaitegi Zentralean egindako eginbide horietan jasotzen da Pasaiako operatiboan aurkitutako armen zerrenda zehatza, zehazki metraileta bat eta hiru pistola, eta adierazten da arma guztiak “balarekin zeudela errekamaran”⁷¹. Hala ere, eta agintaritzaren judizialari bidalitako aktan jasotzen denez, konfiskatutako armak “Poliziaren Zuzendaritza Nagusiko Identifikazio Kabinete Nagusiko Balistika Sailera bidali ziren, azter zitzaten”, eta “dagokion txostena egin ondoren, haren agintaritzara bidaliko dira”⁷².

64 Joseba Merino lekukoaren deklarazioa, 2001eko urtarrilaren 8koa, 734/84 Aurretzako Eginbideak (I. liburukia), 339-337 folioak.

65 Ikus gorago, 2.3 apartatuan.

66 Rosa Jimeno lekukoaren deklarazioa, 2001eko martxoaren 19koa, 734/84 Aurretzako Eginbideak (I. liburukia), 373-381 bitarteko folioak.

67 Informazio-oharra, 734/84 Aurretzako Eginbideak (I. liburukia), 37-38 bitarteko folioak.

68 Fiskalaren idazkia, 2001eko urriaren 9koa, 734/84 Aurretzako Eginbideak (II. liburukia), 450. folioa.

69 Ofizioa, 2001eko abenduaren 4koa, Gipuzkoako komisario probintzialarena, 734/84 Aurretzako Eginbideak (II. liburukia), 455. folioa.

70 17/84 Sumarioa, Instrukzioko 5 zenbakiko Epaitegi Zentrala.

71 Instrukzioko 5. Epaitegi Zentraleko 17/84 Sumarioko polizia-eginbideak, 734/84 Aurretzako Eginbideetan (II. liburukia), 574 folioan eta hurrengoetan daudenak.

72 Ibid., 585. folioa.

Jarduketetan agertzen den txosten balistiko bakarria Enrique Casas senatariaren hilketari buruzkoa da, zeinak, hemen interesatzen zaigunari dagokionez, emaitza negatiboa ematen baitu; horrek esan nahi du Pasaiaiko komandoari konfiskatutako armak ez zirela erabili hilketan hartan⁷³. Hala, Pasaiaiko kasuan, ikerketa polizialak eta judizialak ez dute jasotzen gazteek konfiskatutako armak erabili izanaren zantzurik; izan ere, argazki-erreportajeak ez ditu jasotzen petrilean eta harrietan ustez utzitako bala-inpaktuak, eta ez dago jasota tiroei buruzko txosten balistikorik egin zenik.

Polizia-atestatuan ageri den begizko ikuskapenaren aktan aipatzen den argazki-erreportajea aurkitzeko eginbideek ere ez zuten emaitzarik izan, non Gipuzkoako Identifikazio Brigadako agenteek “liskarra gertatu zen lekuaren eta agertutako gorpuen argazki-erreportaje bat” jakinarazi baitzuten⁷⁴. Hala ere, Donostiako ertzain-etxeak bidalitako argazki-txostenean ez dira ageri “Pelu” eta “Pelitxo” gorpuen argazkiak, ezta “leku-ko argazki-erreportajea” ere. Bi dokumentuok berreskuratzeko saiakera ugari egin ziren, poliziak ikerketan sartzea lortu gabe⁷⁵.

2.1.3. Polizia-operazioan parte hartu zuten agenteak identifikatzeko saialdi hutsalak

Epaitegiak eskatuta, Gipuzkoako Probintzia Komisariak 2001eko abenduan erantzun zuen Madrilgo Informazioko Brigada Zentralaren eginbideetan jasota zegoenaren arabera, gertakarietan lau agentek parte hartu zutela, eta haien zenbaki profesionalak idazki horretan ematen zirela; beraz, Instrukzioko Epaitegiak inputatu gisa deitu zituen lau agenteok⁷⁶. Urte bereko maiatzean, akusazio partikularrak eskatu zuen gertakarien unean Probintziako Informazio Brigadako komisario buruari deklaratzera deitzeko, idatzi zuen informazio-oharraren edukia argitu zezan eta operatiboan parte hartu zuten agenteak identifikatu zitzaizkien⁷⁷. Eskaera hori 2001eko irailean eta abenduan errepikatu zen, eta 2002ko otsailean berriro ere, eta epaitegiak ez zuen erabaki eskaera egokia zen ala ez. Aurrerago ikusiko den bezala, 8 urte itxaron behar izan ziren, 2009ra arte, eskaera hori aintzat hartu eta Informazioko Probintzia Brigadako arduraduna nor zen deklaratzeko.

2002ko ekainaren 6an, Instrukzio Epaitegiaren aurrean agertu ziren Poliziaren Zuzendaritza Nagusiak identifikatutako lau agenteak. Inork ez zuen zuzenean parte hartu ikertutako gertaeretan, batzuk Pasai San Pedron baitzeuden tiroketatik oso urrun, eta haietako bat baino ez zegoen tiroketa gertatu zen harkaitzaren inguruan, baina ez zuen zuzenean parte hartu. Identifikatutako agenteak Joseba Merino ertzain-etxera eraman zutenak baino ez ziren.

2002ko azaroan, inplikaturako gainerako poliziak identifikatzeko eskatu zitzaion berriro probintziako polizia-etxeari, eta Donostiako polizia-etxeak berretsi zuen ez zegoela beste agenterik. Egoera horretan, 2003ko urtarrilean, berriz ere errekerimendua egin zitzaion Poliziaren Zuzendaritza Nagusiari, eta informazioko polizia-etxe nagusiak erantzun zion polizia-eginbideak (373. zk.) Auzitegi Nazionalako Instrukzioko 5 zenbakiko Epaitegi Zentralean egongo zirela (Joseba Merino eta Rosa Jimeno epaitu zituzten), eta jada deklaratu zuten lau agenteen zenbaki profesionalak eman zituzten berriro.

Egoera horretan, 2003ko otsailean, biktimen senideek eskatu zuten Polizia Nazionalari berriz ere eska ziezaiotela, bai Probintziako polizia-etxeari, bai Zuzendaritza Nagusiari, polizia-operatiboaren arduradunaren, tiroen egile materialen eta esku hartu zuten gainerako agenteen nortasuna eman zezaten, eta ohartarazten zitzaion, halaber, epaitegiaren instrukzio-lana oztopatuz gero erantzukizun penala izan zezaketela. Idazki berean, exhortoa eskatu zioten 5 zenbakiko Instrukzio Epaitegiari, Poliziaren Komisaria Nagusiaren 373. zenbakiko polizia-eginbideen kopia bidal zezan. Halaber, gertakarien unean Donostiako polizia-etxe buroa zenaren eta Polizia Nazionalako Informazio Brigada Nagusiko arduraduna zenaren agerraldiaren es-

73 Ibidem., 391. folioa eta hurrengoak.

74 Begizko ikuskapenaren akta, 734/84 Aurretzako Eginbideak (I. liburukia), 48. folioa.

75 Begizko ikuskapenaren akta sinatu zuten Identifikazio Brigada Probintzialeko agenteen agerraldia lortu bazen ere, ia ez zuten eman argazki-erreportajeari buruzko inolako informaziorik, adibidez, 435. folioan: “Ezin du ziurtatu, halaber, jarduketetan zeudenak baino argazki gehiago dagoenik, eta adierazi du bila ibili direla eta ez dutela ezer aurkitzen [...] eta ezin duela ziurtatu hilotz guztien argazkiak egin ote ziren [...], ez baitu gogoratzen bala-markak ote zeuden harkaitzetan [...]”.

76 Donostiako 2. Instrukzio Epaitegiaren 2002ko apirilaren 24ko probidentzia, 734/84 Aurretzako Eginbideak (II. liburukia), 458. folioa. Inputatutako agenteen deklarazioak autoetako 464-475 folioei dagozkie.

77 Akusazio partikularraren idazkia, 2001eko maiatzaren 16koa, 734/84 Aurretzako Eginbideak (I. liburukia), 440. folioa.

kaera berretsi zuten. 2003ko martxoan, Informazioko Komisaria Nagusiak, aurreko erantzuna errepikatuz, zera erantzun zion: “ez dago beste daturik”.

Ikerketan ez aurrera ez atzera geratu zenez, akusazio partikularrak Auzitegi Nazionalen jarraitutako 22/1984 Aurretiazko Eginbideen kopia partziala aurkeztu zuen. Bertan, erreferentziako polizia-eginbideen zati bat jasotzen da, eta Rosa Jimenoren atxiloketaren ondorioz polizia-operatiboa egitea agindu zuen polizia-agentea identifikatuta agertzen da, garai hartan Informazio Brigada Nagusiko zerbitziburua zena (gaur egun, Informazioko Komisaria Nagusia)⁷⁸. Agente horri deklarazioa hartzeko eskatu ondoren, Instrukzio Epaitegiak ere ez zuen erabaki hori hartu, eta haren ordezkari Auzitegi Nazionalaren polizia-eginbideen erantzuna jasotzeko zain geratu zen. Lehen exhortoa 2003ko apirilkoa da, baina Auzitegi Nazionalak maiatzean erantzun zuen ez dagoela jasota 22/1984 zenbakiko eginbiderik. Uztailean berriro egin zen exhortoa, aurretiazko eginbideen ondoriozko 17/84 sumario-zenbakia adieraziz, eta, Auzitegi Nazionalak behin eta berriz erantzun ez zuenez, 2004ko urtarrilean eta martxoan beste exhorto batzuk egin ziren. Lehen errekerimendua egin eta urtebetera, Auzitegi Nazionalak urtebete lehenago akusazio partikularrak adierazitakoa berresten duten polizia-eginbideak igorri zituen.

2.1.4. Preskripzio bidezko behin-behineko artxibatzea eta ikerketarekin jarraitzeko agindua (2004-2005)

Harrigarria bada ere, Auzitegi Nazionaletik datorren exhortoa jaso ondoren, eta 2004ko apirilaren 30eko probidentziaren bidez, epaileak egitateak preskribatu ahal izan direla dio, “jarduketan egoera eta igarotako denbora ikusita”. Fiskala horren alde agertu da, “Zigor Kodearen 131. artikulua ezartzen dituen epeak igaro direlako”⁷⁹. Akusazioek auziaren ustezko preskripzioari buruz emandako erantzun luzean⁸⁰, prozedura errudunaren aurka zuzentzen den uanean preskripzio-epea eteteari buruzko eztabaida azpimarratzen da. Auzitegi Gorenaren jurisprudentziari aipamen asko eginez, akusazioek uste dute, preskripzioa eten dela ulertzeko, ez dela beharrezkoa ustezko erantzuleak nominalki identifikatuta egotea, eta nahikoa dela horiek “behar bezala definituta agertzea”. Alderdi hori garrantzitsua da polizia-jardueraren testuinguruan, non “arduradunen zirkulu itxia” dagoen, eta ezin dira alde batera utzi “banaka izendatzeko dauden zailtasunak”⁸¹. Beraz, akusazioak uste du ezin dela preskripzioa alegatu; izan ere, 1986an geldiarazi ondoren 2000an berriro irekitako ikerketa-eginbideak “operazioan parte hartu duten pertsonen talde hierarkiko, antolatu eta itxi” baten aurka zuzendu ziren. Halaber, Auzitegi Nazionaletik jaso berri ziren polizia-eginbideetan identifikatutako operatiboaren ardura duen polizia zitzazioa egiteko beharra berretsi da.

2004ko ekainaren 24ko autoaren bidez, Instrukzioko 2. Epaitegiak ikerketa artxibatzea erabaki zuen, ikertutako delituen preskripzioagatik⁸². Akusazioek aipatutako Auzitegi Gorenak emandako jurisprudentzia aipatu ondoren, epaileak bi arrazoi argudiatu zituen kasua preskribatutzat jotzeko: batetik, ikertutako gertaerak gertatu ziren moduari buruzko zalantzak, Joseba Merinoren deklarazioen artean dagoen kontraesana aipatuz; Donostiako 2. Instrukzio Epaitegiaren 2004ko ekainaren 24ko autoan jasotako lehen deklarazioan, Merinok honako hau adierazi zuen: “Pasaiako portura iritsi zirenean, ikusi zuten neska gazte bat zutela zain itsasertzean ... eta, lehorrera salto egiteko prest zeudela, “Geldi, polizia” oihua entzun zuten, eta, jarraian, tiro bat, eta gero, tiro-sorta bat. Gero, ... Merino jaunak atzera egin du bere lehen deklarazioan, eta adierazi du, lehorreratu ondoren, poliziak identifikatu eta fusilatu egin zituela bere kideak”⁸³. Eta, beste alde batetik, erantzukizun penalaren zantzurik ez zuten lau agenteei baino ez zitzaizela deklarazioa hartu, eta “gertakarietan parte hartu omen duten beste agente batzuk ez identifikatzea”⁸⁴.

2005eko apirilaren 18an, ia urtebete geroago, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak instrukzio-epailearen irizpidea zuzendu zuen, apelazio-errekurtsua baietsi eta ikerketa jarraitzeko agindu zuen, delitua preskribatu

78 Zehazki, Auzitegi Nazionalako Instrukzioko 5 zenbakiko Epaitegi Zentralaren 22/1984 Aurretiazko Eginbideak dira, 12. eta 13. folioak, jarraian transkribatuko den polizia-eginbidea jasotzen dutenak: “[...] Instruktorre jaunak xedatu duenez, Rosa María Jimeno Goicoechea atxilotuak bere galdeketa emandako informazioa ikusita, beharrezko polizia-zerbitzua jarri da martxan Pasai Donibaneko Portuko bokalean, “KOMANDO AUTONOMO ANTIKAPITALISTAK” erakunde [terrorista]ren komando bat lehorreratzearren zain, kideak aurkitu, atzeman eta atxilotzeko.

79 Aipatutako delituen preskripzio-epea 15 urtekoa da, oinarriko delitua giza hilketa bada, edo 20 urtekoa, eraiketa-delitua bada.

80 Akusazioen idazkiak 734/84 Aurretiazko Eginbideen (II. liburukia) 592-604 bitarteko folioetan daude.

81 Akusazioen idazkiak ... op. cit.

82 Ikus autoetan dagoen artxibo-autoa: 734/84 Aurretiazko Eginbideak (II. liburukia), 605-610 folioak.

83 Artxibo-autoa ... op. cit

84 Artxiboko autoa ... op. cit.

gabe zegoela irizita⁸⁵. Auzitegiak ez zuen iritzirik eman akusazio partikularrek frogan praktika behin eta berri ukatzeagatik alegatutako urraketa buruz, errekursoaren xedea preskripzioaren gaia zela argudiatuta. Hala ere, “1984ko martxoaren 22ko gauean Pasaiako Portuan antolatutako polizia-dispositiboan parte hartu zuten poliziaek [...] giza hilketaren delitua egin izanaren zantzuak” ikusi zituen⁸⁶. Funtsean, Auzitegiak giza hilketaren doloa hauteman zuen, bi elementuren baloraziotik abiatuta: 1) autopsien txostenen emaitzak, hainbat zantzu-irizpiderekin lotuta (erabilitako arma mota, tiroak jasotako gorputz-eremuak, tiroen talka-kopurua, agenteen eta lau hildakoen arteko distantzia, eta abar), bai eta auzitegiko medikuaren adierazpenak ere: “bi metroko distantziatik egindako tiroak ‘distantzia ertaina’ kontzeptuaren barruan egongo ziren”. 2) Azpimarragarria: Auzitegiak oso zalantzan jarri zuen poliziaren bertsioa, uste baitzuen ez zegoela behar bezala frogatuta, egindako eginbideetan oinarrituta, Komando Autonomo Antikapitalistetak bost kideek armak erabili zituztela agenteei tiro eginez: “[...] jarduketetan ez dago jasota hildakoei eta [Merino] jaunari harrapatutako armak horiek, hurrenez hurren, hil eta atxilotu zituen ekintzan erabili zituztenik eta ez dira identifikatu zeramatzen armek jaurtiriko balen inpaktuak aurkitu diren lekuak [...]”⁸⁷.

Delituen preskripzioari dagokionez, Auzitegiak eztabaida itxi zuen, eta interpretatu zuen, 1985ean biktimen senideek kereila jarri zutenean, “Behar bezala eta zehatz definitu zela gertakarien erantzuletzat jotzen diren pertsonen zirkulua [...], eta ez zen beharrezkoa inplikaturako agenteen identifikazio-zenbakia zehaztea”⁸⁸. Beraz, ikerketa jarraitu behar zen, eta, nahiz eta Auzitegiak ezin zuen agindu eginbide berriak egitea –gaia ez baitzen planteatu apelazio-errekursoan –, *obiter dicta* “gertakariak argitzeko komenigarriak izan daitezkeen” eginbide batzuk eman zituen, eta, horien artean, honako hau adierazi zuen: polizia-dispositiboa muntatzeko agindua eman zuen agentearen eta Donostiako komisario buruaren adierazpena (behin eta berriz eskatuta), biek eman baitezakete kasuaren inguruabarrei buruzko informazioa, eta komisario buruak gertakarien lekuan egindako argazki- eta bideo-erreportajea eta autopsian falta ziren argazkiak non dauden argitu dezake⁸⁹. Autopsia berri baten eta froga perizial balistiko baten bidez ikerketa jarraitzeko aukera ere aipatzen du Auzitegiak, 1984tik teknika arloan egindako aurrerapenei esker.

2.1.5. Eginbide berriak egitea eta esku hartu duten agenteak identifikatzeko oztupoak (2005- 2009)

Probintzia-auzitegiaren epaiaren ondorioz, Donostiako 2. Instrukzio Epaitegiak probintzia bat eman zuen 2005eko irailean, eta bertan zenbait frogak egitea erabaki zuen: a) dispositiboa agindu zuen agentearen adierazpena (Informazioko Brigada Nagusiko zerbitzuburu) eta Donostiako komisario buru ohiarena, lekuko edo inputatu gisa zitu behar ziren ala ez adierazi gabe; b) Gipuzkoako komisario buruak lekuko gisa egindako adierazpena; c) autopsiei buruzko dokumentazio guztia eskatzea.

B) lekuko-frogari dagokionez, Gipuzkoako komisarioa 2005eko azaroan agertu zen, eta adierazi zuen ez zegoela Gipuzkoan destinatuta gertakarien nean, eta ez zuela esku hartu dispositiboan. Informazio Brigada Nagusiko zerbitzuburu ohiaren eta Gipuzkoako komisario buru ohiaren deklarazioa arazotsuagoa izan zen; izan ere, epaitegiei euren ondorengo destinoan frogak egiteko eskatu zitzaizkien arren, akusazioek exhortoa errekurritu zuten lekuko gisa deklaratzeko deitu zituztelako eta ez inputatu gisa. Bi agenteok lehenengo deklarazioa egin zuten Madrilgo eta Lleidako epaitegietan, hurrenez hurren, ikerketari datu berririk ekarri gabe, eta akusazioen edo Fiskaltzaren esku-hartzerik gabe. Egoera horren aurrean, Donostiako Instrukzioko Epaitegiak bi agenteak 2006ko uztaileko epaitegian deklaratzera deitzea erabaki zuen, baina le-

85 Gipuzkoako Probintzia Auzitegiaren epaia [2. atala], 2066/2005 zenbakiduna, apirilaren 18koa, jarduketaren artxibatzea balio gabetuen duena 734/84 Aurretiazko Eginbideen 688 eta 700 bitarteko folioetan (II. Liburukia) dago.

86 Ibid., FJ 3.

87 Ibid., FJ 3.

88 Ibid., FJ 4. *in fine*: “[...] 1985eko azaroaren 5ean, hildakoen oinordekoen ordezkariak aurretiazko eginbideak berriz irekitzeko eskatu zuen, 1984ko martxoaren 23ko gauean heriotzen inguruabarrak argitu ez zirelako, eta polizia eska dakizkikeen erantzukizunak argitzeko [...] horrela, behar bezala eta zehatz zehaztuko zen gertakarien erantzuletzat jotzen diren pertsonen zirkulua, eta zirkulu hori ere zehaztuta geratu zen prentsa-ohararen eta agenteak erabakitako eginbidearen bidez, agenteen identifikazio-zenbakia zehaztu beharrik gabe. 1986ko urtarrilaren 24an, magistratu-epaileak Alcalá de Henaresko Instrukzio Dekanoko Epaitegiari exhortoa igortzea erabaki zuen, [Joseba]ri deklarazioa hartzeko. Ordezkari horrek, 2000ko urriaren 3an [...] operazioan parte hartu zuten polizia identifikatzeko eginbide jakin batzuk egiteko eskatu zuenean, ez ziren hamabost urte igaro azken eginbidea egin zenetik, eta, beraz, ezin da preskribatuzat jo salatutako delitua.”

89 Ibid., FJ 5. Begi-ikuskapenaren aktan (jarduketan 48. folioa), Paco Etxeberria forentsearen lekuko-aktan (430. folioa) eta komisario buruaren txostenean (90. folioa) agertzen diren alderdiak.

kukotzak 2007ko urtarrilera arte atzeratu ziren, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak (3. sekzioa) errekurtsua ebazteke zuelako. Errekurtso horretan zalantzan jarri zen deialdia inplikaturako agenteen lekuko gisa deitu zutelako, eta errekurtsua azaroan ezetsi egin zen⁹⁰.

Informazio Brigada Nagusiko zerbitzuburu ohiaren lekukotza-deklarazioaren arabera –orduan dispositiboa agindu zuela uste baitzen– lau gazteak hil ziren unean ere ez zen Pasaian egon, baina Donostiatik proposatu eta dispositiboaren antolaketan parte hartu zuen, eta adierazi zuen bere nagusia, Informazio Brigada Nagusiko komisario burua, izan zela operatiboaren arduraduna. Operazioa hainbat demarkaziotatik etorritako agenteek osatu zutela baieztatu zuen, eta lanpostu zehatzak iragarki-tauletan modu informalean esleitzen zirela, dokumentuetan jasota geratu gabe. Gipuzkoako komisario buruak, zeinak osasun-arrazoiengatik idatziz deklaratu baitzuen, ez zuen informazio garrantzitsurik eman, baina Brigada Zentraleko homologoak adierazitakoa berretsi zuen funtsean⁹¹.

Ondorioz, akusazioek 1984an Informazioko Brigada Zentraleko eta Probintziako Brigadetako arduradunen lekukotzak eskatu zituzten, bai eta Informazioko Brigada Probintzialeko eta Informazioko Brigada Nagusiko polizia agente guztien nortasuna ere, gertakarien unean, polizia-kidegoei igorritako ofizioen bidez. Hala ere, Instrukzioko 2. Epaitegiak frogak egitea ukatu zuen 2007ko martxoan eta maiatzean, froga horiek egokiak ez zirela argudiatuta. Ukazioaren arka apelazio-errekurtsoa aurkeztu ondoren, Probintzia Auzitegiak berriro zuzendu zuen Instrukzio Epaitegiaren ebazpena 2008ko otsailan, eta lekukotza-frogak egokiak eta beharrezkoak zirela ebazti zuen, gertakariak argitzeke⁹². Horrenbestez, agenteen identitatea eskatu zen, eta apirilean jaso ziren haien identitateak. Hala ere, jarduera judiziala urriaren amaierara arte egon zen geldirik. Orduan, Instrukzioko 2. Epaitegiak Informazioko Brigadako bi arduradunen deklarazioa hartzea erabaki zuen, eta exhortoa igorri zen berriz ere agenteen destinoko epaitegietara. Horrek nabarmen atzeratzen zuen prozesua, beraz, ez ziren errespetatu beharlagotasunaren eta kontraesanaren printzipioak, akusazioek ondorengo errekurtsuan alegatzen zuten bezala. Destinoko epaitegietan adierazitako lekukotza-frogak indarrrik gabe utzi ondoren, 2009ko martxoko autoaren bidez, Donostiako Instrukzioko 2. Epaitegiak errekurtsua ezetsi zuen eta exhorto bidezko deklarazioa berretsi.

2009ko maiatzean, Iruñean, 1984an Informazio Brigada Nagusiko komisario burua⁹³ zen agentearen adierazpena egin zen, eta Pasaiako dispositiboaren antolaketan parte hartu izana edo dispositibo hori ezartzeko agindua eman izana ukatu zuen. Gipuzkoara joandako Brigada Zentraleko agenteen nortasuna ez zuela gogoratzen esan zuen, eta ez zekiela zer agente zeuden destinatuta han. Ez zuen, beraz, gertakariak argitzeko informazio garrantzitsurik eman.

Interes handiagoa du geroago Informazioko Brigada Probintzialeko komisario buru ohiak 2009ko ekainean⁹⁴ Madrilgo 41. zenbakiko Instrukzio Epaitegian egindako deklarazioak, zeinak Donostiako polizia-etxe (Informazio Brigada) 1984ko martxoaren 28ko informazio-oharraren egiletzari buruzko informazioa eman baitzuen⁹⁵. Ohar hori oso garrantzitsua da; izan ere, gertakarien kontakizun polizial bakarra da, autoetan jasotakoa, Pasaiako gertaeraren ondorengo unekoa. Hala, Brigada Probintzialeko buruaren deklarazioan, aipaturako informazio-oharra idatzi zuen agentea zela aitortu zuen, baina, aldi berean, Pasaian egon ziren agenteek kontaktutakoaren erreferentziazko lekukotasuna zela azpimarratu zuen, baina ez zuen gogoratzen agente horien nortasuna eta ez zuen gordetzen komunikazio horien ezelako erregistririk. Gertakarien lekura “Goreneko Polizia Kidegoko Informazio Brigadan zeuden talde operatibo bat edo bi joan ziren, euren buruzagi hierarkikoekin”. Era berean, Gipuzkoako Brigada Probintziala garai hartan Poliziaren Zuzendaritza Nagusiko langileen erregistroan identifika zitezkeen 30 agentek osatzen zutela adierazi zuen.

90 Gipuzkoako Probintzia Auzitegiaren autoa da [3. atala], 2006ko azaroaren 13koa. Ikus 734/84 Aurretiazko Eginbideak (II. liburukia), 830-838 folioak.

91 Bi lekukotzak, 2007ko urtarrilaren 12koak, autoetan daude. Ikus 734/84 Aurretiazko Eginbideak (III. liburukia), 847. eta hurrengo folioak.

92 Gipuzkoako Probintzia Auzitegiaren autoa [3. atala], 2008ko otsailaren 11koa, 734/84 Aurretiazko Eginbideetan (III. liburukia), 945-951 folioak.

93 Lekukoaren deklarazioa, Informazioko Brigada Nagusiko komisario buruarena, zeina autoetan baitago. Ikus 734/84 Aurretiazko Eginbideak (III. liburukia), 1033-1034 folioak.

94 Lekuko baten deklarazioa, Informazioko Brigada Probintzialeko komisario buru ohiarena, zeina autoetan baitago. Ikus 734/84 Aurretiazko Eginbideak (III. liburukia), 1042-1044 folioak.

95 Informazio-oharrari dagokionez, ikus 734/84 Aurretiazko Eginbideak (I. liburukia), 37-38 bitarteko folioak.

2.1.6. Ikerketa ez atzera ez aurrera: agenteak ezin identifikatzea eta proposatutako ikerketa-eginbideak ukatzea

Hala, identifikatuta geratu zen gertaeren bertsio polizialari eusten dion informazio-oharra idatzi zuen agentea, eta hark onartu zuen ez zuela eginbide hartan jasotako gertaeren berri zuzenik izan, beraz, prozesua ez aurrera ez atzera geratu zen. Hainbat eginbide egin ziren, arrakastarik gabe, lau gazteak hil zituen “tiroketan” parte hartu zuten agenteak identifikatzeko. Biktimen senideen akusazio partikularrak azpimarratu zuenez, azken deklarazio horrek sendotasuna kentzen zion poliziaren bertsioari, eta, beraz, beste ikerketa-eginbide bat egiteko eskatu zuten, Poliziaren Zuzendaritza Nagusiari ofizioa bidaltzeko, Brigada Probintzialeko kide guztiak identifika zitzaizkien (30 agente inguru, Brigada Probintzialeko buruak adierazi zuenez), eta, ondoren, exhortoa bidali agente bakoitzaren destinoko epaitegiei, deklarazioa egin zezaten.

Hala ere, Donostiako Instrukzioko 2 zenbakiko Epaitegiak 2009ko irailean erabaki zuen Poliziaren Zuzendaritza Nagusiari eskatu behar zitzaizkion “jakinarazi zitzaizkien, halakorik izanez gero, 1984ko martxoaren 22an Pasaiaiko portuan ezarritako operatiboan parte hartu zuten Polizia Gorenako Gipuzkoako Informazio Brigadan destinoa zuten polizien zenbaki profesionalak”⁹⁶. Errekurtsoan akusazioak salatu zuen bezala, eginbide hori lehenago egin zen, eta 2002an lau polizia-agente inportatu eta deklarazioa hartu zitzaizkien. Alta, ez zuten gertakarietan zuzenean parte hartu, eta ez zuten gertakarietarako buruzko informazio garrantzitsurik eman. Errekurtso hori abenduan ezetsi zen, eginbidea 2007an eskatu eta ukatu zela alegatuz, eta, beraz, “irmoa, erasoezina eta, ondorioz, errepikaezina” zela argudiatuta.⁹⁷ Autoak, ikerketa-eginbidea egiteari uko egiteaz gain, jarduketak artxibatze bidea irekitzen zuen. Probintzia Auzitegiak apelazioan berretsi zuen ezespren hori⁹⁸, ikerketari zartako ederra eman ziona, ikerketarako bideak ia blokeatzen baitzituen gertakarietan zuzenean esku hartu zuten agenteen identitatea, berebiziko garrantziko gaia, zehazteko. Komeni da, beraz, ebazpen hori arrazoitzea. Auzitegiak 2001. urteko garaia ekarri zituen gogora, Poliziaren Zuzendaritza Nagusiari eskatu zitzaizkion Pasaiaiko gertakarietan parte hartu zuten agente guztien nortasuna emateko. Horri erantzun zitzaizkion Informazio Brigada Nagusian ondoren inportatuko zituzten lau agenteak baino ez zeudela jasota, eta tiroketa ikusi ere ez zutela egin deklaratu zutela. Ondoren, epailearen errekerimenduaren ostean, Donostiako polizia-etxeak berretsi zuen ez Poliziaren Zuzendaritza Nagusiari eskatu emandako identifikazio-datuak baino ez zeudela. Aurrekari horiekin, Instrukzio Epaitegiak 2009an erabaki zuen, esan bezala, Poliziako Zuzendaritza Nagusiari 2001ean egindako gauza bera egin zezan eskatzea, baina Pasaiaiko operatiboan parte hartu zuten Informazioko Brigada Probintzialeko agenteak bakarrik identifikatu behar zituzten, eta, beraz, ez da harrizkoa poliziaren erantzuna: nortasunak ez zeuden jasota. Egoera horretan, Auzitegiak, errekurtsoa ezetsita, honako hau erabaki zuen: “[...] kontuan hartuta eginbideak egiteko eskubidea ez dela eskubide absolutu eta baldintzatu gabea prozedurak denboran luzatzea eragozteko [...] lehen aipatutako ofizioen bidez identifikatu direnean dispositiboan parte hartu zuten eta inportatu gisa jaso diren hainbat agente, operatiboan arduradunak eta kontuan izaki bidalitako gainerako ofizioak, ulertu behar da egindako eginbideak ikerketarako nahikoak direla [...]”.

Aldi berean, Joseba Merino bizirik atera zen bakarrak taldeko ezagutze-saio bat egiteko eskatu zen, prozeduran inportatuta zeuden lau agenteetako bat ezagutzen zuen egiaztatze bide baten bidez. Era berean, Informazio Brigadako komisarioen erruduntasun-estigantza aurkezteko eskatu zen lekukotza faltsua eman izanagatik, eta diligenzia horiek ezetsi egin ziren 2011ko otsailaren 21eko probidentziaz. Bitartean, ikerketa artxibatze bidearekin jarraitzen zen, Fiskaltzak jakinarazi ondoren largespena bidezkoa zela, delitu-egitate ezin izan zelako egiaztatzea, akusazio partikularrak eskatu zuen, Brigada Probintzialeko agenteak identifikatzea ezinezkoa zenez, Estatu Funtzionario Zibilen Mutualitate Orokorrari (MUFACE) eska ziezaiotela 1984ko martxoan kotizazioa aurkeztu zuten Gipuzkoako polizia-etxeko Goi Mailako Polizia Kidegoko funtzionarioen zerrenda. Era berean, kontuan izanda ikerketarako betebeharrak sendotuari buruzko jurisprudentzia eta garai hartan Giza Eskubideen Europako Auzitegiak Espainiako Erresumari torturengatik salaketak⁹⁹ behar beza-

96 Donostiako 2. Instrukzio Epaitegiaren 2009ko irailaren 1eko probidentzia, autoetan dagoena. Ikus 734/84 Aurretzako Eginbideak (III. liburukia), 1053 folioa.

97 Autoa, 2009ko abenduaren 28koa, Donostiako 2. Instrukzio Epaitegiarena, autoetan dagoena. Ikus 734/84 Aurretzako Eginbideak (III. liburukia), 1078-1079 folioak.

98 Autoa, 2010eko azaroaren 29koa, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiarena [3. atala], autoetan jasota dagoena. Ikus 734/84 Aurretzako Eginbideak (III. liburukia), 1136. eta hurrengo folioak.

99 Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Beristain Ukarr Espainiaren aurka* kasuari buruzkoa [3. atala], 2011ko martxoaren 8koa.

la ikertu ez zituelako ezarri zizkion kondenak, senideen ordezkariak eskatzen zuten operazioan parte hartu zuten agenteen nortasuna egiaztatzeko bitarteko guztiak erabiltzeko, deklarazioa hartzeko, bai eta Informazio Brigada Probintzialeko burua inputatzeko ere, operatiboaren agintaritzaren arduradun gisa¹⁰⁰. Hala ere, Donostiako 2. Instrukzio Epaitegiak, 2011ko apirilean, bi eginbideak egiteari uko egin zion modu laburtuan, eta auzitegiak bi urte geroago berretsi zuen ezespena¹⁰¹.

2014an, José Bonoren memoria-liburua argitaratu ondoren, zeinean ministro ohi eta Diputatuen Kongresuko presidente ohiak Pasaia badiako gertakariari buruz hitz egiten baitzuen¹⁰², epaiketaz kanpoko exekuzio bat iradokitzen zuen modu batean, lau hildakoen senideen ordezkariak Bonoren zitazioa eskatu zuen Joaquín Leguinarenarekin batera, Enrique Casas senatariaren hilketaren mendekatzeko operazio politiko baten zantzuz horri buruzko deklarazioa har ziezaieten. Instrukzio Epaitegiak 2015eko uztailan eginbide hori ezetsi eta apelazioan berretsi ondoren¹⁰³, epaitegiak prozedura behin-behinean artxibatzea erabaki zuen 2016ko otsailaren 2ko autoaren bidez, eta Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak ebazpen hori berretsi zuen 2016ko ekainaren 20an, ohiko bide judiziala itxita¹⁰⁴. Bi ebazpenak I. eta II. eranskin gisa erantsi zaizkio txosten honi, hurrenez hurren.

Laburbilduz, Instrukzioko 2. Epaitegiak, prozesuan zehar egindako eginbideen laburpen zehatza egin ondoren, uste du, lau giza hilketaren delitu daudela ikusi arren, ez dagoela horien egiletza “behar bezala justifikatuta”. Hala, “32 urte hauetan zehar, ikerketa-bide guztiak agortu da, eta konplexua izateaz gain, zaila izan da, kontuan hartuta denborak aurrera egin duela eta eskatutako artxiboetan dokumentaziorik ez dagoela”.

Bai Instrukzio Epaitegiaren erabakia bai Auzitegiarena benetako babes judizialerako eskubidearen izaera erlatiboan oinarritzen dira (EKren 24. Artikuluan), baina eskubide horretatik ez da ondorioztatzen, argudiatzen denez, “mugarik gabeko frogaren eginbideak egiteko eskubiderik, egotzitako egitateak guztiz egiaztatzen, behin-behinean bada ere”. Hala, instrukzio-faseak gertakariaren izaera eta inguruabarrak eta gertakariaren parte hartu duten pertsonak zehazteko balio behar duela azpimarratzen da (Prozedura Kriminalaren Legearen 777. artikulua) eta ikerketa-eginbideek “gutxieneko eta ezinbesteko” izan behar dutela “ahozko epaiketaren irekitzeko edo largesteko erabakia hartzeko”, gutxieneko eta behar besteko sostengu faktikoarekin” (Prozedura Kriminalaren Legearen 779.1 artikulua). Bestalde, Gipuzkoako Auzitegiak, ikerketa ofizial eraginkorra egiteko Estatuari dagokion betebeharrari buruz GEEAk duen jurisprudentzia aipatu ondoren, uste du egindako eginbideak nahikoak direla, eta Instrukzioko Epaitegiaren Autoa berresten du.

Miguel Castells Azpeitiko Udala ordezkatzeko letratuak, Pasaian 1985ean gertatutakoa “Francoren heriotzatik izandako estatu-krimenik handienekotzat” jo zuen, eta bide judizialek haratago joateko asmoa erakutsi zuen, argi utzita familiak, herriak eta toki-erakundeak ez zutelako amore emango justizia eta erreparazioa lortu arte¹⁰⁵.

2.2. Babes-errekurtsoa Konstituzio Auzitegian

Egoera horretan, Azpeitiko Udalak, zeinak auzian herri-akusazioa egikaritu zuen, babes-errekurtsoa jarri zuen Konstituzio Auzitegian 2017ko urtarrilaren 5ean¹⁰⁶, argudiatuta ez zela ikerketa sakon, serio eta eraginkorrik egin

100 Ikus akusazio partikularraren idazkia 734/84 Aurretiazko Eginbideetan (III. liburukia), 1150 folioan eta hurrengoetan.

101 Probidentzia, 2011ko apirilaren 8koa, Donostiako 2 zenbakiko Instrukzio Epaitegiarena, eta 131/2013 autoa, maiatzaren 31koa, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiarena [3. atala], autoetan jasota daudenak. Ikus 734/84 Aurretiazko Eginbideak (III. liburukia), 1158 eta 1275 folioak eta hurrengoak.

102 Ikusi gorago, 2.3 apartatua.

103 Autoa, 2015eko uztailaren 17koa, Donostiako 2 zenbakiko Instrukzio Epaitegiarena, eta 284/2015 autoa, irailaren 24koa, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiarena [3. atala], 734/84 Aurretiazko Eginbideen 1394. folioan eta hurrengoetan, eta 1275. folioan eta hurrengoetan (III. Liburukia) hurrenez hurren.

104 Ikerketa artxibatzearen erabakiaren aurrean, mila sinadura baino gehiago bildu zituzten Probintzia Auzitegiari bidaltzeko, eta, hala, gertaerak argitu gabe gera ez zitezkeen. BERRIA. “Sinadura bilketa abiatu dute Pasaia badiako segadaren ikerketa artxibatzearen aurka”. *Berria*, 2016ko otsailaren 16a.

105 IANTZI, M. “Pasaia badiako sarraskia argitzeko eskatu dute senide eta abokatuek”. *Naiz*, 2016ko otsailaren 27a.

106 101/2017 babes-errekurtsoa, Azpeitiko Udalak sustatua, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiaren 3. atalaren autoaren aurka. Auto horiek

tiroketaren unean zeuden polizia eta gainerako agintariak identifikatzeko eta egia jakiteko¹⁰⁷. Alegatu zen instrukzio-epaitegiaren eta probintzia-azuzitegiaren ebazpenek, zeinek frogak egiteko eskaerak ezetsi eta kasua largetea erabaki zuten, benetako babes judizialerako eskubidea urratu zutela (Keren 24.1 artikulua) eta dagozkion frogabide guztiak erabili zirela (EKren 24.2 artikulua), bizitzeko eskubideari dagokionez (EKren 15. artikulua).

Hemen interesatzen zaigunerako, babes-demandak argudiatzen duenez, nahiz eta organo judizialek egiaz-tatu Pasaiako kasuan lau giza hilketako delitu egin direla, kasua artxibatu egiten da, ez dagoelako “behar bezala justifikatuta lau giza hilketako delituen egileak nor diren”, ustezko delituen erantzuleen nortasuna egiaz-tatzeko ikerketa-bideak agortu gabe.

Konstituzio Auzitegiak (Lehen Sala, Lehen Atala) errekurtsua atzera bota zuen 2017ko maiatzaren 24ko¹⁰⁸ erabakiaren bidez, errekurtsua epez kanpo aurkeztu zela argudiatuta (Konstituzio Auzitegiari buruzko Lege Organikoaren 50.1 a) artikulua¹⁰⁹). Hortaz, ez zen gaiaren funtsaz arduratu, eta ez zuen babes-errekurtsuan salatutako benetako babes judizialerako eskubidearen urraketa ugariei buruzko iritzirik eman.

2.3. Estrasburgoko Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren erabakia

2017ko azaroaren 29an, Espainian bide judiziala agortu ondoren, Miguel Castells Azpeitiko Udalaren ordezkariak errekurtsua aurkeztu zuen Giza Eskubideen Europako Auzitegian. Eta kontu horretan, hain zuzen ere, errekurtsua jartzeko legitimazio aktiboan datza errekurtsua ez onartzeko funtsezko zioetako bat. Izan ere, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ez zuen errekurtsua onartu 2018ko otsailaren 15eko ebazpenaren bidez, eta egun batzuk geroago jakinaraziko zitzaien errekurtsogileei. Ez onartzearen arrazoia Azpeitiko Udalak ‘salatutako [Giza Eskubideen Europako Hitzarmena edo CEDH] hitzarmena urratzearen biktima izaera ez duela’ da¹¹⁰.

Azpeitiko Udalak, ez baita eta ez baitu ordezkatzeko Giza Eskubideen Europako Hitzarmena-GEEHren estatu sinatzaile edo alderdi kontratugile goren bat, alde batera utzi zuen estatu arteko demandaren bidea (GEEHren 33. art.) eta bere garaian banakako demanda jarri zuen (GEEHren 34. art.), Giza Eskubideen Europako Auzitegian edozein prozedura hasteko ordezkoko formula gisa. Banakako demandaren bidea hartu ondoren, kontua da eskatzaileak bi baldintza bete behar dituela, eta baldintza horiek GEEHren 34. artikuluan daude jasota. Lehena da pertsona fisiko bat, gobernuz kanpoko erakunde bat, edo norbanakoen talde bat izan behar dela. Eta bigarrena, lehenengoaren muga gisa, pertsona, gobernuz kanpoko erakunde edo norbanakoen talde hori GEEHren beraren edo haren protokoloen ondoriozko eskubideren baten urraketa-ren biktimatza hartu izana.

Gainerakoan, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren arabera, Auzitegi Konstituzionalak “*atzera bota zuen familiek aurkeztutako babes-errekurtsua*”, eta, beraz, “*Espainiako Estatuaren barne eztabaida*” izango litzateke. Ondorioz, ezin du Espainiako instantziaren irizpidea aldatu, ezta kasua onartu ere¹¹¹. Hala eta guztiz ere, Giza Eskubideen Europako Auzitegiari aurkeztutako demandan, Azpeitiko Udalak jada alegatu zuen Konstituzio Auzitegiak babes-errekurtsua ez onartzeko oinarria –nabarmen desegokia– izango zela Gipuzkoako Probintzia Auzitegian bide judiziala luzatzea, jarduketak deuseztatzeko intzidentea aurkeztuta. Konstituzio Auzitegiak, ez onartzeko arrazoia oinarritzeko, badirudi alderdi hori aipatzen duela, eta dio Azpeitiko Udalaren babes-errekurtsua epez kanpo aurkeztu zela. Hala ere, Udalak adierazi zuen intzidente hori biktimen senideek bakarrik jarri zutela, eta, beraz, Udalak ez zuela zerikusirik izan. Hala ere, horrek Udalaren jarduna baldintzatu zuen, zalantzarik gabe; izan ere, deuseztasun-intzidente hori ebatzi arte itxaron behar

3100/16 apelazio-errekurtsuan eman dira, Donostiako 2. Instrukzioko Epaitegiak 734/84 zenbakiko aurretiazko eginbideetan emandakoaren aurka.

107 NAIZ. “Azpeitiko Udalak Auzitegi Konstituzionalera jo du Pasaiako badiako segada argitzeko”. *Naiz*, 2017ko martxoaren 14a. BERRIA. “Konstituzionalera, ‘Pasaiako segada’ argitzeko asmoz”. *Berria*, 2017ko martxoaren 15a.

108 EFE. “Pasaiako segadako lau hildakoen familiek Estrasburgora eramango dute kasua”. *Deia*, 2018ko otsailaren 10a.

109 2/1979 Lege Organikoa, Konstituzio Auzitegiari buruzkoa.

110 EFE. “Estrasburgoko Auzitegiak ez du errekurtsua onartzen 1984an Pasaian hildako lau KAAko kideengatik”. *El Diario Vasco*, 2018ko martxoaren 17koa.

111 EFE. “Estrasburgoko Auzitegia... op. cit.

izan zuen, eta, beraz, bide judiziala itxi, Konstituzio Auzitegira babes gisa jo ahal izateko. Laburbilduz, jakinda deuseztasun-intzidentea ez jartzeak ez lukeela barne-bide judizialaren agortze-falta ekarriko, Udalak ez zukeen intzidente hori eskatuko –ez bidezkoa, ez bidegabea–, eta ez zukeen epez kanpo aurkeztuko babes-errekurtsua. Aitzitik, Azpeitiko Udalak arduraz jokatu zukeen, biktimen senideek –ez Udalak berak– irekitako auzibidea itxi arte itxarongo baitzukeen¹¹².

Nolanahi ere, txosten honetan azaldu diren gertaeretatik argi eta garbi ondorioztatzen da ez dagoela ikerketa judizial eraginkorrik, eta Pasaiako polizia-operatiboan –lau pertsona hil zituzten– erantzukizun politikoak erabat ez direla argitu. Ia axiomatikoa da edozein estatu demokratikoren betebeharrak nagusia dela bere herritarren bizitza eta osotasun fisikoa bermatzea, baita estatu horren zilegitasuna ukatu eta legetik kanpo kokatzen direnenak ere. Babesteko betebeharrak horren barruan sartzen da, halaber, giza eskubideen urraketa larriak ikertzea –eta, hala badagokio, konpontzea–, bereziki urraketa horietan estatuko agenteak edo haien agindupean edo haien adostasunarekin jarduten duten hirugarrenak agertzen direnean. Hala, Europako Kontseiluaren esparruan, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenak leku pribilegiatuan kokatzen du, absolutua ez bada ere, bizitzeko eskubidea (2. art.). Giza Eskubideen Europako Auzitegiak eskubide horretatik hiru motatako betebeharrak eratorri ditu estatuentzat: lehenik eta behin, estatuko agenteek egin dezaketen indarraren gehiegizko erabilera kontrolatzea; bigarrenik, indarraren erabilerarekin lotutako operazioen plangintza eta kontrol egokia ziurtatzea; eta, azkenik, heriotzen ikerketa egokia eta eraginkorra bermatzea¹¹³.

Beraz, gaur egun eztabaida ezina da estatuak ikerketa-mekanismo eraginkorrak ezartzeko duen betebeharrak, erantzukizun penalak bizitzarako eskubidearen urraketa baten testuinguruan argitu ahal izateko, pertsona bat inguruabar susmagarrietan hil dela pentsatzeko arrazoiak daudenean¹¹⁴. Ikertzeko betebeharrak prozesal horren funtsezko helburua da egitateak eta erantzukizun penalak argitzea, ikerketek aukera eman dezaten zuzenbide-estatuarekiko konfiantza publikoari eusteko eta legez kanpoko egintzekiko estatuaren kolusio- edo tolerantzia-itxura prebenitzeko¹¹⁵. Hori bereziki garrantzitsua da estatuko agenteek armak erabiltzeak emaitza hilgarria duenean; testuinguru horretan, ikerketa ofizial eraginkorra are garrantzitsuagoa da¹¹⁶. Garrantzitsua da adieraztea ikertzeko betebeharrak hori ezin dela arindu segurtasun nazionalako arrazoiengatik: Giza Eskubideen Europako Auzitegiak erabat baztertu du gatazka armatu bat edo segurtasun-testuinguru kritiko bat egoiteak estatuko agenteek eragindako heriotza bat ikertzeko betebeharrak alde batera utz dezakeenik¹¹⁷.

Jakina, bitarteko-betebeharrak da, eta ez emaitza-betebeharrak; beraz, ezin da eskatu ikerketak nahitaez berrestea ustezko biktimen sostengatutako hipotesia, ez eta ikerketa-eginbideek kondena-epai batera eramatea ere¹¹⁸. Logikoaenez, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak, bere izaeratik eta funtzioetatik, ez du mota horretako ikerketa batek bete behar dituen baldintzen zerrenda itxi bat eskaintzen, kasu bakoitzaren inguruabar zehatzen arabera aldatuko baita. Hala ere, jurisprudentziaren garapenak argi eta garbi erakusten du ikerketak zorrotza, independentea, azkarra, biktimaren familiarentzat eskuragarria eta beharrezko publikitate duena izan behar duela, eta indarraren erabilera justifikatuta ote zegoen zehazteko gai izan behar duela¹¹⁹.

112 Errekurtsua Giza Eskubideen Europako Auzitegiri (demanda-formularioa), G.61.3 eta G.63 apartatuak.

113 Ikus, adibidez, erreferentzia gehiagorekin, CHEVALIER-WATTS, J.: "Effective Investigations under Article 2 of the European Convention on Human Rights: Securing the Right to Life or an Onerous Burden on a State?", en *The European Journal of International Law*, Vol. 21 - 3 zk. (2010), 701-721. orr.

114 Ikus, adibidez, *Rod Kroaziaren arkako* kasuaren onartezintasunari buruzko Erabakia, 2008ko irailaren 18koa, § 1. Oraintsuago, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak *Pozhyvotko Ukrainaren arkako* kasuan emandako epaia, 2013ko urriak 17, § 38.

115 CHEVALIER-WATTS, J.: "Effective Investigations... op. cit., 716. orr.

116 Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren beste agintari askoren artean, nahikoa da hemen aipatzea Giza Eskubideen Europako Auzitegiak emandako zenbait epai: *McCann eta beste zenbait Erresuma Batuen aurkako* kasua, 1995eko irailaren 27a; §161; edo *Perişan eta beste zenbait Turkiaren aurkako* kasua, 2010eko maiatzaren 20a, §102, geroagoko erreferentziekin.

117 1998ko uztailaren 28an Giza Eskubideen Europako Auzitegiak *Ergi Turkiaren aurkako* auzian emandako epaian ebatzi zen Hitzarmenaren 2. artikulua urratu zela, Turkiako indar militarrek PKKren aurkako operazio militar batean Havva Ergi ustekabeen hil izanari buruzko ikerketa eraginkorrik ez egiteagatik: "[...] Ez liskar armatu bortitzen prebalentziak ez heriotza ugariek ezin dute 2. artikuluko betebeharrak baztertu, segurtasun-indarrek eragiten dituzten liskarrek eragindako heriotzei buruzko ikerketa eraginkor eta independentea egin dadin ziurtatzeko, are gehiago oraingoa bezalako kasuetan, non inguruabarrak ez baitaude argi." (§85).

118 Konparatu SCHABAS, W.: *The European Convention on Human Rights. A Commentary*, Oxford University Press, Oxford, 2015, 135. orr.

119 *Ibid.*, 135. orr., dagozkion jurisprudentzia-erreferentziekin.

3. Memoria eta aitorpen instituzionala: gaiaren egoera

Gertaerak jazo zirenetik, bai senideek bai mobilizatutako gizarte zibilak behin baino gehiagotan egin dituzte manifestazioak, Rafael Delas, Pedro Mari Isart, Jose Mari Izura eta Dionisio Aizpuruaren heriotzen urteurrenaren harira¹²⁰. Hori guztia, gertaerak ahaztu ez daitezzen. Hala ere, aipatzekoa da manifestazio horiek ezin izan direla beti gauzatu. 2010eko martxoan, Azepeitian hilaren 27rako deitutako manifestazio baten berri izan ondoren, Dignidad y Justicia (DyJ) elkarteak bertan behera uzteko eskatu zion Auzitegi Nazionalari, ekitaldia terrorismoa goratzearen delitua zela uste zuelako. Egun horretan bertan emandako autoaren bidez, Auzitegi Nazionaleko Instrukzioko 2 zenbakiko Epaitegiak ere hala ulertzen du, eta segurtasun-indarrek ekitaldi hori saihesteko neurri egokiak har zitzatela erabaki zuen¹²¹. Euren heriotzaren 30. urteurrenean, Donibanen (Pasaia) eta Azepeitian omenaldi bana egin zieten lau hildakoei¹²².

Besteak beste, aipatzekoa da 1984ko martxoaren 23ko gauean hainbat jazarpen eta atxiloketa izan zirela Iruñean, Amnistiaren Aldeko Batzordeen agiriak banatzen ari zirenen aurka; agiritan, gertatutakoa salatu eta biltzarrerako deia egiten zen¹²³. Gainera, Rafael Delás Aizkorberen bi anai-arrebei, tiroketaren unean Alcalá de Henaresen kartzelan zeudenei, Auzitegi Nazionaleko Instrukzioko 1 zenbakiko Epaitegi Zentralak hileta elizkizunera eta ehorzketara joateko baimena ukatu zien¹²⁴. Bestalde, Pasai Donibaneko haitzetan, non tiroketa gertatu zen, haien gorpuen siluetak tinta zuriz marraztu dira, biktimak gogoratzeko.

Pasaiaiko gertakariari emandako erantzun instituzionalari dagokionez, aipatzekoa da lau gazteen heriotzak ez zuela ia erantzunik sortu erakunde publikoen aldetik. Alderdi politikoen artean, Eusko Alderdi Jeltzaleak eta Euskadiko Ezkerrak bakarrik gaitzetsi zuten publikoki gertaera. Azken horiek GEOek egindako fusilamendu gisa eta “ekintza terrorista” gisa izendatu zuten Pasaian gertatutakoa¹²⁵. Azepeitiko Udalaren ezohiko osoko bilkura batean, Herri Batasuna (HB) koalizio abertzaleak mozio bat aurkeztu zuen, baina ez zuten onartu. Mozioan, “*hilketa odol hotzean*” egin zutela salatu zuten. Hala ere, EAJK aurkeztutako mozioak aurrera egin zuen, eta, esan bezala, gertakariaren gaitzespenarekin bat egin zuen, poliziaen jokabidea zalan-tzan jarrita eta hausnarketa sakona egitera gonbidatuz¹²⁶.

Komando Autonomo Antikapitalistetakoa lau kideak hil ondoren, orduko Lehendakariak, Carlos Garaikoe-txeak, kritika ugari jaso ondoren, Herrizaingo Sailari eskatu zion ikerketa bat egiteko, baina azken finean, ez zuen lortu¹²⁷.

Estatuan, aldiz, egunak igarota, ia ez zen politikarien edo erakundeen ahotsik entzun. Espainiako Gobernuak ez zuen inolako ikerketarik egin, eta ez zituzten operazioa antolatatu, zuzendu eta gauzatu zuten pertsonen erantzukizunak argitu¹²⁸. Aitzitik, garai hartako Barne ministroak, José Barrionuevok, Espainiako¹²⁹ poliziaen lana goraiatu zuen, eta “oso eraginkorra” zela esan zuen, “azken egunotako arrakastek” erakusten zuten bezala, Pasaiaiko polizia-operazioari erreferentzia argi eta garbi eginez¹³⁰.

120 BERRIA. “Pasaiaiko sarraskia argitzeko osatuko dute Azepeitian, 20. Urteurrenean”. *Berria*, 2004ko martxoaren 27a; BERRIA. “Espainiako Poliziak Pasaian hildako KAAko lau kideei omenaldia egin diete”. *Berria*, 2014ko martxoaren 22a.

121 EUROPA PRESS. “Auzitegi Nazionalak debekatu egiten du ustezko lau terroristei omenaldia egitea”. *Europa Press*, 2010eko martxoaren 27a.

122 BERRIA. “Espainiako Poliziak... op. cit.

123 EGIN. “Zazpi atxilotu Iruñean, Pasaiaiko metrailatzea dela-eta egindako protestetan”. *Egin*, 1984ko martxoaren 24a.

124 EGIN. “Rafael Delas eta Josemari Izuraren hileta hunkigarria Iruñean”. *Egin*, 1984ko martxoaren 25a.

125 AIZPURU ISARD, J.R.: *Segada... op. cit.*, 160. or.

126 EGIN. “Hunkipena eta protestak Azepeitian, «Pelitxo» eta «Kurro»ren jaioterrian”. *Egin*, 1984ko martxoaren 24a.

127 AIZPURU ISARD, J.R.: *Segada... op. cit.*, 160. or. eta ondorengoak.

128 AIZPURU ISARD, J.R.: *Segada... op. cit.*, 161. or. eta ondorengoak.

129 Urte batzuk geroago, Jose Barrionuevori, Rafael Vera Segurtasunerako Estatu idazkari ohiarekin batera, 10 urteko kartzela-zigorra ezarri zioten Segundo Mareyren bahiketagatik, ETAko buruzagi batekin nahastu zuten herritar frantziar bat. 1998ko abenduan, Jose María Aznarren gobernuak indultatu zituen. QUITIAN, S. “Ilustres indultados”. *La Vanguardia*, 2018ko otsailaren 8a.

130 LA VANGUARDIA. “Azken egunotako operazioetan poliziak izandako eraginkortasuna eta arrakasta goraiatzen ditu Barne minis-

4. Ondorioak eta gomendioak

1. POLIZIA. Babes-errekurtsoan argudiatzen zen bezala¹³¹, benetakoko babes judizialerako eta ikerketa sakona egiteko eskubidearen ikuspegitik, ez da zentzuzkoa onartzea ezinezkoa dela Pasaiake operazioaren agintean egon ziren eta zuzenean edo zeharka parte hartu zuten agintariak zehaztasunez identifikatzea, eragiketa planifikatua eta aurrez antolatua izan zela kontuan hartuta. Instrukzio Epaitegiak behin eta berriz errekerimendua egin zuen operatiboan parte hartu zuten agente guztiak erabat identifikatzeko, baina Polizia Nazionalaren Zuzendaritza Nagusiak lau agente baino ez zituen identifikatu, eta horietako bakar batek ere ez zuen parte hartu ikertutako gertakarietan, eta ez zuen inolako informazio baliagarririk eman erantzuleak identifikatzeko. Akusazio partikularrak ikerketa etengabe bultzatzeak soilik ahalbidetu zuen identitateak eza-gutzea eta Informazioko Brigadako polizia-agintari gorenei –polizia sekretua ere esaten zaio– deklarazioa hartzea, Pasaiake operatiboan agindu edo zuzendu izana *modu sinesgaitzean* ukatzen baitzuten. Gure ustez, esanguratsua da bi agintariek ezer jakitea ukatzea edo operatiboan parte hartzen duen beste inoren nortasuna ez gogoratzea.

2. JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA. Ikerketa judiziala bultzatzeko jarrera proaktiborik ez izatea argi eta garbi ondorioztatzen da, nagusiki eta sintetikoki, hiru alderdi hauetatik:

Bat. Behin-behineko largespen-autoa 1984ko ekainaren 27an, gertakariak gertatu eta hiru hilabete eskasera. Polizia-operazioaren emaitza oso larria izan arren, instrukzioa amaitzen da indar hilgarria erabiltzea justifikatuta zegoen ala ez argitu gabe, lau gazteek alde zurretik eraso egin zutelako. Lau hildakoen ustezko arma-erabilera ezin da ondorioztatua, ezta zantzen arabera ere, auzi judizialeko polizia-atestatutik.

Bi. Rosa María Jimenori eta Joseba Merinori 1986an akusazio partikularrak eskatutako deklarazioa hartu ondoren, Fiskaltzak ez zuen ikerketa bultzatu, eta 2000. urtera arte geldirik egon zen; orduan, biktimen familien ordezkariak eskatu zuen eginbideak gauzatzea. Gertakariak argitzeko jarrera proaktiboa izan beharrean, Fiskaltzak ia beti uko egiten dio dispositiboan parte hartu zuten agenteak identifikatzeko eta Pasaian 1984ko martxoaren 22an izandako gertakariak argitzeko edozein ikerketa-eginbide gauzatzeari.

2016an ikerketa-eginbideak artxibatzean, gertakarietan parte hartu zuten agenteak identifikatzea lortu ez zenez, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak ikertzeko betebeharra eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzia aipatzen ditu, eta badirudi gehiago erabiltzen direla ukatzea justifikatzeko asmoz jokoan dauden ondasunen haztapenaren berri emateko baino (poliziak ustez lau pertsona hil izana ikertzea versus justizia-administrazioaren beharrak). Ontzat ematen da Polizia Nazionala Pasaian tiro egin zuten agenteak identifikatzeko gai ez izatea, identifikatzeko aukera guztiak agortzea ukatuta, akusazioek Gipuzkoako Informazio Brigada osatzen zuten 30 pertsona inguru identifikatzeko eta haiei deklarazioa hartzeko eginbidea proposatu arren.

3. LABURBILDUZ. Autopsiak, balaz jositako lau gazteek armak erabili izanaren frogarik ez izatea, kontaktuz ofizialean dauden kontraesan nabarmenak eta horiek objektiboki zalantzan jartzen dituzten lekukotzak eta datu periferikoak, eta polizia-agintariek gertakarietan parte hartzeko eta/edo antolatzeko ardura zuten agenteen nortasuna azaltzeari uko egitea, bai eta prozesuan eskatzen diren informazioak berandutzeko, oztopatzeko eta ezkutatzeko maniobrak behin eta berriz errepikatzea ere, horiek guztiak judizios kanpoko exekuzio baten antza duen polizia-operazio baten aldeko egitatezko presuntzioak pilatzen dituzten faktoreak dira. Egitatezko presuntzio horien aurrean, Estatuak, justizia-administrazioaren bitartez, presuntzio horiek konpentsatuko zituen ikerketa-ardura erakutsi behar zuen. Baina ikerketa judizial azkar eta eraginkor baten ordez, kalbario judizial bihurtu zen, etengabeko maniobra luzatzaileen bidez, objektiboki prozedura

troak". *La Vanguardia*, 1984 martxoaren 28a.

131 Babes-errekurtsoa, 48 or.

luzatu baitzen porrot egitea lortu arte. Ikerketa eraginkor batek zalantzak uxatzeko eta egia ezagutzeko aukera emango zukeen. Ikerketa arduratsu batek estatuko agenteen jardunaren aurkako egitatezko presuntzioak prozesalki berresteko edo baztertzeko aukera emango zukeen. Ikerketarik ez zenez egon, edo, kasu honetan, bistakoa denez ikerketa txarto egin zela, zalantzak areagotu egin ziren; izan ere, datuak kontuan izanda, giza eskubideak monitorizatzeko nazioarteko edozein instantziaren, eta, bereziki, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren ohiko estandarraren (kasua ezagutzeko aukerarik izanez gero) arabera, emaitza zigorra izango zen aringarririk gabe.

Beraz, giza eskubideen urraketa larriaren kasu paradigmaticoa da, eta lotuta dago edozein Askatasun Estaturen piramide axiologikoaren balio garrantzitsuenarekin: bizitza. Berebiziko urraketa guztiz larria, eta egia azaleratzearen aurkako sekulako erresistentziak agonia judiziala luzatu du 2018ra arte. Kasu paradigmaticoa da, zoritxarrez, bere gordintasun eta injustizia osoan erakusten duelako hamarkadetako borroka judiziala, justizia “administratu” beharrean kasua irensten duen arma-sare amaigabe baten aurrean. Horrez gain, erakunde ia guztien isiltasunak areagotu dute bidegabekeria-maila.

4. GOMENDIOAK Hori dela eta, txosten honen berri ematea gomendatzen dugu, eta Giza Eskubide, Bizikidetzaren Idazkaritza Nagusiak Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko 1966ko Itunaren Giza Eskubideen Batzordean demanda aurkezteko bideragarritasuna eta komenigarritasuna aztertzea eta, nolahi ere, txosten honen kopia bat bidaltzea Arartekoari, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeari, Gogorari, Espainiako Gobernuaren Idazkaritza Nagusiaren organo homologoari, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari, Espainiako Arartekoari, Europako Kontseiluko Giza Eskubideen komisarioari eta Nazio Batuetako judizioz kanpoko exekuzioei, exekuzio sumarioei edo arbitrarioei buruzko errelatore bereziari.

